

EUSKAL LITERATURA

(IV)



AURE-ITZA

Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakobak dakafidaz. ¡Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yafotf eta barneko zugatz onetatik txorijak aidatu ziranafen, abaf-dardarea ezta amafu.

Neurez betirafte ixilduko nintzan, bafuko ixurpen onentzat espailago azal edefik. ¡Euzkeraz batez-be! Erabilijak ixan diran izhantzak bost jafai-bide erakuts dagisgegubez, bafia ele onen irullak gerau gara.

Afokerijaren abotsai jaramon-egin ba-neutsoen, idazkirik ezeukazuben, ifioren aburubak atzaldut dagihiezan akatzak eta bost neronek dabidazalako, Bafia adibide bati gagohiozan, Aberatsaren se-



S. ONAINDIA

EUSKAL
LITERATURA

IV

Ogeigarren mendea
1910-1935

Bilbao, 1975



ETOR BIDEAN
KULTURA

ETOR LIBURUAK
Juan de Bilbao, 13
Apartado 193
Donostia

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

I. S. B. N. 84-400 - 9772-7

Depósito legal: BI 647 - 1976

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28 - BILBAO

A U R R I T Z

LENENGOAREN ITZALA.—Gurdi bultzatuak igi edo zirkin dagian bezela, tokitik tokira aldatuz, era berean erti edo arte arloan ere, gizon jakmtsu nalz talde bizkor batek saka egin ezkerro, saka orren oldea amaltu! arte beintzat, aurrera doa azkar-ki edo geldiro. Gure elertian ba-zan joan mendearen azken-UNETIK nalkoa neurritz zetorren saka ezkutu baten eragiña.

Balta nabari zan berriztu nai bizia ere. Munduko literatura guztietan, noizik-beinka, agertu oi dana noski: betiko zer batek gogalteragin oi digu, ta luzaroko egoera berdiñak aldatzea eskatu oi d.u. Leendiko gora-nalak, ots, abertzaletasunak, leena aldatu nal zuen zerbalt; udako euri gozatsu ostean, lurra toki berezietan mamcr egon oi da ointo ta zizak ernetzeko: berdintsu zegoen, antza, euskal lurra ere literatura barrutian. Eta or agertu zitzaizkigun sortze malllako ibilli, igiera, mogimentu ta oldar berriak. Ez, garal artako literatur egoeraz etzeuden asko naltara, ta beste zerbait opa zuten lengoaren orde. Gure gizaldiaren lenengotik —Arana-Goiri, Azkue, Txcmín Agirre'gandik asita— zebillen olako arnas berri gurea. Nai ori, egia, gutxi-asko mugatua zetorren, zertan zegoen zearo jakin gabe.

Aurreko gizaldiko kezka zebillen oralndik ikaraz alnbat idazle ta olerkariren gogo-muiñetan: il-agiñik geunkan euskera; jausia, arnas itoka gure erria ere. Biak zeuden gu guztion eskuaren eta bizi-arnasaren bearrean. Ondo zekusan eder-lana, obeto egi

trinkoa gure izkuntzari ezarria: auxe zan orduko kezkaeren erpiña. Egia billatu, egia zabal-azi. Egia ta ederra, ta «ona», Orixe'k zionez. Iru ta-sun oiekin euskal literatura, bertsoz ta itz askatuan, dotoretu, duindu, indar-erazi: ortan saiatuak ditugu, bereziki, lenengo gizaldi erdiko gizaseme guren alek.

XIX'garren mendean, gurean ere, erromantizismuak bota zizkigun bere erroak, sustralak; «Euskal-Erria»-n, «Euskalza-le»-n, «Ibaizabal»-en idazten zutenak, ia geienak, balña K. Etxegarai Gipuzkoa'n eta Arrese-Beitia Bizkala'n baltik bat, kutsu orrek jota adierazi zizldguten beren pentsamentu, oldozkun eta gogalak. Jazo oi danez, alere, argi dizditsu ta utsal orren galtzarrean ñirñir zebiltzan argi-ar pitin ixillago batzuk ere, egiaeren billaketa etengabeen. Etxekoa utzi gabe, jo zuten auek atzerrira ere, gogal ta eder billa. Erle antzo zebiltzan, an ta or eztigala zurgatuz etxeko aberaska edertu nalrik (Lauaxeta); onek, erromanriku sena alboraturik, euskal-sen barrutik atera nal du euskal-gunik bikaiñena (Lizardi); ark, azaletiko apalndura geiegiak zapuzturik, ideia, gogapen eta bulko giarrez jantzi nal digu euskal literatura (Orixe); auen ingurukoak, azkenez, askotxo alegia, guztien indar eta ekiñez (praxis) bitxi sorgiñekin eder-azi nal izan ziguten euskal elertiaren soña.

Idazle ta olerkari auek etziran joan, lendik ere esana ta gaur berriz dasaguna, bazter urrutietara alako barne-ikara ta bururakizun jori eske. **Ruben Dario**, adibidez, Paris'era joaten omen zan Musaen argi billa; «aragi ta ezurrezkoen billa» sarri, berak idatzi zuenez. Gure klasikuak —aipatu ditugun irurak— eta auen biran dantzatu ziran guztiak etziran olako itxasoan ezkotu; ortara barik ere ba-dute, ta izan zuten, naikoa eder-gai.

BARRU-BILLA.—Garai artako euskal literatura etzan izan, ez, 1929'tik 1936'rakoa, ain zuzen, surpeстетako dirdir-txirringa, edo-ta itxas-uiñak galn dakarren apar zuriaren pareko. Azala eder, dotore, ba'zuten ere, barnera jo naiez lerrenak zegizten,

bakoitzak bere kontzientzia beatu ta auznartuz. Aro artako euskal idazleak ba-zekian nundik zebillen eta nora zijoan: eusko-itxasoan murgil, kresal azpiko ondarreralño eldu nai zuen igarika. Talde kementsuak lanari loturik, alkarren leian, alkarri eupaka, ezertariko bekaitz, espa ta txibizkeri gabe. Alkarri egiñiko kritikak ere beti izan oi ziran balkorrak. Xede batez balt zebiltzan: bakoitzak izate barruan daramazkigun doal ta trebetasunai, Euskalerriaren onerako alegia, atakak iriki ta, urtegiko ur-jauzia lur legorrari legez, euskal jendeari parrastaka eskeiñi doal oien ekarri beroa.

Etzitun, berriz esan, kanpotiko lillurak itsuazi; barnera, euskal arimara jo zuten zuzenki. Ba-zan giroa ere, Abando'ko arranoak utzitakoa, makur eta zorigaltz askoren artean ere itzali eziña. Lizardi'k ederto bi aapaldi auetan:

«II-zaarki, bizi dugun gizona!
Egunoro berpiz lurpean dagona!
Bezat onets aren izena,
aberriz ta mintzoz gu yantziarena.

Aren argibidez ni yabetu
enegan bazala norbait atxilotu.
Ordun, yetxi nazu lezera;
nork gere muñean dugun itzalera».

Barne-itzalean daramagu bakoitzak geure gogo zarra. Eta euskal idazleak, ementxe aurkituriko ezkutuz sorgindurik, amets-bideak zear, poetak batez ere, nolako lana osatu ziguten! So ezker-eskubi. Aietxek bal eder ikusten Euskalerrria, zauri ta nekez zanpatua sarri! Balña denak, mataza trinko egiñik, galzkatu nal zuten. Nalmen sendoa, ostera, palaaka gotor izan! Ezbear izugarri batek, egia, ziplo utzi zuen aien oldarra. Labur: barrura nai au duzu aldikada bateko bereizgarririk bikalñena. Eta onurakorrena. Barneko arnas oldea ateko egjari soka. Gizonak beti uzten du zerbait dagian kondalran, balña egjazko gi-

zona ez billatu gero bere barneko itzal-osiñean baizik. Gizonak, euskaldunak, burutu lezazke une bateko gauza ederra; betikoa, ala ere, betiko gizona billa zazu barnean; iñoiz ere iltzen ez dana, nonbait.

Eta barne-zelaiz gabiltzalarik, erriak mendez mende luza-azi dizkigun kutsu ta arnasak ere, errezago idoroten. Modu orretan iritxi oi gara gauzak arrunt bezaln errez adierazteko bidetik ibiltera. Arruntean, egunerokoan duzu gure arima: arrunta duzu arima geienik, noizbeinka egazkada biziak ba'ditu ere. Bizitza bera, zer ote? Literatura guztietan, kontixu, gauzak arin ta errez adierazteko eran idatzi ta nabari jarri dituztenak, ez ote dira idazleetan eredu-maixu? Orkestako eres-maratilla zaratatsuak orobat beti darama melodi errez baten doiñu berrezgarria; doiñu orixe balta ots-bil guztiaren ardatz eta erdi-une; orren biran dantzatzen orkesta zaratatsu guztia.

IRAULTZA.—Arira biurtuz, idazle bakoitzak du bere izake-ra, besteengandik bereizten duena. Esan dugunez, naikoa ziran aipatu garal artakoak, eta denak batera jotzen ziguten beren lan-grña sutsuan. «Guda-aurrean iñolako kemena zuten euskal-idazleak», dio Zaltegi'k. Denak asmo berberak gartuta lan zegiten. Adimen-iraultza csatu naia noski; aus'reko gizaldikoen eta orduko askoren adimenak garbitu ta pentsakera berri baten ildoan sar-azi. Eta ondoren, pentsakera berrituz, idazkera ere berritu. Au egin zuen orduko talde —elite— autatu ark, guda aurreko azken urteetan batez ere.

Orduko olerkariet buruz Zaltegi'k ederld; «Oraln arte euskerak izan ditun olerkari garaienak eta bikalñenak —Lauaxeta, Lizardi, Loramendi, Etxeberria, Zaitegi, Jauregi, «ta oiekin batera Orixe, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugazti, Arozena, Labalen, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Arrizubieta»— Aitzol'en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930'g. urtetik 1936'g. urterarte».

Jarralan eragin bero baten zituak gogorazten dizkigu. Oge-tarnar bat urte erein azia gorakari erne ezezik, loratze zaba-

lean ageri zan: abandotarraren ikasle zintzoak ez zeuden lo. «Iruzpalau ez beste —dio Zaitegi'k— ez giñan iñongo alderdiko, euskaldun eta euskaltzale baizik. Ori bai euskaldun bakar-bakarrik. España ta Parantze'ko politika goraberak etzuten guregan oyartzunik arki al izan. Gure etxea maite genun. España'ko agintariak askatasun-apur bat eman ziguten-eta, orren babesean ari giñan eten gabe. Aldi artan, erle-mulko ugariaren antzera, gau ta egun katazkan aleginka ari giñan euskeraren alde».

Elburu batek bildu ta indartzen ginduan denok; «euskera orraztu, apaindu ta txukunean olerkiak eusko-gogoz egin». Or gure asmo ta ekiñaren jomuga; or gure auzia, euskal erriaren auzia, gure izkuntza gaizkatu; ez zedilla betikoz illik lurpera jetxi. «Ortarako, ahapaldi berri ta zar-berrituetan, edontzi txanbeliñetan iduri, gure edari zarberria euskaldunei eskeiñi genien» (*Euzko-Gogoa*, 1950, ilbeltza, I'go zenbakia, 5 orr.).

Gisa ortako gora-nal ta berritu bearrak, baiña, atx eta zinkuriñak, eztabaidak errez sortzen. Orduan ere bai, gaur, biar eta beti bezela. Mugaz bestekaldetik, gaur ere, ez al dabiltza askorik aldatu gabe leengo bide zarrez? Etzan urratu nai aspaldi danetiko gurdiaren ibilli pausutsua. Lizardi'k idatzi zuen zerbait bide berri orren kontrakoen aurka. Irakur bere «Itz-lauz».

Mogimentu orren sustatzaille izan zan Aitzol'ek berak ere aurreregi zoaztela, uste zigun, orduko idazle ta olerkariak. Lizardi'ren olerki batzuk —«Biotzean min dut», «Ondar gorri», «Baso-itzal», «Arrats gorri» ta olakoak— egazkada betean egiñak dira, nekez garaitzekoak, Orixe'ren esanez. Beste batzuk, berriz, era errikoiagoan osotu zituen, «Sagasti», «Etxeko kea» ta abar, antxiña bateko tankerari jarraituz:

«Aidean, eder usoa,
mendi-mendian, pagoa...
Etxe galngorriak emana
kea dun ederragoa».

Eta Aitzol'ek, bere goranai bizian ere, olako bertsuak gura-go. Zaitegi'k, ordea, Lizardi'ren eskolakoak, onela mugatzen olerki berriaren urratsak: «Ederra nabaitu ta azaltzeko bide bakar ori onartu bear ote dugu euskel-olerkariok? Nik ori ez uste. Erri-olerkien bide medar eta bakar ori zabalagotu ta ugarriagotu bear dugu noraezean, oraingo erri berrien artean bizi-rik irauñ nai ba'dugu, beintzat. Euzkadi'k bere kera zaitu lezake, naiz ta bide bakar ori ez onartu. Egia esan: kera ori zarrena dugu gure artean. Bide zarrak berriñ bear ditugu, nonbait, baita berriak asmatu ta urratu ere. Egamotzik ez dugu opa. Nork bere bideari lotu; ta gogoz, asmoz, yakitez euskalduna izaki, euskeraren onerako izango da beraren ekarria» (*Idem*, 11 orr.).

AITZOL'EN AROA.—Auxe da bolara artako piztu ta jantzi-nai gartsua. Nun-naitik sortzen ziran idazle bipillak. Ba-zan nun idatzi ere. Bizkaia'n: «Euzkadi», «Jel», «Aberri», «Jaungoikozale», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Euskera», «Euzkerea», «Ekin», «Karmen'go Argia», «Euzko», «Lan-Deya», «Jagi, jagi», «Hermes», «Arrati'ko Deya», «Bizkaitarra», «Eguna» ta ainbat orri txiki; Araba'n: «Arabarra», «Gure Mixiolaria», «Idearium»; Nafarroa'n: «La Voz de Navarra», «Zeruko Argia», «Amayur», «Irugarrengo Prantziskotarra»; Gipuzkoa'n: «Argia», «Riev», «Gipuzkoarra», «Txistu», «Euskalerriaren Alde», «Euskd Esndea», «Euskal-Erria», «El Dfa», «Igande Orria», ta abar; mugaz andik: «Eskualduna», «Eskualdun Ona», «Gure Herria»...

Emen —gaurkoz beintzat— idazle aien bitzta ta lanetatik, arlo luze-zabala baita, gaingiroko begitu ariña besterik egin ezinda, une artako zertxobait bakarrik jakin-erazi ai izango dugu. Sarri samar, azal-apainketan ibili ondokoz, maixuki bezela epaitu oi ditugu garai artako idazleak, baita beurok ezarritako eragiña ere. Jokabide esku-itsiarena noski. Lan sakon egiazkoa osatu nai duenak, orraitio, or ditu lekako eder bezela, orduko euskal idazle trebe aien lanak eguneroko ta aldizkarietan ba-

rralaturik. Irakur bitza lan ortan murgildu nai duenak, eta me-
sede ikaragarria egingo dio euskal literaturari; alderantziz, sator
izango beti, or-emen joka, baiña funtsezko lanik iñoiz egiteke.

Auxe dugu Aitzol'en belaunaldia, Gudu aurreko zazpi bat
urtean, berak batez ere, sustatu, bizkor-azi ta aurrera eraman
zigun orduko gora-nalezko mogimentu guztia, «El **D**ia», «Euz-
kadi» egunerokoak eta «Yaldntza» aldizkariaren bitartez. Aren
inguruan babestu giñan ainbat eta alnbat idazle ta euskaltzale.
Merezi du, beraz, tolosarrak dalako aroaren erregetza.

Bizkaia

1910-1935

«Urteak yoan eta urteak etorri, berant-eguzkiak yota iñolako amari ernagi mardulak ekarri ditu euskerak. Berandutxo gatoz Europe'ko erririk zarrenetakoak. Oraiñarte itzeatn landet eta egiñetan eder izan omen zan euskalduna.

«Berandu bada ere, asiak gera oraingoan itzetan berebat eder izan nairik. Iñoren aurrean mintzul, erabe la beldur giñan. Oraingoan, ordea, erabat lotsetatik atera gaitute ta entzutekoak entzun bear ditute non-naiko erdaldunek, norbaitek iragarri zunez. Iñola ere ez dugu il nai euskaldunok: badugu zer esan, badugu zer irakatsi gaztetan zar diran erri endekatu oriei. Ez dugu auxe beltxargaren eresia, erri zarrenetarikoaren berpiztea baño. Gure olerkariak bestetara diona, ontara yarri dezakegu: «Osto aiña txori, moskor leuden gisan, txio zurrustaka» ari gaituzu abestirik ederrenak txorrotxioka; ta abarrots, turutaz, adarrez ta txistuz lekaioka ospatu nai dugu gure Andre birgaztetuaren ludian sarrera».

(Zaitegi ta Plazaola'tar Jokin)

LABURPEN

Aldapa igo nairik aalak egitean, errez idoro oi ditugu ezker-eskubi, zut-zut naiz zearka oratzen diguten arantza ta larrak; baita kukupraka, masusta naiz Ama Birjifiaren atzaparrak ere, lore-aien zuri gorriak piri-para eskeinka.

Ori bera, ainbat idazle ta olerkari jator aurkitu ditut euskal literaturaren edesti ontan gorantz egitean ere. Egiari berea eman nai diot naitaez aitortu bear du: mende auxe dala, asieratik aurrera, gure literaturak izan dituen urteetako ederrik ederrena. Ikus ta azter lau-garren ale onetan datozen idazleak, eta orduan sortu zan gora-nai oldartsua.

BERPIZTE.—Il-urren zegoena ostera ere biztu-azoteko garaia zan: lan orri ekin bear, gogotsu. Abandotarraren oiuz ozena oiartzun aunditan ipiñi zuten aren ondorengoak. Gure gogoaren adierazpen beiñena gaizkatu bear zan lenengo; ots: euskera. Onela oiuz zegian ark: «Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jainkoarentzat». Euskeraz aldarrikatzen zuen ori. Eta axola orrek zirikatua, euskal arloan ari izan zan talde aundia; ez odol-ixurka gero, gogorkeri gabe mendiak ere sustruktzen ditun naimen gartsutan baizik.

IXILLEAN ari ta ari, miresgarritzko lana. Ekaitz ondoko eguzkiak laiño-tzan dirdir, ez ote bazterrak sustatzen? Aiek ere, era berean, erriak eta biotzak galdatu zituzten. Neke ta lanik gabe, ezta gauza baliotsurik burutzen. Neketik dator batasuna, lanerako leia! Erri arteko gudate aren aurreko zazpi urteak guztiz izan ziran gure izkuntzarentzat.

IDAZLEAK.—Ordukoak dira emen aipatuak, tokirik ezagatik beste mordotxoa ere saiets uzten dudan arren. Bai batzuk eta bai besteak orduantxe gertatu ziran izlari, idazle ta olerkari trebe.

Zazpi euskal errietatik —bizkaitar, arabar, gipuzkoar, napartar, lapurditar, baxenapartar eta zuberotar— aipatzen ditugu bertan. Auek, aiek baiño obeak agiaz? Gaur bear bada euskaldunok oro alkar obeki ezagutu ta artzen dugu; baiña garai artan ere, ondo alkar bizkor-azi oi genuen, baita alkarren leian ainbat liburu polit eta baliotsu osotu ta makiña bat artikulu eder mamitu ere. Izenik? Bear ote?

BIZKAITARRAK.—Azkue, Kirikiño ta onakoak bazter utzita ere, emen duzu sail bikain au, eriotz ostean oraindiño itzal galanta edatzen dutenak: Eguzkitza, B. Garitaonandia, Arriandiaga, Seber Altube, J. G. Ibargutxi, Zamarripa, Lauaxeta, Mikel Arrutza, Kepa Enbeita, Aita Serafin Albizuri, Lontzi Aba, Joseba Altuna, B. M. Garro, Gabino Garriga...

Eta aundi-maundion inguruko besteok: A. Martin Uriarte, A. So-loeta, N. Oleaga, Maruri, Zeferino Xemein, J. M. Errazti, B. Etxezarraga, Aingeru Madariaga, Luis G. Etxabarri, J. R. Larrinaga, R. Ortuzar, eta besteak.

OLER-LANA.—Bakoitzak zegokion saillari bere dordo ta bear-miña eskeiniirik, Bizkai aldean irudiketa arloa goi-goi jarri zutenak, bi auek ditugu: Laukinitz'eko olerkari goi-zalea ta Kepa Enbeita, Muxika'ko urretxindor kantari zolia.

Ez aaztu ale ontan eta urrengoan —ezertariko erre-min gaberik gero— J. Zaitegi'k diñoskuna: «Aitzol'en gizaldia oraindiñoko arorik aintzagarriena izan dala». Ez dakigu etorkizunak zer dakargun. Bedi, zorionez, obea; baiña orain arte onena izan danik ezin uka dezakegu. Joana da, geien bat, gaur ta biarkoaren izpillu.

1.—EUSTAKIO LARRABEITI TA TRABUDUA
(1847-1936)

Bertsolaria. Maldñatxo bat aldiz Kepa Enbeita'rekin erririk erri ibillitakoa, euskal jaletan batez ere. Azkenengo karlista gerratean moltzo buru edo sarjento izan zan. Zar-zar eginda ere, «Euzkadi» egunerokoan ematen zitun bere bertso-lanak.

Lujua'n jaloa genduan 1847'garren urtean. Galdakano'n il zan 1936-6-30'an.

Au idaztean emen dauzkat bertso-paper batzak, ark «Abesti Barriak» deituak, eta neri Galdakano'ko Josu Altuna'k eta egilearen illobak bialduak. Batek onela dio: «Mille ta bederatzi-reun eta amaseigarren urtean bei esnetsu bateri jarriak». Oge-tamabi aapaldi ditu zortziko txikitan. Gala oikoa da, beiaren esne-gorabera, sei azunbre euki baletz eta ezetz. Beiak amazazpi kuartillu ta erdi eman zituen. Eta bertsolariak:

Askotxo falta dira
sei azunbredako,
baña beiek errurik
iñondi ezteuko.
Gizonakaz ederto
portau da **Donato**,
kopea etzan falta
nai ebanantzako.

Bertsolariak ba-daki, bere irudimen azkarrez, gauzak txin-txo apalndu ta ura erreten leunez bolura eramaten.

2.—JAZINTO ARTALARREA GORROTXATEGI (1863-1951)

Karmeldar. Berriz'ko seme, an bait zan munduratu 1863-9-11'an. Asi-ikaskizunak amaitu ondoren, Larrea'n egin zuen profesia 1881-10-22'an; eta jarraian, ikaste nagusiak osatu zitunean, 1887-10-22'an mezakotu zan.

Gero, Markiña'n, Begoña'n, Gazteiz'en egin zuen arimazaintza. Kristoren Berri Ona zabaldu bearrez, etengabe ibilli zitzaigun erriz erri sermolari errime, bere arnas zerutarrez euskaldunen biotz-adimenak indartzen. Ainbat sermoe ditu ormen taiu orretan osotuak.

Markiña'ko komentuan il zan 1951-1-12'an, 88 urte zitula.

3.—JUAN BAUTISTA EGUZKITZA MEABE (1875-1939)

Gaurko idatz-roldean batez ere, ez datoz gaizki iñoren irizkiak. Ona, beste askoren artean aukeraturik, idazle onetzaz M. Zarate'k dioskuna: «Euskaldun, fededun eta jakitun izan zan Eguzkitza. Eta, euskeraz, bere fedea ta jakituria euskaldunen buru-biotzetan ereiten alegindu zan, bere bizitza guztian, orain arte lez, aurrerantzean be, euskerea geure siñestearn lagun eta jagola izan dakigun».

Izan ere, Eguzkitza'ren dudamuda ta kezka osoa itzotan josia daukagula aitortu genezake. Korapillo bipil bat-berarekin lotuta dakus Euskalerriaren siñestea ta bere izkuntza, euskera zarra; siñismentari laguntzeko, euskera jagon ta zaintzea dugu biderik onena. «Izkuntza aldatzea —dio ark—, erriaren gogoal datzea da; baña gogoal datzeak, aurreragoko siñeste, ekan-du ta izkeraren aldatzea beragaz daroa; euxegeatik, Euskalerriari, bere siñeskintza ta ekanduai eutsiteko, bere gogoari, gogo

orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsegu; baña oni eutsiteko, euskerea galdu ez dedin, lan egin bear dogu» (*Lenengo euskalegunetako itzaldiak*, 1921, 127 or.).

Bizitz-zeaztasunak.—Lemona'n jaiio zan Eguzkitza, 1875-11-28'an. Norbere egitekoa zer dan dakiten guraso onak egin oi dutenez, eziketa guri saiatua artu zuen etxean, ume-umetatik artu ere. Eta ezpiritu-balioz mordindurik zegoen sasoi artan, ezta arrigarri, goi-bizitzaz zaletu ta eliz-karrera ikasi nai izatea. Orrez gaiñera, argi ta bizkor zetorren Jon Ugutz gaztea.

Garai artako gazte askok bezela, emen Larrea'ko latin ikas-tetxean burutu zizkigun len ikastaroak, Gazteiz'era aldatuaz ondoren Jakintza ta Teolc'ia ikasteko. Uri ontako apaiz-ikas-tegian sei-zazpi urte egiñik, Ramon F. Pierola Gazteiz'ko go-tzaiaren esku-ezartez artu zuen apaizgoa, 1899-12-21'an. Apai-ztuta gero ere, ikastetxean bertan gelditu zan irakasle, zere-gin ortan urte batzuk emanez; gramatika ta erretorika erakus-ten zituen. 1903'an, urrillaren lenengoetan, ikastaro berriari asiera ematerakoan, berak egin zuen latiñez sarrerako itzaidia, ordako gotzai Cadena y Eleta, irakasle lagun ta ikasle mordo-aren aurrean. Itzaldi ortatik atera dezakegunez, ondo ezagutzen zituen ordurako Bergili ta Orati, eta auen olerki-lanak (*Boletín Oficial Ecclesidstico*, 1903, 388 orr.). Bertan zegoelarik lortu zuen Jainko jakintzarako eder-etsia izatea ere, Teolojian Li-zenziatura egiteko bear zituen ikasketak amaituaz. Oso aitua zan griego ta latin izkuntzetan batez ere.

Gerokoan, ia bizialdi osoa, 1904'gentik Lekeitio'n, itxas baz-terreko uri txukunean, eman zigun. Gazteak, eliz-karrera osoru nai zutenak bereziki, ementxe zeakaten Eguzkitza jaunak zu-zenduriko Latin-ikasgua: 1923'tik Eustasio Arritola'k lagundu zion. Egikizun ontan etzebillen txintxilimur: ba-zuen oraindik astia erriz erri itzaldiak egin, aldizkarietarako lanak idatzi, Eus-kaltzaindiari txostenez eutsi ta orduetan gaiak sakontzeko ere. Etzitun gaiñera batzaldi gutxi antolatu umetxoen Kristau-Ikas-

biderako. Etzan iñolaz ere gizaseme batean ziri bestean mara, odol-bizi ta zaiñart dabiltzan oietakoa. Arazo berberean, ia ogetamar urte igaro arren, pozik aurkitzen zan.

Lekuona'k cnela Eguzkitza'ren erlantz: «Apaiza zala esan bearrik ez dago —aren idazlanai galde—. Eta nolanaiko apaiza, izan ere. Jaungoikozkoa benetan, eta benetan jakintsu, gañera. Buruz ondotoxo jantzia, berez eta ikastez. Adimen triako ta sendoa. Sophistikeri gabeko skolastikoa. Oldozpen sakon eta argia. Itz ondo ebakia. Jardunean eta lagunartean, itz-murritza. Aurpegi irriksua orraitik. Lanean, langille gotorra, aspertzegabea. Akademiz Licentiatua» (*Euskera*, 1953, 39 orr.).

Gerra-aldian eta ostean, aron ibilli zitzaigun, baita aldikada batez illunpeko gela beltzean etzan ere, Etxepare gure len-idazlearen antzera. Azkenez, oraindik gordin, Lemoña'n ilzan 1939-8-12'an. Liburu sail ederraren jabe zanez, itzali zanean Lemoña'ko elizari utzi zion osorik. Baiña etziran, tamalez, esku onetan jausi, eta al zuenak eraman zuen al zuena. Gaur, beraz, aren ta onen eskuetan aurkitzen dira aren idatzi ta liburu autak.

Euskal lana.—Esan dugunez, aldendu gabeko antsi bat, artegatasun bat zeraman biotz barruan: euskera galdu ezkeru, gure erriarenak egin du, gure erri siñestedunarenak batez ere. «Jaunak emon eutsen —dío— gure asabai ta oneik itxi dauskue guri. Jaunak emondako izkuntza onek Jaunagana garoaz... Orain arte beintzar, euskera, gure siñesmenaren lagun andia, aizkide laztan-kutuna izan da. Kristiñau izatea beste lurreko arazo guztiak baño zerbait geyagotan daakagunok, auxegaitik bakarrik be euskera maite-maite izan bear geunke. *Izkuntza* zearo galtzeak errien siñismena eta oitura onai be kalteak dakarzkie» (*Arrasate'ko Euskal-eguneko itzaldia*, 1928, 11 orr.).

Kezka ta izi-aldura auek jota ibilteak, ordea, egundoko medeaa egin zion Eguzkitza'ri, eta bidenabar euskereari: olan izan ezpalitz, etzigun ziur asko burutu zigun aiñako euskal lanik burutuko. Soin eta gogo gareala gomut-arazirik, eta iz-

kuntza gure gogoaren izpillu, barru-bizia dala ikusirik, bere asmo ta gurariak euskeraz adierazten alegindu zan; au da: barruan zeramana itzez eta idatziz, gaur goxo biar latz, besteal ere erakusten salatu zan, euskaldun enparauak ere asmo ta elburu berdiñerantz zuzendu nalez.

Urte luzeetan ari izan zan idazten; bizitaldi osoan alegia. «Jaungoiko-Zale» sortu zutenetik, aldizkingi onen arteztzallletatik bat izan genduan, bertan lenengo ta gero, 1932'tik aurrera, «Ekin»-en aspertu barik idatziaz. «Eguzkitza» ta «Lemoatarra» erabilli zizkigun lanak izenperatzean. «Euskera, RIEV, «Yakintza», «Euzkadi», «Euzkerea» ta olako eguneroko ta aldizkarietan agiri dira aren lanak. Idazle eder dugu beti: galak illunak edo-ta gutxi erabilliak izanda ere, txit argi ta ulerterez irtetzen zuten Eguzkitza'ren luma bizkorretik.

Ona, banazean, argitara zitun liburu batzuk:

1) *Garbitokiko Arimaen illa* (Bilbao, 1915). Grijelmo Alar-gun eta Semeen irarkolan. 112 orriade. Sarda y Salvany'k erderaz idatzi zuenetik euskeraldua. Ederld azaltzen du eliz-gala, euskera oparoan. Bizkai'ko elizarik geienetan, zemendian, arimen bederatzi-urrena egiteko erabillia.

2) *Andra Maria'ren Loretako IIIa* (Zornotza, 1919). 290 orrialde. «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. Idazti eder-ederra, bal galez, bai izkeraz. Aberaska edo ezti-markatza bezain goxo, leuna. Argitara zanetik Bizkai'ko eliz-gizonak, aspertu gabe, eskuetan erabillitakoa: beronek bait dakarzki kristau-onoimen edo birtuteak apain ere apain adierazi ta azaldurik. Eliz-gizonak ezeze, erritarrak ere, ainbat lekutan, maiatzeko illean baltik bat, euren otoiitz eta irakurtaldiak egiteko aurrean eakia. Ementxe urrean —ba-dakit nik—, Boroa auzunean, Kepa Deunaren elizaxoan, loralllean arratsero ogetaz urteetan batu izan dira Andra Mariaren omenezko otoiitzak ariltzen, eta Eguzkitza'ren «Loretako IIIa»-ren bitartez osotu izan zituzten arrats-otoiitz eta elizkizunok.

3) *I. Lenengo euskalegunetako Itzaldia* (Bilbao, 1921). 134 orrialde. Euzko Argitaldaria. 1921'g. urteko irailaren 4-8 bitartean Durango'n egindako euskal jaietan irakurri zuen lana, Zabala Aitari buruzkoa. II. *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak*, Doneztebe-n 1923-garren iraillean ospatuak (Bermeo, 1926). Gaubeka'renean. 1 orrialdean.

4) *Arrasate'ko Euskal egunetako itzaldia* (Bermeo, 1928). Gaubeka'ren irarkolan. 15 orrialde. 1927'garrenko jaietan Arrasate'n onela zioan: «Euskera ezta alderdi bat edo besterena, euskaldun guztiona baño. Guztiona dalako, guztick maite bear dogu. Euskaldunok, zoritxarrez, geure arazo ta gora-beratan sari ezin alkar artu izan dogu: guztiona dan euskerari, euskeraren bizitari, dagokiozan arazoetan be batean aizkide bestean arerio, orain besarka gero atzaparka, gaur mosuka biar musturka ibilli gara sarri, zorigaitoz sarriegi; baño ori txarto dagola, nok ez-taki?: guztiona dan eta guztiok bardin maite bear geunken gauza batean orrela ibiltea, egin geinken zorakeririk andiena dala, tok ez-taki» (Zazpigarren orrialdean).

Gipuzkeraz ere egin zan beste argitalpen bat (Bermeo, 1928). 14 orr.

5) *Andoain'go euskal-jaietan egindako eleiz-itzaldia* (Zor-notza, 1929). «Jaungoiko-Zale» irarkolan. 19 orrialde. 1919-9-22'an ospatu zan jai au. Euskera ta euskal siñismena goraltzen dizkigu.

6) *Emakume euskotarrak* (Yakintza, 1930). «Kirikiño Saria», au da, urte barruan eguneroko edo aldizkingietan argitara emandako lanik bikaiñenak jaso bear zuena, «Euskaltzaleak» alkarteak jarri zuen mañaritar idazle azkarraren deduz; Santo Tomas egunean edatzen zan. Onela sei urtez beiñik bein. Lenengo urtekoa, ots, 1929'garrenekoa, Orixe'k eraman zuen bere «Iruleak» lanarekin; bigarrena, ots, 1930'garrenekoa, J. B. Eguzkitza'k bere «Emakume euskotarrak» lanarekin (Ikus «Yakintza», 1935, 14'garren zenbakian, 83 orr.).

7) *Argi Donea* (Zornotza, 1933 ta 1935). Bi argitalpen, Jaungoiko-Zale'ren irarkolan. 734 orrialde. Balzola'tar Prantzisko Abak egiña duzu, Donostk'ko «Argia»-k eraturiko batzaldian sariztatua ta Jaungoikc-Zale'k (Zornotza, 1924) argitara emana. Eguzkitza'k onela, bizkaieraz jar-tean; «Liburu au gipuzkoeraz agertu zan lenengoz. Donostia'ko Argia'ren arduraz eta ordañez. Esku artean erabilli eben abade-lagun askori entzun geutsen crduan: «Bizkayan be onakoxe baten bearrean gagoz eta auxe berau, gure euskeraz ba'lego, ondo baño obeto le-torkigu». Orren nai ziñanok, emen daukazue «Argi Donea» Bizka'l'ko euskeraz, zerbait aldatuta, baño guztiz gitxi. Gipuzkeraz eta Bizkaleraz Meza-liburu bat eta bardiña eukitea egoki litzakela-ta, Bizkai'ko euskaldunak errezago aitu edo ulertzeko bear zana baño beste gauza andirik ez dogu aldatu» (*Irakurleari*, V orr.). Zearo, on ikaragarria egin zien itzulpen edo egokitze onek Bizkai'ko abade ta lekaideal.

8) *Gizarte-auzia* (Zornotza, 1935). «Jaungoiko-Zale»-n irarkolan. 196 orrialde. Ugazaba ta langilleen arteko goraberak. Aurreko urteetan «Ekin» euskal asterokoan zatika agertu ziran lanak dituzu, txukun ta eraz jarrita. «Gai au zeatz eta osoro azaltzeko asmuz enintzan asi. Asmu orregaz EGIN'en idazten beste bazkide bat asi zala ba-nekian. Zeaztasunak orrentzat itxita, gauzarik jakingarri ta bearrenak lenbailen adierazo bear ziralara neritxon: origaitik asi nintzan. Gure lugin, arrantzale ta alogereko asko be gizartekeriaren sarietan jausteko arriskuan; bear bada, beste iñoz baño arrisku andiangoan egozala-ta, andi-andiak albalt lasterren azaltzeko asmuz eldu neutsan arlo oni. Gero gauzak aldatu egin dira-ta, lengo asmuak be beste elburu batera zuzendu bear. Arlo au zeatz lantzeko asmuz EGIN'en idazten asi zan bazkide zintzo ta langille bizkorra, gitxien uste genduanean, Jaungoikoak Beragana eroan dausku (G. B.): au dala~ta, esandakoak eta esan barik itxi dodazanak, pizka bat biribildu nai neukez» (*Ekin*, 46'garren zenbakian, 2'g. orrialdean). «Errizale» izenordea darabil Eguzkitza'k gizartekeri, baltsakeri ta antzeko galok azaltzean. Arlo au zeatz lantzekoa,

ordea, Eulojio Gorostiaga zan; baiña Jaunak berera eraman zuen 1932-9-14'an. Au dugu egia: aurrenik iñork saratu eza izan arren, gizarte auziari garai artan zegozkion xetasunak errez ta goxo eman zizkigula arratiar jakintsuak.

9) *Mexikotar Katolikoan alde* (Donostia, 1928). 1928-4-22'an, Loiola'n batu ziran Luistarrai egindako itzaldia. Gipuzkeraz.

10) *Beste itzaldi batzuk*. Aipatu ditugunez gain, urrengo itzaldiok ere merezi dute aipua: a) *Euzkeldunei euzkeraz* (Bilbao, 1915). Yurre'ko elizan, 1914-7-1'an, Kistar-irakaskintza zabalkundea zeritzan apaiz bazkunaren batzar nagusi egunean egiña; b) Karmelo Etxegarai'ri Euskaltzaindian sartu zanean irakurritakoa (*Euskera*, 1926, 26 orr.), eta abar.

11) *Euskerari buruzko lanak*. «Euskera» aldizkarian datoz auek batez ere: «Bai» ta «Ez» aditz aurrean» (1922); «Bizkai'ko euskeraren eta, batez be, bere adizpiakeraren aldakuntzak» (1925); «Conjugacion familiar o dialogada?» (1925); «Euskera idatziaren batasuna» (1922); «Kari» atzizkia» (1920); «Observaciones a algunos puntos de la Morfologia Vasca del Sr. Azkue» (1931); «Verbos compuestos, factitivos o causales: ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo?» (1930); «El sufijo -garri» (1930), eta abar; RIEV'en auek: «Dos obras inéditas escritas en euskera *Christinaubaren eracuspenea edo Doctrina christiana* (J. A. Mogel'ena) ta *Jesucristo gueure Jau-naren vioz sagraduco devocinoia* (1928); «Itz bakoitzak darakuskuezan euskal-izpiakeraren arau batzuk» (1924); «Kaxarrankaren goraberak eta Auriako jaya» (1927); «Mikoleta'ren euskereak eta gaur Bizkaya'n darabilgunak, ze alde ete dauke?» (1930); eta «Euzkerea»-n; «Conjugacion remota del transitivo vasko» (1935); «Las reflexiones del pretérito del verbo transitivo» (1933); «Euskal Esnalea»-n ere idatzi zituen etimologiazko zer batzuk.

12) *Eliz-itzaldiak*. Idazle oso ugaria izan zan. Amabost bat urte dirala, On Zirilo Artzubiaga'k, bera zartua zegoala-ta,

Eguzkitza'ren esku-idatzi danak eman zizkidan nik eurak argitaratzeko biderik baldin ba'nuen, arazo ori nere lepo artu nezala eskatuaz. Otzandiotar apaiz langillea il zanean, baiña, ark zeuzkan liburu ta idatzien jabe Bilbao'ko emakume-talde bat egin zitzaigun: nik neuzkanak ere berak eraman zituzten, eta arrezkero ez dut izan esku-idatzi aien albisterik. Dana dala, idatzi aiek askotxo ziran, itzaldiak denak, berak or-emen aldarrikatu zitunak, Santuenak, Garizumakoak, Jaierak eta abar. Argitaratzeko asmuz nenbillen; irarkola aurre-kontu ta eralgi-beararak eskuratuta neuzkan, baita nola irarri ere: iru ale lodi izango ziran. Baiña nire asmo ta lanak bide erdian geratu ziran porrot eginda. Egunen baten ikusiko al dute idatzi oiek merezi luketen eguzld galda!

13) *Cristoren Dotriñaco Icasquizunic biarrenac... Gure Jauna artu baño len icasi daguiezan eusqueldun umechuac* (Bilbao, 1911). Verdes-Atxirika'ren etxean. 20 orr.

Ba-ditu olerki batzuk ere.

1919-9-21'an euskaltzalndu zan. Eta, arrezkero, euskera zaindu ta edertzeko ardura duen alkarte onen arloari etengabe erantsia ibilli zitzalgun. Irakats-egikizuna zuen aurrenik, baiña ba-zuen oraindik era ta adiuntza alnbat txosten bikain Euskaltzaindiaren batzarretara aurkezteko. Ezpairik gabe, Euskaltzaindi barruan, iker-salllean batez ere, lan aipagarria burutu zuen Eguzkitza'k.

NOLAKO IDAZLEA ZAN?—Esan dugu: Eguzkitza idazle oparoa izan zan. Ume ta gazteak ikastetxeetan ematen duten burukomiña ta lana ez da izaten urria. Lemoarrak, ala ere, tarteka marteka idatzi egiten zuen. Idaztean, ordea, gala ikasi oi zuen lendabizi, zeatz eta sakonki; euskeraz oldoztu, euskeraz ausnartu, euskeraz idatzi.

Arrati araneke izkelgia darabñ geien bat; ez gero ari geiegi loturik, zabal eta ikasia baizik. Astun samarra dala esan dute batzuk, gramatika lege-arauak zeatzegi zaindu bearrez edo, bear bada. Aditza, bizkaltar aditza trebe ta nasai darabil beti. Beste

batzuk irudimenik ez duela ere egotzi diote. Ez gero? Erakuspenak, da nola, argituko dudamura. Ona zatiño au Arrasate'ko itzalditik jasota. «Euskalduna —dio— ta euskeraz mintzo dana, euskera darabillana, euskeraz itz-egiten dauana, gauza bat eta berbera dira: augaitik euskera guztiz, zearo galduko ba'litz, euskaldunik ez legoke ta Euskalerririk ain gitxi. Euskera zeatz galduta gero be, bear bada gure erri oni askok Euskalerrriaren izena emongo leuskioe baña ori illunari argia, txiroari aberatsa, galsoari osasuna, eriotzari bizitza deitzea beste izango litzake; izanik bako izen utsa, izen alzuna, berenez guzurra, euskera bari Euskalerririk ezin izan daiteke-ta» (6'garren orriddean). Ez dakigu sarritan zeri esaten diogun irudimena; bestalde, Eguzkitza'k badu izlari trebe nalz aur-irakasle (pedagogo) bati naiko dakion irudimena.

IRITZIAK.—Euskal idazlerik geienak gorengo mallan jarri dute Eguzkitza idazlari bezela.

N. Ormaetxea'k: «*Maiatzeko Illa ta Garbitokiko arimena*, bi liburutxo orietaz landa, J. B. Eguzkitza'k Euskaltzaindian egindako mintzaldiei begira egiezu. Gd zailetan eta argi euskeraz au baino ebeki mintzatu denik ez dakit ote dan Euskalerrian» (*Euskal Esnalea*, 1927, 250 orr.). «...nire ustez, ordnarte izan dogun euskal idazlerik bikaiñena» (*Karmel*, 1961, ur-tarrilla, 32 orr.),

M. Lekuona'k: «Prosa oparoa, itz ondo neurtua, joskera jatorra —bizkaieraz gutxitxo bezelakoa—; aundikeri puztu ta anpaturik gabea; dana adi-errez; itxuraz xdo, bañan estilo ondotxo landua, beaztoporik gabekoa... Idrru leuna gorulari trebearen eskuan antzo» (*Euskera*, 1953, 39 orr.),

Karmelo Etxenagusia'k: «Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitza'k: argi, otz, zuzen, kontuz... Bear bada, astunegitxua egiten jaku, luzarora, bere idazkerea, itzen garbitasunari ta gramatikako legeai lotuegi edo ddako» (*Euskal Idazleen Lorategia*, Donostia, 1969, 231 orr.).

Onek, eta M. Zarate'k ondoren, Aita I. Omaetxebarria'k eta Villasante'k bere elerti-kondairan egotzia, bir-esaten dute; au da: bizkortasuna palta zaiola Eguzkitza'ren prosari. Zergatik? Idazterakoan, bear bada, bai iztegian eta bai joskeran, bere buruari lege ta bide garbiegiak ezarri zizkiolako. Esanak esan, Eguzkitza beti duzu idazle jator, garbi, landua. Zein gaiari zein izkerari gagozkiola, ba-dugu zer ikasirik lemoar jakintsuaren idatzietan.

(Ikus *Euskera*, 1953, I, 39-40; S. Onaindia, MEOE, 706 orr., ta *Kardaberatz'i Omenaldia*, 123 orr.; I. Omaetxebarria, *Euskera*, 1959, 314 orr.; L. Mitxelena, HLV, 1960, 153 orr.; L. Villasante, HLV, 1961, 354 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Lorategia*, 1965, 231 orr.; Gabin Garriga, Bol. Amer. E. V., 1966, 14 orr.; Mikel Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 1970, 163 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 215 orr.; Jon Bilbao, Bibliografia, III, 95 orr.).

4.—BIKTOR GARITAONANDIA ARIÑO (1876-1929)

Gorputz eta gogo, ona, nolatan ikusten duen Irure'k euskaltzale bizkor au: «Txikia ta lodi xamarra; arpegia lerden ta zabala; gcrrikkak matrallak; begiak aundi ta alaiak; irriparrakin apaindutako ezpanak. Biotza sendo ta egin-zalea; izatez baikorra; etorkizunei, nola-naikoak izan, irriparrak ez zintu batekin agur egiten oitua; biotz-bera ta adiskideentzat adiskide zintzoa ta esku-zabala; lanean iraunkorra ta porrokatua; euskalzale ospatsu ta jakituna; apaiz gogotsu ta arduratsua; euskaldun jatorra, euskaldun utsa».

Zaldibar'en jaio zan 1876-3-6'an. Beronen aita erriko mai-xua zan-eta zori ta adiñuntza ederrak izan zizkigun len-ikaske-tak errian bertan pcliki asko osotu al izateko. Zeruak abots ederrez aberastu zuelako, kantua (solfeua) ta abesten ere umetatik ikasi zuen, lenengo Ermua'n eta Durango'n gero. Gaztetxu zala, amalka urteko, Orduña'ra joan zitzaigun, Aita Josulagunen ikastetxera, abeslari ta ikasle antzo: emen ikasi zuen ba-

txiller osoa. Andik laster, jaupari izan naita, Salamanka'ra aldatu zan, ango Josulagunen ikastetxean estudioak jarraltzeko. Apalzgoa jadetxi zuenean, Zamora'ko katedralean lortu zuen balta abeslari kargua. Balña etzaigun an luzaro egondu: koru ura utzi ta, Donostiraturik, berton, Jesuiten elizan, abeslari ta organu-jotzaille ogetalau urte eman zizkigun.

Berton il zan, oraindik gazte, 1929-8-3'an. Iñoizkorik gartsuen lanean zebillela iritxi zitzalon eriotza, apalz on eta kristotar zintzoari dagokionez. Euskalerra osoari on egiñez igaro zitzai-gun lur-galñ zear; Jalnkoaren aintza ta urko lagunaren ona, etzuen besterik billatu itzez eta lumaz, kantuz eta soñuz. Eta sarri esan oi dugu: «Zelako bizitza, alako eriotza». Gure alntzi-ñako aiton-amon baserritar leialen antzera itzali zan, baketsu ta bare-bare. Bizienak ebald zion bizi-aria. Azken unetan esaten zuen: «Betor Jaunak nai duenean!» Gertu zegoen beti Aren nala beteteko.

Il zanekoxe, Euskalerra osoaren samiña agerterazi zuten or-emengo eguneroko ta aldizkariak. Bilbao'ko «Euzkerea»-k, esaterako, onan idatzi zigun: «Garitaonandia'tar Bitor beti abertzale, beti euzkeltzale agertuten zan. Eta olako gixonik bein eta betiko galtzia, tamalgarrija da, ixan be, gure erri ta euzkerearentzat. Il yakun euzkeldun au, begiko ixan yaku beti, euzkerearen aldez gau ta egun, or ta emen, zintzo jokatu ixan daulako... Itz gitxitan esan leike, jaupari zintzo onen salla, onuratsuba ixan yakola euzkereari, bai bein!» (*Euzkerea*, 1929, 189 orr.).

Gizaseme ain duin ta txalogarriari zor zaionez, laster izan zituen zaldibartarralc billera, omenaldi ta oroigallu-jasotzeak. Bego emen auetatik bat, 1955'an Zaldibar'ko erriak eskeiñi ziona. Neri ere atsegin izan zitzaldan egiazki, berran esku artu bear izan nuelako, elizako itzaldian eta ondoren oroigallua es-talgetzean egin nuenagatik batez ere. Erri osoak artu zuen parte urte orretan: goizean meza abestu entzungarria, erriko kor-lalak ezin obeld kantatua; ondoren, eliz aurreko gomutagarria,

ta arratsaldean omenduaren «Aitona ta Billoba» bertoko neska-mutillak antzeztuta. Oroigarrian au jarri genduen: «Garitaonandia eta Ariño'tar Bitor jauna, apalz agurgarri ta euskaltzale onari, Zaldibar'ko erriak maitasunez jasotako Gomutagarria, 1955-XII-4'an».

EUSKALTZALE.—Erbesteko egotaldiak ez dira makalak, iñoiz moteldu ta erdi itzungi egin zalgun asabakandiko lera, berriz ere birbiztu ta ernarazteko gure biotz-aranean. Onako zerbalt gertatu zitzaion B. Garitaonandia'ri Zamora'n aurkitzen zalarik: beñik bein, erri-miñak dardarazia oartu zuen barrua. Bere adiskide Irure'k diosku: «Bere biotza ez izan gaztelerriko bazter batean eskutuan usteltzeko egiña, langillea ta eginzale porrokatua balzik; Zarnora'ko urte aiek bere euskal-zaletasuna piztu, bizkortu ta indartu baizik etzuten ba egin; beste askori gertatu zaiena ari ere gertatu bear» (*Euskal Esnalea*, 1930, 117 orr.).

Lenengo ta bein apaiza zan. Eta Kristo'ren ordezeko —alter Christus— dan apaizak, daakan guztia eman bear du naitaez, bere zalntza ta babespean artu ditun ardien alde, ots, urreko lagunaren alde ta onerako. Kristo'k apostolui agindutakoa bete bearra dute apaizak: Jainko itza iragarri ta aldarrikatu etengabeko ekiñean, siñismena entzunetik dator eta. Apalzaren egin-kizunik beñena auxe duzu: itz-egin, erakutsi, idatzi. Euskaldun apalzal ez bezale iñork eskubide au moztu edo lotu-azi.

Onela ikusten du, begi ez zabartuz, zaldibartar jakintsuak bere zeregiña. Eta orretan alegindu zitzaigun. Ez gero itz-egin bakarrik, ezta erakutsi soil-soillik: millaka ta millaka euskaldunek irakurriko zituen ark osoturiko lanak, lan kristauak, goxoak, garbi ta ederrak. Or berak sortu ta zuzendu zuen «Argia» asterokoa. Tresna oberik ba ote Kristo'ren irakatsia zabalduz, mundua obetu, alaitu ta bide artezez zuzenduteko? Ezezkoan nago ni neu.

Ortarako adimen argia bear, jakitez aberastua. Eta biotz zabala. Baita oindio bi trebetasun oien erioa, ixuria edatzeko

gaitasuna ere, luma erne ta bizkorra. Au, guzti au zuen B. Garitaonandia'k. Geldirik ez egotekoa zanez, umetatik zekian euskera gero ta sakonago, txukunago egin zuen bere lan-arteetan; au da: euskal idazle yaioa bilakatu zitzaigun. Errezak, jakingarriak dira aren lanak, «Argia»-n utzi zizkigunak eta liburuetan eta antzerkietan gatzatuak. Ark bai ezagutzen zuela giza-biotza! Gutxik bezela zekien, ez izan zalantzik, gauzak nola adierazi ta biotzari ere nola dardar-eragin.

EUSKAL IDAZLE.—Ez dugu urri ta exkaxa B. Garitaonandia'k, euskal idazle bezela, egiñitako lana. Astero-astero «Argia» lango aldizkingia gertatzeak ba-dakarzki korapilloak, buruko miñak ez gutxi; zerbait esan lezakete ortan urtez urte ari diranak: zuzendariak berak ainbat idatzi bear du, iñoren lanak ere orraztu ta lerdendu, konta ezin-ala konponketa... Ala ere, ark ba-zuen, nun-edo-nundik aterata, liburuak, ipuiak, idazkiak eta antzerkiak onduteko astia. «Argia»-n eta «Euskal Esnalea»-n idatzi zuen batez ere.

Liburu-sorta polita osa dezakegu, ortara ezkeru —ta noizbalt osatu bearko—, B. Garitaonandia'k idatzi zigun guztia biltzerakoan. Ona argitaratu zituen batzuk:

1) *Iziartxo* (Donostia, 1918). Bi argitalpen: l'goa, Leizola'ren irarkolan; bigarrena (Donostia, 1929), Iñaki Deunarenean. 1917'an Donosti'ko Udalak antzerki-batzaldi bat eratu zuen, eta antzerki onek eraman zizun lendabiziko saria. Donostia'n bertan, Antzoki nagusian antzeztu zan lenengoz, 1918-3-il'an. Bi ekitalditako komeri polita duzu, geroztik ere or eta cmen sarri antzeztutakoa.

2) *Usandizaga. Bere bizitza ta eres-egikuntza* (Donosti, 1920). 1919'garren urteko epaillaren 23'an eta 30'an irakurritako itzaldia, 70 orrialdekoa. Donostiar seme kutun ta Euskalerriko ereslari ospetsuari buruz oraindik ere ez dut uste iñork ain ederki artaz itz-egin duenik.

3) *Aitona ta billoba* (Donostia, 1921). Bi ataldun antzerkia. Iñaki Deunaren irarkolan. Au ere maiz antzeztua, polita baita.

4) «Argia» asterokoa (Donostia, 1921-1936). Euskera utsean. Berak sortu zuen, beste euskaltzale batzuekin batera, baita zuzendu ere zortzi urtetan. Esan dugunez, ainbat lan ditu berton, zeukan egitekoak eskatuta idatziak. Euskaldun erriak atsegiñez irakurtzen zuen asteroko au.

5) *Ongillearen sariya* (Donosti, 1922). Iñaki Deunaren irarkolan. 46 orrialde. Bi ekitalditako antzerkia, 1922'garreneko teatru batzaldian saritua ta urrengo urtean, maiatzaren 13'an Donostiko Antzoki nagusian emana. Geroztik, sarri samar errietan erakutsia.

6) *Ipuin laburrak umetxoentzat* (Bilbao, 1922). Ipui atsegiñak; joskera eder oparotsuan darabil idazkortza. Euzko-Argi-taldarian. 50 orrialde. Euskaltzalndiaren idazti batzaldian saritua.

7) *Argi Donea* (Zornotza, 1924). Jaungeiko-Zale'ren irarkolan. 781 orrialde. Baltzola'tar Prantzisko Abak egiña ta «Argia»-ren batzaldian saritua. Gasparri kardenalaren idazkia du sarreran. «Argia» sortu zan —dio ondoren Garitaonandia'k—, ez asteroko bat egiteko bakarrik, baita bear diran beste gauzarik asko euskaldunei euskeraz emateko ere. Gauza orietan bearbearrezkoenetakoa eliz-liburu on eta oso-oso bat iruditu zitzaizgun, errelijio ta animari dagozkion gauzak nun ikasi, nola ta nundik egin izan zezaten euskaldunak... Orretarako «Argia»-k batzaldi bat egin zun, eliz-libururik egokien eta ederrena egin zunari milla pezetako saria eskeñirik. Bi liburu agertu ziran Batzaldira eta epallleak (juraduak) liburu au, eskuetan daakazun au, Baltzola Aitak egindakoa aukeratu zun eta berari eman zitzaion milla pezetako saria. Orra nola sortu zan liburu au» (*Argi Donea*, sarreran).

Liburu ederra bene-benetan, Euskalerrri osoak pozik artua eta erabillitakoa. Bizkaleraz ere argitaratu zan (Zornotza, 1935), Eguzkitza'tar Jon U. jaupariak antolatua. 734 orrialde. Gipuzkeraz laburpen bat egin zan, 1924'an Donostia'n argitara ekarria baitik bat.

8) *Egutegia* (Donostia, 1921-1936). «ARGIA, aurreko urtean agertutako asmoai buruz —dio bigarren urteko sarreran—, euskaldunen onerako eta euskaldunei zerbait laguntzearen, lan eta lan, gogotsu jarralturik, eta urtetik urtera bere lanak osatu ta obeagoturik aurrera dijoa... Gure anai malteak ARGIA'ren lenengo *Egutegia*'ri egin dioten abegi gogotsu orreri, nola erantzun? Bigarrena lenengoa baño osoago, apain ta ederkiago egin eta ugariki zabalduaz. *Egutegi* au, igazkoa baño aundiagoa da, irakurgai geyago ditu, irudiz ta edergalluz jantzirik apañagoa dator» (*Irakurleei*, 3 orr.).

Etorri ere guzriz mardula zetorren. 123 orrialde zeuzkan, illeroko baserri-lanez, azken-nai legez, ipuin, euskerari ta izkuntzai buruzko lanez, aurrak eziteko oarrez, eguraldiaren berri aurrez jakiteko bidez, arrisimaurrak nastutzeko eraz, euskal abestiak, sukaldeko ta nekazaritzarako galez ta sutondoko izkirimiriz ornituta. Azkenengo urtekoak (1936), ordea, 190 orrialde dauzka. Amabost urteko lan oso bikaiña, noski.

9) *Eliza ta erri-abestiak* (Donostia, 1929). Gipuzkoa'ko Atenecan 1929-4-21'an eman zuen itzaldia, «Euskal Esnalea»-k eratuta.

Olerki batzuk ere ondu zizkigun: «Arantzazu» (*Euskal-Erria*, 1917, 21 orr.) eta «Ama neketsua» (*Euskal-Erria*, 1918, 115 orr.), adibidez.

Baleztu dugunez, omenaldiak izan ditu B. Garitaonandia'k. Oña'n egin zitzaion lenengoa, 1930-3-3'an, ango «Euskal-ele bazkuna»-ko ikasleak, eta gero Donostian, epaillaren 23'an, ikasle aiek eta donostiarrak, Novedades deritzan antzokian; Jose Uranga, Jose Mari Irure ta Jose Goenaga mintzatu ziran; azkenez, *Illezkorra* olerkia irakurri zuen P. Aranzabal'ek (*Euskal Esnalea*, 1930, 77 orr.).

Andik bi urtera, 1932-8-28'an, Zaldibar'en bertan egin zitzaion beste bat, jaio zan bizkz-oiñean atxurdiñezko arlosa bat jarriaz. Aita Intza'r Damaso'k itz-egin zuen mezatan, Euskaltzaindiaren ordezkoko bezela. Esan zuen: «Kistartasunak erri

aundi izatera jaso zuen Euskalerrria; gaur ere Euskalerrriaren pizkundea uzkurtzarekin egin genezake. Jainkoa ta Uzkuorta gabe iñola ere ez». Meza ondoren, eliz-aurreko plazan alka-reak itzaldi laburra irakurri ta oroigarria estaltzen zuen oiala kendu zuenean, txalo ta gora sutsuak entzun ziran. Idazkun au darama arlandu ertitsuak: «1876-1929. Garitaonandia eta Ariño'tar Bitor jaunaren jayotetxea». Emen ziran «Orixe», «Lizardi» ta garai artako euskal idazlerrik punterengoenak, arratsaldean batez ere itzaldi ederrak egiñaz (*Ekin*, 1932-8-27, 3 orr. ta 1932-9-3, 3 orr.). 1956'garren urtean egin zitzaion beste bat, eliz aurreko oroitarria ipiñiaz.

(Ikus Aztertzele, *Euskal Esnalea*, 1929, 168 orr., ta 1930, 77 orr.; J. M. Irure, *Euskal Esnalea*, 1930, 117 orr.; P. Aranzabal, *Euskal Esnalea*, 1930, 91 orr.; *Euzkerea*, 1929, 189 orr.; S. Onaindia, MEOE, 876 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 167 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 31 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 411 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografia*, III, 601 orr.).

5.—IMANOL ARRIANDIAGA GOROZIKA (1976-1977)

«Orixe»-k au idatzi zun 1927'an: «Arriandiaga Claret'arra, buruz ernea ta argia da, moral-zale garaia; baino euskeran guziz utsegin du erritik aldegitan» (*Euskal Esnaiea*, 1927, 248 orr.), Eta A. Villasante'k oralntsu: «Penagarri da gizon ain jakintsua euskera orren geometrikuan idazten ikustea, arrunt eta aotuari bizkarrak emanez; izkera aln munik eta gatzik gabean, bai, «ltz-txarrez», eta cituen ordezkotzat a priori aterazitako adizki txarto sortu edo-ta zatartzat jotzen ditugunakin beteta» (HLV, 351 orr.).

Ikus dezagun, laburki, guzti au egia danentz.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Elantxobe'n, itxas ertzeko erri lerdenean munduratu zan I. Arriandiaga, 1876-4-20'an. Amaika urteko mutiko zala, Miren-Biotzeko Semeak Balmaseda'n daukaten ikastetxera jo zuen, Kristo'ren ordezeko, elizgizon izan

nairik. Argi ta azkarra zetorkigun ikastaroetan, Teolojia, Moral, Eliz-Araudian batez ere, gorenengo maillak iritxiatz. Meza ematera eldu ondoren, ere, Eskugo ikasketak sustralagotik sakondu zitzan, Erroma'ra bialdu zuten nagusiak.

Gero, 1903'tik aurrera, Santo Domingo de la Calzada (Logroño) deritzan errian, Claret'arren ikasgu nagusian, Zillegizti edo Morala irakatsi zien bere ordenako gazteal. Bitartean, Ameriketan ere ibilli zitzaizgun, *Calendario vasco* lana, bada, 1911-5-31'an Brasil'go Mattogroso'n izenpetzen du; «Euzkadi» aldizkingian datorren *Gorputz* itzazkoa ere andik igorria du erabat 1913-9-1'an. Urte auetan, gaiñera, idazteari emana zebilkingun aspertu barik, Madrid'eko «Ilustracion del Clero»-n batez ere, lan asko argitaratuaz. Luma arin zorrotza zuen, eta nagusiak ere idaztera bultzatzen zuten.

Garal ortan erne zitzaion beste kezka bat, biotz-zimikoa, bizitzaldi osoan estu, larri ekarri zuena; amagandik ikasi zuen euskera etzuen ezelan ere bertanbera laga nai. Euskalzaletasunera bultz-eragin ziona amarekin euki zuen jazoera bat izan zan geien bat. Bein batean, ama joan zitzaion ikusten, Eta ona zelako estuasunean aurkitu ziran ama-semeak; amak etzekian erderarik, eta semeari alztu egin zitzaion etxetik kanpora ibilliz, amak magal goxoan erakutsi zion euskera. Lotsari gogorra, bene-bentan! Eta orduantxe asi zan Aita Imanol euskera berriz ikasi, mintzatu ta idazten; orduantxe konturatu zan euskera, bere izkuntza jatorra, eder jori aberats dala ere. Idazterakoan garbiegi ari zala esan oi zioten onek eta arek, sandiak eta berendiak. Balña ark bereari ekin zion. Ez ote, dugu, gaur ere, beste orrenbeste egiten? Bakoitzak bere bal, itsu ta leiaka! Nolako makilla-zartak alzeari arrotzen dizkiogun! Eta denok pozik. Berebat gertatu zitzaion A. Arriandiaga'ri ere. Beraz, zu pekatari barik, ni pekatari esan bearra dugu.

Gizon argia zan Aita Imanol. Bere ordenan kargu gorenengoak euki zituen, Lagundiko idazkari orokor izateraiño ere iritxirik; kargu auek zirala-ta, Erroma'n eta Madrid'en bizi izan

zan luzaro. Zillegizti ta Eskugoan norbaitek dudaren bat zue-
nean, arengana jo oi zuen; toki guztietan beraz oso maitatua
zan, beti ta nun-nai edoncri on egiteko gertu zegoelako. Lan-
gillea izan zan oso bere bizitzaldi guztian, latiniñez, erderaz ta
euskeraz lan ederrik asko osotuz.

Beire'n, Naparruako erri txanbeliñean, 1947-1-30'an, itzali
zan elantxobetar argia.

EUSKAL LANA.—Etzan arrunta, askoren artekoa izan, ez,
ala-jainko! Daramagun gizaldi onen asieran piztu zitzaigun
euskal min, ncbizto ta garrean ez genitun atzerati, ez orixe!,
Mariaren Biotz-Semeak. Bertatik sortu zuten giro berezia, ta
euskaltzde amorratuak bilakatu ziran —Arriandiaga, Zabala-
Arana, Gotzon Urrutia, esate baterako—, euskal barrutian lan
bikaiñak amalra eramanik. Aita Garriga ere, euskaldun berria,
denok alkar berotu ta su-ixiorik, langille trebea gertatu zitza-
gun.

Erderazko lanak Madrid'eko «Ilustracion del Clero»-n datoz
geienak. Euskerazkoak Bilbao'ko «Euzkadi»-n, «Euzko De-
ya»-n eta «Euzkerea»-n daurldguz, eta ugari aurltdu ere;
Donostiako «Euskal Esnalea»-k ba-dakazki aren batzuk. «Mi-
bisus», «Arpidedun», «Aztertzalia», «Argorri», «Omabeitia'tar
Karmel» ta olakoak erabilli zituen lanak izenpetzeko. «Euzkadi»
aldizkarian, adibidez, 1907'tik asita, ia zenbaki guztietan ageri
da A. Imanol'en zerbalt. Ementxe ta «Euzko Deya»-n eman
zizkigun, itzulita, bertsoz eman ere, Dabid'en eresietatik pilloa.

Ona, elantxobetar argi onen lanetatik banaka batzuen alpa-
mena:

1) *Notas sobre el verbo euskerico (Euzkadi, 1907, 228
orr. ta 1908, 251 orr.)*.

2) *Umiak autortuten eta jaunartuten (Bilbao, 1911)*. Elex-
puru'n irarkolan. Euskeraz ta erderaz. Bigarrenez ere argita-
ratu zan (Bilbao, 1912). Urte auetan argitaldu zituen baita
erderazko biok ere: 1) *Los esponsales y el matrimonio canoni-
co*, ta 2) *El servicio militar y la profesion religiosa*.

3) *Josu Kistoren antzarpena*. Bigarren idaztia. (*Euzkadi*, 1909, VI, 153 orr.).

4) *Jaunartazko itaune-erantzunak* (*Euzkadi*, 1913). 301, 135 ta 390 orrialdeetan.

5) *Calendario vasco* (*Euzkadi*, 1911). Lan jakingarria.

6) *Conjugacion sintetica del verbo comenzado por consonante* (*Euzkadi*, 1913, 417 orr.).

7) *Irakasti kistarra, lenengo mallea*. Adikuntzaldiko umientzakua (Bilbao, 1919). 29 orrialde. Abando'ko Ausin'en etxean. Aurtxoentzat dotriña txikia.

8) *El verbo vasco familiar y dialogado* (Bilbao, 1919). Juan J. Rochelt'enean. *Itano* aditzaz Bilbao'n emaniko itzaldia duzu, liburuxkan eratu. Lojika nai zuen euskerarentzat, ori palta zaion izkuntza ez bait da izkuntza: gorputzari indar eman oi dion arnasa bezela omen dira gramatika legeak.

9) *Notas prehistoricas del vasco* (*Euzkadi*, 1919). 223 orr.

10) *Dabid'en eresiak*. «Euzkadi»-n, «Euzko Deya»-n eta «Euzkerea»-n argitaratu zizkigun ogei bat eresi, jatorrak eta itzuliak. 1898'an asi zitzaigun olerkiak lantzen.

11) *En pro del idioma vasco* (Donostia, *Euskal Esnalea*). 1922'tik 1926'ra bitartean, amabi lan azaldu zituen euskerari buruzko gaiekin.

12) *Matai Deunak legezko Josu-Kisto'gazko Goizparra* (*Euzko Gogoia*). 1951 ta 1952'garren urteko zenbakietan.

13) *Goizparraik eta Beldubaik egiña* (Zarautz, 1959). 558 orrialde. Errazti'tar J. M.'ak eta Itxaropena'k argitaratua.

14) *Daneurtzitija, Geometria*; 1921'an gertatua, baiña oin-dio azaldu gabea.

NOLAKO IDAZLEA DUGU?—Nornaik ere ederki erabili izan du makillea idazle onen bizkarra astindu naiez. Errazoi geiegi barik, nik uste, sarri askotan. Bide okerretik guztiz ibilli omen zitzaigun, gure izkuntzari kalte izugarria egiñaz. Baiña gauzeari nork eta nundik begiratzen diogun ez ote du askotxo esan nai? Zail zaigu eretxi baten esku aldeka ez ari izatea.

Setari emanez, orren gandu artekoa ote da Aita Arriandiaga? Añen eta birao guztiak, azken urteotan beintzat, beronen-dako izan dira, ondo dakigunez. Merezi ote zuen ainbestekorik? Garbizde zala, zer? Goethe ez ote genduan, batez ere bere *Faust* idaztean? Eta idazle jatortzat jotzen digute doixtarrak. Ain gaizki etzebilela jakin dezazuten, irakur ezazute «Goizparraik eta Beldubaiak» argitaratzean Urrutia'tar Gotzon Aitak eman zigun zatitxo au: «Euskerea be —dio— beste eliaik letz, erabilijen erabilijiaz, makaldu, gexotu ta aldatu egin da. Bere gaste-ddiko indarra galdu ta, beraz, makddu; bere osasuna auldu ta, beraz, gexotu ta ddatu egin da. Antxiñdro sendotasuna ta erro indartsubaik idoro, ta bere erabiliz, antxiñako edertasuna ta bixitza emongo dautsaguz. *Goizparraik* euzkerddu baño lenago Arriandiaga abeak euzkeraren erro ta lagijak ondo bd ondo ikasi ta aztertu leuzan, eta orduban, lagi orrein arauz, idatzi leban idatzi au. Arriandiaga'k berak diñoskunez, «ezti gozua» aurkitu leban idatzi onetan. Benetan gozua, lenen-lenen Urtzi Jauna'ren beraren itzaik dirdako, ta euzkera ain gozoz euzkerdduta dagozalako. Nok eztau eztiya abuan txastean» (*Pliegos euzkeralogicos*, 1962, 24 orr.).

Mingain loiak diotena gorabera, Arriandiaga idazle erne oparotsua izan zitzdgun, bizitza zear luma eskutik utzi etzuen. Azkue'k Bilbao'n ateratzen zuen «Euskalzale»-tik (1989, 31 orr.) asi zaizun idazten, eta arrez gero, ddizkari ta egunerokoetan, abertzde usaia zutenetan bereziki, etengabe idatzi zuen. Gaiak sakon ikasi ta adierazi naia agertzen du beti, adimen argi zorrrozari dagokionez.

Onako idazlez epai arteza emateko, sasoi artan nolako joera zebillen gogoz artu bearra dugu. XIX'garren mendearen azken aldiko euskd idazleak noski, naikoa mordoillo iruditu ta ikusi zuten aurretikoak idatzitako euskera, bai joskeraz eta bai izte-giz. Ortaz, egun aietako euskal idazle ta euskaltzale jatorrak —nola ez?— arnas berriz txertatu, indartu ta apaindu gogo zuten erria lez izkuntza. Euskera sustraiz eraberritu bear ori

ezta ba arritzekoa. Gizaseme bipillak ziran, eraginkorrak —Arana-Goiri, Azkue, Arriandiaga— eta, gaur egun opa dugunez, ezpiritu berriz jantzi gurata landu zuten euskera, gure izkera. Azkue bera, ikusi nolako arriskuan murgildu zitzaigun bere dalako gramatika osotu zuenean. Arriandiaga aranatar itsua genduan. Orain ere ez al ditugu olakoak? Ari edo oni itsuan jarraltzen diotenak? Eta, bear bada, neurri zabalagoan jarraitu ere? Beraz, geure jokabidea zuritzeko lain errazoi ba'dugu, ez ditzagun iñolaz ere kana estuagoz aiek neurtu.

Sarri, galiñera, ez-jakiñez mintzatu oi gara: lan bat irakurri gabe kritikatu. Baita, iñoren agotik entzunarekin soilki, idazle bat beztu ere. Etzalzu egundo olakorik gertatu? Aatik, irakur ezazu ondorengo txatal au, ta zerorrek esan zer denzkiozun Aita Arriandiaga'ren idazkeraz. Ona Edesti Deunean oiñarritutako ipuintxo baten amala:

«Arrendan (orduan), paraon'ak agintza gogorra egin leban: ixarrelarren ume ar gustijak, jayota lalstertxe, ibai nagusira egozteko, bertoko muskertzarraik jan eta irunsi legiekiezantzat.

«Mois aldi atan **jayo** zan. Ameak iru illabete oro eskutaldu leban etxian, bakaldunaren agintzari uts egiñik. Baña luzaruago eskutaldu ezin leikela uartuki, zumezko otzaratxuba eginda berton iru illa betedun semetxu maitia atondu leban, eta bijotzatsekaberik samiñenaz, ijatzean, abia-onduan jarri leban, Miren alabeari zain egoteko aginduta.

«Arako baten, bakaldunaren alabea igeriteko asmuz ibaira jatsi zala, ijatzean otzarea ta otzara-barruban umetxu eder, arpegi-biribil, begi-uridin, espan-gorrija ikusirik, Aitearen agintza gogorra zala-ta ixarrelarralk an jarri lebala ulertu leban; eta umetxu maitagarri aren arpegi-biribil, begi-urdiñak bijotza jota, errukitu egin zan, otzaradk aterateko agindu leban, semetzakotu batez, ta semetzakotzat azteko umetxu beraren arrebeari —elekijan arek neskatilla nor zan—, esan. Neskatillak

bere nebatxua maitakiro artu leban; Ameari eruan leutsan; eta Ameak laztankiro azi leban. Umetxu au Moïs andija ixan zan».

Irakurtaldi onetan darabiitzan bi gauzak, orrela esateko, arritasuna sor-aziko zizun, bear bada: *leban* —eban— adizkia duzu bata, ta *gustijaik* —aik— atzizkia bestea. Lenengo, *l-ri* buruz, ona Urrutia'tar Gotzon'en itzak: «Arriandiaga egizko irakasle da atzizki, aurrizki ta artizkijoik zelan erabilli biar diran irakasteko. ZERA oraingo ta gero aldijetan D-bidez agertzen dan letz, lengo aldijetan L-bidez agertzen da. Onetara: L-eukedan, 1-eguan, *neukan* eta *eguan* ordez». -aik, ordea, zergatik ote darabil? Orozko aldean oraindik ere entzuten dalako; baita *oneik*, *orreik* eta *areik* ere, asko diranean eta mugatu gabea danean bereizteko; mugaz andik, onela idazten dute: «amak ikusi du», bat danean, eta «gurasoek ikusi dute». Labur esanda: Arriandiaga'k -efe'en ordez darabil -a'k. Aita G. Urruria'k onela: «Aditzan letz, IXENETAN be, naska, matasea leguan. **GIXONAK** dauka ta **GIXONAK** dauke diñogunean, GIXONAK bijotan bardiña **da**. Arriandiaga'k bakar egikorra ta askarra, bata bestetik aldatu ta erazagututeko, Orozko aldi an ointsu erabilten zan bidia artu dau: 'Ak bakar egikorrerako, ta 'AIK askarrerako: GIXONAK dauka, GIXONAIK dauke, GIXONAIK dauz» (Loc. cit.).

IRITZIAK.—Margo guztitako uste-iritziak dauzkagun emen ere. Ederra noski gauza bakoitzari bere balioa ematea; baiña, sarri dagigu tamalez, gauzak, dendunean egokitu bearrean, ardatzeuk atera ta naspildu. Orrela gure literaturan. Begiko zaizkigun idazle batzuk gooregi —omen-gandutan— jarri ditugu, beste batzuk alderantziz bee-beeraiño eratsiz. Zuzenak ezta au eskatzen. Ondarreraiño eratxia duzu Aita Arriandiaga ere, Arana-zale porrokatua izan zitzalgulako, deabru-talde ikaragarri baten mende alda-maldaka ibilli ba'litzaldgu bezela. Azken literatura kondairetan ezta girorik izan I. Arriandiaga'k: L. Mitxelena'k aren izena damaldgu bakar-bakarrik; L. Villasante'k

62 lerro dakazki, ta oetatik batzuk elantxobetarrari autsak atearateko; I. Sarasola'k «garbizaleen artean garbizaleena» dala diosku, lendik iñarros-aldirik zakarrenak klerikalismuari ar-aziz; K. Etxenagusia urrats-zur dabilkigu, ta M. Zarate'k *Bizkai'ko Euskal Idazleak'en* artean aipatu ere eztu egiten.

AJa ere, idazle aundia dugu Arriandiaga. Bego emen zutik Orixe'ren iritzia. Onela idatzi zuen 1961'garren urteko garagarrillaren amairantza: «Gure okerra da geure izkuntzaren onerako joera ta eskolak albora ez uztea, ezta idazleak klasikuak izanda ere». Itz berriei buruz: «Gure Mibisus'ek sorturiko anitz euskal itz dira gaur or dabiltzanak. Euzko Gastediko'ren batek egin leikegu beinonen zenbaketa, baita *Lenengo Egutegi Bizkaitarra*'ren egilearenak ere. Egiten danetik, zerbait geratzen; egiten ez danetik, ezer ez. Entzuna dudanez, gure gizaldiak geienen erabilitako esku-iztegi eta ia gure gizaldiak erabillitako bakarrak, Aita Arriandiaga'k asmaturiko sei mila itz dauzka». Eta azkenik: «Gure gaztetxoak geure izkuntzan bakarrik aurkitzen dituzte okerrak. Europa'rantza ez dute aski muturra luzatu, an ere leioak atarira begira daudela ikusteko. Errez dagite oiek utsaren urrengo aurreko belaunaldikuok burutu duguna; baiña giza-legeak eskatzen du burgoi irakatsi aurretik ikastea, baita,.. Aita Arriandiaga ere. Eta... Euzko-Gastediak egindakoa ere bai. Ez noa beronen merituak gogorazten, ezta aldezten ere. Berak aldetuko du bere burua, berriz eratzen baldin bada. Iñolaz ere ezin dezakegu ixil-azi euskal arloan ark egin duen lana, naiz gozo zaigula naiz minkatz».

Niretzat errazoiz betea da Orixe'ren esan au.

K. Etxenagusia, ordea, gisa ontan mintzatzen zaigu: «Aranatar sutsua dogu A. Arriandiaga: maizuaeren asmoak aurrera eroanik, euskeraren erreformatzaille guztien buru-edo dogu: gure izkerearen lojikeak lilluratuta, erreforma sakonak egin nai izan zituan euskal gramatika osoan» (*Lortegia*, 236 orr.).

Dana dala, uts eta eder, au aitortu bear dugu: Garbizale ta erreformatzaille oek ezarri diote gure izkuntzari beste idazle

guztiak ezarri ez dioten añaako indarra ta bizitasuna: indarra, bizia izan dakigun, eta bizitasuna, gure iakuntzak berez dago-kion joskera jatorra, goi-arnasa galdu gabe zaitu ditzan.

(Ikus *Esku-Egundiya*, 1910, 49 orr.; Orue Errementaria, *Annales Congregationis Missionariorum Filiarum Immc. Cordis B. V. M.*, 1956, 599 orr.ta 1957, 83 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1957, 188 orr.; Z. Jemein, *Euzko-Gogoa*, 1950, I, 1-2; S. Onaindia, *MEOE*, 644 orr.; L. Villasante, *HLV*, 350 orr.; Orixe, *En Defensa de la lengua*, Bilbao, 1962, 33 orr.; Urtzago, *La agricullura en el Pais Vasco*, J. M. Errazti'ren ingurraztiak, Bilbao, 1962, 24 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 38 orr.; K. Etxenagusia, *Lortategia*, 236 orr.; I. Sarasola, *Euskal Literaturaren historia*, 52 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 281 orr.; J. Bilbao, *Bibliografia*, I, 318 orr.; *Kardaberaz Aitari omenaldia*, 124 orr.).

6.—AITA MARTIN URIARTE ODRIUZOLA (1879-1960)

M. Zarate'k onela: «Gauza jakingarri asko idatzi ebazan Aita Martin'ek. Balña bere idazlanik ederrenak *Egi biribillak* eta *Baserri-gaiak* dira». Euskal idatzietan izen eta izen-orde auek erabili zizkigun: «A. Martin», «M. U.», «Martiaru» ta «Barazar».

Begoña'n eta Markina'n karmeldarren buru izan zan arren, bere bizitzaldirik geiena Larrea'ko komentu onetan eman zuen, nagusi ta menpeko. Egiatzko eredu ta irakasle izan zitzaigun Aita Martin lekaidetxe onetan, benetako karmeldar oiñutsa, bakar-zale ta ezia ezezik, bizitza osoan bere predikari lanari lotua ibilli zitzaigulako batez ere. Eliz-izlari bezela oso ezaguna izan zan Bizkal guztian.

BIZITZ-OSTOAK—Zeanuri'n jaiou zan 1879-6-25'an, goizeko bostetan; bere gurasoak: Jenaro ta Erramona, lugiñak, biak zeanuristarrak; aitaren aldeko aita-amak: Esteban Uriarte ta Josefa Lapatza Martiaru; amaren aldekoak: Adrian Odriozola ta Juana Egiluz, ipiñatarrak biak. 27'an bateatu zuen Jose An-

tonio Uribe apaiz-laguntzailleak. Ipiñaburu'n bertan egin zituen lenengo ikasketa ta asimasiak, abedeak. Gero, amairu urteko zala, 1893'garreneko bagillean, Larrea'ko ikastetxean sartu zan, eta andik laster, urte bereko iraillean, Naparrua'ko Alesbes edo Billafraaka'ra aldatu zan Latin eta ele ederrak ikasteko; 1894-9-6'an, ordea, Larrea'n jantzi zuen karmeldar abitua. Urrengo urtean, Andre Maria'ren Jaiotz-egunean, betiko opa zitzaion Jainkoari profesa bitartez.

Markiña'n ikasi zituen Filcsofiako bi urte, ta irugarrena ta Teolojiako laurak Burgos'en. Morala, berriz, Iruña'n osotu zuen karrera amaikeran. 1898-9-11'an egin zuen profeta nagusia, ta azkenik, 1903-9-6'an, Burgos'en, Agirre kardenalaren eskuetatik artu zuen apaizgoa. Ondoren, Billalranka'n egon zan irakasle bi urtetan; 1906'an, Morala irakatsi zuen Iruña'n; urrengo urtean Larrea'n daukagu ikastetxeko buru ta irakasle izendatua, 1921'rarte ortan ari izanik: barruko ta kanpkoen-tzat zan ikastetxe au oso ospetsua egin zan, eta ainbat elizgizon, jaupari ta lekaide, irten ziran bertotik.

Amalau urte irakasle ta sermolari Larrea'n egin ondoren, Markiña'ra bialdu zuten nagusiak; eta, emen ere, len gazteen biotz-buruetan bezela, oraln Kristoren Itzaren azia euskal errian erein eta indar-azten alegindu zitzaigun. Ain zuzen ere, auxe izan zan bere bizi osoko arlorik aakerakoena: **50** bat urtetan arlo orrek kezkatua ibilli zan kementsu. Bitarte ontan osotu zituen sermoiak, berak oar batzuetan utzi zuenez, **19.000** gora izango ziran. Ark egiñiko itzaldiak, ia danak, euskeraz izan ziran. Bizkaia'n euskaldun errietan ezta pulpiturik izango A. Martin'ek itzaldirik esan bakorik.

Nausitzarako ere ba-zuen trebetasunik. Samur zebillen be-stein, bere buruarekin ordea latz eta lege-betetzaillle. 1924'an Markiña'ko komentuko nagusi izendatu zuten; **1927'an** Larrea'koa, 1933'an Begoña'koa, ta 1936'an Markiña'koa berriz ere. Gerra ostean Andaluzi aldean egon bear izan zuen. **1942'tik**

1945'ra Altxo'n egon zan buru, ta 1945'an Larrea'ko nagusi izendatua izan zan. Iru urteak amaitu zitunean ere ementxe bizi izan zitzaigun.

Geure bizitza arruntaren inguru, guztiok eraman oi dugu griña, etsigitasun eta lera bereziren bat barne-muiñean. Izatez bena ta zorrotza zirudian A. Martin'ek ere bere-berea zuen zaletasuna erakutsi zigun; lorak lantzea, zaintzea, esku goxo ta atsegiñez egiten zuena zan. Emen Larrea'ko kobentu baila barrua ta goiko egutera itxia lore ta lorontziz beteak zeuzkan; begoni-zalea genduan batez ere, ta oietako bilduma galanta euki oi zuen. Jai egunetan pozgarri zitzaion berak zalntzen zituen Lorakin gure eliza dotoretzea.

Azkenik, urtez ta goi-irabaziz betea, ementxe Larrea'n eman zion Jainkoari bere arima ederra, 1960-10-21'an.

EUSKAL IDAZLE.—Amaren magaletik zekien euskeraz, Arrati'ko euskera galñera, giar ta beroa. Ikasi bitartean ederki landu zuen, ikasiz eta idatziz. Noiz asi zan idazten? Burgos'en ikasle zala, nunbalt. Ango karmeldarren aldizkari «El Monte Carmelo»-n daude bere lenengo bertso-lanak; an irakur genezake, esate baterako, 34 lauko dituen Teresa Deunari eskeiñitako olerkia (1902, 795 orr.) ta beste 19 lauko dauzkan «Done Thomas Katolikoan Eskoletako Laguntzaileari» (1903, 176 orr.) zuzendutakoa.

Itzaldiak, gure praille zarrak oitura zutenez, idatzi ta buruz botaten zituen. Orixegatik, aren sermoietatik pillo galantak daude gure komentu ontan, berak azken urteotan, 1938'tik aurrera, batez ere San Fernando (Kadiz) errixkan atzerriratua egon zanean, orraztu ta garbi idatziak. Eun bat olako ba-dira emen. Baliotsuak dira, dudarik gabe.

Karmeldarron aldizkari «Karmen'go Argia» (1931) sortu ta ateratzen asteen, A. Martin aukeratu zuten zuzendaritzarako, eta beronek zuzendu zigun aldizkingi errikoi au, 1933'an

Begoña'ko nagusi izendatua izan zan arte. *Ilkeroko* ontan argitaratu zituen bere lanik ederrenak: «Egi biribillak» eta «Base-ri-gaiak».

Idazle bezela, ona A. Martin'en lanik urtenenak:

1) *Bederatziurrena, Ume Jesus'en Teresatxu Zorundunari* (Bilbao, 1923). Grijelmo-Alargun eta Semien irarkolean. 20 orrialde. Itzaurrean onela: «Il baño aurreratxuago esan eban: «Uste dot eldu jatala arima askori zerurako bidea irakasteko almena: Neure zerua igaro gura dot ludikoai ondo egiten. Neure eriotz ondoren jausi eragingo dot larrosazko euri ugaria». Egiz, uso zuri-eder au donokiratu danetik, egunero bialduten dau ludira goi-eskarrezko euri ongille ori, eundaka asko diriala Jaunak Teresatxuren bitartez egiten dituan alatz eta mirari berarizkoak. Doipuru Pio XI'garrenak onetsi ditu mirariok, eta izentau dau Teresatxu Zorundunen artean 1923'g. Aprilaren 29'g. egunean, il zanetik ogeta seigarren urtean».

2) *Karmen'go Andra Mariari Bederatziurrena eta asteroko ikustaldia* (Bilbao, 1924). Grijelmo etxean au ere. 67 orrialde.

3) *Loretako Illa*. Argitaratu gabe utzi zigun, naiz-ta azken orrazketak egiñik eta irarkolarako gertu.

5) *Egi biribillak*. Onako asko eiotu zizkigun A. Martin'ek. Zer dira aukerak? Mikel Zarate'k onela: «*Egi biribillak* errefran antzeko jakituri tankadak dira, asko berak asmaurikoak eta asko beste izkuntza batzuetatik itzulitakoak. Ez dakit zenbat diran guztiz; baiña liburu eder bat egiteko beste bal».

«Karmen'go Argia»-n, ia illero, argitaldu oi zuen onako sail bat. Irakur batzuk:

— «Etxea ondatutea gauz erreza da, zoro batek egiten dau; baiña etxea jasotea, dakianak bakarrik egin leike.»

— «Landare aien zintzotik artu egizu, ta ezkon-laguna ama onetik.»

— «Gora igon dabenentzat lokunik astunena, eskarronekoa izatea da.»

— «Ludi ontan onurarik geien ateraten dabenak, adimen erditsudunak dira. Jakintsuegi direanak, puztu egiten yakuz; eta adin-argi gitxiegiakoak, itsutu.»

— «Jaungoikoa ziñetsi, onetsi ta maltatu egizu; bestela obe ezpa'ziña munduratu.»

— «Biraoa dabillen tokian, zoritxarra izango da ugarian.»

6) *Baserri-gaiak*. Auek ere atsegin zituen. Eta illero zerbalt eman oi zuen «Karmen'go Argia»-n. Ona neguaz zer dion: «Udagoyenak, al guztiak egin arren, azkenean be ukatuta txil egin dau, ta neguari bideak itxi dautsoz. Au, nor dan erakusten, laster asi yaku. Bere lagun ekarri daukuz egun labur-erkiñek eta gau illun-otz-luzeak, betondo astuna ta praka zar-zarrak. Zugatzak billosik, mendi ta oyanak narru-gorrian dakusguz, eta txori mustur luzeak itun eta minge. Onuntzago begiratu ezkeror, edurra tellatuan, diru gitxi kutxan, gosea ugari etxe aurrean. Bizirik urtengo ete gara aurtengo neguan? Gizonak oker dabizen lez, zerua bada asarre, gitxik egingo dabe aurtengoan barre. Udaldian lan zintzo egin ebenak zerbalt nasaltxoago ikusi geinkez; baña alper eta nagi izan diranai neguak esango dautse beñola iñurriak euli alperrari zirautsona: «or konpon, urrengorako ikasi, udaldian batu eztabenak neguan ankaz gora jausi ta goseaz arrausi, eskuek kolkoan sartu baña ezin berotu» (1932, 375 orr.).

(Ikus *Boletin Oficial de la Provincia de S. Joaquin de Navarra*, 1960, 173 orr.; San Martin, *Apendice a Escritores euskéricos*, 1969, 33 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 185 orr.; A. Onaindia, *Larrea eta Karmeldarrak*, 1968, 95 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 375 orr.).

7.—SEBERO MIGEL ALTUBE TA LERTXUNDI (1879-1963)

Ona gizaseme jatorra, musikalari, idazle ta izkuntzalari. Kezka onek artua ibilli zitzaigun bizitza barna: «Euskera ez

dedilla il, euskera biziari eutsi, euskera bizia indartu: au da gure leenbiziko egitekoa. Zeregin aundi onen ondoan beste guztiak txiki gelditzen dira... Gidari seguru bat, ao betezko maisu osoa, irizpide zuur zuzenen emale, orra zer degun Altube jauna. Ildo bat urratu eta zabaldu digu. Iztegi saillean inork ez bezela erakutsi du euskerari dagokion bidea» (L. Villasante, *Euskera*, 1963-64, 293 orr.).

BIZI-XEETASUNAK.—Arrasate (Mondragoi)n lurreratu zan Altube, 1879-11-8'an, goizeko amalketan; egun berean, arratsaldean, bateatu zuen Buenabentura Nikolas Boneta'k, bertako eleizako artzipresteak. Gurasoak: Alejandro ta Klara, biak Arrasate'koak. Aitaren aldetiko aita-amak: Juan Bautista Altube, Arrasate'koa, ta Martzelina Agirre, jatorriz Bergara'koa. Amaren aldekoak: Jose Antonio Lertxundi, Orio'koa, ta Josefa Eedia, Bilbao'koa. Beste lau anal-arreba euki zituen Altube'k: Benigno, 1878-2-13'an jaloa; Jesusa, 1882-4-8'an munduratu; Ilario, 1885-9-24'an sortua, ta Erramon, 1894-8-31'an jaloa. Benigno bertan ezkondu zan, 1900-6-20'an, **Regina** Azkoaga Abarrategi'rekin.

Bere sorterrian osatu zituen Altube'k zeuzkan ikaskintzak, 1895'tik 1902'garren urteralño. Zer egin zuen gerokoan? Nant balt ikasi zigun beste zertxobalt ere, baiña oso gutxi. Euskaltzaindia irazan eta gerotxoago, batzordeak antola ta ardurak ere banandu zituztenean, ele-alkarte orretako diru-zaln izendatu zuten Seber, 1920-4-26'an (*Euskera*, 1920, 18 orr.). Baiña orduko 1902'tik 1918'raiño, lendabizi Gernika'n Eresbatza eratu ta gero bertako Abes-batza zuzendu zuen; orrez gaiñera, 1915'garren urtea ezker, Gernika'n bertan «Alkartasuna» zerritzalon su-izkillu~oletako buru izan zitzalgun. Europa'ko len gerratean Euskalerriko arma-olarik geienak irabazi politik izan zituzten, bal ta Gernika'ko onek ere; baiña gero bertatiko batean erre egin zan au.

Urkiola'n ezkondu zan Altube, 1918-4-11'an, Gregoria Gangoiti Aberasturi'gaz. Eetzuten seme-alabarik izan.

*I*kastetxe nagusietan ikasia izan ez arren, «bere adimenari zor zion azkurria billatzen etzan batere ajolakabe edo zabarra izan», A. Villasante'k dioskunez. Linguistikari emana zeto- rren, ortan ari ziran prantsesen liburuak irakurri ta ikasiz batez ere, aien «erakutsi ta argibideak xurgatu naiez». Joan gizaldie- tako gramatikalari zarren uste ta iritziak albora utzi ta erbes- teko linguistika molde berri oiek aztertu zituen, bere idatzie- tatik atera dezakegunez, alen jakintza ta legeak gure euskerari ezarteko alegiñak egiten saiatuaz. Euskera aztertu ta ezagutzen iñor gutxi bezela alegindu zan. «Euskera bizia nal zuen batez ere, euskaldun jatorren ezpaiñetan loratzen dan bezela. Eus- kera bizi onen doaiak eta berezitasunak, nolakotasunak, joerak eta legeak sustraitik eta sakon» aztertu zizkigun.

Eta ementxe daukagu doi-doietan Altube'ren nortasuna; egiteko onetan igatu zituen bere bizitzako egun guztiak, eus- kerari buruz ziarduten bere garalko aldizkari askotan euskeraz ta erderaz idatzi ta alnbat liburu ere argitara emanik.

Txomin Agirre'k il zanean utzi zuen utsunea betetzeko, Altube izendatu zuten euskaltzaln oso, 1920-6-22'an. Sarre- rako itzaldia egin aurretik, Euskaltzaindiak Iruñan —1920- 7-23'an— ospatu zuen batzarrerera eraman zigun «Erderatiko itzak, itz barriak eta alntxiña-itzak» zeritzan txostena (*Euskera*, 1920, II zenbakia, 44 orr.); itzaldia, berriz, urte orretan ber- tan, ots, sarrerakoa, Bilbao'n euki zuen lotazillaren 28'an. Gaia: «Izkuntz-Jakintzia ta euskeriaren bizitzia» (Loc. cit. 3-49 orr.). Gure izkuntzaren bizi-ariaz onela dio: «Euskaltzaliok, euskerea malte dogula diñogunok, euskereari dagokon gauzeetatik goren- gotzat, beñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasu- na, beroneri buruzko geure eretxi-meretxijak eta enparau guzti- ja, eztira ezer ere; bazterrera jaurti bear ditugu, euskeriaren bizitzia bera, laguntasun eske, oiuka, deika, erostaka ikusten dogunean. Eta eztabilkgigu, gaur, orrela, geure izkera maite au? Aundijak dira, bai, gaur gure izkera malte onen bizitza gaixotu

au osatzeko jarkiten diran eragozpenak. Euskaldunok geure bi-jotzetan asmetan dogun beraganako suzko maltetasun aundija-ren berotasun oso-osoaa bear dau, ez ilteko, Europa'ko izkera zaarrena dogun geure euskera malte onek» (*Euskera*, 1921, *I zenbakia*, 3-49 orr.). Azkue'k erantzun zion Euskaltzaindira on-gi etorria.

Altube'k malte zuen Gernika, bere bigarren sorterrria; gi-zaki on, alai ta langille porrokatu zan aldetik, itzal goxoa edatu oi zuen nunnal. 1922'garren urtean, irailaren 10'tik 17'ra, Eusko-Ikaskuntzak Gernika urian Batzar nagusia eratu zuenean, an zan arrasatearra ere izlari, etxeko Irastorza, Elorza, Apraiz, Urkixo, Azkue, Etxegarai eta kanpoko Meyer-Liibke, Uhlen-beck, Urtel, Menendez Pidal, Navarro Tomas, Gavel eta beste batzuen artean. Irallaren 12'an, asteartez, arratsaldean itzaldi oso jakingarria egin zuen atzerritar izkuntzak, itz berrian sor-tzean, nola lagundu bear zien euskerari argi ta garbi adieraziaz RIEV, 1922, 633 orr.).

Altube'k berriro diot, maite zuen Gernika, ta balta Gerni-ka'k Altube ere. Ortik bada ezta miresgarri: 1933'garren ur-tean bertako alkate izentatu zuten autarkiz. Gerra ostean Fran-tzia'ra jo bear izan zuen, eta Pabe'n bizitu zan luzaroan. Gero, berriz ere Gernika'ra biurtu ta bertan izan zuen legezko egoitza. Nik, il aurreko urtean, udagoieneko eguerdi baten, eztei-bazkari bat zala-ta, Arrien'en ostatuan agurtu nuen azkenengoz; bere emaztearekin zegoen bazkaritan; presaka bezela agurtu nuen, baiña ala ere euskera auziari ekin genion. Biotzean borborka daramagunari ezin erreiz eutsi.

Gernika'n bertan, 1963-8-27'an, ainbat maite zuen Jain-koaren pentzutun utzi zuen bere arima sotilla.

EUSKAL LANA.—Guztiok barruan izan oi dugun griña bati, zaletasun bati jarraituz bizi gara. Linguistika zale genduan, aitortu dugunez, Altube, ta leia onek bultzata burutu zizkigun

ainbat lan eder. Idatz-izkerak, geiegi urrundu gabe, erriak ez-paiñetan darabilenari eutsi bear diola-ta, ortaz osatu zituen bere lanik geienak. Ona oietariko sail eder bat.

1) *El compds del Zartziko* (Euskalerriaren Alde, 1916, VI, 56 orr.).

2) *De sintaxis euskerica* (Euskal Esnalea, 1919). Baita liburu bezela ere. Zenbaki auetan dator: 51, 74, 99, 119, 140, 159, 177, 195, 218 ta 250.

3) *Erderatiko itzak...* (Euskera, 1920, II zenbakia, 44 orr.).

4) *Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia* (Euskera, 1920-21, 3-49 orr.). Lan luze ta mardula. Euskaltzaindian sarrerako lana, 1921-12-28 an Bilbao'n irakurritakoa.

5) *Batasunera bidean* (Euskera, 1928, 67 orr.).

6) *Ba ala bai?* (Euskera, 1922, 63 orr.).

7) *Euskerearen joskera dala-ta* (Euskal Esnalea, 1920, 21-22).

8) *De jonetica vasca* (RIEV, 1923, XIV, 517 orr.).

9) *Euskal itz barrijak* (III Congreso de Estudios Vascos, 1923, 78-93 orr.). Esan dugunez, Eusko Ikaskuntzak Gernika'n (1922) eraturiko Batzarrean irakurri zuen itzaldia, itz berriak eraltzeko erdereak zertara lagun egin bear digunari buruz. Euskal iztegiaren auzia ere ementxe azaldu zuen argi ta zeatz.

10) *Erderismos* (Euskera, 1929), ta liburu bezela (Bermeo, 1930) Gaubeka'ren irarkolan. 315 orrialde. Gerora ere bi aldiz argitaratua: La Gran Enciclopedia Vasca'k, IX, 241'garren orrialdean (Bilbao, 1974), eta Bilbao'n berriz ere (1975), A. Villasante'ren itzaurreakin, «Indautxu»etxe argitaldariak aterata; 315 orrialde. Euskeratzaz egiñiko lanetatik ederrenetariko bat; euskal idazlerik jatorrenak ementxe ikasi dute izkera bizi, arin ta joskera bikaiña erabiltzen.

11) *La vida del euskera* (Euskera, 1933, 299-397 orr.). Linguistika orokorraren oiñarriak dituzu euskerari ezarrita. Euzko-Argitaldariak ere (Bilbao, 1934) egin zuen beste argitalpen bat.

12) *El acento vasco en la prosa y en el verso* (Euskera, 1932). Eta liburuxta bezela Gaubeka'ren irarkolan (Bermeo, 1934). 329 orrialde.

13) *Observaciones al tratado de «Morfología Vasca» de Azkue* (Euskera, 1934, 5-231 orr. ta Bermeo, 1934, Gaubeka, 231 orr.).

14) *Mds sobre la vida del euskera. Barrero euskerearen bizitzari buruz* (Euskera, 1936, 1-192 orr.).

15) *Fonetica y etimologia euskericas* (Eusko Jakintza, 1947, 48-50).

16) *Notas sobre el Santoral Vasco o «Deun Ixendegi euzkotarra» de Arana Goiri'tar Sabin* (Bilbao, 1933), eta Euskera, 1933, 153-196 orr.).

17) *La unificación del euskera literario* (Eusko Jakintza, 1949, III, 181-204 orr.).

18) *Erderakadarik txarrenak* (Euzko-Gogo, 1950, I, 13 orr. ta abar) Bost lan.

19) *Acentuación española y francesa de los apellidos y topónimos Vascos* (Gernika, 1951, 52 orr.).

20) *Laztantzxu eta Betargi* (Baiona, 1957). Alderdi'n dator.

21) *La fonction de la douleur* (Pau, 1954). Oiñazeaz idatzi sakona; erbestean idatzia.

22) *Euskaltzaindiari* (Euskera, 1959).

23) *Literatur-Euskera* (Euskera, 1956, 3 orr.).

24) *Ipuin politak*, Or-emen argitara zituen, umetxoentzat batez ere. Ona Euskal Esnalea-n datozen batzuk: «Ama!», «Betargitxu» (1912, II 243 orr.); «Txander zintzo» (1917, VII, 42 orr.); eta «Euzkadi» aldizkarian: «Urre-gorritzko irakurgaiak» (1913, X, 157 orr.). Eta olaxe beste batzuk.

«A. Lertxundi» erabilli zuen izengoiti bezela.

Euskal idazle jatorra genduan. Ona zatitxo au Azkue jauna il zanean ondua: «Azkue jaunak, jakiña degu, Bilbo izan zuan, urterik geienetan, langintza-erri; baika Lekeitio jaioterri, gazarro-erri, baita geroetan atsedeen-erri ere. Bilbo'tik Lekeitiorako

joan-etorrietan, Gernika'h sarri ta sarri bixitatzen ninduan; eta nik ere bixita oik ordaintzen nizkion, pozik, Bilbo'ra joaten nintzanetan; eta au, Euskaltzaindia sortu baiño len, bere etxean. Bein baten, etxe onetantxe, beti bezela, mintzai-jakintzaz, euskal-jakintzaz ari giñalarik, atera zuan pillakatuta zeuzkan liburu ugariatatik bat, eta eskuratu zidan, auxe esanaz: «Liburu onetxek kendu zizkidan, lenbizikoz, mintzai-jakintza gauzetan begiak illuntzen zizkidaten lausoak. Irakur zazu zuk ere lenbizi auxe, eta gero gerokoak». Liburu ura, ondo gogoan det zein zan: A. Hovelacque'ren «Linguistique» deritzaiona. Azkue-ren autorkuntza orrek, nere ustez, inportantzi aundiko zer auxe eragertzen digu» (*Gernika*, 1952, 20 orr.).

IRITZI-AITORTZA.—«Euskera» aldizkariak: «Beti eskatu zien euskeraloagai munduko linguistarik onenak eta aien metodak ezagutu eta estudiatu bear dirala eta batez ere *La Vida del Euskera* liburuan garbizalekeriaren akatsak begien bistan jarri zizkigun eta literaturaren forma bide zabalago eta naturalagoe-tara eraman nai izan zuen, linguistika zientziaren ezagutzeak ortara baltarama edozein» (1962, 353 orr.).

L. Villasante'k: «GizaM aldetik gure Altube jauna nola-koa zan adierazteko, nik eztet aurkitzen berak iñoiz eibartar bati entzun zion itz ura baiño egokiagorik: *gizon benetalarixa* (formala). Alakoxea zan izan ere. Zuzena, arteza, zintzoa. Kristautasunean erro sakonak egiña, naiz sinismen naiz oituretari Eliza Amari sendo atxikia» (*Euskera*, 1963-64, 295 orr.).

M. Zarate'k: «Or izentau doguzan idazlan orreik zein barño zein ederragoak dira gai aldetik eta, nalz ta Altuberen denporatik ona aurrerapide andiak egin Linguistika arloan, bearbearrezkoak dira euskera lanetan diarduenentzako, bizkaitarrentzako, batez bere. Euskalerrri osoko euskaldunal begiratuta, zorrotzegia, estuegia da Altube, joskera arazoetan» (*Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 178 orr.).

Neretzat ba-dute garrantzirik Altube'k, bai euskeraz, bai erderaz burutu zizldgun lanak. Txit txalogarri ditugu, gaiñera,

Azkue, Intza, Mokoroa, Altube ta taiu ontako gizonak, gure alo-rean egiteko ain ederra osotu dutenak: begi-luze ta belarri-erne, erriarengana makurtu ta onen ezpanetatik jalgita jasotako esaera zarren bildumak biribildu dituztenak, noski bai noski. Antziñako iturri gardenetik zurgatu ditube ainbat esakun-esaldi bitxi ta jator, gure asaben sukaldeko laratzak bakarrik ezagutzen dituztenak, euskal alton-amonak itzetik ortzera jalkitakoak, joskera giarrak, ipuin zar-sundaz beterikoak.

Olakorik ba-du Altube'k, erriaren agotik ikasi ta jasoak, eta liburu zar austuetan irakurri ta txeraz aakeratuak. «Erderismos» idaztia adibidez, ederrenik ederrena dugu euskal idazleok euskal joskera jatorrez jabetzeko. Orrela baldin ba-dagigu, izkera aberats, bizi ta giarrenetan ariko gara. Alderantziz jokatzerakoan, euskal girotik urrutiratuak giñake.

(Ikus *Euskera*, 1962, 363 orr.; A. Irigarai, *Egan*, 1963, 1-3, 118 orr.; N. Altzola, *Egan*, 1963, 4-6, 194 orr.; L. Villasante, *Euskera*, 1963, 293 orr.; Orixe, *Euzko-Gogoa*, 1954, V, 42 orr.; M. Arriandiaga, *Euzkerea*, 1930, I, 285 orr. ta 1935, III, 432 ta 488 orr.; K. Bouda, *Eusko Jakintza*, 1950, IV, 81 orr.; Basilio Guerra, *Aranzazu*, 1934, XIV, 96 orr.; S. Martin, *Escritores euskericos*, 21 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 425 orr. ta *Diccionario*, A. Amuzti, 534 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, I, 124 orr.).

8.—ZAKARIAS BIZKARRA ARANA (1879-1963)

Abadiño'n jalo zan 1879-11-4'an. Gurasoak: alta Bizente ta ama, Maria Anjeles. Apaiza. Espaiña'ko Katoliku Ekintzako Gotzai-Aolkulari izan zan luzaroan. Madrid'en il zan 1963-9-18'an; Abadiño'ko eleizan dago bere gorpua.

IDAZLE.—Nabaria du liburu au: *Cristinamren Jaquinbide Laburtua Jainco Jaquinquizun edo. Teologiaco Irakasle Bizcarraco Zacarias jaunac erderaz ipiñi ta Bizcaico Abade batec bertaco eusquerara biurtuta* (Durango, 1911). Florentino Elo-

su'ren etxean. 19 orr. Erderaz lan asko argitaldu zituen elizgaiak geienak, eta Ekintza Katolikuari buruzkoak batez ere. Beste au ere oargarri dugu: «Vasconia española» (Bilbao, 1940).

(Ikus San Martin *Escritores euskericos*, 1968, 167 orr.; Auñamendi, III, 434 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, II, 63 orr.).

9.—BENITO BIZKARRA ARANA (1889-1973)

Zakarias'en anaia, Abadiño'n 1889-3-21'an jaloa. Apaiza. Abade ikasketak osotu ta jaupari egin zanean, Araba'ko Oiardo'n egotalditxo bat egin ondoren, Urkiola'n egon zan urte mordotxoan, ogei urtean gutxienez, mendi gain zoragarri ontako arimazal ta arduradun.

Bizkarra ara joan aurretxoan, 1915'an, eliz barriaren zati bat bedeinkatua zan; bestea, ostera, On Benito an zegoela egin zan, eta 1828'ko bagillaren 5'an —diñosku berak—, San Antonioren bederatzi-urreneko lenengo egunean, inguruetako abade ta eliztar ugari lagun zituela, Vitoria'ko Obispo-ordezkuak bedeinkatu eban bigarren zati bat. Zati onegaz amaturik geratu zan eliza barriaren erdiya: au da, 30 metro luze ta 30 zabal». Barru au azken urteotan berriztatu dute, txit jaseko, apain ta zaloi utzirik. 1933-8-27'an, bizkaltar, gipuzkoar eta arabar apalz, lekalde ta eliztar askoz inguraturik, Gazteiz'ko gotzal Mateo Muxika Urrestarazu'k sagaratu zuen.

Gudaldian izan zituen Urkiola'ko erretoreak bere estukura, ta zanburrio ta urduritasunak. Balña gorri-zuri arteko muturketa latzak, batez ere Salbigain'koak bukatu ta bazterrak baretu ziranez, an zan ostera ere bere santutegiko egikizunetan; 1937'eko agustuaren 22'garrena zan. Andik laster Areatza (Billaro)'ko artzipreste izendatu zuen Jabier Lauzirika Gazteiz goterkiko Arduradunak. Emen urte batzak egin ondoren

Madrid'era aldatu zan; eta azkenez, Abadiño'n il zitzaigun 1973-1-20'an. Bere gorpua Urkiola'ko il tokian datza; emengo oorezko kanonigu bait genduan.

Euskeraz idatzi zuen. Ona bere liburuxka bat: *Urkiola'ko Bederatzi-urrena* (Durango, 1933); bigarren agerraldia (Madrid, 1943), 138 orrialde. Liburu ontaz au dio Bizkarra': «Ziur-ziur ez dakigu nori zor deusagun San Antonio Padua' koaren bederatzi-urreneko liburutxu polita, bere «amar Pater-noster»-etako erreguakaz, eta gañerako zortzikuakaz. Baña alan bere, badakigu liburutxo ori zerbaltst barriztu ta atondu ebalá Fray Juan Domingo Unzueta, Abadiano'ko seme argitsuak, konbentuetatik agintari liberalak yaurtinda, Urkiola'ko eleiza onetan egon zan bitartean. Ikusi doguz, 1850'an egiñak; 1882'an J. Eleizalderen moldeztegian, Durango'ko urian egiñak; 1890 ta 1893'an Bilbao'n Viuda de Elizalde'nekuak; 1909'an, Durango'ko Florentino Elosu'enian egiñak, eta 19.12'an Vitoria'ko Montepio'an egin ziranak» {*Urkiola'ko Bederatzi-urrena*, 1933, 36 orr.).

Otoitz, eskari, erregu ta kantuz ornidutako liburu egoki au, oralntsu arte erabillia izan da Urkiola'ko eleizan batez ere.

Erderaz ere au beintzat argitaldu zigun: *Reseña histórica del multiseccular Santuario de los Santos Antonio de Urkiola* (Gazteiz, 1932). Montepio'ren irarkolan. 101 orrialde. Iñazio gaztearen edergarriz apainduta. Urkiola'ko Santuetaz idatzi dan edestirik oso zeatzena, alegia.

(Ikus San Martin, *Escritores euskiricos*, 167 orr.).

10.—SATURNINO SOLOETA ITURRONDOBEITIA (1881-1964)

Aita kaputxinoa, ordenan Dima'ko Fernando A. zeritzaiona. Bizkaí'ko erri zabal, zugatzez eta arkaltzez biraturiko Dima'n, Bargondia auzunean, 1881-2-11'an munduratua. Euskaldun mi-
xiolari aspergaitza.

Jainkoaren deiari leial erantzunik, latin eta onen inguruko ikasketak Larrea'ko prezeptori edo irakasle-etxean burutu zituen, 17 urtekin Bilbao-n Basurto'ko kaputxinoetan praille sarturik. Beste ikaste nagusiak —Filosofia ta Teologia— Gaztela'ko kaputxinoen komentuetan osotu zituen. Ikastaroak doi-doi amaitzeko zegoelarik, Bizkaia, len Gaztela'rekin batuta zegoena, Gipuzkoa ta Naparroa'ko lekaide probintziakin alkartu zan, ortarako egin zuten probintzi mugaketa berrian alegia. Baiña kontuan euki: Bizkaia probintzia, bai; baiñan uriburua, Bilbao, ez. Eta oraindik ere, Gaztela'ren menpean jarraitzen du Bilbao'k, euskaldun kaputxinoek iñoiz ere amor eman ez duten arren.

Soloeta alde onetara etorri zan, emen bukatu bere elizikasketak; 1908-3-13'an apaiz sagaratu ta Jose Deunaren egunez Dima'ko eliz nagusian eman zuen bere meza berria. 1908-1909'garreneko ikastarca Friburgo'ko Goi-ikastetxean egin zuen legeak geiago ta cbeto ikasten, Aita Jetino domekar ospetsuarekin batera. Eta ua amaitzean, naiz eta orduko aski euskaltzaletua izan —berak utzi omen zion J. Urkixo'ri Ondarribi'ko komentuan Añibarro'k bizkaierara itzulita zeukan Axular'en «Gero»— Arjentina'rako itxas-ontzia artu bear izan zuen. Amabost urte erre zituen Ameriketean, 13 Buenos Aires'en eta 3 Txile'n; Arjentina'n «Euskal-Etxea»-n 13 urtez irakasle, «Nueva Pompeya» basilikako txaunburu ta prailleen nagusi izan zitzaigun, eta Txile'n Santiago uriburuko lekaideen buru ta laterri artako praille kaputxinoen aolkulari. Adiskide asko zituen euskaldunen artean.

Bere errira itzuli zan 1927'an, oraindik ama bizi zitzaion eta. Ontan, Euskaltzaindiak deituta batzar batera ere joan zan, eta gomuta atsegingarria izan omen zitzaion beti an egon izana. Erroma'rako bidea artu zuen endoren, eta andik, nagusien baimena lorturik, 1928'an Txina'ra jo. Yurre Aitak diñosku: «Pingliang'en —euskal kaputxino mixiolariok iñondik uste ez genduala, an agertu zitzaigun bakar bakarrik eta poz-pozik ta

osasun on-onean—. 47 urte zituan orduan ta gazte-gazte ta indartsu zegoen». Gogotsu lan egin zuen mixio-lur aretan, bal-ta gorriak ikusi ere Mao-Tse-Tung'en gudarosteak Txina osoaz jabetu ziranean batez ere. Giitzapean sarri euki zuten.

Igeska bezela, 1954-2-3'an, Manila'ra iritxi zan itxason-tziz, Aita Julen Yurre'ldn batera. An ekin zion berriz ere bere mixio-lanari. Amar urte eman zituen olaxe, egundo ere gelditu gabe, kaputxino-gazteen apaizgai-etxean eta irakasle izanik. 1964-6-21'an il zan iruzpalau egun gaixo egiñik. Euskaldun seme, argi ta sakona, gutxi izan oi diran bezelakoa.

IDAZ-LANAK.—Ameriketara jo ta laster asi zan idazten, RIEV dalakoan, adibidez, «Añibarro, traductor del «GVE-RO"», 1910, IV, 592 orrialdean. Arjentina'n «Euskal-Etxea»-ko malxu zalarik, bertako ikasleentzat euskal ikaspideak osatzeari ekin zion. Ona sasoi artako A. Fernando'ren lanik beiñenak:

1) *Curso primero del Idioma vasco* (Buenos Aires, 1912). 92 orrialde. Gipuzkeraz.

2) *Curso segundo del Idioma vasco: Conjugacion sintetica del verbo basco, comenzado por consonante* (Buenos Aires, 1913). 58 orrialde. J. Urkixo'ri eskeiñia. «La Baskonia» irarkolan.

3) «*Le Petit Basque*». *Cours elementaire de grammaire basque, dialecte labourdin* (Buenos Aires, 1913). Vivity, Bos-sio ta Lagunen irarkolan. 148 orrialde.

4) *Ensayo de unificacion de dialectos baskos* (Buenos Aires, 1922). 173 orrialde. «La Baskonia» irarkolan. Gaurko arazoa arrotu zigun malxuki.

5) *Mi cautiverio bajo el dragon rojo* (Buenos Aires, 1934). Liburu au, gorri-garaian berari jazotakoz antolatua, nagusiak ortaratuta idatzi zuen, eta Arjentina'ko Aita kaputxinoak argi-tara zioten. Liburu berau A. Iraizoz'ek euskerara ere biurtu zigun, titulu onekin: «Lapurren menpean; Erensuge Gorriaren soldadu-taldean atxillo egondako Misiolari baten oroitzapenak»;

Iruña'ko «Zeruko Argiak» eman zuen, 1935'garreneko garagarrilean asita 97'garren orrialderaiñokoa eman ere. Baiña zoritarreko guda sortu zala-ta, etenik geratu zan argitaratzea ta etzan geiagi zati ura basterik atera.

Merezi du liburu onen sarreran irakurleari diotsana emen jartzea. «Ez uste izan, irakurle maite —dio—, nik liburutxo au nere gogoz idatzi dedanik, ez orixe. Nere gogoaren bortxa jarri nalz ortara. Nere adiskide mauteak, lapurren artean egon nintzanean ikusitako gauzetaz zerbalt eskatzen zidaten bein ta berriz ta askotan, gogait egiterañoan; baña nik guziai ezezkoa ematen nien. *Ibeltzean* (1934) gelditu nintzan lokabe (libre) eta Maiatzera arte ez nuen ortaz itzik ere idatzi. Orduan nere Nagusiak bitarteko jarri ziran, eta Nagusiak Jainkoaren ordezkoak baltira neretzat, alen esanera erori nintzan nal banuen ta ezpanuen. Orrialde auetan kontatzen diranak ixil ixil iñork jakin gabe gelditu balira, naiago nukean; alde batetik, zuretzat bat ere jakingarriak ez dirala uste nuelako, bestetik berriz, bear gabeko gauzarik egin bear ez dalakoan nagoelako. Nere lantxo au argitara ateratzen bada, ori idazteko ta ateratzeko agindu didatenen kontura agertzen da. Beste, atxillo (preso) egondako misiolarien idazkirik ez det irakurri; baña aien aldean nere idazki au motela, utsa ta ezereza izango zalzula etsirik nago» (*Zeruko Argia*, 1935, uztailla, 4 orr.).

ONDORENA.—Soloeta Aitaren liburuok arakatzerakoan, argi ikusi dezakegu egi au: dimostar jakintsuak, euki zituen ikasleal euskeraz irakastean, biderik errezenaren billa zebilkigula: euskera garbi, errez ta errikoia nai zuen. Ortan saiatu zan.

Euskal irakaspideak bi eratan osatu zizkigun: espain-erderaz ta prantses-erderaz; batzuk alde ontakoentzat eta besteak araindiko ziran euskaldunentzat. Mugaz emendikoentzat, gaiñera, giputz euskalkia idazten du. Jokabiderik errezena orixe zala, uste zuen.

Gure aditza azaitzean, adizki zuzenak, au da, «ni jausten naiz», «nik ekartzen ditut»; naiz gauzak, «nik liburua ikusten dut», nalz izen-ordezkoak, «nik ikusten zaitut», bakarrik sartzen ditu lenengo maillan. Beste zalilagoak, berriz, ez ditu sartzen oralndik. Mugaz bestekaldekoal Lapurdi'ko euskera irakasten die; ta, au egiterakoan, egite-mallan biderik egoki ta errezena opa zuen, erria itz-egitera ta irakurtzera jarri ezezik, ola euskal elertia ere duindu zedin. Jakintza mallan egin zuen lana ere gutxik bezela euskera ikasi ta azterturik, txalogarria izan zan. Ain zuen ere, jakintza maillan burutu zuen ikaskizuna, euskera xeetasun osoan zekian euskalari aundiaren lana danik ezin dezake iñork ukatu.

(Ikus Yurre'tar Julen A., *Egan*, 1964, 1-6, 134 orr.; Balentin Berriotxoana Anaia, BAP, 1964, 323 orr.; L. Villasante, HLV, 397 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 439 orr.).

11.—JON GURUTZ IBARGUTXI AGIRRE (1883-1969)

Euskaltzalndia —1969-9-21'an— Donosti'ko Aldundegian bere Urrezko Eztalen oroitza ospatuaz bildu ta, ixilleko batzar ondoren, agirikora etorri zanean, izpar goibel bat jakin-erazi zuen maiburuak. Onela dio orduko agiriak: «Lekuona jaunak pixka batean alde egin bear zuala, ta Aita Intza jarri zan bille-rako buru. Asiera, berri illun batek eman zion gure jardunari: Ibargutxi'tar Juan apalza, euskaltzain zaarretakoa, illa zala. Aren dolumiña adierazi ta lagun joanari bere omena egin zit-zalon (G. B.)» (*Zeruko Argia*, 1969, iraillak, 28).

Omena merezi zuen, bai, Ibargutxi'k. Eta merezi du gaur ere. Eta etzalo eman oralndik, bear alñako giro ta aunditasu-nean beintzat. Merezi du, ala ere, urte zenbaitez eta ederto euskal soroan gcldatu zigulako. Orixe'k ontaz: «Matxinada aurreko urtietan cndo ezaguna gendun Bizkai-Gipuzkoetan Ibargutxi'tar Jon Gurutz iauna, «Jaungoiko-Zale» ta «Ekin»

irakurten gendunon artean. Bizkaia'n Eguzkitza aundia ta *Ibargutxi* idazle bikotea lakorik bai ete dogu beste iñungo Euskalerritan? — Biribil esango dot, ezetz» (*Karmel*, 1960, maiatza-bagilla, 66 orr.).

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Gorbea azpian, eguzkira begira daztan Ubidea erritxoan, Bizkai ta Araba muga gurenean jaio zan *Ibargutxi* 1883-11-23'an.

Denok txiker-txikerretatik, zelan edo alan, barnean somatu oi dugun deiari erantzuki, laster asi zitzaigun *Ibargutxi* eliz-ikasketak osatzen. Gazteiz'ko apaizgaitegira jo zuen ortarako, eta antxe egin zituen jaupari izateko bearrezko diranak, 1897'tik aurrera. Amaika urtean latin, Filosofia ta Teolojia ikasi ostean, 1907'an artu zituen ordena txikiak eta 1908-12-19-n apaiztu zan, antxe bertan, garai artan Gazteiz'ko goterkian Gotzai zan Jose Cadena y Eleta'ren esku-ezartez; 37 izan ziran guztiz apalztasuna artu zutenak, eta oien artean bi Txomin Ugartetxea Urkieta, markiñarra, ta Polikarpo Larrañaga, Soraluze'ko semea, biak euskaltzale finak.

Ibargutxi geroztik arimazai egona dugu Zestafe'n, Marin'en eta Eskoriza'n, eta azkenez gerra aurretik, 1915'garren urtez gero, Eibar'en, Ander Deunaren elizan. Guda ondoren erbes-teratu bearra izan zuen, eta 1938'tik 1940'rarte, La **Roche**-lle'ko **Roche**fort-sur-Mer errian, San Luis elizan egin zuen apaiz laguntza. Euskalerriratu zan ondoren, eta nagusiak Errioxa'n Badaran erritxoa jarri zuten bere zaipean: guztiz jainkoti ta ariña zebillen, nik, 1945'ko garizuman an izlari izan nintzanean, ikusi nuenez. 1950'an Basauri'ko *Basconia* neskato ikas-tolako kapellau izentatua izan zan, eta arrezkero guztian, emetzi urtetan, ementxe lan egin zuen egundo ere aspertul barik.

Ubidea'n, bere jaioterrian il zan, 1969-9-14'an.

EUSKAL IDAZLE.—Amaren ezpaln eriotik ikasi zuen izkuntza etzeukan iñoiz eta iñun ere zokoratzeko asmotan. Aurrenik ikasle zala, ta gero, arimen ardurea izan zuen errixkaetan, idazti

zarrak irakurriz eta jendearen agotik xurgatuz, gero ta obeto ikasi ta sakondu azi zigun gure euskera ederra. Orixe dakusgu argitara zituen liburuetatik.

Luma eskuan zuela bizi izan zan; naiz emen naiz an bizi-tu, berdin zitzaion idaz-lanari ekiteko: egiaz malte duguna nekez piper utziko. 1912'an, «Jaungoiko-Zale» bazkuna ta aldizkingia sortzerakoan, or aurkitzen dugu Ibargutxi ere bazkide ta idazle bezela. 1919'garreneko urrillaren 26'an, Donosti'n Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian ospatu zan Euskaltzaindi osatu berriaren batzarrean izendatu ziran euskaltzaln urgazleen artean, Bizkal'tik bat J. G. Ibargutxi izan zan. Geroago, urteak joan urteak etorri, 86 urteko zala, ohorezko euskaltzaln egin zuten, 1968-12-4'an.

Nekatu gabe idatzi zigun «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en, «Euskera»-n, «Karmel»-en eta abarren. «Gurutz» eta «Iturondo» izenordeak erabili zituen.

Ona ark argitara ekarri zizkigun lanak:

1) *Loyola'tar Iñaki Deuna'ren Bederatziurruna* (Bilbao, 1915). Jaungoiko-Zale'n idaztijak. 50 orrialde.

2) *Jaungoikoaren Legeko Aginduak* (Zornotza, 1925). Jaungoiko-Zale'ren idaztiak. XVI-318 orrialde. Eliz aginduak ere berton datoz. Ona berak: «Zietz, garbi ta labur idazteko alegin egin dot. Itz ezezaun edo gitxi erabillitako batzuk begiz joko dituzu. Ez izutu. Ez egizu ori dala-ta, liburutxu au amorruez eskutik yaurti. Zaldu zaite. Irakurri, irakurri. Gaya berez astuna ta latza da, ta gure izketa ederrez gitxi erabillia. Ez ba izketeari errurik ezarri, gai berari baño. itz ezezaunen ondoan, ezaunagoak aurkitako dituzu». Bigarren argitalpena ere izan zuen, *On Zirilo Artzubiaga zanaren ardurapean*, «Uzkurtz-Irakurgayak» (Bilbao, 1953), *Verdes-Atxirika'renean* egiña. XV-314 orrialde.

3) *Omen-itzaldia* (Ondarroa, 1934). 1934'garren urteko bagillaren 27, 28 ta 29'an, omenaldi bi egin zitzaizkion Txomin Agirre'ri Ondarru bere sorterrian. Bata zar-ontzailleak,

eta bestea Eusko Ikaskuntzak; eliz jakak izan ziran, umetxoen euskal azterketak, itzaldiak eta abar; itzaldiak batez ere J. G. Ibargutxi'k eta Gabirel Manterola'k egin zituzten.

4) *Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak edo Sakramentuak* (Zornotza, 1932). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. XV-325 orrialde. Aita Estefania josulagunak onela idatzi zuen: «Bikal'ko euskera jator ugaria darabil, eta ederra ere bal euskalki onetan idatzi dutenak erabilli duten bezain ederra, naiz-ta, antze alderditik so-egin ezker, darabilen gal-motagatik, bi edo iru idazlek galña artu dezakeoen arren. Garbi ta jori ta egoki ta zeatz ari da, baita izkeran argi ere. Irakatsi seguru, tiako, betea du, Eleizearen Maisutza uts-eziñaren iturri eta bere iruzkin, azalpen itzalgarrietan edandakoa. Orrez galñ, eta errazoiz, gai onetan euskeraz erabilli izan diran idatziak, labur esanda, Pral Bartolome, J. B. Agirre, A. Sebastian Mendiburu ta Axular txit ospetsuaren idatziak» (*La Gaceta del Norte*, 1933, 7-30). Bigarrenez ere argitaratu zan liburu eder au (Bilbao, 1954), Verdes-Atxirika'renean. XVI, 354 orrialde.

5) *Edesti Deuna* (Zornotza, 1936). «Jaungoiko-Zale» bazkunaren irarkolan, 245 orrialde. Itun zarra ta berria artzen ditu, ederto azaldurik. Ona berak: «Jesukristo dogu gure erospen, gure Irakasle, Jaungoiko ta gizonen Bitarteko, gizadi ta Eleizearen Buru. Gizarteko gora-bera guztiak Jesakristo'rengana joten dabe. Jesukristo'renganako gerta-bide izan zan Itun Zarra. Gure lenengo gurasoak jausi ordakoxe, egin eutsen Jaunak Eroslearen agintza. Ta urteak joanaz, geroago ta biziago agertzen yaku Itun Zarrean Jesukristo'ren irudia, arek eta aingeruak Maria'ri Jaungoiko-Semearen gizakundea iragarri arte-ragiño. Baita gure Eleizaren azi ta sustraia be, Israel errian dogu. Arei jazoten yaken guztia gure irudi zala, diñosku Paul deunad (*Korint. 1, 10-11*). Jesukristo ta bere Eleiza, diran bezain eder, sendo ta maltegarri ikusi ta irakasteko bide dogu, ba, Itun Zarra. Auxe izan da gure asmoa Itun Barriko jazokuntan be».

6) *Geroko bizitza. La vida jutura* (Bilbao, 1953). Edkorial Moderna irarkolan. 170 orrialde. Orixe'k onela: «Zerua, zori-ona eta atsedentoki; ikuste zoriantsua eta beste zenbalt gauza ialdngarri. Bizitza doatsua ez eze, bizitza doakabea ere azter-tzen ditu; Garbitokia; umien linboa». Auxe duzu Zirilo Artzu-biaga'k, «Kristiñau-Ikasbide-Atzalpena» titulupean, Bilbao'n —1953-1955— argitaratu zizkigun lau aleetatik lenengoa: I: *Geroko Bizitza*; II: *Jaungoioha'ren ta Eleiza'ren Aginduak*; III: *Eleiz Ama Deunaren Ikurtanak*, eta IV: *Otoia*.

7) *Otoia* (Bilbao, 1955). Verdes-Atxirika'renean. 211 orrialde. Orixe'k au: «Oso-osoko lana; agozko ta gogozko; otoitz eginbearra; zer eskatu; nortzuei ta norentzako; Aita Gu-rea; Andre Mari'ri: Agur, Mari; Agurtza; Andre Mari'gana eraspén edo deboziñoa; aingeruai otoia; deunei otoia» (*Karmel*, 1960, 66 orr.).

8) *Siñiskaiak* (Bilbao, 1959). Verdes Atxirika'renean. 598 orrialde. Lan onekin bukatzen du Ibargutxi'k Kristiñau-Ikas-bidea azalduz egin zigun Teoloji osoaren laburpena. Kredoa deritzan otoitzean esan oi ditugun jakite ta enparauak sakon ere sakon arakatu ta azaltzen ditu ubideatar jakintsuak lan jori ta mardul onetan. Ementxe datoz galñera algeru ta gizonak zer diran: giza-gorputza, arimea, jatorrizko obena, gizonaren elburua, ta abar. Dotriña osoaren azalpenean, lenengo zatia be-zela dugu, au. Orixe'k onela; «Lenengo ta beiñen: Iaungoi-koaren Beraren itza, Biblia'tik, eta batez bere, Ebanjeliotik ar-tua; urrena, Eleizako Gurasoena; Eleiz-batzarretako erabagiak; teologia; gizonak beure argitasunez irixten dauna, edo Piloso-pi zindoa. Ikusten dozunez, irakurle, ur garbiagorik eta osa-sungarriagorik eziñ eskeiñi. Eta, oparo eskeiñi be. Libururik onenetako soroak ondo arakatu ditu, eta areitako lorea ta guna ta mamiña biltzen, erle langillea lez saiatu da» (*Karmel*, 1960, maiatza-bagilla, 66 orr.).

Idazlanik asko dauzka oindio, argitara emanak eta gabeak. Azken auetatik: *Mezadia*, edo Urte guztiko mezak, 1962'tik zeukan irarkolara eramateko gertatua. «Jaungouko-Zale»-n, «Ekin'en eta «Karmel»-n idatzi zuen batez ere.

IRITZIAK—Euskal idazleok ez gaude akatsik gabe; lengoak izango zituzten beurenak, balta gaurkoak ere. Bat auxe, kritika soroan lurra iraultzean beiñik-bein: «Iñork esanetatik epaltu oi ditugu lanik geienak». Ez duzu au utsik kaskarrena, gorago ere esana dugunez. Ubideatar idazle bizkorrari buruz ez ote dugu jokabide bera erabili? Ni balezkoan nago. Irakur zazu ondorengo iritzi-sall alkarri giblez ta mokoka dagoena.

Orixe'na duzu galdera au: «Bizkala'n Eguzkitza aundia ta Ibartutxi idazle bikotea lakorik bal ete dogu beste iñungo Euskalerritan?» «Euskera gozua, garbia du —dio berriz ere Orixe'k—. Oraingo euskaltzaleak bere ondo ulertu dagikee. Zenbait aldiz itz barriak edo aspaldiko ez diranak erabilten ba'dauz, ondoan ipinten dau beste bat argitasunerako»,

Luis Villasante'k: «Ibartutxi'ren euskera garbiegia duzu, ezertara ere ontzat artu ezin litezken itz tzar —*ikurton*, *sakramentu* ordez—, alperreko, motel, itsusiz beterik; era batera, balña, irakas-idazkera argia ta laguntasun bikaiña damakie apalzal aren lanak. Ibartutxi'ren lanak beti ditugu oiñarri sakonak» (HLV, 1961, 395 orr.).

M. Zarate'k onela: «Ibartutxik darabilzan gaiak zall samarrak dira, bal. Baiña euskera aldetik bere (berak alan uste izan ez arren) zall samarrak dira. Euskera ondo ta sakon daki; balña (bere aldiko semea dogu au bere-ta) beti berba garbiak erabili gureak kalte andia egiten deutse bere idazlanen argitasun eta gozotasunari. Beste euskalkietatik artzen dauz itz asko. Arantarrak asmaurikoak bere alnbat artzen ditu. Galñera, euskera zaar zale da. Eta, jakiña, orrek astunagotu egiten ditu bere gal astunak. Dana dala, ondasuntegi bat dira Ibartutxiren liburuak» (*Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 189 orr.).

L. Mitxelena'k, I. Sarasola'k eta beste batzuk, gure literatura galan ari izan arren, ez dute aren aipurik ere tximizkatzen. Eta sei ale aunditan Teoloji osoa euskeraz jarri ta argitara emana dugu: ixilla, zapalketa bera ere baiño zitalagoa dugu sarri. Beste batzuen lanak, naiz-ta oso urriak izan, elbitz batzailleak belarra irudi, sarde puntaz dantzarazi oi dituzte. Zergatik ezberdiña dirudin neurkera au? Erikor ematen giza-lege onek.

Izterbegion esanak gorabera, zein irakatsiz eta zein izkeraz gorena dugu Ibargutxi. Norbera izan oi da iritzi ederrena geienik. Txasta ezazu, beraz, urrengo zatiño au, ta zeorrek esan atsegin zaizun ala ez. Gogoko bizitzari buruz ari dala dio: «Abade egin-barri nintzala, gorengo maillako otoiketa eban gizon bat ezagutu neban nik. Beiñola itandu neutson: Zelan egiten dozu zure otoiketa? -Ara ba, jauna, ni artzaiña naz. Kristau-Ikasbidea aldean erabilli oi dot beti. Goizean-goiz, artaldea larratutakoan, pagondo baten jezarten naz, ta Ikasbidea aterata, zertxobait irakurten dot. Orixe izaten da nire gogoaren janari egun barruan». Artzain onek egiten ebana guk bere egin geinke, ta aren antzera gure siñesmeneko egi mardulak gogoan erabilli ta Jaungoikoz bizi. Argibidetzat liburu on bat eskuetan artu ta mara-mara irakurri. Ta irakurten doguna ausnar egin, gogoan erabilli, batera ta bestera eragin. Arako eskuartean darabilgun auzi edo arazo astunen batek biziro minduten gaituanean, jo batera, jo bestera, beti gogoan erabilli oi dogu, geure buruak onez aterateko argi ta bide-billa, Olantxe ekin, argi ta bide-billa, gure arimaren onerako diran arazoetan bere» (*Otoia*, 1955, 18 orr.).

Naiko duzu, txatal batetik ezagutzen da-ta idazle ona. Sus-traiz zekien euskera, ta, bere gaia -Teolojiatzkoa— zaila izanik ere, etzebillen bidekatua bezela. Gala ondo ulertzen duenak argi adierazten ere ba-daki, ez izan itzal edo ezbaitasunik. Ola dagiana da Ibargutxi. Dotriña zaillari bere iruzkiña, azalpena jartzen dio aurretik. Itzarekin ere berdintsu dagi, zarra, berria naiz ez-ezaguna baldin ba-da, azpian edo-ta taket artean ipiñiko dio argitasuna.

Gaztetatik esku artean erabili ditut *Ibargutxi*'ren idatziak, eta ezin dezaket inñolaz ere uka, naiz leen naiz oraln, probetxu aundikoak izan dirda niretzat. Ar ezazu zuk ere eredu bezela, ta etzaizu damutuko noski.

(Ikus Orixe, *Karmel*, 1960, maiatza-bagilla, 66 orr.; L. Villasante, *HLV*, 395 orr.; K. Etxenagusia, *Loratagia*, 63 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 27 orr.; S. Martin, *Escritores eushericos*, 98 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko...*, 188 orr.; A. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 126 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 492 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, IV, 308 orr.).

12.—LEONARDO GOITI ZUGAZAGOITIA (1880-1966)

Mañari'ko semea, emen bait zan ludiratu 1880-11-6'an, goizeko amarretan, eta arratsaldean bateatu zuen bertako txauru Paulino Jose Barrueta'k. Bere gurasoak: Aita, Fermin eta ama, Maria Esteban, biak mañariarrak, naiz-ta aitaren aldeko amama zornotzarra izan.

Gazteiz'ko Seminarioan osotu zituen apaiz-ikaskizunak. 1906'garren urteko irailleko tenporetan arturik abadetza Cadena y Eleta'ren eskutik. Mañari'n parroku izan zan 1922'tik 1930'rarte; ta bere bizitza guztian Urkiola'ko laguntzaille; zaartuta ere, San Antonioetan eta beste jai batzuetan, ara igon oi zuen, oiñez sarri, Santutegi artako arimazaiñai laguntzera.

Oso ibiltaria zan, eta egun batean, Mañari'tik gorako bi-txabal biur-unetsuan aizea artzen zebillela, kotxe batek jota erdi-illik jaso zuten. Andik laster, 1966-1-8'an, il zan Barakaldo'ko «Cruces» geixotegian. Mañari'ko iltegi ixillean daude bere ezur-ondakiñak.

EUSKAL LANA.—Bere legezko ta besteak ez bezelakoa genduan, noski, apalz au. Eta nork ez du onako zerbalt? Baiña, bere neurri orren kolkoan ere, ba-zituen gaitasun nabarmenak.

Bat auxe: euskaltzale zan. Mañari'ra joan berri zegoela, eliz-liburu au argitara zigun: *Zeruko izarra* (Durango, 1922). So-loaga'ren moldategian. 221 orrialde.

Ona zer dakarren: Eguneroko kristiñau eginbearrak, gogarte, meza santua, Kurutzia, azterketa ta autcrkuntza, ainbeste egitada arimen onerako, bederatzi-urrenak, abestiak, santuen letaniak.

Esku-liburu polita.

(Ikus Jon San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 467 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 1971, 130 orr.

13.—AMANTZI ERAKLIO URRIOLABEITIA IBARROLA (1881-1944)

Euskaltzale goragarria, zintzo bezaln apal euskal gaiez hn aundia egiña.

Lekeitio'n jaio zan 1881-6-6'an, goizeko zazpi ta erdietan, Arranegi plazan. Zortzian bateatu zuen Toribio Gerrikabeitia ango apalz-buruak. Bere gurasoak: Domingo Nikolas Urriolabeitia Aguado, ondarrutarra, Len-Ikaskuntzako maixua, ta Josefa Petra Ibarrola Garalzabd, Motriko'ko alaba. Bederatzi neba-arreba izan ziran: Amantzi Eraklio, Anjel Eugeni, 1883-3-1'an jaloa; Emiliano Ipolit, 1884-11-12'an jaloa; Petra Josefa, 1887-1-31'an jaioa; Pablo Julian, apaiza, 1888-2-5'an jaloa ta Zornotza'ko kapellau zala erbesteratu ta 1921-3-6'an illa; Andresa Eloisa, 1889-11-30'an jaioa ta 4 urtekin muiñeriz illa; Bonifazia Erroberta, 1892-6-5'an jaloa; Atanasia, 1893-10-5'an jaloa; ta Erralmundo Amantzi, 1896-3-15'an jaloa.

Gizon ikasia zan Amantzi. Abertzale zintzoa. Bizkal-Buru-Batzarreko izan zan, eta Sukarrieta'ko Batzokia zabaldu zanean, adibidez, bera mintzatu zan Alderdiaren izenean. Lanbidez sendakilari edo botikario izan zan, lenengo (1908) Elgeta'n eta gero gerrararte Zornotza'n egonik. Marrazkilari bikaiña zanez,

badu lan ederrik —Lekeitio'ko erria ta eliza artako Andre Maria, esate baterako-arkatzez eginda. Musikalari ere barzan, eta Zornotza'ko Korala berak eratu ta zuzendu zuen.

Idazle bezela ere lan polita egin zigun, euskeraz ta erderaz idatzirik. Ezta miresgarri: bere aitak Lekeitio'n bietara erakusten zuen; gizaseme artez ona zanez, eskolako bere ikasleak ere orrelaxe nai ziruen, onak, jaldtunak eta artezak: bere semeak orduetatik kanpo ere ikasten eukiten omen zituen.

1919-10-26'an Euskaltzaindiak zazpi Probintzietatik urgazleak autatu zitunean, an zan A. Urriolabeitia ere Bizkalkoen artean: ots, F. Belaustegigoida, Jon Gurutz Ibargutxi, Gabirel Manterola, N. Oleaga, A. Urriolabeiria ta P. Zamarripa.

Ba-zuen bai ospe ta itzala euskal letratan, ta, euskaltzain bezela, iker-saillan ari izan zan, beste arlo batzak arbuia gabe. Eusko Ikaskuntza'k, esaterako, Gernika'n eratu zuen, 1922'gko irailaren 10'rik 17'ra, III'garren Izkuntza-saiUekoen Batzar orokorra. Ots aundikoa nunbait. Amantzi Urriolabeitia'k itzaldia izan zuen, gai onetaz: «El Euskera y el Estado». Eta ondoren bezela au jakin-erazi zuen: Estaduagandik iritxi bear zala, erreguz eskaturik, Euskalerrian lan egin bear zuten notarioak euskeraz zekitenak izan zitzala; baita gure Udaletxetako sekretario ta osalariak ere euskeraz jaldtera beartu bear lirakela.

1911-1915 bitartean batez ere «Euzkadi» aldizkarian idatzi zuen, Eleizalde'tar Koldobika'ri lagundurik; adiskide miñak ziran biok, eta bergaratarrak bere «Zaldi Baltza» eskeiñi zion (*Euzkadi*, 1914, XI, 317 orr.) lekietiarri, zegion lanaren ordeztu bear bada. Geroago, Bilbao'ko «Euzkerea»-n ere, 1930'tik 1936'ra, lanok beintzat argitara zizkigun: «Escudo de Lekeitio», «Las lapidas de Elorriaga», «Heraldic«a vasca», «Las laudas de Lekeitio», «Lauburu», ta abar.

Azken gudaldian Frantzia'ra jo bear izan zuen bere emazte —Errosalia Maria Sasuategi— ta seme-alabakin. Biarritz'en, Verdun kalean, 84 zenbakian, bizi izan zan zazpi urtean: bertan il zan 1944-12-26'an.

14.—NAZARIO OLEAGA MUGURUZA (1884-1961)

Azkue zanaren gorazarrez egiñiko jaletan —1957-12-30'an asi ziran Bilbao'n—, azkenengo egunean N. Oleaga'k itz-egin zuen lekeitiarra goratuaz. Ark esandako au gogora genezake gaur: «Ainbeste ta alnbeste euskera lan eder egile zan ezker, 1918'an, Oñatiko Eusko-Ikaskuntzaren batzar nagosian, Euskalerriko lau Aldundien asmoz, Euskaltzalndia sortu zanean, euskaltzalnetariko bat bera izentau eben. Eta gero Euskaltzaindia eratu edo atondu zanean, berari ezarri eutsien geroago bere eriotzararteño eroan eban Euskaltzalnburugoa» (*Euskera*, 1957, 13 orr.).

Beste orrenbeste aitor dezakegu Oleaga'z ere: lenengotik azkeneraiño Euskaltzaindiko idazkari izan zala. Eta danok dakigu gaur, eta beti, nolako garrantzia duen idazkaritzak. 1920'tik agertzen zaigu Nazario, Bizkal'tik, euskaltzaln urgazleen artean, Federiko Belaustegigoitia, J. G. Ibargutxi, Gabirel Manterola, Urriolabeiria'tar Amantzi ta Pablo Zamarripa'ren ondoan. Batzordeak eratu ta kargu-ardurak ere banandu zituztenean, *Lur-izenbatzaillan* artean daukagu, Aita Olabide ta Odon Apralz'ekin: zintzo-zintzo joan oi zan beti ele-alkarte orrek ospatzen zituen batzar guztietara. Euskaltzalndiaren sorreratik 1921'rarte Eleizalde'k egin zuen zadorlari; urte ortako garagarriilaren 28'an, Gipuzkoa'ko Aldundi-jauregian ospatu zan batzarrean, karguak berriztatzean, **R.** Intzagaral apalza izendatu zuen zadorlari, L. Eleizalde il zalako. Berriz ere, 1922-1-26'an, Donostia'n izandako billeran, «*Euskera* gure aldirozkoaren zuzentzaille izateko, Euskaltzalndia'k Nazario Oleaga jauna izendatu du», irakurtzen da «*Euskera*»-ren irugarren urteko laugarren zenbaldan. Noiz aukeratu zuten Nazario zadorlaritzarako?

Bizkal'ko uriburuan, Bilbao'n mundteatua dugu Oleaga 1884-7-28'an. Deustu'n osatu zizkigun lenengo ikasketak, Salamanka'ko Ikastetxe nagusian Eskubidean —deretxoan— Lizenzi titulua aterarik 1905'an. Lege-gizon izan zitzalgun, be-

raz, eta makiñatxu bat auzi ebatzia gaur bere seme-alaba Oleaga'k Jardines kaleko lantolatik. Zeanuri'ko Udaleko zadorlari, sekretario izan zan bidenabar. Gizon ikasia ta langillea baitzan, Bilbao'ko Abogadu-alkarteko batzar-buru izatera, eldu zan. Bizka'ko Kultur-Batzarrekoa ere izan zitzaigun. 1948'an Zaragoza'n erri-eskugoko batzarrean parte artu zigun, Bizka'i'ko ordezkari bezela; ta ondoren, Bizka'i'ko foru-lege ta eskubideak ikasi ta sailkatzeko atondu zuten Batzorde salllean agertzen da Oleaga ere.

Bilbao'n itzali zan 1961-12-5'an, 77 urte zitudarik.

Ospe aundiko gizaseme jatorra; gain artu ta aurrera eraman zituen arazo guztietan, ekintza danetan, egiazko ardura ta zentzuna, koska berezi bezela, utzi ziguna.

EUSKALTZALE.—Legegizon eta letrau bezela lan egiñik bizi zala ere, etzuen alde bat utzi euskera arloa. Gurasoen magal epeletan ikasitako izkuntza maite izan zuen bizitza guzrian. Bere ogibideari buruzko gauzak eman zituen iñoiz euskeraz: «Kirikiño»-ren azken naia, adibidez. Ederto mintzatzen zan izlari mallan, eta idazteko luma bizkorra zeukan. Euskaltzaindiak, ba, esan dugunez, urgazletzat artu zuen, eta arrezkero, langille ibilli zitzaigun etengabe euskerazko gauzetan, garal aretan osatu zan Erizkindirako galak biltzen eta Azkue'ri, Orixe'ri ta enparauai zernaltan laguntzen.

Olaxe gudu aurretik, eta ostein ere, 1941'an Euskaltzaindia berriz piztutzean, euskaltzain oso izendatua izan zan, baita zadorlari ere, il arteragiño kargu orretan jarraltuz. «Euskera» ateratzen ere berriro asi zitzaigun. Azken urteotan Bizkaia'n egiñiko bertsolari txapelketetan esku artu zigun; berdintsu, beste olako batzar-lanetan.

Izlari ernea zan. Oietako bat 1957-12-30'an Azkue zana-ren omenez Bilbao'n egiña duzu (*Euskera*, 1957, 7 orr.). Liburutegi ugaria zeukan, eta bere seme-alabak daakate gaur ere.

Liburu bat argitara zuen: *Zurtasun-gogoa* (Bilbao). Zubiri eta Zarza'ren irarkolan. Umeentzat oartxo egokiak. Bilbo'ko Aurrezkitegi fa Baitetxe udaldarrak eralduriko sariketan, lenengo saria, *II*'gn. galan, «Ikastoletako aurreratzeari dagokon Liburutxoa». Mujika'tar Gregorio'k espaiñeraz egindako «Espiritu de cordura», egilleak eskatuta, Oleaga'tar Nazario'k euskeratua. 84 orrialde. Iru zati dauzka: 1) *Zurtasun-gogoa*, zer dan, obariak, baltzu laguntzailleak; 2) *Esakunak*, eta 3) *Ipuñak*.

Ona Esakunetatik batzak:

— Udea ots-egiten (kantetan) igaro eban-eta, txirri-txirriak negurako emendioak inurriari eskatu bear izan eutsazan. Ume: gaztaroan, bizitzako udea berau da-ta, txirri-txirriak bezela ots-egizu, baña inurriak legez lan egizu ta zeure emendioak gorde egizuz.

— Ekaltz gogor ta beingozkoak itxasontziak ondatu ta erro-tak erasi egiten ditu. Aize me ta iraunkorrek ontziak porturatu ta errotak erabili egiten. Beingozko burutasun batek, unduriena bada bere, gitxi laguntzen dausku aurreratzeari bere obariak ateraten. Obariok lortzeko, arauz, ganoraz ta yarraltuz ekin bear yako.

— Nekez bada bere, zartzarorako neure egun-saria atontzen diardut. Au ikusita, lagunak dinoste: -Baña zartzarora el-tzen ez ba'zara, zetarako zure neke guztiak? Ezin dabe ulertu, agura-atsotuten ez ba'naz bere, zartzarora elduko ba'nitz ar-min eta estu ez nazala egongo gogoratzeak emoten deustan artetasuna nire neke guztien sari naikoa dala.

— Norbaltek, itxasoari bsre anditasuna kentzearren ur tanto bat artu dausagula esaten entzungo ba'leusku, ikaragar-rizko irriak egingo leuskiguz. Bardin mendi baten anditasuna urritzearren arritxo bat kendu dausagula esango ba'gendu. Orregaitino, inok lenengo arritxoa imini ez ba'leu, ez legoke mendirik andiena. Itxasorik bere ez legoke nor-edo-nok lenengo ur tantoa imini ez ba'leu. **Domurik** (dirutzarik) andiena bere, ez litzateke izango, lenengo laurlekoa aurreratu ez ba'litz.

— Gizon mota bik baño ezin ukatu leie aurreratzea; ala beti aberatz izango dirala ziur dagozanak, ala zentzun bakoak.

(Ikus *Euskera*, 1961, 347 orr.; B. Berriotxo Anaia, *El Bidasoa*, 1961, 9-XII orr., ta *Herria*, 1961, 14-VII orr., eta *Cien Autores vascos*, 79 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 412 orr.).

15.—ALEJANDRO BILBAO LARRAZABAL (1884-1966)

Bizkai'ko erri pertxenta M.aruri'n munduraru zan Bilbao 1884-3-25'an. Gaztela'ko kaputxinoetan osatu zituen bere eliz-ikaskizunak; baiña, gero, 1907'an, Bizkai'ko kaputxinoen probintzia Naparrca'koekin alkartu zanean, Aita Maruri ere —onan zeritzaion ordenan— probintzi berri ontara etorri zan, 1909'an Iruña'n apaiz sagaratu.

Ondoren ogetakaz urteetan, Ondarribi'ko komentuan bizi izan zan bertako arima-arloetan arazotua. Prantzia'n ere egon zitzaigun iñoiz, mixiolari bezela ara aldaturik. Geroago, Iruña'n eta Muskaria'n bizi izanik, zenbait urteen buruan, kaputxinoetatik irten zan. Orduan, erderaz, liburuxka bat idatzi zuen, zenbait nagusiren jokabidea laidotu ta itxusiturik. Bere egokera etzan samurra ere; garai artako legeen arauz, jaunartzera adibidez ezin zitekean urreratu; inguruetako apaizak, ala ere, bizimodu zintzoa zeramaia-ta, kristau soillak izan oi dituzten eskubide oscak lortu zizkioten Eleiz-agintariengandik.

Armintza'n egon zan luzaroan, beretarren etxean. Bertoko arrantzdeen alkatereko banakari zan, diru-kontuak ere berak eramanik. Ementxe ezagutu nuen nik, Leononitz'en sermolari nenbillen jai-eguerdi batean: Jose Antonio Oar-Arteta ta biok ikustera joan gintzakion. Geroztik, sarri etorri izan zitzaidan onera bere gauzak, euskal giroari buruzkoak bereziki, azaltzera, ta, bere barru kezkatia arindu nairik. Bere azken liburu berria, ots, «Txindor egadak» elkarreldn osatua da.

Armintza'n bertan itzali zan 1966-7-22'an.

EUSKAL LANA.—Ondarribi'n zegoelarik, elizetan itz-egin ezeze, idazteari ere ekin zion, euskeraz. Gure izkuntza kiaka gordiñean bait zekusan, bere aletxoak jarri nai zuen, betiko ondatu ez zedin. **Eta**, nalz-ta belu xamar, olerkitxoak ontzen asi zan, gure erria gauza laburren zale dala jakiñik batez ere. Balona'ko «Gure Herria»-n (1924, IV, 556 orr.) dator beronen lendabiziko saria atera zuen *Elur maluta* deritzan olerkia, sei aapaldi txukikoa. Urrengo urtean ere (G. Herria, 1925, V, 42 orr.) omen aundiz alpatuak izan ziran bere «Aur Jesusen zapatatxua» ta «Ostiral Deuna». Garal berean, Donosti'ko «Euskal Esnalea»-n eta «Aranzazu»-n idazten du. Bilbao'ren ia olerki danak 1924'tik 1930'ra bitartean egiñak dituzu, 40 urtetik gora zituela onduak noski. Azken urteetan, Armintza'n aurkitzen zala, 1960'an esaterako, osotu zizkigun beste batzuk. «Olerti»-n datozenak, adibidez.

Olerki liburuok argitara zizkigun:

1) *Biotza abeslari* (Zornotza, 1927). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. 144 orrialdeko bi liburuxka, bata bizkaleraz eta bestea gipuzkera.

2) *Lili-txingar* (Tolosa, 1928). Lopez'tar E'nean. Bizkaleraz eta gipuzkeraz au ere, bi liburuxka; 142 orrialde.

3) *Txomin arlote* (Tolosa, 1929). Lopez-Mendizabal'en irarkolan. Azalak koloretan, Txiki'ren marrazkiekin. Itz lauz. Bi liburuzka auek ere, bizkaieraz eta gipuzkeraz. 29 orrialde zenbakitu gabe. Umetxoentzako irakur-liburua. Euskaldunen asele zar bat du oiñarri.

4) *Txindor egadak* (Donosti, 1964). Gralicas Izarra irarkolan. 143 orrialde. Nik zirika egiña. Onela dio sarreran: «Begi-begiko irakurle ori, ainbeste garren urtean emen natorkizu agur gozo bat egiten. «Biotza Abeslari» ta «Lili Txingar»-eri ere arrera ona egin ziozun; euren errasturik ere, aspaldiko urte oetan ezin da arkitu. Erre gaberik, arrera onez saldu ziraden ta orain dator lubi onetara **TXINDOR EGADAK**, urteak joan, urteak etorri, luzaroan begira gonda. **TXINDOR-EGADAK**,

«Biotza Abeslari» ta «Lili-Txingar»-en anaya da. Eta euren egile edo eurekaitik orra zer diñoen bere idazti berdin gabean, «Milla Euskal Olerki» ederrean, euskal olerki ta euskerari dagokion arazoetan punterengo dan Onaindia Aba karmeldarrak: «Olerkari bikaiña, bulkoz jagi ta biotzondo ezti. Igon-miñez dager beti, uso zuri antzera, zeru-azpiz ega luzean biraka. Usain gozoz lurrundu ditu bertsoak, joran, kili-kili ta txingar bizi diranak».

Iru sail dagizki olerki-liburu onek: 1) *Jainkotiak*, amar olerkitxo; 2) *Loretxoak*, amar auek ere, eta 3) *Naskaldia*, ogeta bederatz lan guztira. Gure erria ta erritarrak jasoaz egiñak dira, azkenengo zatiak batez ere.

«Txindor egadak» idazti au osatzean erakusten digu iñun baiño argiago bere biotz kezkatu ta goi-zalea. Ordenatik irten zuenean, «Memorias o ¿Una esclavitud ignorada?» (Erren-deri, 1932, J. Makatzaga'n irarkolan) argitaratu zigun. Ezta arritzekoa: egiazko euskaldun batek lekaidetxe batzuetan asko eraman bearra izan oi zuen eta. Garai artan menpekotasun gogorra eskatzen zan, eta nork daki ateratzeko zioak, errazoiak egiazkoak ez ote ziran? «Bere kontzientziak beintzat, diosku Aita Julen Yurre'k, ez zuan yakin bere egoera larria beste era batera antolatzea. Eta atera zan».

Gizaseme jatorra zan izatez, eta beretzat onena zala uste zuena utzi ta bere jaioterri ondora, au da, Armintza'ra baztertu zanean, iñundik ere zer-esanik urratu gabe, danai ikaspide onona ematera jarri zan. Armintza'ko arrantzaleei lagundurik, bere lanez irabazten zuenarekin bizi izan zan kristauki. Au erakusten digu argi ta garbi polito arildu zitun olermenaren arnarietan.

Il aurreko urtean, 1965'an, bigarrenez argitara zizkigun «Biotza Abeslari» ta «Lili-txingar». «Mauri'tar Erramun» erabilili oi zigun geienez lanak izenpetzean. Sariak ere etzitzen gutxi jaso; bat aipagarria 1926'an Naparroa'ko Adiskideak eraturako Elertizko leiaketan.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 650 orr.; *Olerti*, 1966, 161 orr.; J.

San Martin, *Escritores euskericos*, 57 orr.; H. Gavel, *Gure Herria*, 1929, 419 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 464 orr. ta *Diccionario*, Bi-Caballe, 342 orp.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, II, 57 orr.).

16.—JUAN ABANDO URREXOLA (1885-1946)

Bilbotarra dugu, Bizkaiiko uriburuan bait zitzaigun ludiratu 1885-2-8'an. Berton artu zituen len-asimasiak ez-ezik, Komerzioari buruzko goi-maillakoak ere, saleros-galetan malxu (peritu merkantilla) izatera iritxi ta titulu ori askuratu zuen bere gaztaroan. G'gibidea ere orixe izan zuen lan egiñez bizi izanik.

Bilbao'n bertan il zan 1946-5-6'an.

EUSKAL IDAZLE.—Bietara idatzi zigun, euskeraz ta erderaz. Euskal lanak «Erletxue» izenordez izenpetzen ba'zituena, erderazkoetan «Egas» erabiltzea atsegin zitzaion. Euskeraz «Euzkadi»-n eta «Euzkerea»-n agertazi zizkigun bere lanak, eta erderaz, gerra aurretik gora aundikoa genduan «Excelsior», kirol agerkarian,

Umetatik zan euskeraren jabe, or-emen azaldu zituen lan gatz-pikorrez orniduetatik atera dezakegunez. Gauza bakoitza dan bezela, esan eta izanean, margoztu oi zigun: errealismua deritza oneri izkuntz geienetako elertian edo margo-saillean; guk askotan dotoretu edo itsusitu, itxulastu egin oi dugu egia, benetako gauzea. Bilbotar idazle argiak ez, gauza dan bezela, egiazko maillan eskeintzen digu.

Arima eder bat zuen, eta barru jator ori ustutzen alegindu zan bere euskal idatzietan. Naikoa idatzi zuen, «Euzkadi»-n batez ere, 1930'tik 1936'ra bitartean. Eder zitzalzkiön olerki aññ laburrak, biotzez eta jakituriz oretoak. Onelako mordoak dauzka bolara artan Bilbao'ko eguneroko apalñean argitaratuta. Itz-lauz ere orobat egiña duzu. Merezi luke, beraz, aren lanakin bilduma eder bat osatu ta argitara ematea.

(Ikus *Euzkerea*, 1932, II, 16 orr.; S. Onaindia, MEOE, 696 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 15 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 269 orr., ta *Diccionario*, A-Amuzti, 45 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, I, 4 orr.; N. A. G., BAP, 1966, 140 orr.).

17.—ZEFERIN XEMEIN LANBARRI (1885-1965)

Bilbao'n jaio zan 1885'an. Berton egin zizkigun lenengo ikaskekak. Gazte argi ta bizkorra zetorren. Baita euskaltzale zintzoa ere. Ez zekian euskera, bere ama-izkuntza, errez ta zeatz idazteralno ikasi zuen. Ez da gutxi. Ala ere gure euskaldun berriak ba-dute olako biur ta korapillotsu zalen zerbalt. Sarri esan dudana: ezta zailla euskeraz ikastea, baiña ortarako ezta nalko nalkeriaren ondarra, gogo sendoa bear da, eragozpen eta atzeragarri ta koska guztiak azpiratzen dituen noski. Orrela zitzaizun Xemein.

Ainbat lan osatu zituen euskeraz ta erderaz, «Euzkadi», «Aberri», «Euzkerea», «Bizkaltarra», «Euzko Deya», «Euzko-Gogoa» ta olako eguneroko ta aldizkingietan, eten gabe, idatzirik. Izenorde aukerabiltzen zizkizun: «Jadarka», «Amandarro», «El Bachiller de Belandia», ta abar. Gautemala'ko «Euzko-Gogoa»-n (1951, 19-52 orr.) Euskal Pizkundeko olerkirik onenak batzen eta argitaratzen asi zan.

Euskera aldezko bazkunik geienetan lanari ekin zion. Bilbo'ko euskaltzale sutsu batzuei esker, euskal arloko ainbat aurre-rakuntzari berarizko indar-arnasa eman zien. «Euzkeltzale-Bazkuna» asiera eman zitzaionean, an zan Xemein ere eragille bizi ta bipil dudarik gabe.

Ona argitaratu zizkigun lan eta liburu batzuk:

1) *Olerkari bijak* (Bilbao, 1915). Antzerki. «Euzkeltzale-Bazkuna»-k eraturiko batzaldian sariztua. Bere emazte Errazti'tar Karmele'k lagundu ta osotu zuen: biok euskaldun berri.

2) *Las bellezas del Aralar* (Bilbao, 1933). F. Zubiri'n irarkolan. 70 orrialde. Malte zitun Euskalerriko mendiak, baiña Naparroa'ko Aralar batez ere, mendi garala, arkaitz, ipui, elezar, basaeliza ta abarrekin. Lerden, dan bezela, dakus Mikel deunaren toki zoragarri au. Onela idazten du: «Euzkadi'ko bazter gustijetan, bal uri nagusijetan eta bal baserri sakonetan be, euzkotarrak beti Deun-Mikel Gongotzona gurtu ta ain-

tzddu dabe. Baña ori aulan dala be, Deun-Mikel Gongotzonak Euzkalerriko bazter polit baten, mendi-tontor baten jarleku berarizkua dauko: Aralar!» Atsegin zitzalon eusko seme zangarrak, mendiak eta gure toponimiaz aritzea, ta «Euzkerea» aldizkingian naikoa idatzi zuen gal oneri buruz.

3) *Biografia de Arana Goiri'tar Sabin e Historia grdfica del Nacionalismo* (Bilbao, 1935). Editorial Vasca'n. XVI-402 orrialde. Lan eder-ederra, eusko edestirako argazki zoragorritz apalnduta.

4) *Inquietudes euskadianas. La cuestion social a traves del pensamiento sabiniano* (Baiona, 1945). 24 orrialde.

5) *La vision pensativa y atormentada de Arana Goiri* (Baiona, 1945). 24 orrialde.

6) *Indice de las obras completas de Arana Goiri'tar Sabin* (Pabe, 1948). Euzko Alderdi Jeltzalia. 47 orrialde.

Aundi-aundika onetxek dituzu Xemein'en lanak, «Euzkerea»-n eta «Euzko-Gogoa»-n datozen artikuluak albora utzita. Euskal zuzia —guk ere orrela bear genduke— beti eduki zuen argi-urtika, zuzi eredugarria noski baiño noskiago.

ORIXE'k onela esan zion bein: «Zu ederki ari zera euskeraz, amalka alperri ikasbide ona emanez. Eta euskaldun berri izana. Olakoen artean —koipekeri gabe ez dakit iñortxo ote dan zuk bezaln ongi euskera ikasi dunik. Gogoan dut oralno, Kirikiño-saria irabaztear egon ziñala. Ez nalz oroi zer urtetan. Oleaga (karlista), Arruza (Eusko-indarreko), zu Eusko-Alderdi diko, ni ez dakit nongo, laurok eta besteren bat giñan sari orren antolatzaile. Ni ez nintzan maleko edo epaikari eta ez nitun irakurri lan aiek; bañan Oleaga yaunak bizi bizi esan zidan, zure artikulua ederra zala, ta Kirikiño-saria merezi zuke-la» (Euzko-Gogoa, 1951, 3-4'garren zenbakiak, 37 orr.).

Irakur zatitxo au Kirikiño'ri buruz idatzia: «Ogeiren bat urte dirala —dio—, Aralar'eko tontorrian batu gintzazan Bilbao'tik juandako euzkeltzale-talde bat, euren artian «Kirikiño» (G. B.) zala. Beragaz gengoan euzkeraz barriketdditxu

bat egiten, ango artzain eta euzkeldun batzuben aurrian, eta oi eban lez, «Kirikiño»k gauza gozatsubak edestuten euskuzan berak alnbeste maite ebazan baserritarren bixikereatzaz. Entzule batek, olako gauzak gixon aln dotore ta jakintsubaren ezpanetatik entzunda, arrituta esan eban: — Jaun au baserritarra dala edonok esango leuke. — Eta ixan be —erantzun eutson berialaxe «Kirikiño»k pozkiro—; begiratuko daustazun alde gustijetatik baserritarra naz ni: baserritar utsa. Baserritarrak ixan ziran neure gurasuak eta neure gurasuen gurasuak, belau-nik belau-n. Eta baserrijan jayo nintzan neu be. Beraz, baserritar ixate au eztot nik iñun ez iñoz ukatuko. Orra or «Kirikiño»k emoten dauskun ikaskixun ederra. Ikasi daigun bera lez baserritar zaliak ixaten, baserritik sorkuna gustijoi datorkigu-ta. Goyen bego irakasle maitia!» (*Euzkerea*, 1929, 22 orr.).

Gerra ostean Prantzia'tik ibilli zitzaigun.

Bilbao'n il zan 1965'garreneko abuztuan.

ERRAZTI'AR KARMELE.—Senar-emazteak alkarrekin egoki daudelata, beude literatura ontan ere buruz ta josirik Xemein ta beronen emazte Karmele, bilbotarra noski, ta euskal zelaian lan aintzagarria burutu zuena. Bilbao'ko «Emakume-Abertzale-Batza»-k etzuen lan urria egin gerra aurreko urte mordoetan, euskera ta euskal gaiak dantzatzuz.

Pabe'n il zan, 1954'an bere senarrarekin batera erbesteratua zegoen tokian. «Euzko-Gogoa»-k onela idatzi zuen: «Berri negargarri bat eldu zaigu: Jemein'en Errazti'tar Karmele il dala Pabe'n (G. B.). Errazti'tar Karmele andreak amal-katxu lan egin zun, bere bizitza aberkoia zear, aberriaren eta euskeraren alde. Berak irasi zun Bilbo'n «Emakume-Abertzale-Batza»; erdeldun iaio arren, euskera sakonki ikasi zun eta idazlan ederrik argitaratu ere bal lenengo «Euzko-Deia»-n eta beste abertzale aldizkari askotan. Gure aldizkarian ere, aurreneko lankide azkarretatik genuen, eta eder zenbalt idatzi zitun. Aspalditik nalgaberik aski iasan bear izan zitun erbestean, eta eri ta makal egon arren, antxe iraun du il-orduraino. Gure

naigaberik sakonena erakutsi nai diogu Jemein'dar Keperin bere senarrari eta biotzeko adiskide onari» (*Euzko-Gogoa*, 1954, 5-8'garren zenbakiak, 125 orr.).

«Euzkerea«-n eta «Euzko-Gogoa»-n argitaratu zituen artikuluetatik bat «Emekume Oleskarijak» da. Senarrak, Jemein'dar Keperin'ek, Euzkel-Pizkundiaren olerkirik onenak bildu zituen, baiña gizonezkoenak antza, ta Karmele'k emakumezkoenak. Ez dago gaizki. Olertiz au dio: «Olertija, Euzkadi'n, euzko-abenda baxen zarra da. Gure asabeak, ludija ludi danetik ona, beti abestu ixan dabe: Urtzi'ri abesti gurgarriak, gau-illaren gabetan ildakuai eresi-abestijak; mutillak neskatiillai maitasun-abestijak; etxekojaun eta etxekoanderai olentzaro ta Agate Deuna'ren abestijak; gurasuak umiai gabon-abestijak; amatxibak umetxubai seaska-abestijak. Gure Errijaren ogasunik ederrenak abestijak ziran eta sendi-barru, belaunik belaun, gordetzen ziran» (*Euzko-Gogoa*), 1950, 9,10, 14.

«Etxakin» ezizena erabiitzen zuen euskal lanetan.

(Ikus *Gure Herria*, 1951, XXIII, 188 orr.; G. Garriga, *Bol Ater. E. V.* 1957, 127 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 443 orr.; J. Bilbao, *Bibliografija*, IV, 219 orr.).

18.—GABINO GARRIGA (1886-1969)

Euskaltzala gartsu ezin-egona, larogetaz urteekin ere euskal lanari ekin ziona; noiz edo noizkoren baten jin-joanka legez agertu oi diran gizaseme bakan, langille porrokatua.

Bilbao'n jaiio zan 1886-219'an, zazpi kaleetatik batean, gaurko Santiago katedralaren kerizpean; berak diñoskunez, *txinboa* zan ba gorputz eta arima. Bere aita katalana zan, Arriaga antzokian abestuten zuena; baiña emengo euskaldun emakume batekin ezkondu zitzaigun. Argia zetorren mutilla, ta eliz-gizon izan nairik, aitak, Klaretarrak Balmaseda'n zeukaten Ikastetxera eraman zuen umetan; asi-urtea ta Filosofia

ikasi Cervera (Kataluiña)'n egin zizkigun, Errioxa'n Kaltzada'ko urian Miren Biotzaren Semeak daukaten komentuan Teolojia ta ingurukoak osoturik. 1912-9-21'an jauparitu zan Segovia'n, ondoren bertan irakasle geldituaz.

Euskeraren aldeko eragin bizi-bizia sortu zan aro onetan, Euskalerra guztian sortu ere, nalz-ta begi onez ikusia ez izan; eta askok, jakiña, izkuntzaren arazoa erriarenean sartu, gaur argi ikusi arren, len aln argi ikusten etzana; balta apaiztegi ta lekaldetxeetan ere. Klaret'arrak ez zebiltzan atzeratuak. Garal artakoak dituzu A. Arriandiaga, Zabala-Arana analak, Urrutia'tar Gotzon, Tomas Huarte, Garriga ta beste batzuk, aurrelari bezela. Nagusiak, ala ere, ez zuten au ondo ikusi, ta aurrelari oiek antola zituzten euskaltzale taldeak berezi ta alderatzea otu zitzaizen. Ameriketara jo zuen Aita Garriga'k, Arjentina'ra lendabizi ta Txile'ra gero; urte batzuk geroago, Peru'ra aldatu ta Lima'n erre zituen amar bat urte erakusle ta mixiolari.

1921'an Euskalerrian daukagu atsedeen pizkat artzen eta etxekeal laguntzen. Gero, berriro Arjentina'ra itzultzen da, Kordoba'n Klaret'arren ikastetxean maixu egiteko. Beti urduri, ogei urtetan Buenos Aires'en Ituzaln'go gexotegiko kapellau daukagu; 1955'tik aurrera, La Plata'n San Pontziano ta San Jose'ren elizetan txauburu ta arimazai. Azkenez, zaartua, bertan il zan 1969-7-25'an.

EUSKALTZALE.—Umetarik ba-zekien Garriga'k euskeraz; «amaren izkera» deritzalo euskereari. Baiña, sarri gertatu oi dana, giroa ta ikasketak bide, gaztetan batez ere agotik sudurrera alztutzen zalgu amaren magal gurian ikasitakoa. Ez luke orrela izan bear, baiña olaxe jazo oi da, ta orixe jazo zitzaion A. Garriga'ri ere. Malxu onak alere asko dezakete. Aita Arriandiaga izan zan Garriga gaztearen maixu ta altorle, ta naltaez ikasi bear bere izkantza, eta erro-errotik mintzatu, idatzi ta itzaldiak ere egiteralñoiko erreztasunarekin ikasi zuen.

Zabarkeriz ere aitzu oi zaigu beste askotan, geure-geurea dana landuteko ardura pitin bat ez ipintearren, alegia. Zabarkeri oneri buruz itz auek idatzi zizkigun Garriga'k, gogotan euki bearrekoak noski: «Zenbat jakitun —dio—, apaizak lekutu gabe, ezagutu ditugun erruzko zabarkeri artaz geixorik, espainieraz edo frantseraz jabetzen lerrenak egiñik, eta aln zuzen ere izkuntza oietan idazle aundi izateraiño eldurik, baiña zoritxarez, beren oroimenaren liburutik osoz goi-marratu ta kenduazirik, beren amak aln maiteki ta buru-ukapentsu bertan josita utzi zien euskerarekiko aztarren guztia! Orrela beren endako ogasunik bikalñenaren galtzeari esku laguntzaillea eraan diote, eta bide batez izkuntza onen galtzea aurreratu egin dute».

Oso ta bizi, zearoan abertzale zan. Bada-ezpadako berriematerik etzuen eder, informazio ta gezur-galrik ere ez; ezmezik etzuen nal, izpar ta albiste argi ta garbiak baiño. Bereztat Aralar menditik ikusten zan Euskalerrria ederkien, eta olaxe ikuspegi aratzeko nal zuen erabilli bere idaztortza. Ortik sortua dugu «Aralar» izen-ordea, euskerazko nalz erderazko lanik asko izenpetzeko erabilli ziguna. Ezta, etzuen begi onez ikusten erreñu biko muga Euskalerrriaren erdian. Euskaldunok oro anal gareala adierazteko erabilli zigun balta «Bidasoa» ezizena ere.

IDAZLE ASPERGAITZ.—Kultura zabaleko gizasemea gendun. Eta argia ez omen da lakaripean jarteko, mal gaiñean balzik. Orobat jakituria erakusteko, ez ixillean gordetzeko. Onexek eraginda idatzi zigun bizitza guztian. «Euzko Deya»-n, «Nacion Vasca»-n, «Galeuzka»-n, «Elgar»-en, Paris'ko «Euzko Deya»-n, eta «Informaciones Parlamentarias»-en eta Balona'ko «Alderdi»-n, eta «Gernika»-n idazten du utsik egiteke.

Ona Garriga'ren lanik beiñenak:

- 1) *La revolucion militar española y el Pueblo Vasco* (Buenos Aires, 1927). 317 orrialde.
- 2) *El Conde de Peñafleida y los Caballeros de Azkoitia* (Buenos Aires, 1942). «Ekin» argitaldaria. 190 orrialde.

3) *Los adversarios de la Libertad Vasca, desde 1794-1929* (Buenos Aires, 1944). «Ekin»-en irarkolan. 286 orrialde.

4) *La Victoria de Munguia y la reconciliacion de oñazinos y ganboinos* (Buenos Aires, 1949). «Ekin» idazti saillean. 268 orrialde.

5) *Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos* (Buenos Aires, 1950...). Buenos Aires'en bizi ziran euskaltzale talde batek, orduan an zegozen sutsuenak, Boletin au irasi zuten 1950'garren urtean, oraindik ere zintzo-zintzo jarraitzen duena. Gabin Garriga ipiñi zuten beronen zuzendari ta bilbotar jakintsuak ederki bete zuen lenengo amabost urteetan egotzi zioten pekoa, eginbidea. Gelditu gabe idatzi zuen aldizkari ontan, euskeraz ta erderaz, eta beti, edo geienez beintzat, eusko galak begipean zitularik. Berton burutu zigun lanik ederrenetarikoa bat auxe dugu: «*Inventario bibliografico vasco, 1892-1950*»; 1970'tik cnantza, Ander M. Iruxo'k ugaritu ditu aren notak, eta argitaratu. 1892'tik asita atera diran liburuak, Euskalerrinari buruzkoak, denak edo geienak dakartzi, liburu bakoi-tzaren gal, ekoizpen, leku, keizu ta abar ederki aitzen emanaz. Lan onen merezi ta balioagatik, omenaldi biozkorra eskeiñi zioten —1953-11-20'an— bere adiskide ta lagunak, Martin Noel Iribas'en solasaldi giarrakin.

6) «*Euskaltzaleak*» (Buenos Aires, 1954...) Bi-illeroko aldizkaria, euskera utsean. Gabin Garriga'ren buruz sortua, bere eragiñez zuzendu ta indartu ere egin zan 1954'garren urteko malatzetik 1956'garren uztalleralño. Gal askotaz ari izan zitzaizgun, eta beti euskeraz. Erraldoi lana dirudi, ezin neurtu añaiko lerren-inkeza.

7) *Euskal idazti baten eunkirren inguruan zenbait gogoeta* (Euzko-Gogo, 1951, 9-10'garren zenbakiak, 47 orr.).

NOLA IDAZTEN ZUEN?—Utzi zizkigun lanetatik ageri danez, luma zorrotza zuen, ulertzen zolia ta gogakizun garbia. Esana dugu, euskaldun berri zitzaizgun, baiña euskeraren estal-toki ta

zirkilluak ongi ezagutzen zituna. Irakur, eredu legez, 1953'an, «Amerikaratzea euskaldunentzat kaltekorra?» deritzan lanaren zati bat,

«Berrogei urte —idazten du— baiño geiago ba dira Amerikaratu giñanetik, eta bizi izan gera bere iru egoko erkalderrietan (errepubliketan). Europa'ko erri asko, ango bestea menpetuta, emen berenekiko sailak eduki dituzte eta daukate: 1918 baiño lenago Austria'ko kalsalderri azpian zeudenak: 1945 ondoren, Errusia'k nagusituak. Judarrak ere, askoz lenagotik, biztanduten dira Ego-Amerikan eun millaka, aetako lareun milla, gutxi gora bera, Argentinan, beraen altorrez (*La Prensa*, 1948'ko orrillaren 17'gnea). Enda guzicetako gizakiak ederki bete beren emengo biztanlien bearrak eta balta gogoz lagundu ere beren atlantikosteko anayai, estualdietan batez ere, egiten dute.

«Esaten dana esaten dala, oso uka-eziña dugu Ameriketean Europan baiño errezago ta geiagotxo irabazten dula irabazi nal dun edozeñek. Ez, alegia, Eldorado, Jauja, ta abarrik, emen daudelako, amets-zaleak dasatenez, bal, ordea: Latar-Ameriketean biztanle gutxi ta lur geyegi ditugu eta galñera laterri onen zizak (monetak) Europa'ko latar-laterrienak baiño bikoitz edo irukoitz aldiñekoagoak baldira. Augatik, nalz errien ezbearretatik, nalz ikastola, galxotegi, eleizbateko iraspenatik sorturiko diru-larrialdietan arkitzen diranean, onelako europar erriak gureganatzen dituzte begi ta eskuek.

«Argentina'n dauden euskaldun lagundietako edestian asko izan dira onelako anaitar arpideak, azken irurogetamar urtietan. Zoritzarrez, dirua guztirako bear dugu eta benetan pozkarri edozeiñi izango zalo norengana jo eukitzea laguntza-eske urritasunaren arestietan. Nola genduke euskaldunak obari oek eta antzekoak ukan, Amerika'ra askoka etorri ezik? Jakiña; gure emen egoteatik onura alik andiena ateratzeko, bear izango zalgu kaltezko ondoreak alegin-alegiñez gugandik urrutiratu eta irabazkin geiena uztatzea. Beste itzez: aberritik ekarri genuna ar-

duratsuki zaindu, eta Amerika'n, gizaldi osoentzat, Jainkoak ain oparo ipiñi nai izan zuneko artzaille trebeak adionez izatea» (*Bol. Ins. Amer. E. V.*, 1953, 164 orr.).

Liburu zenbaiten iritzi ematea beti egin zuen duinkiro.

(Ikus Ander M. Irujo, *Bol. Inst. Amer. E. V.*, 1969, 134 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 491 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, III, 607 orr.).

19.—ZELESTINO GORROTXATEGI ARIZMENDI-ARRIETA (1886-1970)

Aita Zelestino, karmeldarra. Seme argitsu askok izan dute sorleku Oiz azpian, egutera begira, daakagun Berriz etxez eta lantolez inguratutako erri azke liraiña. Bertokoa dugu A. Zelestino ere, 1886-4-6'an ludiratua.

Amabi urte zituela, Naparrua'ko Billafranka'n karmeldarrok daukagun gazte-ikastetxera jo zuen, karmeldar izan nairikan. Iru doi-doi egin zituen eliz-gizonen karrera asteko bear diran latin eta ingurukoak ikasten; 1902-4-24'an ospatu zuen bere lekalde-profesa Larrea'ko komentuan, eta ondoren, Burgos'en, Gazteiz'en eta Begoña'n ikasi zizkigun Filosofia ta Teolojia, 1910-9-23'an jauparitza arturik.

Urte mordoan, 1911'tik 1931'ra, Larrea'n, Alesbes'en, Logroño'n, Kalaorra'n eta Begoña'n bizitu zan. 1931'an, Txile'ra bialdu zuten nagusiak, eta ango komentuetan lan egin zuen 1947'rarte, edozetarako beti arduratsu. Bere bizitzako azken urteak Markiña'n, Altzo'n eta Eibar'en karmeldar komentuetan igaro zituen. Donostia'n il zan 1970-6-5'an, «Matia» gaixotexean.

Irakasletza egin zigun Alesbes (Billafranka)n Larrea'n eta Txile'ko Chuchunco'n. Beste aldetik, Jesus Aurtxoaren guztiz zalea zan-eta, bizi izan zan komentu guztietan alegiñak egin zizkigun Josu Umetxoaren Anaidiak sortu ta eratzen, edo-ta sortuta zeuden lekuetan indar-berritzen.

EUSKAL LANA.—Larrean egon zan bkartean, emengo Jesus Aurraren Anaidia zuzendu zuen: bolara artan batez ere, Zornotza'n, adoretu ta bizi zegoen dalako Anaidia. Illeroko elizkizunetako otoitzak eta abar egiteko bear zuen libururik etzeukala-ta, berak osotu zuen bat, benetan egoki ta ona, utsune galanta bete zuena. Nola zeritzan? Ona: *Karmeldar Lorategija* (Bilbao, 1918). Grijelmo'ren irarkolan. 327 orrialde. Zer zeukan? Otoitzak, autortza, Jaunartza, Kurutz-bidea, Praga'ko Jesus Umearen eraspenna, Karmen'go Ama, Jose Deuna, Teresa Ama, eta azkenean abesti pilloa.

Zergatik idatzi zuen? Berak diosku sarreran: «Pragako Jesus Umia da gaur iya lekaretxe, gaixotegi, zalndetxe, lantegi ta ikastetxe gustijetako Errege txikija; berak betetan dau sendi jauntzale gustijen etxietako jarburua. Egijaz, gure egunetako da, euzkeldunak ez eukitia geure euzkera bigun, gozo ta garbijan berau betetan lagunduten daben erazko otoiditxu bat. Augaitik, nik, duin ez arren, Ama Karmenguaren semia nazan ezkeru, ta ainbeste mesedegaitik esker-onaren zor nazalako, gura dot imiñi neuri dagokitan zatitxua euroen aintza geituteko, eskiñirik euzkeldun gustijai, ta batez be, Ama Karmenguarentzako, San Jose zoruntsuarentzako ta Pragako Ume Jesus miraritsuarentzako euren bijotzetan maitasunezko bakaulki bana jasota dauken Karmenzale gustijai, euren bijotz-egarrija ta euren oneraspena asetuten zerbait lagunduko deuts en otoiditxu au» (VIII-IX).

Oralntsu arte liburu au izan da guk karmeldarrok Bizkai'ko elizetan erabilli duguna. Sakon, errikoi ta joskera onean osatua daakazu.

(Ikus *Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquin de Navarra*, 1970, 186 orr.; S. Onaindia, *Larrea eta Karmeldarrak*, 1968, 95 orr. eta *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 1971, 130 orr.; Juan San Martín, *Escritores euskéricos*, 94 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 524 orr.).

20.—JUAN MARTIN PERTIKA EZE/ZABARRENA
(1886-1970)

Gernika'koa jalotzez, gero urteetan Donostia'n bizi izan arren. Sal-erosketan aitua, ta artekari (ajente) bezela ibillitakoa, ortik bizi balt zitzaizun. Donostia'n bertan il zan 1970-9-29'an.

Euskaltzale ona. Euskal aldizkarietara arpidetuta zegoen, eta euskal galetzaz eman oi ziran itzaldietan etzuen utsik egiten. Euskeraz ta erderaz idatzi zigun. Euskeraz, «Zeruko Argia»-n beintzat, argitara zituen lan batzuk. Balta beste lanok banazean ere: 1) *Gaztetako ipuiñak*; 2) *Peru ta Marixa*, ta 3) *Pertika abixenaren jatorria*.

Erderaz, ordea: 1) *Aves canoras del Pais Vasco* (Beasain, 1955). Izan zuen bigarren argitalpena ere. 2) *Animales salvajes del Pais Vasco* (Zarautz, 1960). «Coleccion Auñamendi»-n Itxaropenak argitaratua. 200 orrialde.

Beti ari zan zerbalten, alper egoteaz etzuen, ez, zigorrik merezi.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 150 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 494 orr.).

21.—JOSEBA ALTUNA ALDASORO (1888-1971)

Ez gara iñoiz aspertuko euskal soroan lan egin duten, edo-ta lan dagiten, gizaseme jator bioztunak goratu ta txalotzen; gure goratzarrerik beroenak merezi dituzte, dudarik gabe. Auetakoa dugu Altuna euskal idazlari azkarra. Euskaldun berria noski, balña ekiñaren ekiñez ederto menderatu zuen gure izkera, ta bere itzulpen eta osterantzeko lan ugariatatik dakusgunez, euskerari guna ateratzeraiño iritxi zan.

Bilbao'n munduratu zan 1888-12-7'an. Baita bizi ere. Eta il, 1971-7-27'an. Bizkai Aldundiko euskera irakasle izan zan urte pilloan, eta ortik zetorkionarekin ba-zuen poliki bizi izateko aiña. Gure euskal idazle guztiak ez dute, tamalez, aukera ori.

EUSKAL LANA.—Ez dakigu noiz asi zan euskeraz idazten; ogei ta bost bat urte zituaneke bal beintzat. «Euzkadi» aldizkarian (1913, orrilla-bagilla, **232** orr.) daakazu, lenengo lana agiri danez, Txomin Agirre-ren *Garoa* eleberriarri jarri zizkion oarkizunak. Gero etorri ziran ondorengo liburu ta artikulua. «Altuna'tar Joseba», «Azparren» eta «Amilgain» erabili zizkigun izenpetzeko.

Garaiko giroari erantzunez, euskeraren alde jokatu zuen bipilki, bere izaera ere ortan ekiñ eta ekiñ ederto aberasturik. Bakoitzak bete bear du alik eta zeatzen dagokion egin-bearra, euskal arloan diot; eta Altuna ortan saiatua dugu, gizonki saiatua atan ere; euskera ikasi, argitu, erakutsi, auxe izan zan bilbotar errime onen zeregiña.

Ona bere lanik irtenenak:

1) *Afijos de euzkera* (Bilbao, 1915). 77 orrialde. Bilbaina de Artes Graficas'en. Balta argitaratu zituen «Euzkadi» aldizkarian ere, 1915, **XII**, **193**, 381 ta 446 orrialdeetan. Lan ederra garal artarako batez ere.

2) *Esopo'ren Ipuñak* (Euzko-Deya, **1921-22**). Pilloa argitaratu zigun, poliki euskeraz jarrita. Orrez galñ, gure erriarentzat bereziki, ondoren onuragarriak atera zizkigun euretatik. Bilbao'n irtetzen zuen abertzale aldizkingi *Euzko-Deya'n* beste lan asko ere arrotu zizldgun, eten barik idatziz.

3) *Oskar Wilde'ren Ipuñak* (Bilbao, 1927). Verdes-Atxirika'ren irarkolan. 113 orrialde. Jauregibeitia'tar Ander'en idantzekiak. **Sei ipui** dira guztira. Euskeratzallleak au diño sarrreran: «Wilde'tar Oskar idazle ospetsubaren ipuin batzakaz txorta bat egin eta ona natorkixu, zeuri eskintzen. Ipuñok mamintsubak dira, irakaste andikuak. Eurak irakurten ordu asko

igazi edo pasau yataz atsegiñez. Zeuri be atsegin ixango ete yatzuz? Dana dala, gure Ama Euzkereari opari txiki au egin gura ixan dautsot, orren biarra, biar andija gero!, daukolako».

4) *Afanasiev'en Ipuñak* (Bilbao, 1930- 1932). Ez dira bazezan argitaldu; balña ortxe dator mordo ederra, *Euzkerea* al-dizkarian iru urtean jarraika aterata.

5) *Grimm amyak. Ipuñak* (Bilbao, 1929). Verdes-Atxirika'ren irarkolan. 160 orrialde. A. Arriandiaga'k aueri buruz onela: «Polito dagoz, euzkera garbijaz ta errazaz, eta euskeldun barrijaren ixena goitik jarri ta eredu on antzargarrija gustijuen begijetan aurkeztuteko. Nire poz-agurra, bijotz-bijotzetikua, ta aurrera jo, alzkide on maite, adoretzu ta kementsu» (*Euzkerea*, 1929, 66 orrialdean).

6) *Itxaro-ixarra* (Bilbao, 1931). M. Sota'k erderaz egiña, Altuna'k euskeraz. Atal bateko antzerkia duzu. «Euzkerea»-n dator, 1931, I, 722 orrialdean.

7) *Oztin* (Bilbao, 1932). Au M. Sota'rena duzu Altunak euskeraz jarrita. Ikus *Euzkerea*, 1932, II, 4 orrialdean.

8) *Negarrez igaro zan atsua* (Bilbao, 1933), M. Sota'ren antzerkia au ere, Altuna'k itzulia.

9) *Buruzagijak* (Bilbao, 1936). M. Sota'ren atal bateko antzerkia, Altuna'k euskeraz. Berdin «Urretxindorra» ere (Bilbao, 1934).

J. Iturralde ta Suit'en elezar eta irakurgai batzuk ere «Euzkerea»'n agertazi zizkigun, euskeraz. Beste lan batzuk oralndik *Hermes'en* eta *Patria Vasca'n* azaldu zituen. Arrañak, egaztiak, giza-soiña ta olako galak oso atsegin zitzalzkion.

Nola idazten ote? Irakur puska au, ta bertatik oartuko zara nolako erreztasunez eta gozotasunez apalntzen zizkigun zegizkin itzulpenak. Esopo'rena duzu au, *Otsoa ta Amianoa* deritziona.

«Jaten eguan otsuari azur bat estarrijan geratu yakon. Estu ta larri buruba ikusita, arren eskatu eutson amianuari (zigueñari) azurra aterateko, orretarako alagalako mokua (pikua)

eukan-eta. Gero, bezuea (erregalua) be emongo eutson. Amianuak orsuari azurra atera ta abinduta eukana eskatu eutson. Baña otso malmutzak erantzun eutson: —Zeu zara ixatekua! Zure buruba agin artian eukita, erraz ilgo zindukedan gura ixan ba'neu. Orraitiño, baña, eztautzut gatxik egin. Eta ondiño gugua daukozu besterik eskatzeko? Ut critik, zentzunbako!

«Gogo dongjai onik egitia alperrikakua da. Dongiak diranak eztabe, egiten yaken onurarik alntzat artzen» (*Euzko-Deya*, 1921, IV zenbakia, 53 crr.).

(Ikus A. Anabitarte, *Euzkerea*, 1922, 83 orr.; A. Irigarai, RIEV, 1928, 166 orr.; M. Arriandiaga, *Euzkerea*, 1929, I, 66 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1966, 66 zenbakia, 141 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 507 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 126 orr.).

22.—ARRUTZA TA EGIA'TAR MIKEL (1890-1966)

Eatetik bat euskal idazle ta erakusle zintzo au, gizaki ta idazle lez, sakon aztertu zuen E. Erkiaga'k dioskuna, bego emen argiro: «Ez eban —idazten du— eguno bere burua anditzat jo. Euskera aldeko lan eskerga ta geienetan esker txarreko onetan, alnbat eta ainbat atxurlari ta segalari bear ditugu arazo neketsu au burutu nal baldin badogu, eta sail eta talde orretan Arrutza Egia'tar Mikel gizon apal eta langillea genduan, ereille ona, beargin zintzoa. Euskalerriko seme jatorra» (*Olerti*, 1967, I, II, 10 orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Bilbao'n jaio zan 1890-3-3'an, bigarren malllako Insdtutuan jaio ere, bere aita irakas-leku ortako etxe-jagola zan eta. Gurasoak: aita, Luis Arrutza Etxebarria, Mungia'koa semez, eta ama, Eustasia, Egia Ituraln, Gatika-ko alaba. Ecst urtedun zala il zitzalon alta, ta Ondarreta'n eta Algorta'n bizi ziran aren osabak eraman zuten berekin Mikel gaztetxoa, amari zerbalt laguntzeko gal izan zedin arteiño. Itxas-egalean egon zan, ba, luzaro xamar bere amagandik banalz. Zer gerta

zitzaion? Biotza ozmindu ta euskera piper utzi; baiña amasei-amazazpi urte egin orduko alogera irabazten asi, osaben abes-pelua laga ta ostera ere bere amaren ondora itzuli ta berriz ikasi zigun euskera, bere mintzaira zarra.

Nun egin zuen lan? Lenengo »La Polar», eskier bazkunan, eta gero Banco de Comercio'n. Azkue jaunaren adiskide egin zan laster, oralndiño mutiko zalarik, eta gerora, Bizkai'ko Al-dundiak Bilbao'n zeukan irakastegiko katedra irabazi zuen, nor-geiagoka: 21 urte zeuzkan. Euskeraz ematen zan irakastegi au aski ospetsua genduan. Azkue izan zan bertan lenengo irakas-le, Bustintza'tar Ebaista bigarren, gero Arrutza, Altuna'tar Joseba, Gandariasbeitia eta Tomas Agirre, «Barrenso». Az-ken gudalditik ona ezta ezer erakutsi. Onezaz gain, Ribera ka-leko eskoletan ere erakutsi zuen Arrutza'k euskeraz, Errepu-publika aldian; eta geroztik, 1951'rantza, Bilbao'ko Ateneuan ere bal, Ikastaroren bat beintzat.

1918'an, Nicolas Deunaren elizan ezkondu zan Klotilde Sopelana Iragorri, Bilbotarrarekin. Sei seme-alaba izan zituz-ten, iru mutil —Xabier, Mikel ta Iñaki— ta iru neska: Be-goña, Itziar eta Garbiñe, oraindik bizi diranak.

Anai arteko gerratean (1936) Zamudio'n bizi izan zan bere sendiarekin, zortzi illabeteetan. Ondoren, 1937-40 urteetan, mu-gaz andik Donibane Garazi'n eta Armendaritz'en egon zan, doixtarrak Frantzia'z jabetu arte; 1940'an Bilbo'ra jo zuten ostera ere sendiko guztiak. Emen gorriak ikusi zituzten lenen-gotan; azkenik irabazpide polita aurkitu zuen Mikel'ek «Ha-rino Panadera» ogigintza etxean, arik eta zar-saria iritxi arte.

Gorputzez osasuntsu zan arren, amasei azken urteetan go-rabera aundiak izan zituen, garnua zala, biri zorroetako gaixoa zala ta etzala. Atzenez ere, garnu-miñak eratxi zigun. 1966-5-12'an il zan, bere gorpuaren obiratzea jendetza aundiak la-gunduta egiñik.

Euskaltzalndikoa zan, urgazle. «Orren kolkoan —dio E. Erkiaga'k—, egun alalak eta egun latzak ezagutu izan zituan

Arrutza zanak. Latzak batez be, 1960 urte inguruan eta 1963'garrena izan zirean. Zer batzuk ez eben gure gizonaren oniritzirik lortu eta beste batzuen eretxiak beste erabatekoak izan zirealako, eztabaida garratzak sortu zirean. Orduan jazo zan guztia ez da ostera, idatzia izan. Baiña, geroak argituko ditu guk orain ulertzen ez ditugun zerak. 1950 g. urte inguruan, F. Krutwig euskaltzaiñaren buruzagipean eratu izan zan Bilbon Jul Urkixo Elkargoa. Elkargo orretan be, tarteko izan zan Mikel. 1963 inguruan, «Euskaltzaindiaren Laguntzailleak» barrero taiutu nairik degiñak egin zirean eta Bizkaiko aldean, Arrutza izan zan zadorlari ta, Lendakari, Oleaga Nazario. Ez ulertzeak edo makur-altutzeak izan zirean andik lasterrean, eta talde orrek, satorrak jota edo, banatu ta lorrindu bearra izan eban» (*Olerti*, 1967, I-II, 9 orr.).

Gizaseme arteza zan, eta zerbalt zuzen ez zegola iruditzen ba'zitzalon, prest geunkan beti olakoari idazkiren bat egiteko. «Zirikalari itzela zan eta eztabaidarako bidean sartu oi zan», diosku azkenik E. Erkiaga'k. Baita langille porrokatua ere, bizi izateko bear zuen arloz kanpora, beti euskal zelalan lan egiteko gertu geunkana. Paper mordo aundiak utzi zituen ondoren, denak euskeraz idatzita.

EUSKAL LANA.—Gurasoengandik zekarren Arrutza'k euskal lera errez atzera eziña. Umetatik zekien euskeraz, gero —esan dugu— aitzu egin zitzaion, eta berriz ikasi zuen joranez. Berak ikasi ez-ezik, besteai erakusten ere leiatu zan, lendarbizi etxean seme-dabai —emazteak etzekin euskerarik—, eta gero beste ainbati, or-emen irakasle jardunik.

1911'an asi zan idazten, eta arrezkero guztian idazle amorratua gerta zitzalgun. «Kirikiño»'ren eskolakoa zan, eta aldizkari auetan azaldu zituen bere lanak: «Hermes», «Aberri», «El Bidasoa», «Euzkadi», «La Gaceta del Norte», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Karmel», «Zeruko Argia», «Olerti»..., Oni buruz E. Erkiaga'k: «Amaika lerro idatzi izan zituan euskeraz. Geien geienak bizkai-izkeraz,

eta itz lauz, prosaz. Baiña neurtitzak be egin zituan, eta or ikusi dogu mordo ederra aren paperen artean. Eurotarik asko, alegiak dira; arek berak, arkameleak eritxuen, (L) itzez». Lan asko dituzu «Euzkadi» egunerokoan 1913'tik asita; baita «La Gaceta del Norte»-n ere, 1933-36 bitartean berak bait zuen osatu garai artan zekarren *Euskal Atala*. Guda ostean ere, 1956-58 urteetan, zerbait agertu zioten.

Bego emen au ere, jakingarri da-ta. Onela diosku E. Erkiaga'k: «Gerra denporan agertzen zan «Eguna» egunkarian be, lankide izan genduan. «Eguna» egunerokoa izan zan, guztia euskeraz egindakoa, Bilbon, 1937 urtebarrian asi eta urte aretako bagillaren erdirarte, bost illabete ta erdian. Egunkari orretako erredatoretak, zorionez, bizirik diraue oindiño, ia guztiak. Askok ez dakien albista zaharra dozue au. Bilbon, gerra denporan aln zuzen egin izan dala egunkaria euskera utsean» (*Oleriti*, 1967, I-II, 8 orr.).

Lanak izenpetzean izenordeok erabilli zituen: «Garbi Zale» aurrenik, baiña beste batek ere ori berori zerabilleta konturaturik, «Garbi Zale Zarra» artu zuen; azkenez, «Arrugain» eta «Urratza».

Liburuok argitaratu zizkigun;

1) *Metodo Masse-Dixon, euskeraz jarria* (Biibao, 1923). Lenengo idaztia. 160-LXII, orrialde. Aurretik «Euzkadi» egunerokoan ere argitaratua.

2) *Metodo prdctico para aprender el vascuence* (Bermeo, 1925). Gaubeka'ren irarkolan. 146 orrialde. Atzerri izkuntzetatik itzuli ta euskerari egokitua.

3) *Euskal-ikasbide erraza* (Bilbao).

4) *Euskeraz ikasteko bide erraza* (Bilbao, 1934). Bigarren irarraldia, Verdes-Atxirika'renean. 107 orrialde. Azkue-k egin zion itzaurrea dakar.

5) *Etxe-kalde* (Bilbao, 1934). Anton Trueba'ren «El Judas de casa» ipuia bizkaieraz ipiñita. Verdes-Atxirika'ren irarruan. 80 orrialde, Arsenio Beaskoetxearen edergarriakin. A.

Irigarai'k onela: «Ondo ezaguna da *Arrugain* euskaltzaleen artean, «La Gaceta del Norte»-n bere euskd lanak xurgaxurgaka aogozatu ditzake-ta. «Etxe-kalte»-n darabilen euskera bizkaitar errikoa duzu: argi, zuzen, aratza, garbiegikeri gabe; edozein euskaldun zerbait dakianak, aixa irakurriko du Trueba'ren ipui au; ala ere, bear bada, gaur eguneko irakurleai lirismu laiñoegi batez jantzia irudituko zaie» (RIEV, XXV, 1934, 198 orr.). Trueba'ren larrosazko eleberri au lendik ere itzulia zegoen eta iru bider (1890, 1915 ta 1917'an) argitara emana; Anter Apaolaza'k biurtu zuen lenengoz, «Patziko Txerren» (Bergara, 1890) izenarekin. Zornotza'ko «Ekin» astero-koan ere agertu zituen aurretik onako zati bat, 1932'garren epaillaren 26'tik jcrraillaren 30'raiño. Unamuno'tar Mikel izkuntzari ospetsuari eskeintzen dio argitalpen au.

6) *Jo!* (Bilbao, 1966). Umientzako euskal irakurbidea. Euskeraz nola ikasi. Zenbait irudiz dotoretua ta A. Lino ta Arranbide anaia artelco zirala osotua. Editorial Vasco Americana'ren irarkolan. 78 orridde. Arrutza il aurretxoko liburua.

7) *Irrati-saioak*. Argitara gabe. Azken urteetan, Xabier Peña lagun zuela, Eilbo'ko Erri-irratitik, *Euskal Ordua* betetze-ko ere, makiñatxo bat salo ta irakurgai polit edatu zizkigun.

Enskeraren aurrerakuntzarako edozer zitzaion atsegin, eta oietakoeri indar berezia emateko noiznai zegoen gertu. Euskaltzaindiko zan urte askotan —urgazleatarik zaarrena zan— denok daHgu zelako lan-zaletasuna erakusten zigun. Euskera zuen maite ta euskal arloari lotua, euskal kulturaren alde, idatziz ta erakutsiz, egiazko lan-gogoak jota zebilkigun.

OXERKARI?.—«Ez eutsan Jaungoikoak emon alako doai berezirik, esaterako asmamen zolia, irudimen arroa, idazle-kasta ta abar, arnasa aundiko lanei ekiteko bearrezko diran zerak». Alere, ondu zuen olerki politik. «Gernika»-n dator *Errekatxo gaizoa* (1951, 135 orr.); «Egan»-n *Ene aitonatxo maitea* (1956, 5-6, 63 orr.), eta *Perretxikoa eta barea* (1957, 274 orr.); «Euzko-Gogoa»-n berriz *Errekatxo gaizoa* (1956, VII, 7 orr.), eta

Perretxikoa eta barea (1959, I, 217 orr.), eta *Bitsa, ezer ez* (1960, II, 97 orr.), eta *Eulia ta saga* (1960, II, 219 orr.). Eta argitaratu gabe, oraindik pilotxoak. Nik ba-ditut ark, gaurko istilluak dirala-ta, ondutako ziri-bertso bikaiñak. Bere erara etzuen urri gatza ta piperra.

IRITZIAK.—Eusebio Erkiaga'k: «Lege zaharreko euskaldun erakoa zan. Baiña argitasun barriak buru-biotz argitua ta be-rotua. Abandoko Txapelaundiaren asmoak, Arrutza-gan be, lur ona ta samurra aurkitu eben, erne, sendo sustertu ta landara mardula zertuteko aiñean. Euskaldun arek bere ezagutu eban eta maitatu» (*Olerti*, 1967, I-II, 6 orr.).

Nik, aren eortz-egunez: «Arrutza'tar Mikel gizon on, artez eta euskaltzale ausarta. Lengoan, maiatzaren 12'an, Bilbao'ra nintzanean, iragarri eustien aren il-barri samiña. Geixo samar ebillena ba-nekian, baiña ez neban uste Jaunak orren arin eroango euskunik. Lagun miñari azken agurra egiteko asmuz ara nintzanean, ainbat adiskide ta ezagun ziran ari nik lez azken agerraldia egiten. Danok genduan asmo bat, danok genkian zertara giñoazan. Asko ziran arpegia biurtzen ebenak begiak beera zerioen malkoa ez erakustearren. Lurra emonik, an Derio'n gelditzen da gure adiskide maite ta euskaltzale eredu-garriaren gorpua» (*Olerti*, 1966, I-II, 161 orr.).

Mikel Zarate'k: «Euskera asko daki Arruzak, baiña »euskaldun barri» usalña darioe, batzutan, bere idazlanai» (*Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 203 orr.). Ez duzu miresgarri ere: euskaldun berriak eta gure idazle leunak darabillen izkuntza, ots, euskera, erroz ikasten alegindu oi zaizkitzu, ta idazkeran naitaez ikasi orren kutsua azaldu bear. Bestetik, idazkera —estilua— gizona da, Buffon'ek dioskunez.

Burutu zituen itzulpenetatik «Etxe-Kalte» izan zan aipatuena, «Yakintza»-k onela: «Arrutza'tar Mikel'ek, edo obe, «La Gaceta del Norte»-ko euskal atalaren zuzendari dogun Arrugaln'ek argitara barri dau Trueba'ren ipui atsegingarri

bat, Etxe-kalde. Itzulpena arduraz egiña da. Izkera argi, zeatz, jator ta ulert-erreza dozu oso. «Arrugaln»-ek ez dau alperrik bizkaltar euskalgian itz-lauzko idazlerik onenetarikoa dalako entzutea» (*Yakintza*, 1934, epall-jorrailla, 159 orr.).

(Ikus A. Irigarai, RIEV, XXV, 1934, 198 orr.; *Euzko Gogoia*, 1956, VII, 26 orr.; S. Onaindia, *Olerti*, 1966, I-II, 161 orr.; E. Erkiaga, *Zeruko Argia*, 1966-V-22; E. Erkiaga, *Olerti*, 1967, I-II, 3 orr.; E. Erkiaga, *Euskera*, 1968, 280 orr.; N. Kortazar, BAP, 1966, 3-4, 492 orr. eta *Cien Escritores vascos*, 1966, 102 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 40 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko Eushal Idazleak*, 1970, 201 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 456 ta *Diccionario An-Artazu*, 638 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, 1, 326 orr.).

23.—BASILIA BUSTINTZA OZERIN (1889-1972)

«Kirikiño» zanaren alarguna ta «Mañariko»-ren aizpa. Mañari'n jaio zan 1889-9-26'an, Arrueta auzuneko Zumelaga etxean, gabeko amarretan. Jaio ta bi egunera, 28'an, bateatu zuen Paulino J. Barrueta orduko txauburuak. Gurasoak, Felix eta Martzelina. Aitaren aldeko osabak; Karlos Bustintza, mañariarra, ta Juliana Lasuen Agirre, Adadiño'koa; amaren aldekoak: Juan Domingo Ozerin Zugazagoitia ta Eukenia Arriaga Ortuoste.

Ogei urteko zala, 1909-9-25'an, bere osaba Bustintza'tar Ebalsta'rekin ezkondu zan. Etzuten seme-alabarik euki. Gaztetan neskatilla bezela, ona ta maratza ba'zitzaizun, euskal idazle aundiaren emazte zdarik, askozaz ere arduratsu, jator, kristau ta esukaldunago azaldu zan. Senarra il (1929-1-31) zitzaionean, bere aizpareldn egin zituen ogei ta lau urte, ta gero bakarrik beste emeretzi. Gerratean, erbestetik ibilli zan bere aizpa Errose'rekin. Errian maite zuten, baita berak ere erritarak. Euskal idazleok ere, bereziki, badugu aren gomuta goxorik.

Buruko odol-gogorduraz il zan 1972-1-4'an, bere etxean, Frantzisko Xabier Perea, gaur Mañari'n txauburu danaren eskuetatik azken Sakramentuak artuta.

EUSKALTZALE.—Maite-maite zuen bere izkuntza; suak berotzen duelako ezeze, baita odolez zekarren griña zalako ere. Nork esango luke! Euskal olerkari dugu Basili. Bera ikustera urreratu nintzanetan, etxeko zer guztiak erakutsi oi zizkidan, balta ixil-ixillik eskuz idatzita zeakan poesi ingurrazti bat ere. Bein, erregu ta erregu, kendu nizkion batzuk, eta *Oleri'n* datoz argitaraturik. Merezi du, beraz, bere izena gure olerkarien artean jartzea. Apala zan, eta etzitun alntzakotzat artzen astinetxoetan egin oi zituen lanak. Balña ba-dute —nola ez!— emakumezkoak ezarri oi duten gatza ta samur-beratasuna aren lumatik irtendako olerkitxoak.

Ona bat, txasta dezazun, Gorbea'ko Kurutzeari eskeiñi zion eta «Karmel» gezur-izenez eman zigun *Oleri* aldizkarian (1962, 26 orr.).

«Urrun zakustan Gurutze deuna,
orraíño oiñez ezin joanik,
emen naukazu Zuri oiuka
besoak zabal-zabalik.
Txoria ba'nintz, ortxe nengike
neure abia gaiñe orretan,
kantuz lertzeko ordu orotan.
Malte-miñezko didar zal orri
goitik yatorko doia-iturri,
niretzat beri oso pozgarri.
Soiñez ezinda, nire gogo
egaz doa Zugana,
mendi orretan agertu nairik
berak dautzun maltasuna».

(Ikus *Oleri*, 1962, III-IV, 23 orr.; Bitaña, *Egan*, 1963, 74 orr.).

24.—ERRAZTI SARATXO'TAR JOSEBA MIRENA
(1890-1964)

Bilbotarra. Lenago Begoña zan Campo de Volantin auzu-
nean ludiratua, 1890-3-2'an. Onen arreba zan Errazti'tar Kar-
mele, Zeferin Jemein'en emaztea. 1964-5-19'an 74 urtedun il
zanean, »Pacem in terris» y nosotros los vascos» —Errazti'k
beronek ateratako euskal ingurraziak— onela zioan: «Gixon
zintzua, biargiña, arteza zan gure Errazti maltia. Edonora jo-
teko bide zuzena beti artuten ebana. Bide zuzena da laburre-
na, ta beretzako ezeguan beste biderik. Etzan, ez, bide okerren
zalia. Edozer lortuteko, bide arrez ibilli biar beti. Gixon ado-
retsuba, errimia» (Bilbao, 1964, 26 orr.).

Arana-Goiri'ren jarraitzaille ziña, ziñik baldin ba-dago.

«Oraitz» goi-izena erabilli zuen iñoizka bere lanak izen-
petzeko.

EUSKAL LANA.—Bilbotarra zan-eta, zoritxarrez, etzekian
umetan euskerarik; balña abertzaletasuna zeraman barne-mui-
ñean ondo eratsia, ta lan eta lan laster jabetu zitzaigun eus-
kerarekin. Gogo bero ta ekiñez zenbat gauza lortu genitzaken!
Balta geure burua euskaldun egitea ere. Bide orerri ekiñik,
Errazti etzalgun izan edozelako euskaldun gero, «jaHntsu' ta sar
kona» balño. Abandotarraren ikasle zan, «ikasle sutsuba, arek
irakatsitako bidetik artez jarraltu ebana».

Edu orretan nalnoz ta nunnal, galñera. Gutxik iritxi oi
dutena ere lortu zuen. Zer ote? Seme-alabal euskeraz irakatsi
ta auek egiazko euskaldun egitea. Zallla danik ez diñot; baiña
nalmen bero ta errimea bear dala bal. Iraupen etengabea bear
da, norberak euskeraz ikasi ta bestea ere ori berori ar-erazi
ta izate barneralño zirriztatzeko. Ortan jarduna duzu Errazti,
diru ta borondate biziz. Laudio'n, esate baterako, urte gutxi
dirala, bere fabrika ondoan eleizatxo bat eregi zuen, Euskalerrri-
ko deun eta deungal guztien irudiekin apalndutakoa. Balta al-

boan, bere lepoz au ere, euzko ikastola bat eraiki zigun, ango umetxoak ikasi bear duten guztia euskeraz ikasteko aukera izan zezaten.

Errazti, lendabizi ikasle izan eta gero irakasle. Eta irakasteko liburuak argitara zituen, bereak eta iñorenak. Ark egiñiko gauza askoren artean, or daukagu «Euzkeltzale-Bazkuna», berak eta bere koñatu Zeferin Xemein'ek eratua, ta onen izen-nean argitara *Metodo gradual para aprender el Euskera*. Euskal eliziti edo gramatika, iru liburutan. 124 orrialde lenengo aleak. Eta iru bidar bederen argitaratuak izan dira; «Pizkundia» etxe-argitaldaria (Bilbao, 1930) egin zigun bigarren ateraldia; eta 1958'an osatu zan irugarrena. Ogei bat urtetan Errazti'ren gramatika auxe izan zan Bilbao ta inguruetan geienen erabilli ta irakatsia.

Eres-zale itzela zan Errazti, ta berak eratu, orraztu ta argitara eman zituen *Euzkel Abestijak* (Bilbao, 1915 ta 1931) izena daramaten iru ingurraztiak. Beronen ardurapean osatu ziran, balta, *Ereserkijak* zeritzalena, 144 orrialdeko kanta-liburuxoa ere. Erri-abesti askorekin naste, Bustintza, Gallastegi, Errazti, Azkue, Errenderi, Arriandiaga, Eleizalde, Arrue, Altuna, Arana-Goiri, Enbeita'tar Imanol, Enbeita'tar Kepa, Etxebarri ta olakoen poesi lanak dauzkazu. Euskalki guztietan daude.

Aita Arriandiaga'ren gogakide ta lagun miña zanez, eder zitzaion aren idazkerea ere. Orregatik, aln zuzen, elantxoerberar jakintsuak osoturiko «Umiak autortuten eta Jaunartuten» liburuxka ta «Goizparralk eta Beldubaik egiña» deritzaiona, bere pentzutan argitaratu zituen.

Azken urteotan ere kezkatu zebilkigun liburuak nalrik. Eta «Enbor» argitaldaria sortu zigun, noiztik noizera liburuak azaltzeko asmotan. Ola argitara emana duzu, bat bakarrik altatzeko, Azpeitia'tar Julene euskal idazle argiaren «Umien Adizkidia» (Bilbao, 1962, I ingurraztija), aurtxoal euskeraz irakurtzen erakusteko lan polita, margo-kolore bikaiñez bitxitua. Bederatzi ingurrazti edo kuadernu atera zizkigun sail onetan. Gaiak:

euskera ta euskal arazoak. Ba-dute gatzik ingurrazti auek. Ona batzuk jasotean, A. Ibiñagabeitia'k idatzi zuena Karakas'tik: «Gaur berton iaso dodaz, ustegabe ta zearka, zuen ingurrazti ernegarri ta iakingarriak. Pozarren irakurri dodaz, eta ariñetan nalatortzue neure zorionik beroenak emotera».

Lan asko utzi zituen argitaratu gabe, balña iru auek batez ere: 1) *Izegi bat*, amaltu barik oindino; 2) *Kistar Ikastija*, osoro bukatua, ta 3) *Aditza*, beti esku artean erabillen lana; euskal aditzak'garrantzi aundia zuen Errazti'rentzat. Ainbat olerki ere borobildu zizkigun.

Arima aldetik gizaseme jatorra zan Errazti, kristiñau ona, Jalnko-zale gartsua. Bere gorpuzkiñak Derio'ko iltegian dute atsedeen-leku; illobi erdian, berak aurretiaz idatzita, idazkun auxe da: «Ba-dakit neure Eroslia bixi dala ta egun-azkenan ior-zobitik berbixiko nazala, eta neure narrubaz barriro jantzirik ene aragijogan, neure Urtzi dakuskedala. Neuk, neronak, eta ez beste batek, neure begijokaz dakusket: itxarokun au neure kolkuan dakot» (Joba, XIX, 25-27).

Bizkal-Buru-Batzarrekoa izan zan.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, Zarautz, 1954, 635 orr. «*Pacem in terris y nosotros los vascos*, Bilbao, 1964, 26 orr.; H. V. B., BAP, 1968, 2, 263 orr.; Jon Bilbao, *Esuko Bibliografia*, III, 165 orr.)

25.—KEPA ORMAETXEA ALDANA (1891-1949)

Euskerazko lanetan sarri «Lontzi Aba», «Ormalda», «Ormetxe» ta «Ormaetxea'tar Kepa» ta antzekoak erabilli zituen.

Zornotza edo Amorebieta'rekin batu arteño bere Udaletxea zeukan Etxano erritxoan jaio zan 1891-12-4'an, Boroa auzunean, Zugatza basetxean, eta egun berean bateatu zuen Salustiano Azurmendi, Etxano'ko txauburu zanak. Bere gurasoak: Paulo Ormaetxea, Etxano'koa, ta Andresa Aldana Egiarte, Amorebieta'koa; aitaren aldeko alta-jaunak: Martin Ormaetxe ta Derteano, Etxano'koa, ta Leokadia Ormaetxea ta Ormaetxea

ta Ormaetxe, Bernagoiti'koa; amaren aldekoak, Joakin Aldana ta Derteano, ta Mari Karmen Egiarte ta Etxebarria, biak Amorebieta'koak.

Izakera ta mendu jainkozalez doatua, ta Larra'ko komentuko en ikasbide onarekin indartua —komentutik ur-samar bait dago bere jaiotetxea— karmelar bizitza besarkatzea otu zitzalon, balta buru-kozkoan jarria egiztatu ere, Larrea'ko aztetxe edo nobiziaduan lekalde jantzia arturik. Urrengo urtean, ots, 1911-9-4'an, bertan eskeiñi zizkion Jaunari bere ziñitzak, eta ondoren beste urte bete osotu zuen Markiña'n, bere lagunakin batera, praille bizitzan sakonago jokatu zezan. Jarralan, Iruñā'n, Gazteiz'en, Begoña'n karmeldar ikastetxeetan burutu zituena ondorengo eliz-ikasketak. 1920-1-6'an egin zan jaupari, gotzalaren esku-ezartez.

Aldikada batean Aita Lontzi Eurgo de Osma'ko karmeldar komentuan bizi izan zan, eliz-izlari trebe eginik. Gero, 1931'tik 1937'ra batez ere Larrea'ko ta Markiña'ko komentuetan egin zuen lan ederra, Kristo'ren Itza, mixio ta gogo-jardunak emanik, Bizkal'ko erririk geienetan erein eta zabalduaz; eta balta Larrea komentuko bizimolde zeatza eramanik: orduan gaberdian jaiki bear zan Larrea'n, gau erdiko eliz-arrenak, ordu betekoak egiteko.

Idazkortzez ere etzebillen nagi, itz-lauz ta bertsoz alnbat lan argitaraturik. Komentuko diru-zalntza berak eraman zuen urteetan, eta arreata aundiz eraman ere. Probintziko Nagusi berriak aukeratzeko batzarretarako laguntzallle legez bein balño geiagotan joan zitzalgun. 1935-37 alkarrekin bizitu giñan; 1937'an, gudu zalapartak, naste-borrasteak zirala tarteko, Txile'ra joan zan. Ala ere etzuen osasunik eta ezin lan askori oratu arima-zaintzan: goxoeridun zebilkigun aspalditik. Ori gora-bera, al zuena egiñez, lege-gordetzeari ekin zion aspertu barik, eta eliz-egikiñetan berdin. Azkenez, gexotasunak abailduta, gogolaguntzaz kemendurik eta bere anakal biran zituela, Jainkoari eman zion bere arima Viña del Mar'eko komentuan, 1949-1-15'an.

EUSKALTZALE.—Mezakotu ta laster asi zan idazten. «Jaungoiko Zale»-n, «Ekin»-en eta «Karmel'go Argia»-n datoz Aita Lontzi'ren lanak. Argi ta garbi idazten du, joskera ederrean. Atsegin zituen esaldi luzeak, naiz itzaldietan, nalz argitaratzen zitun idaz-lanetan. Naikoa idatzi zuen. «Karmen'go Argia»-n, adibidez, illero ematen zigun zerbalt. Aldizkari au sortu zanean, lenengo zenbakian, eta gero ere bai, izpar-arloan ekin zion gogotsu. Ona lenengo zenbakia, garal artan sor-berri zan Donostia'ko «Euskaltzaleak» bazkunari buruz, zer dioskun:

«Euzkalerriko izketa, jolas, dantza, abesti ta oitura gustiak barrian barri berbiztu ta indartuteko asmuz lentxoago Gipuzkoa'n sortu ta eraldu zan batzar begikoa Euzkalerria zear, zorionez, zabalduaz doa, Gure euzkera ta beste oitura arrigarri gustiak berbiztuteko bakoitzak egunoro eunen bat emon bearra bakarrik dauko. Bakoitzak egunoro eunentxo bat emonaz beste barik, Euzkalerriari ganera jausi yakon erdal-gorri eta nasalkeria «Euzkeltzale» batzarrak erraz-erraz kenduko leuskio... Euzkeltzale batzarra sortu zan tokian zuzendari ta langilleak aurrenengo lez abade-lekaideak agertuten ba-dira, Bizkaya'n, Araba'n, Naparroa'n eta Auñamendiz arantzako errietan be agertu eziñik eztauke. Bakotzak bere sail eta arloan, gustioen ama dan euzkerea eriotzapetik atara ta dagokion goratasun-gdlurrera jasoten aleginduten ba'gara, euzkereak laster burua jaso ta kukurnuku egingo dau» (*Karmen'go Argia*, 1931, urtarrilla, 31 orr.).

Izparlari zeatza zan, eta zeregin ori bere lepo duenak egin bear duenez osatu zuela, uste dugu. Albiste pilloak dauzkagu «Karmen'go Argia»-n adibidez, euskal elerti edestirako egoki ta jakingarri zalzkunak. Aspertu gabe mintzatu zan A. Lontzi Bizkal'ko elizetan batez ere. Eta, ia beti, idatzi, buruz ikasi ta bota oi zituen itzaldi oiek. Esan dugunez —eta guk berari esan oi genionez— Kikeron'ek bezelako esaldi luze ta durundutsuak eder zitzaizkion. Gisa onetan daude borobilduta utzi zituen eliz-jardunak, mordo ederrak aln zuzen ere. Merezki lukete argitaratzea.

OLERKARI.—Naizta berez jardunaldi luzekoa izan, eder zuen Aita Lontzi'k, oldozkai laburrak, motzak, ipuin gisaz askotan, oretu ta irakurleari jaki bezela eskeintzea. Au geienik bertsoz egin daroagu. Lontzi Abak neurtitz asko ditu, erreztasun ikaragarria bait zuen bertsoak opiltzeko. Idazti eder bat osotzeko lain poesi aurkitu ditzakegu gorago aipatu ditugun iru aldizkarietan.

Txile'n zegoelarik, bertsozko bi ipui-liburu argitara zizkigun. Ona:

1) *Lontzi Aba'ren Ipuintxuak* (Santiago de Cbile, 1947'g. Mikel Deunaren egunean). «Hispania» irarkolan. 100 orrialde. Ordenako Iturbe'tar Modesta esleak eta Astobitza'tar Ebalsta azterkalariak ikusi ta Josu'ren Sabin, Txile'ko karmeldarren nagusiak balmena emon ondoren, Bizkarguena'tar Ander, Nikola deunako txauburu Goterkiko eslearen eskariz, Santiago'ko Gongotzaiak eman zion argitaratzekoa, 1947-6-7'an. Eun olerkitxo dira guztiz, polito eratuta.

2) *Lontzi Aba'ren bigarren Ipuintxoak* (Santiago de Chile, 1948-3-26'an). «Hispania» irarkolan. Balmena lenengo ipui-liburuarentzat eman zituenak ematen dizkie emen ere. 100 orrialde, ta eun poesi labur. Bi liburuok dira berdín samarrak. Ona eredu bezela olerkitxo au, «Lanik txarrena» deritzalona:

Osagilleak ardura aundiaz
azterkatu dau gexoa,
ta osasuntsu aurkitu dautso
buru-bera soin osoa.

Lanaren lanaz aurkitzen zara
apurtxu bat nekatuta,
amabosten bat egun lan bakoz,
baña, zagoz osatuta.

—Ze bearretan aurkitzen zara
arazotuta, zalduna?

—Lau urte onetan jan baño ezto
besterik egiten, jauna.

Gure gorputza gexotuteko
dagoan lanik txarrena,
deus egin barik gogait eginda
emotea da eguna.

(Ikus *Analecta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*, 1949, 30 orr.; S. Onaindia, MEOE, 694 orr., ta *Larrea eta Karmeldarrak*, 1968, 95 orr., ta *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 132 orr.; San Martin, *Escritores euskericos*, 145 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 294 orr.).

26.—BIZENTE ETXEZARRAGA ARTIÑANO (1891-1968)

Jori ta izakor duzu Arrati'ko arana euskal barrutian. Idazle ospetsuak izan ditugu lur onetan jaiki diranak, len eta gaur ere bai. Urbil dute arratiarrak izan ere Gorbeia, gure mendi aitaso zangarra, bere begipe gozoan zaintzen ditunak irudimezez iñardausi ta biotzez goi-arnasteko. Giroak eta inguruak beti dagite zerbait gure izatean.

Emen jaioa duzu Etxezarraga, «Zidorra», Zeanuri'n, Altzuste auzuneko Ellauri basetxean 1891-1-25'an; arratsaldeko lauretan ain zuzen ere, ta iltzear zegoelako, jaio ta laster Maria Mendieta Gortazar'ek bateatu zuen urrengo egunean, Benito Undurraga apaiz-laguntzailleak eliz-ugutz-zeremoniak beterik, Bere gurasoak: aita, Eujenio Etxezarraga Beaskoetxea, lugiña, Zeanuri'koa, ta ama, Eenita Artiñano Orue, Zeberio'koa alabaz. Aiton-amonak: aitaren aldetik: Bizente Etxezarraga An-goitia, Zeanuri'koa, ta Mari Juana Beaskoetxea, Zeberio'koa; eta amaren aldekoak: Benita Artiñano Goti ta Josefa Orue Bengoa, Billaro'koa.

Zeanuri'n bertan osatu zituen len-ikasketak, eta gero gaztetan bost urtez Miren Biotzaren Semeak Balmaseda'n daukaten ikastetxean eman zituen beste bost urte ikasten. Emen-txe ikasi zuen baita, N. Kortazar'ek dioskunez, gero eliz-izlari bezela gaiñak artuta nabari izan ondoren, Kobrezes (Santander)'eko lekaide trapatarren komentuan sartu zanak.

Gizon legez zintzoa zan Etxezarraga, buruz argia ta edozei-ñi laguntzeko beti gertu zegoena. Ezkonduta bizi izan zan Zeanuri'n bertan, baiña emaztea il zitzaion eta gerra ostean batez ere aiderrai ibilki, oiñaze-ogia irunsi bearra izan zuen. Bigarrenez ezkondu zan Iruña'n, 1943-4-26'an, Laurenti Donearen elizan. Osasunez beti ere meko samarra izan zitzaigun. Arjentina'ra jo zuen azkenez, eta an Rawson'en bizi izan zan bere arreba ta lobarekin luzaro, 1969-3-25'an ludi au utzirik. Etzuen seme-alabarik euki.

EUSKAL LANA.—Naiko ikasia zan «Zidorra». Nun-nai dituzu onuragarri umetako ikasi ta asimasiak komentuetan artutakoak baitik bat, naiz-ta gaur azken-orduko askori zital ta galgarri begitandu. Ikas-arloan zebilelarik ere, etzuen askok legez aitzu basetxeko suete epelean xurgatu zuen asabengandiko izkera ezta.

Biziak uts-eman ez zion artean, nainon aurkitu, euskera zizun mintzabide arrunta, egunerokoa. Ez au bakarrik, idazkortzari ere aspertu barik eragin zion, ainbat euskal orri-ta lanak agert-erazirik. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en eta «Karmengo Argia»-n eta Bilbao'ko «Euzkadi»-n eta «Euzkerea»-n eta «Arrati'ko Deya»-n idatzi zuen batez ere.

Itz-lauzko lan artean ba-ditu olerki arin politak. «Euzkerea»-n poesi-landarak eman zizkigun bereziki. Txit garbi, erri-koi ta mamitsu da, ta merezi mkete auk ere sorta baten bildumatzea. Irakur «Umetxubai lagundu» dteritzan neurtitza osatuten duten aapaldiok:

Ikusi dot nik ume txiki bat
iturri baten onduan,

lupetz utzezko andapara bat
 egiten zelan eguan.
 Eskubak loirik, jantzija busti,
 oñak eukoza zikiñak.
 LHe gorritxu ain gaste zanen
 zelango ete ametsak?
 Errukiturik umetxubagaz
 itandu neutson esaten:
 —Aingerutxuba, erantzun eizu,
 zer zuaz emen egiten?...
 —Gura dot urok jagi dadixan
 mendi orrexen ganera,
 andik duazan ain leor dagon
 bixi nazan «Aranera».
 —Ain leorra dan aran orretan
 zelako ura nai dozu?
 —Jaun zerukuak biar dau edan,
 gauza danak egin baitu.
 Ikusi dodaz neure aiteten
 begiko negar-malkuak,
 gixonak ziralako etorri
 kenduten gure pozuak.
 Mendija bera bidalduko dot
 indartsu errekatxuba,
 argituten dan neure aiteten
 ain arpegi tximurtuba...
 Sortuko dira pitxi zuri ta...
 larrosa gorri-gorriak,
 euren erdijan kurutz-gintzako
 elorritxu orlegijak.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1954, 741 orr.; N. Kortazar, *Cien escritores vascos*, 1966, 37 orr.; H. V. B., BAP, 1968, 2'garrena, 262 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 475 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 277 orr.).

27.—BERNARDO MARIA GARRO BASTERRETXE
(1891-1960)

Munduan bateko itzultzalle onenatariko bat duzu Garro. Ez da zer erreza izkuntza batetik bestera, oldozkunez ta esaldiz, zeatz ta egoki biurtzea; alaz ere, Garro'k ortan burutu zuena osotasun utsez egiña dugula ezin dezakegu uka. Gal ontaz Azkue'k onela: «Uste dan baiño gatxago ta neketsuago da euskerazko biurketak egiteko arazoa. Esan daiela bestela iostunak, gurasoen soiñekoakaz seme-alabentzakoak egitea zeinbat neketsuago eztaben izaten, dendarik arako eun-miesa-oialakaz egitea baiño. Alosak artu, adabaldak kontuz ezarri, azpildurak zee zee egin, da aletxe zaarrak iasean estalduarren, soiñeko zaar barriraztua guzur-agiñak eta odei euritsuak baiño bere errazago ezaututen dan begi lausoak eztaakazanak. Liburu euskeratuak, barriak izanarren, beti dauke zaar-antza; baserriko alze-artean sortu ta iaio ta aziak izanarren, erdal-usaiña etxabe ioaten. Ezarri bekio oni arazoaren galztasuna ta edozein egongo da atzerea biurketan asteko» (*Ipuñak*, Bilbao, 1968, 207 orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Mundaka'n ludiratu zan 1891-8-22'an. Izkuntzaz ez zebillen txarto, berak 1954-7-7'an idazki baten zioztanez etxean nalz kalean elebitsu ziran, au da, euskera ta erderaz mintzatzen ziran txiki ta andi salllean. Gure txikiak, ordea, kale ertzean edo-ta itxas-egian moltzoka jarrita atso zaar malztuak zebiltzaten berriketa ta mormoxak entzutea eder zuen nunbalt; itz-galzto, iralñ eta alñen-biraoak sarri egozten omen zituzten abots-biurkera ta soin-dardarizu ta paristaz. Garro gaztea aieri belarriak itsatsita egoten omen zan, kukaka bezela: orduntxe jaso zizkigun ark zeinbat ipui, esaera, esaldi, supita, itz zuur, alen ezpanetatik berak konturatu gabe irtenak ez gutxi. Benetako auzi ta korapillc-ak erabili zituen, orraz, itzulpenalk egiterakoan: kalean ikasi zuen aditza bere aldietan etzan, ziur asko, eskolan erderaz ikasten bat zetorrena beintzat.

Euskeraz ta erderaz kalean entzun eta ikasia irabiotu oi zuen bere kautan eskolan aditzen zuenakin berdinduz. Orrela egin zuen, alegia, bere elebitza. Bietan ederki mintzatzen zan, balta idatzi ere.

Erriko eskolako ikasketak utzi ta komertzio-karrera osotu zigun Bilbao'ko «Escuela de Comercio»-n. Onetan ere abagune aukerakoa eskuratu zitzaion barne-deiari erantzun al izateko. Bilbao'n ikasle zala, adiskide lokarriz etxean sartu zan Elorrio'ko, Arrasate'ko ta beste gipuzkoar gazteakin. Orrez galiñera, elizti batzuk begiztatu, euskal nobela batzuk irakurri zituen; eliz-liburuak ere, Añibarro'n «Esku-Liburua» adibidez, eder zitzaizkiola dio berak. Asteroko, izparringi, bertso-paper eta ola-koak, berriz, aspertu gabe iruntsi oi zituen. Orrela, euskeraren zirkinzulo guztiekin jabetu zan gaztetatik.

1910'an, emeretzi urte eukazala, ez dakigu zerk eraginda, Arjentina'ra joan zan. Zer egin zuen an? Dakiguna, zera da: zazpi urteren buruan berriro itzuli zala Mundaka'ra, berak zioan bezela «euskaldun internazionala» eginda. Euskalerrri oso-ko euskaldunakin ar-emana izan zuen itxasoz andik, eta edozein euskalkiko euskaldunakin mintzatzeko gai zala etorri zitzaigun onera. Ona emen, euskal batasuna osatzeko era bat.

Emen Mundaka'n daukagu, beraz, 1917'garreanean. Bertan ezkondu zan. Eta ementxe batez ere ta Bilbao'n dago, 1960-9-14'an il arte guztian. Astoreka ta Azketa etxean lan egiten zuen, ordezkari bezela. Gizaseme zintzo, siñismen aundikoa. Ba-zituen bere lerak, idazteko, musikarako, mendirako ta abar. **D**irala amabost-amasei urre Bizkal'ko uriburuan ezezik, Gorbeiko arkaitz-arte ta bide makartsuetan sarri alkar aurkitu oi genduan: zoragarria begitantzen zitzaion eusko lurra, mendietan mendi erraldoi dugun Gorbeia'tik so-egiñik alan bere. Pagasarri ta Ganekogorta'k ere ba-dakite nolako barrua zuen Garro'k. Alala zan. Txistua ta kitarra jotzen zekigun.

EUSKAL LANA.—Euskaltzaiña. «Otxolua» zerabillen bere lanak bereiztean. Ikas-griñak aurrera garamazki kezkarik gabe,

ta Otxolua ere sortzetiko min ezin eutsi oni jarraituz, ikasi ta ikasi zebilkigun. Eta noiz erne zitzaion barruan idazteko lera? Sakaz ta ñiki-ñaika lez daukagu, lur-azal bildu giñarrea aziak ernetzean bezela, idaz-lera deritzana. Ortarako, baiña, une berezi bat bear, akulu eragillea. Niretzat euki nituen irakasleak izan ziran bide, ni idazle izateko. Otxolua'ri, berak dioskunez, Kirikiño'k eman zion aukera. Ona: «1924'rantza, Kirikiño zanak euskal esaldi palindromikuen batzaldi bat antolatu zuen». Zer dira esaldiok? *Palin* gerkeraz, «berriz» ta *dromos*, ibilketa», ots: ber-ibilketa. Ona erderazko bat: «Anilina; dabale arroz a la zorra el abad»; itz edo esaldiak ezkerretik eskura nalz eskuitik ezkerredera berdin irakurtzen diranak. Ibillia atzera egitea. Kirikiño gure artean guztiz emana zan onako gauzal, idazleak sortu ta bizkortzeko berebiziko gaiak zirala uste zuen eta.

Garro'k pilloa onakoezin osaturik bialdu zuen batzarrera: «An atzo arro zana, senarran esanaz orra otzana», «Aita, itxi alta», ta abar. Orrelaxe eun esaldiralño neurkera guztitakoak. Balña esaldi bi besterik bialdu etzituen andereiño batek eraman zien leiaketako saria, esaldi bata izan ere konkurtsora azaldu ziranetatik luzeena zan, eta saria luzeenarentzat jarria izan. Garro'k aipamena izan zuen.

Gerorakoan, bere bizitaldi guztian kontixu, Mundaka inguruko albistak igorri oi zizkigun astero Bilbao'ko «Euzkadi» egunerokora; izparringi onetan azalduak ditu bere lanik geienak. Erri-izparrak beti zetozten ipui, jazoriko edo edesti-txatalen batekin amai bezela txukun jantzita. Bertsoz ere zeinbat olerki ta alegitxo ditu «Euzkadi»-n eta «Euzkerea»-n. Batzuk bere kabuz egiñak, eta beste batzuk ingelesetik-eta itzuliak.

Ona Garro'ren lanik beñenak:

1) *Idazlanak*. «Euzkerea»-n eman zituen batzuk: 1) *Voronoffek be ezin duana* (1929, 5 orr.); 2) *Bijar Doniane'ra* (1929, 105 orr.); 3) *Ortuzar'tar Errobusten jauparija* (1929, 251 orr.); 4) *Nai dogune*, (1930, 261 orr.).

2) *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txal-dankeri barregarriak* (Bilbao, 1932). Verdes Atxirika'tar Eme-teri'ren irarkolan. 183 orrialde, ta azken-iztegiak, LVIII orr. Giulio Cessare Della Croce (1550-1620) italiarrak idatziriko bi liburu dira, euskerara itzulita, egillea ilda gero argitara eman-dakoa: amazzipigarren gizaldiko idazti barre-eragillea, Europa guztian ots itzela atera zuena. Zer dala-ta biurtu zuen au? Ona errazoa berak: «Idazti txatar au baño obarik ez ete neun-kianentz idoro, euzkeralduta zuri eskiñiteko? Bai, urrian. Egija autortu: ba-dira basterretan au baño idazti ederragorik asko nok euzkeraldukoren begira; baña nik idaztiño au begiz jo ba'dot, erderaz dauan zabdtasunaren bidez euzkerearentzako onura apur bat ateratiarren baño ezta ixan». Itzulpen au «Euz-kadi»-n agertu zan zatika.

3) *Pizti patariak* (Euzkadi, 1934, bagilla, 3, 12 orr.).

4) *Kurutze eginda dagon lekuan* (Euzkadi, 1935, bagilla, 12, 12 orr.).

5) *Abere dontsuak* (Euzkadi, 1936, urtarrilla, 15, 12 orr.). Inglesetik itzulita. Abereak eta santuak alkarrekin izan dituz-ten ar-emanak.

6) *Euskalerriko abere-piztiak*, (espaiñeratik eta ingelese-tik euskerara egokituak.

7) *Abere Ipuñak, kontu-kontari esanak*, Inglesetik eus-keraz.

8) *Lapurditar J. Barbier'en «Ixtorio-Mixterio»* ipui sailla bizkaieran. «Euzkadi»-n dator.

9) *Euskerazko Toki-izenak*, edo obeto: «Nombres gené-ricos de «rio» en la Toponimia vasca». Azken orduko lana, urrean. Euskal-abizenak eta baserri ta tokietako izenak biltzen zebilela idatzi zidan 1954'an. «Euskera»-n (1956, 58) datoz onako batzak.

10) *Olerkiak*. Naiko ditu or-emen edatuta. Ba-dauzka ba-tzuk berak asmautakoak, txit bitxi ta ariñak; beste batzuk in-gelesetik eta portugaleratik itzuliak.

11) *Lau Ebanjelioak*. Goma kardenalak egiñiko «Evangelios concordados» bizkaieratu zuela dio egilleak, Olabide'ren «Itun Berria» begipe zuelarik. Liburu onek eztu oraindik argia ikusi.

12) *Kanta letrak*. Kinka artako gazteen artean, antza, gaur lakoxe kanta-lera ernai zebillen, eta Garro'k txistua, kitarra ta pianua jotzen zituen ezkerok, kantatzeko bear zituzten letrak berak jartzen zizkien premiñaz ta eske zeudenai. Eder zitzaizkion onakoak.

Kabeliña, kabeliña,
kabeliña biotzkoa;
nire maitetxuagana,
nire maiteagana oa.

«Gisa ontako gauzak asko burutu ditut —dio azkenik—, baiña irteerarik ez dute izan zelan-alangoa baizik. Kitarra artu ta erriz erri bertso auk kantari joan eta «bertso berriak» bezela saldu al ba-genituzke, bear bada onartua izango lukete; baiña ez gagoz *Iparragirre*'rena egiteko».

IRITZIAK.—«Ona —dio Lizardi'k—, ezin polikiago ari dan idazle bat. Asteazkenero, uts-egin gabe, arki dezakezute «Euzkadb'ko «Euzkel-Atala»'n «Otxolua»'ren idazki mamia, Mundaka'ko berriez ta zenbait goxoki geiagok ornitua. Maiz, berebiziko ipui irakurgarriak ingeleratik txukun-askirik itzuli oi ditu. Oiek bilduz-bilduz noizpait idaztitxo bat osatze'aal ba zenez, elitzake makala aldarte beltza argitzeko. Bizkalera giartsu egokia oi derabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkai aldean ditun idazle bikañenetakorik irudi zait» (*Itz-lauz*, 1934, 88 orr.).

Orixe'k bein: «Lagun eta irakasle dut Otxolua... Euskal lerrri guztiko idazleen artean txukunenetarikoa».

L. Villasante'k: «Otxolua'ren euskal itzulpenari buruz esan bearra dugu bertan agertzen dala au Bizkaiko erri izkeraren

ezagule sakona bezela, gure izkuntzak gauzak adierazteko dituen bultz-gaillu ta elpideak noski. Bai aditz-erak erabiltzen eta bai iztegia, esaera, itz-ingurua ta joskera berezietan batez ere, egi-egiazko maixu duzu Otxolua. Tamalgarri ziñez garbikeri kezka geiegiak eiñeko mugaldeak baiño urrutiago eraman izana» (HLV, 386 orr.). Jarralan aiñen-korda ilbintzen digu mundakarrak darabilzkin itz berri ta zaarren aurka, ez bait dugu olakorik aintzakotzat eman bear. Gisa ortako liburuetan ere ez? Nere iritzi apalean, orraitio, orixe dugu euskera idatzia aberastu ta batasunera irixteko biderik erazkoena; Orixe'k, Olabide'k, Zaitegi'k, nik eta beste ainbatek ortik jo dugu. Oker al gaude? Onen kaltetan ez dakit, eioak egiñik ere, funtsezko errazoirik idoro dezakegunik.

M. Zarate'k: «Ainbat idazlan egin ebazan Otxolua'k. Itzulpenak dira geientsuak. Baiña zelango itzulpenak! Ona emen Otxoluaren aparteko zer bat, zera: Euskeratu barik, euskaldundu egiten ditu beste izkuntza batzutako idazlanak» (*Bizkai'ko euskal idazleak*, 206 orr.).

Akatsik? Nork ez! Jainkoa bakarrik ainbakoa. Garbiegi idazten ei zuen. Garbi-garaia zan orduan, gaur mordoillo garrai dugun bezelaxe. Zein ote ohea? Garbizaleak mordoillo zaleen bizkar txibita asrindu dugu, ta mordoillo zdeak garbizaleen aurka: oso zentzun gutxirekin maiz samar. Ez dut uste «bakaldun» ta «bakandera» erabiltea, adibidez, garbizale izatea danik; ez da «izan» ordeez «ixan» esatea. Ortara ezkero, lendik ere esana dudanez, «bihotz» esatea ere «bijotz» esate aiña mordoillo duzu. Ez zalantzatu! Au ez duzu erritartekeria! Guk bai gauzak beren ardatzetik errezt atera! Iñoren aoz mintzaturik sarri! Batek orrela esan duela ta guk ere orixe bera diogu ezertariko lotsa gabe. Jokabide iñozoegia.

(Ikus S. Onaindia, 1954-8-7'gneko eskutitza ta MEOE, 681 orr.; L. Villasante, HLV, 384 orr.; «Euskera», 1961, 348 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak*, 1969, 262 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 206 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 89 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 371 orr.; I. Sarasola, *Euskal Literatura-ren Historia*, 1971, 124 orr.).

28.—ALEJANDRO LARRAKOETXEA AGIRREZABALA
(1892-1976)

Zeanuri, lurrez ta erriz, bikain. Emengoa duzu Aita Ipolito karmeldarra, «Legoaldi». Unduriraga'ko Altagutxi base-
rrian 1892-2-26'an jaloa. Beronen gurasoak: Frantzisko Anto-
nio ta Josefa. Eertan ikasi zuen irakurtzen eta idazten, eta le-
nengo asi-orraziak ere bai. EHz-gizon izan nalrik, 1905'an Na-
parroa'ko Billafranka'ra jo zuen, latin eta gaiñerakoak iru urtez
ikasirik.

Zalantza barik aurrera egiñez, 1908-6-30'an artu zuen La-
rrea'n karmeldar jantzia, urrengo urtean, ots, 1909-7-1'an pro-
fesa egiñik. Urte ontan bertan aldatu zan Burgos'era iru urtez
Filosofia, Erretorika ta gal auen ingurukoak ikasten. Gazteiz'en
ikasi zituen laugarren Filosofi urtea ta beste lau Teoloji urteak.
Berton jauparitu ere egin zan 1916-6-17'an, urrengo urtean
eliz-karrera amalturik.

Ondoren irakasletza egin izan du ia bizitza osoan. Lenengo
Begoña'n erakutsi zuen —1918-1922—• Eleiz-Araudia ta Litur-
jia; gero Kalaorra'n ere berdin, bi urtetan. 1924-10-28'an Erro-
ma'ra aldatu zan Mussolini'ren aroan ain zuzen ere, Aita Eze-
kiel Bilbao'k, Zornotza'ko semeak (1862-1938), ikas-galetan sa-
konago jokatu zedin, ara bialduta. «Collegium Angelicum» de-
ritzan ikastetxean ikasi zuen Eskubidea, Eliz-Legeetan Irakasle
(Doctor) irtenik, urte bitan —1924-26—. Orren ostean, kar-
meldarren Laterri arteko Ikasguan irakatsi zuen amar urtez,
1926'tik 1936'ra, beste gauza batzuen artean Eliz-Araudia. Ga-
ral ontan, Sorkaldeko Elizaren Araudi berria osatzeko Bazkuna
antola zutenean, Bazkuna ortako bazldde izendatua izan zan
A. Ipolito ere, geroago kardinal izatera ere eldu zan Larraona
ta beste birekin batera. Gure karmeldarren artean, Ordenako
«Promotor iustitiae» edo fiskala ere izan zan. «Analecta Ordi-
nis» dalakoan nalkoa idatzi zuen Legedi-gaietaz.

Urteko opor-aldia Euskalerrian eman oi zuen geienik. Az-
ken gerratean ere emen aurkitzen zan, Begoña'ko karmeldar ko-

rmentuan egin-egiñean ere. Udagoienez, ikastaroa asteko asmoz Erroma'rantza zijoalarik, etzioten laga Itali'ko muga igarotzen, eta 1936'tik 1946'rarte Prantzia'n bizi izan zan, Paris'en, Montecarlo'n, Montpellier'en, Agen'en eta Petit Castelet'en egoitza izanik. Agen'en eta Petit Castelet'en Eliz-Araudia, Liturjia ta Edestia erakutsi zitun, Europa'ko guda latza ere komentu oietan igaroaz.

Gauzea zerbait baretu zala-ta, 1946'an Euskalerrira biurtu zan, Tolosa galñean karmeldarrok daukagun Altzo'ko komentuan kabi egiñik. Ondoren Probintziko Aita Nagusi izan zan bi alditan, 1948-51 ta 1957-60. 1961-67'an Aita Jeneralaren Aolkulari Erroma'n; arrezkero, aurtan arte (1975) Erroma'n bizi izan da, opor-aldietan izan ezik. 1967'an Ordena barruko Edesti Batzorde bat sortu zuen, gaur ere nalkoa nabarmentzen dana, gal orietzaz alnbat idazlan Burgos'ko «El Monte Carmelo» al-dizkarian agertaraziz. Lekaidi barruan eta kanpoan ere —etio-piar Ikastetxean, adibidez sarri burutu dizkigu lan bereziak, lekalmen komentuetan Ikerletza batez ere, bere erabaki zuur eta zentzun andikoak edonun alntzat artuak izanik.

EUSKAL LANA.—Uiolaren oldarra iduri A. Ipolito'k beti eraman zuen barruan euskal zaletasuna. Umetatik zekian euskera, Arrati'ko euskalki triakoa jakin ere, bere jaiotetxean, Gorbei oin artan ez bait zan ordun beste izkuntzarik ezagutzen. Eta geroa ere, alnbat mintzalra jakin arren, iñun euskaldunik ba'zan, euskaldun orrekin beti mintzatuko zan euskeraz, bere amak irakatsi zion izkuntzan. Eredugarri ziñez! Idatzi berdin, bere euskal aranekoan egin du, beti dotore ta jori idatzi ere, ikako aditza bera ere errez ta xalu erabillirik bere ipui ta irrilanetan.

Begoña'n irakasle zalarik, idatzi ez bakarrik, irakatsi ere egin oi zien ikasleai Aitor'en izkuntza trebetasunez erabilten: beronen eragin eta arnasaz idazle mordoia sortu zan. Ordukoak dituzu bere lendabiziko idaz-lanak «Euzkadi»-n eta «Euzko»-n eta «Euzkeltzale Bazkuna»-ren Euzkel orritxuan azalduak. Ementxe zegoela baita asi zuen Eliz-Araudiaren (Codex iuris

Canonici) itzulpena, Kalaorra'n bukatu zuena, oralntsu berriz crraztu ta «Kardaberaz Bazkuna»-k eskatuta argitaratzeko gertatu duena. Lan ikaragarria, ta maixuki lege-adieraz-gal bakoitzari euskeran dagokion zentzunaz ta tinkotasunaz osotua. Mamiz ondo ausnartua ta azal aldetik euskera ederrez jantzia.

Gomutamen aundikoa zan-eta, Europa'ko izkuntza arrunte-nak ikasia dugu. Alemana Begoña'n ikasi zuen Karlos Cech'ekin; eta onakoetan jazo oi dana, ariketa ta jardunak egiteko Grimm analen ipuiñak erabili zituen; orduantxe euskeraratu zigun oietatik pilloa, «Euzko-Deya»-n eta «Euskal Esnalea»-n argitara emanik. Gero, egun eta urterik gabe, *Grimm Anayen Ipuñak* izenburuakin Bilbao'ko (1929) Alvarez'en irarkolan atera zigun liburu mardula, euskaldunak asko irakurritakoa. Berrogetamar ume-ipuin dituzu doitxeratik euskeratuta. 325 orrialde. Dirua zuen famili batek lagundu zion liburua argitaratzeko, eta sendi orri eskintzerakoan, onela idazten du: «Euskerearen areriorik kaltegarrienetalkoa yaun eta andiki euskotarrakandiko otz eta mukertasuna izan da. Asabakandiko mintzoari euren yauregietako atek itxi-itxi egin dautsez, edo zabalduketotan be, betozko illunagaz arturik edozein erderaren mirabe erabili dabe. Oso pozik eta eskar oneko daukozue, ba, euskerea, zeuon yauregiko atek zabal-zabaldurik, orren abegi txeratsua egin dautsazuelako. Balta euskaldun ume guztiak be eskarka dozue, zuok bide zariela, Grimm anayen ipuin polit-ameskarriak irakurri dalkiezalako. Erakutsi ederra zuona; askok ikusi-yarraituko al dabe». «Hermes»-en marrazldz apainduta datoz ipuiñok, bakoitzaren mamiña ulert-errezago egiteko edo. Aurretik ere onako ipui batzukaz «Euskal Esnalea»-k (Donosti, 1924) eraturiko kontu-sariketan saritua izan zan.

Karmeldarrok, «Karmen'go Argia» (1931-1936) ateratzen asi giñanean, bertatik artu zuen A. Ipolito'k idazkortza; ia illero bialtzen zuen Erroma'tik zerbalt, ango gauza bitxiak argitara emanetz; nalz zala Efeso'ko Batzarra, naiz Aita Santuaren idazkiren bat, nalz eta bertako jazokun berezien bat, beri zeukan zer-esana bere luma bikalñak. Onek, jakiña, era egokia esku ar-

teratu zion edozein gairi oratu ta lendik ere ipuiñetarako erakutsi zigun galtasun ernea beste berein gauzatan ere erakusteko; aren idazlanak, aatik, oso interesgarriak dira. Adimenean zer-esana ta zer-esan oiek adierazteko luma ona duen gizonaren lanak, izan ere, beri zuzpertzten digu barnean irakur-azkura bizia.

Or-emengo jaialdi berezietan itzaldiak ere osatu zizkigun. Berea du Ego-Ameriketako erridde askoren Askatzalle zangar izan zan Simon Bolibar'en (1783-182) omenez Bizkai'ko Bolibar-Zenarrutza'n eregi zan oroigallua estdgetzea zala-ta, 1927'gko dagonillean, meza nagusitan egiñitakoa, Bogota'n, lenengo euskeraz bakarrik eta gero euskeraz ta erderaz «Hojas de Cultura Popular» zeritzanean (1953, 31 zenbakian, 16 orr.). agitara emana. Ots aundikoa balta, beiñola, Zeanuri'n Andra Mari jaietan, 1926-8-15'an, egiñiko itzaldia (Donostia, 1927). Iñaki Deunaren irarkolan. 10 orrialde.

Idatzi-euskeraren batasunari dagokionez, urte mordo dda, gaur balño ere kezka geiago zan euskaltzaleen artean. Berrogetamar urtetik gora dira onako saio errime bat egin zala. An genduan A. Ipolit ere. Bilbao'n «Academia de Artes y Oficios» deritzan ikasguan bildu zan Euskdtzalndia, 1920-12-26'an, eta A. Larrakoetxea'ren txostena irakurri zan euskeraren bat-egiteaz (*Eusker*a, 1921, 34-42 orr., ta 1922, 8 orr.).

Argitaratu gabekoen artean badu lanik, gorago aitatu dugun *Eliz-Araudi'z* gain, *Barri Ona* edo lau Ebanjelioen itzulpena, Olabide'tar Erraimun'ek euskeraztua Larrakoetxea'tar Ipolit A-k (K. O.) bizkaleraztua (Erroma, 1934-11-20'an).

Eta amaltzeko, bijoa au ere oar berezi legez. Gorbei barranean sortua zalako edo, A. Larrakoetxea mendi-zale amorratua izan zan beti. Gorbei'ko atzera-aurrerak iñork baiño obeki zekizkin nunbalt, toki bakoitzaren izenak batez ere: zoko, iturri, labalde, altz-zulo, makur-une, muiño-gain, arkaitz-mutur, aspe, atxular, zuza-leku, larranbillo zelai, agin-arte, beresi, pagadi ito ta galñerakoak. Bal, Lekanda'k, Itxiña'k, Arraba'k,

Igiriñao'k, Aldamin'ek eta Legoa'di'k ba-dakite A. karmeldar ibildaunaren berri: oietan igarotzen bait zitun Erroma'ko beroetatik iges ona etorririk, udaldian emaniko egun eta asteak.

Markiña'n il zan 1976-1-25'an.

(Ikus *Euzkerea*, 1930, urtarrilak 15, 266 orr.; *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1930, 158 zenbakian; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 113 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 1970, 241 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleak*, Derio, 1965; Auñamendi, *Literatura*, III, 547 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 1971, 130 orr.).

29.—TOAKIN GANBOA (1892-1969)

Garrantzi aundia dute —ezpei iñork ukatu— euskal erritik aldeerazita bizitu arren, euskera lantzen ari diranak, aberriarnasaz azkortu ta euskal lanabasaz baliatzeko gogaltik egiten ez dutenak.

Auetakoa duzu Ganboa'tar Jokin. Bilbao'n ikusi zuen lenargia, 1892-8-2'an. Emen burutu zituen lendarizko ikaskizunak, eta gero Orduña'n, Baiona'n eta Ingalaterra'n. Bilbao'n «Euzkadi» egunerokoan lan egin zuen urteetan, banaketa batzarlddekoen artean. 1937'an, bere sendia ta erria zoritxarpean zeudela ain zuzen, Arjentna'ra iritxi zitzaigun, eta emen, berri ere ondo xamar egokiturik, etxegintzan lan egiñaz noski, euskal kulturaren zabalkundearen aspertu barik ari izan zan. Langille garbala, Buenos Aires'en bereziki, Laurak-Bat'eko buru izan zan, «Lagun Onak»-en, «Euzko-Ekintza»-n eta beste euskal alkarte batzutan lan bikaiña osaturik.

Buenos Aires'en bertan il zan 1969-3-2'an.

EUSKALTZALE.—Erriaren gogoari izkuntzak ematen bizia, ta Ganboa'k, sorterritik at bizita ere, ura zerabillen barnean aitzu-eziña, ta zeukan dana emateraiño arduratu zan ortan. Euskal-gaien inguruko artikulu asko antola zituen aldizkari ta

egunerokcetan argitara zitezen. Laurak-Bat alkartearen aretoan gogaitu gabe irakatsi zuen euskera, euskal aditzari buruz lan ederrak osoturik. Etzan gauzak erdizka ta totel egitekoa.

Idatzi, ordea, euskeraz ta erderaz idatzi zuen. Buenos Aires'en «Ezko-Deya»-n eta «Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos» deritzan aldizkarian. Itzaldi auk ere ez dira aitzutzeokak: 1) *Las clases de euskera en el Laurak-Bat desde la fundacion de este Centro*; 2) *El pueblo vasco y su lengua en la historia*, ta 3) Laurak-Bat batzokian, 1944-5-23'an (Tuduri, 1944) emana. Euskerazkoetatik oroigarria duzu «Euskerateatzako itzalditxu bat «deritzaiona (*Bol. Amer. E. V.*, 1952, III, 91 orr.); itzaldi mamintsua; ta beste au: «Euskeraren bidez Jaunaren besoetara» (*Bol. Amer. E. V.*, 1963, 52'garren zenbakian, 24 orr.). Iruña'ko seme Artxaako'tar Paul'en oroitzaz egindakoa; izkera goxo erreza darabil. Azken lana bezela au aipatu dezakegu: «Poesia y musica en las canciones de Sabino Arana» (*Bol. Amer. E. V.*, 1965).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 85 orr.; Ander M. Irujo, *Bol. Amer. E. V.*, 1969, 29 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 548 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, III, 566 orr.).

30.—AINGERU MADARIAGA BASTERRETxea (1893-1963)

Idazle ona, euskeraz ta erderaz. Prantziskotar. «Aranzazu» ta »San Antonio» aldizkingietan idatzi zizun, kondairazko ta eliz-irakatsiz ondo sakaturiko gaiez; adimen argiak idaroki ta biotz garbalak borborazten ziona, jantzi dotorez azaltzen dizu, oituriko ertilariari dagokionez aditzen emanez.

Bermeo'n sortu zan 1893-1-27'an. Biotz-deiari erantzunik, eta Asis'ko Txiroaren antzeko izan nairikan, aren jantzia artu ta 1908'an profeta egin ostean, Arantzazu'n eta galiñeko Prantziskotarren Ikastetxeetan estudioak osatuta, 1918'an meza

ematera iritxi zan. Ondoren Kuba'n euki zuen legezko egoitza, irakasle, etxeko nagusi ta txauburu noiz emen noiz an izanik.

Oñati'n il 1963-7-5'an.

EUSKAL LANA.—Aski goiz gogo artuta, «San Antonio»-n eta «Arantzazu»-n lenengo ta «Analtasuna»-n atertu barik idatzi zuen, bertsoz ta itz lautuan. Iiburu bezela, euskeraz, ezer irar-kolaratu ezta ere, leun eta oparotsu erabilli zigun bere idaz-kortza. ««Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria»-n berak osatua da «Escritores en euskera» deritzan atala (*Homen.* 168 orrialdean).

(Ikus *Euskera*, 1919-22, 61 orr.; *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria*, Arantzazu, 1935; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 1968, 126 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 425 orr.).

31.—LUIS GONZALEZ ETXABARRI (1893–1971)

Euskal elertian, «Aizkibel'dar Bingen» zeritzan. Mendi artean lez daukazu, eder, Ubidea Bizkai'ko erritxoa, Araba'ri ikutzen noski. Erreka bat doa bere ondotik. Gorbeia'tik beera datorrena, ixil ta ugalkor. Gaur iñoizkorik geien, kale aietatik zear, kotxe ta tarranten barbalaka atengabea nabari da. Emen-txe jaiio zan Koldobika 1893-10-8'an.

Dendaria zan atita, ta semeak ikasteko era ohea izan zedin, Gazteiz'era aldatu zan sendia. An ikasi zigun batxillerra, ondoren berriz Bilbao'n osatu zizkigun Jakintza ta Ederti eskolak. Abertzale sutua gazte-gaztetatik. 1904'tik asi ta 1937'rarte Bilbao'ko «Euzko-Gaztedija» izan zan abertzale gazte guztien biltokia; 1914'an, esate baterako, Eli Gallastegi zan buru ta Luis G. Etxabarrri, idazkari. «Euzkadi» egunerokoan idazten zuen aspertu gabe; baita geroago «Aberri»-n eta «Kendu»-n ere, Manu Egileor, Arrien, Eli Gallastegi, Uribe-etxeberria ta beste batzuldñ. Euskeraz ta erderaz ari zan. Illunean argia egin

naiean, 1921'tik 1924'ra berak zuzendu zuen «Aberri». Urte onetan, Primo de Rivera'ren nausitza aldian, atzerrira iges egin bear izan abertzale askok: M. Egileor'ek Lapurdi'ra jo zuen, E. Gallastegi'k Mexiko'ra, Robles Arangiz eta Luis G. Etxabarri'k Argentina'ra.

Andik ere lan ederra egin zigun Etxabarri'k. Beronen idatziak daurkiguz, ta ugari, Bilbao'ko «Euzkadi»-n eta «Aberri»-n, eta Buenos Aires'ko «La Nacion», «Nacion Vasca», «La Baskonia», «Euskalduna» ta «Mundial» aldizkarietan; balta E. Gallastegi'k Mexiko'n ateratzen zuen «Vida Vasca»-n ere. Ogetabots bat urtean, berri emaille izan zan «La Nacion» egunerokoan.

Buenos Aires'en il zan 1971-8-7'an.

EUSKALTZALE.—Ander M. Iruxo'k onela: «Luis Gonzalez Etxebarri jaiotzez zan euskaldun. Aren erriko euskalkia erdi bizkaitar erdi arabar duzu. Izparringietan idatziz euskera landu zuen. Lan jatorrak eta itzulpenak argitara zizkigun; ez da, beraz, arritzeko 1918'an Euskaltzaindia sortu zanean berau ere Oñati'n aurkitzea. Euskal aldundiak an lau gizon aukeratu zituen ortarako araudia antolatu zezaten. R. M. Azkue, Artur Kanpion, Eleizalde'tar Koldobika ta Juli Urkixo. Urrengo bazar batean egindako araudia onartua izan zan, baita euskaltzain osoak eta urgazleak izendatu ere: Luis G. Etxebarri ere, Bizkaikoen artean, antxe zegoen urgazle bezela. Etzan edozein moduko gizonen aulkian jarri, lagunldde bait zituen: Bizkai'rik, Seber Altube, Federiko Belaustegigoitia, Ebaristo Bustintza, Jose Maria Errazti, Jon Gurutz Ibargutxi, Gabriel Manterola, Nazario Oleaga, Urriolabeitia'tar Amantzi ta Paulo Zamarripa.

IDAZLE.—Lumaren arazoa ogibide bait zuen, asko idatzia duzu euskeraz ta erderaz. Ikasteak amaitu-ala asi zitzaizun idazten, «Euzkadi» egunerokoan aurrenik, eta «Aberri»-n eta «Kendun»-en ondoren. Esan dizugu: «Aizkibel'dar Bigen» erabilli oi zuen gezur-izentzat, geienez beiñik-bein, bere izenez

ere lanik asko azaldu zituen arren. Azken urteotan, Arjentina'n, frantsesetik eta inglesetik itzulitako lanak etzitun gutxi eman Buenos Aires'ko «La Nación» egunerokoan.

Liburu bezela argitaratu zizkigun lanak.

1) *Ipuin aberkoyak* (Bilbao, 1917). Grijelmo-Alargun-Semien irarkolan. 102 orrialde.

2) *Urretxindorra* (Bilbao, 1918). Grijelmo-Alargun-Semien irarkolan. 145 orrialde. Olerki politikak dituzu, aberkoyak geienak. «Euskal usaña daroen ezker, eleiz ta zeru usaña be, daroe ez gitxi» (*J. B. Deya*, 1918, 255 orr.).

3) *Cuentos patrioticos* (Bilbao, 1920). Ed. Vasca. 187 orrialde.

4) *Arana-Goiri, bardo de la Patria* (Buenos Aires, 1925). Amorrortu'ren irarkolan. 36 orrialde. 1924-11-3'an Euzko-Indarraren batzoldan irakuritako itzaldia.

5) *Cantos de Euzkadi* (Buenos Aires, 1925). Sebastian Amorrortu'ren irarkolan. 84 orrialde.

6) *La destruccion del Pais Vasco* (Buenos Aires, 1937).

Beste lan asko ditu, esan dugunez orko ta ango kazetari ta aldizkarietan argitara emanda. Olerkari bezela etzitun galzki aragitzen bere koplak. «Hermes», «Patria Vasca», «Euzko Deya», «Ideariun», «Euskal Esnalea», «Vida Vasca», «Euzko Enda», «Egan» ta olakoetan datoz Aizkibel'en neurtitzak.

«Lan guzti auetan aberriakiko biotz-zarrazta duzu nagusi —dio Ander M. Iruxo'k—. Onetan leial jokatu zuen beti, naiz-ta anai arteko burrakak eta ondorengo Laterri nagusi arteko guda, erri-urruntasunak eta bere emazte ta alabagandik bananduta bizi bearrak ematen zion nalgabeak —ez zuten inoiz ere alkar ikusi, oiek bada etziran Arjentina'ra joan, ezta bera Euskalerria itzuli ere—, edozein politika okerdurako gal egoki egin zutelako, ezker-aldera bultzatu zuten. Joan zan, balña,

gerrea, ta ordun ulertu zuen euskaldun jator batentzat betiko balioak, geureak dirala. Eta poliki poliki lengo bidera biurtu zitzaigun».

Lege-gizon bizkor eta kazetari trebe zan.

Iñurri gisa alnbat euskal liburu pillatu zituen bere bizitzaldian, eta il zanean, Buenos Aires'ko «Laurak-Bat»-eko idazti-tegirako geratu ziran guztiak. An datzaz gaur ere agertoki aratzean.

(Ikus *Euskera*, 1921 ta 1973, 291 orr.; S. Onaindia, MEOE, 636 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 140 orr. ta 1961, 41 ta 141 orr.; San Martin, *Escritores euskericos*, 1963, 93 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 553 orr.; Ander M. Iruxo, *Bol. Amer. E. V.*, 1973, 36 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, IV, 82 orr.).

32.—SERAFIN ALBIZURI OTZAMIZ (1869-1931)

Apalza leenengoz, ta lekaide gero. Gautegiz-Artia'n jaio zan 1869-3-24'an. Leen-ikaskintzak Plentzia'n eta Mundaka'n osotu zituen, Orduña'n Jesuiten Ikastetxean batxillerra egiñik. Eliz-estudioak Salamanka'ko Doipuru-Apaiztegian artu zituen, 1893'an Eliz-Araudian Lizenziadu ta 1894'an Irakasle (**Doctor**), *nemine discrepante*, aterarik. Bertan artu zituen baita elizordena guztiak ere Tomas Camara goterki aretako gotzai ospetsuaren eskuetatik.

Bere lenengo lan-tokia Bermeo ondoko Almike (Alboniga) izan zan; ara bait zuten aurrenik arima-zai bidali 1894'garren urteko lotazillan, apaiztu ta laster alegia. Etzuen emen urte beterik egin, 1895'garreneko urrian Bermeo'ko Santa Maria parrokira aldatu zuten eta, laguntzaille bezela. Ementxe lan egin zuen 1925'rarte, beti gogctsu artan ere. Izlari trebea izan zan, bai euskeraz eta bal erderaz. Parrokiko lanak alik zeatzen beterik, asti-unetan eder zitzalon arrantzaleekin itz-egin eta auei, zar eta gazte, kultura pizkat ematea, neguko ordu luzeetan batez ere.

Berrogei ta amasei urte zituela, Bermeo'ri agur egin eta Miren Biotzeko Semeak Agurain (Salvatierra)'n zeukaten azte-txean sartu zan. Antza danez, A. Arriandiaga elantxobetarrakin, garal artan Madrid'en zegoen agintaritza nagusiaren idazkari zanarekin zeukan txera ta maitasunarren artu zuen erabaki ori. **D**ana dala, guztia bertan bera laga ta lekalde egin zitzalgun, zeuzkan gauza guztietatik bere Harmonium aundia ta bere Li-burutegiko batzuk, besterik eraman gabe. 1927-8-15'an egin zuen bere profesia.

Ondoren Aranda de **D**uero'n, Kalaorra'n eta Oskabarte (Santo Domingo de la Calzada)'n ari izan zan aspertu barik bere eliz-lanbidean: altortu, erakutsi ta Berri Ona zabalitzen. Ala ere, Errioxa'n, Karaero aldean eman zituen mixio gogor batzuen ondoren, galxotu zan; eta 1931-1-12'an, atsedeen apur bat artu nalrik, Balmaseda'ko ikastetxera baztertu zan, eta emen-txe, bi illabete geroago, 1931-3-3'an il zan santu antzean.

EUSKALTZALE.—Artia erri panpoxean, euskera ere panpoxa egiten dute bertakoak. Gisa ortan A. Albizuri'k ere. Maite zuen bere izkera, ta izlaritzari ezezik, idazteari ere ekin zion. Ona utzi zizkigun liburuxkak:

1) *Josu'ren Bijotz Deunari Bederatzi-urruna* (Bilbao, 1917). Grijelmo'ren irarkolan. 16 orrialde.

2) *Alboniga'ko Ama Deunaren Bederatzi-urrena* (Bermeo, 1925). Gaubeka'ren irarkolan. 40 orrialde. Etzion bere izenik jarri.

Orrelaxe du beste lan pillotxo bat «Euzkadi», «Euskal Es-nalea», ta olakoetan. Kezka bizia zeukan, ozka, euskerearen bi-ziari buruz. Nasturik ikusten zituen, an gizaldi onen asieran, euskaldun geienak, «eta geure euzkera doya —dio— lots be-terik, igeska geugandik. Laster gaur baño maitetasun geyago ezpadau idorotzen geure artian, ilgo da. Eta autortu biarko dogu geu-geronek erijotzia emon dautsagula. Auxe bai dala zorigaiz-tua!» (**RIEV**, 1907, I, 624 orr.). Bera sabindarra izanik ere, begi onez ikusten zuen J. Urkixo'k zuzenduriko **RIEV**.

Balña ba-zuen, garal artan moda zanez, beste lera bat ere: Etimoloji zalea genduan. «Euzkerea»-n batez ere, 1929'garren urtean, gal orretzaz alnbat lan eman zizkigun, «Aramayona», «Asuero», «Eleta», «Matxixako», «Zamora» ta olakoak azalduz. Otoia zer dan, ordea, «Euzkadi» aldizkarian, 1908, V, 39 orriddean erakutsi zigun. «Euskel-gayak» izenpean ipuin eta itz-erro asko datoz «Euskd Esnalea»-n (Tolosa, 1909).

«Eskijaga» izen-ordea erabiltzen zuen.

(Ikus Balentin Obieta, *Anales de la Congregacion*, CMF, 1931, XXVII, 652 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 93 orr.; Ismael Torres, cmf, 1975-9-1'an Tolosa'tik egin zidan karta).

33.—JUAN RUIZ LARRINAGA LARRAÑAGA (1876-1954)

Aita frantziskotarra. Gernika'n ludiratu 1876-3-7'an. Idazle azkarra ta musikalari ez motela. Gernika'n bertan artu zituen lenengo eskolak. Musikan ere, solfeo ta ingurukoak bertako Basilio Diaz'ekin ikasi zitun, eta pianua Lumo'ko organu-joile zan Mateo Sarasketa'rekin, gero Arantzazu'n gal oiek osoagotuz. 1900'an apalztu zan, eta ondoren Zarautz, Arantzazu, Bermeo, Alfaro, Naxera, Bilbao ta Tolosa'n izan zan organu-jotzaille. Eliz-musikaz asko idatzi zuen or-emengo aldizkarietan, «El Eco Franciscano»-n batez ere. Aita Kasiano Rojo beneditarraren eta Aita Eusebio Clop frantziskotarraren ikasle izan zan.

Idazle bezela luma ederrekoa zan, erderaz ta euskeraz. Irakasle, Kantauri Probintziako idazkari ta kronikalari, nagusi ta aolkulari izan zitzalgun sarritan. Lanbide oiek eukita ere, bazuen oindio idazkortza bizkor erabiltzeko astia. Bi griña zituen ontaz bere barruan, ondo itsatsiak; bere ordenaganako ta euskddun erriarenganako maltasuna; ordenari begira, komentuetako artxibu ta paper zarrak arakatu ta euretatik, erle zoli antzean, zeukaten on guzda xurgatu ta ateratzen alegindu zitzalgun, ainbat liburu jakingarri osaturilon,

Tolosa'n itzdi zan, 1954-6-8'an.

IDAZLE.—Gaztetatik idazle. «El canto de la Orden Serafica», Clop aitak prantseses egiña, gazrelianeraz itzulita, Compostela'ko «El Eco Franciscano»-n (1901-1902) argira zuen amaika artikulutan. Ondoren, «San Antonio», «Apostolado Franciscano», «Aranzazu», «Archivo Ibero-Americano», «Ibaizabal», RIEV, «Euskalerriaren Alde» ta beste antzeko aldizkari batzuetan lankide izan zan.

Ona bere lanik beiñenak:

- 1) *El convento de San Francisco de Vitoria* («El Eco...», 1911). 164 ta 236 orrialdeetan.
- 2) *El P. Jeronimo Mendieta* («Archivo Ibero-Americano», 1914-15). Lan ederra.
- 3) *Guipuzcoa por la Inmaculada* («Euskalerriaren Alde», 1920 ta 1921). Amabi artikulua,
- 4) *Recuerdos tolosanos* (Tolosa'ko «Defensa social» aste-rokoan, 1922-23). Amaika artikulua.
- 5) *La imprenta en San Sebastidn. La primera Historia de Ardnzazu. Un Mdrtir Vizcaino desconocido. El V. P. Fr. Francisco de Verascola ta Samaniego vasco y vascofilo* («Euskalerriaren Alde», 1923-24), lan sarituak.
- 6) *El vascofilo Franciscano R. P. Fr. Juan Mateo de Zabala* (Donostia, 1927). RIEV, 1924, XV, 33 ta 313 orrialdeetan.
- 7) *Fr. Gabriel de Mata y sus poemas* («Archivo I. A.», 1934). 161-204 orrialdeetan.
- 8) *Don Fray Juan de Zumdrrega* (Bilbao, 1948). 98 orrialde.
- 9) *Curiosidad bibliografica: Impresos en Vizcaya, Guipúzcoa, Alava hasta el año 1901* (Donostia, 1949). Urkixo'ri egiñiko omenaldian, «Julio de Urquijo», II alea, 49-110 orr.
- 10) *Cartas del P. Uriarte al Principe Luis Lucianp Bonaparte*. BAP, 1954, 231 orr.
- 11) *Cronica de la Provincia Serdfica de Cantabria*.
- 12) *El Arte en nuestros conventos* («Homenaje», 1935). 254 orr.

EUSKERAZ.—Mezakotu zanetik dugu euskal idazle ere; balña bere berezko griña ori izan arren, nagusiak beste arazo bazuetan jarri zuelako edo, etzuen askorik euskeraz idatzi. Bein Pralsku Arriola euskal idazle fiñak, Zarautz'eko *trago-adarra* (euri-jasa) zala-ta idatzi zuen «Ibalzabal»-en, eta A. Ruiz'ek, Pralsku'ren iritziari erantzunik, egin zigun lan polita bertan, «Ibaizabal»-en (1902, agorrillaren iruan, 3 orr.) irakurri zenezake.

Balta idatzi ta argitara zuen: *Aita San Frantziskoren Irugarren Ordenako Erreglia ta Induljentziak* (Durango, 1906) be, arrezkero ere 1910'an eta 1911'an berriz argitaratua. 32 orri-alde.

(Ikus *Homenaje a la Serdfica Provincia de Cantabria en el septuagesimo quinto año de Restauracion* (1859-1934). 178 ta 194 orrietan; A. Pedro Anasagasti, BAP, 1954, 303 orr.).

34.—PAULO ZAMARRIPA URAGA (1877-1950)

«Langille nekegabea izan zan-eta, txiri-txiri, lan asko egin eban Zamarripak —diosku M. Zarate'k—. Egia da izan, euskeraz egindako lanak ez dira mamintsuak. Gai aldetik eta umore aldetik bere urri samarrak... Eta euskera aldetik? Onetan dogu malsu goragarria».

Laredo'n jalo zaigun bearrik ere 1877'garren urtean. Balña bere gurasoak, Bernardino ta Teresa, sondikarrak ziran jatorriz, eta ona aldatu ziran Paulo umetxo zala. Umore onekoa genduan Zamarripa, eta galtasun au Laredo'k eta Sondika'k emana du; berak onela: «Barreka jayotetik yatordala uste dot onako barre egiteko daukoda berezko erreztasun zorioneko au». Eta ondoren: «Neu Sondikaturik, zeuganatu ninduenetik gorakoa ete dodan nago barre egiten dodala jakiñik barre egitea». Geroago, Bermeo'n egon zan arima-zai, ta itxas-ertzeko erri aldarte oneko onegandik ere ikasi zuen zerbalt. Berak: «Barre

egiteko erreztasun au berezkoa dodala, ta arrañak uretan ibiltea lez bear daula nire gogo barrekor onek, beronen senean egote-ko, barre artean ibiltea, emen, Bermeo izeneko beste arrain-erri maltegarri onetan, ikasi dot» (*Kili-kili*, 5 orr.).

Lenbiziko ikasketaz bere sorterrian eta Durango'n jabetu zan, ondoren elizgizon izan nalrik, Gazteiz'era aldatu ta emengo apalz-Ikastegian osotu zituen abade izateko bear zituen ikasketak, Jakintza, Teolojia ta galñerakoak. Ordena txikiak eta diakonadua 1905'an artu zitun Kadena ta Eleta'ren esku ezartzez; 1906'garreneko garizuman apalztu zan. 1907'tik Almike'n egin zuen aurrenik arima-zalntza, gero Ctxaran'en, Gatika'n, Bermeo'n eta Sondika'n. Sondika'n, Txorierriaren biotzean, il zan 1950-8-17'an.

EUSKAL IDAZLE.—Euskaltzale gartsua zan. Egoki zekin bes-tetik bere erriko euskera txukuna. Filosofi-galak aztertzen asi balño len ekin zion idazkortz-lanari. Azkue'k Bilbao'n ateratzen zuen «Euskalzale»-n agertzen dira bere lanak, 1897'an asita, iz-kirimiriak lenengo ta gero gerokoak; ipui ta ziri-bertsoak eder zitzalzkiön.

Bertsoak, bal, malte zituen, eta ikasle zala asita makinatxo bat osotu zuen, sari ederrak ere —1903'an, Danapaleu'n; 1904'an, Ordizia'n eta Ustaritze'n; 1905'an, Bergara'n eta Balgorri'n; 1906'an, Donostia'n, eta abar— eskuraturik. «Euskalzale»-n, «Ibalzabal»-en, RIEV-en, «Jaungoiko-Zale»-n «Euskal Esnalea»-n, eta beste aldizkigi batzuetan idatzi zuen, eguno aspertu gabe. Azken urteetan batez ere, 1935 ingurutik, *Gaceta del Norte*'k zeakan euskal atalean idazten zuen jarralkiro.

Idazle bezela, oparotsua noski. Ona argitara zizkigun libu-ruetatik sall bat:

1) *El Bascuenze facilitado. Gramdtica Bizkaina* (Bilbao, 1909). Astui'ren irarkolan. Zazpi bider argitaratua. 312 orrialde.

2) *Manual del Vascófilo* (Bilbao, 1913). M. Zarate'k: «Bana-banako liburu eder irakurgarria; berebizikoa, euskerearen joskera, esakerak, erderakadak, ortografia ta abar ezagutzeko».

3) *Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco* (Bilbao, 1913). Ezta izfegi luzea, baiña egoki egiña bai. 1957'an (Bilbao, Verdes) egin zan laugarren argitalpena. 164 orrialde.

4) *Zaparradak eta* (Bilbao, 1926). E. Verdes'en irarkolan. Lendik ere eguneroko ta aldizkarietan argitara emaniko lanak, ipui, jazokun eta parre eragille diranak. Euskaltzaleen atsegiñerako. 187 orrialde.

5) *Gora begira* (Bilbao, 1927). Emeterio Verdes'en irarkolan. 114 orrialde. 36 olerki dituzu, goi-usañoak. Ia geienak gaztetan egiñak eta sarituak. «Olerki edo pertsuak —dio P. Ithurralde'k— ez dira segur nola nahikoak... Halere altortuko dugu nahiago ditugula Zamarriparen irri-solasak: alse, ez othe alsegi, heldu zitzaizkon pertsuak, elhea zariola; Oxobi edo Orixen tinkirik ez dute, are gutiago Iratzeder edo Jauregui-ren hegalik... Balnan erakusten dute zombateraino zen herri-zale, eliza-zale eta eskual-zale suhar» (*Gure Herria*, 1950, 292 orr.).

6) *Kristauaren Dotriña* (Bilbao, 1926). Aita Astete'ren erderazkoa euskeraz ipiñita, Baita leenago ere (1907), Ugalde ta Lagunen moldategian. 94 orr.

7) *Conjugaciones guipuzcoanas* (Bilbao, 1929).

8) *Anayak gara* (Bermeo, 1929). Gaubeka'ren irarkolan. Bermeo amabost urtedun neskatilla batek egindako idantzezki politez apainduta dago. Dotriñako umeentzat egiñiko ipuia duzu. Gala erreza ta samurra: «mutiko bi, jayotzetik alkarrenganako senidetasunik eztabelarik, anayak ixatera elduten dira, bataren alta bestiaren amagaz ezkonduen dalako. Eta andik aurre-ra anayak lez alkarren maite dira» (*Euzkerea*, 1929, 252 orr.).

9) *Kili-kili* (Bermeo, 1930). Gaubeka'ren irarkolan. 155 orrialde. Bigarren liburu barre-zalea duzu, Bermeo'n egoala egiña. 51 ipuin dakaz, batzak bertsotan daudenak. Arin, errikoi ta tolesgabeak dira guztiak.

10) *Firi-firi* (Bermeo, 1935). Gaubeka'ren irarkolan. 219 orrialde. Irugarren liburu barre-zalea, ipuin eta naste. «Lana egin dalgun/ txiri-txiri/, ta agertu dalgun/ firi-firi» du ikurbu-

ru bezela. 1932'garreneko zemenditik 1935'ra bitartean osotuak dira, asko lendik ere «Ekin»-en eta, argitaratuak. Orduko, ots, Errepublika aldiko gizon eta gauza askotxo darabilzki darda gainean; ala ere, berak ez du iñor mindu nai. Onela idazten du berbaurretxuan; «Ondasun andia da umore ona, Jainkoaren adizkidetasunaz baterakoa danean. Olangoxe umore ona, Jainkoaren adizkidetasunezkoa, euki gura neunke neak beti. Jainkoak Berak gura izan dagiala neuk eta zeak, irakurle maite orrek, beti beti olangoxea eukitea. Ta itxi daigula Berak, biar zelango bidetik ibilliko direan eztagigula, gaur, geure ustez, bide okerretik dabilzan lagun urkoen gauzen alderdi barregarria ikusiaz ta erakutsiaz, barretxu bat edo beste egiten ta eragiten. Euroi, bide okerretik, geure eritxian, dabilzanoi, ez beste edozein bidazti bide okerrekori..., ezta Jainkoaren Beraren gauzen aurka dabilzala euron aboz diñoela, agiri-agirian bide okerretik dabilzanoi be... gorrotorik bape ezteutsegula. Jainkoak Berak gura dau olantxe ta... Barreagaz, ez bearrean atzetik ez aurretik, ez deitela sortu neugan ez zeugan eurokanako gorrotorik, irakurla maltea» (5 orr.).

Emen daukazu Zamarripa'ren lana. Beronek adierazten di-zunez, euskal kezka bizia duzu. Iltzear zekusan euskera, biotzez maite zuen izkuntza, ta eliz-ardurak uzten zizkion une guztietan ortan ari oi zan, euskera ikasi, idatzi ta erakusten. Lan txalogarria noski!

IRITZIAK.—Atsegin zitzaion dudarik gabe erriari agotik zerrion izkera, Asua'koa ta Bermeo'koa batez ere. Bere idaztietan orixe erabili zigun geien bat. Azkue'ri, bere iztegi nagusia osatzen zebillelarik, Onalndia'k eta Zamarripa'k —orrela diosku Iztegiaren itzaurrean, XI'garren orrialdean— lagundu zioten Txorierri aldetik. Gero, erri oietako esakun eta irtenddi ta itz txanbeliñez, galñez eragiteraiño mukurutu zizkigun bere iru idazti parreragilleak bereziki.

Iñoiz esan dute Zamarripa'ren irri-solasak ez dutela pipermin esatekorik. Ba leiteke. Balña ezagutzen zuen bere erriaren gogo alal, umoretsua; ipui, itz-goza, erasi, izkirimiri, ateraldi ta txantxa-josketak maite ditu, ta olakoakin poztu ta euskalzaletu nal zituen bere erritarrak. Gatzik etzuela? Aren lanak, ordea, irakurriak ziran.

M. Zarate'k euskera aldetik oratzen dio. «Zamarripak darabillen euskera jatorra, garbia ta erreza da... Idazle zaarren eta erriaren iturritik edan dau ura. Eta, jakiña, orrexegaitik da aln jatorra bere euskerea. Alkar-izketak, esakerak eta abar ondo josten ditu. Zenbat aberastasun euskera aldetik! Txibizkeriak txibizkeri, Zamarripa langoak gitxi, nal badozu euskera ikasi» (*Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 171 orr.).

L. Villasante'k: «Zamarripa'ren euskera beti duzu jatorra ta konfiantza osokoa, errian eta idazle zaarretan oiñarritua» (HLV, 396 orr.).

K. Etxenagusia'k: «Euskaltzale sutua ta langillea. Euskera jator-jatorra dau, Bizkaiko Txorierri aldekoaren ispillu garbia; ganera, argia, bizia, edozeiñek ulertzekoa».

A. Irigaral'k, Zamarripa'ren olerkiz, onela: «Zamarripa'ren olerkiak danak dituzu onak, ingura-mingura gabe; batzuk, *Gaiika*, *Geldirik*, *Aupa laztantxu*, *Euskaldun gudariak* eta *Aiko antojagarrie!*, adibidez, galñ-galñekoak dira; *Geldirik* deritzaiona batez ere; *Aupa laztantxul*, titulukoak, berriz, euskereak izkelgi guztietan dauzkan aur-iztegi aberats-aberatsaren zati zati eder bat ematen digu» (RIEV, 1928, 167 orr.).

Lanak izenpetzeko, *Euskalzale-n* beintzat, «Artaxori» erabili zuen.

(Ikus A. Irigarai, RIEV, 1928, 167 orr. ta 1935, 600 orr.; Aztertzale, *Euskal Esnalea*, 1930, 179 orr.; P. Ithurralde, *Gure Herria*, 1950, 291 orr.; S. Onaindia, MEOE, 630 orr.; L. Villasante, HLV, 395 orr.; N. Ormaetxea, RIEV, 1927, 202 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 243 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal Idazleak*, 169 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 303 orr.; *Euskerea*, 1930, 252 orr.).

35.—KEPA ENBEITA ERRENTERIA (1878-1942)

Gizon bezela naiz bertsolari bezela, gailena duzu Enbeita. Ezta errez onen gutzizko gizantza osatzea. Gizon bezela, egia, jaiki lez errotsua zan. Bertsolari zanez, euskal literaturaren pizkundean ba-du zer esana ta garrantzia muxikar aundi onek. Beronen olerkia, azal ta mami, sakon ederra bai dugu. Olerkia biotzetikoa da batez ere, ta Enbeita biotz aundi baten jabe genduan, eta bere bizitzako une oroz biotz orreri astiñaldiak emanenez, txinpart-urtika bizi izan zaiguna. Aren bertsoak, txinpart utsak, gogoz entzun eta irakurri oi ziran: millaka ta millaka biotz utzi zituen bere garaian zauskada sakonez eta esan-nai eztiz arroturik.

BIZITZ-OSTOAK—Gernika'tik iru bat kilometrora daukagu Muxika, ta onen auzunetatik bat Areatza duzu, Bilbao'tik itxasaldera goazala, Oka'tik bertan aurkitzen dana. Ementxe jaio zan K. Enbeita 1878-9-7'an, gabeko bederatziatan, eta urrengo egunean bataiatu zuen Leon Miangolarra txauburu-lagunak. Bere gurasoak: Enbeita'tar Juan Antonio ta Erreneria'tar Maria, biak muxikarrak eta nekazariak. «Usparitxa» baserri apaiñean bizi ziran.

Umetan etzuen eskola aundirik artu. Lenengo urteetan Areatza'n bertan ikasi zuen zerbait, baiña bertako maixua laster Ameriketara joan zitzalen eta or zazpi urteko mutikoa eskola irakasle barik. Amar urte egiteko zegoela amak Muxika'ra eraman zuen, baiña etzan luzarorako izan ango eskolatzea ere. Erderaz tautik ere ez zekielako, sarri eraman bear izaten omen zuen garai artan modan zegoen ertestuna, eta bein elizako teillatu galiñera bota omen zuen dalako ertestuna, ta maixuak, jakiña, ederki zigor-azi aren berna-bizkarrak. Etzan geiago eskola artara urreratu. Gero, iru-lau urtetan, Kristau-Ikasbidea ta matematikak orduan Areatza'n erretore zan Sebastian Arrien apaizarekin ikasi zituen.

Enbeita'tarrak, gurasoak eta zazpi seme-alaba, lurretik bizi ziran geien bat; balña ba-zuten beste ogibide bat ere: saskigintzan ari ziran. Eta orrek nasal xamar bizi izateko lain ematen zien. Ogetalau urte zituala, 1903-2-21'an ezkondu zan Kepa, bere erritik ur bizi zan Ibarruri'ko alaba Mañasi Goiria'rekin: aurten illa noski —1976-1-6'an— 96 urtekin. «Usparitxa» etzan gure bertsolaria ezkondu zanean, gaur lako etxalde ederra; gaur soro emakor diranak, len baso ta beresi ziran. Zugatz zalea zan Kepa eta lendik zeudenak zalndu ta berriak landatu, oralntxe ere ba-da an inguruan igali-zugatzik. Asko berak jarriak. Olako bati azala urratu edo adarren bat auste, berari arpegiko bat ematea bezela zan. Izadi zalea, noski, bere bertsoetatik argi dakusgunez.

Zortzi seme-alaba, zortzi kimu eder, izan zituen, gaur ere bi ez besteak ezkondu bizi diranak. Osasunez mardula zan Kepa, balña 1919'tik aurrera auleriak jota bizi izan zan; osasun-billa, bada, Araba'ko Laguardia'ra joan oi zan. 1936'ko gerra aurretxoan ere ara aldatu zan, urrengo urteralñoako gutzia an emanik, Ba-zituen an lagunak, baiña biotza beti erri-min.

Guda bukatzean itzuli zan etxera, emaztea ta zazpi seme-alabak laztanduz. Arrezkero, balña, etzan luzaro bizi izan. Goiz batean galxo txar batek ogeratu zuen, eta osalariak konturatu orduko lan aundiak egin zituen galtz arek Kepa'ren gorputz aulean. Guimon sendagilleak egin zituen alegiñak galtza uxatzeko, balña alperrik. Agustin Isusi apalzak eman zizkion azken sakramentuak; gaixoardiko azken egunetan batez ere, adiskide ta ezagunak eundaka etorri zitzalzkion, gizon jator ari agur-egin nalrik. 1942-12-12'an itzali zitzalgun ainbat kanta ederrez alaltu ginduan Urretxindor bikalña.

Muxika'ko iltegian datza Enbeita'tar Kepa'ren gorpua. Ari lur ematerakoan, lagun talde aundia izan zan bertan, baita gerroztik ere. Euskalerrriak bizi-bizi negartu zuen aren eriotza.

Etzan zar oraindik, baiña au ere, beste euskal idazle askotxo bezela, umotua iduritu urrean Jainko onari, ta eraman zigun gu begi-malkoz utzirik.

ENBEITA BERTSOLARI.—Aritzak aritz-ezkurra dakar; balta aitak, okerrik ezpada, antzeko kimua ere. Juan Antonio, Kepa'-ren alta, bertsolari zan eta ugari samarra izan ere. Urbil dagoen beroa erantsi. Orrelaxe gertatu zan nunbait Usparitxan, aitak semeari bertso-zaletasuna ezarri.

Kepa'k gaztetatik zekarren griña ori. Astelenetan, or inguruan oitura danez, Gernika'ra joan oi zan gurasoekin. Eder zitzazkion ango pelota jokuak, eta ederrago oraindio eskekoak-eta saltzen zituzten bertso-paperak. Mordo galanta osotu zuen pixkaka; aietatik asko buruz zekizkin soroan itaurren, bei-zaintzan edo saskiguntzan ziarduan bitartean ikasiak.

Noiz asi ote zitzalgun bertsoak kantatzen? Gazte zalarik. Egun aietan oiñatiar bik, Jose Joakin eta Juan Jose, eguneroko lana amaitu ostean, bertsoketan egin oi zuten: aieri entzutera joan oi zan Kepa. Domeka arratsalde batean Muxika'rako bidekurutzean zaratatsu zebillen jendea; Zugadi bertsolaria zan bertan, Maguna'tik etorria: bere erritxo goratuz, muxikarrai adarra jo zien poliki. Bat-batez, orduan, Kepa'k jardetsi zion muxikarren izenean. Baserritarrak gogoz txalotu zuten Enbeita, baita Zugadi berberarekin kidetu ere. Onek biziki bizkortu zuen gure mutil gaztea, ta aurrerantzean bertsogintza zan bere ametsik garaiena.

Orduantxe bizkortu zan, eta errietan berso-botatzen asi. Emeretzi urte zituala, bertsolari txapelketa bat ospatu zan **Du**rango'n, erriko jaiak zio arturik. Berriz'en ba-zan egun areitan izen aundi samarreko bertsolaria, Onbe; maikoak oni eman zioten lenengo saria, Kepa'ri bigarrena. Beste bein, bere adiskide Zelaia'k sariketa bat antolatu zuen Ondarreta (Las Arenas'en). Zazpi gipuzkoar etorri ziran, Txirrita beren artean; Bizka'i'tik Enbeita zan bakar-bakarrik. Gipuzkoarrak ederki zirikatu zuten

bizkaitarra; baiña muxikarra zezen adarkari trebea bezela aritu zan aien aurka, ta an ziran bertsolari ta entzuleak bizkaitar gazteari txapela erantsi bearrean aurkitu ziran. Saioa amaitzera-koan, maikoak erabaki au eman zuten: Lenengo saria, Enbeita'tar Kepa; bigarrena, Lujanbio'tar Manu (Txirrita). Kirikiño'k biotzez luzatu zion bostekoa.

1905'tik aurrera batez ere, erriz erri ibilli zitzaigun erri-maitasuna ta erlijioa gartsuki abesten. Leundu ta aziz zioan adimenez ta barne indarrez, ots, oleskari, erri-oiulari egiñaz. Ortan asko lagundu zioten Jon Arrospide osagille jakintsuak eta Erretereria'tar Gorgoni itxas-gizonak. Orrelaxe ogei urtez gutxienez bere soiñeko illun, alkondara zuri ta euskal txapel beltzarekin, Euskalerriko zokondo guztietan kantatu zuen. Bizkai'tik irtenda, bere ibillaldi garaitzazkoetan, Gipuzkoa'ko, Napparroa'ko ta Araba'ko uri, erri ta auzunetan, an or emen bere nagusitasunaren dirdai-izpirik samur gozoenak zabal-erazi zituen; baita mugaz andikalderaiño ere iritxi zan, Baiona, Ezpeleta, Donibane-Lohitzun, Donibane Garazi ta olakoetan bere bertso-jardunaldiak egiñik.

IDAZLE.—Kepa Enbeita'k etzuen abestu bakarrik egin, idatzi ere bai. Garai artako aldizkari ta egunerokoetan, euskal atalen bat zutenetan beiñik-bein, idatzi zuen. Astero lez idatzi zuen olerkiren bat, «Ibaizabal», «Gaceta del Norte», «Aberri», «Euzkadi», «Euzkel-laguntza», «Euzkerea», «Karmen'go Argia», «Jaungoiko-Zale», «Ekin», «Napartarra» ta gaiñerako aldizkingietan argitara emanik. Geienik bere izen-abizinez izenpetzen zituen bere lanak; baiña pitean bein erabilli zizkigun ordezko aukerak: «Txindorra», «Karatz», «Pello» ta «Pello Mari».

Nik zazpi bat urte dirala osatu nuen bilduman 342 olerki datoz eta ez dira guztiak ere. Beraz, olerkari ugari-ugaria izan genduan Enbeita zarra, Muxika'ko urretxindorra. Bi bilduma osatu nituen, pozik osatu ere.

1) *Enbeita oleskaria* (Zarautz, 1966). Itxaropena irarkolan, «Kuliska Sorta» saillean. 159 orrialde. Urtez urte lau txortatan bananduta daude, oberenak ez, 116 olerki txanbelin.

2) *Gure Urretxindorra* (Buenos Aires, 1971). «Ekin» euskal argitaldaria irarrita. 232 orrialde. «Enbeita'tar Kepa'ren Bertso-lanak osorik du azpi-titulua. A. de Lizarra'k aurkezten du, ta nik egiten diot itzaurre luzea, Kepa'ren jatorri-zugatza, ikasketak, lenengo bertso-saioak, ogei urteko ekiñaldia, omenaldiak, Urretxindorraren eriotza, bildumaren zioa ta abar azaL duaz. Ondoren bost zafitan bananduta datoz Kepa'ren olerkiak: 1) *Aberkoyak*, 78 guztiz; 2) *Uzkurtazkuak*, 82; 3) *Goralpenezkuak*, 91; 4) *Ipuin eta abar*, 44; 5) *Gomutakizunak*, 47. Azkenez, Enbeita'k geienik erabilli oi zituen kanta-doiñuak dakartzi, 30 guztiz.

Lanotatik atera dezakegunez, alai ta sakona dugu Enbeita. Abots zoli ta luma bizkor, gure lurraren edertasunak, gure mendien anditasunak, ibar eta aranen berdetasunak, txori ta zugatz, erreka ta abere, dena kanta zigun urretxindorraren eztarri leunak. Bertsolarien ekanduai jarraltuz, gure zer guztiak jaso ta goretsi zituen. Eta aren bertsoak illezkortasuna iritxi zuten euskal gogoaren izate berezia olerki-ari dirdarrietan dardar guri utzirik. Aren aberkoi kantak batez ere nabarmenak dituzu, edozein aberri-kantuz kidetzeko langoak. Barrenean irakiten daramaguna errez oi dugu adierazi.

OMENA.LDIRIK?—Ez gutxi ere, ta bizi zala geienak. Kepa'k nun itz, araxe zijoan jendea. Ta nolako esku-zartak! Zezenlari antzo maiz atera zuten lepo-gain ere: ainbesteko barren-su ta irrika esnarazten zuten aren bertso ta aapaldi aberkoiak! 1922-10-1'an omenaldi ederra egin zitzaion Eibar'en; Enbeita zaleak millaka ta millaka batu ziran *Astelena* pelota lekuan, eta pelota joku, ezpata-dantzari ta itzaldi artean —**Ramon Sota Aburto'k**, **Pantaleon R. Olano'k**, **Urretatar Mikel'ek** eta **Imanol Arantza-di'k** itz egin zutenean etzan txalo ta maite-erakutsi gabe geratu gure muxikarra.

Beste bein ere antzeko goratzea egin zioten, eta ango sozialistak ain zuzen. Astelena zan, lantegi bateko auzi-maizu ta ugazaba ta langilleen arteko aitu-eziña zala-ta, batzar bat eratu zuten Kruzeta saloian, bertsolari eta guzti. Etxeiña, sozialisten bertsolari famatua ta Enbeita jarri zituzten aurrez aurre: Etxeiña sozialisten alderdiko agertuko zan eta Enbeita ugazaben alde. Biak bota zituzten botatekoak. Pitxer bete garagardo zala ta etzala, Enbeita'k trumoi antzeko txalo-zartada izan zuen. Eta aZkenez, millaka beso gaztek estutu ta bizkar gaiñ atera zuten Enbeita saloi artatik.

1923-4~l'an, Kristoren Berbizkundez, abertzale-jai aundia ospatu zan Bilbao'n, Enbeita'ren omenez geien bat. «Euskalduna»-n izan zan jai au. Gernika'ko Joseba Iñaki Arana, Arturo Kanpion, Iruxo iruñarra ta Gorgonio Erreterria izan ziran izlari, itzaldi aurretik, tartean eta ostean Enbeita'k kantatuz. Kiri-kiño'k onela: «Enbeita abeska asi zanian ikaratu giñan danok bere abots zolija entzunaz ta bere beso-eragite ta bere begi bixijak ikustijaz... Sekulako olerkiak bota zituan; sakon, aberkoi ta ederrak». Iru milla lez egon ei ziran Enbeita'ri goratzarretzat eskeiñiriko bazkari artan.

OLESKARI FIÑA.—Enbeita olerkari garbia, txukuna ta zentzunduna izan zitzalgun beti. Arranoaren egazkada zuelako, ez genduen iñoiz ere lokatzean zikintzen ikusi. Berak atera zituen aurretik ardangela loietan bakarrik kantatzen zituenak eguratseko aize garbitara. Bere bizitzaldi osoan zintzo ta jator jokatu zigun, egundo ere kilikola ibilli gabe. Jainkoa ta erria abestu zuen gartsuki; gurean sortu diran gizon jakintsu, itxastar, kirolezale ta gaiñontzekoak eredu lez begi aurrean jarri zizkigun, balta sakaldean amonak erasi ta erri-aotan bala-bala dabiltzan alegi ta ipuñiak bertso biribilletan kirimillatu ere.

Enbeita'ren bertso-lana jatorra danik ere ezin dugu uka. Ark etzuen iñun ikasi, ez irakurri; izaditik eta biotz-zokotik atera zituen bertso beroetarako bear zuena. Etzan irudi-billa ez

erdeHiburuetara ez euskaldunetara, bere-beretik sortuak ditu, izadiko edertasuna sakontzen jakin zuen. Beraz bere-bereak, jatorrak ditu, iñoren kutsu gabeak, utzi zizkigun lan guztiak: mendiko iturritik datorren uraren antzekoak noski baiño noskiago.

Ezaguna zuen ala ere euskal poesiaren egikera bere zeaztasun guztietan. Neurkera askotsua du. Geienetan eta kantu jai-kietarako zortziko nagusia erabillita ere, neurri askotariko aapaldiak ditu. Gutxitan baizik erabiltzen ez diranak ere bai; erriko kantuetatik jasotako neurkera apartekoak dira nunbait, zazpi ta bostekoa, zazpi ta seikoa, zazpi ta zazpikoa, zortzi ta seikoa, zortzi ta zortzikoa. Neurri ezberdiñak naste ere askotan darabiltza.

Baiña au ere aitortu bearra da: aren aapaldi ta puntu ugarietan, bat bera ere esan genezake ez dugula idoro gaizki amaitutakorik; guztiz iru edo lau ditu bada-ezpadakoak azken amaitze berdintsu orretan; baiña beste guztiak osotasun osoz egiñak ditu. Geiago: azken-berdiña edo rima dalako ori ezezik, silabaen neurria orobat arretaz zaindu zigun beti. Esan dugunez, kanturako egin zituen oleski guztiak eta naitaez doiñuaren ari artean jokatu bear. Bat-bateko bertsoetan ere, doiñuari dagokion baiño silaba geiago sartzerik ez zuen ark egingo. Erabiili oi zituen doiñuetan, berriz, oso ugaria genduen.

(Ikus *Aztapar*, «Gure Herria», 1923, 259 orr.; *Euzkerea*, 1929, 85 orr.; B. Amezaga, «Euzko-Deya», Buenos Aires, 154 zenbakian; S. Onaindia, MEOE, 685 orr.; K. Esla, «Estampas Vascas», Buenos Aires, 157 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 180 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 244 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, 135 orr.).

36.—LEON GORTAZAR INTXAURBE (1882-1963)

Karmeldar bezela, Aita Florenzio. Zeanuri'n jaiou zan 1882-6-28'an. Ba-zuen beste anai bat ere, Aita Buenabentura Gortazar, frantziskotarra, gaztetan Peru'ra joan eta an, iñoiz Euskalerrira biurtu barik, mixiolari bizi izan zana.

Aur-eskolak egiñik, Larrea'n jantzi zuen A. Florenzio'k karmeldar jantzia 1888-7-28'an. Ondoren Begoña'n eta Iruña'n Filosofia ta Teolojia ikasi ta Iruña'n bertan artu zuen apalzgoa, 1907-6-12'an. Gero, ogei ta bi urtetan, izlari ibilli zitzaigun Bizkai'ko komentuetan, 1908'tik 1930'ra bitartean noski: 1908'tik 1911'ra, Larrea'n; 1911'tik 1915'ra, Markiña'n; 1915'tik 1921'ra, Begoña'n; 1921'tik 1930'ra, Larrea'n berriro ere.

Izlaritza zan bere dei bereizia, ta ortan ari ta ari on ikaragarria egin zuela esan dezakegu euskaldun arimetan. Ba-zuen doalrik ortarako: adimen zolia, biotz sutsua, gomutamen ederra ta abots indartsu ta ozena. Berezko auekin bere alegiña elkartzen zuen: irakastegira igo bear zuen bakoitzean, ondo baiño obeki gertatu oi zan Jainkoaren itza iragartzeko; erreztasun aundia zuen arren, etzan egundo ere aotik ortzera itz egiten duten oietakoa. Euskera gozoa zuen, eta esaten etzitzaion palta gatza ta ganora. Makiñatxo bat itzaldi eder entzun genion! Nun ote dira gaur aren sermoiak? Asko zeuzkan.

Probintziko karmeldar nagusi berriak autatzeko 1930'an ospatu zan Batzarrak Donosti'ko nagusi izendatu zuen A. Florenzio; 1933'tik 1936'ra Altzo'ko buru izan zan, eta 1936'an Aita Probintzialaren aolkulari ta Eibar'ko nagusi izendatua izan zan. Gerratean Gipuzkoa'ko, Bizkai'ko ta Santander'ko karmeldar komentuetako lekaideen ardurea izan zuen. 1937'garreneko epaillean, Aita Ezekiel Bilbao, Ordenako Aita Nagusi amabi urtez izendakoakin batera, Frantzira, Agen'go komentura jo zuen; emendik Ameriketara, 1937-11-24'an Peru'ko Trujillo'ra eldu-tik. Ogetasei urtean emengo komentuetan lan egin zuen. Chocope'n il zan azkenik, 1963-11-14'an.

Ezer argitaratu ez arren, ainbat itzaldi eder idatzi ta esan zizkigun. Gure literaturan, beraz, ez al du aipu laburra bederen merezi?

(Ikus *Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos*, 1964, urtarrilla-bagilla, 38 orr.).

37.—**ROBUSTIANO ORTUZAR LEGARRETA** (1883-1929)

Bermeo'n jaloa, 1883-5-24'an. Bere errian lenengo ikasketak egiñik, Gazteiz'ko abadegaien Ikastetxe nagusian osotu zituen eliz-estudioak, eta 1906'an mezakotu zan Gazteiz'en bertan, Jose Cadena ta Eleta orduko gotzaiñaren eskuz. Gebara (Araba)'ko auzune Etura izan zan aurrenik arima zaintza egin zuen tokia. Gero Bermeo, bere sorterrria; emen bete zuen urte mordoan bere abadetasunaz gaiñera erriko gazteai «Nautika» deritzan itxas-jakintza erakustea ere: ainbat itxas-ontzi buru egin ziran Ortuzar'i esker. Berebat egin zuen baita Bilbao'n eta Getxo'n.

Geroago, **Ramon de la Sota**, bilbotar aberatsak, bere ontzietan zebiltzan itxastar zarrentzako Sukarrieta'ko Abiña itxas-egal ikusgarrian zar-etxe, jauregi eder, txalogarria jaso zuenean, **R. Ortuzar** ipiñi nai izan zuen etxe ortako zuzendari ta batez ere arima-arazoetarako arduradun; etxe au gero Bilbao'ko Aurrezki Kutxak erosi zuen, gaur daukagun «Aur-Koloni» ipinteko. Etxe onek ere **R. Ortuzar** aukeratu zuen erakunde onen zuzendaritza eraman zezan. Urte gutxiren buruan, ala ere, 1929-11-23'an, etxe ortan bertan il zan, 46 urte baiño ez zituela. Bere gorpuari Bermeo'ko obitegian lurra eman zioten.

ANTZERKILLE.—Apaiz argi ta jakintsu au bermeotar utsutsa genduan; bere erriko gazteak batez ere euskeraz kulturatu ni zituen. Ba-dira ortarako berein modu ta era, Ortuzar'ek oietan bat aakeratu zigun, erriari atsegin zaiona: bermeotar arrantzaleen ekandu ta jazoerak antzerki-eraz idatzi ta azaldu.

Ona **R. Ortuzar**'en liburu bakarra: *Oroigarriak* (Bermeo, 1925). Gaubeka'ren irarkolan. 151 orrialde. Sei antzerti-lan dituzu: 1) *Torronteruen*, Bermeo'ko «Otso-Etxea»-n, 1914'garrren urteko Errege-egun eta Aratustietan, antzeturiko antzerkia, gertaldi bitan; 2) *Doniane Bezperako Belentziren pozak*, bakarrizketa; 3) *Zorginkeribako Epaya*, jolantzerkia, gertaldi

bitan, karmeldar lekaimien ikastolan 1923'an antzeztua; 4) *Ondo pentsaten zauz!*, alkarrizketa; 5) *Pitxar bete ur*, alkarrizketa; ta 6) *Txdupe'tsien*, gertaldi bateko antzerkia. Azkenik, bi eraskin, Bermeo'ko itz bereizi ta esaera politez aberastuak. Bermeo'ko izkelgiz egiña.

Azkue zanaren adiskide aundia zan, eta ark egin zion sarrera. Jakingarri dugunez gero, irakur zazu zuk ere. «Gaur egunean —dio—, gure erri au euskalzale egiteko, teatrua dala uste dot biderik laburrena ta errazena. Irakurri, gitxi irakurten dabe euskaldunak: eztakielako, askok; neketsu dabelako, geienak. Txikitatik, erdereaz batera, euskerea begietan barruan sartu balitzakioe, neke orren erdirik eleukee izango. Begiak argitzea gaitz dogunezkerero, belarriak gozatu daloguzan erriari.

«Bermeoko arrantzaleen bizikerea gai dabela, Ortuzar Abade zur ta erri-malteak eratu dauskuzan antzerMtxo (sainete) onek eztitan ta aoa zabalik entzunak izango dira Bizkaiko edozein uritan. Betoz beste idazle batzuk Ortuzarren ondorik, baserritar ta nekezaleen oitura on nai galgarri mamintzat artuta, gatza ta erri-usalntxo gozoa daben antzerki asko egitera. Olgetanbenetan ta ezarian-balarian on andia egin lekioe erriari». (Gaubeka ta Duo'tar Bitor'ek, Bermeo'tik 1975'gneko irailaren 29'garreneko eskutitza).

38.—JOSE ZABALA-ARANA (1864-1636)

Gizaseme zuzen eta errimea, bizkaltarra lau alderdietatik. Soñez txiki, baiña arima ta arnasaz ez oi lakoa, Egi-antza ez zuen maite, egia bera balzik. Bere uste ta iritzietan tiakoa, iñolaz ere ez eguzkia nora zapia ara; oietakoak etzitun begiko, bere izakerakin ez bait zetozten ondo. Maite zuen, gaiñera, —nola ez?— Euskalerrria, ta onek bere gogo lez duen euskera. Akatsak akats, idazle ugari ta ona dugu.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Nabamiz, Bizkai'ko erri liraiñean munduratu zan, 1894-3-16'an, urrengo egunean bataiatua izanik. Beronen gurasoak: Ilario Zabala-Arana ta Madalena Goiriena, biok nabarniztarrak eta lugiñak. Aitaren aldeko aiton-amonak: Jose Luis Zabala-Arana Ipintza ta Mari Bizenta Ika-zuriaga, nabarniztarrak; eta amaren aldekoak: Juan Manuel Goiriena Arrupe ta Mari Karmen Iburguen eta Martitegi, nabamiztarrak. Juan Krutz Merikaetxebarria'k batalatu zuen.

Oraindik gaztetxo zala, eliz-gizon izan naita, Klaret'arrak Balmaseda'n daukaten Ikastetxera jo zuen Latin eta gaiñerako ikaskizunak osatu zitzaiz; an zan A. Urrutia ere, erri bateko, ikaskide ta bizitza osoan pentsabide berdiñeko izan zitzaiguna. Eliz karrera amaitu zuenean, 1920'an, Donosti'ra bialdu zuten nagusiak, amaika urte bertan egiñaz. Urriburu ontan klaretarrak jaso zuten Ikastetxearen antolaketan lan ederra egin zuen A. Zabala'k; Muñoa Iraskundeak ez dio gutxi zor nabamiztar argi oni; matematikak, euskera ta beste berein gai erakusteko, ainbat liburuxka osatu zituen bertan irakasle zegoelarik.

1931'an, Medina de Rioseco (Valladolid)'era bialdu zuten nagusiak, eta emen ere, beti gogotsu, Kristoren Berri Ona ereiten jardun zigun; izlari ona zan. Gerra aurretxoan, ordea, 1934'an, San Vicente de la Barquera (Santander)'eko klaretar lekaretzeko nagusi izendatua izan zan. Guda sortzean gorriean geratu zan alderdi au, ta A. Zabala-Arana, ertzaiñak lagunduta, Eiiabao'ra jo al izan zuen, 1936-7~30'an. Geroztik Nabarniz'en bizi izan zan zati batean; baiña kezka bat zeukan barnean ozka: Santander'en atxillo gelditu ziran bere menpeko anaiak. Azkenez, 1936'ko azillan, ara joateko erabakia artu zuen, baita arako bultzia artu ere Bilbao'ko geltokian. Zer gertatu zan gero? Iñork ez du ordutik A. Zabala-Arana'ren aztarrenik izan.

EUSKAL IDAZLE.—Gazte joan zitzaigun Aita Zabala, 42 urtekin. Urte oietan, 1919'tik aurrera batez ere, egin zigun lana etzan urria noski. Liburu zerrenda aundia du bere arturenean. Ona:

1) *La Conjugacion en el Euzkera Bizkaino. Dos estudios sobre la conjugacion bizkaina en su forma actual y segun una posible reforma* (Tolosa, 1919). Aita Arriandiaga, Zabala-Arra ta Urrutia, iru bizkaltar argi, euskera berritzaille porrokatuak izan ziran. Eta, oro ar, eta akatsak akats, gaurko berritzallletatik aietara ez daukazu alde aundirik. Aita Zabala'k lenen Bizkal'ko aditza ematen digu gaur erriak darabillena, ta gero euskerari dagokion arauz izan bear lukena.

2) *Edesti Deuna. Ume ikaslariyentzat* (Tolosa, 1921). Migel Muñoa'ri eskeiña. Gipuzkeraz. 34 ikaskai dauzka, galde-erantzunetan; gai guztien buru idantzezkiak; mundua egin zanetik asi ta Espiritu Santuaren etorkundiaz amaitzen dira ikaskaiak. Euskera zeatz eta garbian daude. «Zabala eta Arana'ren idazti onek gogua bete dausku. Ezin leike gauza polit errazagorik eskatu. Bal, ba. Euzkera ziatzez idatzita egon-arren, berau irakurrita erraz-erraza da» (Euzko-Deya», 1921, 1 zenb., 14 orr.). Lenengo ta bigarren maillako aurtxoentzat egiña duzu.

3) *Euzkera bakarra biarra ote degu?* (Euskera, 1922, 92 orr.).

4) *Euzko lutelesti txikia* (Tolosa, 1922). E. Lopez'enean. 16 orrialde.

5) *Daneurtiztia* (Donostia, 1923). Loiola'tar Iñaki Deunaren irarkolan. Umeentzat jeometri txikia. Amabi atalxo ditu: azalak, seikondea, lautua, lebarra, txunturra, txuntur-motza, d-dedia, buldua, kosnoa, boronbilla, ta abar. Aukerazko irudiz ornitua. Maxiolarientzat ba-ditu itz bitxiak. Baiña gaur gal ortarako asmatuak obeak ote ditugu? 32 orrialde.

6) *Zenbakia* (Bilbao, 1932, 128 orrialde). Aurtxoentzat au ere. Gai onetzaz aurretik ere idatzi zuen, *Euskerazko Zenbakera*, adibidez (RIEV, 1928, 584 orr.).

7) *Aste Gurena, euskeraz ta lateraz* (Tolosa, 1924). Aris-tegi'tar Kepa'ren irarkolan. 482 orrialde. Elgezabal'dar Kosma'k argitaratu zion. Au diosku itzaurrean: «Euzkerea malte-malte daun bizkaitar yaun esku-zabal batek eskatuta, Aste Gu-

reneko otoitzak-eta euzkeraltzen asi nintzan aspalditxu. Arrezkero tarteka marteka lanari ekinaz sortutako idaztia zeure eskuetan dozu, euzkeldun malte orrek. Ba-dakit utsik asko aurkituko dautsozuzana; ori ta be, baña, ez egikezu bertanbera laga; euzkeraz egin dan olako lelengo idazti edo liburua dala-ta, abegi onez artu baño». Itzulpen bikaña dozu, ulert-erreza, ta joskera onez antolatua.

8) *Gramdtica vasca* (Tolosa, 1930). Aristegi'tar Kepa'ren irarkolan. 128 orridde. Gipuzkeraz. Zentzunez egiña, bein eta berriz argitaratua. 20 ikasgal ditu. Badu *Clave de ejercicios ere*.

9) *Josutxu. Umientzako otoi-idaztiñua* (Bilbao, 1932). 240 orrialde. Arduraz ta txukun osatua. Bere garalan utsune ederra bete zigun.

10) *Bixi garen ludija* (Euzkerea, 1929). 28, 48, 78, 95, 114 orrialdeetan.

11) *Jesukristo Erregeari Bederatziurrena* (gipuzkeraz eta bizkaleraz). Billabona, 1928. Aristegi'tar Kepa'ren irarkolan. 22 orrialde.

12) *Amaika gabeko ipuñak* (Euzkera, 1930). 518, 536, 567, 612, 622, 644, 677, 703, 734, 776 ta abar.

13) *Oteuna'ren Ama Nezkutza* (Bilbao, 1933). Eukaristia-ri dagozkion galak ikutzen ditu.

14) *Donokirako bide zuzena* (Bilbao, 1935). Antonio Maria Claret'ek (1807-1870) idatzitako *Camino recto y seguro para llegar al cielo*, katalanez 70 bat ekoizpen eta espaiñeraz 170'tik gora izan dituen liburua, euskeraz ere lendik, 1867'an, Urnieta'ko arimazai Manuel A. Antia'k argitaratua, bigarrenez euskeran jarria.

15) *Eliztia* (Donostia, 1924). Lenengo mailla. Loiola'tar Iñaki Deunaren irarkolan. 27 ikasgal umeentzat egiñak. 80 orrialde.

16) *Gurutze bidia* (Bilbao, 1934). Verdes-Atxirika. 20 orrialde.

NOLAKO EUSKERA?—Arana'ren eskolakoa zan. Garbizale, beraz, ez mordoiiilo zale. Aren euskera, ala ere, ez dugu arbuia-garri, norbaitzuk egin eta esan dutenez. Goxo ta ulerterreza dugu; errikoia ta ariña nai zuen berak. Gaiak ere zabal, sakon eta guztitarikoak euskeraz emanda. Irakur zazu txatal au, adibide txarra ez duzu-ta. «Euzkerea ta Jakintzea» du titulu.

«Etxian —dio— euzkeraz itz-egitia, txadonkixunetan —eleizkixunetan— euzkerea erabiltia, erriko izparrak izparrin-gira euzkeraz idatzita bidaltzia, geure ele zarra bixirik irauteko biar-biarrak dira. Euzkereari bixi-indar betia emoteko, barriz, naiko ezтира.

«Bixi-indar ori emoteko, euzkerea jakintzearen jauregijetara sartu biar dogu, jakintza-gayak euzkeraz erabilli ta aztertu biar doguz. Jakintzarako gauza ezta elia aul eta erkin bixiko da, ta ele arrotzak baztertuta eukiko dabe.

«Jaldntza-gayak euzkeraz erabilteko, barriz, euzkel-irakaste-txiak nal-ta-ezkuak doguz. Baña irakastetxe orrek etorriko diran artian be, euzkerea jakintzarako gertu ta gaituten lan andija egin geike. Zelan? Jakintza-gayarik jakingarrijenak euzkeraz errijak ulertuteko eraz idatziz atzaldarik.

«Olako gayak erraz imiñi ezkreo, gogoz irakurriko leukiez gure baserritarrak, euzkotarrak geyenik buru-argijak eta jaldn-zaliak dira-ta. Ortik euzkereari etorriko litzaldjon indarra elitzake txikija ixango, ta noizpait irakastetxietan erabilteko gertu ta egokitu egingo litzake» (*Euzkerea*, 1929, 5 orr.).

Auxe gendun gure nabarniztar argi, azartu ta bizkorra. Ba-rreanean sumatzen zuena aurrera eramaten ainbat saiatu zana.

(Ikus Ismael Torres, *Mdrtires Claretianos en Santander*, Madrid, 1954, 339 orr.; *Euzko-Deya*, Bilbao, 1920, XIII, 82 orr.; L. Villasantе, HLV, 352 orr.; *Euzkerea*, 1930, 467 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 171 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 127 orr.; *Yakintza*, 1933, 402 orr.; *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1925, 277 orr.).

39.—ESTEPAN URKIAGA BASARAT2,
«LAUAXETA» (1905-1936)

J. Aitzol'ek onan amaitzen ditu «Bide Barrijak» olerki liburuari egin zion itzaurreko itzak: «Olerkari bikañenak ezilkortasun aiotsak entzun izan dituzte. Gure gazte onek ere dei orren oiartzuna neurtitzetan dagerkigu. Poesi goiargiak lagun bekio ezilkortasuna irixteko. Adi-ega egokiak ditu naikuna betetzeko. Euskerari, bide latza, leguntzeko, «Lauaxeta»k dagiana, ez da lan makala. Bere «Bide barrijak» goren, txalogarriak. Olerti-uts zelaietatik jua bedi. Nekeak ez dezala auldu; ain da galgarria bide ori. Oraindañoan bulartsu darraikio. Ez bezaie, ordea, maitasun gaiei, minkuntasun asmo samurrei uko egin. Ain olerki politikak egin dizkigu! Ain gogokoak ditut gaztaro asierako neurtitz oiek! Adi-poesi eta maite-olerkiak ez-ezik beste gun ederra dituen olerkitxoak aurki lezazkike irakurleak» (X orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Euskalerrian, eta Bizkaia'n batez ere, baiditugu toki ta errialde begiragarriak. Gisa ortakoa duzu itxasotik eta Butroe gaztelutik ur-xamar daakagun Laukinitz nekazari erritxoa. Emen jaiio zan Urkiaga ta Basaratz'tar Estepan—Lauaxeta—1905-8-3'an, Erriko Taberna deritzan etxean. Beronen gurasoak: Jose Mari Urkiaga ta Urizar-andia, Murelaga'koa, ta Bizenta Basaratz eta Zorrotza, Laukinitz'ko alaba. Aitaren aldeko aitita-amamak: Erramon Urkiaga ta Uribarren, Mendexa'koa semez, eta Frantziska Urizar-andia ta Espilla, Murelaga'koa. Amaren aldekoak: Erroman Basaratz eta Zorrotza, Zamudio'koa, ta Kristina Eguzkitza ta Eguzkitza, Laukinitz'koa. Juan Barrenetxea bertako txauburuak bateatu zuen, illaren 6'an, Frantzisko ta Errose Urkiaga, biak Murelaga'koak, aita-amabixi zirala.

Esteban ume zala, Laukinitz utzi ta Mungia'ra aldatu zan Urkiaga sendia. Orduan zer aundirik ez, baiña gaur uri azi egiñik daukagun toki onetan osotu zituen bere len-ikasketak. Mutil

argia zetorren, eskolan oso aurreratua. Karrera bat ere ikasi naita, amabi-amabost urteko izanik, pralle joan nala ere erakutsi zuen. M. Zarate'k onela: «Mutikoa zala, fraile joan gura izan eban, karmeldarren komentu batera. Baiña Lekeitioko osabeak abade egin bear ebala esan eutson». Orrela, beste gazte asketxo legez, Durango'ko jesuiten Ikastetxera jo zuen latin eta abar, ots, giza-ertiak ikastera. An zan —bat aipatu— ikaskide bezela Pio Montoia.

Joakin Zaltegi ere, Durango'n bertan, ikasldde izan zuen. «Leendik —diosku onek— elkar Durango-n ezagutu genuen: Urkiaga latinaren laugarren urtean ari zen, Erretorikan alegia, ni, berriz, leenengo urtean ari nintzen. Garai artan euskaltzale ote zenik eztaikit arean... Gero, Loiolataru ginen biok, 1921'garreneko Uztailaren 15'nerako edo, batak bestearen berri iakiteke. Loiola-n asi-berri elkarrekin batera asi ginen... 1924'garren urtetan «junior» bezala latin, eladera ta elertiak ikasten ari ginen euskaldunok, euskaltzale gertatu ginen». Bertan ziran Urkiaga, Ibiñagabeitia, Iñaki Goenaga, P. Muxika, G. Larrañaga, Argarate, Sarobe, Martikorena, Korta anaiak, Zubiaga, Gaztelumendi, ta abar, geroztik ere euskal alorrean benetako lana egin diguten gazteak alegia. An ziran baita eragille bizkor bezela, Apalategi, Zugatzaga ta Olabide altak ere.

Gazte auk ba-zuten nun idatzi. Zaltegi'k onela: «Guziak Bilboko *Jesus-en Biotzaren Deia-n* idazten genuen eta, ileko asmoa Agirre-tar Iorka-k, eta Peli Areitio-k Berri-On bateratua ta orrelako batzuk kenduta, aldizkaria osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo. Urdaga-k Basaraz izengoitia zerabilen nonbait» (*Olerkiak Lauaxeta*, Bilbao, 1974, 8 orrialde). 1925'an agertzen da Lauaxeta'ren lenengo lana, «Beñoñako Amari» deritzan olerkia; 14 lauko dira ondo biribilduta; «Basaraz, S. J.» darabil izenpetzean.

Olakoetan oi danez, euskaltzde bazkune bat ere sortu zuten Loiola'n, gero Oña'n eta Marneffe'n beintzat iraun zuena. Loiola'ko gazte kementsu auk erabaki eder bat artu zuten; elade-

razko ta latinezko klasikoak euskeratzea. Ortan lan egiñak dira, dakigunez. «Giro ortan azi zen Urkiaga —dio Zaitegi'k—, gero-
roko Lauaxeta, 21 urte bete arte. «Gure arteko ikasle gazteak
zenbalt urtez Elade-ko ta Erroma-ko giro osasungarri ta zoraga-
rrian bizi izango balira, oberenik litzateke: giro orri neronek
zer zor diodan gogotik esan nezake, norbere buruaz mintzatzea
ain itsusi ezpaltiz. Nik neuk, beintzat, eztitut galdutzat irizten
onetara igaro nituen gaztaroko urterik ederrenak», esan zeza-
ken Urkiaga-k ere. Asieran olerkari bezala agertu zen Lauaxeta,
gero egunkalari ta izlari bezala. Gazterik il zuten: gora ta gora
zioan garalean. Aingerutxo bat bezala il zen, esan zidan Aita
Moreno-k, Gasteiz-ko morroilopean ikusi zuenak» (*Loc. cit.*).

Itzal uts gara gizonok, leize aundi. Gogo ta soin, bi zatiota-
tik jalgi oi diran ondorio nasiak ez dituzu ulert-errez. Ez or-
tan! 1928'an, bere bidetik pozarren zebillela ematen zuen Ur-
ldaga'k, Jesus'en Lagundia utzi ta Bilbao'ra etorri zitzaigun.
Zergatik? Bizitzan gorabera asko ditugu erantzun gabeak. Da-
na dala, Lauaxeta Bilbao'n daukagu, ta aurrerantzean «Euz-
kadi»-n lan egingo du aspertu gabe. Eguneroko onek ba-zuen
euskal atal bat: 1913'tik Kirikiño'k zuzendu zigun atal au, aln-
bat idazle berri ere sorturik; 1928'garren urte azkenetik, Kiri-
kiño Mañari'ratu zala-ta, Orixe'k eta Lauaxeta'k burutu zuten
lan ori bi urte ta erdian; Orixe gero, 1931'an, bere jaloterrira
juan zan «Euskaldunak» poema idaztera; iru urtez berak, Laua-
xeta'k, zuendu zuen dalako orria; 1934'tik aurrera, Uribitar-
te'tar Ibon'ek —Enbeita'tar Imanol'ek— lagundu zion.

Urte auetan eten barik idatzi zuen Lauaxeta'k, egunero zer-
bait. Orixegatik, itz-lauz ain ezaguna ez dugun arren, guztiz
ugaria izan zan ortan ere. Gal askori ekin zion, balña abertza-
letasunari batez ere. 1934-10-5'tik aurrera, crraitio, ez zuen
«Euzkadi»-k ezertxo ere argitaldu euskeraz, egun aletako Erka-
laren naste zalapartak zirala-ta. Urrengo urteko epaillaren 10'
rarte luzatu zan ixillaldia, 164 egunekoa nunbait. Bizkaia'n ba-
karrik ezarri zan arako zigorra, itxura danez,

Errepublikan aldian idazle ezezik, izlari trebe ere ibilli zitzaizkion Lauaxeta. Etorri aundiko mintzoa zuen, eta erriz erri ibilli zan Jel-azia ereiten, inoiz ere nekatu barik. Euskalerrri osotik dei egiten zioten, eta erriak txera bizitan txalotzen ditu aren itzaldi sutuak. Eragille bezela ainbat laguntzaille ditu inguruan. Egunerero irixten zalzkio lanak, errietako albistelariak bialduak geieenez; idazleak bizi ta gozo bizkortzen ditu, lumaz ta mingaiñez, gero ta leialago zeregin ortan jardun dezaten. Or eta emen eskeintzen dizkiote omenaldiak, merezi balt ditu.

1936'an anal arteko gerra. Urkiaga etzan guda-zale, balña izen aundikoa zala-ta, gudatalde ta nagusien arteko ordezkari izendatu zuten. Ortan zebillela, Kanpanzar'en, Intxorta'n, Basalگو'n, ots, Elgeta aldean sarri bostekoa eman genion alkarri. Euskal lanak ere eskatzen zizkidan «Euzkadi» ta «Egun»-erako. 1937-4-26'an. Goizean Munitibar'en lerkal-botatze gogorra; arratsaldean, Gernika suten, eta gabaz ere berdin. Martin Itziar'ek onela: «Gabak bere malndira beltzakin gure lurralde gaixoa estali zuanean, sortaldetik zerua gorri-gorri zan...» Andik iru egunera, 29'an Gernika errean zear zebillen Urkiaga «Le Petit Gironde» egunerokoak bialdutako George Bernard lagun zuela; itsumustuan oratu ta Gazteiz'era eraman zuten, Plazet donostiar jaunarekin batera.

Gorago aipatu dugun Martin Itziar ere, guda ostean, Gazteiz'era eraman zuten atxilo; aurretik arat-onat erabillita gero, 1937'ko dagonillaren asieran, Gazteiz'ko karmeldar Lekalde-txeg espetxe biurruta zegoen-eta, an sartu zuten. Eta Itziar'ek: «Sartu ninduten gelan amalau-amabost gizon adifneko zeuden denak arabarrak, eta tartean laudiotar batzuek. Auek esan zidaten nola gela ontan Lauaxeta ta Plazet egon ziran. Baita erakutsi ere ormatik zintzilik zegon Ama Birjiña Karmengoa'ren lauki atzean, Lauaxeta'k, il aurreko orduetan idatzita utzi zuan, erderaz Ama Birjiñari zuzendutako amalaukoa. Ta bereala, euskerazkorik ez ote zuan utzi galdetzean, «Bal —erantzun zidaten—, or aurrean, orman exegita dagon zurezko gurutz illun

orren antzeko beste baten utzi zizkian euskerazko olerkiak. Baiña, dakikanez, egunean gela ontatik at izaten geran orduerditxo orretan, bateon batek gurutzea trukatu ziguan... Uste degunez, ori egin zuena fede onez ibilliko uan» (*Olerkiak Lauaxeta*, 14 orrialde).

1937-6-26'an, azkenez, Gazteiz'ko karmeldarren komentuan bi illabete egin ondorean, bagillaren 25'an, goizeko 5,39'etan, su-izkillotua izan zan. Antxe zegoela idatziak ditu sei-zazpi poesi sentikor, eta azken-naia, testamentua. Aspaldian ez erdu ta ez merdu egonik, bi urte dirala (1973) omenaldi eder bat egin genion emen, Larrea'n, Olerti-egunez, Lauclniz't'ko olerkari bi-kaiñari.

OLERKARI.—Arima on eta sentikor baten jabe genduen Lauaxeta. J. Aitzol'ek ederki: «Olerki egillea gaztea degu, oso. Ogeitalau (26) urteak, doi-doi, beteak ditu oraindik Urkiaga'tar Estepan jaunak. Iñoiz ikusi-gabea gaurdaño! Gaztaro asieran, besteak zartzaroan eskeintzen digutena, jolas-eran «Lauaxeta»'k dopalkigu. Neurtitzok olerkari gaztearen gogo osoa daramate. Sare-mea izaki poesia bere ari goitar artean gogapen, irudi ta nalpenak ez atzitzeko. Olerkaria nor dan ikasi nai zenuke? Bere amets garden zintzoei so-egiezu». *Bide barrijak* poesi-liburuari eginiako itzaurrean zesan onela.

Izatez genuen eder-bera. Eta ikasiz ere, amar bat urtez, ederki jantzi zuen bere arima. Durango'n, Loiola'n nalz Oña'n ba-zituen eragille piñak euskal arlorako. Oiek ez al zioten bultz-eragin? Dana dala ogei urtekin (1925) mamitua duzu aren len-olerkia, *J. B. Deya'n* datorrena; irudimenez ta izkeraz poliki jantzia. Asko irakurri zuen, antza, ikasle zalako urteetan.

Ona aren poesi-lanak:

1) *Bide-Barrijak* (Bilbao, 1931). Emeterio Verdes-Atxirika'ren irarklan. XVIII-143 orrialde. Euskeraz ta erderaz. Berak azken-oarrean: «*Bide barrijak* amaltu doguz. Batzuk arrika egingo dauste, beste batzuk goralduko nabe. Eztot gixonakaltik

egin, Aberrijagaitik baño. Olerkari nazala agertutuari enago, izkuntza onetan be gogai batzuk azaldu daikeguzala erakustiari bai, ostera. Or-an entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta, agertu dodaz. Gastaroko neur-titzok eztira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan eztalako egiten. Geruago Aberrijari yagokozan neur-titzak egingo dodaz, Euzkadi Amaren maltasunak jo naulako» (142 orr.).

Luze ta labur, 42 olerki dira guztiz. Maitasuna, aberria, Jainkoa abesten digu. J. Aitzol'ek, jakiña, egin zion itzaurrea, ta onela aitortzen; «Olerkiok, «Lauaxeta»ren bizikera erdibitua darakusgute. Gaztetxoaren gogo artega lañotsua, lenengoz, dagger. Bizitz elburuak urduri dakarzkio, adi-irudiak. Iñicizka maitasun-izpiak bidea dargiote. Galen atzaparrak biotza urratzen, bereala, ordea... Barneko malte lei au eusko elertiari onurakorra zaio. Olerki bikañak sortu azi dizkio. Oraindaño ez lakoak. Alegia, azalez eta gun-mamiz, maitasun galz beterik daudenak».

2) *Arrats-beran* (Bilbao, 1935). Verdes etxean. «Sagi»ren azalkai ta ederkaiekin. 162 orrialde. 40 olerki guztiz. Berberak diño: «Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotzak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorr eta barneko zuzatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu. Neurez betirarte ixilduko nintzan, barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik. Euzkeraz batez be! Erabillijak ixan diran izkuntzak bost jarrai-bide erakutsi dagisgegubez, baña eie onen iruliak gerau gara... Elerti-zale nazan onek ziar-keri ta pirtxilleritzat daukodaz clerkijok. Maisialarijak esango dabez esatekuak! Baña ele lander baten seme jayo nintzan ez-keri, bertso ñimiño oneik be, argitara datorz».

Alare bide ortatik nal zuen jokatu, bertso labur, sotil ta atsegiñak onduaz. Euskeraz ta erderaz argitaratu zuen bigarren au ere, Lizardi'k bere «Biotz-begietan» eta Orixe'k bere «Barne-muinetan» bezela. Garal artan, urrean, moda zan olako idaztiak

bi eletan ateratzea. «Arrats-beran» lako liburu mordo bat egiteko asmotan zebillen. «Euzkadi»-n orrela argitara zituen alegi batzuk, 1932'garren urtean batez ere, *Izkiñuak*, erderazko *Le-trillas* antzeko olerkitxoak. Bigarren liburu au zala-ta, Federiko Gartzia Lorka'k emendik ibilli zan batean ikustaldi bat egin zion Bilbao'n; arrezkero adiskide miñak izan ziran alkarrekin, guda bitartean alabear berdiñak itzali zizkigun biok.

3) *Olerkiak* (Rilbao, 1974). Graficas Bilboa'ren irarkolan. 179 orrialde. Lauaxeta'ren omenez ateratakoa. Berton datoz: 1) *Bide Barrijak*, J. Aitzol'en itzaurreakin; 2) *Arrats-beran*, eta 3) *Beste pusketa batzuk*, Gazteiz'ko espetxean idatzi zitunak eta abar. Orrez gaiñera, sarrera bezela: 1) Zaltegi'ren «Urkiaga ta biok»; 2) Itziar eta Agirre'tar Martin'en «Oroitzak»; 3) nere «Urkiaga'tar Estepan'en Bizi-urratsak», eta 4) Arostegi'tar Luis karmeldarraren «Lauaxeta'ren Poesi-gunetarantz», 1973'an, Oleri-egunez, arrastiko batzar-aldian irakurritako lan sakona.

Asko idatzia dugu Lauaxeta. Jesuita zegoela asi ta «Euzkadi»-ko euskal atalaren arduradun zala, 1931'garreneko malatze-tik aurrera batez be, egunero idazten zuen zerbalt, «Azalpenak» zeritzan saillean bereziki. Orduan Euskalerrian gertatzen ziran gauzaen berri emate edo «reportaje» bezela genitun azalpenok. Orrez gaiñera, olerkiak idazten zitun eta lan sakon luzeagoak noizean beinka. Ortik at, «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en, «Euzkerea»-n, «Yakintza»-n idatzi zigun; baita «Bizkaiko Begiragarria» (Bilbao, 1934) ta olako liburuetan ere.

Iztegi bat osoturik zeukan, erderaz-euskeraz, Liliput tankeran. Baita ba-zekian, abertzaletasuna zabaltzeko, adierazle indartsua dugula antzerkia; onek baitu, arin ta bizkor ta goxo jardun ezkeru, ikuslea jolas-arazi, biotz-ondoa ikutu ta pozetan jarri. Lauaxeta'k bi antzerki —«Gotzone» ta «Antzerti yayan izan naz»— beintzat utzi zizkigun.

IDAZLE TA OLFERKARI PIÑ.—Naiz itz lauz naiz bertsoz, Lauaxeta'k idatzi zuen guztia zentzunez eta gatzez beterik daukagu.

Onek ere, clerkiakin bezela edo, izango du bere aldia or-emen itz lautan utzi zizkigun lanakin bilduma eder bat egitekoa. Orduan ikusi al izango dugu nolako idazlea izan genuen; nolako euskera zerabilllen; nolako izkera ta joskera garbalak zerabilz-kigun.

Aren olerkiak, ordea, ia danak beintzat, or ditugu nik 1974'an argitara nuen «Olerkiak» bilduma txanbeliñean; or duzu osorik iaukiniztar olerkari sotillaren arima ta arnasa, bertso goitarretan ustuta. Orixe'k eta Lizardi'k egiaz txalotu zuten aren olerkia.

Baña J. Aitzol'ek eta L. Arostegi'k aztertu digute, iñork baño obeki, olerkari gaztearen poesi lana. «Euskaltzaleak» Oler-ti-F.gunak ospatzen asi zanean, Errenderi'n izan zan lenengoa, 1930'an. Batzaldi artan agertu ziran Lizardi, Orixe, Tapiá-Perurena, Jautarkol, Jaka-Kortajarena, Loidi, Zugasti, Enbeita ta besteak. Lauaxeta'ren *Maitale kutuna* deritzan olerkiak eram zuen len-saria, «zillarrezko aritz abartxoa». Aitzol'ek one-la: «Urkiaga jauna, izenordez Lauaxeta, geienak Errenderi'ko olerti-egunaren bidez ezagutu dute. Ez guk ordea. An eta emen argitaratutako bere neurtitz bigun eta leunak, irakurtzen bal gi-ñuzen, oraln dala bi edo iru urte ezkeroztik» (*Eusko Olerkiah* Donosti, 1930, 12 orr.).

Urkiaga, esan dugunez, berez olerkari jaloa duzu. Baña ikasiz ere eder-senaren gozotasuna eten gabe beregandu zuen; irakurtzean, espaiñar olerkariak albora utzi barik, Prantzia'koak eder, atsegin zitzaizkion batez ere. Kanbo maite zuen «Francis Tammes biotz-bigun, gauz txikitxoan ertilari trebearenetik, Bau-delalre elerti iraulari, «parnasisme» taldea irasi zuan olerkari arenetarañoko bertso arrigarrienak euskeratu dizkigu», diñosku J. Aitzol'ek.

Eta aurrera, oralndik: «*Maitale kutuna*, saritutako olerkia, olakoxea deritzalgu. Alako naltasun mee, gozo, atsegin eta aundikia, asmaketan eta irudietan alako batasun egokia, antz eta itxuraz alako aberastasuna, amets-ereduz alako indar bizitasuna;

ahapaldi bakoitza pitxia, neurtitz bakoitza dirdiz argikorra. Biotz maitekorrak ezagutu ezarren, nolabait nabaitzen duan maltalearen edertasuna, ahantziz, goratzen d.u. Eta garbi-garde-naz eta apain oso, neskatx onen itxura adierazten digu. Egoak eragindako aizeak, liliak igurtzitzen dituan bezela, oartzen dira neurtitzetan zerutar egokada leunak» (*Idem*, 14 orr.).

Arostegi'k iru zatitan banatzen du Lauaxeta'ren poesiari buruz osoturiko lana: 1) *Poesi-lurraldeak*; 2) *Bideak*, eta 3) *Poesi bera*. Orain arte aren poesi-lanari begira egindako zeri sakonena duzu. Arostegi berau ere olerkari da, «Poema Amaitu bakoak»-en egillea, ta nundik dabillen ba-dakielako, ez gaitu bat ere arritzen burutu digun lanak.

1) *Poesi-lurraldeak* aztertuz ta aren poesi-gunera urrera-tu naiez, iru lurralde aipatzen dizkigu: *maitasuna*, *gaztaroa* ta *igarokortasuna*. Olerkarien artean maiz erabilia digu maitasun-gaia, Maitagar baita eiztari, giza-biotzak zauritzen dituna; eta zauriak poza ta negarra ekarten. Maitasun billa dabil Lauaxeta, itxaropenez galñezka; ez du maitasun leial-ezik nai, onakoa jostorratz zorrotz antzera baita sartzen barne-barneralño; leiala ta garbia opa du, «gizazko garbitasun gartsua». Onela dabes:

«—Neure begiok dira gaba baxen baltzak:

Maltasun-zalez dakart bijotzeko suba.

—Lora baltzak edurtzan bildurgarri yataz;

begi orrein ditzira eriotz-mosuba.

Maite eziña, betiko neugaz lotu zaitel!»

«Beste poesi-lurralde bat gaztetasuna edo *gaztearoa* da —diosku Arostegi'k—. Eta esan lei berau dala lurralderik za-balena, bearbada beste guztien erdi-erdia, bere poesiaren itur-burua. Maltetasuna ta bizitza guztia gaztetasuna-zear ikusten ditu». «Gaste ule baltz gara», bere deadarra. Itxaropena gazta-roari dagokion zabalgurena da. Goiak eragiten dautsoe bere bizindarrari; argia da bere arnasa». Aberria ta askatasuna ere gaztearoaren inguru kokatzen ditu:

«Gastedi orren didarra
bai dala didar zolija!
Aberri baten samíñez
urduri dabil errija».
«Dana emon biar yako
maita dan azkatasunari».

Olerkariak maite dituen gauzarik asko, ala ere, igesi doaz igarri gabe. *Igarokortasuna* dugu, beraz, Lauaxeta'ren irugarren poesi-lurralde. Beste gaiak ere emendik artzen dute, erdi-irikiz, beren poesi-mugagetasuna. Eta emen dio: ez omen diola izadiaren maite-bularrak kentzen barne daraman arantzearen miña, ezta barruan ozka dabilkion kezka nagusia, burruka...

Edu onetan amaitzen du: «Iru alde oneetan batez be susmatu eban bere poesia Lauaxeta'k. Oradn, ez litzakez iduritu bear alkarren ondoan, bananduta legez. Ikus-sentipen baten iru neurriak dirala esan lei, edo, obeto, margo bakotxeko iru leiar garden, alkarren gañean ipiñiak. Gitxi gora-bera danak dagoz danetan, eta bakotxean batak edo besteak indartzen dau beste bien gañetik bere margo zeargia. Ikuspegiak, bakar arturik, ez dau garrantzi askorik erakusten. Mendi, baso, ibai ta zugatzak, itxaso, odei, zeru ta abar, naiko eurrez darabilz, baña geientan, ia beti, giza-inguruan».

Naiz-ta laugarren lurralde bat egitera ez eldu, Lauaxeta'ren poesia *jainkozkoa* ere bada. Ugari ditu onakoak. Eta Arostegi'k: «Baña neurtitz oneen ederra ain zuzen be «zearkako» izaerara makurtzen da. Jaungoikoa baño, bere kezka edo billaketa edo baitaezko dirdaia da euren poesi-muiña». «Sozial» eta aurkako poesi legez, bat aipatzen digu: *Langille eraildu bati* deritzana.

2) *Bideak?* Bere lenengo liburuari, olerkizkoari noski, «Bide barriak» jarri zion; beraz, zador ezkutu ta berriz ibiltzeko asmotan zegoen. Izan ere, antxiñako euskal olerkiaren bide zarrak, erdizka beintzat, utzi ta berrietatik jo nai zuen. «Sentipen-gaiak eta erak» darabiltza len-bilduma ontan. Bigarreanean, oster, —*Arrats beran*— gotuts-gaiak albora utzi ta arin-gaiak

geiago darabiltza; sentipen-giroa, gotuts ez dana noski, emen ere agertzen digu. Arostegi'k: «Leenengora itzuli da, baiña «sentipen» ori iñausi, garbitu ta estutu egin nai izan dau. Neurtitzak eurak be —azala— jokera bardiña erakusten dabe: laburrak, geienetan esanaldia neurtitz bitan esiten dabenak. *Bide-barriak* liburuko leenengo olerkiak, euren bakuntasunean, ez darie bearbada goi-arnas gitxiago, oindiño garbitu ta estutu bearra erakutsi arren. *Arrats-beran* bilduman, ostera, olerki batzuk poesitik naiko aldenduak aurkitzen dodaz; eta neurtitza beti labor ta bardin-antzekoa apur bat ezberzeko ta aspergarri be iruditzen yat».

Sinbolo-poesira jo zigun geienik; aren eles ta edesti soillak, ala ere, «beste zeozer esan nai dabe, eta jokera au, batzuetan batez be, argiegi ta lar naiezkoa be ba-dirudi». Olerki «utsa» ote? «Bearbada zeatzago, olerki oneek «gotuts-olertiari» dago-kioz, ez aln beste «poesi utsari»... «Poesi utsa» giroak bere izate ta mamitzat poesia bakarrik, ez beste edozelango gairik ez eban nai. Olan, poesi beraren ikertze bat zan, ez idazkera bat bakarrik. Baña non dagoan poesi uts ori, non susmatzen edo erdiagotzen dan, au da eztabaltu leikena. «Olerti uts» giroak sinbolo aldean ipinten eban». Liliak eta larrosak, urrea ta zillarra eurrez darabiltza-ta, modernista giroaren aztarnak ere ikusi ditzakegu. Arostegi'k onan: «Modernismoaren azakeriari nago-kio emen. Baña modernismoak, edo obeto onen jatorri-muin dan parnasotar giroak irakatsi eutsozan Lauaxeta'ri bere era lirala ta apañak. Ez da orregaltik parnasotar utsa: bere elestiak beste esanal, goi-bero ta sentimentu batek aldedk aldera zear-tzen ditu».

3) *Poesi bera*. Poesia ezta azaleko zeregiña bakarrik. Lauaxeta'k ba-zekien au. Onela ziñoan berak: «Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz». Txorien egal-otsa ere entzuten du, «bestiak entzuten eztaben egal-otsa» noski; eta txoriok aldatzean uzten dioten abar-dar-darea etzalo aultzen, ondoren geratu baizik. Eta Arostegi'k:

«Leenengo, puntu baten, erdi-erdiko ikus-sentipen erage ta sendar bat; gero, dardara gozo, mintsu ta billatzalle baten zabal-tzea: dardar-zabaltze onetan dator olerkia bere osora».

Dardar sakona. Neguak eta elurteak biotza sakonera biltzen. Nun idoroko erantzuna? Maitearen begietan. *Gaste gexo* olerkian au:

«Mendi-ertzeko gastia arratsak dakar geldiro:
udazken ori barnera sartuten yako leunki-ro».

Sakon onetan bat dagi gizaldietako asabekin. Gaztea joan danean, basoa —asaben oiana— illun ta bakarrik gelditu da:

«Eaña ostroen dardarak eta txorijen txijuak
iñor ez eben idoro alai egiten basuak».

Gaztea aurrera doa, beti arantza. «Ez ete au giza-poesiaren guna bera? Dei bat, baña poetak ez daki nondik noxa: zuzendu nagizu, argi gozo-illuna». Olerkariaren jardunak, aurrera ekitak —aberriaren onerako bereziki— ez dauko azkenik. Soin gaztearen lorea aitu arren, *excelsior!*, beti aurrera.

Poetak gertakizun bat, eta onen muiña, ikusi ta sentitzen du; itzez nai du jantzi beratzat eta besteentzat, zer dan adierazten emanik. «Izate edo gertakizun orrek, aurrez-aurrez agertzen dan eraz, beste zer batera bialtzen dau». Ortarako poetak, sinbalo artean ibilli ta ere, ez du sinbolorik bear, ez du metaforarik bear: «poesiaren benetako sinbolismoa berez-berez gertatzen da».

Azkenez, Arostegi'k onela bere billaketa: «Lauaxeta'k poesiaren dardar au ezagutu ebala nabaritzen dau. Poesia pitxi bakan bat da, eta munduan idatzi ta idazten dan geienak urrundik baño ez dauka aren itxurarik. Ez da orregaltik guztiz alperrikoa, beti be benetako poesiaren susmo edo bidatza da-ta. Lauaxeta bidean joian: poesiaren dirdir batzak zuzentzen eutsoen biotza bere zadorrera.

«Aintzak zabal ditu esku argituak».
«Erri zintzo onek zalndu dagiala
il gintzanen atsa, il gintzanen aala».

Poetaren biotz-agoan erriaren edo gizaki beraren ezkutu mugagea une baten dardaraka indartzen da. Ta olan poeta gizadian ikur edo aztarna bat da. Batez be bere eder-abotsa odol ixillean amaltzen danean».

(Ikus J. Aitzol, *Eusko Olerkiak*, 1930, eta *Bide Barrijak*, bi itzaurretan; Orixe, *Euzkadi*, 1931-11-29, 1 orr., ta 12-8, 1 orr.; Lizardi, *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3 orr.; Jautarkol, *Euzkadi*, 1935-8-29, 12 orr.; S. Onaindia, MEOE, 656 orr.; L. Mitxelana, HLV, 146 orr.; L. Villasante, HLV, 339 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 126 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 163 orr.; Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*, 120 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 224 orr.; Auñarnendi, *Literatura*, III, 197 orr.; Luis Arostegi, *Olerkiak*, 1974, 19 orr.).

40.—BATU AUEK ERE

Aitatutakoez galñ, alnbat liburuxka azaldu ziran garal ontan Bilbao'ko, Zornotza'ko ta Durango'ko irarkoletan batez ere, batzuk egillearen izenez eta beste asko iñoren izenik gabe.

—*Arri-Gurutz*, edeskia (Zornotza, 1924). Iturrondo'tar Jon'ek: idazle ugari samarra. Liburu ortan bertan dator Arburu'tar Todor'en *Otso zarraren orrua*.

—*Banco Agrícola Comercial eta Diru-Aurreztutia* (Bilbao, 1921). Jesus Alvarez'enean. 32 orrialde.

—*Wuhu'ko Egutegia*, 1934 (Wuhu, 1933). Belgundarien irarkolatxoan. 30 orrialde.

—*Kristiñau-Ikasbidea* (Bilbao, 1932). Lenengo ta bigarren malllea. Irakarkola Elexpuru. 39 orrialde.

—*Maria-ren Debotoaren Astea* (Durango, 1907). Erredentore guziz Santuaren Misiolarien Kongregazioko Aita batek

prantsesez esribitua, eta E. C. eta A.-K. gaztelaniara itzuli zuafi Laugarren argitdditik euskeraratua euskaldun batek (Damaso Bernaola ote dugu?). F. Elosu'renean.

—*Jesus Seña'ri Zortziurrena* (Zornotza, 1918). J. Z. irarkolan. 32 orr.

—*Deun Antonio Abata'ren Bederatziurrena* (Bilbao, 1918). J. Alvarez'nean. 13 orr.

—*Geure Aita S. Franciscoren Penitencijaco ordeniaren Catechu eta Erreglia*, Fr. G. de N-ec argitaratuten dau Vizcaico eusqueran (Durango, 1897). Elosu'renean, 28 orr.

—*Izurza-co San Nicolas Eleizaco umechuen Dotriñaraco Cristiñau guztiac aquin bear dabezan jaquingarrien bear-bearrecoenac* (Bermeo, 1943).

—*Jesus Aurraren Sorora Terese'txo Zoriondunari Bederatziurrena* (Zornotza, 1925). Jesus'en Lagundiko A. batek egiña Gazteiz'ko «Seminarium Conciliare»-ko kardaberaztarrak euskeratua. J. Z. irarkolan.

—*Eukaristi-Ostegunak — Len-Anaidi Nagusia*. Zer dan eta Araudi-otoiak, Zaragoza'ko Zuzentzalle Nagusiaren aginduz euskeratua (Bilbao, 1933). Verdes-Atxirika'renean. 16 orr.

—*Kristiñau-Ikasbidea* (Zornotza, 1921). Gazteiz'ko Elizbarrutirako Jaungoiko-Jakituriaren Irakasle-Batzordeak atondua, iru maillatan. Bizkai'ko euskeraz. 2'gn. argitalpena. J. Z. irarkolan. 120 orr. Gero ere ixillean egin ziran beste batzuk, agirian ezin zirdako. Zirilo zanak argitaratu zuen irugarrenez (Bilbao, 1957), «Uzkurtz-Irakurgayak» saillean. Graficas Record. 120 orrialde.

—*Asis'ko Aita San Frantzisko Serapiña'ren Bederatziurrena* (Durango, 1913). Lenengo G'rdeak (Zuzenbideak), Aita batek egin ebanetik Aita S. Prantzisko'ren Irugarren Zuzenbideko seme elekgizon batek artutakoa. Elosu'ren irarkolan. 51 orr.

—*Cristiñau-Dotriñea*, bere esplicaciño laburragaz, itaune ta erantzunecaz (Durango, 1914). Elosu'renean. 56 orr. Busturi'rako abade jaunen aginduz. Lenago ere (Gernika, 1893) argitaratua izan zan Antonio Egurrola'ren sellutegian. 80 orr.

—*Karmelo'ko Ama Birjiñea'ren Oñetan Amabost iroiren (miñutu) eta Karmelo'ko Ama Birjiña Deun-deunaren Ikustaldija*, Biotz Deunetako Ludobiko, karmeldar Oñutzeko Abak erderaz egiña, bizkaieraz (Zornotza, 1918). J. Z. irarkolan. 32 orrialde.

—*Jose Deunari Bederatziurrena ta Saspi Domekak* (Durango, 1918). Elosu etxeak argitaratua. 48 orr.

—*Andra Marija-Sorkundia'ren Bederatziurruna* (Bilbao, 1918). Elosu etxeak argitaratua. 48 orr.

—*Andra Marija-Sorkundia'ren Bederatziurruna* (Bilbao, 1913). Bizkaiko Abade bazkuniak. Grijelmo'ren Alargun eta Semien irarkolan. 20 orr.

—*Elenetxu ta Umien Lenengozko Jaunartza* (Bilbao, 1912). Grijelmo'ren irarkolan. «Euzko-Deya»-k argitaratuta. 31 orr.

—*Aita San Franziskoren Irugarrengoztat Eleiz-Kantak* (Zornotza, 1919). Zarautz'eko Aita Frantziskotarren komentuan. J. Z.'ren irarkolan. 31 orr.

—*Irurruna, Berrio-Ochoaco Valentin Zorionecuaeren ondran*, Aita Santo Domingo-ren ordiacua, Centuria-co Aphespicu edo Obispua ta Tonquin-Centrd-eco Vicariyo Apostolutarra. Erandu eban erderaz Arriñano-co Aristides jaun argitsuac ta biurtu eusquerara Garita-Onandia-co Balbino Durangon Santa Ana-co arima jaoliac (Bilbao, 1906). Erderaz ta euskeraz. Jose Astui'renean. 55 orr.

—*Mendi'ko Joseba Deunaren Gurkun eten-bakua eta Bazkun Gogozkua* (Bilbao). Verdes-Atxirika'renean. 14 orr.

—*Maria'ren Alaben Ikustaldia euren Ama orban bageari* (Zornotza, 1929). J. Z.'ren irarkolan. 13 orr.

—*Aita San Frantzisko'ren Irugarren Ordenako Erreglia eta Induljentziak* (Durango, 1911). Bizkaieraz. Elosu'renean. 29 orrialde.

—*Deun-Andoni Gastiari egiteko Bederatzi-urruna* (1898). Bizkaitar batek. 39 orr.

—*Eleiz-kizunetarako Kantak* (Bilbao, 1905). Miserikordiako moldagintzan. 38 orr.

—*Ama Virgiñiaren Concepciño guztiz garbi ta mancharen arian bagaco*. Nescatillentzat, euren Visitetaco Escu Liburuba (Bilbao, 1902). J. Astui'renean. 31 orr.

—*Misiño Santuetarako Abestiak* (Zornotza). J. Z.'ren irarkolan. 20 orr.

—*Gurutze-Bidea*, bertsoz eta itz-lauz. 20 orr.

—*Errosario Santua errezatzeco modm*, bertsoetan. 20 orr.

—*Eguiquera Onerazcoac, gorde ta gueituteco Misiño Santuen frutua* (Durango, 1882). J. Eleizalde'ren irarkolan.

—«*Jaungoiko-Zale*», *Bazkide-ixendegia* (1931). 990 agiri dira guztiz.

—*San Antonio Urquiolacuari Bederatzi-urruna*. 40 orr.

—*Zorundun Berriotxoar Balendin'en Bederatzi-urruna* (Bilbao, 1912). Jose Alvarez'enean. VII-23 orr.

—*Lekeitio'ko Andra Mariari Bederatziurruna* (Bilbao, 1931). E. M. ta R. M. Azkue Lekeittar AitarSemeak egiña. Editorial Vasca'n. Lekeitio'ko Andra Mariari eresiak (R. M. A.).

—*Aita Agustin Cardaberaz Jaincoaren serbitzari andiaren Berri laburrak, Apaiz batec eusqueraz jarriac* (Durango, 1908). F. Elosu'renean. 66 orr.

—*Kistar Irakaskintzia. Zabalkundia. Euzko-Jaupari-Bazkunaren Arautegija* (Bilbao, 1914). J. Alvarez irarkolan. 23 orr.

—*Gabonetako Kantak*, Gernika-n eta albo-errietan kantetan diran lez (Gernika, 1951). Gaubeka irarkolan. Marijesa-sailla duzu.

—*Kristiñau-Ikaskizuna* (Bermeo, 1947). Lenengo mallla. Gaubeka'ren irar-etxean. Jose Etxeandia ta Beaskoa'rena duzu. 32 orr.

—*Cristauaren Dotriña eguiazkoa*, Aita Ripalda eta Aстетec ipiñia, eta Aita Angel Maria Arcos, Jesusen Lagundicoac berriro ikustaldi bat eman eta gueitua erderaz, eta apalz euscaldun batec eusquerara biurtua (Durango, 1905). Gipuzkeraz. F. Elosu'renean. 145 orr.

—*Segur Jaunac* *escribitu duan Comunio Santua; jesus-en Lagundico Aita Luis Maria Ortiz-ec Eguneroco Comunioa* (Durango, 1906). F. Elosu'renean. 121 orr.

—*Kristau-Bizitzako Oiturak*, Arantzazu'ko Frantziskotarrak euskeratua, Bilbao'ko A.S.C.E.A. (Bilbao, 1932). «Practicas de la Vida cristiana», euskeraz. 55 orr.

—*Cristauaren Gordairua edo anima salvatzeo sinistu eta eguin bear dan gucia hitz bitan*. Solsonaco Obispaduan Vicario izandaco batec erderaz escribitua eta **D.** Tomas Eleizalde Vergaraco San Pedroco Coadjutoreac euscaldunen oneraco eusquerara itzulia (Madrid, 1878). «Propaganda Católica» deritzan irarkolan. 64 orr.

—*Loyola'tar Iñaki Deuna* (Bilbao, 1929). Norbait'ek (Ganduren'dar Kepa). 14 orr.

—«*Bruño Idaztiak*»: *Zenbakizti — Lengaien ikastia*. (Bilbao, 1933). Ikaslearen Idazria. «Euzko-Ikastolakoak». Grijelmo'ren irarkolan. 258 orr.

—«*Bruño Idaztiak*»: *Lege Zarra eta Lege Berria* (Bilbao, 1933). «Euzko-Ikastola»-k baletsia. Len-argitaldia. Grijelmo etxean. 84 orr.

—*Gizarte-Ikasbatzak* (Bilbao, 1934). Zuzendari: A.V.A.S.C.

—*Ama-entzako Liburucho osasungarria* (**Durango**). F. Elosu'renean.

—*Psalterium Carmelitanum (Eleiz-Abestiak)*. Larrea'ko karmeldarrak argitaratua. 36 orr.

—*Manual vascongado* (Bilbao, 1963). Migel Larunbe'ren irarkolan. 340 orr. Erroma'ko **R**itualak dakazkin bezela Eliz-Sakramentuak emateko era duzu, euskeraz ta latinez zatitxo batzuk. Bizkaieraz.

—*Eleiz-gaztedien Abesti-txorta* (Zornotza, 1934). J. Z.'ren irarkolan.

—*Elex-abestijak, Bizkaiko euskeraz* (**Durango**, 1909). F. Elosu'renean. 116 orr.

—*Eliz-Abestiak* (Zornotza, 1925). J. Z.'ren irarkolan. 743 orrialde. Donosti'ko «Aegia»-ren argitalpena.

—*El euskera o el Baskuenze en 120 lecciones* (Bilbao, 1896). «La Propaganda» irarkolan. 147 orr. Azkue'ren ikasle batek, au da, Tomas Jose Epalza'k egiña.

—*Erizkizundi Irukoitza* (Bilbao, 1921). Euskaltzaindiak bere erabakiak errotsuago izan ditezten erriari aurkezturiko erizldzun irukoitza: I. *Itzen otsa* (cuestionario fonético); II. *Itzen erabidea* (cuestionario morfológico); III. *Itz batzuen erabilkera* (cuestionario lexixografico). Euzko-Argitaldariak. 40 orr. Azkue'k eratua da.

—*Deun Erroka'ren Bederatziurrena* (Zornotza, 1918). J. Z.'ren irarkolan. 16 orr.

—*Mariya Jaungoikuaren Ama bere vijotz guztiz santa eta garbico cojradiyan sarturic dagozanai, eta cristiñau guztiyai emoten deutsezan iracatsi ta consejuac* (Bilbao, 1862). Bermeo'ko abade jaun Luis Etxebarrieta eskatuta Aita J. A. Uriarte'k euskeraz ipiñiak.

—*Euscaldunen Eliz-Cantac* (Bilbao, 1906). Villar'ek. 143 orrialde.

—*Euzkelduna'ren jakinbiarrak* (Bilbao, 1932). Zabalgunde-ingorrija, laugarrena. 4 orr.

—*Gogalben-Erakasbidea* (Zornotza, 1923). Roothaan A. Juan jesuitarena, Larrea'tar Nikasi apaizak euskeraz. J. Z.'ren irarkolan. 82 orr.

G i p u z k o a

1910-1935

«Zortzigarrenez bilduko da aурten (1954), Biarritz, Ustaritz eta Bayona'n Eusko-Ikaskuntza-Batzarra; «Erriarteko Uda-Ikastola Nagusi», «Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea», «Eskualzaleen Biltzarra» ta beste zenbait elkargoen itzalpean.

«Andikiro asi ziran Oñati'n, 1918'garreneko urtean, ikaskuntza batzarre auek. Arrezkero Gernika, Iruña, Gazteiz, Bergara ta Donosti'n egin ziran. Españiko gudua sortuz geroztik, bat baizik ez da antolatu, eta bera Biarritz'en. Ango batzarra izan genuen azkenengoa. Eta orain, berriro, aurtengo udaroan, aipatu batzarra bilduko da.

«Oñati'koak beste guztiak baiño aipu aundiago iritxi zuen, lenengoa izanez, ondokoetan baiño zintzoago, benetako Eusko-Ikaskuntzen alde iokatu zuelako. Bilkura artan beñipeiñ gure erri ta izkeraren onerako ziteken zerbait sortu zan, ots, «Eusko-Ikaskuntza», zabalgo ain aundia iritxi zuen elkargoa, ela «Euskaltzaindia», euskera zaitu ta aldezteko euskalari iakintsuen bilkura. Gernika'koa ere ikusgarria izan zan; ez zuen ordea, ukan Oñati'koaren gorarik. Arrezkerokoak, lenengoaren itzal iñul bat baizik ez dira izan, eta euskal-ikaskuntzetan erabat antzu».

(Zaitegi-Plazaola'tar Jokin)

LABURPEN

Itz idatziaren obe-aldi! Literaturaren aurrerakuntza! Zer adierazten ote dugu onekin? Ez da esan bearrezko; baiña, beti eder argiaren dirdira.

EUSKAL KULTURA.—Enparauak utzirik ere, itzaren kulturari gagozkiola, euskeraren mailla auk sartzten ditugu gure literatura barnean: saio, olerki, nobela, antzerti; au da, literatura bere idaz-mota guztietan.

Ori da, izan ere, edesten gabiltzan aroan etengabe landu zana: euskera bere mailla guztietan, elerti-sail oro aztertu ta edertuz. Orduko idazleen kezka, xedea: gure izkuntza zernaitarako egokitu. Orren ondoren, idazleok beñik bein, zokoan utzi oi genitun gaiñerantzeko egin-kizunak.

Gisa orretan bultzada galanta eman zitzaion euskal kulturari, naizta gero urte mordoan porrot egiñik ixillik egon bearra izan. Mota guztitako liburuak atera ziran, eliztietatik asi ta gai sakonenetarikoeta-raiño: ordukoak ditugu, ez aiztu, Aita Jauregi'ren PISIA ta KIMIA: berrogei urte igaroak izan arren, ezta oraindik alako Iibururik azaldu, gai ortan beintzat. «Bruño» idaztiak euskeraratu ziran, ikastetxe ta eskoletan euskera sartu ta erabilli zedin.

ELERTI GUREN.—Aundi ta txiki ba-dugu idazlerik Gipuzkoa'n ere, aldikada artan. Aundi ta txiki diñot, eta ez dago gaizki, bestelakotasun au, koloreetan nabardura ta soiñuetan eres maila lez, polito jausten da-ta. Kolore bat berak, luzaroan, gogait eragiten digu, berebat doiñu berdiñak ere; eder zaigu, ordea, jardun sotil neurritsua. Berdintsu literaturan ere, noizik bein arnasa ar dezagun ere, ederki datoz gurenen artean ñimiño batzuk.

Gipuzkoa'n danetik dauzkagu garai ontan. Idazle punterengoak or Orixe, Lizardi, Loramendi, iru baiño ez aipatzeko. Euskal literaturan auek duten gurentasunik eztu oraindik —ai, bestelan ba'litz!— iñork iritxi. Lizardi'k etzuen askorik idatzi; ezta Loramendi'k ere. Orixe'k, bai, asko esan dezakegu, itz askatuz ta neurtuz.

Bizkai'tik ba'zetorren ere eragin gartsua, nun-nai nabari zan euskal dardara edatua, ta Gipuzkoa'n ez ditugu irrintzilari ozkil melingak, iru aipatuekin batera, Intzagarai, Eizagirre, Oiartzabal, Aitzol, Ira-zusta, Markiegi anaiak, eta abar.

ITZAREN KEMENA.—Itzaren kulturak, esan dugunez, berein sail ditu barnean artzen: teatru, bertso, olerki, irakurgai, saio. Gai guztiotan landu ziguten zerbait aro artako idazleak.

1) *Teatrua*. Jolas, dantza, itzaldi ta antzekoen artean erriak antzerkia ere maite duela-ta, antzertiari ere leku zabala eman zitzaion gerra aintzinean. Or Lizardi, Markiegi, Amonarriz, Eizagirre, Barriola... beren lan ederrakin.

2) *Bertsolariak*. Gaurko erri-kantariai ezertxo kendu gaberikan, lengo aiek ere ba-zuten arnasa ta sua. Aiek gizakume saillak, erri-ertia bera ziran koplari zoliai entzuten zioaztenak!

3) *Olerkariak*. Egundokorik onenak, gorago esan dugunez: Lizardi, Orixe... ta auen ingurukoak.

4) *Irakurgaiak*. Saio, nobela ta abar, guztiak dute zerbait. Aldarte onez, gatz eta ozpiñetan landuak geienak; iñoiz ere ez ditugu purtxil, ez marxar.

5) *Izlariak*. Sarritan beintzat, aro bakoitzeko noraez ta bearkizunak osatzen du gizona. Gure gizaldiak izlari trebeak bear zituen, abertzaletasuna ereiteko ala ere, ta or Mikel Urreta, izlari erne ta errikoi; or I. Artetxe, mediku ta izlari bikain; or P. R. Barrena, J. Aitzol eta A. Onaindia, ezker naiz eskuma, iñoren aurrean aalkez ta zer-esanik gabe sekula gelditu etziranak.

1.—ERRAMUN INTZAGARAI BASTANARENA
(1878-1947)

A. Zugasti apaiz idazleak onela margotzen du donostiar langille au: «**D. Ramon** zer zan, nolakoa zan? Gizona zan: atsegiña, argia, apala, gizartekoa. Ba-dakizute: gizonak, batzuek gizonak izan oi dira, ta beste batzuek gixonak. **Don Ramon** gizona zan, itzaren betekoa, eta gizona, beste zera oiekin guztia-kin ornitua. Eta apaiza zan, apaiz ona. Gizona, itzaren betekoa, oñarri zuala, apaiza ere ona, jatorra, zintzo, itzaren betekoa. Ortaz gaiñera, langille purrukatua» (*Euskera*, 1971, XVI, 91 orrialde).

Donostia'n lurreratu zan Intzagaral, 1878-11-21'an. Gazteiz'en ikasi zituen apalz-karrerako galak oro, Jakintza ta Ur-tiziria batez ere. 1902'garren urteko bostgarren astean artu zituen ordena txikiak, eta 1903-12-26'an Burgos'ko Gongotzai zan Gregorio Maria Agirre'ren esku-ezartez apaiztu zan. Ondoren Altza'n kapellau ta egon zan, baiña bere bizitzako urterik geienak Donosti'ko alderdi zarrean, San Bizente elizako apalzburu urgazle eman zituen. «Goizean bere San Bizenteko —dio Zugasti'k— lanak zintzoro egin, eta gero lanari ekiten zion, buru belarri. Bere etxean lenenik, eta gero, Etxe ontako (Diputazioko) liburutegian, batipat. Orain irakurle asko biltzen da liburutegi ontan; orduan bi izan oi ziran, noski, ia egunero liburutegi ortara joaten ziranak: **D. Julio** de Urkijo ta **D. Ramon** Intzagaral. Biak, bakoitza bere lanera: liburu bat artu, ta papera ta lapitza, ta... irakurri ta idatzi» (*Loc. cit.*, 91 orr.).

Gizaseme xalo, ikasi ta aitua —prantses, gerquera ta doitzera ere ba-zekizkien—, euskal izkerari gunak atera zizkion itzurren, joskera, esaera, aditz-joko, gramatika-puntu ta olakoetan batez ere. Izketan zorrotza, ta ortz-artean beti irripar alai. Eder zitzaion Donosti'ko alderdi zarra, ta ango izkera, esan zar eta gaiñerakoak, al zuen ala, jaso oi zizkigun: lore-ziririk lore ziri gai-billa egaztu oi dan erle eragiña zirudian. Edesti-griña ere ba-zekarren barnean bolbol, eta denboraz Donosti bere sorterriak merezi zuen lakoxe kondaira, eliz aldetik beintzat, osatuko zigun. Bai, ba-zekien Erramun'ek eskuetakoko atzak nun zeuzkan.

Euskaltzain osoa izan zan, 1919-9-21'an aukeratua. Elkargo ontan aski lan egin zuen: 1926'an B. Etxegaraik Euskaltzaindian sarrera itzaldia egin zuenean, Intzagarai'k erantzun zion (*Euskerak*, 1926, 124-135).

Donostia'n il zan, 1947-11-29'an.

EUSKAL LANA.—Idazle onen lan osoak bilduz, aillagiñako idazri mardula osotuko genduke. Oparotsu benetan Intzagarai, ipuin, olerki, kondaira puska ta antzekoetan batez ere. Idazle leun, goxo, ariña, Euskeraz irakasten ere alegindu zitzaigun, Donostia'ko «Circulo Integrista»-n berariz. Politikan izango zuen noski bere aburumena, baiña iñoiz ark naiz onek zirikatu arren, etzuen egundo idatziz ez itzez barnean zeukanik azalera-tzen: Donosti-zarra, beñiola ainbat burruka ta liskar ikusia bezain ixilla zenun.

A. Zugasti'k: «Intzagarai, apaiz jaunak, euskera-alde egin zituan lanen berri osoki eman nai duanak, nal ta ez, *Argia* aita-tu-bearra dauka: 1921 urtetik 1936 urteraño ain lan bikaña egin zuan *Argia* asterokoa» (*Loc. cit.*, 94 orr.). Urte ortan *Argia* sortu zutenak, auek izan ziran: Anbrosio Zatarain, Bitor Garitaonandia, Gregorio Muxika, Jesus Karrera ta Erramun Intzagarai. *Argia*-n agertu zan lenengo lana, *Agur* zeritzana, Intzagarai'k idatzi zuen; baita gerora ere, *Astea* zeritzan len-

atala beti idatzi oi zuen berak, eusko umore onez pipertuta idatzi ere. «Elurmendi» ta «Donosti» erabilli oi zizkigun izen-ordez.

Liburu auek argitaratu zituen:

1) *Kulubix* (Euskal-Erria, 1911). Irakurgai bizi-bizia, arrantzale girokoa.

2) *Antzeki Zarra* (Euskal-Erria, 1911). Irakurgai donostiarra, ixtori-kutsukoa.

3) *Ipyyak* (Donostia, 1922). 104 orrialde. Euskeratuak izan arren, oso politak dituzu ipuiok, euskera goxo-goxoan idatziak.

4) *Kontxesi ta Petratxo* (Donosti, 1918). Neskatillentzat alkar-izketa. DGNostia'ko Koro deritzan Andre Mariaren Ikastetxean sariak eman ziran egunean (1918), lendabizikoz emaniko antzerkia. «Euskal-Erria»-n (1918), bigarren sei-illabete-koan dator,

5) *Etxegarai'tar Bonifazio euskalzain berri jaunaren itzal-diari... erantzumena* (Euskera, 1926, VII, 124 orr.).

6) *Muñagorri Kantak* (RIEV, 1933, XXIV, 412 orr.).

7) *Historia eclesidstica de San Sebastidn. Introduccion e indices por Fausto Arocena* (Donostia, 1951). XVIII-518 orrialde. Gipuzkoa'ko Aldundiak argitaratuta.

Aldizkari auetan idatzi zuen, itz-lauz ta bertsoz: «Euskalzale», «Euskal-Erria», «Euskal Esnalea», «Argia», «RIEV», «Yakintza» ta abar.

OLERKARI.—Idazle bezela naiko txalo beregandua dugu Intzagaral. Euskal sustraietan ikasi zuen zerabillen izkera, ta orrelaxe utsitu zigun, errotik xurgaturiko euskera goxo mar-goztuan, bere barrua. Ikasle zala asi zan idazten: Bilbao'ko «Euskalzale»-n (1899) argitara zituen: «Txoriak», «Gurutzearen mesedeak», «Enarak», ta «Uxo zerutar bat», Aramaio'ko euskal jaietan sariztatua azken au.

Aitor dugunez, aski idatzi zuen. Neurtitzetan batez ere. Idazle bizi-bizia dugu. Ona aapaldi au «Donosti-atalak» deritzanetik artuta:

O Pixepel!...
Kayeko kale medar, itzal,
kopet-goibel!...
Ikus litezke or ugari
kolayo zarrak, leyoari
erantsi-eta, itzetik zintzili,
zintzurki latzaren txastari.

Begietatik sartzen digu nolako itxura duen kai aldeko kale orrek, itxas-ertzetako uririk geienetan bezela. Gaur ba ote dugu olerkariok ainbesteko zorroztasunik? Ez ditzagun, beraz, gutxietsi lenagoko koplakariak. Toki ta garai, askotan irakurriko dituzte noski, agerian eraka, donostiar jakintsu onen asmo-lanak.

Aro artako sariketa askotan izan zan garaille. 1901'an, esaterako, Azpeiti'ko euskal jaietan Lore-jokuetarako 32 lan artu ziran: len-saria **R**. Intzagarai'ren «Umezurtzaren negarrak» eraman zuen. 1903'an Segura'koetan, berdin, bere «Ama Birjiña Guadalupe-koari» sariztatua; 1906'an Donosti'koetan, 1908'an Eibar'en, 1909'an Ernani'n, 1910'an Azkoiti'n, 1914'an Ondarrabi'n berdintsu, sariak jaso zizkigun.

Euskal baratzeko zirkin eta zeregiñik beroenetan, an zegoen **R**. Intzagarai: **RIEV** aldizkaria (1907-1936) sortu zanean, **ARGIA** sortu zanean bezelaxe, an zegoen bera, beti laguntzal-ue zintzo. Euskaltzaindiko lanetan, ez dugu zertan jardun edo akiorik egin.

(Ikus *Esku-egundiya*, 36 orr.; F. Arozena, *Introduccion a la «Historia eclesidstica de San Sebastián»*, 1951; *Yakintza*, 1933, 419 orr.; A. Anabitarte, *Euskera*, 1953, 40 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 778 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1962, 144 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, 1965, II, 164 ta 169 orr.; *Kardaberaz Aitari omenaldia*, 1971, 130 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 101 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 284 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 387 orr.).

2.—BONIFAZIO ETXEGARAI KORTA (1878-1956)

J. Artetxe'k gisa ontan: «Langille zeatz eta aspergaitza; eta gogai-txarteltegi zabal baten jabe, Bonifazio idaztitegiko morroi eragiñena ere azpiratzeko bestekoa bait zan. Larrantez ezin-nas-tua zeukan. Matxar, artega, sudur goi-luze, leun, zorrotz, orratz gaiñean bultz-indarrez ipiñitako izakia zirudian. Surpekoa lengo erara, adar meeakin, berdintsu adi-erazkortasun berezia zuten esku batzuen berezko elbide ematen zuen. Eskuak oso lirain zijoazkion surpekoaren adarretara. Mintzatzaille goxo, oi ez bezela bizia, asko ere asko itz zegin keiñuz» (*Camino y horizonte*, 85 orr.).

BIZITZA.—Zumaia'n jaio zan 1878-6-5'an. K. Etxegarai'ren anai txikia. Biok guztiz langille, xalo ta argiak, norbere burua maiterazten dutenak. Donostia'ko Institutoan egin zituen gure **Boni'**k len-ikaskizunak, geroago Madrid'en, Eskorial'go Augustindarren Maria Kristina Ikastetxe nagusian, Eskugoa ikasirik. Gernika'n daukagu andik laister bere anaiarekin, Udaletxeko epaikari dala. Alere, gorago jo nai zuen eta, 1904'an, nor-geiagoka, Sevilla'ko Auzi-etxe nagusiko Idazkari kargua irabazi zuen. Caceres eta Oviedo'n egon zan gero zati batean; baiña, 1910'an, Madrid'eko Goi-Auzi-etxeko idazkari-orde izendatu zuten, andik gero, gutxik baiño lortzen ez duten Laterri-salokora aldatua izanik. **Bere** eriotzararte iraun zigun Idazkaritza kargu onetan.

Durango'n il zan 1956-12-24'an. **Bere** gorpuari, ostera, Gernika'n eman zioten lurra, antxe eorztega gura izan zuen eta. Il ondoren ere, Aritzari indarra eman nai zion. Onela abestu bait zuen antziña:

Gernikan dago aritza euskaldun denena,
eta gure biotzen gauzarik maitena;
aritz txit santu onen aundia **da** omena,
au gordetzeagatik egiñ zagun lana.

Gernikan aritz cri beti da altxako,
zergatik ez diogun erortzen lagako;
naiz arbola santua balitz eroriko,
gure odolarekin genduke altxatako.

«Beri-beti euskaldun» deritzan olerki au, 1894'garren urtean Donostia'n egiñiko euskal jaietan saritua izan zan (*Euskalzale*, 1898, 229 orr.).

IDAZLE.—Ezkondua zan, beraz lanari ekin bear bizitzan aurrera egiteko; porrot egin nai ez baldin ba'dugu, orixe baita guzticn zoria. B. Etxegarai'k, orraitio, bere ogibidetik landa ere, ba-zuen eperik lumari ugera kenduz idaztiak osatzeko. Orduko aldizkari askotan dauzkagu bere lanak. Eta zernaltako lanak gogoko izan arren, euskaldunon eskugoa (eskubideak) zan batez ere benetd<o poza ematen ziona. Baita eusko edesti ta enda (etnoloji) gaiak ere atsegin zituen. Labur: euskeraz ta erderaz idatzi zigun.

Ona lendabizi erderazko idazti batzuen zerrenda:

1) *Cuadros* (Eilbao, 1900). Fermin Herran'en Biblioteca Vascongada'ko XLV'garren alean dator.

2) *Aqui fue la Arcadia* (Donosti, 1914). Euskalerriaren Alde'n dator, IV, 687 ta 722 orrialdeetan, zati bi.

3) *El Proceso y Aspectos juridicos de la Zamacolada* (Bilbao, 1921).

4) *La vida civil y mercantil de los vascos a traves de sus instituciones juridicas* (RIEV, 1922). 271 orrialdean,

5) *Significacion juridica de algunos ritos funerarios del Pais Vasco* (Donostia, 1925).

6) *Estudio juridico de los contratos entre los copropietarios, patronos, tripulantes y fagoneros* (Donostia, 1925). «Asamblea de Pesca maritima Vasca»-n dator.

7) *Algunos aspectos relacionados con la patria y apellido de San Martin de la Ascension* (Bergara, 1928).

8) *La vecindad. Retaciones que engendra en el Pais Vasco* (Donostia, 1933).

9) *Vehiculo lingüístico utilizado para la Enseñanza en el Pcds Vasco*. «Yakintza»-n dator, 1934, 33, 104 ta 194 orrialdeetan batez ere.

10) *El Derecho foral privado* (Donostia, 1950). Biblioteca Vascongada de los Amigos del País bilduman daukazu, 3'garren zenbakian.

11) *Los ritos funerarios en el Derecho Consuetudinario de Navarra* (Iruña, 1951).

Or eta emen, onako beste askotxo.

Euskeraz idazten ere gaztetxo, amabost-amasei urteko zalarik, asi zitzaigun; euskal olerlariak aragitzen, ain zuzen ere. «Euskalzale» asterokoan auek azaldu zizkigun: «Lore maitia!» (1897, 356 orr.), eta «Beti-beti euskaldun» (1898, 229 orr.); «Euskal-Erria»-n, ordea, auek: «Bi txoriyak», «Irakurgai txiki bat», «Gaitz-aldea», «Baserriyan», «Malko bat», «Txori gaisoa», «Euskal Erria», «Euskalduna», «Intza», «Gabon», «Birjiña Maria», «Madalen Larrrdekoaren azken itzak»... Badiu beste batzuk oralndik: «Usantza eta Libertade zarrak», 1894'an Donibane Lohitzun'en aipamena izan zuena, «Su ondoan» Ezpeleta'ko jaletan saritua (Lkus «Euskal-Erria», 1895, II, 298 orr.), «Esku-egundiya»-n (52 orr.) datorren «Gora biotzak!» eta abar.

Bere anal Karmelo ezezik, bera ere ainbat olerki-batzalditan sariak irabazia du. Itz-lautan ere ba-ditu lan batzuk: 1) *Euskaldunak, euskeraz* (Donostia, 1920). 1919-3-19'an itzddia, «Euskal Esnalea»-k argitaratutako *Itzaldiak* liburuxkan daukazu; 2) *Euskal Erriko etxeen izenak* (Bilbao, 1927). Zumaia'ko Udaletxean irakurri zuen itzaldia, eta besteak.

Zoriak trabestu oi dizkigu sarri bizi-bideak; Etxegarai analak, bestelan, berez zekarren leiari jarraiki euskal zelalan lan egin ba'lute, makiña bat gauza eder idatzi utziko ziguten eus-

keraren onerako. Iker-lan edo kondaira barrutian batez ere: Eusko Ikaskuntzak aginduta, Euskal Edestia idazteko genduan B. Etxegarai.

Euskaltzaiña zan 1926'tik. Sarrera itzaldia Zumaia'n egin zuen Erramon Intzagarai'k erantzunik. «Euskera»-n dator berau, 1926, 79 orr.

(Ikua Elias Arrospe, *Euskera*, 1926, 79 orr.; S. Onaindia, MEOE, 386 orr.; *Euskera*, 1956, 331 orr.; Fausto Arozena, BAP, 1957, 74 orr.; Alzarte, *El Bidasoa*, 1957-10-25'an; *Yakintza*, 1933, 49 ta 118 orr., ta 1934, 33, 104 ta 194 orr.; Auñamendi, *literatura*, III, 349 orr.).

3.—JULIAN ELORTZA AIZPURU (1878-1964)

Azpeitiarra dugu zegoen tokitik —urte askoz Gipuzkoa'tik aldun eta Diputazioko buru— euskal jardunetan ainbat lan egin zigun gizaseme ixil ta arretatsu au. Erri-arazoetan karlista zan, bere erria, euskal erria, aspaldi bateko euskaldun jatorrak maite zutenez, maite zuena, alegia.

Gizon argi, trebea. Urte luzez Gipuzkoa'ko Aldundikoa izan zan, baita iñoizka Kortietakoa ere. Aldungo ortatik, beraz, lan ederra osatu zigun erriaren onerako, ta beronen izkuntzaren faborez. 1918'tik berau izan zan «Eusko-Ikaskuntza»-ren buru, ta alkarte onek antolatu zituen lau batzarretan batez ere lan izugarria egun zuen.

J. Elortza'k iriki ta itxi zigun, Bizkai'ko, Gipuzkoa'ko, Napparroa'ko ta Araba'ko Diputazioak alkar artuta, 1918'garreneko irailaren 1'tik 8'ra, Euskalerriko jakitunik jakitunenakin, Espainia'ko Errege Alfontso XIII'garrena ere tarteko zala, Oñati'n ospatu zan Batzar ospatsua.

Batzarra amaitu zaneko itzaldian Elortza'k onela garraxi egin zigun: «Azkeneraiño dirauana gaizkatua da, diote Liburu Santuak; eta au, nor bakoitzari dagokionez uka-eziñeko egia baldin ba'da, zentzu arruntak eskatzen diguna duzu errien aurrerakuntza ta osotasunari begira ere, eta gure errazaren doairik

nabarienetakoa, bere lan-arloetan garaille ateratzen duena nos-ld, kemena ta iraupena elkar txibistaturik sortzen dan lan-doala da, ain zuzen ere. Galtasun onekin, geure izkuntza, kultura ta tradizioaren arlandu zabal gotorrean trinko, geure enda, senti-pen eta aintziñako erri-eskubideen zutoin galñean, Arantzazu'ko Andre Maria ta Loiola'ko Iñaki Deuna babesle ditugula, iaso ta eralkiko degu erri zindo, erri jalnkozale, erri kulturaz jantzi, jori ta zoriontsu bat» (*Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 1919-1920, 960 orr.).

Bigarren batzarra, «Eusko-Ikaskuntza»-k antolatua, Iruña'n ospatu zan 1920'garreneko uztallaren 18'tik 25'ra. Azkenengo egunean, Oñati'n bezela, an zan Erregea batzarrari bere itzaldiz amala emateko; baiña an zan J. Elortza ere, azken aurretik bere itzaldia oguzten. Gure erria kulturatu bear da gauza guz-tien galñean, izkuntzan eta enparau gaietan. Ortarako bide bat: gazteak gertatu, euskal kultura arloan indar guztiz lan egin dezaten bideak erakutsi ta erreztuz (*II Congreso de E. V.*, Do-nosti, 1920, 29 orr.).

Irugarrena Gernika'n izan zan, guztiz entzutetsua, 1922'an. Euskerarekin zer-ikusia zuten gaiak erabilli bear ziran. Batza-rrari asiera ematean egin zuen itzaldia etzan makala izan. Ber-din laugarrenari, 1926-7-25'tik dagoruilaren l'ra Gazteiz'ko Teatru Berrian ospatu zanari asiera ematerakoan egin zuena ere.

Euskeraz ederki zekien. Eta bere euskal lanetatik, beste batzuen artean, auek beintzat ezagunak ditugu: 1) *Batzarra as-terakoan*, Gernika'n egin zuen itzaldia (*Euskal Esnalea*, 1922, XII, 170 orr.); 2) *Itzaldia*, «Lenengo Euskalegunetako itzal-diak»-en datorrena (Bilbao, 1922); 3) *Gipuzkoako Aldundiaren izenean Etxegarai jaunaren euskaltzain sarreran zuzenduriko itz sutsuak* (*Euskera*, 1926, VII, l'go zenbakia, 5 orr.).

Erderaz ere idatzi zuen Udaletxeetako goraberaz batez ere. 1964-2-13'an, Donosti'n itzali zan.

(Ikus *Boletín de la Sociedad de E. V.*, «Eusko-Ikaskuntza», 1918-1936; I. Perez Arregi ta M. Zirikiain Gaiztarro, Donosti'ko «Diario

Vasco», 1964-2-14'an; J. Artetxe, *La Voz de España*, Donostia, 1964-2-14'an; F. Arozena, *Bol. Amer. E. V.*, 1964, 1-2, 161 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 438 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 124 orr.

4.—ANDRES AMONARRIZ (1880-1957)

Tolosarra. Izengoiti auek erabili zituen euskal literaturan, antzerki-lanak firmatzeko batez ere: *A. Larraitz* eta *Amonarriz'tar Ander*. Bazuen onek beste anal bat ere euskeraz idazten zuena: Karlos, Bilbao'ko «Ibaizabal»-era adibidez lantxoak, Tolosa'tik, bialtzen zituena.

Koplak onduten salatu (*Gure Herria*, 1922) zan arren iñoizka, teatru-sallla izan zuen gogokoenik. Eta etzan edozelakoa: 1934'an, esate baterako, «Antzerti» antzerki batzaldian beronek irabazi zigun bigarren saria: Karraskedo Olarra'k lenengo saria bere *Etxe-AJdaketa* antzerkiagatik, eta Amonarriz'tar Ander'ek bigarrena bere *Iturrian* lanagatik (A. M. Labaien, *Yakintza*, 1934, 412 orr.). 1921'an, Donosti'ko Teatru-batzaldian beronen atal biko *Biotz ona* saritua izan zan.

TEATRUGILLE.—Teatrua beti izan zalo atsegin gure erriari. Beraz, gaur ere, dagigun baño areago, indartu, ugaritu ta zabalazi bear genuke. Erri xeak askotan ez du astirik, ez betarik, irakurteari ekiteko, balña batak bestea piztazita, zinera ta teatrura pozik urreratu oi zalgu. Amonarriz'ek ba zekien au, ta antzerkiak, euskaldunari eder zitazlkion antzerki-lanak osatzen alegindu zan. Ona oiatarik batzuk:

1) *Mendibetarren larriyak* (Donostia, 1919). Martin Mena y Comp.'ren etxean. 15 orrialde. «Izarra» antzerki saillean, 4'garren zenbakia duzu. Atal bateko komeria, Mendibe erriak jal egunetan ditun larri ta pozak poliki azaldurik.

2) *Morroj jatorra* (Donostia, 1920). Atal bateko antzerkia. «Izarra» bilduman dator au ere, 9'garren zenbakia.

3) *Egin zak on* (Donostia, 1921).

4) *Naitasunez erein!* (Donostia, 1930). Gregorio Muxika'k erderaz egiña, A. Amonarriz'ek euskeraz jarrita. Komeri labur polita.

5) *Paixiko ta Martintxo* (Tolosa, 1932). L. Mendizabal'en «Antzerti»-n, 7'ren zenbakia. Ume-alkar-izketa.

6) *Ustegabeko poza* (Tolosa, 1933). «Antzerti»-n, 16'en zenbakia. 24 orrialde.

7) *Biotz oneko neskatilla* (Tolosa, 1935). «Antzerti»-n (1935, 15 orr.) dator au ere. Polita. Umeentzako.

8) *Iturrian* (Tolosa, 1934). 20 orrialde. «Antzerti», 26'garren zenbakia. Emakumezkoentzako bakarrik egindako antzerkia bi ekitalditan. «Gaiez, nimiñoa. Nola nai ere jende zearen aokoa izango da noski. Bigarren ekitaldia moteltxeagoa, lenengo baño. Euskera erreza. Maxiatzalleak «xartako» ederrik daramate».

9) *Jesuhisto gure Jaunaren Neke eta Eriotza*. 1934'garrean, Tolosa'ko II'garren Antzerki Sariketan 150 lauerlekoko saria irabazi zuena. «Antzerti»-k onela: «Lan aundia egin du egilleak. Aundia ta txalogarria benetan. Poliki erantsi dio erri-kutsua. Ta ez da gutxi. Nolanai ere ta galari dagokionez lan osotuagoa nal genduke gure Euskal-antzertiari eskeintzeko» (1934, azalean).

Bederatzi antzerki polit, alegia. Ta antzerkile azkar oni bu-ruz, atsegin zait adieraztea, bai noski, euskal teatru kezka joa ibilli zitzalgula. Eta bere lan oien bitartez, gure euskal jendea ez alaltu bakarrik, ezi, erakutsi ta onbideratu ere egin nal zuen.

Aldi bateko «Gipuzkoarra» asterokoaren irasle ere izan zan, Lopez-Mendizabal'dar Ixaak eta Aita Azkoitia prantziskotarra-ekin batera. Ba-zuen, beraz, euskal larritasunaren antsi ta ezin-egona.

(Ikus Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1961, 89 ta 135 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 358 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 155 orr.; Garmendia'tar Jon, *Aranzazu*, 1975, maiatza, 14 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 158 orr.).

5.—JOSE EIZAGIRRE Aiestaran (1881-1948)

Tolosa'n jaioa, 1881-2-4'an. Oñati'ko ikastetxean eta Madrid'en ikasi zuen Eskugoa (Deretxoa) eta onen inguruko beste gaiak. Gizaseme argi ta ona. 1918'an Kortietako alduna izan zan, baita Errepublikan ere Euzko-Abertzale Alderdiaren izenean. Azkeneko anal arteko gudatean, militar auzitegiko buru egin zuen. 1948-1-23'an il zan Donibane Lohitzun'en.

«Eusko-Jaldntza» aldizkarian onela dirakurгу (1949, 384 orr.): «Tolosarra jayotzez eta biotzez. Benetan euskaldun; ziñezko langille; itzun samur eta atsegiña. Idazle garbi, yayoa. Legegizon argi, zuzenbidearen jarraille». Euskaltzale jator bezela, 1901'an «Eskualzaleen Biltzarra» Ondarrabi'n eratu zanean, tarteko zan gure Jose Eizagirre ere.

EUSKAL LANA.—Ondoz ta erroz zekian erabat, bere idaztiak lekako, amaren magalean ikasi zuen euskera, erreztasun izugarritz mintzatu ta idazteko legean jaldn ere. Euskal barrutian lan egin zigun, eta ia sortu zanetik aurkitzen dugu «Euskal Esnalea»-ren batzordean. Mugaz andik, gerrea zio, bizi izan zanean ere, ango «Eskualzaleen Biltzarreko» ta «Gemika» bazkuneko genduen.

Euskal aldizkarietan idatzi zuen; baiña Bilbao'ko «Euzkadi» agerkarian (1913) ta egunerokoan, Donostia'ko «Euskal Esnalea»-n (1916-21) eta Baiona'ko «Gure Herria»-n (1921-22) batez ere. Eder zuen teatru gala. Aldun zalarik, ikastoletan euskera sartzeko ere zentzunez jokatu zigun. 1914'an, Bilbao'ko Euzko-Gastedijak ipuin-batzaldia zabaldu zuenean, Eizagirre' ren «Umientzat» saritua. Orrez galiñera bi lan dauzka argitaratuta.

1) *Basotarrak*. 1911'an Segura'ko euskal jaietan saritu zioten opera liburuxka. «Euzkadi» illabete biñako euzko-ingurtian dator, 1913'ko epailla-jorrailla, 2 orrialdean. Ederki moldatua. Iru atal dauzka, bakoitza lau-bost agerraldikin. Segura'ko euskal jaietan, «Euskalerraren Alde»-k, Gipuzkoa'ko Aldundiaren

aginduz, eratu zuen batzaldira 30 lan joan ziran sari-billa. Len-
gaian opera batentzat ereskaia eskatzen zan; zazpi agertu ziran,
eta beuron artean tolosarraren *Basotarrak* zeritzaiona izan zan
bikaiñena. Onela malkoak: «*Basotarrak* deritzaion ereskaia
egilleak iruditegia zer dan badakiela adiztera eman dualako,
ta iruditeglan egiten dana begietatik eta belarrietatik biotzera-
ño nola sartu erazi litekean erakutsi dualako, geienen iritziz, bi-
garren saria, 125 laurlekoa eman zaio». Lenengo saririk etzan
onartu urrean. Baiña Emeteri Arrese'k bere «Zara»-rekin eta
Jose Elizondo'k bere «Belduba»-rekin 50 laurleko jaso zituzten
bakoitzak.

2) *Ekaitzpean* (Buenos Aires, 1948). Ipuin berria, «Ekin»
etxe argitaldaria aterata, 224 orrialde. Onela berak itzaurrean:
«Euskera galduko ba'litz Euskal-Erria zearo galdua litzakela
ziur ba dakigula, gure izkuntza maiteari iraupena eman nal ge-
nioke; beraz, mintzatu ta irakurri bearrean gera, eta irakur-
tzeko irakurgalak bear ditugu noski. Orregatik, aizkenengo gure
gudate izugarriaren zipriztin beltzak mendi-mendian izkutatuta
dagon baserri bateraño nola iritxi diran, galtzat artuta, «Ekaltz-
pean» deitzen detan ipuinberri au asmatu eta argitaratzen det.
Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezago ira-
kurtzeagatik egintza onen geiena alkarrizketa-eran antolatu det.
Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere
errez antzeztu liteke».

Eleberri onen opalmena bere gurasoal egiten die. «Nere
lenengo itzak —dio— beren magal-besoetan euskeraz esan ni-
tuan; euskera ta Euskal-Erria benetan maitatzen berak erakutsi
zidaten, Goian bitez!»

Irakurtzetik atera dezakegu alxe nolako euskera bizkorra
duen. Garbi, erreza beti. Alkar-izketa bizi-bizia, tarteka oarrak
ere txalro egiñik.

(Ikus *Esku-egundiya*, 74 orr.; *Euskal Esnalea*, 1911, I, 165, 180,
229 ta 236 orr.; *Euskalerrriaren Alde*, 1911, I, 348 ta 568 orr.; *Yakin-
tza*, 1935, 68 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericqs*, 75 orr.; A. M.
Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 165 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III,
289 orr.).

6.—MIKEL URRETA ETXEBESTE (1881-1961)

Illik bezela datzan gure euskera euskaldun guztion ezpanetan berpiztuta, indartsu ikusi nal dugunok, ortan salatu ziran gure aurretikoak bi eskuz txalotu oi ditugu, aspertu gabe. Orretarikoa dugu M. Urreta ere, erriz erri atertu barik eundaka itzaldiak egiña ta idazkortza ere gure izkuntzaren alde beti zortrotz erabilli zuena.

Urnieta'n munduratu zan 1881-7-19'an. Argia, bipilla. Lan-tegi arazoetan guztiz altua; injenieru titulua zeukan, 1903'an lortuta. Donostia'ko Udaletxean ziñegotzi 1913'tilc, eta Gipuzkoa'ko Erki-alduna 1915'an. Oñati'ko euskal Batzarrean esku artu zuen 1918'an. Pasai'ko nasako lanen batzarkide 1934'garrenean.

Donostia'n il zan 1961-11-29'an.

EUSKAL LANA.—Esan dugu, aspertu eziña zan Urreta, euskal galeri buruz. Izlari erne ta erreza, etorri aundikoa: kontaezin ala itzaldi gartsu eman zizldgun Gipuzkoa'ko errietan baltik bat. Eusko-arimari gar bizia ezarri zion, nalz-ta zalaparta aundirik urratu ez; begiko zituen egazti ta abere gaiak, eta erlijioari buruzkoak, eta politika kutsukoak. Txapelketa, salo, baltzaldi nalz beste era ortako billeren bat zala-ta, prest zegoen beti itz egiteko, jaiari nalz billerari zegokion dizdiza erantsiteko.

Luma ere zoli-zoli erabilli zuen, **D**onostia'ko «El **D**ia»-n eta «Agerre» (1925...) illerokoan, eta Bilbao'ko «Euzkadi»-n batez ere, piri-para idazlanak argitara emanaz. Esku artean ba-dut oraln, 1918'an **D**onostia'n egin zigun «Leize-zuloak» izeneko itzaldia. «Euskal Esnalea»-k, artu ere, asmu ederra artu zigun 1918-1-12'an, urtero euskerazko itzaldiak eukitekoa noski. Lenengokoak «Novedades» deritzan antzokian egin ziran, jalgegunez, goizeko amalketan, aretoa geieenez betetzen zala. Itzaldiz gaiñera eresi goxoak eta iztun jardunari zegozkion irudi

agerpen argiak ere izaten ziran. Oietatik aurrena Urreta'tar Mikel'ek irakurri zuen, 1918-4-7'an. Itzaldiaren izenburua: *Edesti-aurrea. Leize-zuloak*. Ederki egiña. Ona zatitxo bat:

«Leize-zuloak, gizonaren bizilekuak izan baño len, pizti ta abere oyen gerdelekuak ziran; orrengatik beren ezurrak eta beren eizaren ezurrak asko dira, ta ardura aundiya euki bear da pizti, abere ta gizonen aztarnak nastutzeaz. Zenbat bider gizonak eta piztiyak burruka gogorraz beteko zituzten leiza-gentzak edo pakeak, utzirik askotan gizonak bere bizitza pizti goseti baten atzaparretan! Leize-sarbidetan dira sukalde-aztarnak, su-aztarnak. Zenbat bider gorputza berotzeko egiña izango zan su ura, ta zenbat bider gau illunetan **piztik** izututzeko! Gizonen lan bakarra eiza zan, eta bere bizi-lekuetara etzekarten eiza osua, **puskak** baizik. Garun eta ezurren muñak gogoz jaten zituzten. **Olaz arkitzen** dira ezur asko ta asko barruko muña jateko erdibitubak. Malla onetako tresnak eta izkilluak mutur zorrotz eta arraskatzeko sukarritzak dira, ta lenago sukarriz aizkorak egiten ziran bezela azkonak egiten dira orain. Ezur bat edo beste marratzatuba agertu da, baño ezin esan leike ezur landutuba dala» (*Itzaldiak*, Donostia, 1920, 1.012 orr.).

Lizardi'k onela Segurako itzaldian (1930-6-25): «Ez det luzatu nai. Beste bi izlari ditut atzetik, zein baño zein yatorragoak. Bata, andereñoa. Bestea zalduna. Lenengoari txalo biziak yo zalzkazute, orain etorri zalzkigun laguntzalle polit maitagarrien izenean itz-egingo dizutelako. Txalo yo zalozute ere, gure aurren «andereño», gure aurrei goxo-goxo euskera ta lenengo yakintza-gaiak erakusten dien irakasle atsegiña dan aldetik. Ori dezute Muni'tav Iñake, «Arantxa».

«Zaldunak, Urreta'tar Mikel du izena, ta aurkezpen bearrik ez du. Emen gauden geienak mukizu batzuk giñalarik, yaun ori bazebilen erririk erri abertzaletasuna zabaltzen. Gipuzko-Buru-Batzarreko lendakari izana da, ta Euzkadi osoan ezaguna: itz batean, ni lotsatu ere egiten nalz orrelako yaun bat aurkeztu bearraz» (*Itz-lauz*, Donostia, 1934, 156 orr.).

(Ikus Añamendi, *Literatura*, III, 412 orr.).

7.—JOSE ANTONIO IRAZUSTA MUÑO A (1882-1952)

Idazle legez, «Jon Andoni» erabili ziguna. Bego aurrena, gizon jator oneri buruz, Ibiñagabeitia'tar Andima'k osotu zuen gizantza. Emengo gerra zala-ta, 1936'an, bere lurra utzi bearran aurkitu ta Peru'n, ludiaren zokoenean galdutako oian itsu batean il zala, esan ondoren onela darral: «Naiago izan zuen erbestera, bere anal errukarriak odol-uxtutzen ikusi baño. Abertzale zintzo, euskalzale gartsu, ezinezkoa baita bat ori beste au gabe, Alderdi'ko aldun Gipuzkoa'tik autatua izan zan 1936'garreneko urtean. Balñan aren aldun-aroa etzan luzarokoa izan... Ludia-zear itzul-iraulka ibilli ondoren bere bizia Yainkoaren zerbitzuraño eskeñi zuen. Mundu maltzurraz gogaiturik Pasionista-mixiolari egin zan, sinisgabeak sinisberatzeko, eta igaro iraillean meza berria eman zuen irurogeita sei urtetan. Ez genuen uste garal artan, apalzgo aln laburrik izango zuanik. Lur yota entzun dugu aren il-berria, euskal-idazle azkar bat galdu dugulako baltik bat» (*Euzko-Gogoia*, 1952, Epaila-yorraitila, 3-4, 55 orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Tolosa'n jalo zan 1882-6-9'an. Aur-eskolak bere errian egiñik, Deusto'n eta Madrid'en osotu zuen legegizon-karrera. Kultura aundiaz jabetu zan gaztetan, eta ia bizitza osoan, 1936'garren gerrateraiñokoan beintzat, Tolosa'n egin zuen latari edo abogautza. Euskeraz ongi zekian, eta euskaltzale ta abertzale bezela sarri ibilli izan zitzaigun erriz erri euskal gogo ta arnasari su ematen. Gudu aurretxoan, Gipuzkoa'tik Madrid'eko kortietarako aldun aakeratua izan zan.

Guda-aldian bere erria utzi ta erbestera jo bearra izan zuen; lenengo Prantzia'ra ta gero Ameriketara; an Panama'n, Kolonbia'n, Puerto Rico'n eta Peru'n bizi izan zan. Ez gero larrosa gaiñez larrosa galñ, bizi garratza eramanaz balzik. «Bizia garratza» dala diosku berak. Erri-miñez ta Jalnko-miñez, urduri ta kezkatu bizia dugu, ta ezta miresgarri.

Azkenez, sortzea eman zion errira itzul-eziñik, Jalnko-miñari osoan ateari iriki ta apaiz izateko asmoa artu zigun. Bere joan-etorri maiz berrituetan beltz asko ikusi zituen nunbait, lurralde eder aietan, siñisterik gabe, ta beltz aien alde zerbait, al zuentxoa, egin nai zuen. Ortarako, mixiolari izateko, Lima'n, Aita Santuaren Ordezkoaren elizan apaizgoa artu zuen 1951-9-2'an, il orren bederatzian meza berria esanik Aita Pasiotarrak uritik kanpo daukaten San Isidro elizan. Izen aundikoa zan Irazusta eskualde aietan ere, ta Peru'ko Erkaleko Buruzagia bera, Manuel A. Idria jenerala ta onen emazte Karmen Berckmeyer izan zituen aita-amabitxi.

Ondoren, sei illabetean doi-doi, Tarapoto'n, San Martin probintziko uriburuan, munduaren zoko urruti artan egin zuen mixiolaritza, beltz aien arima zaintza. Baiña tolosar zintzoa, bere arlo berrian iñoizkorik gartsuen zebilkigula, Jaunak berera eraman zigun. Lima'n il zan 1952-3-9'an.

ELEBERRT IDAZLE.—Aitor dugunez, Irazusta izlari trebea genduan. Eta itzaldia etzitun mintzatu Tolosa'ko batzokian bakar-bakarrik, erri artatik landa ere ibilli zitzaigun abertzale-tasunaren azia ereiten: begiko bait zuen. Idatzi ere egin zigun, ez Ameriketara soilki, Euskalerrian bizi zalarik ere agertu ziran aren lanak orduko aldizkari ta egunkarietan. Irazusta'ren euskal lana ondoraiño aztertzeke, bada, paper oiek zeazldro miatu bear dira. Euskeraz ta erderaz idatzi zuen. Ona aren lanik garaiene-nak bederen:

1) *Euzko-Aldunen Alkartea* (Bilbao, 1935). Itzaldia, langilleak nolako eskubideak obarrietan dituzten azaltzen duena. Kortietan aurkeztua.

2) *Ley de arrendamientos rusticos* (Bilbao, 1935). Gora aundiko itzaldia. 21 orrialde.

3) *Joanixio* (Buenos Aires, 1946). «Ekin»-ek argitaratua. 281 orrialde. Eleberri, nobela. Gure «oitura ta giza-irudiak esku trebez taiutuak ematen dizkigu —dio A. Ibiñagabeitia'k—. Nun-nai irakurleak edespen atsegiñik arkitzen dizu. Ez ditu

gure erritarren izaerak, zenbait erdel nobelarik egin duten gisan, parregarritzen... Aren giza-irudiak benetako giroz oretuak daude, iñola ere ez aizunkeriz. Ezur-aragizko dira, gure artean ikusi oi ditugun gizon emakumeak bezelakoak. Aien ardurak, aien goganbearrak, aien yardunak egunerokoak dira. Zeñen txukun eta egoki adiraziak». Amezketatik Ameriketako panpetara joan eta an lan eta lan zartzarorako txanpon batzuk pillatzen, ia berrogei urtetan, saiatzen dan euskaldun baten goraberak, antsiak dira nobelaren ardatza borobiltzen dutenak.

4) *Cartas boricuas* (1948). «Revista de América»-n dator, XIV, 109-131 orr. Puerto Rico'ko ugarte bat duzu *Boriquen*.

5) *Bizia garratza da...* (Buenos Aires, 1950). «Ekin» argitaldaria 127 orrialde. Bere aitari eskeintzen dio eleberri au: «Arnaika gauza zuzen erakusten zizkidatzunean, etzendun asko uste ontaraño okertuko zirala. Ondorengo itzak eskeintzen dizkitzut, zureak beti gogoan goxatuz dauzkatala». Andima'k onan: «Ene uste laburrean, aurrenekoan baño eleberrigille garalago agertzen zaigu azken liburu ontan. Eleberri-lagunak euskaldunak izan arren, giza-malla goragokoak dira. Ikasiak, sendi oparogoetakoak. Bear ba'da Joñisio baño ameslari ta mentura zaleagoak dituzu, diruak baño are mentura bearrak Ameriketartuak» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 3-4, 58 orr.). Gertaera geienak, eleberrian datoztenak noski, Kolonbi'ko baso zabal-itsuetan jazoak dira, Magdalena ibai inguruetan.

6) *Losintxak*. Antzerkia. Martfnez Sierra'ren «Madrigal» euskeraz.

7) *Oñarrik* (*Euzko-Gogoa*, 1950, 5-6, 48 orr.) ta *Beti bat* (*E. G.*, 1950, 7-8, 35 orr.). Euskerari buruzko bi lan mamitsu.

IRITZIAK.—Zer esan? Neretzat, oso interesgarriak dirala Irazusta'ren euskal lanak; gaiak bear bada ez dute garaltasun aundirik, xea ta bakunak ditugu; baiña idazlerik aundienak ere ez ote dute ortxe billatzen, gauza xeak, ezerezak errez, arin ta bizi esatea ziur asko? Ta orixe duzu tolosar argiak bere nobela

bietan batez ere egin diguna. Onek bal duela bat-bateko euske-
ra, ezertariko oztopo gabe, bizkor ta txairoa. Joskeran, berriz,
ez dizu utsik egingo.

Eta irakurraldia zailtzen digun kroskarik? Ba-ditu auek
ere, idazle guztiok bezela. Itzak iñoizka, Tolosa aldean erabilli
oi diran erara, laburtuta ematen dizkigu; adibidez: *guztik*,
«guztiak» esan bearrean. Olako batzuk ditu, batzuen iritziz
koskak diranak. «Elkar-izketak, berezkoak eta oso fiñak ditu»,
diosku P. Lafitte'k. Errez ta atsegiñez irakurten da idazle onek
utzi ziguna.

Nobela gertatzen dan lurraldeetako nodñak eta bazterrak
ezin obeto edesten dizkigu. Guzdz poliki irudikatzen du ontziz
zijoalarik, aragirik ez zutela-ta, bei bat ontziratu zutenekoa.
«Barrankilla'n —dio— artutako aragia bukatu zitzaientean,
lur ertzeraño joan eta bei bat jaso zuten. Eta errez. Itxitura
batean zazpi zortzi zeuden ortarako; bestela ontziratzerik ez ze-
gon eta mutil bat jetxi zan soka luze bat eskuan zuala; sokari
mutur batean txilibixta egin, beste muturra andik pasa, ordun
ura beiaren adarretara bota ta beia lotua; soka muturra ontzi-
koeri eman zioten, beia ibairaño arrastaka eraman ere bai, eta
an jaso zuten uretik ontzira ezer askotarako gauza ez zala. Be-
rriro aragia ba zan» (*Bizia garratza da...*, 47 orr.).

Bi eleberrietan datozten emakumezkoak batez ere antzetsu
margoztuak daude. Andima'k au: «Emaztekien izantzak, ene
gardiz, egokien taiutuak agertzen zaizkit aipatu eleberrian (bi-
garrenean noski). Gañera gure artean idazleek gutxitan erabilli
oi dituten auzi sakonak ere garbitzen ditu nobelariak. Sikologi-
eleberrien artean ere, eluke Jon Andoni'renak iduri gaiztorik
egingo, ez orixe. Benetako nobelari agertzen zalgu ementxe. Ba
dira erderazkoetan gurearena baño ogei ukondo petik daude-
nak, alare eskuz esku dabilzanak» (*Loc. cit.*, 58 orr.).

Idazle berak onela amaltzen du: «Deus gutxi esan dugu
darabilen euskeraz. Izkeraren eta ugariaren yabe zan idaz-
lea. Ori dalata aren idaztiak neke gabe irakurri ditezke, naizta

erri euskera utsa besterik yakin ez. Darabilkin izkeltzia Tolosa inguruetakoa da, batere aldatu gabe. Aditzerak ere inguru aieta-koak dira, eta noizikpeinka aditzkera zabalagoetara oituta dau- denen irakurketa lausotu dezake. Alare izkera orrek, dan beze- lakoak, bixigarri ta nortasun damaio Irazusta'ren kerari» (*Idem*, 58-59 orr.).

(Ikus P. Lafitte, *Eusko Jakintza*, 1947, 13 orr.; I. Lopez Mendiza- bal, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 181 orr.; Andima Ibiñagabeitia, *Euzko- Gogo*, 1952, 3-4, 55 orr.; L. Mitxelena, *HLV*, 157 orr.; L. Villa- sante, *HLV*, 398 orr.; A. Irigarai, «Principe de Viana», 1960, 342 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 323 orr.; Bitáño, *El Bidasoa*, 1959-12-12; J. Bilbao, *Euzko Bibliographia*, IV, 410 orr.; J. San Martin, *Escrito- res euskéricos*, 102 orr.).

8.—EMILIANO MUXIKA LASKIBAR (1882-1949)

Tolosa'tik Bidania'ra gatoztela eskubkik daukazu Albiztur, erritxo polita, mendiz esituriko trokarrean kokatua. Ementxe munduratu zaizun Muxika 1882-8-8'an, Hospital-Goiko deri- tzan etxetxoan: anaietan zarrena.

Beronen aita Albiztur'eko maixu ta organista zan, eta ar- duraz azi ta ezi zituen bere aurrak; baita literatura zaletu ere, Emiliano ta Juan —«Luistar»— beintzat, euskal koplakari ere etziran urriak izan. Ala ere, Emiliano amasei urtedun zala il zitzaion aita eta batxiller ikasketak utzi bear izan zituen 1898'an: aurrezik, goizegi asi bear izan zuen, anai nagusi bezela, etxeko jauntzari zegozkion lanetan. Lan egin bear zuen, bai, sendiko endaitza zentzunez erabilteko. Eta Errenderi'n jarri zan langille Cobreracs'en bodkan. Urte batzuen ondoren, lantegi ori urruti xamar zegoela-ta, karta-banatzailletza egin zuen Tolosa ta Erre- xil tarteko erritxoetan, Albiztur, Goiaz, Bidania ta gaiñerakoe- tara oiñez eramanik zeuzkaten estukitz eta osterantzeko pape- rak oro.

Begi ona, ixurkia ta joera zuen, agiri zanez, botika ta sendagai gauzetara, orixe bait zan bear bada bere barne-lera, ta idazki-zorro mastrakaturia zintzilikatu ta euri ta eguzki, negu ta udara, oiñez ibiltzeari agur egiñik, Tolosa'ko Muñagorri ta Oiartzabal ta Olarreaga'ren farmazietan jarri zan langille; 1949-12-13'an, il zanean ere, azkenengo onen osakitegian zegoen ogipeko.

EUSKAL IDAZLE.—Gaztetan bilakatu zan euskal maitagarrien adiskide kutun. Eta, jaldña, ez da mirestekoa auen irritsez zekarren poesi-griña. Idazki-zabaltzen zebillelarik edo, izadiaren ederra ta idazki-azal barrukoen arnas beroa tarteko, bear bada, olerkari egin zitzaizun.

Garai artan, or-emenka, urtero ospatzen ziran elertizko norgeiagokak ere, bizigarri izango zitzaizkion noski poesi-zelaiara bultz-eragiteko. Dana dala, 1911'an, Segura'ko euskal jaietan, orduko euskal idazle onentxuen artean, an aurkeztu zan Muxika ere sariztatu zioten *Deabru lana* ipuiñarekin. Urrengo urtean (1912) Donostia'ko Lore-Jokuetan ere berdin, *Malko garratzak* sariztatua; eta Tolosa'n, 1913'an, *Umeak nigan betoz*; eta Donostia'n, 1916'an, *Ama orobat*; eta 1917'an *Gudaldia* ta *Egigia* lenengo ta bigarren sarien irabazle; eta orrelaxe berriz ere, 1918'an, Donostia'ko Lore-Jokuetan *Amiasunaren izunketa* sariztatua. 1926'an, oindio, Irun'go Udalak jarritako Gabon-sariketan txapeldun agertzen zaigu; baita urte berean, «Euskal Esnalea»-k Bergara'ko Kristo'ri buruz Jautarkol'ekin ukondo ukondo ibilli zitzaigun saria eramatean. Edu orretan gerora ere: 1930'an Errenderi'n Jauregi'tar Luis'en omenez egiñiko olerki-sariketara, il aurretxoan igorri zuelako edo, J. Aitzol zanak aren *Euskal Olerkia*, euskerearen zori larria abesten duena noski, «Eusko Olerkiak» (1931, 96 orr.) liburuan sartu zigun.

«Euskal Esnalea»-n (1911-1931), «Euskal-Erria»-n (1912-1918) ta «Argia»-n idatzi zuen batez ere, eta itz neurtuz geienetan.

Agitara zuen liburua: *Neurtitzak* (Donosti, 1915).

Aita il zitzaionetik ezbearrak joa bizi izan zitzalgun nun-bait, mixerian ez, baiña beti lanari lotua... Aita iltzeak zauri garratza utzi zion bizitza guztirako. Ori kantatzen du bereziki, barne daraman zauriaren ixurkia. Eta beti beerantza zijoala ikusten zuen euskerak ematen zion tamala. *Irakur* bere azken olerkiaren bi aapaldi, oso sentikorrak:

«Urteak ba-dijoaz, aldiak ere bai;
baiña nere itzal beltzak ez du aldegin nal.
Barrendik irteteko, begiak zabal nai,
malko garratzak dauzkat biotzean ibal.

Ase naiz, oso ase garratz iturrian,
gaiñez egiteraño malkoak neurrian.
Egiak ere dauzkat lertzeko zorian,
erre malkoz eta ubel inguru guzian».

Olerki asko dauzka argitara gabe, 60 bat.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 839 orr.; J. Garmendia, *El Diario Vasco*, Donosti, 1967-7-26'an; Auñamendi, *Literatura*, III, 301 orr.).

9.—JUAN JOSE LETE OREGI (1882-1955)

Bergara ondoko Osintxu'n jaloa 1882-6-23'an. Ala ere, aurtzarotik, Soraluze'n bizi izan zan, ikasketak eta osotu ondoren, berton zeukan industri-lantegi batean bear egiñik. Deba'n il zan 1955-3-25'an.

EUSKAL IDAZLE.—Eguneroko lan artean ere atsegin zuen euskal arloko zerbalti ekitea. Ta «Gipuzkoarra» asterokora batez ere bialtzen zituen bere lanak, ipuiak balrik bat.

Egin zizkigun saio batzuk antzerkian ere. Bereak ditu beintzat bi lan auek: 1) *Gurutzepe* (1921), ta 2) *Itxastarra*, bein eta berriz antzeztuak.

Nolako lanak ote ditugu aukeratu? 1934'an, Katariñe Eleizegi'ren Jatsu-rekin batera, Donosti'ko «Poxpoliñen Antzokia»-n eman zuten Lete'ren *Itxstarra* ere. «Antzerti»-ko kritikariari onela: «Antzezlarien jarduna txalogarria ta benetan alpatzekoa izan ba-da, ez dezakegu beste orrenbeste esan antzerki-lanari buruz. Mingarri izanagatik altortu bear degu egille bi orientandik zerbait oberik itxaro genduela. Antzerki lan guziak eta batez ere iru ta lau ekitaldi dituztenak ondo neurtu, ebaki ta borobilduak izatea eskatzen dute; ta beste gauza asko *Itxstarra* ta «Iatsu»-ri peitu zaiena. Beste aldetik geiegizko itzaspertuak nun-nai. Urrena kontuan artzen al dituzte gure antzerkigille begikoak» (*Antzerti*, 1934, azalean).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 122 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 173 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 342 orr.).

10.—POLIKARPO LARRAÑAGA ARANGUREN (1883-1956)

Apalaz on eta langillea. Gizarte galetan batez ere, garai artarako, txit aitua. Ainbat itzaldi eman zituen Eibar eta inguruetan langileriaren artean. Euskal edesti barrutian ere etzan motela.

Soraluze'n jaio zan 1883-1-26'an. Goi-deiak bultz-eraginda, eliz-karrera ikasi zuen Gazteiz'ko apaiz-ikastetxe nagusian, eta au amaitu ondoren, 1908'garreneko abenduan apaiztu ta bertatik Eibar'en daakagu arimazai. Eleizako arazo guztietan arduratu arren, umeena zan batez ere atsegin zitzalona. Gabon-ak dian nalz beste urte barmko garaletan, teatru-lanak eta, eratu oi zituen ume ta gazteen artean. Onela, 1919'an adibidez, Donosti'ko «Euskal Esnalea»-k eratu zuen umeentzako euskal teatru txapelketan, beronen *Euzkal-umeak euzkal-zaletu* lanak eraman zuen saria. 1921'an, ordea, bere zarzuela *Mendiko eguna* sariz-

tatu ziotenean, Eibar'ko neska-mutikoak, apalz langillearen zalpean, abesti, dantza ta antzerki sekulako jalaldia eman zuten Donostia'ko «Novedades» aretoan.

Gerra aldian Frantzia'ra jo zuen, arrezkero guztian Baiona'n eta inguruetan, itzez ta lumaz, zoli lan eginik. Balona'n il zan 1956-8-30'an.

EUSKAL LANA.—Poliki zalndu zuen bere jaloterrian ikasitako euskera: mintzatzeko bakarrik ez-ezen, idazteko ere bai. **D**anak ez dute, ikasiak izan arren, onela jokatzen. Eta damurik!

Euskeraz ta erderaz idatzi zuen, edozenbat gai astinduz: nalz izkillu-auzi bat zala Eibar'en, naiz itxasaldeko arrantzaleen arteko eztabaida zala, edo~ta euskaldun eliz-gizonak gaitz erasi ta beztuak zirala, Polikarpo'k ba-zekien auzi ta gizon oien alde irten eta bakoitzari berea ematen. «Euzkadi» ta «El **D**ia» egunerokoetan idatzi zuen, eta «Argia» ta «Yakintza» aldizkarietan. Liburu bezela auek ditu:

1) *Arrate'ko Andra Mariya'ren Bederatziurrena* (Zornotza, 1919). Maite zuen nunbait bere erritik urbil xamar, mendimaldan lilluragarri kokatua, zeukan Arrate'ko Ama.

2) *Mendiko eguna* (Donostia, 1921). «Euskd Esnalea»-ren sariketan saritua ta sarri xamar antzeztua.

3) *Amets larria* (Eibar, 1923). Euskal opera, Eibar'en lehenagoz emana.

4) *Arrate* (Donostia, 1926). Itzaldi bi dira, 1923'g. urteko azaroaren 25'ean eta lotazillaren 2'an irakurritakoak. Itzaldi oek «Euskal Esnalea»-k eratu ta argitaratu zituen, laugarren salllean. Norberaren erriaganako maltasunak errez itsutzen omen galu ta irudipenak ere errez egitzen dizkigu egi-itxurarik ere ez duten gauzak eta gertaerak. Baiña Larrañaga'k au aitortzen digu: «Nere buruz, ez det uste ezertxo ere asmatu detanik».

5) *La Moral* (Bilbao, 1930). Itzaldi bat; 77 orrialde.

6) *La pesca marítima en el País Vasco* (1925).

7) *Riqueza y Economía del País Vasco* (Buenos Aires, 1945). «Ekin» argitaldaria, 18'garren idaztia. «A. de Soraluze» darabil liburu mamitsu au izenpetzean.

Nolako izkera ote du? Ona zatiño au, Arrate'ko Amaren irudia margozten diguna noski. Arin polita duzu. «Aulki baten jarrita dago Ama —dio—, ta magalian, apurtxo bat ezkerrera, bere aurra dauka. Ama-emeak aurrera begira ta oso arpegi illunakin daude. Amak sagarra dauka eskumako eskuan, eta ezkerrekin semiari eusten dio. Semiak berriz eskumako eskua eba-kita daaka, ta ezkerrian idazti itxi bat darama. Biak irudi bat ziran, zur batetik ateriak, baña semia ebagita dago, ta ol pus-keta baten bitartez aurrera aterata. Buruan zurezko burestuna darama. Zurezkua da irudi guzia, ta berari inkatuta oiala darama; oial au igeltsuz igurtzita ta unetan urreztuta edo margo-tuta dago» (*Itzaldiak*, 1926, 82 orr.).

(Ikus Gabin Garriga, *Bol. Amer. E.* V., 1961, 188 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 172 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 114 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 346 orr.; *Kaxdaberaz Aitari Omenaldia*, 132 orr.).

11.—ISIDRO BARRUTIA ZUAZUA (1883-1948)

Aita **D**oroteo karmeldarra. Eskoriatza'n ludiratu zan 1883-3-15'an. Umetatik Jainkoari bere burua eskeiñi nalta, Larrea'ko karmeldarren Aztetxean jantzi zuen Karmen'go Amaren soñe-koa, 1899-7-29'an profesia egiñik. Begoña'n eta Iruña'n osatu zituen eliz-ikasketak, 1907-5-25'an mezakotuaz. Ondoren **D**onosti'n lan egin zuen gogotsu, dotriña erakusten eta Praga'ko Jesus Aurraren Anaidia zuzendu ta edertzen. Geroago, Billa-franka (Naparroa)'ko karmeldar Ikastetxean nagusitza egin zuen, balta Iruña'ko, Larrea'ko, **D**cnosti'ko ta Markiña'ko komentuetakoa ere. Berdintsu Larrea'n sar-berrien malxu ta Aita Probintzialaren aolkulari, ta azkenik, Eibar'ko lekaretzeko buru.

Praille on eta lege-zalea izan zan A. Doroteo. Maite zuen bere ordena ta Karmen'go Amaren Eskapularioaganako eraspenna zabaltzen batez ere sutsu jokatu zuen, iñoiz aspertu gabe. Igande ta jaietan erririk erri joan oi zan Andra Mariaren jantziaz itzaldi biziak egiñik. Ortarako Begoña'n jarri zuen leku egokia, bere illeroko ta guzti: «El Mensajero del Escapulario». Ekintza ortan ari zalarik itzali zitzaigun Begoña'n bertan. 1948-11-14'an.

IDAZLE.—Umetatiko euskerea irakurri ta ikasiz ederturik, itzaldi bipillak egin oi zizkigun, eta euskal liburuak idatzi. Jesus Umea ta Karmen'go Ama zituen baltik bat maite ta eraspentetan. Oietaz osatu zituen liburuak ere.

1) *Aurtxo Jesus Pragahoaren Jaiera-Liburua* (Donostia, 1915). Altuna'tar Ralduino'ren moldiztegian. 76 orrialde. «Euskaldunen artean ere —dio itzaurrean— txit ezaguna da Aurtxo miraritsu au; baña euskaldunak ez daukate orain artean bere jaiera ederraren gañean itz egiten duan libururik. Txit nere gogoko gauza izango litzateke orain euskaldun guztaie eskeintzea euskera bigun, gozo ta garbian Aurtxo Jesus Praga-koaren esku-liburu eder bat. Balña, alnbesteraño ezin dezaketan ezkeru, beñik bein gauza txit egokia deritzat izango dala euskeraz jartzea Aurtxo maite orren jaiera bearrezkoenak, onela euskaldun guztaie ere ezagutu dezaten Pragako Aurtxo miraritsuaren laguntasun aundia bere atsekabe ta estutasunetan». Euskeraztua da.

2) *Karmen'go Amaren Esku-liburua* (Zornotza, 1931). «Jaungoiko~Zale»-ren irarkolan. Euskeraz eratua. 326 orrialde. Irakurleari diotsa: «Karmen'go Ama gozo ta zoragarria, nork ez du ezagutzen? Eta bere Eskapularioaren eskeintz arrigarri ta pozgarriak jakiñik, nork ez du goraldu ta maltaraziko Ama ori? Ala ere, gipuzkeraz beñepein, eztegu Karmen'go Amari otoiitz egiteko liburu egokirik... Idaztitxo au ortarako idatzi degu, bada, Karmel-lorategiko lore usaintsu orien usai gozoak alde guztietara zabaltzeko. Baña Karmel-lorategian lora asko ta zein

baño zein ederragoak badira: Teresa Deun, Gurutzeko Jon Deun, Jesusen Teresatxo Deuna ta abar». Ta, izan ere, orrezaz gaiñ, Jose Deunaren, Jesus'en Biotzaren eta Garbitokiko ari-menganako otoitz eta bederatzaurrenak jartzen dizkigu gure elizetan ain erabilia dugun liburu polit orretan.

3) *Praga'ko Jesus Aurrari Bederatzaurrena* (Zornotza, 1931). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. 21 orrialde.

4) «*Aita Gurea*» ta «*Agur Maria*» (Zornotza, 1931). Bi otoitz auen azalpen mamitsu ta egokia, «Karmen'go Argia»-n dator.

Erderazko auek ere bera dute alta: 1) *Monografía historica del Santuario y convento de los Carmelitas Descalzos de Larrea-Vizcaya* (Bilbao, 1926); 2) *La Mision educativa de los padres* (Barcelona, 1923); 3) *Historia prodigiosa del Milagroso Niño Jesús de Praga* (Barcelona, 1924); 4) *Guia Espiritual de la Contemplación adquirida, Examen de espíritus ta Didlogos misticos*.

«*Karmen'go Argia*»-ren zuzendari.—Euskalerriko karmeldarrak 1930'an, beren Erki-Batzarra izan zutenean, «Jaungoiko-Zale», «Argia», «Euskalerrriaren Alde», «Zeruko Argia» ta beste batzuen antzera, beren aldizkari berezia sortu ta aurrera eramateko erabakia artu zuten. 1931'garren urtarrillean asi zan «Karmen'go Argia»-ren l'go zerbakia. Idazkola ta banakola, Larrea-Amorebieta-Bizkaia.

Aita Doroteo aukeratu zuten nagusiak aldizkari onen zuzendaritzarako. Eta bere arazoa aurrera eramateko asmoak agertuz, onela idazten digu lenengo arrikuluan: «*Karmen'go Argia* jayo berria da, baña ala ere asmo aundi ta egokiak dauzka bere go-goan. Iturri baten urak garbi ta osasuntsuak izan-arren, sorke-ratik irtenda lasai, bide gabe, uzten bazaie, laster loitu ta alpe-rrik galduko dira, ta ez osasuntsuak balzik kaltegarriak biurtuko dira noski.

«Euskaldun biotza zuzenkor, garbi ta ongillea da; beraz, iturri ona, baña bere kementasun eta jokerari bide onak ematen

ezpadizkiegu, laster lasaitu, okertu ta gaiztotuko zaizkigu. Bide orreik irakurgai on, izparringi zuzenkor eta aldizkari garbiak dira. Ortarako irakurgal lasaiak kendu ta eskuetan irakurgai garbiak jartzea baño oberik eztago.

«Egarria altu ta gosea asetu bear zalo euskel biotzari, ta aspaldi ezkeroz Euskalerrian ere irakurgai-gose ta egarria gogotik sartu da. Augatik, euskerazko irakurgairik ezpadu, erderazkoak, eta askotan loi ta lasalenak, irakurriko ditu, ta aldizka-aldizka biotza puzoitu ta kristau-sinismena otzituko zaio, ta beraz, euskaltasun guzia galdurik aurkituko da. Egarri ori aitu ta gosea asetzeko «*Karmen'go Argia*»-k janari garbi ta gozoak aldizka, illero ekarriko dizkigu, Karmen'go baratz ederrean nal añia janari arkituko ditu-ta, balta ur garbi dizdiratsuak ere bere iturritik malz bialduko dizkigu».

«Jalzkibel» izen-ordea erabilli zigun, euskerazko lanetan.

Eibar'ko komentuko buru zalarik, «El Mensajero del Escapulario del Carmen» sortu ta zuzendu zuen, batez ere Karmen'go Amaren gutunarekiko doe ta berezitasunak zabal-erazteko. Iru urtean zuzendu zuen, ots, 1946'tik 1948'ra, aurrenik Eibar'tik eta gero Begoña'tik. Euskeraz ta erderaz zetorren amasei orrialdeko aldizkari au, irudi politez apainduta. Kiaka larri aretan auxe izan zitzalgun, ba, euskeraz zerbait azaltzen asi zan lenengoa.

(Ikus *Analecta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*, Romae, 1948, 178 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, Apendice, 1969, 25 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 294 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 130 orr., ta *Larrea eta Karmeldarrak*, Bilbao, 1968, 95 orr.).

12.—JUAN BAUTISTA GESALA BEOBIDE (1884-1957)

«Zaldubi» bertsolaria, Zarautz'en 1884-12-19'an munduratu. Berton bizi ta, il zitzaigun 1957-10-28'an.

Ogibide ta ofizio asko —arrantzale, ille-moztzaille, abarke-ta-egille, maasti-zaln, etxegille ta abar— izan zituen arren, bazuen oindio beta bertso-paperak —bere errian-ta ematen ziran mixioal, erriko santu-festai, zorionak emanik eta abar— osatzeko ere. Olako ogei bat ba-datoz A. Zabala'k «Auspoa» liburu-saillan, «Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria» izenburuarekin, eskeiñi zigun idaztian (1967, 62'garren zenbakia).

1948'an, Zarautz'ko Jose Luis Tapia ta Frantziska Etxebe'ren ezkontzari jarriak, ba-dute piperra, aren beste guztiak bezela. Amabost aapaldi ditu bertso-paperak. Ona irugarrena:

«Zarautzko parrokiyan
egin dute uniyua,
altare nagusiyan jarrita
an zegon bikariyua;
liburua zabaldu eta
egin diye oraziyua,
azkenian bota ere bai
biyari bendiziyua».

(Ikus Antonio Zavala, *Auspoa*, 62 zenbakia, 77 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 356 orr.; J. San Martin, *Escritores euskeriços*, 96 orr.).

13.—INAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN (1884-1962)

Berezko lera ta jaldura bezela guztiok diogu zerbaiti begi ona. Nik oni, zuk ari. Etxaide'k ere ba-zituen bere zaletasunak izate barrenean. Bi batez ere: malte zuen euskeraren jatortasuna, ta bere erriaren aurrerakuntza. Euskalari gisa alnbat idazlan ta liburu argitara zizkigun, balta euskeraz ere. Ta bere erriaren aurrerakuntzarako «1909-an Gipuzkoako leen telefono-sarea eralki eta zabaldu zuen —diosku Irigaral jaunak— azken mendi-baserriraiño. Erri guzriek eta auzo bazterreratuenek bazuten

bere telefon-deitegia. Aurrerapen arrigarri hunek deblauki mailkatzen eta berdintzen zuen gure Probintzia maitea Europako eskualde aurreratuenekin» (*Egan*, 1962, 292 orr.).

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Donostia'n sortua dugu 1884-12-l'an, «Mayor» kalean, eta biaramonean Santa Maria elizan baitaiatu zuten. Donostia'n eta Bergara'n egin zituen bere lenengo ikasketak; 1895'an batxiller-karrera ikasten asi zan, eta, 1901'an, batxillertza amaturik, Bilbao'ko industri-injiniruen eskolan sartu zan, 1906'gn. urrian injiniru titulua ere lorturik. Ondoren Gipuzkoa'ko Aldundegian sartzten da industri-kalastra edo zerga-erroldak erarnan zitzan; 1909'an, ordea, Aldundegi bertako Industri-Injinierua izendatu zuten, eta izendatze orren barrenean zegoen Probintziko Telefonoen kargudun. Orditik dator Gipuzkoa'ko Urrutizkin barrutian burutu zuen lan txalogarriaren asiera.

1915-4-29'an Zumarraga'ko alaba Maria Dolores Itarte Alberdi'rekin ezkondu zan, zazpi seme ta iru alaba izanik. 1926'an bere gisako urrutizkiña, ots, automatik jarri zuen Donostia'n eta Donosti inguruan amabost kilometro barne artzen zituen—Andoain, Oiartzun, Aginaga ta olako errietan—: automatik bezela Espalña osoko lenengoa izan zan Etxalde'k jarri zuena. Urte onetan, irailaren 30'an, egintza ori nolabait sariztatu naiean, Lanaren Zillar-Medailla eman zioten. 1949'an, Madrid'etik aginduta, Gipuzkoa'ko Telefono zuzendaritza utzi bear izan zuen, tresnagaillu guzti ori, guztiz aberatsa, euskaldun Aldundiaren eskuetatik Espaiña'ko «Compañía Telefónica Nacional» delakora aldatu zan eta.

Orrezaz gaiñera, Gipuzkoa'ko ainbat alkartetan aolkulari zan, «Banco de San Sebastian»-ekoa, «Elorriaga y Cia»-koa, Eibar'ko «Maquinas de coser Alfa»-koa, Zarautz'eko «Muebles Alfa»-koa ta abar. Politikaz integrista zan, eta Donosti'ko Gazteri integristaren buruzagi izan zan, 1928'an berton Gazteri integristak sortu zuen «La Cruz» astekarian irasleen arteko lan-

kide izanik; bere etxean zabaldu zan «Legion Católica Española» 1928'gn. urtean eta «Centro de Actuación y Propaganda Católica» 1932'an.

Donostia'n il zan, 1962-11-14'an.

EUSKALARI.—Bere izkuntza, umetatik zekian arren, ikasketak osatu bitartean alztu egin zitzaion. Eta 1907'an euskera ikasten asi zan, «ezpalzekien ia ezer, berberak altortzen zuenez», Bere berezko mintzairakiko lera ezpaizan txikia, 1910'an Gazteri integristari euskal ikasketak emateko ardurea, Erramon Intzagaral jaunarekin batera, bere gain artu zuen. 1942-3-26'an euskaltzain izendatu zuten J. K. Gerra'ren utsunea betetzeko: bere sar-itzaldirako *Jatorrizko euskeraren azterpenaldia* artu zuen galtzat. Andik bederatzi urtera, 1951'an, azaroaren 9'an, **R. M. Azkue** Euskaltzalndi-burua il zanean, Etxalde izendatu zuten Euskaltzain-buruorde, ta gero, aurtzarotik euskaltzale bizi ta euskera mintza-zale jarraikia izan zalako, Euskaltzain-buru izan zitzaion il arte.

Etengabeko langillea izan zan, euskd arloan ere. Ta liburu auek bereak ditu:

1) *Subfijacion, Prefijacion y Composicion en el idioma euskaro* (Donostia, 1911). 142 orridde. 1931'an berriz ere. 304 orrialde.

2) *Tratado de Sintaxis en el idioma euskaro* (Donostia, 1912). 144 orrialde.

3) *El Verbo Vascongado* (Donostia, 1923). 260 orrialde.

4) *Sobre' el origen y parentesco del pueblo euskaro y su idioma* (Donostia, 1935). «La Cruz» astekarian, ilbeltzetik malatzera.

5) *Desarrollo de las Conjugaciones euskaras Perifrdsticas y Sinteticas, respetuosas y familiares* (Donostia, 1944). 524 orrialde. Eraskin bi ditu ondoren: bata, Euskaltzalndian egindako sarrera itzaldia, ta bestea, «Sobre la significaciOn de los afijos de las flexiones del Verbo Vascongado». Lan ederra.

6) *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (Donostia, 1929). Euskeraz.

«Euskal Esnalea»-n, «Euskera»-n eta BAP'en idatzi zuen, euskera galetaz batezere. Gaztetan olerkiren bat ere bai (*Euskal Esnalea*, 1912, 170 orr.).

Beste galetaz auek dituzu Etxalde'ren lanik nabarmenenak: I. *Telefonoari buruz*: 1) *Apuntes sobre Telefonica* (Donostia, 1921); 2) *Estadistica y breves apuntes historicos de la Red Telefonica de Guipuzcoa* (Donostia, 1922); 3) *La Telefonía Automática en Guipuzcoa, al alcance de todos* (Donostia, 1925); 4) *Comunicaciones de Guipuzcoa* (Burgos, 1925); 5) *Disposiciones legislativas de Telefonía Automática* (1926); 6) *La corriente telefonica* (Burgos, 1927); 7) *El sistema Ericsson de Telefonía Automática* (Donostia, 1928), iru ale; 8) *Lecciones sobre Telefonía Automática* (Madrid, 1942), ta abar. II. *Integrismuari buruz*: 1) *Sobre la organizacion de las fuventudes Integristas* (Donostia, 1911); 2) *Las Juventudes Integristas y su labor interior* (Donostia, 1914); 3) *El espiritu cristiano y el Integrismo* (Madrid, 1917); 4) *Apuntes razonados sobre el Programa integrista* (Ordizia, 1923); 5) *Programa integrista explicado* (Burgos, 1925); 6), ta abar.

Irigaral'k, azkenez, onela: «Bere bizi guztian etengabeko langilea izan zen gure adiskide eta bere lanpideko liburu eta irakurgal parrasta bat argitara eman izan du, eta bai euskalari bezala ere... Bere azken urtetan osagarri guttikoa, zango bat moztu behar izan zioten; ala ere euskal biltzarreak etzituen utsegiten; eta buruzagi bezala zentzuko gizona agertu da neurritz gaidinko iritze eta ustekizunak ematu naiez eta beti kristau suharra».

(Ikus *Euskera*, 1962, 350 orr.; A. Irigarai, *Egan*, XX alea, 1962, 292 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 421 orr.).

14.—JUAN MUXIKA LASKIBAR (1884-1970)

Albiztur'en sortua 1884-6-5'an. Emiliano Muxika erri-olerkari oparotsuaren anai. Lanbidez bizargille, abarketari ta eliz-zain; bere bizi osoa ortan emana.

Koblakari leun eta zorrotza. Etengabe idatzi digu «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, Donostia'ko «Euskal-Erria»-n, «Argia»-n, «El Dia»-n eta «La Cruz»-en, Baiona'ko «Gure Herria»-n eta azken urteotan Tolosa'ko, «Goiz-Argi»-n. Bere anal Emiliano'k zirikatuta edo, 1916-12-25'an Donostia'n egin ziran Lore-Jo-kuetara bi idazlan bialdu zituen: *Poz-aldiak* eta *Euskal-Jalas Pillota*, ta biotatik azkena sariztatua izan zan eta lenengoak alpu merezi izan zuen. Eta an ziran beren lanakin, beste batzuen artean, B. Iraola, M. Lekuona, B. Garitaonandia, Jose Eltzo Azpiazu, Luis Jauregi, Luis Latierro ta bere anai Emiliano Muxika. Orrek poztu ta kemenazi zuen, antza, aurrerantzean ere idazlanari atxild ta euskeraren alde lan ederra egiteko.

«Luistar» izen-ordea erabilli oi zuen bere lanak izenpetzean, balta iñoiz «Nal» ere.

Errez talutzen zizldgun bertsoak. Zorroz eta sakon. Ikusburutzat irakur *Errukarriakl* deritzanaren lenengo bost aapaldiak:

«Arraultzak eta esna saldu t'edari txarrak erosi,
era orretan ibili oi diran txoliñak ditut ikusi.

Ardo geyegi edaten duan gizona oker dijoa;
emakumea berriz gaizldago t'erruki det nik gajoa.

Senarra ordia daukan andreak naikoa lan dauka bizitzen,
bear bezela ume gaxoak mantentzen eta jantzitzen.

Emaztea edale duan senarrak zorra malz ardandegian,
eta lanedk etxeratzean bazkari onik ez eltzean.

Senar t'emazte biak ordiak baldin badira etxean,
diru ta lotsa guztiak galduta sarri dirade eskean».

(*J. B. Deya*, 1930, 221 orr.).

Etzan, orraitio, noiz edo noizkoren baten, ara naiz ona, olerkitxo bat bialduaz etsia artzen zuena. Izparkari ere ba-zen-duen. Bere erriko berri emaille izan zan urteetan, Albiztur'eko gauzak or-emen jakin-eraztea eder zitzaion eta. Bada olako iz-parrrik Muxika'k gatz-ozpinduta, bertso fiñ adierazkorrez ere bai askotan, Donosti'ko «Argia»-n eta Bilbao'ko «Jesus'en Bio-tzaren Deya»-n baitipat.

1930'an onela idazten zuen Albiztur'tik: «Eguneroko eta asteroko izperringi eta aldizkingi onak ez diran guztiak betiko utzi ditzagula, eta oyetako al-degun onenak artuaz berai lagun-tzen saya gaitzela, gure Erretore jaun onbidetsuak bene-bene-tan arrendu zigun il onen lenengo igandeko Meza nagusiko bere itzaldian.

Izkillurikan kaltegarrienak
periodiko, txarrak dira,
beragatikan, ez utzi oyei,
sartzen erri ta etxera.
Paper gaiztoen irakurleak
naiz ona izan itxura,
entzun izan det txit zailla dala
oyek igotzea zerura».

(*J. B. Deya*, 1930, ilbeltza, 24 orr.).

1970'ko dagonillaren 12'an il zan, santu antzean.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 846 orr.; J. San Martin, *Escritores eus-kericos*, Bilbao, 1968, 134 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores Vascos*, 107 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 521 orr.).

15.—KAIO LASA ZALA (1884-1967)

Itxas-ertzeko uri pertxenta ta edestiz jositako Ondarribi'n sortua duzu Kaio Lasa, 1884-4-22'an. Berton Udaletxeko txisulari genduen, eta ementxe bizi ta il zan 1967-5-14'an.

Ederki zekien euskeraz, eta gaztetan idazteari ere eman zion; gercra, baiña, ez dakigu zergatik, etzan gogo-lera orren mutil bizi izan; beste askok egin oi dutena egin zigun apika: sorturrez aalketan emanik, lurpean izkuta.

Salo au dendatu zuen beintzat: 1916'an, Donosti'n, *teatru lanak* eta *irri-lanak* iragarri ziran; baita sari galantak ere norgeiagoka ortan irabazle ziranentzat; *irri-lanak* aztartzeko, A. Kanpion, Txomin Agirre ta K. Etxegaral ziran maiko. B. Iraoia, Jose Eltzo Azpiazu, Aita Damaso Intza, Jose Iñazio Garmendia ta Kalo Lasa izan ziran sarizatuak.

Oso zuen lanetik (*Euskal Esnalea*, 1916, 63 orr.) atera dezakegunez, ba-zuen gaitasunik gauzak errez ta dotore adierazteko.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 117 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 467 orr.).

16.—JUAN ABELINO BARRIOLA AIZPURUA (1885-1944)

«Luze-lerden, itxura aundikoa zan Barriola —diosku aurzarotik ezagutu zuen Jose Artetxe idazleak—; surpekoa moztua, izakeraz bizi, izen oneko, ta nabarmena galñera bere-berea zuen keiñu batekin, Abelino'ren pertsona ta nor-izana berak eratu zizkigun antzerkietan daakagu oso-osorik... Ongi ezagutzen zuen Donostia'ko alderdi zarra —antxe bait zan sortu—, eta bertako jendearen bizi-moldea. Arrantzaleen zer asko zekizkin, eta antzerkera aldatzen zituen gatz eta piperrez galñezka... Ba-zuen musikarako zaletasuna ere, bioliña jotzeko, kriti-

kek egiteko ta abar. Andre Mari eleizako elizkizunetan asko lagundu zion Jose Olaizola'ri, *Zori gaiztoko eguna* zarzuela bien artean antolaturik, eta abar».

Donostia'n ludiratu zan Rarriola 1885-11-10'an. Emen egin zituen bere aur-ikasteak ere, eta gaiñerakoak. Ementxe ikasi zuen lan egiñez bizi izaten, ementxe baita gizon zintzoa izaten: ogibidez, oski-denda entzute aundikoa zeukan —gaur ere bal aren seme-alabak— Garibai kalean. Emendik ezagutu zuen **Do-**nosti, andikiz ta beartsuz betea, aien eta auen arima, otelez eta taberna-zuloz kuin-kuin. Baiña au baiño zerbait geiago nai zuen. «Barriola'k —dio J. M. Arozamena'k—, bere anai Paulo'ren antzera, politikazko bame-giro sendo indartsuaren jabe zanak, **Donostia'**ren ditzira azpitik donostiarraren xurtasuna ta ganora zeudela, ezagutu zuen. Ta bere burua antzerkirako gaitsu ikusirik, Teatrura jo zuen oitura txarrak zigor-azteko, erti-jauretxe bat eraikitzeke, mintzoera lerdenezkoa noski, euskaldun guztientzat eredugarri izan zedin» (*Donostia, capilal de San Sebastidn*).

Garai artan oitzen zan bizimodu neurritsua zeraman geienik: goizean goizetik jalki, meza entzun, zerbait idatzi ta denda-lanera; arratsaldean, berdin. Neurrizko bizitza ortatik izan oi zuen oindio lagunakin solasaldiak eukitzeko, antzerki bipillak idazteko, ari ta oni mesedeak egiteko, orduko teatrugille —Torribio Altzaga, B. Iraola...— ospetsuekin, donostiar jendeari pozaldiak eta kultura ematearren, lanak aukeratu ta aurrera eramateko beta ere. Zenbat onako lan artu zituen bere gain!

Orrela, izen aundiko egin zitzalgun donostiarren artean. Eta, jakiña, Erri etxeko arazoak, uritar guztien onerakoak alegia, alik eta zeatz arduratsuen eraman al izateko gizon azkar, langille ta begikoa zala-ta, ziñegotzi edo kontsejala autu zuten. Abelino ta Paul, bi anaiak, luzaro eraman zuten **Donosti'**ko Udal-etxeko zeregiña. Eta, bi anaion aolku ta esanez, egintza bi burutu zituen Udalak, donostiarrak iñoiz bear bezela eskertu ez dituenak: Artikutza'tik ura ekartea ta Euskal izkera ta jardun-

akademia sortzea. Barriola bi anak izan ziran Artikutza lurrak erosi ta bertako ura Donosti'ra ekarteko bear ziran bideak errez-tu ta uriratzea lortu zutenak, eta Lukas Zulaika ta Abelino Barriola izan ziran, biok Udaletxeko ziñegotzi, aitatu dugun Euskal Akademia lanean jarri zutenak: onek artu zuen geroztik bere gaiñ euskal teatruaren etorpide ta garatzea.

1936'gneko gerra astean, Frantzirantza iges egin zuen bere sendiarekin, Bearne aldean zortzi bat urte egiñik. Paube'n il zan, 1944-4-19'an.

ANTZERKIGILLE.—Anitz erataro on egin dezakegu munduan. Barriola onari emana zan, eta onean ikusi opa zuen bere erri osoa ere. Bere garaiko beste iñork baiño obeki ezagutzen omen zuen donostiar jendea, eta berak bere antzerkietan sartzen ditun antzezlagun guztiak kale-kalekoak eta bizi-biziak omen. Auek eskolatu ta ondu nal zituen, gaur berealdiko par-estandak sortuaz, biar ordea sentimentuzko itz garratzez begiak malkoz ezkatirik.

Ona aren antzerki-lan batzuk:

1) *Meza Berriya* (Donostia, 1909). Ekitaldi bateko antzerkia. 1908'an Eibar'ko euskal jaietan saritua. Donostia'n, «Teatro Printzipal»-ean eman zan lenengoz. Bizkaleraz ere Bilbao'ko «Euzkeltzale-Bazkuna»-k jarri zuen. Egituraz ta barne-muiñez, gaurkotasun aunditan burutua. Kritika txalogarria egin zioten garaiko egunerokoak.

2) *Aldiz, aldiz!* (Donostia, 1911). Baroja'renean. 1910'an Azkoiti'n ospaturiko Lore-Jokuetan sarizatua. Ekitaldi bateko jostirudia.

3) *Zulo madarikatuak* (Donostia, 1911). Ekitaldi bitako antzerkia 1911'an Bilbao'ko «Euzko-Gastedija»-k iriki zuen antzerki-txapelketan lenengo saria jaso ta Donosti'ko «Teatro Printzipal»-ean 1912-4-14'an lendabizikoz antzetzua.

4) *Zori gaiztoko eguna* (Donostia, 1911). Zarzuela, ekitaldi baten. Jose Olaizola'k jarri zion musika. 1909-9-18'tik aurre-

ra Ernani'n ospatu ziran euskal jaletan, 20'an, ango Udaletxean Jose Claizola'ren «Gugeleza'ren euritakoa» ta A. Barriola'ren «Zori galztoko eguna» eman zituzten lenengo aldiz. Gerora ere maiz eman zuten zarzuela au.

5) *Lagun txar bat* (Donostia). J. Baroja'renean. Iru ekitalditako drama. 1912'gn. urteko Lore-Jokuetan, Donosti'n, saria irabazi zuena, ta 1916-4-6'an, «Teatro Printzipal»-ean lenda-bizikoz antzeztua.

6) *Gai dagonaren indarra* (Antzerti, 1934). Ekitaldi batekoa. 1915-6-5'an, Donosti'ko «Teatro Printzipal»-ean lenengoz emana.

7) *Maitasunak* (Argitaratu gabe). Iru ekitalditako antzerkia. 1923-1-20'an, Donosti'ko «Teatro Printzipal»-ean lenengoz aurkeztua.

8) Bakar-izketak: *Brokoliyo ta Zozoarro*.

9) *Goi-argi* (Donostia, 1935). J. Baroja'renean. 52 orrialde. «Antzerti»-k onela: «*Goi-argi* au azkeneko udaberrian Donostia ta Bilbao'n antzeztu zuten. Eta bai egunkari, ta bai ikusleak, ongi etorri ta arrera beroa egin zioten. *Goi-argi* drama osoa da: elkarrizketa eroso, errez eta ariñez josia dago. Euskal esaera ta gogai sakon asko ditu. «Tesis»-dun antzerkia degu. Zillegigoa, katolikotasuna aldeztu nal duala asieratik ezagun zalo. Ta azkenerako malkoak isuri arazten dituana» (1935, azalean). Beste toki baten ere berdintsu: «*Goi-Argi* antzerki ederra da, benetan, ongi tajutua, elkarrizketa biziz josia ta biotz ikugarria. Oso trebe ta egoki antzeztua izan zan (Victoria Eugenia antzokian, San Jose egunez) Beorlegi, Egileor, Barriola (Mirentxu ta Imanol), Bikendi, Ugartetxea ta gaineraoangatik. Txalo jotze luzeak entzun zituzten antzezlari ta egilleak».

Teatru-lan auetatik «Lagun txar bat» eta «Gal dagonaren indarra» dira Barriola'ri aomenik zabal-garalena eman ziotenak. Izanere, «Lagun txar bat»-ekin garai artako euskal antzerkigilleen buruan jarri zan, eta konkurtsuetatik kanpo utzi zuten, irutan lenengo saria jarraian eskuratu zuelako. «Lagun txar bat»

Bilbao'n, Bergara'n eta abar antzestu zan; «Gai dagonaren indarra», berdintsu, 1915-12-21'an, Santo Tomas egunean, Donosti'n eman zuenean batez ere sekulako txaloak eta onezko kritikak artu zituen.

Abelino Barriola ta Toribio Alzaga ondo ezagutu zitun J. M. Arozamena'k, zer oni buruz, onela dio: «Toribio ta Abelino, donostiar aundi bi, kemenez, leraz beteak, par-eragin eta pentsa-erazteko arazo jatorrari lotuak. Euskal Teatroa zor diegu. Noiz kitatuko ote du Donosti'k bi gizaseme oi ez bezelako auekin duen zorra?»

(Ikus J. Artetxe, *Camino y horizonte*, Iruña, 1960, 143 orr.; J. M. Arozamena, *Donostia, capital de San Sebastián*, «Añamendi» sailla, 35 zenbakian; A. Labaien, *Teatro euskaro*, I, 55 orr. ta II, 45 ta 162 orr.; Añamendi, *Literatura*, III, 255 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 465 orr.; *Euskal-Erria*, 1914, LXXI, 409 orr.).

17.—JORJE AGIRRE (1885-1947)

Euskal idazle nekegaitza. Jesus'en Lagundikoa.

Zegama'n ludiratu zan 1885-4-22'an.

1920'tik gerrararte beintzat etengabe idatzi zigun *Jesus'en Biotzaren Deya*-n, gazi-gezak, lan sakonak, izkirimiriak eta abar. Euskera ederra du, arin errikoia. Donostia'ko «Argia»-n ere idatzi zuen. Berak sortu ta zuzendu zigun, gaiñera, Luistarren «Gure Mutillak» euskal aldizkaria. Urrengo liburuok ere be-reak ditu:

1) *Etxe ta etxekoen eskeintza Jesus'en Biotzari* (Bilbao, 1926). «El Mensajero»-k atera zuen. 31 orr.

2) *Jesus'en Biotza etxeun eta elizan* (Bilbao, 1927). Otoitz Bialguntza laguntzat, erakusaldi ta otoitzak. «El Mensajero»-k aterata. 78 orrialde. Tolosa'n ere argitara zuten, 1927 ta 1928'an, E. Lopez'enean.

3) *Jesukristo Erregeari Bederatziurrena* (Zarautz, 1927). Editorial Vasca'k.

4) *Aita Iñazio Deunaren Bederatziurrena* (Bigarrenez, Zarautz, 1927). Editorial Vasca'k.

5) *Estanislao Kostka Deunaren Bederatziurrena* (Zarautz, 1927). Editorial Vasca'k azaldua.

6) *Loyola'tar Iñazio-Deunaren gogo jardunetako Ejerzizioetako egi ta erakutsi gogorra geienak* (Zarautz, 1928). Celaya y Cia'k. 288 orrialde.

7) *Luis 'Gonzaga Deunaren Bederatziurrena* (Zarautz, 1928). Editorial Vasca'k argitaratua,

8) *Loyola'tar Iñazio Deuna ta aurrenengo Jesulagun mihiolari euskatdunak Euskalerrian* (Donostia, 1929). Leizaola'ren irarkolan. 47 orrialde.

9) *Kristau esku liburua* (Donostia, 1934). Leizaola'renean.

10) *Luistarren Eliz liburua* (Donostia, 1934). Leizaola'ren irarkolan.

11) *Maria'ren Alaben Eliz liburua* (Donostia, 1934). Leizaola'ren irar-etxean.

12) *San Ignacio de Loyola y el idioma vasco* (Yakintza, 1935, III, 270 orr.).

13) *Loyola'ko Argi izpiak* berak argitaratu zizkigun.

Azkenengo gudaldian Ego-Ameriketara joan zan, Eta an ere geldi egon eziñik, «Militantes» zeritzan aldizkaria sortu ta zuzendu.

Guenik, New York'en il zan 1947-6-21'an.

(Ikus J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 16 orr.; Auñamendi. *Literatura*, III, 276 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 54 orr.).

18.—ERROMUALDO GALDOS BAERTEL (1885-1953)

Eibar'en jaio zan, 1885-2-7'an. 1902-11-12'an sartu zan Jesus'en Lagundian, Loiola'n eta Oña'n egiñik bere eliz-ikas-kizunak. Gizaseme jakintsua. Ia bizitza guztian irakasletza egin zuen Erroma'n eta Oña'n.

Idazle naikoa ugaria. Erroma'n zegoela eman zituen: «Explanatio in Salmos», «Comentario al libro de Tobit», «Salterio Davidico», «Estudios Evangelicos», «El yo soy en los labios de Jesus», «Misterios de la Vida de Cristo», eta abar. Euskalerrari buruzko auek ere bai: «Contribución a la monografía de la villa de Eibar» (RIEV, 1929, XX, 231 orr.), «Curiosidades euskéricas de un libro ingles de 1848» (BAP, 1947, III, 83 ta 259 orr.), «Un documento interesante acerca de la patria de San Martin de la Ascension» (RIEV, 1935, XXXI, 578 orr.), «Guipuzcoa por el Santo Duque» (Zarautz, 1953), «Interesantes recuerdos de un cardenal bilbaino (F. A. J. de Gardoqui, (Homenaje a D. Julio de Urquijo, 1949, I, 119 orr.), «Un insigne jesuita elorriano, muerto desterrado en Bolonia-Joaquin de Iturri» (BAP, 1953, IX, 61 orr.), «El Santo Cristo de Vergara. Poema» (Roma, 1940), «Las Siete Palabras de N. S. Jesucristo en la Cruz, con ilustraciones basadas en el «Santo Cristo» de Vergara» (Roma, 1940), «Un vasco ilustre honrosamente sepultado en Bruselas —J. Arrazola» (RIEV, 1936, XXVII, 328 orr. ta BAP, 1947, III. 205 orr.), eta abar.

Euskeraz ere etzaizun zabar ibilli. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, 1918'an asita, naikoa idatzi zigun, olerkiz ta itz lauz. Euskera politean ba-du irudimena, Irakur «Itxas-ontzirik kas-karrena, Itxas-ontzirik gogorrena» deritzan lanaren asiera:

«URPONTZI IZUGARRIA. Europa guztia negar ta odolez beteta daukan guda (gerra) baltz ta gogor orretan, *submarino* edo urpontziak darabiltzen eginkerak, ezin ziñistutekuak dira. Itxas-ontzirik txikienetakuak, 20 edo 30 gizon bakarrik barruan eruanaz, 1.000, 2.000, baita 3.000 gizon be barruan zeroiezen itxas-ontzirik aundienak ondatu ditue. Urpontzi txiki orren izakera, ibillera, burrukak, goraberak, garaikundak (vitoriak) ikusgarriak eta entzungarriak dira. Baña beste itxas-ontzi txiki bat ezagutzen dot nik, Doixtarren edo Alemanen urpontziak baño amalka bidar indartsuagoa; orren izakera, ibillera, burrakak, goraberak, eta garaikundak... orrek bal bene-benetan ikusgarriak eta entzungarriak! Badakizue zein dan itxas-ontzi ori? Badakizue zein

dan urpontzi izugarri ori?... Euskaldunok ondo ezagutzen dogu; itxas-ontzi izugarri ori Aita *San Pedro*'ren ontzia da, gure Eleiz-Ama maite Deuna da» (*J. B. Deya*, 1918, 181 orr.).

Eibar'en il zan, 1953-12-27'an.

Liburu auek argitaldu zizkigun:

1) *Miguel Garicoits edo Garaikoetxea'tar Mikel zorundunaren bizitza bere lengusu Etxeberria'tar Yon yaupariak lapurdieraz egiña, gipuzkeraz* (Bilbao, 1923). Editorial Vasca'n. 37 orrialde.

2) *Elimeleka ta Nomi* (Euzkerea, 1930, 389, 390 ta 400 orr.). Iberkeraz artu ta euskeralduta dago.

3) *Dabiden Eres-Abestiak* (Erroma, 1936). Latekeraz, gerkeraz eta iberkeraz artu ta euskeraz jarriak. 42-12 orrialde. Euskalerriko jaupariei eskeñia. Belgika'ko Marneffe'n, 1933-5-14'an burutu zuen lana. Lenengo ingurrazti onek XXIII eresi dakartzi lateraz ta euskeraz. Santander'ko Gotzain zan Egino Treku'tar Jose'k egin zion itzaurrea; onela dio: «Lan orren onura, aundia izango dala derizkiot: Dabiden eresiak, apaiz geranon artean ere, ez dira bear bezela ezagutzen; orduoro ezaña darabilzkigu, baña au negargarria!... Zer adierazten diguten ulertzeke. Zure Idaztia ordea ajolgabekeri beltz ori gure artetik kentzeko, oso egoki dator; dala latekeraz, dala euzkeraz, Dabid Ereslearen gogoa, argi-argi agertzen bai-du» (VII orr.). Etzan agertu beste ingurraztirik, tamalez.

4) *Jesus Aurtxoaren lenengo itzaldia* (Zarautz, 1952). Itxaropena irarkolan. 56 orrialde. Olerkia duzu, zortzi kantutan. A. Ibiñagabeitia'k onela: «Ezin diteke ukatu Aita Galdos'ek bere-bere duen idazkera daukanik, eta beretasun ori oraingo poema ontan ere erakusten digu. Gaitzat, Yosu aurtxoak bere ao xeru artatik ixuri zituen aurreneko itzak nai lituke... Galdos Idazteunetan yakintsua izaki, zein izkeran eman zituen ere esaten digu: aram-keraz, ua bai zan garai artako Palaistina'ko izkera» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 9-10, 24 orr.).

5) *Ezkontza* ta beste lan batzuk argitara gabe daude oraindik.

Idazteunetan Irakasle genduen Aita Galdos. Eta Liburu Santuetako illun-une asko argitu nairik, lan ugari osotu zigun, gorago aitatuetaz landa ere. Ona J. Egiño'k: «**D**abiden abestiak argitze-arren, zuk egindako lan ederrak, aspalditik ezagutzen ditut. Belarmino **D**eunak gal orretzaz idatzitako Idazti aundia, zuk argi ta garbi berriztu zendun; «**V**erdum **D**omini» deitzen zaion aldizkari ospetsuan ere, abesri oyen mami eztsua beñ baño geyagotan eman diguzu; eta ori gutxi iritxita, **D**abiden Idazti osoa, bere izenez agertzen diran 150 abestiekin, erderaz, eder ta ederki argitaratu dezu. Baña zure arazoa bukatu-gabe zegoen. Oralñ-arte egindako lan txalogarri oyen erpiñean, lore bikain baten antzera, **D**abiden eres-txorta, euskeralduta ipiñi nal izan dezu. Lanaren ederra!... Jaunak berak buru ta bio-tzean sartu dizun asmoz egindako lana!...» (*Abestiak*, VI orr.).

Amar izkuntza edo zekizldn.

(Ikus S. Onaindia, *MEOE*, 878 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1952, 9-10, 24 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 84 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 129 orr. ta «El Bidasoa», 1954-I-16; J. San Martin, «Eibar» aldizkaria, 27 zenbakia, 1959'gneko. urrilla, 10 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 334 orr.; Jon Bilbao, *Esuko Bibliographia*, 559 orr.).

19.—MANUEL ZELAIA ZENDOIA (1889-1971)

Azpeiti'n jaioa, 1889-4-27'an. Osagillea. Zaragoza'ko Ikasgu nagusitik Lizenziatua ta Madrid'ekotik Irakasle-mallakoa. Donosti'ko Udaletxeko Erruki-etxean egon zan luzaro sendagille.

Donostia'n bertan il zan 1971'an.

Idazti zalea zan; euskerazkoak batez ere, eder zituen. As-ti-uneetan euskal lantxoak osatzen ere salatu zitzalgun, or-emengo aldizkarietan argitara emanik. Euskal idatzietan «Mendizale zaar bat» erabili zuen, eta erderazkoetan «Un montañero vetusto».

Bere zartzaroan argitaldu zuen: *Apocalipsis* (Donostia, 1964). Euskeraz ta erderaz. Poliki itzulita dago.

Argitara gabe: Pio Baroxa'ren *La Dama de Urtubi*, itzulita utzi zuen.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, Bilbao, 1968, 61 orr.; Auñamendi *Literatura*, III, 507 orr.).

20.—RUFINO ARREGI (1889-1968)

Idiazabd'en munduratu zan 1889-9-29'an, eta Buenos Aires' en il zan 1968-5-14'an.

Euskal idazle bezela, «Euzko-Deya»-n argita zituen bere lanak; balta «Euzko-Gogoa»-ra ere bialtzen zitun Buenos Aires'ko berriak.

Ona zatitxo au: «Zenbait euskaldun itz egiten asten ba'dira, euren tankeran ez ba'diezu erantzuten, bereala nagitsu dira; irakurri, ene!, itz berriz zeok edo bizkaitarrez, gipuzkoarra ba'da, eta bizkaltarra ba'da, giputzez betea zeok eta kito. Idatzzi, au ez da pentsature, ezin leike euskeraz. Dana dala, ni burruka ontan arraiek uretan bezela nabil. Nik ez diot inungo euskaldunei, gure izkuntzan balzik idatziko, gaizki edo ondo, nal ba'du edo ez ba'du» (*Euzko-Gogoa*, 1957, irailla-urrilla, 192 orr.).

Buenos Aires'ko «Laurak Bat» alkarteko aretoan euskal ikastaroak zuzendu zituen bere azken urteetan batez ere.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 37 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 480 orr.).

21.—JUAN BASURKO ANSOLA (1890-1957)

Arotz-olerkari au, barru ta kanpo, nalko ongi ezagutu zuen Fernando Artola'k onela margozten digu Basurko: «Oi, ura no-

lako! «Ez zan ez ttipi, ez andi, bai bien arteko». Erbiñudebegiak; urdin antzekoak. Arpegi alal borobilxka. Sudurpeko arin bat, txuritzen asia. Sendoa, betea, baño ez gizen eta lodia.

Ibillera jantzia, sotilla. Burutik oñetara era bat txukuna, garbia. Olakoa zan kanpotik. Barrutik? Esan oi da animaren antzikurra, espillua dala arpegia. Baxurko'nean bai, beintzat. Zintzoa, oso zintzoa zan. Leiala, txit leiala. Ona, ezin ta obea. Apaletan apalena. Goxakal eztia. Gizonetan gizon!» (*Olerti*, 1962, I-II, 85 orr.).

Bidasoa ibalaren ipar aldeko itxas egalean datzan Ondarribi'n sortu zan 1890-5-29'an, goizeko amaika ta erdietan, Guadalupe'ko Amaren ondoan, Jalzkibel mendi altzoko baserri baten. Bere gurasoak: Jose Joakin, mutrikuarra, ta Josepa Antoni, Mendaro'koa. Aita argiña zuen arren, semeak etzun eder aitaren ogibidea ta arotzerako zeukan ixuriari jarraituz, «langintza orri eutsti zion betirako», Irun'en. Nik, 1954'an, nere bertso ta olerki-xorta osatzeko lan eske joan nintzakionean, bere aroztegi egokian aurkitu nuen lan eta lan. Gizon mazala ta bioztia.

Iru bider ezkondu zan. 1913'an lendabizi, Kontxa Auzmendi'rekin; iru urte barru alargundu zan, oiñordekorik utzitzeka. Juana Guderrez Etxebeste irundarrarekin ezkondu zan bigarrenez, onengandik seme bat eukirik; 1932'n il zitzaion emaztea. 1942-2-11 'an ezkondu zan berriz, bere illoba Josefa Zulaika Basurko'rekin; etzuten seme-alabarik izan.

1936'an, gerrako zurrunbilloan, «nai zuana eta nal etzuana, aurretik zebillena bezelaxe atzetik bildurti zebillana ere» sareetan sarturik, Irun'en zilipurdi batzuk egin ostean, Endaia'ra jo zuen, eta baserriren baten lan egiteko prest, Urruña'n aurkitu zuen, «biotz oneko jende» artean, nun bizi ta nun lan egin. 1940'ko udaran, Urruña'ri agur egiñik, berriz itzuli zan Irun'en zeukan bere etxera, ta lantegira. Eguberri egun batez, ots, 1957-

12-25'an, Jainkoari eman zion bere ezpiritua. «Jesus Aurtxoak otz izan nunbait eta gure arotz-olerkari biotzaren beroa nal», diosku Bordari'k.

Jende aundia izan zan aren eortzetan. «Olerkari ta idazle asko. Irun guzia. Mueta guzitako oztea». Egunkari ta aldizkingi askok goretsi zuten: «El Bidasoa», «La Voz de España», «Herria», «Ondarribi», «Nora?», «BAP», «Zeruko Argia» etziran aspertu aren oroipenez idazten. Bidasoa inguruak eta Jaizkibel mendia, «gure bazterrak beltzez jantzi ziran. Eta Basurko goratu naiez, bere erriko gazte batzuek, «Oargitarrak», Olerld sariketa bat eratu zuten» (Loc. cit.). Ugarte'tar Martin legazpitarrak, «Basurka» gaiari eldurik, eraman zuen lenengo saria; Olabeaga Anaia gelditu zan bigarren. 1958-7-6'an jai aundia egin zuten. Urruña'ko erriak ere, 1958-4-13'an, berebiziko omenaldia eskeiñi zion Basurko zanari, meza nagusi, bertsolari ta abarrez.

EUSKAL LANA.—Gaztetan, 18 urte zituala-ta, bertso pape-rak eder zituen, Pello Mari Otaño'renak batez ere; bertso sakinak buruz ikasten alegindu zitzaigun. Ta au da bertsolari ona izan gura duenak egin bear duena: irakurri ta ikasi egundo aspertu gabe, ekiña ta iraunkortasuna bait dira atze ta ondore eder guztien ardatz.

«Bertso-zale porrokatua zan —dio Bordari'k—; ez zan bertsolari. Bertsolariak dadukaten bat-bateko «zera» ori etzeukan, koplak errex egingo bazitun ere. Baña bertsolari onenari zor etzion eta ez dio Baxurko'k bertsoak paperan antolatzen. Onetan maixutan maixu gendun. Erakutsiak eman zitun ainbeste sariketetan» (*Olerti*, 1962, I-II, 96 orr.).

Eskolan gutxi ibillia izan arren, «Fede zakonak ematen duen ziurtasunaren jabe zan». Xirpillak egiten zituen, eta etxeko tresnak, oek, seaskak, il-kutzak. Zurgina zan. Baita olerkari ere: zurgintza lan bitartean, barne olerkaria uts-erazten zuen bertso bizi arraletan. Azken urteetan batez ere, *Korrokoitz* ka-lean bizi zalarik, ainbat lan agertu zizkigun «Herria», «Euzko-

Gogoa», «Gernika», «El Bidasoa», «Learso», «Egan», «Arantzazu», «Argia», «Karmel», «Olerti» ta antzeko aldizkarietan. Ainbat sari ta alpamen izan zituen Biarritz'en, Ondarribi'n Balona'n, Sara'n, Buenos Aires'en, Arantzazu'n eta abar.

Orrez galñera, liburu bezela, poema bat eta iru idazti bertsotan argitaratuak ditu.

1) *Jesus* (Arantzazu, 1954). Jesukristoren bizitza bertsotan jarria. 94 orrialde. Txakun egiña da liburu au, kantatzeko koplak bikalñez ornitua. M. Lekuona'k onela: «Gure bertsoak ez dirala irakurtzeko, kantatzeko baizik. Eta barruan daukaten guna ta ezta ondo xurgatu nal badezu, irakurri ez baño kantatu egin bear dituzula. Aldiz, xiri-xara, aldiz itzal aundiko konpasean, kanta. Ikusiko dezu nolako beste «zer» bat somatako dezun biotzean, nolako beste atximur bat nabariko dezun barruan. Aldiz, baita itzak eztarrian trabatuko ere, eztarria estuturik» (*Sarrera*, 6 orr.).

2) *Iñazio Deuna* (Donostia, 1955). Valverde'ren irarkolan. 84 orrialde. Aita Plazido Muxika'ren itzaurrearekin. M. Lekuona'k «Jesus» liburua alpatuz bezela, Muxika'k ere egillearen trebetasuna goratu ondoren, auxe dio: «Liburu artan bezela, oralngo ontan ere, bertso oiek kantatu egin bear dira. Ezta ordea liburu guzia erabat eta etengabe irakurri edo kantatu bear. Abestu itzazu bertso oiek aldizka ta txolartietan, pixka bat irakurri, beste bat kantatu. Euri geldia bezelaxe, goxo-goxo sartuko zaizkitzu biotz ondoraño. Egizu saloa ta ikusiko dezu!» (*Irakurleari*, 7 orr.).

3) *Ibilkari bikain bat* (Zarautz, 1957). Itxaropena irarkolan. 4 orr. Sebe Peña Albisu, tolosar jatorrari jarriak dira bertso auk, Euskalerrinari oiñez bira egin zionean, ain zuzen ere.

4) *Arantzazu'ko Amaren edestitxoa* (Arantzazu, 1957). 46 orrialde. Gipuzkoa'ko Zaindaria abesten du zortziko biribilletan.

«Onek esan nai du —dio Bordari'k—, norbaltek lenago eragin balio, Baxurko'k izugarrizko lana utzi al-izan zezakeala Jaungoikoa ta Euskal Errientzako». Euskera errikoa du, joskera garbala.

Eta beste au: «Baxurko, erri-maitale gendun. Kutxa zaarrean gordetako oial, artille oial on bat. Aritz-zura bezin gogorra, gaztanbera bezin guria. Baxurko'k, anima garbi; etzeukan arte txarrik. Jaungoikoa aurrena, lege zaarra gero; gizon azalduko zitzalgun beti. Nola esango nuke: Kristau eta Kristau; lagunetan lagun. Euskaldunetan euskeldun» (*Olerti*, 1962, I-II, 96 orr.).

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 951 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1955, 74 orr.; J. Artetxe, *Camino y Horizonte*, 1960, 122 orr.; Nikolas Altzola G., *Euskera*, 1958, 171 orr.; BAP, 1958, 83 orr.; *Zeruko Argia*, 1957, XXII, 249 orr.; *El Bidasoa*, 1968-4-19'an, 2 orr.; *San Marcial*, Irun, 1958, 25'gn. zenbakian; Bordari (Fernando Artola), *El Diario Vasco*, Donosti, 1958-4-15'an, eta *Olerti*, 1962, I-II, 85 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1954, V, 160 orr., ta 1955, VI, 143 orr.; J. San Martín, *Escritores euskirricos*, 54 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 356 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 483 orr.).

22.—JUAN EZENARRO MENDIA (1890-1945)

Asko erakutsi oi digu geure auzoan, ezker-eskubi, daakagun munduak. Mundu au urbil dugu beti, seaskatik eriotzararte. Gaur alak biar atsekabez gaindizko. Ta alabearrez, aul nalz sendo, bakoitzak bakoitzari dagokiona bizkar gaiñ artu ta aurre-ra egin bearra dugu damurik.

Orrela egin zigun Ezenarro'k ere. Ludi onetan etzan kralbelin artean ibilli; noizik bein larrosa ostoak oinpean ere izan zituen arren, oso gutxi izan zituen auek. Arantza-puntak, berriz, ugari. Balña bizitzako arantza punta auek egin zuten olerkari; gorputza aul zuelarik ere, arimea kementsu zekarren beti. Ori digarte aren olerkiak.

Antzuola'n jaio zan, Antigua auzunean, 1890-6-26'an. Bere aita, Bonifazio Ezenarro Artiz, Bergara'ko semea, ta ama, Kontxa Mendia Apaolaza, Antzuola'koa. Sei urte zituala il zitzaion ama, ta umezurtz gelditu zan; orixegatik, Donosti'ko alderdi zarrean bizi zan aitaren aldetiko aitonaren etxera eraman zuten; emen ikasi zizkigun lenengo asimasiak Migel Txarola maixuaren eskolan eta gero Institutoan. Ontan, amabost urte zituela, pelotan geiegi egin zuen egun betean, txit pelota-zalea bait zan, otzitu ta geixotu egin zitzaigun; eta, sendatzeko, Gares (Puente la Reina)'ra eraman zuten, bere osaba Eleuterio Ezenarro'ren etxera. Emen bizi izan zan ogetalau urte.bete zitueneraino.

Euskal idazle onen bizi-zeaztasunak eta lanak ardurua aundiz aztertu ta bildu dizkigun Bitaña'k onela diosku: «Arrezkero ezin izan zuen geiago pelotan jokatu, eta liburuetara jo zigun, eta idaztera, euskeraz batez ere» (*Cien Autores vascos*, 1966, 92 orr.).

Bere osasunean zerbait eztitua, Errenderi'ra aldatu zan 1914'an, bere altaren ondora. Au, Bonifazio, Leon abizeneko frantses batzuen espartzin (abarketa) fabrikako arduraduna zan. Juan'ek, aitaren ondorean abarketa ofizioa ikasitakoan, Irun'era aldatu ta «La Union» kalean jarri zuen bere tallerra, ontan jardunik bere bizitza guztian. Langille paketsu ta zolia zan ezkerero, laster eskuratu zituen txanpon batzuk, ari ta oni, uriko gaixo-etxeari batez ere, eskupeko batzuk emateko aiña nunit. Kristau ta mesedegille aundia zan. Bitaña'k berriz ere: «Biziari dagozkion gumtzeak baikortsu eramaten jaldn zuen. Adiskideak inguratu zituen. Buru argikoa zan, eta idazti zalea» (Loc. cit.).

Gerra sortu zanean, 1936'an, Endaia'ra aldatu ta an artu zuen etxea, bere kontura abarketagintzan lan egiñik. 1944'an, Irun'era itzuli zan, Obdulia bere arreba bakarraren etxera, eta emen il zan 1945-1-19'an, oraindik gazte, 55 urte zituala. Ezkongea gendun.

KOPLA IDAZLE.—Ludiko literatura orokorra begitu ezkeroz, gaixoti asko dira elertian, idatz-arloan, oso nabarmendu diranak. Gurean ere ezagutzen ditugu olakoak, eta bat Juan Ezenarro. Gaztetan asi zan irakurten, euskal neurtitzak irakurten, eta gero berak asmatuak ondu ta borobiltzen.

Nikolas Alzola'k onela: «Abarketak egiten irabazi eban eguneroko ogia. Asko irakurtzen zuen, eguneroko lanak beteta gero. Irakurri ta idatzi batez be euskeraz. 1916-n, 1917-n eta 1918-n olerki pillo bat argitaratu zuan Irungo *El Bidasoa* aste-karian. Gero be jarraitu zuen idazten, baiña geroago ta gutxia-go... Irungo astekari orretan larogei ta emeretzi lan aurkitu ditut bereak; sei kendu ezker, beste larogei ta amairuak denak dira itz-neurtuz egiñak «T. T.» eta «Txori Txiki» izengoitiakin ematen zituan, ez bere izenakin. Frantzia ta Arjentina'ko aldizkari batzutan be agertu dira bere olerki batzuk, batez ere gerra denporan» (*Oleri*, 1963, III-IV, 106 orr.).

Aldizkari auetan idatzi zuen batez ere; «Euskal Esnalea», «Euskal-Erria», «Hermes», «El Bidasoa», «Gure Herria», ta abar. «Ez da gauza erreza izango —diosku N. Alzola'k— Ezenarro'ren lan oscaren berri ematea. Bibliografoek izango dute lana ortaz». Errez mamitzen zituen bertsoak.

Malte ziruen euskeraren alde egin oi ziran batzar, jal eta lanak oro. Etzan politikan sartzen. Gurutze latza eraman bear izan zuela ere, umore ona erakutsi oi zuen aldioro.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 875 orr.; N. Alzola Gerediaga, *Oleri*, 1963, III-IV, 103 orr., eta *Cien Autores vascos*, 92 orr.; J. San Martin, *Escritores Euskericos*, 69 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 260 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 311 orr.).

23.—JOSE ELZO AZPIAZU (1894-1916)

Eego aurrenik emen J. Artetxe'ren au: «Euskeraren alde bere bizi guztiko almenak ondatuta Jaunak aldentzen ditu gulgandik zenbait euzkeltzale. Eta berialaxe badirudi aztutzen di-

tugula azkor otz eta illunean. Orrelako gizonak gogorlati bearrakoa zaigu; beartuak gera berak euskeraren alde egindako lan bereziak azaltzera. Zorionez urte oetan ainbat lan egin da sail orretan. Bestera balitz, esango genduke gure euzkerak inoiz ez lukela burua jasoko.

«Orlako gizon goragarria izan degu Eltzo'tar Joseba olerkari bikaña. Eltzo gaste-gasterik jcan zitzaigun. Ogeita bi urte besterik etzituala eriotz zitalak gure artetik eraman zuan orain dala amasei urte. Bizitzaren gora berak jarri ninduben gaste-gasterik Eltzo'ren olerkien bide-bidean, Gastetxua nintzala artean nere erritik etorri nintzan Donostira. Ostatur nintzan etxean bizi zan baita ere apal gazte euzkeltzale sutsu Karre-
ra'tar Josu, «Argia» asteroko zuzendaria. Etxe artan bizi izandu zan baita ere Muxika'tar Gergori euzkel idazle ospatsua. Baita ere Eltzo'tar Joseba'k etxe artan sarrera aundia izandu zuan noski, entzun nuanez. Iru-irurak Jainkoak bere aldera eramana. Etxe artan arkitu nituan egun batian bi iiburutxo eskuz idatziak. Eltzo'tar Joseba'ren idatzkiak ziran. Olerkiz eta bes-
telako idatzkiak betiak. Euskeraz eta erderaz. Egiya esateko euskeraz geyago, eta oetan olerkiz batez ere» (*Yakintza*, 1933, l'go zenbakia, ilbeltz-otsaila, 81 orr.).

Gizon on, apal eta «goi-goiko euskelzale» au Astigarraga'n jaio zan; bertan osotu zizkigun baita len-ikasketak ere, azkenik malxu karrera osaturik. Errenderi'n egin zuen bere malxutza, nalz-ta urte gutxitan. Malte zuen euskera ta beronen alde lan ederra zegian ikastolako umetxoen artean; «sayatzen naiz —zioan— nere motikoen biotz xamurretan euskeraganako mal-
tasuna ereiten; augatik agintzen diyet beren artean euskerea baño beste elerik ez ibiltzeko, Errenderi'n erdereka ikastolatik-at ikasi oi dute-ta». Euskaldunok ez gara izan egundo ere maixu karrera-zale, gizonezkuok beintzat; lan bikaiña egiteko bidea ba-da, ala ere.

Eskola ta abar, lanpetua zebillen Eltzo. Musika karrera ere egiten ziarduen. Il aurretxoan Madrid'era joateko zan, berak

zionez, «nere eresi-ikasketen amai ona irixte arren», azterketak egitera. Astigarraga'n il zan, bere etxean, arratsaldeko ordu bietan, 1916-10-20'an, bere eresi-ikasketak Madrid'en amaltuta etxeratu zanean, aln zuzen ere. G. Muxika'k, minduta, onela idatzi zuen bertatik: «Guztion jarral dabil beti eriotza. Euskelzalien jarrai ere bai; atsedean asko gabe alere! Beti dira mingarriak bere egikizun ixillak; mingarriagoak, ordea, oraingoan bezela, bere alzo otz ta zorrotzez, gazte bikain baten bizialdia ebakitzen duanean. Elzo-Azpiazu'tar Jose eranan digu» (*Euskal Esnalea*, 1916, 296 orr.). J. Gartzia Goldaraz'ek, geroago Valladolid'eko Gongotzaia izan zanak, olerki sentikor bat atera zion.

OLERKARI.—Euskaltzale ta abertzale genuen Eltzo. Ez al dabilta biak batera? Alkarregandik eten eziñik, ez ote ditugu? Etsi-etsian erria malte duenak arriskuan dagoen bere izkuntza galzkatzeko ere lerrenak egingo. Eltzo'k onela: «Ama euskerea gaizkatzeko, guztiyen alak batu bear dira; ez dakusku ba gure ele txukunaren etsai alixak berau ito nayezen geroz geyago sayatzen dirala? Besoak bular-gañetan jarrita amaren zoritxarra al-dendu nal ez duan semea gaixtoa da edo zoroa. Ez det uste zoroa nalzenik, eta gaixtoa ez det izan nal. Nik euskerea malte det, euskalduna naiz-ta; nik seaskatik oiñarte ezpañetan darabilten ele kutun cni, edo-zer zor diot» (*Euskal Esnalea*, 1916, 297 orr.).

Egia ala ere ez dago itzetan, egiñetan balzuk. Ori adierazi naita, Eltzo'k, ikastolan irakatsi ta musika-galak bikalndu ezezik, idatziz agertazi zigun bere biotza, xamur apala noski. J, Artetxe'k leen altaturiko bi liburutxo eskuz idatziak, olerkiz ta bestelako idazkiz beteak zeuden. An zegoen Eltzo'ren lana. «Gaztea zalarik, bere biozkadak, maltasun garbiz ase nayan zebillen biotz ura, bi liburutxo ayetan bai zegoen. Bere euskal erri zaletasuna, euskerarentzat zitun maltetasunak, bere gogo-bio-

tzeko bazterreneko eta izkutuko tokiak arkitzen ziran garbi, es-
talirik gabe, ez bal zuten askorenak bezela estal bearririk» (*Loc.*
cit.).

Euskeraz ta erderaz idatzi zigun, bertsoz eta itz lauz. Goxo,
leun ta ezti egiñak dauzka utzi zizkigun malte-eresi ta balada-
txoak: Heine doixtarra gogoratzen digute. Izkirimiriak idazten
asi zan lendabizi, olako sorta bat beintzat «Euskal Esnalea»-k
1916'an antola batzaldira bialdu zuen, bigarren saria irabazirik.
«Euskalerriaren Alde»-n, «Euskal-Erria»-n eta «Euskal Esna-
lea»-n datoz, 1915-1920 bitartean. Lan pitiñak ditu atsegin.
Onakoak edo:

«Eguna argiz esna ta
gauetz ametsetan
maltetxoagaz beti
nago ni pentsetan.

Malte det nere uxoa
biyotzez, ziñetan,
neuk ez jakiteraño
zenbat malte detan».

Ogeta amar bat lan izango ditu guztira; ogei ta iru bat oler-
ki, denak arin, errez eta ulert-errez eunduak, edo obeki: «poli-
tak, bigunak, sakonak, goxoak, errexak eta egiazkoak». «Maita-
sun on txakunez» laztan zuen malteño bat ei zeukan olerka-
riak, oler-iturri gardena nunbalt, eta ari eskeiñiak omen ditu
geienak.

Lore bat, uraren ikara, zernai aski zuen idazkortza artu ta
kopla goxotan izartzeko. Eskolan zeuzkan edo kalean ikusitako
aurtxoak ere, nolako poesi-sorburu zitzaizkion! *Miren Eskarne-
txu'ri* deritzana, bai guren osotua!

«Zekenkeriak ez du kutsutu zure biotza;
etzaltu ukitu ludi-putzuko lats zikiñak;

ezta zugana oraindik eldu girñen abotsa;
zure barruak ez daki, maite, zer dan mingotza
iñoiz urratu ez du-ta garbal ezten miñak...
Amets dagizu... egizu, ba, amets aldi luzean!
Etzaite esnatu, etzaite jetxi bizitzera;
crtxen gozoro egan egiñik gotzon artean,
egitasundik urrun, ameska gorutz aldean,
zabiltz, gaxori, beti or bizi al bazera...!»

Barne zeraman gaixoaren susmo ta itzalgaitza ere abestu
zigun, *Eri baten negarra* olerkian. Onela dio:

«Entzuten det bai nere barruan
abesti baten mur-murra...
Nere azkena gertu dagola
erakusten dun ikurra!»

Baiña etzion onek, il bearrak, bat ere ardurarik ematen; nai
zuenean etorri, eriotza pozik zuen laztandako. Barne zeukan la-
ratxoa, bere «samiña ezitze arren» mindu zan naikoa.

(Ikus G. Muxika, *Euskal Esnalea*, 1916, 296 orr.; J. Artetxe, *Ya-
kintza*, 1933, 81 orr.; S. Onaindia, MEOE, 803 orr.; N. Kortazar,
Cien autores vascos, 15 orr.; *Euskal-Erria*, 1916, LXXV, 349 orr.;
Auñamendi, *Literatura*, II, 183 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, 128
orrialde; S. Onaindia, *Las cien mejores poesias de amor de la lengua
vasca*, Bilbao, 1975, «La Gran Enciclopedia vasca», 130-134 orr.).

24.—JOSE GONTZALO ZULAIKA ARREGI (1886-1956)

«Aita Donosti». Merezi du onek ere gure literaturan toki
egoki bat. Musika barrutian izanik ere, euskd eresi zaar, fol-
klore, etnoloji ta olakoetan guztiz aitua izan zitzaigun, gai oieri
buruz ainbat lan bikain buruturik. Bego, beraz, emen kaputxino
jalndtsu ta langille purrukatu onen gomuta bereizia.

BIZITZ-UBEAK.—Donostia'n munduratu zan 1886-1-10'an. Amar urtedun zala, 1896'an, Lekarotz'era joan zan batxiller ikasteak egitera; ikasketok amaitu zituenean, 1902-3-19'an Lekarotz'en bertan jantzi zuen kaputxiñoen soiñekoa, urrengo urtean iru botoen eskeintza egiñik. Filosofia eta Teologia ere bertan, Lekarotz'eko komentuan ikasi zituen; 1908-12-19'an Iruñia'n mezako egin zan. Ikasle zan bitartean, latin eta ikasten zebiltzan mutilen irakasle ere izan zan. Apalztu ta gero ere, irakaskintzari ta musikari emana, Lekarotz'en eman zuen Aita Donosti'k bere bizitza guztia.

Umetatik zekarren musikarako doal berezia, ta orra, 1908'an, 22 urte besterik etzituela leen meza eman zuenean, bere lenengo musikak irarriak agertu ziran. Musikalari oso ezaguna ta mundu osoan goretsia; Lekarotz'eko ixiltasuna sarri eten bear izaten zuen, Madrid'en, Paris'en, Barzelona'n, Toulouse'n, Balona'n, Buenos Aires'en —nun ez?— itzaldiak eta kontziertuak emateko.

Malte zuen Euskalerrria ta beronen erri-musika. Uri ta berriz aspertu gabe ibillirikan, zenbat kanta ta bertso zaar bildu zizkigun, iltzear zeudenak! Goxotasunezko arretaz bildu ta jaso ere! Azkue ta Donosti izan ditugu gizaldi ontan gure eresi zaarren biltzallerik gaiñ-gaiñekoenak.

Ezin-konta ala itzaldi egin zigun Euskalerrrian eta Euskalerritik kanpo; eten barik idatzi zigun or-emengo aldizkarietan, eta nalz itzez naiz idatziz beti zerabillen euskel gala, musika ta folklore. Alderdi leun goxoa dugu au ere aren giza-irudian: itzaldi ta idazlanetan olako barne ezti kutsu, ezpiritu-min bizi-bizia agiri zalo, munduko jakintsu ta artisten artean on aundia egin zuena. Origatik edo, «apostolu artista» zeritzaioen. Euskal arima bipil ta eder baten jabe zan: Donostia'n jaloa izanik, eta umezarotik berrogei ta amar urtetaraiño Lekarotz'eko Ikasketxean bizi, ederki mintzatu oi zan euskeraz, eta idatzi.

1936'garreneko guda galzto aldiari erbestera joan bearra izan zuen. Etzan, balña, iñoiz ere biotz-erori agertu; Fran-

tzia'n zegoelarik ere, lan eta lan ari izan zitzaizun, «Gure Herria» aldizkaritik dakusgunez. Berdin, ondoren Barzelona'n egin zuen egotaldian ere beti langille nekegaitz, musika idatzi ta itzaldiak eman.

Ainitz batzalditan parte artu zigan. Eta alnbat alkartetan sartua zegoen: «Real Academia de Bellas Artes de San Fernando»-koa zan, Euskaltzaindikoa, «Eusko-Ikaskuntza»-ko «Musica y Danzas» saillekoa, «Instituto Español de Musicología» sortu zuen, «The Hispanic Society of America»-ko bazkide, «Sociedad de Musicología de Francia»-koa ere berdintsu.

1956-8-30'an, gaueko amalkak eta laurdenetan, fraideak inguruan zituelarik, Donosti'ko kaputxinoen komentuko gela apal batean il zan. Baiña berak nai izan zuen bezela, Lekarotz'eko frailleen iltegiak zaintzen ditu aren il-ondokoak.

ERES-LANAK.—Asko idatzi zuen Aita Donosti'k Torrellas, Labor, Blume, Grove ta Larousse'n eres-iztegiatan, eta «Euskal Herriaren Alde», RIEV, «Zeruko Argia», «Gure Herria», «Lecaroz», «Yakintza» ta BAP gure arteko aldizkarietan. Ona aren eres-lanik aipatuenak:

1) *De Musica Popular Vasca* (Bilbao, 1918). 1916'an Bilbao'ko «Filarmonica» aretoan emandako itzaldiak dira. Ementxe eman zuen bere bizitzako azkena ere, 1956-3-3'an.

2) *Euskal Eres-Sorta. Cancionero Vasco* (Madrid, 1922). 393 zenbakizko euskal folklore musika. Euskalerriko lau Aldundiak 1912'an eratu zuten eres-batzaldian aurkeztua.

3) *IX Egu-berri Abestiyak* (Madrid, 1916). Bederatzi Gabon kanta, doiñu berdiñean, organuak lagunduta.

4) *Eleiz-Abesti-Sorta* (Paris, 1925). 41 kanta.

5) *Euskal Eleiz Kantikak* (1952). Ogei abesti, lendik ere «Zeruko Argia»-n argitarara emandakoak.

6) *Eguerri* (Beloke, 1951). Beloke'ko Aita Beneditinuen «Ezkila»-k argitalduta.

7) *Oyar Otsak* (Donosria, 1927, 1930 ta 1959). Erri abestiak. Iru ingarrazti argitara ditu Donosti'ko Erbiti etxeak: I, abots berdiñetan; II, abots nastuetan; III, abots nastuetan.

8) «Gure Herria», mugaz andiko elebitsuko aldizkari elertizkoak, 1921'an sortuak, Aita Donosti'ren erri-kanta mordoska argitaldu zuen.

9) «Zeruko Argia»-k ere berdin, lenengo saillean 1919-1936, ta bigarreanean 1954'tik aurrera.

10) *XL Eleiz-Euskal-Abestiak* (Paris, 1924). Berrogei abesti, organuarekin lagunduta, len-danik «Zeruko Argia»-n azalduak.

* * *

Aita buruñurdun jakintsu onen lan ederra galdu ez dedintzat, Aita Riezu ari da Lekarotz'en aren musika ugari, idazlan jakingarri, mintzaldi goxo ta erri-jakintzari buruzko ikaskizun eta araketak oro, au da, aren lan guztien bilduma osatua biribildu ta argitara ematen. Dagoneko aren musika salletik aterarik ditu: 1) *Navidad* (1960); 2) *Pascua* (1965); 3) *Jesucristo* (1966); 4) *Marial* (1966); 5) *Santoral*, argitaratu gabe; 6) *Lilieder bat* (1962); 7) *Goizean goiz* (1968); 8) *Itxasoetan* (1969); 9) *Larre gorrian* (1971); 10) *Piano* (1972); 11) *Organo* (1975); 12) *De Cdmara*, argitaratu gabe. XII izango dira guztiz aren eres-lanak osorik ateratzekoak.

(Ikus Aita Jorge Riezu, *Vida, obras y semblanza espiritual del P. Jose Antonio de Donostia, Capuchino* (Iruña, 1956); G. Muxika, *Los titanes de la cultura vasca*, Auñamendi Bilduma, 21'garrena, 117 orr.; Iratzeder, *Gure Herria*, 1960, 353 orr.; H. Gavel, *Gure Herria*, 1960, 372 orr.; L. Dassance, *Gure Herria*, 1960, 375 orr.; Lagarralde, *Gure Herria*, 1960, 330 orr.; N. Labeguerie, *Gure Herria*, 1960, 384 orr.; G. Eppherre, *Gure Herria*, 1960, 321 orr.; *Egan*, 1956, 2, epaillajorrailla; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 175 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 347 orr.).

25.—NIKOLAS ORMAETXEA PELLEJERO (1888-1961)

Bijoa emen ere, aurrena, «Orixe» —onela dugu ezagun euskal literaturan geienik— zanaren illoba J. M. Aranalde apaizak dioskuna: «*Orixe* gorriak ikusita joana da mundu ontatik bestera; baña emen ikusi zitun gorri oiek baño gorriago zegon arek biotzean zeukan Jainko-maltasun-garra ta su ortan etzuten erretzen bee ontako min-gorriak. Ta an daukagu orain, gak nai baño len beregana eraman zun Jainkoaren altzoan. An argitan, Jesus eguzkiaren alboan, kristau izar aundienetakotan, berriz esan, aundienetakotan. Aren atsekabeen bukaerak negar egiñarazi digunori erakutsi dezaigula, arek maitatu zitun gauzak maitatzen: JAINKOA ta EUSKERA» (*Orixe Omenaldi*, 39 orr.).

BIZITZ-ATALAK.—Irakurria ezta gezurra. «Orixe» Jainkozale bezela ta euskaltzale bezela aundienetan aundienetakoa dugu. Or lekuko bere bizitzaldi osoa.

1888-12-5'an jaio zan N. Ormaetxea, Oresa'ko «Iriarte» etxean. Geroago gurasoak «Benta Berri»-ra aldatu ziran, eta azkenez, etxe-aldeko arreba ezkonduak «Gogortzanea» erosi, ta emen jarri ziran bizitzen. Esan dugun egunean iru aur sortu ziran. A. M. Labalen'ek: «Irutako bat, Nikolas, ain zuzen, Uitzi'ra inudearengana eraman zuten. Maitetsu ta biotz-zabalez artu zuten aurra Errekalde, Uitzi'ko etxeoak, batik bat Asuntxi amandreak, eta crexatar aurra, napar koskor biurtu zan, eta arrezkero ez zituan saltzeko ez inude ez Asuntxi ta ez Errekalde ta ez Uitzi'ko erria». (*Orixe Omenaldi*, 16 orr.).

Eta nolako mesedea egin zion Orixe'ri aurtzaroa Uitzi'n igarotzeak. Antxe ikasi zizun, aur-lagunal ta etxeo zarral entzunez, gero ain ederki erabilli zuen izkera, itz eta joskera ederra. Umetxo zala asita, amaika urtetan erriko eskolan ibilli zan, eta malxu-arazoan zotzak beregana jo zuen: Maixu ona euki zuen Orixe'k. Oiartzabakdar Martin'ek: «Ain zuzen, maixu ori, berak euki zitunen artean onentzat jotzen zun. Irakasleak, aurrei irakasten zizlden gaiak, argi ipintzen omen zizkien, gau-

zak zer ziran eta elkarren artean zer artu-eman eta zer alde zuten adieraziz. Urte asko ioanda ere, oroitzen zan Uitzí-eskola-ko gauza auetaz, irakaslea goratuz» (*Orixé Omenaldi*, 120 orr.). Gero, bost-sei urtetan lanari ekin zion, nekazaritza, artzaltza ta basoko lanak ondo ikasiaz. Eta baita berarekin zebiltzanen aotiko euskera bikalñia ere. Orrez galñi, orduantxe ikasi zuen Jainko-zale izaten: animako gurasorik onena bere amona izan omen zuen. «Ua lako gurasorik/ otoitzean ez dut kausi», diosku olerki baten.

Amazazpi urte zitula, 1905'an, Naparroalko Jabier'era joan zan, Jesus'en Lagundiko izateko asmoz. Zerk eragin ote zion? Ona J. M. Aranalde'k: «Maixuak eta apalzak eragin zioten artara, iesu-lagun bat errira aur billa etorri zan batean. Etzitzalon, beraz, berari jalo ara joatea. Beste norabaltera bidea erakutsi ba lediote ere, berdin joango zala esaten zun» (*Orixé...* 36 orr.).

Bi urre egin zizkigun Jabier'en, ondoren, 1907-4-12'an, Loiola'ra aldaturik; emen egin zituen iru urre, lenengo bi urteak nobiziotan eta irugarrena Giza-letrak ikasten. 1910'an Burgos'era joan zan, «La Merced» zeritzan ikastetxean bi urtez klasikoak ikastera; gero, iru urte —1912-14— Oña'n eman zituen filosofia ikasten; ondoren, Komillas'en bi urte ta Karrion de los Kondes'en beste bi urte maixutzan egin zizldgun, baita gero Tudela'n eta Jabier'en ere beste bana; 1921'an Oña'ra doa Teolojia ikasteko asmoz, eta azkenez, 1923'an, Oña'tik Jabier'era aldatu zan, ikasketak etenaz, eta Jabier'tik erten egiri zizun, Jesus'en Lagundia utzirik. Eliz-karrera osorik egiña zuen.

Jesu-Lagunditik atera ta guda arterako urteak, ots, 1923'tik 1931'arterakoak, beintzat, Bilbao'n egin zituen, Azkue'ren aldamenean egin ere. Zortzi urtetan Bizkal'ko uriburutik edatu zan Orixé'ren eragin bipilla; Azkue'k bereganatu zuen eta «Euskera»-n lan egiten asi zan, euskal itz eta esaerak biltzen, Bizkala'n ez-ezik, Euskalerrí guzrian ere ango ta emengo baserri, errixka ta uriak arakatuz. Baiña aren izen-izpiak barraiatu ziran batez ere «Euzkadi» egunkarian —1924-1934— euskeraz naiz erde-

raz idazten ekin zionean. Bilbotar egunkari onen euskal atala Kirikiño'k utzi zuenean (1928), Orixe'k artu zuen aren lekua, eta «gramatika galz, eztabaida ta burrukan. bazterrak danrzatu zituan».

1931'tik 1936'rakoa Orexa'n igaro zigun; urte oietan osatuak ditugu «Barne-Muinetan» eta «Euskaldunak» poema. Gu datea sortu zanean, 1936'an, Iruña gaiñeko San Kristobal espe-txean eman zituen illabete batzuk. 1937'garrena osorik Tolosa'n igaro zuen bere arrebaren etxean; 1938'an Prantzi'ra joan zan, lenengo Donibane Lohitzun'en, bi urtez, ta Saubion'en, Lourdes ondoan egiñik gero 1943-5-6'arte. Saubion'dik Air-Sur-L'Adour'era aldatu zan; emendik Betharram'a, gero Baigorri'ra ta azkenik Donibane'ra. Ondoren, zori billa bezela, Argentina'ra, Txile'ra ta El Salvador'era. Poz-pozik ibilli zitzaizun Ameriketatik lurraldez ta adiskide onez zorabiatua batez ere.

Bazterrak astintzen jardunik, ala ere, ezin barnera kiribildu ta Jainko-griñari berea opatu. «Egunero Jaunartzeagatik bakarririk etorri zan Ameriketatik», dio J. M. Aranalde'k. Dana dala, 1954-11-24'an Bilbao'n daukagu berriz ere. Urrengo urtea Lazkau'n eman zuen Agustin Gurenaren «Aitorkizunak» euskeraz jartzen; 1956'an Tolosa'n daukazu, ta urte onen azkenerantza Orexa'n; 1958'an, Arama'ra aldatu zan, bere illoba apalzaren etxera; andik, urrengo urtean, Añorga'ra, Zabalegi'ra, bere illoba apalzarekin. 1961-8-9'an il zan. Donosti'ko Pelloe iltegian aren gorpuari lur ematean Euskalerra osoko euskdtzale, idazle, olerkari ta jakitun guztiak parte artu zuten.

Arimaz at, soin aldetik ere, Orixe gorriak ikusita joan zitzaigun. Berak aitortu zuen beiñola: «*Gota reumdtica* edo Axular'ek «ezueri» deitzen dion gaitz-zital mingarri onek naaka, *eskubiko beso, gerri ta meakezurretik belauetaraño*, miñik». Bedaio'n zan, 1956'garren urtean.

EUSKALTZAIN.—Idazlea idatziz egin oi da aitamen larriko. Orixe, «Jesus'en Biotzaren Deya»-n (1917) idazten asi besterik ez, ta bere lanak zirra-ta, ospe aundiko gertatu zitzaigun. Or-

taz, 1919-10-26'an Euskaltzaindiak autaturiko urgazleen artean daukagu Naparroa'tik. Laster asi zan alkarte onen goraberetan buru-belarri sartzen: 1920'tik aurrera Euskeraren batasunaz izan ziran batzaldietan irakurritako txostenen artean agertzen da N. Ormaetxea'ren «Unificacion del Lenguaje Literario. Diversas soluciones» ere (*Euskera*, 1922, 43 orr.). Arazo ontan gal egokia zalako, RIEV aldizkariak ere argitara eman zuen (1920, XI, 53 orr.). Geroztik beti, lan aundia egin zuen Orixe'k Euskaltzaindiaren altzoan, «Erizkizundi Irukoitza» zeritzan lana erririk erri aurrera eramatean berariz. Latera, gerkerata eberkera eliz-karrera bitartean ederld ikasiak zituen, eta Euskaltzaindiak, 1922-4-28'ko batzarrean «euskal-laterazko gramatika egitea» egotzi zion.

Orrelaxe ke ta su euskal lanari eratsia ibilli zitzaizun 1936'ko guda aurretik Euskalerrian eta ostean erbesteetan zear, iñoiz ere euskaltzain oso izatera eldu gaberikan. Orixe'k ba-zituen arantza gogortxo bi bere izatearen muiñean nalkoa barru josiak: euskaltzain oso ez izatea, ta olerki-batzaldietan, berandu arte, saririk ez jasotzea. Biotzez samur-bera zan, eta bi arantza oiek ekarriko zioten larri-miña etzan txikia noski.

Baiña azkenez, jasateak ere amaia izanik, iritxi zitzaigun Euskaltzain aalldra 1958-11-22'an, Euskaltzaindiak Leitza'n eratu zion euskal egun gogoangarria, ta Orixe'k antxe, euskaltzale jatorrez inguratuta, egin zuen bere sarrera itzaldia, sakon eta jakingarri alegia. Aspalditik ausnartua zerabillen euskeraren «mintza-doiñua» aztertu zuen maixuki; Leitza'n zegoen eta «nik belarriz obekienik artzen dudana, Leitza'koa da» esan zigun. Iru azentu-mota bereizi ta aztertu zituen. Giltza: «Gure azentua eskurakoi da erabiltzeko, baiña beste ainbeste zail esamiñatzeko, igeskorra baita inguruko izkuntzena ez-bezala. Gure onek, griego zaarrak bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-beerako mintzor leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztopo itsusirik ez egitea» (*Euskera*, 1958, 30 orr.).

Irakur oraln L. Mitxelena'k Orixe'ri, onen itzaldi ostean, eskeiñi zion goralpena. «Ormaetxea jaunaren sarrera-itzaldiari erantzuteko jeikitzean, arako aurrenak azken eta azkenak aurren izango diren aldi arazaz oroitu bear, nal ta ez. Orrexegatik, ozen eta argiro altortu bearrean arkitzen nalz, ezuela gaur Euskaltzalndiak «Orixe» goratzen, «Orixe»-k goratzen duela Euskaltzalndia Euskaltzalndi'koen artean sartzearekin. Asko zor diogu «Orixe»-ri eta Euskaltzalndiak iñork baiño geiago. Asko eta askotara. Or dugu nik beste guztien galnean jarriko nukean «Orixe» lirikoa, Lizardi'ren adiskide biotzekoa, mundu onetan suma ditekean egarririk ederrenak mintzarazi duena. Or dugu bere aldiko euskaratzalllea. Or dugu gure erriaren izaera, mamiz eta azalez, barne-muinetaraiño bereganatu duen gizona, gure izkuntzaren aberastasuna gaiñezka darion itun goxoa. Atzoko, gaurko eta betiko euskaldun onek jaso du, bestek ez adiña, euskararen eta euskaldunen izena eta omena. Ederrez igortzia dago bere kanta, gure mintzo nardatu onetan, provenzar aundi ark bezala, eman duen kanta. «Edertasunak ukitu duen gauza —zion Keats'ek— beti da atsegin. Gero ta ederrago ageri da eta eztu iñoiz ezerezak irentsiko» (*Loc. cit.*, 36 orr.).

Bi itzaldion aurretik meza ederra legez, ostean aizkora-jokua Udaletxe aurreko enparantzan; ondoren Bello jaunaren Abesbatzak euskal kantak, eta azkenik bazkaria, Erldaga, Etxaniz eta Artola'ren olerkiz eta Arrue, Alzeta ta Zeleta'ren itzaldiz poz-atsegin aria emanda. Egun onekin emetu ote zitzaion Orixe'ri aspaldi danik ozka zekarren arantza?

IDAZLE.—Sena omen da idazlearen doairik gaillenena. Eta A. Ibiñagabeitia'k: «Euskal-sen ori, «Orixe» zanaren idaz eta itzul-lan guztietan nabarmen ageri zalgu, eta ortik nunbalt ere, aren idaztankerak duen erakar-indar ezin utzizkoa» (*Omenaldi*, 90 orr.). Sen bete ori lortzeko, ordea, alegiñak alegin burutu zizkigun. Jaloterrian edo Uitzi'n ikasi zuen, artzai, ikazkin eta nekazarien artean azi ta bizi zanean, euskera eder jatorra; gero euskal idazle zaarrez baliatu zan, Euskalerriko izkelgi guztietaz

laster jabeturik. Alegin orrez gain, Orixe buruz argi ta belarriz ezin obekoa genduen. Andima'k: «Entzupidez burutxoan sartzen zitzaizkion itz eta esaerak oro, antxen gelditzen zitzaizkion betiko tinko ta bizi, entzun zituanean bezin garbi eta argi. Euskal mintzoaren ikararik izkutuenak ere, bertan arkitzen zuten oiartzun betea aren gogo-biotzetan» (*Omenaldi*, 90 orr.).

Olerki-barrutia geroko utzirik, aitor dezagun aurrenik Orixe itz-lauzko idatzian edo prosan eredu bikain dugula. Ontaz dio L. Mitxelena'k: «Onekin baikaude zorretan itz-neurtuetarako doairik eztugun idazleok, izen larri ori nere buruaren gaiñean ezartzeko baimena ematen badidate. Ormaetxea jaunari eskerrik batez ere, etzen eten gure artean eteteko zorion egon zen «gure asaben lokarri zaarra». Bere bitartez eldu zaizkigu askori, oartzen ez giñalarik sarritan, lau mendetako euskal-idazleen mintzaera dotorea ta ikasia, ta bertsolarien etorri ugaria ta lasaia. Antziñako aberastasun ugariak gordetzeaz gaiñera, aalegiñean saiatu da gure izkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, izkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. Eredutzat daukagu Orixe prosa-gaietan, balña —eta au da iñork aaztu bear ez lukeana— nekez eta izerdiz bakarrik urbil gakizkiokean eredutzat» (*Euskera*, 1958, 37 orr.).

Euskal idazleetan, Orixe, ugaria bezin antzetsua dala uka-eziña dugu. So egizu zenbat liburu osatu zizkigun, eta guztiak daukazu ederrez plin-plin gaiñezka. Norbalt bear izaten dugu geienik barruan daramagun lerari zirkin eragiteko. Nork jarri ote zuen orexatarra euskal bidean, idaz-lanean batez ere? Segura'ko seme ta euskal idazle jator Aita Lardizabal izan zan nunbait, Orixe'ren doai bereziak ikusiz, idazkortza artu-erazi ta idazten ezarri zuena, A. Lardizabal'ek, A. K. Basabe ta beste josulagun batzuekin, sortu zigun Bilbo'ko «Jesus'en Biotzaren Deya» (1917-1937) aldizkaria. Emen agertzen dira Orixe'ren lenengo lanak, bertsoz eta itz-lauz agertu ere, Aldizkari orren lendabiziko zenbakian dator «Igesi» olerkia, Orixe'ren lenengoa noski, argitaratua. Ondoren ere ortxe eman zizkigun ainbat latin

eresi euskerazturik, eta prosazko «Ni naiz bidea», «Igandea», «Onezko amesa», «Gizonen argia», ta «Jainkozko biziera ta ongienera eldutzeko Lasterbide bikaña», Nieremberg Aitak erderaz egiña, euskeraztuta, batez ere. Zenbaki bakoitzean bi lan argitaltzen zizkioten geienetan.

Orrelaxe gero Euskalerriko euskal eguneroko ta aldizkari guztietan esan bearko: «Euzkadi», «El Dia», «Euzkerea», «Argia», «Yakintza», «**RIEV**», «Euskalerrriaren Alde», «Euskal Esnalea», «Gernika», «Euzko-Gogoa», «Karmel», «Egan», «Euzko-Enda», «Euzko Ikaskuntzaren Deya», Gure Herria», «Oleriti», «Zeruko Argia», «Yakin», ta gaiñerakoetan.

Zail zaigu, beraz, aren lan guztien sail oparo bat eskeintzea, Ala ere, ar zazu emen prosazko pusketa bat, osoa ez, baiña nagusiena.

1) *Erizkizundi Irukoitzari Bizkaiak erantzun* diona (Euskera, 1925, VI, 16-36 orr., ta berdin 1926 eta 1930'an ere.

2) *Santa Cruz Apaiza* (Donostia, 1929). Leizaola'ren irarkolan. 149 orrialde. Oraintsu berriz ere (Zarautz, 1974) argitaratua emana.

3) *Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra* (Euskal Esnalea, 1927). XVII, 148 orr. eta abar. Lan ederra.

4) *Euskaldun bipilak eta Manchatar bizkorrak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra* (Donosti, 1929). Aldundiaren irarkolan. 4 orrialde. **RIEV**'en (1929, XX, 6 orr.) argitaratua duzu.

5) *Tormes'ko Itsu-mutilla* (Bilbao, 1929). Euskeraz ta erderaz. Verdes-Atxirika'renean. 127 orrialde. Gordintxoak zerizkiolako, atal auek kendu zituen erdel-jaubearen idazti jatorretik: azkeneko ataltxo, beste batekin bere kabuz ordaindurik; «kendu dodaz ganera —diosku—, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean». «Bat bederak daM bere barruko deiari nola erantzun bear dion», gaiñeratzen du A. Ibiñagabeitia'k.

6) *Iruleak* (Yakintza, 1933). 1930'gn. urteko «Kirildño Saria» —lenengoa noski— eraman zuen lana.

7) *Mireio* (BHbao, 1930). Verdes-Atxirika'ren irarkolan. VI-151 orrialde. Mistral (1830-1914) probenزار idazle yaiioaren *Mireio* duzu euskeraz.

8) *El Imposible vencido* (Euskal-Esnalea, 1930, XX, 189 orr.).

9) *Iztueta'ren euskera* (Euskal Esnalea, 1930, XX, 61 orr.).

10) *Iztueta y sus canckmes* (Euskd Esnalea, 1931, XXI, 9 orr.).

11) *Lizardi'ren azken-olerkiak* (Yakintza, 1933, I, 405 orr.).

12) *Oraindañoko euskal-neurtitzak (Itzaldiak*, 1930, VI, 127 orr.).

13) *On eta Eder* (Yakintza, 1934, II, 83 orr., ta Euzko-Gogoa, 1951, II, 1-2 zenbakian, 29 orrialdean eta 5-6 zenbakian, 26 orr.).

14) *Leoi-Kumea* (Paris, 1948). Ylla'ren argazkiak. 32 orrialde.

15) *Euskera antiguo y moderno* (*Gernika*, 1950, 12, 35 orr.).

16) *Euskotarren mintzaera ta elertia* (Euzko-Gogoa, 1951, II, 9 orr.).

17) *Urte guziko meza-bezperak* (Tours, 1950). Zabalo'tar Pablo ta Xabier'en apaingarriak. Garikoitz'tar Laguntzaileak argitaratua. X-1456 orridde. Ibiñagabeitia'k txaloka: «Gaurero, euskddun eliztarrek ba-dukete goi-argiz gogoa nun ase. Amalkatxo eliz-liburu argitarazi dira euskaldunen artean, meza, otoitz, eta edonolako eraspenez kuin-kuin. Eliz-liburu egoki ta beterik ordea, ez geunkan. Oralnartekoak egile bakoitzak asmatu otoitz eta eraspenez egokituak ziran geienak. Beste batzu eliz-otoitz iatorrez, bainan otoitzok erdizka balzik etzitzalzkgigun emanak izan. Labur esateko, eliz-liturgi osoari zegokion idazia etortzekoa zitzaigun. Gaur berriz, euskeltzde kartsu batzuen

laguntasun eta Orixe maisu aundiaren kemen-adoreei zor, iñoiz euskeraz sortu eliz-libururik bikainenaren iabe gaituzte. Azalari gagozkiola, ez dio iñungo meza-liburu dotore ta apainenari zorrik... Argitarazi nai izan dutenek ezin zezaketen itzultzale oberik autatu lan tzar ori borobiltzeko, Euskadi ta mundu guziko euskal-idazle oro arakatuta ere. Gure elerti-oianean, Orixe zaigu ibar-iaun, eta iaun orrek bezin ongi iñortxok etzezakean misalaren itzulpenik euskeraz mugatu. Euskaltzalez gainera, Orixe, latin-zale ere bai zaigu, eta Lati'ko izkuntzaren zirkunzarkun ta gurpillak iñork ez bestean dazagutzi. Ori dala bide, lan oso ta garbala burutu digu» (*Euzko-Gogoa*, 1951, 9-10'garren zenbakia, 61 orr.).

18) a) *On eta Eder* (E. G., 1951, 5-6, 26 orr., ta b) *Egi ta Eder*, (idem, 28 orr.).

19) *Gizonaren eskubidegai guzietaz Aitorkizuna* (Euzko-Gogoa, 1950, 3-4'an).

20) *Ouito'n arrebarekin* (Euzko-Gogoa, 1950, I, 11-12, 12 orrialdean asita aurrerantza, 1951, 1952, 1953 ta 1954'garren urteetan 12 artikululu luze. Lan guztiz ederra mistikaz.

21) *Antze ta eder. Croceren argibide bikaiña* (Euzko-Gogoa, 1952, III, 3-4, 9 orr.).

22) *Biarno'ko birrizenak eta toki-izenak* (Gernika, 1953, 24 zenbakia, 170 orr.).

23) *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak* (Zarautz, 1956). Itxaropena Argitaldaria. 462 orrialde.

24) *Leitza'ko mintza-doiñua* (Euskera, 1958, III, 29 orr.).

25) *Musika ixilla* (Donosti, 1963). Gaztelu'rekin batean.

26) *Euskal-lzkerak* (Euzko-Gogoa, 1952, III, 9-10, 25'garren orrialdean asita, 1954, 1956 ta 1957 urteetan ere bai. Martin Oiartzabal apaizarekin batean.

27) *El Lenguaje vasco. Desarrollo del verbo vasco* (Donostia, 1963). 147 orrialde ta 12 paradigma. M. Oiartzabal'ekin batean egiñiko lana.

28) *Jainkoaren billa* (Bilbao, 1971). «Etor» argitaldaria irarria. 296 orrialde. Liburuaren axalean: «ORIXE'k, bere euskal-zitua, «Euskaldunak» poeman eman zigun. Orixe'k, bere krixtau-zitua, liburu ontan ematen digu. Ura, giputz, bizkaitar eta lapurtarrek Uitzin'erein azitik zetorkion. Au, amona Mariaxuntzik biotzean ereinekotik datorkio. Euskaldunek, ari aibat esker eman bezalote oni. Dakitela nalz ez dakitela, «Jainkoaren billa» dabilzan guziek, or arkituko dute Arenganako bi-dearen izena ta izana; Jesukrixto, bide bakarra eta betea».

29) *Mamutxak* (Balona, 1962).

30) *Lati-izkuntzaren joskera* (Bilbao, 1966). S. Anton'go Katekisaren Euskal-Argitalpenak.

31) *Itun Berria* (Donosti, 1967). G. Izarra irarkolan. 251 orrialde. Arretaz egindako itzulpena.

Auetarik iru —*Santa Kruz apaiza, Quito'n arrebarekin* eta *Jainkoaren billa*— guztiz bikaiñak, jatorrak, bere-bereak ditu; eta beste lau —*Mireio, Urte guziko Meza-bezperak, Aitorkizunak* eta *Itun Berria*— itzulpenak, guztiz ederki egiñak. Itzultzalileak, benetako lana osotu nai baldin ba'du, idazleak bere lanari ezarri dion gogo-giroaz jabetu bearra du. Itzultzailleak, bada, giro berezi ori ezarri bear, al dala beintzat, bere itzulpenari. Orixe, malxu izugarria dugu orretan.

OLERKARI.—Ederra, egia ta ona artzeko gai guztiok garan arren, guztiok ez gara alere gauza barnean senti ta daramaguna idatziz azaldu ta adierazteko: poetak berak ere ezin izan oi dute nai lukeenetik erdia adierazi; zerbalt bakarrik, asperen batzuk. Ederra lendabizi, naiz barrukoa naiz kanpokoa, somatzen jakin bear dugu, eta ondoren, olerkiz ba'da, olerkitsu edo antzetsu aitzen ematen; olerkera deritzalogu oni. Igikera ontan, zelanbalt esan, jakintza bat salatu bearrean gaude. Edonor ezta ortarako gai, ta nolanaiko jakintzan legez, irteera izatekotan, ederlegeak ikasi ta eder ori bikainki adierazten jakin bear du olerkariak batez ere.

Orixe'k orrela jokatu zuen. Etzan sasi-jakintzu Elade'ko ta Lati'ko izkuntzetan, ezta oietan idatzi ziguten gizaseme ederezaleen lanetan ere; ederki ezagutzen zituen Omer, Bergili, Obidi, Orati ta abar. Oien olerkiak itzultzen saiatu zitzaizun ikasle zalarik. Ezta etzuen albora utzi euskaldunon antziñatiko olerkera, gure bertsolarien jokabide zaarraz jabetu zan osorik. Eta gisa orretan, klasikuenaz geurea naasirik, oi ez bezelako eder-adierazte bikaiña sortu zigun gure olerki-barrutian. Gure bertsolariarena dugu —diosku Oteitza'k— gure arteko jardunik garbi, argi ta sentikorrena (*Quousque tandem...*, 1963, 9). Erantsi edo lot ezazu au antziñako eder-zaleen jardunarekin, eta or duzu euskal olerldrik bikaiñena, gaurkoa ta betikoa. Orixe egin zigun N. Ormaetxea'k, eta orixe dugu ark utzi zigun olerlda.

«Orixe-k obra ugaria utzi digu —idazten du Gaztelu'k—, bal itz lauz bai neurtitzez, berebaitarikoa edo itzulia, beharbada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidadez iñoiz utzi duen larriena, andi-andizka arturik. Aipatu diran lanaz galñera, bereak ditu Estetikaz, Filosofiaz edo Ontologiaz egindako saiaerak, eztabaidazko, irizpenezko, gramatikako, joskera-legezko t.a. lanak. Baiña bere idazlan guzien artean, neurtitz-lanak ditu, batez ere «Euskaldunak» poema, «Barne-muinetan» eta erbesteetan ondutako olerki-salla, maisu-lan bezala nabari diranak. Iñork ez ditu berak bezala lituratur jakintza jatorra atzerriaren laiñotasuna ta bakuntasuna elkartu ahai izan. Bere poesi mistikogatik Aita Estefaniak zuzen bal zuzen esana dauka: poesi jatorra, gain gainekoa, oro dendu, gartxu, osasun, nalz kristau-arauz, naiz antze-arauz» (*Euskaldunak*, Donosti, 1972, XXXIII orr.).

Kcmillas'en (1915) malxutza egin zuenean asi zan olerkiak onduten; ordukoak ditu amar, «Nere ama», «Mañasi», «Gorriti'ko andreak», «Lenengo ortza», «Laiariak», eta abar, gaztetako oroiz beteak. Ondoren asi zan *Jesus'en Biotzaren Deya'n* lan ugariago egiten. Edu orretan azi ta koskondu zitzaigun poesi-

zelaian. Aldi berean, literatur klasikoan maixu zalarik, asko irakurri zuen euskal poesi zaarretan eta bertsolarietan ere, 1921'an Durango'n irakurri zuen itzalditik atera dezakegunez. Itzulpen saioak egin zizkigun, Omer, Bergili, Orati, Jorge Manrique, Maragall ta olakoen lanak euskeraz emanik.

Geroztik etorri ziran «Euskaltzaleak» eraturiko Olerti-egunak, 1930'an Errenderi'n ospatu zanetik asita. Urte artan Lauaxeta'k eraman zuen len-saria, baiña Orixe'k ere an aurkeztu zituen «Yainkoagan bat» eta «Itzai zekena» (Ikus *Eusko Olerkiak*, 1930, 34 ta 46 orrialdeetan). Ondoren Bilbao'n zituen lagun min batzuk eraginda, Orexa'ra baztertu zitzaigun bere «Euskaldunak» poema aundi bikaiña, aspalditik gogoan zerabiliena, biribildu ta burutzen. Orrela, lanari gogoz ekinik, 1936'rako amaitua zeukan lan eder ori, naiz-ta geroago argitara ekarria izan. Orduantxe idatzi ta azaldu zuen «Barne-muinetan» poesi mistikuzko liburuxka ere. Gero geroakoak.

«Añamendi»-k, 1972'an, argitaldu zuen «Euskaldunak poema eta olerki guziak» liburu mardulean ikusi dezakegun bezela, Orixe'k olerki asko mamitu zuen, ango ta orko aldizkarietan argitaratuz. Baiña auek dituzu aren olerki saillik beñenak:

1) *Barne-muinetan* (Zarautz, 19934). Itxaropena argitaldaria. 139 orrialde. J. M. Estefania josulagunak onela idatzi zuen: «Siniste-gaiak, Ebangelio-egiak ditu; bere barne-muinetan erne ta auznartuak ordea. Begikalduz baino buru-eraginez igurtzigoak edo ditu ausaz guziak; zenbalt, nabaritxo ere bal, zimel-giro antza dutelarik. Biotz-eragin sendoa baltute ordea, aitzaki ortatik lekura daude. Kristauaren zinezko biotz-eragina dute, ezeztarainoko umiltasun sendoz betea, seme bati deritzon uste onez ta lasapidez betea; alakorik baita kristau sinesteduna lankoagan ta Jesukristo Erosleagan bere sinestea ondo tinkatzen dunean» (*Barne-muinetan*, 21 orr.).

2) *Euskaldunak* (Zarautz, 1950). Itxaropena Argitaldaria. Poema XV kantutan. Santos Etxeberria'ren irudiak. 569 orrialde. Eraskin bezela musika-sorta edo LX kanta ta dantza doñu.

Egilleak itzaurrean: «Au izan dut len asmo; nik moldatu dudan poema au, erriak moldatua litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu ok, erriak egin zezazken gisan egitea. Ortan ez dezu gertakizun ontan maratil askorik bilatu bear, ez naspil aundirik bereizi bear, zenbait *novela* tzarretan bezala. Ez ta eriotzik eta beste gauza lazgarririk *dramaetan* bezala. Erri bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuietan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu nal nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez... Nere lan oni kera berri bat ematen salatu naiz; ez Homer'ena bezaln lasala, ez Horati'rena bezain tinkoa, bien tartekoa balno'. Gauza eder aunitz esan, labur esan, arin eta laister eman, ustez beintzat. Erri-kera asmatu dudala nago alde batera, balna bestera, batez ere poema au beste izkuntzara biur ba ledi, norbaitek esan lezake, erri-tajuz ez dauden gauzak ere an emen ba ditula. Ez ordea niri ala iduritzen, gure euskera bizkor onek, endoko erderak baino erri-erriari gauza izkutugoak eta geiago adierazi balteazkio, nik uste» (*Itzaurrea*, 7-9 orr.). A. M. Labalen'ek egin zuen poema onen laburpen bat erderaz (*Compendio... Zarautz*, 1950).

Poema eder oni, ona nolako agur beroa egin zion, agertu zanean, Zaitegi ta Plazaola'tar Jokin'ek: «Nalz ta oralndik iñoren morroi egon, iñolako abertzaletasunak eraginda Euskalerriak dagoneko badu bere poema nagusia. 50 urteontan, euskerak gararaldirik bizkorrena izan du, iñolaz ere. Aurrerantzean galn-gorago nekez joko du euskerak, zenbait arlotan, beintzat. Zernaitan gainbera joko dun beldurrago nauzu nunbalt. Etsaimoltsoa eusko-gogoa zauritu ta iltzeko aleginka ari izan arren, euskeraren orañaldia urdin ikustetn dizut. Eztaietan dut euskera. Or duzu lekuko «Euskaldunak». Ez da azaldu ustel, euskaltzaileen ustea. Zuziatzeko beldurrik gabe altortu dezakegu: badugu gure poema nagusia. Areago oralndik: non-naiko ta noiz-nalko poema bikaiñenak bezin bikaiña. Ta zenbalt saletsei begiratu ezker, gurea bikaiña goa, erritarragoa, alegia. Orañaldi

beltz ta illun ontan, lekaioka irrintzi egin dezakegu, euskera-
ren alde, «Orixe»-k xaxa edo marka urratu baitigu» (*Omenaldi*,
255 orr.).

3) *Salmutegia*, (Donosti, 1967). Dabid'en eresiak euskeraz.
«Izarra» irarkolan. Jabe: Lazkao'ko Beneditarrak. 287 orrial-
de. M. Lekuona'k itzaurrean: «Salmoak ez dira Orixe'renak,
Dabid'enak balzik. Orixe'rena, Dabid'en lanaren euskerazko
itzulpena da. Inor ez, ordea, gure Orixe baño egokiagorik, Da-
bid'en Salmoak euskerara itzultzeko. Olerkaria zan Dabid; oler-
karia gure Orixe ere. Artzai izana zan Dabid; artzai izana Orixe
ere. Al-da geiagoren bearrik, biok ondo alkar-artuko zutela ja-
kiteko?... Itz bat geiago oralndik. Salmoen itzulpen au, ez ala
Orixe'ren «gaztearoko lan». Zaarturik egin zuala. Olerkari el-
duaren lana da, beraz. Zentzu oneko lan. Ontan ere, bera bere
lanaren neurriko» (VII-IX orr.).

4) *Ereserkiak*. Berrogei ta amabostetik gora dira «Urte
guziko Meza-Bezperak» liburuan datozenak. Goratzare auek,
geienak beintzat, eLlkizunetan kantatu oi diran musika doiñual
dagokienez egiñak daude, «Jesus'en Biotzaren Deya»-n (1917)
asi zan eliz-eresiok euskeraz ematen.

5) *Eun Oberenak*. Onetan ari izan zitzalgun azken urtee-
tan, eta onetan aurrera zijoalarik eraman zigun Jainkoak. Sall
ontatik amairu bukatuak utzi zizkizun. Denak dute Ebangelioko
gaia. Azken saio ontan, esanbearra ta doiñua uztartzen saiatu
zan; ontarako latiñaren igikera nai zuen euskerarentzat ere.
Gerko-latiñen oin-neurkera beti izan zitzalon atsegin.

GARAI-SARIRIK?—Antzerkiari dagokionez ezik, beste olerki-
sail guztietan salatua dugu Orixe. Eder zitzaion liriku saillla, ta
ortaz mordo galanta utzi zigun; eder zitzalon gertakizun sailla,
ta or utzi zigun «Euskaldunak» poema, eder bertsolarien jar-
duna, ta oien tankeraz zenbalt koplá eder ditu. Lirika saillean
atsegin zitzalon batez ere poesi mistikua, ta or «Barne-muine-
tan», lan sakon garbala. Asko ta bikainki idatzi zigun beti, naiz
itz lauz naiz bertsoz.

Alare —giza-semeon maltzur-jokatzeak azkenik ez!—, poesi-batzaldietan eta, etzuen oi ez bezelako saririk eskuratu. Etzebillen, jakiña, orren billa; balña idazleoi beti izan oi zalgu pizgarri eder, egin-lanak duen alderdi ona aintzakotzat artu ta olako zerbalt jasotzea, gerozkoan ere lanari gogotsuago oratu ta sorpenak ugaltzeko. Orixe'k etzuen olakorik izan; maite zuen Euskalerra ta euskeraren alde bere kabuz jokatu zuela, altortu bear. «Euskaltzaleak» Errenderi'n antolatu zuen batzaldira bialdu zuen bere lana, esan dugunez. Uste zuen saritua izango zala, balña Lauaxeta'ren *Maitale kutuna'k* eraman len-saria. Onek kokarazi zion arantza luzaro egari bear izan zuen Orixe'k.

Ogei ta arnar urte geroago atera zitzalon arantza ori. Ezta gutxi. Beiñola idatzi nuen, eta bera ber-idazten dut emen ere: «1960'garren urtean, Kristo Erregeren egunez OLERTI'k bere urteroko poesi-batzaldia egin zun Larrea'n. Aurretik iragarrita zegonez, lau sailletan banandu ziran olerki guztiak, liriku, poema, alegi ta bertso arrunt. Lenengo saillean, «Orixe»-ren Argia bera 1.000 laurlekoz sariztatua. Berbera etorri zitzaigun jai ortara, balta bere olerkia ta bizkaltar idazleak goralpatuz beste itzaldi mamitsu bat irakurri be. Pozaren pozez urduri zebillen gure «Orixe», alnbat olerkari ta idazle jatorrez inguratua. Seizazpi aldiz bota zidan: «Ez daki berorrek, Aita Onaindia, zelako poztasunak nadakan. Oralñarte arantza bat erabilli dot biotzean; eta gaur arantza ori atera daustazue». —«Zergatik, jauna?» •—«Ara, auxe da nik euskal olerti-salllean lenengoz jaso dotan saria» (*Omenaldi*, 137 orrialdean).

Andik laster izan zuen beste sari-jasotze bat ere: Tolosa'n, 1961'garren urtean. Euskaltzalndiak ipiñitako «Lizardi» poesi-saria irabazi zuen bere *Lau urtaroak nere begietcm* zeritzan olerki ederrakin. (*Euskera*, 1961, VI, 337 orr.).

* * *

Guzti onen gallur-adar bezela, irakur zazu L. Mitxelena'k diona: «Goresmenik bear balu, aski lirezake esatea, eta ez gen-

duke egia soilla baizik esango, Euskal-erriari eta euskerari eskeiñi dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik geienak eta onenak, etengabeko ahalegiñen gaiña ta bikaiña. Ori naikoa ez balitz, gaiñera, esan diteke bere obra dugula bear bada asmoz eta neurritz, erabat arturik eta iñorena gutxietsi gabe, euskal-idazle batek, noiznaikoa den, sortu duen larriena» (*Omenaldi*, 5 orr.).

Baita bego au ere, goresmenetan ari garan ezkerero. Nik neuk ez nizun Orixe'rekin ar-eman aundirik izan, aurrez-aurre beintzat: iru aldiz alkar ikusi genduen, Lekeitio'n (1936), Oresa'n (1956) eta Añorga'n (1960). Baiña nik beti, gaztetan ta gero, begirune maitekorra izan diot, euskal idazle zelaian bairik bat: asko ikasi izan dut aren idatzietan.

Itzali zitzaigunean, beraz, etzan arrigarri nik ere aren goratzarre ta omenez zerbait antola gura izatea. Alaxe, 1962'an, Kristo Errege egunez, urrillaren 28'an, Olerti-eguna zala-ta, N. Etxaniz oneratu zanean, nere lan-gela ixil onetan biok geundela, Orixe zanari eskeiñi omenaldi bezela idazti mardul bat osatzea erabaki genduen. Ortik sortua duzute «Orixe Omenaldi» deritzan 321 orrialde dituen bilduma joria. Ari ta oni idatzi nien, eta denon —L. Mitxelena, J. M. Aranalde, N. Etxaniz, J. Garmendia, F. Artola, Aita Goiria, J. Bilbao, Aita Onaindia, A. Ibiñagabeiria, M. Oiartzabal, Aita Baztarrika, Iñaki Goikoetxea, M. Lekuona, Patxi Altuna, E. Erldaga, J. Zaitegi ta A. M. Labaien— artean pozez eta lan-gogorik onenarekin egiña duzu. Beraz, Orixe'ri buruz zerbait jakitekotan, araxe jo bear duzu batez ere.

Oresa'n bertan ere egin zitzaion beste omenaldi bat, 1969-10-12'an.

(Ikus Ibar, *Genio y Lengua*, 193 orr.; P. Lafitte, *E. Jakintza*, 1950, 251 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 109 orr., ta 1951; S. Onaindia, MEOE, 925 orr., *Olerti*, 1961, 253 ta 316 orr.; L. Mitxelena, HLV, 148 orr., *Egan*, 1956, 5-6, 142 orr., ta 1961, 157 orr., ta BAP, 1961, 4'garrena, 431 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1950, Ep.-Jor., 9 orr.; M. Lekuona, BAP, 1950, 381 orr.; J. Zaitegi, *Euzko-*

Gogo, 1950, 9-10, 11 orr., ta 1951, 7-8, 48 orr.; J. Yurre, *Zeruko Argia*, 1958, otsailla; B. Estornés Lasa, *Estetica Vasca*, Buenos Aires, 1952; E. Erkiaga, *Egan*, 1958, 1-2, 9 orr.; N. Etxaniz, *Egan*, 1958, 1-2; Zeleta, *Egan*, 1956, 5-6, 87 orr.; A. M. Labaien, *Çmpendio del poema vasco «Euskaldunak»* (Zarautz, 1950); *Euskera*, 1961, VI, 345 orr., ta *Aranzazu*, XLI, 268 orr.; F. Artola, *Egan*, 1958, 1-2, 10 orr.; *Orixe Omenaldi*, Donosti, 1965; Auñamendi, *Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, Zarautz, 1972; Auñamendi, *Literatura*, III, 390 orr., eta abar).

26.—MANUEL URRETA AMIANO (1888-1957)

Tolosa'n jaio —1888-6-17'an—, bizi bizitza guztian eta bertan illa dugu M. Urreta. Idazle ona. «Gurasobide» izen-ordea erabili oi zuen lanak firmatzean.

Asko idatzi zuen «Euskal Esnalea»-n batez ere, itz-lauz eta bertsoz. Lagun miña izan zuen errikde A. M. Labaien'ek onela dio: «Amaika bertso, artikulu ta idazlan egiñak zitun bere irurogei urte buruan. Batik-bat euskeraz eguneroko paper eta beste ddizkarietan aspertu gabe jardun zan bere asmoen alde» (*Egan*, 1957, IX, 60 orr.).

1925'an, adibidez, lan jakingarria argitaratu zuen «Euskal Esnalea»n Juan Bautista Erro'ri buruz.

E. Arrese zanaren lagun aundia zan. Aren eriotzak ikutua, bertso sentikorrak borobildu zizkigun. «Umetandik olerkari» deritzan poesian Arrese'ren olerld-griña azaltzen digu; nolako pena zuen, zartzaroan ere aldendu gabe, lurreko amarena. Ori uxatu edo beintzat arindu nairik, Izaskun'go elizatzora ta Uzturre galñera igo zan egun betean. Ausarkeri aundia noski zeuzkan urteekin gaillur artara joatea. Alaz ere joan zan, eta olako gaitz aundi gaberik. Urreta'k onela:

Berak aitortu zuan bakarrik
lareun bat pestan galera
izan zuala, iritxi bai-zan
betaurak goian galtzera,..

Zilipurdika joan zan beiñen bat
(nalz bera ez eldu esatera),
Izaskun'go Ama ez ote zan joan
semeari laguntzera,
zalako Arrese lendikan bean
elizaratu otoitzera?...

Nik oso pozik artu nun, beintzat
berritxo au biotzera.
Etsala nola baltabilkigun
kate zatarrez lotzera,
al egin bear bakoitzak geren
aundikeriak kentzera;
ta, gauza guzin Egilleagan
apal-apal biurtzera.
Jaunak Beregan dezala euki:
eskari ontan gu gera,

(*Meoe*, 837 orr.).

A. M. Labaien'ek (Ibalan) azkenez: «Gizon zuzen, euskaldun eta euskaltzale sutsu azken arte jarraltu du betiko bidean. Eta bi urtean elkarrekin joan izan geran ezker, otoitz bero bat zuzentzera gatoz, errikide, bide-lagun ta guziaren gañetik kristau zintzo izan zan Manuel Urreta tolosar jatorrari».

(Ikus S. Onaindia, *MEOE*, 837 orr.; A. M. Labaien, *Egan*, 1957, IX, 60 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 358 orr.).

27.—GREGORIO MAIDAGAN MUXIKA (1891-1961)

1957'an Azkue zanaren gorazarrez ospaturiko egun aretan, G. Maldagan'ek onela: «Azkue jauna zanaren omenez batu gara gaur Bizkalko abadeak, bere izena eta bere egintzak goratzeko.

Bera zan langille bakana, apartekua, abade zintzua, abade langillea. Bera eredutzat artuaz, langilleak eta abade zintzuak izan gaitazan» (*Euskera*, 1957, II, 25 orr.).

Auxe bsrau esan dezakegu G. Maidagan beragatik ere. Langille ixilla ta abade ona bait genduen,

Aretxabaleta'n jaio zan 1891-3-12'an. Latin eta gaiñerakoak Baliarrain'en ikasi zituen apaiz batekin, eliz-karrerako beste ikuskizunak Gazteiz'ko Ikastetxean osaturik. 1914'ko Pentekoste denboretan artu zuen apaizgoa, Prudenziolo Melo'ren esku-erazteaz. Ogei ta iru urte zeuzkan. Arrasate'n eman zuen lendarizko meza, ta urrengo urtean Araba'ko Faido'n daukagu arimazai.

Urte bete ez-oso egin zigun Peñazerrada'ko auzotegi artan, Azkue jaunak bada Bilbao'ra ekarri zuen, bere ondora, berarekin lan egin zedin. Lenengo «Ave Maria» mojetxean egon zan kapellau; gero, urte askotan, Jesus'en Zerbitzariekin, eta azkenez Santiago katedralean, ñ arte. 1916'tik aurrera, 35 urtean, Azkue'k bere itsu-mutil bezela euki zuen Maidagan, idazkari-tzan laguntzeko batez ere. Aren il-buruko kontuak ere eriotz ostean onen gain gelditu ziran.

Euskaltzain urgazle, ta alkarte ontako idazkari urte mor-doan: 1920-1-8'an autetsia. «Euskera»-n idatzi zuen. Azkue'ri baltik bat asko ere asko lagundu zion ark esku artean zerabilz-kin lanak aurrera ateraten. Beraz, 1957'an, Bilbao'n egin zitzaion omenaldian esku artzea, ezta iñola ere arrigarri.

Bilbao'n itzali zan 1961-3-30'an.

(Ikus *Euskera*, 1961, VI, 350 orr.; J. San Martín, *Escritores euskiricos*, 126 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 385 orr.).

28.—INAZIO ARTETXE ARANBURU (1892–1948)

Osagillea. Azpeitia'n munduratua. Jose Artetxe idazlari ospetsuaren anaia. Itzaldi asko eman zituen, euskeraz ta erderaz, baita Euskal erriko egunkari —Donosti'ko «La Constancia»-n,

«El Pueblo Vasco»-n eta «El Dia»-n, eta Bilbao'ko «Euzkadi»-n eta «La Gaceta del Norte»-n— eta aldizkarietan —Donosti'ko «Argia»-n bereziki— zentzunez ta oparo idatzi ere, aur-gaiak azalduz geienetan. Etorri aundiko izlaria zan.

Bere euskerazko itzaldi ugarietatik bi Donostia'ko «Euskal Esndea»-k eman zizkigun: 1) *Gure Gaitzak* (Itzaldiak, 1923, Bigarren saila, 35 orr.), 1919'g. urteko lotazillaren 8'an irakurritakoa, ta 2) *Sendakintza gizaldiyetan zear* (Itzaldiak, 1928, Boskarren saila, 103 orr.), 1926'g. urteko azaroaren 21'an irakurritakoa.

Bigarren itzaldiaren asieran, onela mintzatzen zdgu: «Gizonaren jakin-guria aundiya da. Badirudi, bere bukaera gabeko azterketan, bazter, alderdi guztiyak, alaitasun ikusgarriya dutela gizonaren asmo orrentzaz; bañan ori ala bada ere, neonek uste det, bazter oyen artian badala bat, beste guztiak baño alaltsugoa, atsegingarriagoa, onuratsugoa. Au da edestiya. Badaldzute zergatik? Ez da zalla gddera onen erantzuera. Gizonak, gizona dan artian, edukiko du bere barruban, zirukaka, gogo bat: bere asaben gora-bera, biziera, gudaldi, oiturak eta izakera; gizalditik gizaldira, dtak semiari, semiak bere ondorenguari esan izan dizkiyon ipuiñ eta izanak, jayoterriyaren kondairak, gizon entzunaren bizierak, lanerako lenagoko zarren oiturak, asaben siñismenak, erlijioaren zimendubak, jddntzaren berriyak, guztiya. Itz batian esateko: edestiya» (*Loc. cit.*, 105 orrialde).

Berea du liburu au ere: *Consejos a las madres. El arte de criar a los niños*, Zarautz'en bi aldiz (1928 ta 1948) argitara ekarria.

Zumarraga'n il zan, 1948'an.

(Ikus Auñamendi, *Diccionario*, Artazub-Balzategui, 46 orr., ta *Literatura*, III, 293 orr.; Jon BiLbao, *Eusko Bibliographia*, I, 336 orr.),

29.—MARTIN OIARTZABAL OIARTZABAL (1892–1966)

Apaiz langillea, euskal arloan. Azpeiti'n ludiratu zan 1892-11-10'an. Erriko eskolan lenengo asi-masiak egin ondoren, Orduña'n Jesuiten Ikastetxean batxiller ikaskizunak 1902'tik 1909'ra. Gero, 1910'tik 1919'ra Komillas'en burutu zizkigun eliz-karrerakoak, Filosofian eta Teolojian lizenziaturik.

Apaiztu ondoren, Pobes, Bilbao, Azkoiti, Donosti (1927-1934), Baiona, Arjentina (1950-1956), Ernani (1962) ta Begoña'ko apaiz zarren atsedean etxea izan ziran bere lantoki bezela, beti arimen arduraz kezkatua. Begoña'n itzali zan 1966-10-6'an.

EUSKAL IDAZLE.—Euskeraz ederki zekien, eta mutilla genduen Oiartzabal luma erabiltzen. Or-emengo aldizkarietan datozten euskal lanez kanpo, iru liburu beintzat, oso jatorrak, utzi zizkigun. Beste lan batzuk, azken orduan batez ere, «Orixe»-ren laguntasunarekin egin zituen. Eliz-gizon zanez, euskaldunak santutu, argitu ta zerurazi nal zituen; ortan saiatu zan bere idatziak ondu ta argitaratzean. Ona:

1) *Zerurako bidea* (Zornotza, 1922). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. 219 orrialde. Gaia: gogalkundea nola egin bear dugun; bederatzi gogalkunde; Kristoren bizitzaz; kristiñau onaren bizikerea; meza, aitortza, Jaunartzea, ta Gurutz-bidea. Barrura kiribildu ta gogaldu bearra guztioi ondo adierazi nairik, onan diosku sarreran: «Kristau: Yainkoak emandako bizitza bi dituzu; bat orain dezuna, bestea il zorian asiko dezuna. Oraingo bizitza au laburra da, neketsua, oñazez betea. **Bizitz** onek amaya izango du, besteak ez; ta oraingo bizitz au amai-gabeko bizitzara garaman bidea baizik ez da. Bizitz au il-zorian amaitzen da, ta zure gogoak (animak) pekatu larririk ez badu, zorionekoa zu; baña eriotz-unean oben (pekatu) larriz beztuta badezu, doakabea benetan. Il-zori aretantxe bada, Yainkoak zure egikunaz irabazitako bizitza emango dizu, il ondorentxe epai-tuko zaitu-ta; eta une aretan bertan asiko dezu zure betiko bi-

zitza on ala txarra. Zure eskuan dago, bada, ene kristau ori, amalgabeko bizitza zoriontsu ala zorigaitsua izatea» (*Sarrera*, 5 orr.).

2) *Yesu Kisto Gure Yaun eta Yainkoaren Bizitza ta Berri Ona* (Pasai, 1936). Etxeberria'tar Ipolito'renean. 655 orrialde. Liburu ederra, mamiz ta azalez. Testamentu Berria ta Kristo'ren bizitza ditugu beti ere gure arimaren indargarririk bikaiñen, «Jainkoak berak argitua ta aizemana balta». Azkoiti'ko seme Biktoriano Larrañaga jesulagunak, *Idazteun-Irakasle* zanak egin zion itzaurrea, ta onela idazten digu: «Nekez bederen, oraingeroka Euskalerrian agertu izan dira euskeraz Ebangelio utsak, protestanteak aiek ere geienak. Olabide'ren Itzaurrean ikus aipaturik. Testamentu Berri osorik, ordea, katolikorik beintzat, ez oralntsu arte. 1571'garrenean Yoanes Leizarraga'k argitara zuna, protestantea ura ere, gure errian ezin zabaldu ziteken. Harar neder apalzarena ta aita Uriarte Prantziskotarrarena —onena Biblia osoa—, argirik ikusi gabeak dira oralndio. Noizbalt ere, Leizarraga'rena argitara zanetik irureun ta irurogei urtetara azaldu da Aita Olabide'rena. Oralñaldian gure izkuntza jaso-naienean egin dan lanik ederrenetakoa ta bere arloan ederrena da «Itun Berrla», egoki ta zeatz eta laburki biurtua, Ebangelisten jatorrizko erari dagokiola. Europan egin dan itzulpenik oberenarekin berdindu dezakegu, noski. Oralñarteko lanetaz baliatzen dirala, Yesukristoren bizitza lau Ebangelisten itzekin berekin, lauenak alkartuta, Jesusen Lagundiko Aita Areitio'k *Jesusen Biotzaren Deya'n* eman zigun, eta gure egun ontan Aita Iralzoz Kaputxinoak, liburu polit eginik eman digu euskera gan bi goxoan. Ala ere, Yesukristoren Bizitzarik oraiñaldikoen erara, ez da agertu gutartean Oartzabal'dar Martin Yaunaren au arte. Or bada uts au ere bete. Edonongo kristau-errian bezela, gurean ere, lan bikoitz oien urrena etorri da, bear bearreko dan Yesukristoren Bizitza» (VIII orrialdean).

3) *Santuen Bizitza laburrak.*

Urte guztikoak osotzeko asmuz asi zan arren, otsaillekoak bakarrik argitaratu zizkigun.

4) *El Lenguaje vasco* (Donosti, 1963). «Izarra» irarkolan. 147 orrialde. «Orixe»-rekin batera. Euskalari aundi biok, aspalditik, 1941-42'tik osatuta zeukaten gramatika duzu, ogei ta bat urte geroago argitara emana, Bi zati ditu gramatika onek; bata betikoa, aundiena, ta berriztatuta bestea. Atzalburu onen pean egiña da: «Ondo aurkitua sendotu, ta itxuragetua itxuratu».

5) *Desarrollo del Verbo vasco en tiempos y modos* (Donosti, 1963). Berrogei ta amar bat lauki dira euskal aditzaren aldi ta jokoak obeto adierazi ta ulertzeko. «Euzko-Gogoa»-n (1956) gal berdin samarra erabili zuten euskeraz.

Euskera txalroa zuen Oiartzabal'ek. Joskera garbala ta itz aukeratuak. Balta esaera politez ornitua ere. Ona, euskeraz idaztean, itzak euskal erara lotzeko nolako ardurea izan bear dugun adierazten digun zatitxo au. «Orixe» *izkera-zale* lanetik artua duzu. «Euskera ongi idazten ikasteko —dio— aukera-aukera-koak dira «Orixe»-ren idaztiak, ark ematen du erriarengandik ikasitako ta irakurri zitun beste idazleen lanetan aurkitzen zun euskal ioskera iatorra. Garrantzi aundiko da idatzietan erabilten diran itzak eta lotzen ditun ioskera, ta bi gauza auek ba-dute erro antzeko bat, ots: burutapenak erabilteko era. Alde aundi dago burutapenak era batera edo bestera erabili gure barnean, gero idezteko. Euskaldun iatorrak burutapenak euskal-erara bere barnean erabilten ditu, euskeraz idazten diardularik batez ere; ta besteengandik nolabalt artutakoak, eusko-erara aztertu, bekaldetu, egosi bezela egiten ditu bere barnean. Ta orduan itzak eta ioskera euskerazko dira» («Orixe» *Omenaldia*, Donostia, 1965, 123 orr.).

Euskaltzalndikoa zan.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 147 orr.; «Orixe» *Omenaldia*, Donostia, 1965, 119 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 460 orr.).

Euskal literaturan «Udala-Mendi» bezela ezagutzen dugu.

Aretxabaleta'n jaio zan, balta il ere; balña bere bizirik geiena Arrasate'n eman zuen. Lan etengabea egin zigun bere galaran, euskera ta euskal gaien zelalan batez ere; bera izan zan gaiñera Arrasate'ko abertzaleen buruzagi bakarra.

Gizaseme jator auek sarri izen gabekoen artean, ixillik, geratu oi dira. Kontu egizu, irakurle, zenbat olako dauden gure artean: iriki ta mazal, egiñalak egin arazorik yalo prestuenetan eta olakoaren izena maiz aipatu ez dugu egiten. Ain gara gerekoi ta esker gaiztoakoak!

Arrasate'ko Lenengo Euskal Jala, «Euskaltzaleak» erakundeari oiñarriak ipiñi naita 1927-9-4'an ospatu zana, entzute aundikoa izan zan nunbait; orduko asteroko ta aldizkarien ordezkari ta euskal idazlerik beiñenak an batu ziran anaitasunik beroenean. Deba'ko antzezlari talde batek «Txanton Piperri» opera aurkeztu zuen gabaz; liburu mordo bat ere, azoka bezela, salgei jarri zan; Arrasate'ko abesbatzak euskal abesti ta doiñu asko abestu zituen; bazkaritan, gogaldi onari atea irikirik, bos-teuneraiño alkartu ziran gozagiro bizi ta atsegingarrian.

Eta Euskal Egun garbal onen eratzaille bakarra Peli Ugalde izan zala, altortu genezake. Izlariak ere berak aukeratu zituen: «Lizardi», Zinkunegi'tar Joseba ta beste batzuk.

Izketarako samurra zan, euskera garbian mintzatuz. Idazle bezela ain ezaguna etzan arren, egiten zuena guztiz polito egin oi zuen. Bere lan geienak, erriko albisteak eta abar, «Euzkadi» egunerokoan agertzen dira.

Gorputzez txikia zan; adorez oso aundi. Espetxeko illunaren txera ere gozatu zigun aldiko baten.

Beste askotxo legez, «Kirikiño»-ren eskolakoa genduen.

30.—GABINO MURUA IZAGIRRE (1894-1955)

Ez dira gutxi gure literaturan idazle aski ugari ta fiñak, baiña odol ta zimaz uzkur, atzeren izanik, beren izenak adietan ematen ere ausartzen etzitzaigunak. Oietarikoia dugu itxuraz Murua idazle au ere.

Lazkano'n jaio zan 1894-10-24'an. Bizi ordea, Gabiri'n bizi izan zan, eta bertan il zan azkenez 1955-1-10'an. «Okil-zulo» ta ibar ontatik zear doan erreka izena, «Estanda», erabilli zizkigun bere lanak izenpetzean.

Baserri-zalea zan, eta alegiñak alegin egin zituen baserriar bizi-modua arindu, duindu ta jasoten. «Euzkadi»-n, «Argia»-n, «El **D**ia»-n eta abar idatzi zituen lanak. Gal auek exkax samarrik ditugu euskal literaturan, eta egoki litzakigu eurok esku goxoz jaso ta bildumatzea.

(Ikus J. San Martin, *Escritores eusMricos*, 136 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 341 orr.).

31.—DIONISIO OLANO GALARRAGA (1894-1964)

Aita kaputxinoa, Altzo'ko Didaka, A. Diego.

Altzo-Azpi'n jaio zan 1894-2-14'an. Latin eta inguruko ikasketak Lizarra ta Altxatzu'n egin ondoren, 1909'an Sango-tza'n jantzi zuen kaputxinuen soiñekoa. 1910'tik 1913'ra Filosofia ikasi zuen Ondarribi'n eta 1913'tik 1917'ra Teologia Iruña'ko komentuan. 1917-9-30'an apaiztu zan. Eta gero, apaiztu zanetik zaartzaroraiño, bizitza osoan, kaputxino fraille-gai gazteen irakasle izan zan: Filosofi-gaiak irakasten zituen Lekarotz'eko Ikastetxean. Ementxe bertan il zan 1964-10-0'an.

EUSKALTZALE.—Sutsua ziñez, ta euskeraren ddezko lane-tara emana. Gazte zalarik asi zan idazten: «Zeruko Argia»-ren lenengo arotik, au da, 1919'tik. «Altzo'ko» edo «Altxori», balta

«Altzo-Azpiko» edo «Altzo-Azpi'tar» Didaka, baita «Diego» utsik ere, eta «Oleartso» erabilli oi zituen lanak firmatzean. Era ta gai askotaz ondu zituen artikuluak aldizkari txukun onetan; bai, ta idatzi zuen «Irugarrengo Prantziskotarra»-n ere. «Zeruko Argia»-ren bigarren aroan, ots, 1954-56 urteetan, «Galde-erantzunak» saila berak eratzen zuen.

Liburuxka auek ere argitara zituen:

1) *Erriarentzako Liturgia. Corpus Christi edo Aldareko Sakramentu Santuaren jai-eguna* (Iruña, 1931). Ama Birjiñaren irarkolan.

2) *Erriarentzako erri-liturgia* (Iruña, 1931). «Zeruko Argia»-n dator, 1931'gn. urteko 51-61 orrialdeetan.

3) *Prantzisko Santuaren Irugarren Ordenako Ikasbidea* (Iruña, 1929). Iruña'ko kaputxinoetan. 37 orrialde. Au berau erderaz ere badu.

4) *El superlativo absoluto en el euskera hablado* (BAP, 1952, 239 orr.).

5) *Estudio sobre etl Euskera hablado* (Donosti, 1961). Izarra irarkolan. 268 orrialde. Liburu ederra euskeraz ongi ikasteko. Ogei ta amar bat urte egiñak ditu A. Olano'k Gipuzkoa ta Goi-naparroa zear, izlari geienik, eta txango oietan bildu dizki-gu erriaren aotik zenbait esaera ta gauza txanbelin; oiek datoz batez ere liburu mardul onetan. Zortzi ikas-sail dira: 1) Euskal atzizkiak; 2) Aditzaren izen-erak euskera mintzatuan; 3) Euskal joskera; 4) Izen mugatzailleak euskera mintzatuan; 5) Galllen-itz soilla euskera mintzatuan; 6) Euskal itz-urrena; 7) Barne-almen eta egimenen adieraztea euskera mintzatuan; eta 8) Zaar-aztarnak euskera mintzatuan. Gure izkera sustralz ikasi ta egiazko senez idatzi al izateko, guztiz jakingarriak dituzu zortzi sall sakon tinkuok. Egilleak azkenez: «Ama Sortzez Garbia, Euskalerriko Erregiña, zuri eskeintzen dizut nere lantxo au; onetsi zazu ta egin euskaldunak beti euskeraz ta euskera jatorraz goratu zaitzatela».

Ba-ditu olerki txanbeliñak ere, «Zeruko Argia»-n baitik bat.

Aldizkariotan idatzi zigun: «Zeruko Argia», «Irugarrengo Prantziskotarra», «El Terciario Franciscano», Erroma'ko «Ter-tius Ordo», «Verdad y Caridad», «BAP», eta abar.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 852 orr.; J. Burgo, *Catálogo bibliográfico*, Iruña, 1954, 145 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 56 orr., Herria, 1964-10-29'an eta BAP, 461 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 140 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 441 orr.).

32.—ANIZETO OLANO GALARRAGA (1896-1966)

Aita Diego kaputxinoaren anai. Kaputxino berau ere. Eta biok Guam'go gotzain izan zan Mikel Aingeru Olanu Urtea-ren anai: iruron aita bi aldiz ezkondua bait zan.

Altzo-Azpi'n sortua, 1896-4-17'an. Altzatzu'n ikasi ondo-ren, Sangetza'n jantzi zigun kaputxinoen soiñekca. Ondarrabi'n Filosofia (1912-16) ta Iruña'n Teologia (1916-20) ikasi zituen, 1920-4-3'an apaiz sagaratuaz. Iru analetatik au omen zan azkarrena, ta eliz-karrera amaitu ostean ere, ainbat gaietan titulua atera zigun. 1922'tik 1924'ra Afrika'n egon zan ango gudarien kapellau. Gero, Erroma'n egin zituen Eliz-Araudiari buruzko ikasketak, 1926'tik 1936'ra, amar urtean, Leka-rotz'en irakatsi zuen.

Ark bizi osoan irakaskintzari lotuta egongo zala antz ematen zuen arren, gizona ez izan geroaren jabe: «gizona dabil, Jainkoak darabil» esaera zarrak ederki. Eta, Aita Aniketa, 1936'an, zori txarreko guda zala-ta, Prantzia'ra jo bear izan zuen; Bordele ondoko Begres'en egin zuen parroki lana ta igeska zetoztenen ardura. 1940'an Argendna'ra joan zan, an bere irakaslaritza utzi ta pastorgintzara loturik; 1942'an Kordoba'ko komentuko nagusi ta elizako txauburu izentatu zuten. Gero, Nueva Pompeya'n, Nekotxea'n eta Buenos Aires'en egin zuen lan berdintsua.

Sei urtez —1951-57— Nekotxea'n lan egin zuen. An etzeu-katen Prantziskotarrak oraindiño komenturik ez elizarik, eta

nagusiak nai zuten uri ortan lekaretxe berri bat jasotzea. Olano Aitari leporatu zioten eginbide ori. Bereak eta bost jasan bear asmo ori aurrera ateratzeko; ortxe gaixotu ere egin zan, pixkaka pixkaka illobira eratziko zuen «Parkison» galtzez. 1957'an «Euskal Etxea» deritzan Ikastetxera bialdu zuten nagusiak Ikastetxeko Zuzendari-ordezko ta irakasle bezela; iru urteren bu-ruan, berriz, Nueva Pompeya'ko fraillen eritegira eraman zu-ten, eta ementxe egon zan urteetan, orduak eta orduak ango Andre Mari ospetsuaren aldare aurrean egiñik, otoiitz eta otoiitz.

Nueva Pompeya'n bertan il zan, 1966-1-3'an.

IDAZ-LANAK.—Euskeraz ta erderaz utzi zizkigun lanak. Euskerazkoetan «Amaialde» izenordea erabilli oi zuen. Eta «Zeruko Argia»-n datoz batez ere bere artikulua, olerkiak eta osterantzekoak, 1919'an asi ta 1927'rarte bai beiñik-bein.

Erderaz auek utzi zizkigun:

1) «Catedra de Etica». Serie I. *Notas y materiales para la historia de la Etica*. Serie II. *La voluntad moral en San Buenaventura* (Barzelona, 1927). 26 orrialde.

2) *Filosofia vasca* («Yakintza», 1934, 203 orr.). Separata bezela ere «Euskaltzaleak» atera zuen (Donosti, 1934). Lan ja-kingarria.

3) *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa por Aniceto Olano* (P. Miguel de Alzo), Bonifacio Echeagaray, Eduardo de Landeta y Jose de Ariztimuño (Donostia, 1935). «Euskaltzaleak» argitaratuta. Lendik ere «Yaldntza»-n agertazitako lanak dituzu. Aita Olano'renak auek dira: 1) *El bilinguismo y sus soluciones psicologicas y pedagogicas* (3-31 orr.); 2) *Metodos a emplear en la enseñanza del euskera a los niños vasco-erdel-dunes*, (85-97 orr.), eta 3) *El derecho a la Instruccion primaria en la lengua materna ante el Derecho Internacional positivo* (153 orr.).

Euskeraz erakusteko bide egokiak azaltzen dira idazlan auetan.

«Euzko Deya»-n, «RIEV»-en, «Yakintza»-n, «Zeruko Ar-
gia»-n, eta «Boletin del Instituto Americano de Estudios Vas-
cos»-en idatzi zuen. Umeen aziera, eusko-aurrena batez ere,
zan bere gairik urratuena. Ontan au ziñoan: «Umeen azieran
gauzik bearrekoena umea ondo ikastea da. Zerbait berexia ba-
du ume bakoitzak: erri bakoitzak ere bai. Erri bateko umeak,
ordea, lotutzen ditun zerbait ba-dute bere izakeran. Elkar lotu
ta besteengandik berexen ditun zerbait ori erri bakoitzean ika-
si bear da. Bearrezko dute ori irakasleak, irakasle izan beai
ba'dute: aurrak azi ta ezi nai ba'dituzte. Eusko aurrak ikasten,
oien azi-adiñak ta mallak oartzen nor saiatu da? Gutxi: iñor
izan bada».

(Ikus *Yakintza*, 1935, 160 orr.; S. Onaindia, MEOE, 976 orr.;
Boletin de la Soicedad de Estudios vascos, 1934, 64 zenb., 25 orr.; J.
San Martin, *Escritores euskericos*, 139 orr.; Auñamendi, *Literatura*,
III, 454 orr.).

33.—FERMIN ITURRIOTZ (1897-1952)

Ordizia'n ludiratu. Apaiza. Aurretik Komillas'eko Ikaste-
txe nagusian bete zituen Elizak eskatzen ditun karrera urteak;
bertan apaiztu ere egin zan.

Euskaltzale zetorren oso, eta euskeraren etorkizuna ume-
txoetan ikusten zuen batez ere: oeri euskeraz irakasten beti
salatu zitzaizgun bere bizitzaldi laburrean. Eusko-Ikaskuntzak
zeakan Len-Irakaskintzako batzordekoa zan, alkarte onen aldiz-
karian sarri xamar idatziaz. Ernani'n, Pasai'ko Donibane'n eta,
egin zuen arima-zaintza.

Aurrentzako euskal liburuak gertatzen zebillelarik eraman
zigun Jaunak bere atsedenera. Negar-erbeste ontan sarritan jazo
oi zaigu orrela, gu amets ederrak eraginda gabiltzala, eriotzak,
Jalngoaren morroi ziñak, erabakitzen du gure biziaren zoria.

Iru liburuxka argitara zituen:

1) *Txomin ikasle* (Donostia, 1931). Eusko umeei irakurtzen erakusteko lenengo idaztia. Egilleak, sarreran, au dio itzez itz; «Eusko-lenen-ukasteko loretegia lantzen degunok pozez gauden albat lore berri, idazti apaln eta egokiak datozela ikustean. Eusko umeei irakurtzen eta idazten erakutsi bear zieten idazti-txoak osatu eta ugaritu dira. Lenbizi ludira etorri zan «Xabier-txo». Bere altaren L. Mendizabal'dar Ixaka»-ren esana zintzo bete zuan. Eusko umeen artean ikasbide on asko zabaldu, batzuen jakintza-egariya itzali, ta bera baño txikiagoen ikasnaya piztu zuan. Txiki abentzat, «Xabiartxo»-ren anal gaztegoa, «Umiaren laguna» ekarri zuan egille berak ta bere errayetatik sortu zan «Martin Txilibitu», irakurbide merke ta laburra. Baño oralngo ikastetxeetan irakurgaletan bezin laster idazkal-bideetan jarduten duten ikasleak, eta ortarako egin nuan «Txomin ikasle».

2) *Lutelestia* (Zarautz, 1932). Euzko Argitaldaria. 65 orr. Nik begi aurrean daakadanak onela dio: «Iturriotz'dar Pirmin apalz irakasle Eusko-Ikaskuntza'ko Lenen-Irakaste Batze'kuak. Lutelestija, iru malletan. Euzkerazko lenengo malla. Bizkayeraz».

Eta sarreran au irakaslariari: «Gipuzkua'ko lutelesti edo jeograli txiki bat egiteko asmoz asi nintzan; (baserriko ikasle maliak eskatuten eustelako, itzez ezeze biarrez), baño Eusko-Ikaskuntza'ko Lenen-Irakaste Batzordia'k ukusi eban neure lana amaltu baño len, eta lutelesti onen mugak Euzkadi gustira zabaltzeko, eskatu eustien, onela euzko-seme gustijak zer ikasija ixan egijentzat, etxeko barrijetan».

Onen ondoren etorriko ziran bigarren eta irugarren mallakoak. Baita jarralan «Edesti Deuna», bi mallatan, «Eliztia», «Zenbakiztia», «Edestia», «Daneurtiztia», «Berezko Jakintzak» eta abar, au da, mota askotako ezagutzak, idazti laburretan, eusko «enziklopedia» oso bat egiteko asmoz.

3) *Lutelesti edo Jeographia* (Zarautz, 1932). E. Argitaldaria. 20 orr.

(Ikns Auñamendi, *Literalnra*, III, 327 orr.).

34.—JOSE ZUBIMENDI (1898-1939)

Agirre'tar Joseba Mirena'k idazle onetzaz: «Olerkari on baten didarra, bear zaigula, Mourlane Mitxelena'k zigung. Baña geyagorik ere azaldu zigung: Euzko Araudi guzadak baxen onurakor izanen zala geure izkuntza jasoko zuan olerkaria. Izkuntza barik ezer ere eztegu, beste erriakandik euskerak baizik ez gauz ezertxuk ere bananduko eta. Geure aboetan, loratua, ikusten degunean izkuntza, erriko irakastoletan umetxual euskeraz balzik erakutsiko ez zayenean, baserritarrak balzen ongi kaltetarrak ere mintzatuko diranean, Aberriaren alde lan aundija eginen degu. Araudiak geroxe etorriko zalguz. Katalunya'n jaso balta beste onenbeste. Aribau'k bere didarra egin zun egunetik, olerkari aldra izugarriak euki dituzte ayek. Verdaguer, Gimera, Maragall, Kosta Llobera eta abar, izan dira Aberria gora jaso dutenak. Politokoak baño gorago jaso ere» (*Aberri oyuak*, 1932, 3 orr.).

Donosria'ko seme dugu Zubimendi, an balt zan lurbiratu 1898-3-12'an. Idazle bizkor, Donostia'ko «El Pueblo Vasco»-ren igandetako euskal atala berak zuzendu zuen luzaro. Donostiar Orfeoiko bakar-abeslari izan zan, eta «Eusko-Abesbatza»-ren sortzallle beste batzukin.

Gerra zimiztak sortzean (1936), mugaz bestekaldera jo zuen. Kanbo'n itzali zan 1939-9-29'an, 41 urte balño etzituela.

EUSKAL LANA.—Elerti baratzean ditugun lur-arloak ez ditzeten larre biur, buruz belarri lanari eldn bearra dugu. Guztiok, alere, ez gara ortaz konturatzen, eta geure izkuntza il-bearreko ikusirikan ere, orrek ez die asko ta askori sabel-min esatekorik eragiten. Nere bizi zaizkigu, itzul-inguruan zori txarraren egal otsik ezpaltzan.

Zubimendi'tar Joseba etzan oietako. Abenda miñak joa larri zekarren, erdi zoratua. Eta idazteari eman zion barne-su

berotan. Euskera jaso nairik zebiltzan taidekoen artean lerrotu zan gazterik, eta ainbat lan osatu zigun bere bizi laburrean. 1920'an edo, asi zan olerkigintzan.

Neurtitzak eta ostantzeko lanak eurrez bialdu zituen «Euskal Esnalea», «El Dia», «Argia», Aurrezki-Kutxako «Juventud», «Euzkadi», «Yakintza», Paris'ko «Euzko-Deya»-ra batez ere.

Ona oietaz kanpo argitaratu zituenak:

1) *Aberri oyuak* (Donostia, 1932). Olerkiak, Eusko Aberri zĩnoparen oroiz ta omenez. Agirre'tar Joseba Andoni'ren —gero Eusko Lendakari izanaren— itzaurrea; onelo dasa: «Jaun-Goi-koa'ri eskerrak, gaurko egunetan olerkari onak ditugu. Liburu eder asko argitalduten dira. Abeslarien oyan onetan beste txori batek ere abestu nai digu. Abartxu puntan jarri zaigu bere mo-koan olerkitxu txorta onen abestiak. Zubimendi jauna. Izkuntza sakonetik darabil jaun onek, neurtitz landuak, izkuntza apainduz agertzen dira. Lenago zarpaillo asko ziran baña. Oya-neko txori bakoitzak bere abesri mota izaten dulako, onek berea dakarkigu. Abertzaletasun otsak».

2) *Mirentxu* (Tolosa, 1934). Bi ekitalditako eresantzerkia. Alfredo Etxabe'k sortu ta, gazteleraz, Federiko Romero ta Gi-Uermo Fernandez Shaw'ek eratu, ta Guridi'tar Josu'k ereski-detua, Zubimendi'k euskeraz. «Lan onen euskeratzea, zintzoki, gazteleraz idatzita zegoanaren neurritik egin det», diosku itzul-tzailleak.

3) *Zumalakarregi* (1835-1935) (Donostia, 1935). Arrieta' tar A.'ren irarkolan. 48 orrialde. Edestiari buruz zortzi bertso sailletan eraturako poematxo. Poliki abesten ditu eusko gudari aundiaren bizitza ta egitsari miresgarriak.

4) *Uranga'tar Jon Iñaki* (Donostia, 1935). «Yakintza»-n dator, 1935, 3 orrialdean.

5) *Lenengo bertsolari eguna* («Yakintza», 1935, 140-154 orrialde).

6) *Bigarren bertsolari eguna* («Yakintza», 1936, 141-158 orrialde).

7) *Bertsolari guduak* (Donostia, 1936).

NOLA IDAZTEN ZUEN?—Besteak beste, errikoi da oso. Bertsotan ari dala ere, erri-koplal<arien maillatik ez du leku egin nal. Ala ere, zerbalt goiagotik egaz dagi, oldozkun eta irudikizun zelalan berariz. Aberri oiuetan bereziki gisa ortan agiri zaigu. Erri-miñak ikutua, kantari diardu. Agirre'k onan: «Lenago bertsolari-antzo asko izan ziran, gaur olerkari dira aberriaren miñak jo ditulako. Araudiak baño garrantzi andiago dula olerkari edo idazle on batek argi agertzen zaigu. Geure izkuntza jaso bear degu. Ez izkuntza ederra dalako, aberriarena dalako baizik. Izkuntzak ez du ezer ere balio aberri barik. Soñña ba'degu gogo barik, alperrik zalgu».

(Ikus *Bertsolariya*, Errenderi, 1931-10-11, 22 orr.; *Yakintza*, 1935, 403 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1954, 871 orr.; Basarri, *Euzko-Deya*, Paris, 1939; Gabino Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1966, 66 zenb., 141 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 182 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 219 orr.).

35.—ANDRES ARTZELUZ (1898-1949)

«Artzeluz'tar Ander» ta «Luzear» euskal literaturan. Euskera, bitxi ederra, au landu ta aberasten ari izana dugu Artzeluz ere. Eta nolako gatz eta piperrez! Antzez oretutako umore yaukalez gaiñezka aren lan danak.

Donosti'n jaloa duzu «Luzear» 1898-8-15'an. Oso euskaltzale zetorkigun umetatik. Eta euskal arazo ta auzi danetzaz ibilli zan kezka aunditan. Ixilka, Elgoibar'en (1926) ta Motriku'n lenengo ta gero Arrasate'n erne nalrik zebillen «Euskaltzaleak», Zumarraga'n eta Andoain'en *Euskel-Egun* gartsuak ospatu ondoren, azkenez Zumaia'n jarri ziran —1930-3-9'an— alkarte onen oiñarri zeatz, sendo ta bein-betikoak. Tartean ziran Lizardi, Urreta, Luzear ta besteak. Lizardi izan zan lenengo buru, urte betean; Urreta'tar Mikel urrengo urtean (1930).

«Euskel Eguna», «Euskel-Idazle-Batza» ta abar eratu zira-nean, Lizardi'k onela Zumala'ko (1930-3-9) itzaldian: «Gure

Idazkariak, guziok ezagun dezuten «Luzear» yatorrak, orri baina emango dizute zuen izen-izenorde ta zuzenbideak, eta baita ere zuen erri-inguruan ezagutzen dituzuten beste euskel-idazleen berri eman dizaiguzuten».

Itzaldirik asko eman zituen errietan. Etorri trebeko esana zuen: ugari, errez, umoretsua. Eder zitzaion teatru zelala, ta 1934'an, «Euskaltzale» bazkunak eratu zuen euskal antzerki saillean bera ere epaimaikoen arteko zan.

Azken guda zala-ta, gorriak ikusi bear izan zituen. Nork ez? Guenean, mugaz beste aldera aldatu ta Baiona'n il zan 1949-8-27'an.

EUSKAL LANA.—Aitor dugunez, izlari ona. Ta «Euskal Esnalea»-k eraturiko itzaldietarik bat, berak eman zuen (Lezo'n, 1930-5-4'an). Gaia: «Garbizu'tar Jon olerkaria». Itzaldi guztiz bikaiña, olerkiari ta *Zubigar* olerkariari buruz ainbat gogai eder arilduaz egiña. 1935'an Bilbao'n argitaratu zan «Libro de Oro de la Patria» deritzan idazri garaian ere ba-du *Euzkadi, Agur!* izenburutzat duen lan bipilla. Gogora bi auek ere:

1) *Neskamearen marmarrak* (Tolosa, 1934). «Antzerti»-n dator, 31'garren zenbakia. Bakar-izketa da, aurreneko aldiz Arzeluz'tar Amaletxo'k Poxpoliñetan egiña.

2) *Euskal Edestia* (Zarautz, 1935). B. Estornes Lasa'k umetxoentzat erderaz egindakoa, Artzeluz'ek euskeraz. Txit polita.

NOLAKO EUSKERA?—«Neskamearen marmarrak», tamalez, lan motza du, baiña bizi-bizi idatzia. Irakur zazu zatitxo au; poliki bai azaltzen duela egun osoan lan eta lan ari dan neskamearen agoak, «señorita»-ren jarduna.

«Amarretan jeiki. Amaikaterdiak arte, bañua dala, gosaria dala, ezpañiak piper gorritz ta begiak zikulu-saltsa beltzez pintatzia dala, arpegia autsez josi, gerria extutu, bere xanko politai (tanbor makillak dirudite gero!), bere xanko politai begiratu,

gonak pittin bat goraxeago jaso, ixpillu aurean (Jesus, ixpillu aurean... oiek komeriak!) onera begiratu, ara begiratu, au ikutu, ura ikutu... atzekoaldiak ematen dizkion lanak...! aunditxua iruditzen nunbait... ta igurtzi ta igurtzi, igurtzi ta igurtzi, «limatu» nalan bezela. «Linea» ez galdu nai ba! Orrenbeste pantasi gabe begiratzen zigutenan beintzat guri mutil morrosko bapo askoak! Esango nuke...».

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1930, 114 orr.; Añamendi, *Literatura*, III, 295 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 244 orr.).

36.—IÑAZIO ARANBURU MENDIZABAL (1859-1931)

Azkoitiar Aita kaputxinoa. 1884'an jantzi zuen fralde soñe-koa, ta 1891-9-19'an izan zan apalz sagaratua. Ondoren Lekarotz'en, Katalunia'n, Mexiko'n, Nikaragua'n eta Kosta Rika'n ibilli zan mixiolari. Azkenez Kosta Rika'ko Kartago'n il zan, 1931-7-23'an.

Donostia'ko «Gipuzkoarra» asterokoan eta Bilbao'ko «Euzkadi»-n nalkoa idatzi zuen Aita Iñaki'k. «Jel-Alde» izen-ordez izenpetzen zituen bere lanak. Aren idatziak, makiñaz, iru ale ederretan omen dauzka Ataun'go Bonipagi Aitak.

(Ikus Yurre Aitaren oarrak).

37.—LUIS EPELDE EPELDE (1875-1937)

Azkoitiarra au ere. Eliz-ikaskizunak Gaztela'ko kaputxinoetan osotu zituen. Eta 1901'an, bere 26 urtetan, Venezuela'ra joan zan mixiolari. 1936'ko gerreak Euskalerrian oratu zion, eta Gaztela'ra iges egin bear; eta antxe, Leon'go kaputxinoen komentuan, oraindik osasuntsu zegoena, laster il egin zan 1937-4-15'an.

«Zeruko Argia»-n eta «Irugarrengo Prantziskotarra»-n idatzi zuen. Geienetan bere izenez, «Azkoitiar Luis Aita», batzuetan izenordez, «Irutxulo», agerrari zizkigun bere lanak.

(Ikus Aita Yurre'ren oarrak).

38.—KARLOS ARANBARRI MENDIZABAL (1876-1918)

Azkoiti'ko semea. Bilbao'n artu zuen kaputxino jantzia 1892'an. Gaztela'n egin zizkigun eliz-ikasketak, 1901-9-21'an apaiz egiñik. Katalunia'n, Mexiko'n ibilli zan mixiolari. Mexiko'n, «Pozitoko» elizatxoaren arduradun zala, izurrite gogorra sortu ta zabaldu zan 1918'an; gaxoei laguntzen zebillela bera ere kutsutu ta andik laster maltasun-oparigal bezela il zan.

«Irugarrengo Prantziskotarra»-n asko idatzi zuen. Zoritxarrez, ala ere, etzuten orduan — gaur bezela— beren izenez lanak firmatzen eta gero ta zallago zalgu nortzuk ziran garbi ta zeatz jakitea. Aita Karlos'i Azkoitla'r Jose Kalasanz Aita zertzaioen ordenan. Eta «Jakín zale» izenordea erabilli zigun, antza danez, bere euskal lanetan.

(Ikus Yurre'tar Julen Aitaren oarrak).

39.—TOMAS ETXEBERRIA ELOSEGI (1882-1953)

Eldualen'en (Gipuzkoa) jalo zan, eta mutikotan Lekarotz'en zebilkigun ikaskizunak osotzen; bertan sartu zan kaputxino, iru botoak, eliz ikasketak egin eta leen-meza ere, 1907'an, bertan eman zuen. Andik bi urtera Arjentina'ra joan zan mixiolari, ta an amalka urte egiñik, 1920'an, Euskalerrira itzuli zan berriro. 1920'tik 1936'ra Ondarribi'n egon zitzaigun; gerra zala-ta, Andaluzia'n bizi izan zan urte mordoan; gero, Tude-

la'n eta Iruña'n eman zituen urte batzuk, eta azkenez, gaixoturik, Lekarotz'era lenagoko komentura eraman zuten: emen il zan 1953-11-12'n.

Euskaltzale ta musikolari sutsua. Euskaltzale bezela ainbat gauza dauzka «Zeruko Argia»-n; ao ederreko euskal iztuna genduen; berak gertatu ta argitara zizldgun Errenderi'tar Erralmunda Aitaren «Olerkiak» (Tolosa, 1935). Musikalari bezela, ordea, lan bikain-bikaiña burutu zuen «Zeruko Argia»-n, urteak urte ainbat eresi eder argitaldu zizkigun; organurako egi-ten zuen guzria ateratzen zion Barzelona'ko Boileau etxeak, balta Iruarritzaga Anaiak Madrid'en zuzentzen zuten «Tesoro Saero-Musical»-ek ere.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1954, ilbeltza-otsailla, 1-2 zenbakia; *Tesoro Saero-Musical*, Madrid, 1954, urtarrilla-otsailla, 18 orr.).

40.—PEDRO ZABALA (1889-1956)

Gizaseme onen il-berria ematerakoan, «Euskera»-k onela zion: «Pedro Zabala jaunarekin, erria ainbeste ohoratzen duten orietako gizon bat galdu da: aztertzaile eredutzakoa, zeatza eta ixilla —bear bada ixillegia— eta interesik gabea» (*Euskera*, 1956, 332 orr.).

Bergara'ko semea genduen; toki au beste gizaseme jator askoren seaska ere ba-duzula ezta esan bearrik. Bere errian, Errege-ikastetxean bukatu zituen len-ikaskizunak, Eskugoa ta abar Valladolid'en asi ta sakonagoturik. Donosti'n egon zan letrau. 1921'tik 1936'ra ordea Bergara'n bertan, Udaletxean, egin zuen zadorlaritza.

Euskaltzaindiaren urgazle, euskera ta euskal gaiak oso maitte zitulako.

Irakur «Euskera» berriz: «Oso gazterik asmak jo zuen eta bizitza oso gorde bat egin bearrean aurkitu zen. Ala ere Zabala

jaunak aurpegi emanik bere galtzari gai oso luzea bildu zuen bere jaloterriko historiaren gainean eta balta izkuntzari dagozki.onak ere» (*Loc. cit.*, 332 orr.).

Bergara'n itzali zan 1956-9-24'an.

BAP aldizkarian: *Toponimia Vasca* (1953, IX, 111 orr.) eta *Hidmgrafia* (1953, 245 ta 261 orr., ta 1957, 295-312 orr.) lanak bereak ditu, ta ba-dute garrantzirik.

(Ikus *Euskera*, 1956, 332 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 168 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 349 orr.).

ELIZ-IZLARIAK PRANTZISKOTARREN ARTEAN

Lekaldeak, esanak esan, eztira inoiz ere gizartearentzat kak tugarri izan, bertzenaz baño. Ezta ez dira egundo komentuko bakartadera baztertu eurenaz, beren kasa soilki bizi izateko, urkoari ere mesedegarri izateko baizik: Jainko bidean ez dugu gizona bein ere albora utzi bear. Euskalerriko pralle Ordena guztiak —prantziskotar, karmeldar, kaputxino, Jesulagun, pasiotar, laterandar, Misibu ta besteak—, nere iritiz, ortan salatu dira beti.

Asis'ko Prantzisko santuak arrera ona izan du gizaldiak zear, Lenengo komentua, oraln zazpireun urte ta geiago jaso du gu Gazteiz'en. Ta arrezkero prantziskotar komentu asko izan ditugu Euskalerrian. *Arendui'k* onela: «Frantziskotar-tasunak gure artean izan duan aspaldiko arrera zabala ikusteko, alpatu ditzagun: Bermeoko komentua XIV-garren gizaldian; XV-garrenean Izaro ugartekoa eta Bilbaon beste bi; XVI-garren gizaldian, sallla: Sasiolakoa Elgoibar ondoan, Elgoibar bertakoa, Arantzazukoa, Donostiko Zaarra zeritzalona, Mondragoekoa, Tolosakoa; XVII-garrenean, Donostian bigarrena, Zarauzkoa, Gasteizen Sortzez Garbiaren komentua, Lekeitioko San Niko-

las... Eta ez uste izan jendez nolanaiko etxeak ziranik: 1680-an Arantzazukoak 80 fraile zeuzkan, Bilbaon San Frantziskorenak 57, Gasteizko nagusienak 54, Tolosakoak 30, Donosriko Jesusenak 29, Bilbaoko San Mamesekoak 26, Elgoibarkoak 23, Sasiola-koak eta Mcndragoekoak 20 bakoitzak, Zarauzkoak 19... XVIII-garren gizaldian 1064 fraille euldtzera iritxi zan Araba, La Montaña, Gipuzkoa ta Bizkaia «lau nazioak» osatzen zuten Kantauri probintzia. Amalka euskal jente bizi izan zan emengo komentuetan» (*Aranzazu*, 1975, azilla, 21 orr.).

Eta auetatik asko izan ziran noski —gaur ere diran bezela— Kristoren itza euskal mintzalra ederrez or-emen ereiten alegindu ziranak. Batzuk etzuten libururik, ez liburuxkarik argitara ekarriko bear bada, baiña ainbat mixio ta gogo-jardun aldarrikatu ondoren, sermoi-ingurrazti ta karpeta gizenak utzi zizkiguten il ostean, eta askorenak or daude oindio ere komentuetako paper zar artean, autsez ederki lodituak egiaz. Esku on baten igortzia bear argia ikusi al izateko. Onakoak ere —leendik esana dut— onez alpatzea merezi dutenak dira.

Aurreko aleetan altatu nituen Zarautz'en eta Bermeo'n battez ere mixiolari izan ziran Arrigorriaga'ko seme J. A. Uriarte (1813-1869), Lemoa'ko Kristobal Linaza (1806-1866), Zollo'ko J. J. Salazar (1807-1882), Durango'ko A. Baertel Miota (1854-1922), Angiozar'ko seme J. A. Ugarte (1860-1935), ta beste batzuk. Baiña beste auek ere aipagarri ditugu: Aita Buenabentura Etxezarraga, zeanuristarra; A. Manuel Ereñozaga, Mungiko, 1883'an Zarautz'en illa; A. Jose Esteban Epelde, Azkoiti'koa semez ta Aita Nausi zda Zarautz'en illa; A. Andres ta Juan Luis Arrue, durangoarrak; A. Iñazio Egia, otxandioarra; A. Pedro Zelesrino Arbide, gazteluarra; A. Julian Amezarri, markinaarra; A. Migel Gereka, arrietarra; A. Jose Luis Alberdi, azkoitiarra; A. Jose Antonio Erezuma, muxikarra; A. Bernardino Lopategi, barrikarra; A. Manuel Umeriz, oiñatiarra; A. Balbino Ozerin-Jauregi, zeanuristarra; A. Pedro Arrazola, oiñariarra; A. Jose Antonio Lizarralde, Zaldibikoa; Aita Andres Oze-

rin-Jauregi, Igartua, Amunategi, Ibarra, Frantzisko Jauregi amorotarra, I. Omaetxebarria, Zubieta anaiak, Salvatore Mitxelena, Alustitza, Agirretxe eta beste asko len eta orain. Igia igiz erakusten, eta Aita zoli bizkor oiek ere ortan dendatuak dituzu. Akats gabeko gizalanik ez-ta, auenak ere izango dituzte bere-nak, baiño baita urrezko pikortxo eder anitz ere.

Gogora zazu izlariok kulturaz jantzlak dirala, teologiz, literaturaz, musikaz, edozein gaiez mintzatu ta idazteko aiñean. Euskaldun eliz-gizonak egitan Euskalerrlak dituen kezka, ardu-ra ta gorabera guztiaz jabetu bear du; izkuntza ta gaiak sakon ikasi, errez ta goxo erriari azaltzeko: ez begi sekulako santean gai ariñak euskeraz ta besteak erderaz eman.

Beiñola A. Ibiñagabeitia'k: «Zuek Arantzazu'ko prantzis-kotarrok arnas emaeizute..., etzaitezela kontsola, arrizko eliz bat eiñaz bakarrik, gogozko euskal-eliza eraikitzen ere lagundu iezue euskal idazleei» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 5-6 zenbakiak, 27 orr.).

41.—JOSE LUIS BERAZA LEGIÑENA (1894-1953)

Ordenako izenez, Aita kaputxinoa bait zan, Tolosa'ko Bernardo zenduan. Tolosa'n jaioa noski, 1894-6-9'an. Sangotza'n artu zuen kaputxino jantzia 1909-9-25'an; Ondarribi'n Jakintza ta Iruña'n Urtziztia ikasi ondoren, 1917-9-30 apaiztu zan. Gero, bost edo sei urte Altzatzu'n irakasle emanik, Donostia'ko komentuan bizi izan zan beri; ementxe il zan 1953-7-10'an,

EUSKAL IDAZLE.—Iñoiz ere ez omen zuten umore txarrez ikusi, bai ordea beti ezpafiñetan irripar gozoa zuela: barne goxoaren ikur ei dugu ezpain gaiñ loratzen dan irri-abar leunaren keiñua. Iru zeregin zituen komentuan: egun oro elizako aitor-tegian aitorpenak entzun, elizkizunetan organua jo ta illabete oro «Zeruko Argia»-n idatzi.

Idazle bezela, «Zeruko Argia» sortu zanetik asi zan idazten. Lenengo lau urtetan *Azurzi* —ñoiz *Azurtzi*— erabilli zigun lanak izenpetzean. Bostgarren urtetik etzuen izenorde ori erabilli; baiña izenpetu gabe erlijio-berrien saila, «Danetik», «Naskaldia», «Berriak» eta olako izenburuz berak osatzen zizkigun; berri edo izpar oiek, beti izenik gabe, 1930'arte aldizkari barruan zetozten; urte ortatik, berriz, ondoko paper orian. Urte ortatik, gaiñera, beste lan asko atera zituen A. Bernardo'k «Zeruko Argia»-n, «Tolosa'r Bernardo A.», «Tolosa'r B. A.» edo «T'r B. A.» bere izenaz.

Biotzez zan leun-samurra, ta bere idatziak ere orrelaxe dituzu, eder, jator eta garbi.

(Ikus Yurre'ko Julen Aitaren oarrak).

42.—PEDRO MOURLANE MITXELENA (1885-1955)

Bidasoa ertzean —ez dakigu ziur Irun'en aia Endaia'n— jaio zan 1885-9-11'an erderaz ain trebeki luma erabilli zigun ertilari au. Euskeraz etzuen itxuraz ezer idatzi, baiña ondo zekian gure izkuntza ta sarri oretu zizkigun euskal gaiak bere idatzietan, gure olerkiari buruzkoak atan ere.

Gizon jakintsua zan, eta 1912'tik batez ere Madrid'eko «El Sol», «Novedades», «Hermes», «Esfera», «Vida Vasca», «Bizkaiko begiragarria» ta olakoetan idatzi zigun. 1919'an Oñati'n ospatu zan Eusko Ikaskuntzak eraturiko Batzar nagusian, itzaldi ederra eman zuen: *Los poetas en lengua vasca. La poesia vascongada en el XIX*. Berak zuzendu zuen Bilbao'ko «La Semana» aldizkari apaingarriz edertua. Argitara gabe utzi zuen: *Historia de los heterodosos vascongados*.

Madrid'en il zan 1955-11-25'an.

(Ikus *Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao, 1919-1920, 621-43 orr.; M. Zirikiain, BAP, 1955, 3-4, 440 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 43 orr.; Ayalde, *El Bidasoa*, 1961-12-3; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 22 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 342 orr.).

43.—POLIKARPO RAMON BARRENA EZENARRO
(1881-1943)

Zarautz'en jaio zan 1881-1-25'an. Gerra aurretik, eta bitartean, izlari kementsu, eragille bizia agertu zitzaigun. Iturri emakor bati legez zetorlondon itza ezpain-ertzera, jario ederrean. Eta euskeraz zuen jario ori.

Gero, 1937'an, erbestera bearra izan zuen, Arjentina'ra joaz. An ere euskal lanari lotua bizi izanik sei bat urtean. «Laurak Bat» eta «Euzko Deya»-n idatzi zuen batez ere, an zegoelarik.

Villa Ballester'en, Buenos Aires'ko probintzian il zan 1943-3-12'an.

(Ikus San Martin, *Escritores euskericos*, 51 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 249 orr.).

44.—JUAN ZABALETA LEKUONA (1894-1950)

Aita Zabala'k, Zabaleta bertsolari anaiak gorabera mintzatean, onela diosku: «1931 urtean, Errenteria'ko Juan Jose Makazaga jauna zanari, bere inprentan «Bertsolariya» izeneko bertso-errebista ateratzea bururatu zitzaion. Segituan, Zabaleta anaiengana jo zuan laguntza billa. Bai auek gogoz lagundu ere. Lenengo, beren bertso asko ta asko eman zuten errebista ortan argitaratzeko; bizien artean, etzan besterik izan, berak ainbeste bertso argitaratu zuanik, Txirrita ta Lexo izan ezik. Urrena, errebista artako bertso zarrik geienak, edo asko beintzat, bi anaiak alkarren artean pixkabanaka osatua zuten bertso-paper pillatik artuak dira. Zoritxarrez, pillari 1933 urteko uraldiak ondatu zuan» (*Auspoa*, 63-64, 21 orr.).

Errenderi'n jaio zan Juan Zabaleta 1894-2-8'an, Santa Klara kdean. 1907 urtean, Artikutza'ra aldatu zan sendi osoa, alta ango minetako guarda zan eta; gerogo, miñak gelditu ziranean, Olazuita'n, zerra fabrikan izan zuten lana; 1914'an osteria etorri

ziran Errenderi'ra, eta «Lanera» olan lana aurkitu zuten aita-semeok, ots, Manuei'ek eta Juan'ek eta Pello'k. Tintatzaillearen laguntzaille jarri zuten Juan. 1922-8-30'an ezkondu zitzaigun Monika Galarraga'rekin: zortzi seme-alaba izan zituzten. Fabrikari, tintatzaille arduraduna il zanean, Juan ipiñi zuten aren lekuan. Eta onan bizi izan zan bere aldian. 1950-7-30'an il zan.

BEREZKO SENA.—Etzuen, garai artan askok ere etzuen legez, eskolara joateko egokitasun aundirik izan, eta joan ba'zan bi urtez geienik. Txikitatik, alere, genun ikastera emana. Berak bere burua eskolatu zuen; trebea bait zan edozetarako. Margo ta koloreetarako griña bizia zuekan ta iñungo maixurik gabe lauki ta quadroak pintatzeraiño eldu zan: Txirrita'ri egin ziona ezta kaxkarrenetarikoa.

Zenbait bezela izenaren gale izan ezik ere, euskaldunari aomena ekarri izan dion doai bikaiñetatik bat auxe duzu: lanerako gogoa ta ortan bear dugun iraupena. Bi doaiokin errez azpiratu oi dira aurrean ageri litezkean trosko ta jausgarriak. Juan zintzo ari izan zan bere lanbidean. Baita idatziak osotu ere bere lanaz. «Lau liburu lodi —dio A. Zabala'k— idatzi zituan bere lanari buruz. Aurrena, 1935 urtean, «Lana —Arte Textil— Tintura» deritzaiona; bigarrena ta irugarrena, 1938 ta 1939 urtean, «La practica de lal tintura en aparatos mecanicos sobre lanas» izenarekin; laugarrena, 1941 urtean, «La practica de la tintura en aparatos mecanicos sobre hilados de lana». Lauak beraren eskuz idatziak daude, eta bere etxean gordetzen dituzte. Liburu auetan, kolore bakoitza nolatan eta zerekin egin bear dan, zeatz meatz adierazten du. Kolore-mota guzi-guzien erakusgarri bana ere badakar; guzira, bosteun baño geiago liburu bakoitzean» (*Auspoa*, 63-64, 20 orr.).

Antzerki bat ere poliki atondu zuen: *Txomin'en ezkontza*. Ezta argitaratu.

PELLO ANAIA.—Juan'ena noski. Errenderi'n sortu zan au ere 1896-9-3'an, Goiko-kalean. Eta ia beti alkarrekin bizi ta lan

egin zuten. 1927-7-7'an ezkondu zan Astigarraga'ko Rosario Miranda'rekin: bost seme-alaba izan zituzten. Miña ta zerretan ibilli ondoren, altatu dugun artile fabrikan lan egin zigan 40 urtetan.

Bertsogintzari lotua zebillen. Aita Zabala'k: «Bertsolari zuten alta ere. Arengandik piztu zitzalen bi anaiari bertsotarako griña. Maldña bat bider kantatu omen zuten alta-semeak alkarrekin, sagardotegian eta, balta etxean ere gabonetan eta gañontzeko etxe-festetan». Bertso zaar asko omen zekizkin altak; bi semeak zertan esanik ez: «altarengandik ikasitako jakinduria omen dute ori».

Aita Zabala'k ale mardul batean sartu zizkigun bi analon bertso-lanak. 31 Juan'ek jarriak, eta 40 Pello'renak. Poliki osatuak daude. Biok, gaiñera, bertso-paper asko eratu ta egaz edatu zituzten.

«BERTSOLARIYA» ALDIZKARIA.—Ezin dezakegu aitatu barik laga aldizkari eder au. Aitor dugu lendik ere Makazaga jaunaren xede txalogarria. «Urte buruan, 1931-IX-20'tik 1932-IX-25'ra arte, 54 ale edo zenbaki atera ziran. Ta gaur zenbald guziak dituanak, sekula argitaratu diran euskal libururik ederren-ederretako baten jabe dala esan dezake. Liburu ori, Euskalerriak Makazaga jaunari ta Zabaleta bi anaiari zor dien lana da».

Egi-gale danak olan aitortu bear du ezkutuan egiñiko indarketa bipil auen balioa. Esku artean dut une ontan aldizkari orren ale bat, ederki azaleztua, Astero ateratzen zan, 15 xentimoz saldurik. Sei orrialde zituen geienetan; berrogei ta amalau aleak 330 orrialde osotzen dituzte. Juanito'k idatzia da dakarren itzaurrea, izenpetu gabe dalarik ere. Au dio: «BERTSOLARIYA» asteroko onen asmoa da bertsorik ederrenak bildu, eta liburu bikaiñ bat egitea...» Txirrita'k eta Zabaleta bi anaiak asko idatzi zuten.

Azkenean urte beteko lanaren aurkibidea dakar, eta bertson bertsolari zaar eta ezezagunez kanpo, oek agertzen zaizkigu: Txirrita, P. M. Otaño, Bilintx, Xenpelar, Iparragirre, J. Zaba-

leta, P. Zabaleta, J. J. Sarasola (Lexo), P. M. Urruzuno, J. I. Uranga, Litargi, Urrutia, P. Erauskin, A. Berridi, Etxezarreta, J. J. Lujanbio (Zaiburu), Abarrategi (Manko), E. Arrese, Sagastume, J. K. Zapirain, Ramon Artola, J. Zubimendi, Lexoti, Enbeita anaiak, M. A. Larraburu, Gurasobide, Elizanburu, Zaldubi, Iturrino, P. Agirre, Zubizarreta, Lizarralde, L. Salaberria, Aita Meagher, Larralde, Mujika, F. Egaña, Gilbeau, Kolome, S. Baroja, Beldarrain, J. Zapirain, Kaiku, E. M. Azkue, B. Iraola, A. Artzak, Altzo'ko Imaz, J. J. Udarregi, F. Kasal, B. Etxegaral, K. Etxegarai, K. S. Irure, F. Arrese Beitia, Xardia, J. B. Etxagarai, Txintxua, Mendaro, J. Migel, Morte, Iruzubi, Alkaln, Urdangarin, J. P. B., Fermin, J. Mendiage, Jautarkol, J. M. Lopetegi, M. Soroa, Iturriaga, M. A. Antia, Manterola, S. Uranga, Rosario Artola, J. Artola. Jakingarri duzu guzti au aro artako bertso-giroaren berri izateko, alegia. Urte bete orretan azaldu zan bakar-bakarrik.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1.164 orr.; A. Zabala, *Auspoa*, 63-64; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 169 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 306 orr.).

45.—LUIS MARIA ARRIZABALAGA (1889-.....)

Donosti'n jalo zan 1889-7-25'an. Aita Jesulaguna. Loiola'n, Burgos'en, Oña'n, Gijon'en eta Manresa'n burutu zituen bere ikasketak. 1924'tik irakasle daukazu Karakas'en; berak sortu zuen antxe ta gaur ere zuzentzen du «A.S.I.A.» aldizkaria.

Antzerkigille duzu batez ere, euskeraz ta erderaz. Ona argitara eman dizkigunok:

1) *Ator eta Jarrai. Jes. Lag. Baraze'ren Zipriano, mixiolari ta aitorle* (Donosti, 1928). Iñaki Deunaren irarkolan. 32 orrialde. Antzerkia, bi atal eta lau zati dituna.

2) *Destellos javerianos* (Donostia, 1958). Escelicer irarko-
lan. 142 orrialde. Loiola'ko Iñaki Deunaren bizitza, 11 kuadro-
tan, Massana, Castellanos, Delgado ta Estevez'en musikarekin.

3) *Xabier Izpiak* (Donostia, 1961). Antonio Massana'ren
eresi-doiñuekin.

4) *Loyola'ko Iñigo* (Caracas, 1967). Atal bat, lau zati ta
itz-ostea duen antzerkia, Iñaki Deunaren Ikastetxeko «Ikasle
zarrak» argitaratuta, Odriozola'tar Luis'en eta Antonio Mas-
sana'ren doiñuekin. 72 orr.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 38 orr.; Auñamendi,
III, 534 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 322 orr.).

46.—JOSE ARISTIMUÑO OLASO (1896-1936)

Gizon kementsu onen bizitza ta lanak aipatu aurretik, bego
emen ark bere egunetan olerkariak batez ere eman zien bultza-
dari buruz J. Zaltegi'k dioskuna. «Oraln arte —dio— euskerak
izan ditun olerkari garalenak eta bikañenak Aitzol'en baranoan
loratu ziran, nonbalt. Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urterarte.
Zazpi urteok, benetan, arrigarriak izan zenitun euskal-olerka-
rien onerako. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango
dirala Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabalt sallkatu
ta izendatu bear-eta, aldi ori «Aitzol'en gizaldia» izendatu de-
zakegu. Aitzol izan bal-genun gUziok eragille ta zirikatzaile, no-
larebait. Ta beraren zalñetako odolez edertu baitzigun guzion
euskaltzaletasuna. Non-nalko elerti-edestietan olerkari ta idaz-
leak sallka bildu oi dira» (*Euzko-Gogoa*, 1950, ilbeltza, 5 orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Gizaseme eragille au Tolosa'n jalo zan
1896-3-18'an, gabeko amarretan, «**Rondilla**» deritzan kalean;
urrengo egunean, Patrizio Orkaiztegi euskaltzale sonatuak eman
zion bataloa Andre Mari elizan. Bere gurasoak: alta, Felix Aris-
timuño, tolosarra, txapelgiña ogibidez, ta ama, Frantziska Olaso,

Billabona'koa. Aitaren ddeko aiton-amonak: Frantzisko Aristimuño, tolosarra, ta Florentina Urkia, Arrasate'ko alaba; ta amaren aldekoak: Bartolome Olaso ta Josefa Antonia Aranburu, biak Billabona'koak.

Mutiko argia zetorren. Len-ikasketak bere errian osotuta gero, eliz karrera egin nai zuela-ta, ortarako bideak ebakitzen asi zan. Komillas'en, beste euskaldun argi askorekin, ikasi zituen Jakintza, Teoloji ta auen inguruko beste gaiak, beti ere agiri edo nota bikaiñak irixten zituelarik. Bertan artu zituen, Santander'ko gotzaiaren eskutik, ordena txikiak, Subdiakonadoa 1921-9-24'an eta ondoren besteak. Bertatik, Gazteiz'ko goterki edo eliz-barrutian daukagu garrantzizko karguekin.

Ardura oietatik ona bat: 1922-9-5'an, orduan Gazteiz'ko gotzala zan Leopoldo Eijo ta Garai'k, Benedito XV ta Pio *XI* Aita Santuen guraria zanez, gure eliz-barrutiko Apalzen Mixio-Batza sortu ta eratu zuen. Mixio Batz orrek bilkura aundi bat antolatu zun urrengo urrillaren 26, 27, 28 ta 29'rako. Mixio-Batz orren buru Yurre'ko seme Anjel Sagarminaga zan, idazkari Gregorio Olalde ta idazkari-ordeko Jose Aristimuño. Mixio-arazoari zirldn eragiteko gal zala-ta, urrengo urtean, au da, 1923-1-15'an, Gazteiz eliz-barrutiko mixio-zabalkunde ta erakundeko Idazkaritzaren buru ta zuzentzaille izendatu zuen Gotzai jaunak. 1924'gnko. bagillaren 4'tik 9'ra Mixio Astea ospatu zan Donostia'n; berau eratzen lan galtza osotu zuen Aristimuño'k; bigarren egunean, ots, 5'ean, arratsaldean, berak euki zuen «Centro Catolico»-ko aretoan itzaldi eder bat ere, gal oneri buruz: «El Secretariado diocesano y las Juntas provinciales y locales de las tres Obras Misionales». Onen ondoren Mixio-Asteak ugaritu ziran Gipuzkoa'n (Segura, Ordizia, Azpeiti, Eibar, Bergara, Tolosa) eta Bizkala'n (Gernika, Areatza...) eta Araba'n. Orrez gaiñera, millaka ta millaka orri zabaldu ziran, euskeraz ta erderaz, errietan, apaizgaien artean eta praille ta mqa-etxeetan. Jose Aristimuño zan guzti au aurrera eraman zuena. Orduantxe sortuak dira apaizgalen arteko *El Eco Misio-*

nal aldizkaria ta *Gure Mixiolaria* (Gazteiz, 1924), Mixio-zabal-kunderako bi-illebeterokoa, gerraldiraiño iraun ziguna: J. Ariz-timuño'k zuzendu zuen lenengotan aldizkingi polit au.

Tolosar jakintsu au etzan Mixio-lanez bakarrik arduratu, dei asko bait zeuzkan barruan irten nalez. 1925'n, Urte Santua zala-ta, berak antolatu zuen euskaldun katolikuentzat, Gazteiz eliz-barrutian bizi ziranentzat batez ere, joan-etorri. eder bat Erroma'ra; ez, ordea, turista bezela erromes garbaidun legez balzik. Bidezkunde ortarako batzordea auek osatzen zuten: Za-karias Martinez Gotzal jauna, buru; batzarkideak: Karlos Lo-rea, Erroman Laspiur, eta Anjel Sagarminaga; idazkari, Jose Ariztimuño. *Gure Mixialaria-Nuestro Misionero'k* edazi zuen berria amabost milla ieki errietan zabalduz.

1929'an, iraillaren 22'tik 29'ra, Mixio Batzar nagusia ospatu zan Barzelona'n; gure goterkiak an egiñiko lana etzan txikia izan; Mateo Muxika'k, Gazteiz'ko gotzalak, eman zion asiera amaika gotzai eta iru bat milla pertsona aurrean zituela. An zan J. Ariztimuño ere, bere gotzaiaren esanetara. Jal aiek aipatzean onela dio Gazteiz'ko Eleiz Boletiañak: «¿Quién podrá referir la labor improba, oscura, tenaz, de meses y meses del señor Ariz-timuño, Secretario Nacional de la Union Misional del Clero?» (*B. Eclesiastico*, 1929, 645 orr.). Aita Bisbal'en ordez, «Los estudios de Misionologfa en las Universidades, Seminarios, Co-legios, etc» lana ere berak irakurri bear izan zuen.

EUSKALTZALE.—Erne ta eragille zebilkgun beti, sasoi one-ko ta itxuraz osasuntsu. Ark zuen gogo bero, bizia! Mixio-za-letasuna piztazi nal zuen bazter guztietan, apalzen artean baitik bat. An-or-emen ordezkariak jartzen zituen, Bilbao'n adibidez Martin Oiartzabal, bere ondoan edo bere ordez lan egin zezan. Barne-sua leia bizitan erabilli arren, baiña, gorputzak ez digu sarri bear bezela erantzuten. Ainbat itzaldi ta mixio-zabalkunde egin bearrak pixkanaka igatu egin zion osasuna. Aski galxo itzur li zan Barzelona'tik, eta lipar batez beintzat utzi egin bear izan zigun bere lan-zelaia. Ogei ta amalru urte zituen bakarrik.

1929'garren urte azkenerantza, beraz, Donostia'n daukagu osasun billa joanda. Bai, bear zuen atsedenaldi polita indar-be-
rrituko ba'zan. Ez izan, alere, lazo ta bandil ta zeregin gabe
egotekoa. Ederto ezagutzen zituen Euskalerriak zeuzkan auziak,
buruko miñak, kezak; gure erriak zer nai zuen eta zer bear
zuen nunbait; ots: kultura nai zuen eta kultura bear zuen. Orri
oratuko zion, ba, kementsu. Ta ortan zebiltzenakin alkarru zan,
Lizardi, Orixe, Urreta, Artetxe, Lopez-Mendizabal...

1926'garren urtetik edo, ortan zebiltzan gizaseme garalok
zerbalt sort-azi nal ziguten. Zer ote? Itxi-samar zegoen indar
bati ateak zabaldu. Eta oraln, besteak beste, erne-min bipillean
zebillen euskal kulturari gagozkiola, or dugu «Euskaltzaleak»,
euskal idazle moltzo batek osatua. Lotsor aurrenik, agertze jo-
rian gero. Motriku'n asi ta Arrasate'raiño, beltz eta argitsu, bi-
dea luzean. Euskal Egunak ospatzen ziran, «gure yolas garbiak
—dantza dala, pelota dala, palanka, bertsolariak, eta abar—
eder agertuz: bertan euskera goratu ta umeal maltaraziz»; Eus-
kal Idazle batza sortu, Euskal Olerriari egoak luzatu, Euskal
Antzertia xuxperrarazi, Euskal Egunkari bat sortu, «Kirikiño»
saria ipiñi. Auek ziran asmoak eta egiñak, 1930'an, «Euskaltza-
leak» bazkuna, urte batzuk aurrerago irasia, eraberritu zute-
nean. Eta berrizatze ortan J. Ariztimuño ta Urreta'tar Mikel
aukeratu zituzten buru ta xuxpertzallletzat.

Donosti'ko «El Dia» sortu zutenean ere, bertan dugu J.
Ariztimuño arnas emalle. Garal ortan etengabe idatzi zuen, beti
euskal galez, «El Dia» ta «Euzkadi» egunerokoetan. Berez zan
asko ikasia ta irakurria, ta zaiñetik eragille zoli suarra, ta baz-
kune —Euskaltzaleak— ernal ta bizkor baten barruan zegoen.
Asmotsua bai zala «Euskaltzaleak» euskal erriari buruzko edo-
zein galri ekiteko! Euskaldun eguneroko bat sortu nai zan;
eta au eziña zan bitartean, esan dugu, euskal egunak ospatuko
ziren, eusko aurren egunak, antzerti ta olerti egunak, bertsolari
egunak. Guzti oietan esku artzen zigun J. Ariztimuño'k, bul-
koz, asmoz eta itzez. Amaika itzaldi eder egin zuen olako egu-
netan! Erriak nola txalotzen zuen aren solas-jarduna!

Bazkune orren inguruan eta 1933'an alkarte orrek sortu zuen «Yakintza»-k ainbat idazle ta olerkari gazte piztazi zizkigun; olerti, antzerti ta eleberri egunak, batez ere, euskal literaturaren pizkunderik aintzagarriena ekarri ziguten, eder ta sendfotosunean foederen, oraindik ere gaintitu gabea noski. Eusko jakintza alde zokatu nal zuen su ta gar aldizkingi berriak. Aurretik ere ortan alegindu ziranak gogora ekarriz, onela idazten du Artezkaritzak: «Gaurko eusko berpizkundean lan-kide izatea: ona beraz YAKINTZA'ren elburua. Baña izenari dagokionez yakintza lanetan besterik ez, «Euskal-Erria» ta «Euskalerriaren Alde»-k egindako pizkunde-lanari jarraituz. Etzaio-te eusko izatearen berloratze au osorik aiei zor. Ez, noski, nabaitzen dan su-garraren indar aundienik ere. Gaurko aurrerapenaren bultzagal eragikorrenak, ezin ukatu ditezken beste batzuek izan dira. Ta ez alderdikeri utsak, bai yakitarauzkoak ere. Aitatzea bidezkotzat daukagu. Gipuzkoar pizkunde-ikara onel-dn bateratsu, indartsu ta zabaldu zan Bizkaya'n Arana'tar Sabin'ek asitakoa. Ta yakintza aldetik bakarrik begiratuta, ezin ukatu onen yarrailleak, gaur asko ta altsuak diralarik, Euskalerr-i osoan zabaldu ta lana mugarik zabalenen artean dagitela» (*Sarrera*, 1933, 8 orr.).

Euskalerriaren gogo-izatasuna dakar gogora bertatik. Gogo izakera ori gero ta geiago aberastu bear da. Euskaldunak ba-dituzte jakintza meta ederrak, baiña gai berriak pillatu bear dira, «eusko ikaskizun mota guzitan ikaslanak eta azterpenak ugaritu ta indartu: orixe da «Yakintza»-ren elburu nagusia. Ortarako «abenda gogoari zuzen ta bereziki dagozkion adimen-agerpenak bakarrik autatzen ditu, bederatzi sail oetan bilbanaturik: 1'go. *Elertia*, 2 g. *Antzertia*, 3 g. *Irazkintza*, 4 g. *Edestia*, 5 g. *Legegintza*, 6 g. *Abendelesti* ta *Erri-yakintza*, 7 g. *Gizartiztia*, 8 g. *Ertia*, ta 9 g. *Eresertia*» (*Loc. cit.*). Lan-asmo bikaiña noski. Lau urtez ontan ere sekulako lana burutu zuen. J. Ariztimuño'k.

Sail auetatik elertia zan beretzat saillik begikoena; erri ertia saiets utzi gabe, egiazki. Gogora bertsolariak: urte gutxi bu-

ruan, nolako indar bizitasuna eman zien erri koplakari aintzagarrion; nekez siñistekoa dugu: Donosti'ko antzokirik zabalenak, bertsolarien saio egunetan, bete-bete egiten ziran, erri zuzperzaille trebe oieri entzuteko beti gertu. Omenaldiak eskeini oi zitzaizkien, Txirrita'ri Errenderi'n, Basarri'ri Zarautz'en, eta oietan zan, utsik egiteke, Ariztimuño eratzaille ta izlari bizkor. Antzerti naiz poxpolin egunetan orobat. Tolosar azkarra zan beti jal oien gogo ta arnas-emalle berebiziko.

EUSKO OLERKIAK.—Baiña eusko olerkarien pizle genduen batez ere. Ark aurrera atera zuen, su ta gar, oietako belaunaldi oba-eziña. J. Zaitegi'k ederto: «Iñolako olerkari-sallla sortu zun Aitzol'ek Eusko-Olerti-Egunen bitartez. Geientsuenak ordurarte olerkari ez-ezagunak izaki, bizkorrenetakoak zirala adierazi ziguten... Aitzol'en gizaldia oraindañoko arorik alntzagarriena izan dala ezin aka dezakegu» (*Euzko-Gogoa*, 1950, ilbeltza, 5-6 orrialde).

Idazlea ez da naikotzen idatziaz; bere sorpenak, dirala diralakoak, irarkietan ikusi nai ditu. Aitzol'ek, etzan zuntzuna ta, ba-zeldn au. Ta zer zegin? Poesi-batzaldi bakoitzean artzen zituen olerkiakin liburu mardul bat osotu; orrela egiñak dira sei iiburu eder, «Eusko Olerldak» izenez. Zazpi olerti egun ospatu ziran, baiña sei txorta dira bakarrik egun oietara bialdu-tako poesiakin osotuak: gerra zala-ta, etzan zazpigarrenik argitararu. Lenengo liburuan datoz, Errenderi'n (1930) Jautarkol'en omenez ospatu zan batzaldira igorriak; Lauaxeta'ren *Maitale Kutuna* garaille. Bigarreanean, Tolosa'n (1931) E. Arrese'ren omenaldira bialdutakoak: Lizardi'ren *Baso-Itzal* garaille. Iru-garreanean, Ernani'n (1932) A. P. Iturriaga'ren ospez egiñiko egunean artu ziranak: Loramendi'ren *Barruntza leyoan* saridun. Laugarreanean, Urretxua'n (1933) Iparragirre'ren aintzaz jaitu zanera bialduak: P. Etxeberria'ren *Bost Lore* zillarrezko aritzadarrez saritua. Bostgarreanean, Zarautz'en (1934) Xabier Lizardi'ren omenez ospaturiko Olerti-egunerako artuak: J. Zaitegi'ren *Tori nire edontzia* txapeldun. Seigarreanean, Bedoña'n

(1935) Loramendi goratuz ospatu zanera bialduak: L. Jauregi'ren *Maite opari* saritua. Zazpigarren Olerti-Eguna Lekeitio'n (1936-6-28) izan zan, Azkue aita-semeen omenez: Iñald Ota-mendi'ren *Giza-adiñak* garaille. Etzan libururik osatu. Aritzadarrez sarituaren lana ezezik, orren inguruko besteen onenak ere liburua aberastutzen zuten. Ale oiek, beraz, guztiz bikaiñak dituzu.

Itzaurrea beti Aitzol'ena da, olerkari sari-irabazlearen irudia goretsiz egiña seguraz ere. Onela zesan lenengoan: «Oraingoan, euskaldunak gure izkera apaindu eta aberastu bearrean gera. Eusko-elertia oparotsuenetakoa ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskalzaleak alaz guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuaz sendotu nal luteke. Ortarako biderik egokiena ordea, olerti galari eragitea zaigu. Goitar indar meea, almen-biotzetan, darabilkiten gazte azkarrak bal ditugu. Gure sorterrian olerkariak, eta ugaritsu, ale mardulak bezela, sortzen ez ba dira, euskera loretsu, kemen-biziz indartua eta euskaldunen ezpalñetan irribar antzera ikusi bearrean, oraindik argal eta beartsu luzaroan aurkituko degu. Olerki oparo ugari-tsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkerarik poesi-neurti-tzik gabe garaitu ta sendotu ez dan bezela». (*Eusko-Olerkiak*, 1930, 4 orr.).

Olerkariak dira, bere iritziz, edozein izkuntza edertu ta bizkor-azten dutenak. Onela darrai: «Ele apain, bigun, biurri, irudiz errez, adiz sakona, idazle lumetatik arin, aizetsu eta leun ixurtzeko euskerari beste biderik ez dagokio. Izkera-langille bearrenekoak, olerkariak dira. Oiek ele gogor eta gordiña, olaetan burni goria meetzen duten eran, bizkortu eta gozotzen dute: oiek irudi biziz, asmaketa zorrotzaz, eta amets-ereduz aberastutzen dute; oiek itz joskera berri-arrigarriak sumatzen dituzte. Idazleak aisago eta errezago ibilli ditezten, olerkariak, erdikaldi nekeak igarota, buru-auste gorriak ikusita, izkeraren bide zabalak idikitzen dituzte» (Loc. cit. 4 orr.).

Eta aritz-adar irabazleari buruz: «Urkiaga jauna, izenordez, Lauaxeta, geienak Errenderi'ko olerti-egunaren bidez ezagutu dute. Ez guk ordea. An eta emen argitaratutako bere neurtitz bigun eta leunak, irakurtzen bai giñuzen, oraln dala bi edo iru urte ezkeroztik. Berez olerkari jalo ba-da, erdereetakoak irakurri ta ikasteakin aurrerapen galantak itsasi zalzka... «Maitale Kutuna», saritutako olerkia, olakoxe deritzaigu. Alako naitasun mee, gozo, atsegin eta aundikia, asmaketan eta irudietan alako batasun egokia, antz eta itxuraz alako aberastasuna, amets-ereduz alako indar bizitasuna; ahapaldi bakoitza pitxia, neurtitz bakoitza dirdiz argikorra.., «Maltale kutuna» dasadanak argaldu bearrean ialotasuna eranzten dio. Besteak erabilli duten gala, Lauaxetak era berrira tajututa dagerkigu eta mami eta azalez egokiago, gañera. Gure olerti pizkunderako, bai zoriona, erdel poesi jatorrekin batera alntzakotzat artu aal izatea, Lauaxetarena bezela» (Loc. cit. 18 orr.).

Ondoren dator ohorezko alpua izan zuenaren goratzarrea. «Mamiz sakona —dio—, oldozkun zorrotz-duna, goi-jaMtez josisia «Jalnkoagan bat» olerkia, ohorezko alpa iritxi duana. Urte batzuetan olerti-mugatik aruntz Ormaetxea jauna egon bazaigu, berriro eta kementsu alare, olerkari bikaiña bezela datorkigu. Olerkiaren muin-azalak berekoiak ager zalzkigu. Sendiko gertaera gai artuaz, noizik bein zerutar Irutasuna, ain egoki altatuaz darabilkiala, bertsoak uzkol jantzi az edo estaliak deritzaizkigu. Ormaetxearen goiargia uberka batetik dijoana ez da noski. Eusko oiturak kutsututako aln olerki politik eta biziak sortu aal ditzakela «Itzal zekena»-k argi erakusten digu. Iturritik ura, errex oso, datorren eran, Orixe'ri ere, bat-batean, olerki alai-jolaslariok, margo biziz edertutakoak datorzkio» (Loc. cit., 20 orrialde).

Amaltzeko, Lizardi, Tapia-Perurena, Loidi, Txomin Jaka-kortajarena, Zugasti, Jauregi, A. M. Labalen... altatzen ditu, bide berri zaleen artean.

Urrengo urtean, bigarren alean noski, Lizardi'ren «Urte giroak» aztertu ta goretsirik, au diosku: «Urte giroak, udaberri eta uda-gaiak batez ere, olerti mamizat aukeratu dituzten poesilariak amaika maitagarrien onurak jaso omen dituzte. Oek sormena emaitu, irudimena zirika, amets-eredu-jantziak eskeñi omen dizkate. Arrotz olertiaren kutsurik, Lizardi'ren neurtitzetan aurki ezin lezakezu, ordea. Barneko iturburutik jaijo zaizkio mami-azalak. Ederrak ba-dira ere, eusko-olerkariarenak dira. Ez irakurritz ikasiak, adi-muñetik sortutakoak baizik. Bertsoak eusko-guna erraiyetan daramate. Euskerari dagokion gisa tajutuak dira. Gaurko olerki au irakurriaz antziñeko poesi bateren-baten oroipena datorkit burura. Alako bertso errikoien doñua edo:

«Iduzki danean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala».

Euskera onela, olerti bidez eraberritzea, antziñeko guna gaurko izkerari txertatzea dala deritzait. Jantziz oraingoa ba dirudi, barnez aspaldikoa izan dedilla. Ala, Lizardi'ren «Urte giroak ene begian» (*Eusko Olerkiak*, 1931, X orr.),

Iruugarren urtean, bi eriotzaren dolu ta eraman-bearra azaltzen digu, Lizardi ta Loramendi il zirala-ta. «Yoan zitzaigun —dio— «Lizardb-Agirre'tar Yoseba Mirena; ta bestek bete eziñeko utsunea utzi zigun Eusko-Elertian olerkari bikain gurenak. Beste bat eraman digu orain berriz Yaungoikoak, bikaiña au ere ta gazterik, munduan Arana'tar Yon, lekaidetzan Bedoña'tar Yokin eta eusko-olerti-saillean «Loramendi izen ederrez ezagun genuen buruñurdun ikaslea.

«Lizardi» zanaren eriotzak euskal poesi-elertientzako zekartzan ondoren beltzak ez al genituen ongi neurtu oraindio, ona orain berriz, andik egun gutxira, gauerdian, dakarkiguten berri samina. Beste lagun aundi bat il, euskal olertiko izar berri bat itzali. Epailaren 24'an, «Lizardi» il eta amabigarren egunean, il Donostia'n, apaiz egiteko egun-egunetan «Loramendi»

gure olerkaria. Bi zorigaitz auek gogoratzean, biak ere gure pizkunderako ez bait-dira galera makalak, «Loramendi»-k bere lagun kutun baten eriotzaz idatzitako neurtitz xamurrak datorzkit burura:

«U intzan, il i ere...! Eraman induten...
Ire itzalak, ordea, ni baitan dik lurmen...
Eta abia bal intzan
laño ta eurite...
Beste alde ortan
ba-al duk aterpe?...»

Bedoña'tarraren eriotzaz ezin etsita, onela darrai: «Euskal pizkunde-bideetan abia ta beste gabe il zaigu; bizitza-arloa berak landu ta zatitu-bearreko lore-baratza zabal bezela begiz yo ta beste gabe. «Loramendi» yarri zion bere buruari olerkariak izena. Nonbait eder-loreak emateko lur gizena nabaltzen barnean; eta izkuntza maltea an bizimin biotz-irudimenen ernaraze» (*Eusko Olerkiak*, 1932, IV orr.).

Laugarren urtean, *Bost Lore* aztertuz, au dio: «Euskalerriak olerti gaietan badu bere eder-kerak, badu bere estetika. Olerkari izan baltzalgo euskelduna: yatorriz bal-datorkio gure sorterriari olerkari izatea. Beraz, olerkari yatorra izanik, eder-zale ez ezik edertasunari soegiten eta edertasuna erakusten ba-lezake. Eder ikuste eta erakuste onek, berekin darama eder-oitura eta ederlegea sortzea. Nor bakoitzak bezela, erri osoaren atsemenak ere bere kerara yasotzen du edertasuna» (*Eusko Olerkiak*, 1933, VIII orr.).

Eta emen, oso ederki, euskal olerti errikoiak bere sabelean daraman edertasuna altatzen digu. Sasi-olerkiak, erdel kutsuak ikutuak barik, eusko gogoari dagokion ederra duten olerkiak nai ditu Aitzol'ek. «Erri olerkiak beste dira. Oiek, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz errikoiak malta izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maiteminduen

antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoiak, eztaiyaiak, ezkonza arazoak, aurren azitzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kanta-gai artu dituanean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu» (Loc. cit., IX orr.).

Gero, euskal olerkiaren irudi-gaiak aitatzten: eusko kutsua duten irudiak, irudi-kerak maite kantetan, eskale-talde kantetan, dantza-kantetan, ogibide-kantetan, zergatik dan ain izadi-zale olerkari errikoia, irudi-oldozkunak alkarrekin duten zer-ikusia, apaldien taiukera, eta azkenez «Bost Lore»-k ditun eusko-irudiak. Lan luze ta bikaiña, euskal estetikari buruz osotua.

IDAZLANAK.—Luma bizkorra zeukan J. Arizrimuño-k. Gorago esan dugunez, «Euzkadi»-n, «El Día»-n eta «Yakintza»-n ez ezik, Iruña'ko «La Voz de Navarra»-n eta Donostia'ko «Argia»-n ere poliki idatzi zigun, euskal asteroko oni indar berezia emanez bere gizarte-lanarekin.

Ona aren lanik beinenak:

1) *Refranes y dichos populares de Tolosa* (Anuario de Eusko Folklore, 1921, I, 58 orr.).

2) *Edurnetxo* (Tolosa, 1921). Ipuia. Euskaltzalndiaren ipui-sariketan irugarren saria jaso zuena (*Euskera*, 1921, 83 orrialde).

3) *Gure Mixiolaria* (Gazteiz, 1924). J. Aristimuño zuzendari. Gerraraiño azaldu zan.

4) «*Eusko Ikaskuntza*» ta «*Euskaltzaleak*» (EID, 1930, XII, 45 zenb., 17 orr.).

5) *Elerti-pizkunde kimatxoak* (Eusko Olerkiak, 1930); *Urte giroak olerti-kimak dakarzkite...* (1931); *Arana'tar Yon*, «*Bedoña'tar Yokin*», «*Loramendi*» oierkaria (1932); *Eusko elerti-kerak berezia (este'tika)*, 1933; eta gaiñerakoak.

6) *Itzaurreak: Eusko Olerkia* (Donostia, 1930-33); E. Urkiaga'ren *Poesias Vascas* (Donostia, 1930); Esteban Urkiaga'ren *Bide Barriak* (Bilbao, 1931); A. P. Iturriaga'ren *Ipuiak* (Tolosa, 1932); J. M. Agirre'ren *Umezurtz olerkiak* (Donostia, 1934); Mateo Zabala'ren *Eusko-Alegiak* (Donostia, 1934).

7) *Triptico euskeralogico. La muerte del euskera o los profetas de mal agüero: a) Miguel Unamuno; b) Pio Baroja, ta d) Ricardo Baroja* (Donostia, 1931). Leizaola'ren irarkolan. 96 orrialde.

8) *Yakintza* (1933-36). Lan auek atera zituen: *El primer renacentista y poeta euskeldun* (1933, I, 12 orr.), *El poeta Jose Maria de Aguirre, «Lizardi»* (1933, I, 163 orr.); *El poeta Juan de Arana, Bedoña'tar Jokin, «Loramendi»* (1933, I, 243 orr.); *Lucha de idiomas en Euzkadi. Ataques y defensas espirituales* (1934, II, 353 ta 431 orr. ta 1935, III, 33 ta 114 orr.); *Eusko olerti-kerak berezia (estetika)* (1934, II, 2443 orr.); *El folklore en el arte. La pintura y la poesia popular vasca* (1934, II, 469 orrialde).

9) *Las Juntas de Guernica en 1601* (Libro de Oro, 1934); eta *El porvenir del euskera* (Libro de Oro, 1934).

10) *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* (Donostia, 1935).

11) *La muerte de la independencia en la Euzkadi continental* (Nacion Vasca, 1938).

12) *La democracia en Euzkadi* (Donostia, 1935). 371 orrialde. Bigarren irarpena, Buenos Aires, 1942, «Ekin». Ameriketako «Democracia y Catolicismo» aldizkariak ere liburu mardul onen zati batzuk argitaratu zituen (1943, IV, 132 orr.). J.J. Urkina'z izenpetzen du.

Beste aldetik izlari trebea zan. Eta 1931'an, Errepublikak etorri zitzaizkion, arriskuz gainezka lenda bizi beintzat, bai politikaz bai gizartez nala erlijio aldeztu galtzori ta okerbideai arpegi eman bearra zegoela-ta, J. Ariztimuño'k, Alberto Onaindia markiniarra ta Polikarpo Barrena zarautzara lagun zituela, irakastegi edo tribuna bat jarri zuen Donosti'ko Iztunde Irakastolako aretoan, orduko komunista ta anarkista, agiriko eztabaida ta itz-burruka latzean, Elizak erakusten duen Kristoren Berri Ona zer dan ta nundik doan irakasteko, alegia. Bizkal al-

dean, Barakaldo ta Sestao'n batez ere, iru apaiz kementsu oiek euki zituzten itzaldi ta alkar izketak, oraindik ere gogotan ditugunak izan ziran.

• * *

Gutxi bezelako gizon au, 1936'gnko guda sortzean, deslai ibillia dugu, zoritxarpean noski. Lenen igesi joan zan mugaz arantza, Beloke'ko Aita Beneditarren artean aterpea aurkiturik. Gero, iges arekin damututa bezela, berriz dator Bilbo'rantza, «Galerna» itxasontzian. Bidean atzeman zuten, eta 1936-9-17'an, Ernani'n, tiroz illa izan zan. Berrogei urte zeuzkan.

(Ikus *Batasuna* (Txile), 1941, 10 orr.; *Euzkadi* (Txile), 1944, 4 orr.; T. Monzon, *Gudarien egiñak*, (Lapurdi), 1947, 71 orr.; J. Zaitegi, *Euzko-Gogoa*, 1950, I, 5-7 orr.; J. Iturralde, *El catolicismo y la cruzada...* 385 orr.; Añarnendi, *Literatura*, III, 173 orr., eta *Diccionario*, An-Artazu, 432 orr.; A. M. Iruxo, *Bol. Amer. E. V.*, 1969, 143 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 277 orr.

47.—JOSE MARKIEGI OLAZABAL (1895-1936)

Orixe'k au: «Tiroz yo zituten Arrasate'ko iru apaiz lagun aiek, ncrk ez ditu gogoan? Iruren artean bi ziran euskera txukuntze lanean ziardutenak: Guridi ta Marldegi. Gipuzkera osotu naieko Batz-ordean zeuden Azkue'rekin eta Ormaetxearekin. Guridi'k euskera landurik zeukan mintzatzeko, errian bere lanbidea ongi betez. Ez zun ordea, nik dakid'ala, zenbalt eskutitz besterik utzi. Ausaz gezur-izenez emanak bal zitaketen zenbalt artikulu. Markiegi oso poliki ari zitzalgun, baña bizi-arorik oberean galdu genun» (*Euzko-Gogoa*, 1950, 9-10, 9 orr.),

Deba'n jaloa zan. Urtzi-deiaren abotsez oarturik, eliz-karreira besarkatu zigun, apalz ikasketak osaturik. Meza berri eman ostean, Aprikano'ra jo zuen 1923'an eta gero Arrasate'ra goztlalaren aginduz, eta ementxe egin zigun arima zaintza. Oiarztzun'en il zuten, bere artzipreste Arin ta beste batzukin batera, 1936-10-15'an.

EUSKAL LANA.—Ederki zekin euskeraz, ta eder zitzaion lumari eragitea. Donostia'ko «Argia» asterokoan eta «Yakintza»-n idatzi zigun. Ona debatar idazle leun onen lanik oberenak:

1) *Mixio Esku-liburutxo*a (Gazteiz, 1931). 118 orrialde. Gazteiz'ko «Sociedad Católica» etxeak aterea. Zertarako da liburuxka au? Ona egilleak: «Elizara zoazenean eliz-liburua Idn...; iñoren etxerakoan zisku-ondoan...; Siñismen-Zabal-kuntz-Bazkideenganako illeroko agiriakin...; naiz mixioen alde otoitz egiteko, naiz mixiozale berri bat irabazteko...; au da, beti aldean erabiltzeko egiña dezu begien aurrean daukazun Mixio Esku-liburutxo au». Iru zati dauzka idaztiak: a) Mixiolanbidea (23 orr.); b) Mixio-otoitzak (27-75 orr.), ta d) Par-kamendun otoitzak (81-109 orr.). Euskera goxo leunean.

2) *San Luis'en Bizitza* (Durango, 1932). Jose Maria Dolara Elosu'renean. 90 orrialde. Jesus'en Lagundiko Herrera-Oria Aitak «Mensajero»-n erderaz atera zuenetik antolatua. Luistar euskaldunari opatzen dio: «Emen San Luis'en bizitza; Jainkobide-asmoetan zure zaindaria bezela burua ilduratuz aritza bezin sendo, lilia bezin garbi izango al zera», esanik. Errez ta errikoi atera zitzaion au ere, euskal esaera gardenez jantzia.

3) *Txerren-zubi'ho gertaria* (Yakintza, 1935, 15'garren zenbalda, 177 orr.). Henri Gehon'en «La Parade du Pont du Diable» duzu prantsesetik itzulia, Lauaxeta'k onela: «*Txerren-zubi'ko Gertaria*» zer dan? Santuen garaian jasotzen ziranak gaur, be, jazoko ba'lira, Aita Kado'ren ipuña ulertuko zeunke. Kaxtrexana'ko zubia nortzuk egin eben ez al dakizu? Neguko gau luzeetan entzun izango zenduan, ba, zeren trukez egin zan zubia. Txerren edo demoniño prakagorriak egin eben, baña kontratistiaren arima-ordez. Henri Gehon jaunaren komeditxu onetan, be, olako zeozer ikusi deikegu. Aita Kado lekaide gaisoak galdu-agiñean itxi ebazan Marturin arrantzalea ta onen daba. Eskerrak katutxu zurrari! Txerrenak zubia egin-ordukoxe Mixiña edo katutxua zubi-zear igaro zan. Aren arima prakagorrientzat!»

4) *Eriotz-bide* (Antzerti, 1935). P. Humpert'en «Todes Heg» euskeraztuta. Jarraiko itzulpen bi auek oso antzetsuki egiñak daude.

5) Berea du azkenez Lizardi zanaren lan mordo batekin osoturik «Itz-lauz» izenburuz eman zigun bildumak dakarren itzaurrea ere (*Itz-lauz*, Donostia, 1934, 7 orr.).

IDAZLE ONA.—Bai, orixe! Lantxo bat idatzi zuen Orixe'k Markiegi'k osatu zituen liburuak aztertuz. Lizardi'ren «Itz-iauz» liburuari ipiñi zion sarrera aipatuaz, onela dio: «Lizardi'ren yario geitxo arkitzen diot, bañan yario ori ez da urruña-tzekoa. Lizardi'k itz askatuz egin zitun artikulu aiek ez al dute igeri egingo 50 urte auetan itsasoan pulunpatu diranen gaiñetik? Bai. Artikulu oiek nik erderara biurtu ba'neza, euskerara al lezazke gure oraingo idazlerik oberenak ark bezain ederki? Bal zera! Ez dago bildurrik. Markiegi yauna ez zan batere motelago euskera yakite ortan. Bi gizon auen izenak elkarrekin aipatu bearrak ditezke gure ele ederraren berri ematean» (*Euzko-Gogoa*, 1950, 9-10, 9 orr.).

(Ikus N. Ormaetxea, *E.-G.*, 1950, 9-10, 9 orr.; Txomin Jakakona-jarena, *Euzko-Gogoa*, 1955, VI, 84 orr.; G. Garriga, *Inst. Bibliografía Vasca*, 1966, 66 zenk., 141 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 173 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 183 orr.).

48.—JOSE MARIA BIZENTE AGIRRE EGAÑA (1896-1933)

«Lizardi», «Xabier Lizardi», «Zarauz'tar Sabin» eta «Samaiko-Zulo», «Mendi-Lauta» euskal literaturan. «Aitzol'en gizardian sortu dan euskel-olerkari ta idazle bikañenatarikoa duzu Lizardi —dio Zaitegi'k—. Egia esan, Lizardi'ren bizitzaldia laburra izan zan... Ilbeltzeko egun laburra iduri aren bizitzaldiak; alare, dagonilleko uztaroa bezin betea zitu ederrez».

Gure elertiaren aurrerapidean euskal idazle batzuk, mugarri bezela, aukeratu bear ba'genitu —dio J. Ariztimuño'k—, ondorengo iru auek lirake onenak: Etxepare'tar Bernardo, Arana-Goiri'tar Sabin eta Lizardi'tar Xabier... Izen oetatik bakoitzak, Etxepare, Arana, Lizardi, aro baten asiera markatzen dute euskal literaturan: saio ta leia aroa dugu noski Etxepare'rena; eusko letren egiazko berpizte aroa, Arana-Goiri'rena; eta Abando'ko abertzalearen ikasle ta jarraille dan Lizardi'ri zor diogu azkenez gaur nabaritzen dugun loratze arrigarria. Lizardi'k berak adierazten digu au «Gure mintzoa» deritzan olerki ederean:

«Il zaarki, bizi dugun gizona!
Egunoro berpiz lurpean dagona!
Bezat onets aren izena,
aberriz ta mintzoz gu yantziarena».

BIZITZ-ORRIAK.—Zarautz'en jaio zan Lizardi, 1896-4-18'an Azara kalean; biaramonean bataiatu zuen Juan Migel Orkologak' Santa Maria elizan. Bere gursoak: aita, Frantzisko Maria Eleuterio, Zarautz'eko semea, ta ama, Emili Nizeta Juliana Kasilda Egaña, Donosti'ko alabea. Aitaren aldeko aitona-amonak: Erroke Agirre, Aia'koa, ta Maria Salome Goikoetxea, Zarautz'eko; amaren aldekoak: Frantzisko Egaña ta Klementina Balaunzaran, biok zarautzarrak. Bataioko aita-amabitiak: Jose Antonio Amilibia, zarautzarra, ta Bizenta Labaka, donostiarra.

Zarautz'en eta Tolosa'n —ara bait zan aldatu bere familia, 1906'an— osatu zizldun bere lenengo ta bigarren maillako ikaskizunak. Batxiller amaitu zuenean, azke bezela, egin zuen baita lege-karrera Madrid'eko Ikasguan, 1917'an amaiturik. Bitartean, azkar bezin langille bait zebillen, Tolosa'ko «Perot» Metal-Eun fabrikako arduradun bezela lan zegigun. Eredugarri izan zan aren gaztaroa, Tolosa'n eta inguruetan; zurra ta biotz-onekoa zalako, ikasle lez eta gero, adiskide ta lagunak

errez beraganatzen zituen. Beste aldetik, katoliku bezela zeatz eta meatz bete oi zizkigun bere kristau egikizunak: siñiste be-
tez bait genduan Jainko-zale.

Begoña'ko eliza nagusian ezkondu zan, 1923-2-2'an, Fran-
tziska Eizagirre'rekin. Ama ta senar-emazte, pozik bizi ziran
Tolosa'n beren seme-alabak azteko lanari ekiñik, jakiña. Garai
ontan, amar urtetan, jan bear zuten ogia irabaztea utzi gabe,
euskaltasunari ere berea ematen salatu zitzaigun. Nolako yora-
nez ibilli zitzaigun aurrak batez ere euskaltzaletuten! Itzaldi,
antzerkid, euskal egun, bertsolari, olerki jar amaikatxo joan-eto-
rri izan zituen! Eta, euskera sakon ikasirik, aren idatzi bearra,
itz-lauz ta bertsoz, gure izkuntza «aundiki-soiñekoz yantzi-bea-
rrezko leiaketa gorrian».

Eta azkenik, 37 urte bete gabe, Tolosa'n il zan gure Li-
zardi, 1933-3-12'an, igande arratsaldeko iru t'erdietan, «Otoitz
egin, zerura nadin», esaten zuen pitintxo bat leenago; eta bere
umeal: «Ene kutunoik, agur, on-onak izan», pa goxo ostean,
bedeinkatzen zituela. Berak kanta zuen Egun aundirako bidea
artu zigun gure olerkaririk oberenak.

Eorzketa eguna etzan urria izan, jendez ta elizkizunez. Eus-
kalerriko aldizkari ta egunerokoak —Bilbao'ko «Euzkadi» ta
«La Gaceta del Norte», Donosti'ko «El Pueblo Vasco» ta «El
Dia» ta Iruña'ko «La Voz de Navarra»— saminki adierazo
zuten Lizardi'ren ilberria; balta onek eginda utzi zigun lana
goretsi ta txalotu ere. «Zeruko Argia»-k onela: «Lizardi, bere
idazld argi, sakon, erne ta euskalzaletasuna gañez zorionaz eza-
gutu genun lenengoz. Bere luma legun, zorrotz eta esakorraz
maitagari egin zitzaigun. Baño Donostian euskeraz eta erderaz
itz-egiten entzun genion batean askoz ere geiago bereganatu
genitun. Ain zuurra zan bere esanetan! Ain apala bere adieraz-
penetan! Ain argia bere gogorapenetan! «Euskaltzaleak» beren
izena egun artantxe artzen zuten. Eta oker ez banago, Agirre'tar
Jose Mari jauna beren burutzat. Etzen uts aundia izan! Ger-
taera onek urte gutxi ditu, baño andik onuntza «Euskaltzaleak»

on ederrik egin dute Euskal-Errian! Eta Lizardi maltea ezta azkena izan lanbide ortan. Amaika biotz berotu ditu; amalka gogo zuzendu ere bal; amalka gaztek ari zor izango diote beren aberriaren ezaguera ta maitetasuna... Euskaldun guziok olerkari oni zenbat zor diogun nork igarri? Euskal olerkiak onen bidez ez al ditu bere ega-bide guziak urratu ta artarako bilduritasun guzia galdu?» (Z. A., 1933, orrilla, 173 zenbakian, azaleko orri orian).

EUSKALTZALE.—Gizona, pixkaka ta baratxe ornitu oi da zaiñez ta jakitez. Edozein galtan, alare. Lizardi etzan agotik sudurrera euskaltzaletu, ezta euskal idazle itsumustuan gertatu ere: mintzatu ta irakurriaz biurtu zan euskaltzale, ta ikasi ta idatziaz euskal idazle. Auxe duzu normairen aurrerabidea, Opa duguna, ekiñaren ekiñez lortzen.

Batxillera amaitu zunean, ia umetan zekien euskera gabe aurkitzen zan. Berriki ikasi bearrea zuen, beraz. Eta ortan asi zitzalgun lege-karrera astean, eta, gogo errime baten jabe baitzan, errotik aztertu ta ikasi zuen bere aberri izkuntza. Berak dioskunez, gaiñera, aur zalarik oartu zuen barruan kantanaia; ta ortarako giza-mintzoa menderatu bear, naltaez. Kanta-irrika orri lasaltasuna emateko, zein izkuntzaz ari? Erderaz ederki zekien, eta Lizardi arriskutan egona dugu. Zeiñi oratu? Baiña ez. Azkatu zan tentaldi ortatik. Nalz-eta nekeak neke izardia aterazi, ark bere asaben izkera ikasiko zuen. Eta urteak joan urteak etorri, lirika sallean beintzat, Euskalerriak izan duen poetarik bikaiñena izango zaigu.

Legeak ikasi-ala, idazteari ere ekingo dio; ingurrazti edo kuadernu bat dauka bertsoz ta itz-lauz betetzeko; euskeraz ta erderaz ari lenengotan, gero euskeraz soilki. 1916-3-30'an asi zuen len-ingurraztia, ta olerkitxoz, oarrez, izkirimiri ta antzezkoz betea utzi zuen; auetatik batzuk «Euzko-Deya»-n, Bilbao'ko Euzko Gastedijaren aldizkarian atera zituen; marrazki politakin batera, lenengo poesi-zituak, noski. Garai artako lanik etzuen artu geroago osatu zigun «Biotz-begietan» bilduma ede-

rrerako. 1917-5-18'an asi zuen bigarren kuadernua, «Naste-Borraste» zeritzana. Bertan idazten duen guztia, Aitzol'ek dioenez, euskeraz da. Ez daaka dibujurik ere. Olerkiak eta itz lauuko lanak dauzka bakarrik; illabete batzuetako egiñal betea, edo bear bada urte batzuetako lan eraman aundikoa. Orrela egin zan, gutxi-gutxika, idazle gaillena. Ez norbaltek uste izan due-nez beingoz eta brastakoan.

Une ta ergai larriak izan ditu —nola ez?— gure euskerak, eta mende onen barruan ain zuzen ere: Primo de Rivera'ren agintaripean bat beintzat, oso latz zakarra, andik amabost bat urtera ikusi genuna gogotan artu gabe. Gorantza zijoan euskaldun pizkunde aintzagarria, ez bat ez bi, aberekiro atzerazia izan zan. Alare, 1926'garren urterantza, Gipuzkoa'n lenengo ta Bizkaia'n gero, ixuri samar gaur eta gorputz egiña biar, gure izkuntzari indar emateko euskaltzale jatorrak jaiki ziran. Jaiak antolatu bear ziran, jendea sustatzeko. 1926'an ospatu zan ola-ko lendabizikoa, Elgoibar'en; urrengo urtean Motriku'n. Balta urte artan bertan Arrasate'n ere «Euskal Eguna»: antxe sortu zan «Euskaltzaleak» bazkuna, ondorengo urteetan alnbat lan egin zuena euskeraren onerako.

Bi xede zituen Lizardi'k garal ontan: irakurri ta idatziz bere burua gero ta geiago jantzi ta landu, ortarako eder zitzaion Axular eta Etxepare batez ere irakurri ta auetan aurkitzen zituen itz bereizi, esaldi txanbelin eta euskal joskera politik arkatzaz jasotea; eta bigarren berak zegiana enparauak ere egitea nai zuen, eta ortarako or-emengo aldizkari ta egunerokoetan euskeraz ta erderaz aspertu barik idazten zigun, ari ta oni ere, berdin egin zedin, zirikatu ta oiñarria emanik. Ordukoak ditu bere olerki ta itz-lauzko lanik bikalñenak. Aitzol'ek dioskunez, larogeta amarreraiño dira orduan idatzitako artikuluak, prentsari, olerkiari, irakastolari, antzerkiari ta aur-eragiari buruzkoak.

Eskutitz mordo aundiak ditu, berak idatzi ta artuak, ia denak euskeraz. Orduan sortutakoak dira «Euskal Egunak», «Oler-ti-Egunak», «Euskaldun Ume Egunak», «Bertsolari Egunak»,

«Kirikiño Saria» ta olakoak, euskera piztu ta edatu nalrik. Ordukoa duzu Lizardi'ren beste asmo eder bat ere: Euskal Egunkaria opa zuen, eta alnbat lan osatu zigun asmo ori aurrera eramatearren. Nolako lanak idatzi zizkigun! Gaur ere darabiltzagun ametsak ziran.

Gal oneri dagoldonez zer pentsatzen zuen jakingarri zalgu guri ere. «Iñola ateratzekotan —zioan berak— egunkaria, askoen dkar-artze ta laguntzaz bear bide da, nik uste. Egunkari ON bat —eta bearrezko dezu ona, erderazkoak bezin on; bestela, zeren indarrez edatu?—; egunkari on bat, bada, ateratzeko, zillar-pilla larria bearako litzake. Zenbat?... Orra, nere ustez, lendabizi egin-bearra. Beste egunkarietatik, bear bezela ta zeatz, xetasun oro ikasi: zenbat diru bear egunkaria irasteko, zenbat eusteko; zurki yota zenbat emate'ad -luken, saltzez bal iragarki-bidez. Ori eginda, diru-biltzea letorke. Atera ditzagun, adibidez, euna laurlekoko akzioak. Artu nai orok len-agiri bat izendu bezate, onenbeste-ainbeste eman-agindua sendotzen dutelarik. Onela beintzat ikasiko gendake zer itxaron genezaken, zenbatera eldu gintezken, jendea bero-bera da otz d dagon eginMzun aundi ari bizkarra erasteko» (*Itz-lauz*, 1934, 73 orr.).

Asmo ta lan guztiok zirra tarteko, izen aundia ardietsi zuen Euskderri osoan, abertzdeen artean baltik bat. Eta eusko dderdia, ekaitz ostein zerbalt eratu zanean, Gipuzkoa Buru Batzarreko idazkari izendatu zuten; ala ere, beti alderdikoa zan arren, politika ekintza etzitzalon aln gogoko, ta euskd arloari buru-belarri lotua zebillen iñoiz ere aspertzake.

OLERKARI.—Olerkari bete-betea duzu Lizardi; nalz eta olako batek, aurtemin, bestela salatua izan, oraindik etzalgu iñor ere zarauztar au eldu zan goi-mallara iritxi. Umetatik zekarren oler-miña ozka bizian. Eta auxe landu zuen gogotik aziaz eta gizonduaz ziolarik ere. Malte zuen atzaparpe ikusten zuen Euskalerra; atzapar oiek puskatu bear ziran, aberriari lokarriak kendu. Nola? Barne zekarren oler-miñaren giltzari eragiñez. Olerkari izango zan bera.

Zuur dasagu berak: «Olerkaria deritzan gizatzoro ori gabe-tanik, ezta ezagun izan ez erri-pizkunderik, ezta erri-erti-bete-tasunik. Aberrialdeko gogo gudari-sallletan olerkaria beti da leen-oñean. Ta beroni zor zalzka, gogo lurgoien irriek gora-beera, gudate orietarik gurenda ozenenak. Batez ere, eleen apalntze ta gaizkakundeari buruz, olerkariari ez bezakio iñork ken oro-aal bezelako bat... Olermin aundi eder batek bai garabil euskozale oro: aberri berriaren olerki giarra egin dezagun: idaz dezagun guziok neurtitz bana, bederik! (*Itz-lauz*, 1934, 37 orr.).

Nor dugu olerkari? Kanpoko ta barneko ederra sotil adierazten dakiguna. Mami ta azal, sotil da egiazko olerkia. Biotz ta adiñez sortu naiz dardarazten galtuen ederra, beraz, jaso ta antzetsu agertzen jakin bear du olerkariak. Abesmiñetan zebilkigun Lizardi. Ta nola adierazi jantzi bikalñez barnean zuen eder-irakin ori? Asaben izkuntza ortarako gal egiñez: ortan salatako zalgu. Berberak ederki «Gure mintzoa» deritzan olerkian:

«Nerekin yayo nun abesmiña,
ta aurtandik min ori dut izan samiña...
Kanta nal, nal alper; mintzoa
peitu, miñak bear eztigai gozoa!»

Eta, ari ta ari, peitzen zitzalon mintzoaz jabetu zan, osoan jabetu ere. Norbaitek —Arana-Goiri'k— esan zion giltzapetu bat zuela bere izatearen barnean, leotz gorrian. Eta:

«Ordun, yetxi nazu lezera;
nork gere muñean dugun itzalera».

Bal, guri argia eman nairik itzali zana eskutik zuela, barnera jetxi zan, eta leotzean, illik bezela, gizalaba bat idoro zuen odollik gabe. Balña:

«Ezpañak dardar, lepo-zañak ler
bearrean, muinki dut estu nere eder
besoetan, ta atsa yaurtiki:
ta ura bai, egin zan aoan abesti!»

Gizalaba eder ari itsatsia, Lizardi'k itxaso urdin zear dagi bere itzulia, eta aapaldiak elkarren ondotik jalkiaz, uso zuri lez itzultzen zitazkion. Onela berak:

«Itzuli zetozen aapaldiak;
itzuli zetozen nere uso txuriak
Aberriarentzat damesgun
legor gizenetik, yal-ostoa lagun...»

Onelaxe egin zitazgun Lizardi, aberria ta onen izkuntza kantatuz batez ere, Euskalerriko poeta lirikurik bikalñena.

Aitzol'ek au: «Lizardi etzaigu izan ugarikor ez naro, urri ta neurtuna baizik. Zorrotz bere buruakin, bere elertizko ekiñaren ikurburu bezela zeukan egiten zituen lanetan osotasuna billatzea. Bere bertsoen azal eta izkeran oso arduratsua zan, eta adierazi nal zituen gogaientzat, leiatsuki, alegindu oi zan sorpen berri ta jatorrak billatzen. Egundo ere etzitun arriskuan laga ez azalaren osotasuna, ez gogaiaeren berrikitasuna, olerki asko ta ugari egitearren. Nalago izan zuen, beti, autatua izatea. Irizpide onekin aukeratu zituen bere liburuxka txit eder «Biotz-Begietan» agertuko ziran olerldak. Ogetabat sartu zikkizun bakar-bakarrik. Ala ere, arreata aundiz ibilli zan bere erti-bizitzaren lotura ta uztaipide ziran amazazpi urtean ondutako oberenak aukeratzen. Bere olerkiak dira, ximenki autatuak» (*Yakintza*, 1933, 168 orr.).

Esan dugunez, etzan Lizardi gabetik goizera idazle bilakatu, arian arian baizik. Bere bertso-bilduma txanbeliña osatzeko aukeratu zituenetik atera dezakegu ori. «Euskaltzaleak» bazkunak, 1930'garren urtean, Euskal Olerti jalak sortu zituen; «Biozka-

dak» olerki libur.ua argitara zuen Jauregi'tar Koldobikalren omenez Errenderi'n ospatu zan lenengoa. Iru olerki —«Agur», «Otartxo utsa» ta «Paris'ko txolarre» aurkeztu zizkigun Lizardi'k; baita Orixe'k ere bere «Yainkoagan bat» eta «Itzai zeke-na». Lauaxeta'ren «Maitale kutuna»-k eraman zuen len-saria, zillarrezko abarra.

Lizardi'k etzuen saririk izan, baiña etengabe lanari ekin zion; eta urrengo urterako ba-zuen itxaropenik. 1931'an, Tolosa'n Olerti-Eguna Arrese'tar Emeterio'ri omenaldi bikaiña eskeiñirik. «Urte-giroak ene begian» aurkeztu zigun Lizardi'k, eta onexek ain zuzen ere irabazi zuen len-saria. Lan onexek egin zuen Lizardi eusko-olerkarien olerkari gaillen; orduan iritxi zuen koroia —txapela— ez dio oindio iñortxok ere erauzi: berea du berrogei ta lau urteotan.

Urrengo urtean, ots, 1932'an, «Biotz-Begietan» eman zigun, bere bizitzan liburu bezela ekarri zigun bakarra. Ondoren, poema bat —«Maite»— idatzi gogo zuen; baita kantu batzuk erdizka bukatu ere, «Agur», «Gazte'ren esnatzea» ta abar. Alarre, guk asmatzen eta Jaiakoak erabagitzen.

IDAZLANAK.—Bai, Lizardi, lanean asi-berri zala eraman zigun Jaunak. Asi-berritako lanok, orraitio, igali umotuak izan. Eta gaur pitxi bikain bezela zaindu, irakurri ta maite ditugu. Ikus laburki zerrenda au:

1) *Biotz-begietan* (Bilbao, 1932). Olerkiak, poesias vascas, con traduccion castellana. E. Verdes-Atxirika'ren etxean. 167 orrialde. Bere emazteari opatu zion liburua: «Maite: bion aur, il ta bizien, oroiz». Orixe'k egin zion itzaurrea, bertan datozen 21 olerkiak banan-banan aztertuz. Liburu oneri orain arte egin zaion kritikarik ederrena da-ta, bego emen osoan, olerkiena beintzat; onela diote berak olerki bakoitzari ezarritako oarkizunak:

«*Yaun errukiorra*.—Erderatik itzulia, dio berak. Gogai ederra du erderazko amalauko onek, baiña euskal-belarriendako gogor-antxa dirudit.

»*Oia*.—Yatorra, gauzak berak dakarrena. Egi-zirrara sartzen du barnean.

»*Mendi-gaña*.—Aski polita. Olerkari on batek bere dunik uka ez lezaken adiñakoa; baiña liburu onek olerki aulik ba lu, nere ustez aulena.

»*Zeru-azpia*.—Xoragarria. Prantzesetik mamia dun arren, euskal-axal goxoa du.

»*Aldakeri*.—Idurimen yostanaia ta adimen zailua du egi-lleak. Olerki au bulkoz yoria ta gizon oartuarena da.

»*Xabiartxo'ren eriotza*.—Bikain bikaiña. Aita siñiste berodunak, semetxo yaloberria garai artan il zalolarik», egiñikoa.

»*Neskatx urdin-yantzia*.—Goxoa, errexa, ugaria, zailua, lais-terra.

»*Bultzi-leiotik*.—Zirrara ematen du egiaren egiz. Galari dagokion bezaini zailua ta lalsterra da.

»*Paris'ko txolarrea*.—Oartua ta zirrarakorra ageri zaigu ontan ere. Izkuntza mendean du, euskeraz iñork ba du. Ederraren susmo bizi bizia du.

»*Otartxo utsa*.—Selgas'en *La cuna vacia* gogora dakar idazpuru cnek, baiña ez olerldak. Meaxka da, ez ordea belaxka. Beti dugu gizakia ta beti euskotar gure Lizardi.

»*Agur!*—Buruzkoegia dirudit. Ba ditu olako beste zenbalt ere. Biotzaldiari noizpenka indarra ken lezaio.

»*Bio.tzean min dut*.—Bere aldikoa da. Emen agertzen ditu doairik garalenak batean.

»*Zuaitz etzana*.—Bikaina, oartze aundikoa. Zugatzaren bizi-tza yator yalkia dago. Au egin duna ez ote litzake antzerkigille ere? Bizitzaren eta giza-biotzaren ziskuak ezagunak edo ditu.

»*Urte-giroak*: I. *Bizia lo*.—Ugaria, oartzez yauntzia, berekia, egitsua. Ni bezelako baso-semeari ere ozki eragiten dio. II. *Sagar lore*.—Aurrekoaren kidekoa, iduripenez aberatsa. III. *Baso itzal*.—Lenaren antzekoa. Tolosa'ko Olerti yaiean sariztatua. Lau urtaroeri dagozkion olerki oetan, gizon umoa ta ago-

xuria agertzen da Lizardi. IV. *Ondar gorri*.—Ausaz, oberena. Lau urtaroen zitua berekin du». Azken zatiagatik au dio: «Arri-garria da zati au. Nik ezagutzen dudan lirikurik aundienaren zatirik ederrenari batere ez dio zorrik».

»*Eusko-bidaztiarena*.—Izkuntza pinpirina, aundikitarra, zarpazu esan dioten andere aberats batek aterako luken yantziz yantzia.

»*Asaba zaarren baratza*.—Ugari guzizkoa, besteak bezela.

»*Izotz ondoko Iguzki* ta *Gure mintzo* azken-orduan egiñak ditu. Landuak noski, ez orde bear bezain legunduak. Itz berri ta aditz-yoku berri zenbaltek olerti-guriña kendu egiten diote... Erabat esateko: bulkoz, iduripenez, biotzondo, agoxuriz, izkuntzaz, oso guzizkoa dugu Lizardi. Euskera zar ezagunbageak dun muña atereaz, lirikarako aukerakoena dda garbi adierazi digu. Ainbeste esangai, ainbeste itz doi erabiltzen ditu; kirioz ta odolez yantzia da; euskera erpiñeraiño landu digu. Gurean orainarte ez du izan kiderik, nekez duke garaitzailerik».

2) *Itz-lauz* (Donostia, 1934). «Euskaltzaleak» bazkunak aterata. 171 orrialde. Joseba Markiegi apaizaren itzaurrea. Or-emen argitaratu artikuluz eta mintzatu itzaldiz osoturiko bildur ma atsegiña. Olerkizko liburuan datozen «Oia», «Xabierto'ren eriotza», «Otartxo utsa», «Biotzean min dut», «Urte-giroak ene begian», «Gure mintzo» ta abar zoragarriak baldin ba'dira, itz-lauzko ontan dauzkagun «Etxe-barne bizia», «Erdi-bearra», «Olermen-irakite», «Euskera aundiki-soñekoz» ta abar ez dituzu gutxiago. Idazti bikaiña duzu Bilbao'ko «Euzkadi»-n «El Dia»-n, eta olakoetan atera zituen lanakin osatua.

3) *Umezurtz Olerkiak* (Donostia, 1934). «Euskaltzaleak» argitaratua. Itzaurrea, J. Aitzol'ek. 58 orrialde. Azken orduko olerkiz ornitua.

4) *Kixote'ren Bederatzigarren atalkia* (RIEV, 1919, XX, 207 orr.).

5) *Txindurriak* (Yakintza, 1933, I, 84 orr.).

6) *Antzerkiak*: a) *Bi aizpak* (Tolosa, 1932); «Antzerri», 5-6 zenbakietan; b) *Laño ta izar* (Tolosa, 1932); «Antzerti», 2-3 zenbakietan, Lopez Mendizabd-enean; d) *Ezkondu ezin ziteken mutilla* (Donostia, 1953); «Egan», 1-4, 25 orrialdean.

7) *Lizardi* (Donostia, 1974). Grafica Valverde'ren irarkolan. 67 orridde. Zortzi lan, Jean Haritsxelhar'en itzaurreakin.

Egunercko ta aldizkari auetan azaldu zizkigun Lizardi'k bere lanik geienak: «Euzkadi», «El Dia», «Euskalerrriaren Alde», «Euzkerea», «Euzko Deya», «Libro de Oro», «Euskal Esndea», «Yakintza», «Eusko Olerkiak», «Antzerti», «Aranzar zu», «Euzko-Gogoa», «Gure Herria», «Eusko Ikaskuntzaren Deya», «El Pais Vasco», «RIEV», ta abar.

«Biotz-begietan», arrezkero ere, bi ddiz argitara emana izan da: Donostia, 1956, Vdverde'ren irarkolan, eta Zarautz, 1970. Baita bein «Itz lauz ere: Donostia, 1972, A. M. Labaien'ren itzaurreakin Edili'k aterata. 150 orrialde. «Txindoki-sorta 1».

ERAGILLE BIZKOR.—Orixe'k eta Aitzol'ek jaso zuten batez ere Lizardi, olerkari ta idazle bezela goi-goi jarririk. Eta Lizardi'k, bere aldetik, au dio Aitzol'i goratarrez: «Eragille bizkorra dz, adiskide on, ta abagunearen sena dek argi: *Euskel-olertiyaien* etorkizunean aitatu bearra zegok ire izena. Eta «Euskdtzdeak»-en eraberrigin eta zuzpertzallle berdiñaka bezela goratu nd zigun olerkigintzan arnas emaille izan zuen tolosarra,

Guk Lizardi beragatik esan ditzakegu ori ta geiago. «Itz lauz» idaztian datozen lan guztiak, itzddi ta osterantzeko, denak dituzu Euskderria zuzpertzta bizi-azo ndrrik egiñak. Nola dzatzen ditun idazle asko ere: «Orixe», «Aita Intza», «Jauregi», «Larreko», «Otxolua», «J. Alberdi», «Iparralde», «Duni-xi», «Gireuya» ta abar. Aren lanak atsegin aunditan irakurtzen ziran, edo-ta irakurtzen genitun, ni ere idazten orduantxe asia nauzu-ta.

Balña, batez ere, aren olerki-eran jartzen genitun guk geure begiak; Jauregi, Arrese ta Lauaxeta'rekin batera bide berriak urratu zizkigun, eta mendi-erpiñerantza aurrenen doanari geienik bederen jarraitzen diogun legez, gu ere aren atzetik orpoz orpo giñoazen; edo, beintzat, orrela egin nairik. Gazteak, izan ere, bide berriak opa dituzte beti. Lauaxeta'k, «Bide barriak» izendu zigun bere lenengo neurtitz-idaztia. Eta Lizardi'gatik onela Zaitegi'k: «Euskaldun yatorra izaki, bere kabuz bide berrietan barna yo zun eta bat-batean yaso zigun gain-gaiñeko erpiñeraiño gure euskera zarra. Aren olerkietan argitan bleiblei ageri dira gure ozkarbiak eta gure lurak eta gure erriak edergairik apañenaz: gure arto muskerrak, gure baserri zarrak, gure nakazariak» (*Euzko-Gogoa*, 1950, l'go zenbakia, 11 orr.).

Lizardi'ren giro ta ingurua zerbait aztertuz, onela idazten digu Zaitegi'tar Jokin'ek. «Euskal-olerki azia —dio— garatu ta zugatz egiten ari zan. Gezu batean, zugatz orrek igali goxoak emango ditu, erri-mausarra du-ta. Lizardi baño len, ordea, olerkariak koloka, aztamuka, zirkun-zarkun zebiltzan. Olerkariak euskera lantzen ari ziran-eta, ipauska ta zañil zituzalen. Euskera-ren korapillo alniz askatu, zoztor asko oildu ta itz makal eta maskarren bidez asmo sendoak azaldu nai zituzten».

Onela darral: «Yauregi olerkaria ugari, naro ta yoria duzu: Lizardi'k, ordea, esakera labur, ta giartsuagoa darabil. Azala bera ere txukunago zun Lizardi'k: deztera-arriz izkera bera txorrotzu ta txukuntzen ari zan. Olerki-izkera «Orixe»-k-eta apaindu zuten eta izkera lauari Olabide'k eta Azkue'k eta Eguzkitza'k batez ere ertza atera zioten. Dagoneko, Lizardi'k gerturik zun bere bide berria. Izneurdlari bikaña ta olerkari ximen eta urguria zan orobat. Olerki mueta guzitarikoak idatzi zitun. Zear-mintzoarekiko ziri-neurtitzak ere idatzi zitun».

Eta azkenik: «Ahapaldi berriak asmatu eta lengoak ere berritu ta apañagotu zitun; aren buruausterik biziena olerki-azala orraztu, motostu ta atontzea zan; baña, mami ta gunaren axola indar du... Olerki berrien zaiñetan antxiñako odol yatorra sar-

tu zun: zaragi berritan antxiñako ardo bizi zarra zekarren... Zirt-edo-zart, ortik-edo-emendik yo ta Orati'ren guna ta mamia bereganatu zizun. Norbaiten ustez, Lizardi'ren idaztankera erbatzez egiña ta edea bezin zailla dirudi. Ez nik ala uste. Aren idaztankera zangar eta zaintsua izan arren, arin, bizkor eta eragiña duzu. Ederrarekiko ao goxoa zenun. Biotzez biguna, buruz ernea, Aren olerkietan, arranoaren urubiak eta usoen urrumak entzun bide ditzakezu. Olerkari arnasez gaiñezka zun gogoia. Eten gabe biotz-begietan izan zun izatearen funtsa» (*Euzko-Gogoia*, 1950, I'go zenbakia, 9 orr.).

J. Ariztimuño'k onela: «Arrotz olertiaren kutsurik, Lizardi'ren neurtitzitan aurki ezin lezazuke, ordea. Barneko iturburutik jaio zaizkio mami-azalak. Ederrak ba dira ere, eusko-olerkariak dira. Ez irakurritz ikasiak, adi-muñetik sortutakoak baizik. Bertsoak eusko-guna erraiyetan daramate. Euskerari dago-kion gisa tajutuak dira. Gaurko olerki au —ots, «Urte-giroak ene begian»— irakurriaz antziñeko poesi bateren-baten oroipena datorkit burura. Alako bertso errikoien doñua edo:

«Iduzki denean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala».

Euskera onela, olerti bidez eraberritzea, antziñeko guna gaurko izkerari txertatzea dala deritzait. Jantziz oraingoa ba dirudi, barnez aspaldikoa izan dedilla... Bertsoak esakeraz labur itzez zurrak dira. Ez gai, ez jantzi alperrikakorik aurkitu lezakegu. Laburtasunak eta mami-azal ezkontza egoki onetxek Lizardi'ren olerkiari kutsu jatorra erantsitzen diote. Gaiez bezin bikain, jantziz ere. Alako eusko-gun bereziak onelako soñeko etxeoia bear. Ez etxeoia dalako beartsuen jantzia daramala uste. Irudiz, amets-ereduz, asmoz aberatsa oso. Eta ez eskutartean darabilzkigunak, berriak, gure belarriak oralndiñokoan entzun gabekoak baizik» (*Eusko Olerkiak*, 1931, II, X orr.).

Labur: gero, ekaitz zakar bezela, illunpe ikakragarria izan genduen arren, garai artako egunak, ots, 1930'tik 1936'arteko

zazpi urteak ezin-obeak izan genituen eusko-olertiarentzat. J. Zaitegi'k au: «Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian».

AKATSIK?—Iritzi-emaille onak lanaren ederra bereziki goraiatu bear duen arren, edaki litzaken utsak pixkat aizatzea ere ez deritzaigu gaizki. Nork ez ote ditu, idazle ona izanik ere, akatsen batzuk? Egia au ere: sarriegi dakusagula samarra iñoren begian, agea norberenean baiño.

Lizardi'k ere ba-ditu bereak. «Bereak eta, agian, gureak ere bai —diosku J. Aitzol'ek—. Euskera lizundu xamarra eskuratu zaigu. Jatorriz, gure izkera asmoak labor erakusten zituenetakoa zan. Adi-gaietarako itz gutxi eta aiek egokiak. Aldizaldi zabartu, eten egin zaigu eusko mintzoa. Txalogarria, beraz, antziñako itz-asmoen izorraldi ori berritza. Buru belarri, auxe iritxi nairik, dabil olerkaria. Elburu onek, ordea, utsak ba-ditu. Bertsoan doñua gogortxo izatea, bat; ulerkaitza, aditzez zail xamarra izatea, bestea. Ez da nolanaiko lana izkerari erdoia kentzea. Ez deritzat, ordea, bat-batean egin leikena danik» (*Loc. cit.* XIII orr.).

Orixe'k bi-iru uts aurkitu zizkion «Biotz-begietan» liburuan (*Yakintza*, 1933, I, 405 orr.). Eta A. Irigarai'k beste batzuk (RIEV, 1934, 199 orr.): «guziek», «guziak»-en orde; «ari ere ditugu», «ari ere gaituzu»-ren orde; «ezin erderaz ari gaituzu», «ezin ari gaituzu erderaz»-en orde. Baiña, esan dugunez, idazleari errez yaulkitzen zaizkio onelakoak, konturatu barik ere.

(Ikus E. Agirre, *Euzkerea*, 1933, II, 320 orr.; J. Ariztimuño, *Yakintza*, 1933, I, 163 orr. eta «Euzkadi»-n ainbat artikulu 1934'gn. urtean batez ere; Jautarkol, «Euzkadi», 1934-5-25'an; A. M. Labaien, EID, 1933, XV, 18 orr. eta *Teatro Euskaro*, II, 155 orr.; N. Ormaetxea, *Yakintza*, 1933, I, 405 orr., *Euzko-Gogoa*, 1950, I, 7-8, 6 orr. ta *Euskera*, 1958, III, 17 orr.; A. Tapia Perurena, *Yakintza*, 1933, I, 183 orr.; J. Zaitegi, *Euzko-Gogoa*, 1950, I, 9 orr., ta 1954, V, 22 orr., ta 1956, VII, 94 orr.; A. Irigarai, RIEV, 1934, 199 orr., ta *Euzko Gogoa*, 1956, 94 orr.; Tomas Agirre, *Yakintza*, 1933, 23 orr.; S.

Onaindia, MEOE, 883 orr.; I. Omaetxebarria, «Euskera», 1959, 263 orr.; L. Villasante, HLV, 335 orr.; J. Artetxe, *Euzkadi*, 1934-6-6'an, eta *Caminando*, 1947, 63 orr.; L. Mitxelena, HLV, 146 orr., ta *Egan* 1956, 2, 84 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 455 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 55 orr.; Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren historia*, 1970, 64 orr.; X. Lete, A. Zelaieta, A. Lertxundi, *Xabier Lizardi*, 1974, «Jakín» liburuxka sailla).

49.—GERHARD BAHR (1900-1945)

Euskal kezkek urduritu au, naiz-ta doixtar abizena eraman, Legazpi'ko auzune Udana'n jalo zan 1900-5-6'an, «Katabera» (Arantzazu)'ko meategietako buru bait zan bere aita. Lenengo ikasketak Brinkola'n egin ondoren, 1913'an Alemania'ra joan zan batxiller-ikastaroak osatzen, 1918'an Euskalerrira dator, eta emen euskaltzaletzen da, bere arreba batekin euskeraz ikasirik. Geroago, Alemani'ra biurtu ta bere Irakasle tesisa Gottingen'go Ikasguak (1940) onartzen dio. 1944'n, Errusia'ren aurkako burmkan, Petersburgo'n Gudari-Talde Urdiñakin batzen zaigu; gero, ia gerra amaitu arre, Berlin'en egiten dizu itzultzaileen maixu. Eta atenez, errusitarren kontrako eraso-aldian jausi zan 1945-4-27'an.

EUSKALTZALE.—Sudur-luze zan antza umetatik, era jakin-min. Brinkola'ko umetxoak, bere eskola-lagunak, egiten zuten izkera arrigarri zitzaion, eta bere arrebakin batera ikasten asi; ortarako, artu-emanean jarri zan laster Azkue jaunarekin, baita idazteari eman ere **RIEV**'en eta «Euskera»-n lanak agertazirik. «Euskal Esnalea»-n argitaratu zuen bere lenbiziko lana: *Uaño naiz xirietaz* (1922), 109 orr.),

Ona bere lanik beiñenak:

- 1) *Uaño naiz xirietaz* (E. E., 1922, 109 orr.).
- 2) *Estudio sobre el verbo guipuzcoano* (**RIEV**, 1926). Sei urtez ekin zion orretan, lan luze sakona baita.

3) *H. Schuchardt zana* (Iruña, 1928). 12 orrialde. Ama Birjiñaren irarkolan.

4) *Ostraillika ta ostadarra (la via lactea y el arco iris}* Gipuzkoen (Bilbao, 1931). 10 orrialde. Ed. Vasca'k argitaratua. Lendabizi «Euskera»-n agertu zan (1931, XIII, 51 orr.),

5) *Verbas compuestos, factitivos o causales, ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo?* («Euskera», 1933, XIV, 3 orrialde).

6) *Los nombres de parentesco en vascuence* (Bermeo, 1935). 43 orrialde. Idazketa-irarkolan. Eta «Euskera»-n, 1935, XVI, 3 orrialdean.

7) *Das Baskische* (Hamburg, 1941). «Weltverkehrs Sprachen» aldizkaritik (1940-41, VII, 281 orr.) separata.

8) *Baskisch und Iberisch* (Balona, 1949). 119 orrialde. «Eusko Jakintza»-n ere ba-dator (1948, II, 3 orrialdean asita). «Doctor» tesisa duzu.

Ba-dauzka oraindik beste batzuk RIEV'en erle, mitxeleta, igel, landara, abere, berun ta olakoak nola esaten diran adieraziz argitaratuak batez ere. Naiko jakingarriak egiazkiro.

(Ikus L. Villasante, HLV, 407 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 262 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 424 orr.).

50.—IÑAZIO K. NUÑEZ ARIZMENDI (.....)

Zumala'koa? Aztertu gabe daukagu oindio idazle onen bizia, Dana dala, euskal griñak asaldatua zebilkigunik ezin dezakegu uka. 1910'an beintzat Donosri'n irtetzen zuen «Baserritarra»-ren zuzendari genduan; orrela dakar berak «Euskal Esnalea»-ren aginduz argitaratutako «Esku-Egundiya»-n (1910, 48 orr.) damakigun lanean. Lan ortan bi kontu ta izkirimiri bat datoz. Laburra da-ta, ona lenengo kontua, txakurrarena:

«Zeiñ da egunik txarrena baserriyan txakurrarentzako? Gabon gaba. Nola liteke? Gabon gaban inguratzen baitira etxe-

runtz senide guziyak, bat morroi dagona, bestia neskame, bestia ikazkiñ edo argintzan. Mai inguruan aparitarako exeri ta betetzen da kazuelaz ta sartagiz; botilla aundiya ipintzeko mai gañian ez da tokirik eta jarri biar da lurrian, baña txakurrak, mai azpiyan ta anka-artian dabilela bota ez dezan, kanpora ateratzen da animala gizaixua serenerua artzen eta or nun gelditzen dan ataiko aizia artzen».

Antzerki bi ditu:

1) *Porru salda* (Donosti, 1922). Martin y Mena'ren irarkolan. Bakanizketa duzu iru izkuntzatan. «Euskalerrriaren Alde»-k ere argitara zuen, II, 39 zenbakia, 459 orrialdean. 1912'an, Zarautz'eko euskal jaietan saritua.

2) *Joxe Ebaisto* (Donostia, 1915). Bakarrizketa. Martin y Mena'ren irarkolan. «Euskalerrriaren Alde»-n ere ba-dator, V'garren urtea, 49 orrialdean. Ipuin eta bakarrizketak nork obeto esan eta, batzaldiak eratzen ziranean, Azkoiti'ko Pako Kuen-de'k bereziki, auxe aakeratu oi zuen, 1912'an Zarautz'en ospaturiko euskal jaietan baitik bat.

(Ikus *Euskalerrriaren Alde*, II, 583 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1958, 187 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 163 ta 175 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 196 orr.).

51.—AINGERU ARSUAGA ZIPITRIA (1900-1968)

Tclosa'rra genuen kaputxinotarren ordenan A. Marzelino zeritzan au. 1911-1916 bitartean, Altzatzu'n ikasi zituen latiña ta onen ingurukoak, eliz-karrerarako. Sangotza'n eskeintzak egiñik, Ondarribi'n Filosofia ta Iruña'n Teolojia ikasi zituenean, Iruña'n bertan apaiz-sagaratu zan 1924'an. Ondoren Altzatzu'n irakasle 1935 urterarte, 1935'tik 1962'rarte Lekarotz'en berdin. 1963'tik ara Ondarribi'ko komentuan bizi izan zan egotez eta ementxe bertan il zan 1968-7-14'an.

EUSKAL LANAK.—Maite zuen «Zeruko Argia» ta Tclosar Marzelino Aitaren lanak, iragarketarako ziran paper orizkaetan agertzen ziran batez ere. Orrez gaiñera onako beste lanok osotzen alegindu zan:

1) *Erriarentzako Liturgia* (Iruña, 1930). Aita idazle askoren artean egiñiko liburuxka. Marzelino Aitak «Garizuma» (17-27 orr.) du berea.

2) *Erriarentzako Liturgia* (Iruña, 1930). Askoren artean egiña au ere. Marzelino Aitarena «Pazko Garaia», 29-40 orrialdeetan datorrena.

3) *Erriarentzako Liturgia* (Iruña, 1931). Askoren arteko [ana. «Peregrinatio ad loca sancta» da Marzelino Aitarena. Izenburu ori darama italiar J. F. Gamurrini'k idatzitako «Eteria»-ren Lur Santuetarako bidealdiak. Idatzi ark ba-du zer ikusia Liturgiarekin, eta A. Marzelino'k or azaltzen digu zer eta nolako gaia duen idazti orrek.

4) *Erriarentzako Liturgia* (Iruña, 1931). Taldeko lana, besteak legez. «Illen Eguna» duzu A. Marzelino'rena, 61-73 orrialdeetan.

Euskera errez ta garbia darabil.

(Ikus P. Felipe de Fuenterrabia, *Ensayo bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* (1900-1950).

52.—FELIX MARKIEGI OLAZABAL (1905-1946)

Olerkari ta antzerkigille. Deba'n jalo zan 1905-9-23'an. Bere gurasoak: Gillermo ta Maria Jesusa; anai-arrebak: Joseba, Oiartzun'en garbi-itxia; Florenzio, Deba'ko alkate izana ta 1937-10-15'an Dueso'n su-izkillotua; Karmen eta Kontxa; eta Gloria Aizpa, karmeldarra. Komillas'en egin zituen eliz-ikas-kizunak, 1929'an orduan Santander'ko gotzai zan Eginu Treku jaunaren eskuetatik artu zituen jauparitzarako ordena-maillak, urrengo urtean beretar guztien poz betean Ienengo meza abes-turik.

Gerra aldian eta ostean arat-onat ibilli bearra izan zuen, eta azkenez Argentina'ra jo ta an Bahia Blanca'n il zan 1946-7-6'an, 41 urtedun.

EUSKAL IDAZLE.—Ez izan ezpairik, toldak ere asko esan nai digu-ta; sendiko odolak edo-ta norbere sorterriko kutsuak bertikoz utzi oi du aurrerantzean eguzkiaren berotzea bezela no-raezekoa izango zaigun zerbait, bereiztasun berezi bat geugandik inarrosi eziña. Deba itxas-bazter lilluragarriak ba-du olakorik; baita Marldegi etxeakoak ere. Ez zaigu, beraz, arritzekoa Markiegi bi anai apaizon ernetasuna euskal arloan.

Joseba, esan dugu, idazle samurra zan, gauzak alderdi onez begiratu ta ixurika bezela daukaten ederra esku ertilariz jasoten zekiena nunbait. Peli, aren anaia ere, ama berberaren umekondo ta gogo-lantze berdin xamarrekoa duzu. Olerkari xalu, adime-nez argi ta biotz-ondoaz bigun, sotillez daki bertsoak lurrunkatzen. «Yakintza»-n irakur zenezake bat, «Gero arte!», (1933, 187 orr.) oso polito egiña. MEOE'rako bi aufatu nizkion, eta geroago, ura il ondoren, 1959'an, Argentina'tik igorri zizkidaten Oleri'n atera nitun iru auek: «Otoitza», «Jaunaren ots biguna» ta «Ama onaren abestia» (*Oleri*, 1959, 138-140 orr.). Oarkor ta ezti jalkitzen digu bere barne-muiñaren ederra.

Donostia'ko «Argia»-n eta «Yakintza»-n idatzi zuen guda aurretik, eta Argentiña'n zegoelarik, Buenos Aires'ko «Euzko-Deya»-n.

ANTZERKIGILLE.—Felix Markiegi'k, besteak beste, antzerkia zuen begiko. Bizi laburra izan zuen arren, bi politak, ederki landutakoak, utzi zizkigun.

1) *Seme Ondatzaillea* (Antzerti, 1936). I. Lopez Mendizabal'nean. Lau ekitalditan, Ia dana bertsoan daukazu. 1935'an «Euskaltzaleak» eraturako III'garren Antzerki-sariketant saria irabazi zuena. Amasei lan aurkeztu ziran guztiz; komereri salllean Karraskedo-Olarra'tar Jakinda'ren «Garo Usaia»-k eraman zuen len-saria ta bigarrena Markiegi'tar Peli'ren «Seme

Ondatzailea»k. Bigarren oni buruz epai-maikoak onela: «Eban-gelioko seme ondatzaileari buruz idatzia. Lan txukun eta ego-ki au oso atsegin izan zaigula ezin uka. Lauki edo kuadro tan-keran eratu dago. Gañera itz-neurtutan. Mota berria gure elean. Antzerti arauak zero beteak daude. Orobat itz neurketa-ri dagozkionak. Trebe ta goxoro, euskera garbi-errikoia darabil». Sariak ematea maiatzaren 17'an San Telmo'ko saloian egin zan ospe aunditan.

2) *Eukaristiaren Martiri* (Euzkadi, 1935-5-1'an, 12 orr.). Iru ekitalditako antzerkia. Nun ote dugu lan au? Aurrekoa ber-tso ederretan jantzia baldin ba'dugu, idazle yaio aren eskutik irtendako au ere, ez al da bikaiña izango? Bai, noski! 41 urte-kin il zan; beraz, bizi luzea izan ba'lu, makiñatxu bat arnari eder emango zigun, ziur asko, debatar idazle piñ arek!

(Ikus *Antzerti*, 1936, *Jakingarriak*, paper urdiñean; S. Onaindia, MEOE, 1.026 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 271 orr.; *Yakintza*, 1935, 472 orr.; *El Dia*, Donosti, 1936-5-19'an; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 173 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 130 orrialde).

53.—JUAN ARANA EZPELETA (1907-1933)

«Bedoña'tar Jokin» edo «Loramendi». Leintz ibarreko Be-doña erritxo lilluragarrian jaio zan Arana 1907-1-27'an, Mendi-bitzu baserrian. 1920'garren urteko udan, amairu urte ta erdi beterik zituela, Altzatu'ko kaputxinoetan sartu zan, bost ur-tetan latin-eta bertan ikasirik. 1925'an Sangotza'n jantzi zuen kaputxino jantzia, urrengo urtean iru botoen eskeintza egiñik.

Eliz-ikasketak onela osotu zizkigun: 1926-28'ra Ondarri-bi'ko komentuan ikasi zuen bi urtez Filosofia ta onen inguru-koak; Lizarra'n ikasi zuen Filosofiaren azken urtea, ots, iruga-rrena ta Teolojiaren lenena; 1930'tik 1933'ra Iruña'n uritik at datzan komentuan jarraitu zuen beste iru urtetan Teolojia ikas-ten. Onetan zebillela, 1933'garreneko epaillean gexotu zan eta

laster-lasterka Donosti'ra eraman zuten ebakite bat egiteko. «Peritonitis» dalacak edo estarteko miñak eratsi zuen 1933-3-23'an, 26 urte ozt-oztan beterik zituela ta leen meza esateko ogekalru egun bakarrik palta zitzalzkiola.

Zaraya euskal idazle argiak au idatzi zigun: «**De mortuis nihil nisi bonum**». Egiaren egiz esan genezake gaur Kilon'en aolku eder ori, Loramendiri bizitz-mugaz ara begira gagozkionok. Loramendi deitu zan bera, lorez jantzirik, biotz-lorez beterik bizi izan baitzan. Loramendi bat zan Bedoñar JoaHn laguna ta lorezaleok maite genuen biotzez. Maite genuen lurtar lorezaleok, baña maite zuen guk aña zerutar lorezaleak. Lur ontarako lorez beteegi zegola-ta, Jainkoak bereganatu du zeruko edergarritzat. Apalz-jauregian sartzeko zegonean zeruko jau-regira deitu du Apaiz-Nagusiak Jainkoz bete dedin» (*Zeruko Argia*, 1933, orrilla, 85 orr.).

OLERKARI.—Geroak zer dakarkegigun ezin igarri askotan. Ealña «nik eta nire inguruak» asko esan nai dute auzi onetan. Barne xamur baten jabe izateak aski balio du gerorako; balta inguruan umetatik dauzkagun gauzak eta azi ta ezi gaituen giroak ere. Loramendi sortzez genuen biotz berroz ta adimen bipillez ornitua, bere olerkiak lekuko. Ortik, bada, berez zan olerkari; «berez zetorkion barnean aditu oi zituan naigabeak maltasunak eta oiek berekin duten edertasun ta goitasuna olerkietan azaltzea ta abestea».

Bestetik, leku lerdenean sortu zaizun Loramendi. Tantal ta landare loretsuz jantzita dituzu ango jirabirak; soro emankorak ere ezker-eskubi; bideak sasi ta masustaz gaiñezka, zelaia lorez ta argiz ñirñir; iretza ori biziak; bat edo beste troka, alzearen biur-toki txalro. Ondoren Altzatzu ta Sangotza, ez dituzu eder-sorburuz urri. Eta Ondarribi! Emen osatu zuen nunbait «Arrantzalien arrats-otoitza». Ondorioz, Loramendi'k ba-du biotza, ba-du irudimena. Baña batez ere egia Zaraya'k dion au: «Gazte-gaztetatik ederrak su-bera lur-inguruetakoz izaki ba-

koitzarekin zegokion izkuntzaz itz egiten oitua Confontaine'k bezela esan zezakean: «Izaki bakoitza mintzo zait bereziki, ta biotz ondorañokoa der» (Z. A., 1933, orrilla, 86 orr.).

Olerkari liriku jalnkotia dugu Loramendi; Jainkoa ta onen inguruko egiak ditu batez ere kantagai: gaztetxo zan eta fraille, beraz zer kanta zezakean? «Eder utsa danak, baita ederra Arengandik artuta duten galñerakoak ere, lillura ta zora dezakete olerkaria; ta zoramen orren ondoren bezela, biotz barrenean berezizko izakera sor-arazten diote. Ta orduan olerkariak, musika bezin gozo diran itzetan, sua bezin gartsu diran olerkieran, biotz-ondoa zabaltzen du, oiú egiñaz Jalnkoari, Andre Mari'ri, santuai edo baita erlijioa ta onen ezkutapenak lurtarroí entzunaziz» (*Oleri*, 1962, III-IV, 134 orr.).

OLERKI-BILDUMA.—Bertsotan ta itz-lauz idatzi zizun Loramendi'k. Eta, beti jazo oi eztana, esku maltekor bat izan dute aren lan guztiak. Aita Yurre'k osotu zizun bilduma eder bat lan oiekin. *Olerki ta idatzi guziak* (Zarautz, 1960) dute izenburua alpatu-lanok. Itxaropena Argitaldariak eman zuen argitara. 196 orrialde. 37 olerki dakarzki, biltzailleak dionez, «Zeruko Argia» illerokotik, *Jakintza'tik*, «Eusko Olerkiak» liburutik eta MEOE'tik jasoak denak. Azkenez sei lantxo itz-lauz, «Zeruko Argia»-tik artuta.

Biltzailleak uste du etzuela besterik idatzi. Loramendi'k utzi zituen paper zirri-borroak ere erabilli zizkigun esku artean. «Baña zirri-borro oietatik —dio— ez det gauza garbirik atera al izan: alde batetik, zirri-borro oetako olerki ta idatzia bukatu gabe ta egin gabeak daudelako. Beste aldetik, ez bakarrik itzak, balta lerro erdi ta lerro osoak ere, bata bestearen gañean idatzia baltaude, ezin ditezke irakurri, askotan beintzat. Orrela, paper oietatik olerki bat bakarra, «Aitormendia eresti», atera ta sorta onetan sartu det. Gogoan iduki bear dana da: elertilari guziak dituztela euren zirri-borro paperak: egunean-egunean egin oi dituzten elerti jardunak, ez argitara emateko asmotan egiñak, jarduketan aritzeko balzik. Olakoak ez die nortasunik

ematen ezta alntza ta dirdira berririk eransten ta ez dira argitara bear ere. Orregatik, bilduma onetan batu ditudanetatik gañera, ez det uste gauza aundirik agertuko danik, «Loramendi»-ren olerki ta idatzietan» (*Aurreitza*, 19 orr.). Beraz, bilduma ontan dauzkagu Bedoña'tarrak utzi zigun emai osoa.

Neurri ta tankera askotako olerkiak ditu Loramendi'k, ao goxoz talutuak guztiak; arnas aundiko lanak, eta egin zituenak ez dira ezer, ziur asko, egin zezakenaren aldean, baiña «bere biotz aundia edergai ta adigalaz betetzen ari zanean ta lanerako astiruk izango zuen aldirarte eldu baño len, aldegin digu illen aberrira». Tamalgarri benetan euskal literaturarentzat.

Aren lanetatik bi dituzu batez ere alpagarri: 1) *Barruntza leyoan* eta *Arrantzalien arrats-otoitza*. Besteak ere alegiz, itzez eta egituraz maisuki borobilduak ditugun arren, biok bulkoz ta biotz-ondoaz beteagoak dira.

«Barruntza leyoan» olerkiak 1932'an Ernani'n ospatu zan Olerti sariketan lenengo saria jaso zuen. Zer sari? Aritzaren adartxo polita, bere ezkur ta guzti, zillar erdoiztatuz egiña. J. Aitzol'ek onela: «Lekalde abesleak maitemiñezko intziriz itz egiten dio Yalnkoari. Asis'tar Donearen adurra dario non-nai olerki onek, baño irudiz ta antzekiz ornitua, ez bait-dute auek olerki-giarra bat ere aultzen ez illuntzen, bai ordea arimak Yainkoarekin dituan maltezko artuemanak bizikiago adierazten; eta Yalnkoak barneko illunpeak bere argiz danak ditu argitzen, len auts zana, gero dana argi-izpi ta lore ta kanta biurtzen balt-du biotz ezurretarañoeko guzia... Yaiako-maltezko gañezka ontan aapaldi guzietan ditugu alnbat gogai ta antzeki, ainbat edertasun eta antz-irudi, ezin izango genuke zeatz olerkiaren berri eman. Malteareldko biozketa zoragarriak berriz, ainbeste ta aln sari ta usu, norbaltek uste izan dezake ez daketela alkarrekin bear besteko batasunik; aundia dute ordea ta arnasa gero ta aziagotuz, biotz-itxuri ederrak abesten yartzen dute azkenerako olerkari maltemindua... Auxe da «Loramendi»-ren olerki-lanik gurenena. Bikalñagoak egin al izango zituan noski, Yalnkoak

gure artean luzaroagoan utzi izan ba'ligu. Aren olermena, azken aldiko idazlanetan, asiberriko bildur-mildur ta lañoak utzita, sutsu, oldartsu, diztikor azaltzen da ta arnari eldu eder-bikalñik asko eman bear zizkigun» (*Eusko Olerkiak*, 1932, III, *Aurre-itza*, XIV orr.).

Bigarrena «Arrantzalien arrats-otoitza» duzu, aurreko urtean, 1931'an, Tolosa'ko Olerti jaietarako aurkeztu zuena. «Asiberria Bedoña gaztea —diosku J. Aitzol'ek, ara igorri ziran olerkiak banan-banan aztertzerakoan—: itxaso, altz, eguzld, itxas-txori, arrantzalien bizitz gogorak eta oien ziñismen sustaltsuak olerkari kementsuari irudimena mamitzen diote izpi aratzak ixuri araziaz. Goiargi diztikorraren semea degu olerkian» (*Eusko Olerkiak*, 1931, II, XVIII orr.). Antzetsu egiña du, ta «Barruntza leyoan» baiño ohea dala dio Orixe'k, onela: «Olerki ezur-ederra (Arrantzaliena), buruz egiña lenbizi, itzal-apaln garbiekin; betegarriz ez dago gaizki; sua ere badario, Loramendiren beste zenbalt olerkiri bezela» (*Olerkiak*, 1960, 30 orr.).

IRITZIAK.—J. Aitzol'ek: «Olerki mistiku dalakoa, bera da izkuterik izkutuena, bera eldugaltzena, aren barnera banan-banango gizon aukeratu batzu besterik ez dira eldu... Eta (olerki) batzuek ala ere eta Eusko-Olerti egunean, Ernanikoan sarituak bereziki, argi erakusten digu ez zala gure olerkaria mistiku edertasun-dirdalak nabaitu, ikusi ta azaltzen nolanaikoa» (*Eusko-Olerkiak*, III, IX orr.).

Orixe'k: «Badu Loramendik adimena, badu idurimena, badu biotzean sua. Euskera ugaria ta ederra. Arrigarri da, gaxte-gaxte komentura sartu ta andik irten ez, eta ainbeste euskera nola irakurri zuun eta buruan eduki. Damurik il zitzalgun gazte, Loramendi; lore ez ezen, igali edo arnari aunitz eman zezakena» (*Olerkiak*, 29 orr.).

Antonio Arrue'k: «Oraintsu ildako erdal-olerkari ospetsu batek zion: kendu bertsoei beren igidura, beren musika, balta itzen azken berdintasuna, rima; kendu ondoren itzak berak

eta gogoetak, ideiak ere bai; ta ala guziaz, zertxobait gelditzen bada, ori izango da poesia... Loramendiren olerki batzuek irakurtzen badituzute, ta gero beren igiduraz, rimaz, itzez eta ideiaz zearo aztutzen bazerate ere, • geldituko zaizute aldi luze batean, buruan ezpada biotzean beintzat bai, alako poesi-zantzu gozo bat. Beraz, Loramendi poeta zan ta gorputz osokoa gañera» (*Euskera*, Bilbao, 1960, 187 orr.).

Jauregi'tar Koldobika'k: «Bi auek («Arrantzalienen arrats-otoitza» ta «Barruntza leyoan»), poesi lirikuarien igali eldu ta narako ditugu; bigarrena, batez ere, Euskerak diraueno, olerki-zale orok atsegiñez irakurriko dute ta nere lantxo onetan aipatu dizkitzuedan beste olerki polit ta ezti oiek ere, euskal poesi-sorta orotan dizdiz dagikete ta Loramendiren izena euskal olerkari ospetsuenen artean biziko da noski baiño noskiago» (*Euskera*, 1960, 252 orr.).

Gabriel Aresti'k: «Proba da, iruzpalau izen kenduta, gañerako guztiak berdin izango litzakeala ezer ere eskribitu ezpalute, Euskalerriari ezpaltioe (poetak bezela) ohorerik ematen eta munduko atentziara ezin presenta ballitezke. Iruzpalau, oek dira: Orixe, Lizardi, Lauaxeta (ordena onetan), bear bada Loramendi eta besteren bat» (*Zeruko Argia*, 1963, abenduak 29, 44'gn. zenbalda, 4 orr.).

Eta Zaltegi'tar Jokin'ek: «Loramendi'ren zenbait olerki labur atsegiñago zazkit nere aorako. Adibidez ikusi «Antzekia». Dana dala, erabateko olerkaria zenun. Idurimen mardula zun, baita iturri baten biotzondo-etorria. Euskera bera ere atsegiña du: ortarako lerrenak egin bear izan zitun: yayotzez berea ez zun izkelgia ongi ikasteko. Ortan ere goragarri dugu: euskera-ren batasunaren alde biotzez yokatu bai-zizun» (*Euzko-Gogoa*, 1950, 1, 17 orr.).

Yurre'tar Julen'ek: «Bilduma au egiten ibilli izan naizela, Ikasi det olerkietan txikienak diran batzuk, ederren ta atsegiñenak zalzkiela batzuei. Esaterako: «Enada beltza...!», «Ulargitara», «Antzekia», «Onatx, erletxoak», «Banoakizu...!», ta

abar. Olako txiMak deritzalzkie onenak batzu arei. Orrek esan aai du, guztiek olerkari bikain-bikalntzat dutela «Loramendi» (*Olerki ta idatzi guziak*, 25 orr.).

Izan ere, luze ta labur, ederki landuak daude Loramendi'ren lanak. Ba-zekigun ederra sortzen eta eskeintzen irakurleari atsegiñ emateko eratan. Argia zan buruz ta sentiera urduriz kuin-kuin zeakan biotza. Ondo zekian euskera, amaren magalean entzuna ta edoskia ari ta ari ikasiz obeagotua. Ortik naitaez aren lanak bikalñak izan bear. Irudikizun ugariz, larregiz bear bada gaurko ao-xuriarentzat, jantzita dauzka geienak; beste batzuk, txikiak noski, alegi politikak dira, euskal jantzi gorri-miñetan.

Giroak asko dagiala esan dugu asieran. Eta olaxe da. Loramendi ikasle zalarik, gure elerti-loratze zoragarrian gengozen. «Euskaltzaleak» olerti-jaiak ospatzen asiak ziran. «Zeruko Argia» dotore zetorren itz-lauz ta olerkiz: ba-zuen nun idatzi ta nork lagundu. Gazte zan, ikasle ta garal ortan erri-elertia ta elerti jantzia, kulturazkoa, bearrez ta griña biziz ikasi oi da. Giro guzti oni onura atera zion Loramendik, olerkigintzan asiberri izanik ere lan lerdan giarrak aragitzeko.

Zer irakurri ote zuen? Etxekoen lanak bai beintzat, Lizardi, Arrese, Jautarkol eta Iraizoz'enak batez ere. Aren lanak ba-dute oien kutsua. Eta erdal olerkaririk? Mistral Orixe'k itzulia, Verdaguer, Gabriel y Galan eta oien sorpenak ere bai; olerki txikiak baitik bat Verdaguer'en *Idil-lis i cants mistics* dakarkigute gogora. Gaztetatik irakurtzeari eman dionak, ikasala ere, liburu asko irentsi ta kurkatu oi ditu.

GORATZARREAK.—Lau bederik izan ditu. Lenengo 1935-6-2'an, Loramendi ilda bi urtera. «Euskaltzaleak» bazkunak eratu zuen, ortarako Bedoña'n bertan Loramendi'ren omenez Olerti-eguna antoiatuz. Lenengo euskal jalak Arrasate'n. Gero, igandez, Arrasate'tik eta Aretxabaleta'tik jendea eurrez Bedoñan, Olano gotzaia buru zala. Gotzal-meza, ta ondoren bide kurutzean, izadi ezin ederragoaren erdian, arri-oroiagallua jarzea, J. M. Lojendio'k itzaldia. Olerki-sariak: K. Jauregi'k zillarrezko

aritz-adarra; Orixe'k «Arraunketa» poemagatik; erri-bertsoen-gatik baita J. Dorronsorok, Gazteiz'ko Kadaberatz-Taldeak, Andoni Lizaso ta Agirre'tar Eli'k ere. Txapel eta Zepai bertsolariak, eta Arrasate'ko ta Aretxabaleta'ko eres-batzen jardunaldia.

Bigarrena, 1959-9-20'an ospatu zan Bedoña'n bertan. Bost tnilla bat pertsona giñan Mendibitzu baserri inguruan, Zelalko meza ostean, leena espexeratu izan zala~ta, oroitarri berria jartzea: Loramendi'ren amak berak, estalkiari eragiñez, agertazi zigun; zortzi umek ondoren Loramendi'ren olerkirik bikalñenak esan zituzten. A. Arrue'k itzaldia, Basarri ta Lizaso'k bertsoak. Sariak banatzea: Olertian, G. Aresti, B. Gandiaga, F. Artola ta Irazoizko Polikarpo sarituak; elerti-kritikan, Jaurregi'tar Koldobika ta Yurre'tar Julen Aita; antzertian, E. Erkiaga ta J. A. Martija.

Irujarrena, 1971-9-19'an, aste osoa eskeiñi zioten Aretxabaleta'ko «Alkar» gaztedikoak, itzaldiak, saloak, abesti-entzuteak eta abarrez. Astearen azkenengo egunez, ots igandez, «Loramendi izena daraman enperantzan meza abestua, Zumarraga'ko Jon A. kaputxinoaren itzaldiz edertuta. Ondoren, erriko alkateak, jendearen txalo artean, oroitarria danen begietara agertazi zuen: oroitarri au 1936 espexera eramandako duzu.

Laugarrena, 1972-7-2'an. Gauzeak jabeari dei dagio-ta, Bedoña'ko gazteak ere, beiñola erritik eraman eta espexeratu zioten arri ura, aurreko urtean Aretxabaleta'ko enparantzan kokatua, legez eskatu ta berriro Bedoña'ratu zuten. Ortarako, auzo errietako jendez inguruak beterik zeudela, meza izan erriko erretore jaunak emana ta Yurre'tar Julen A. eragilleak itzaldia egiñik. Bedoña'ko goi-goiko bide-gurutzean daukazu gaur yarein-arria; lorak ditu ingurumari, ta ondoan ageri dan frallea Yurre'tar Julen A. kaputxinoa duzu.

(Ikus Yurre'tar Julen A., *Olerki ta idatzi guziak*, Zarautz, 1960, ta *Olerti*, 1962, III-IV, 124 orr.; S. Onaindia, MEOE, 953 orr.; J. Ariztimuño, *Eusko Olerkiak*, 1932, III, aurre-itza; eta *Eusko Olerkiak*, 1933, IV, aurre-itza; Orixe, *Olerki ta idatzi guziak*, 27 orr.; Jauregi'tar K., *Euskera*, Bilbao, 1960, V; T. Agirre, *Yabintza*, 1933, 22 orr.;

Izurtza, *Euzko-Gogoa*, 1950, 1, 17 orr.; Kaiero, *Jakin*, 15'garren zenbakia, 26 orr.; *Zeruko Argia*, 1932, agorra, 153 orr.; Zaraya, *Zeruko Argia*, 1933, orrilla, 85 orr.; G. Aresti, *Zeruko Argia*, 1963, abenduaren 29'koa, 44'garren zenbakia, 4 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 488 orr. ta *Diccionario*, An-Artazu, 219 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 216 orr.).

54.—LUIS LATIERRO (.....-.....)

Olerkari. «Esker garbia», «Karnaba», «Petrikillo jauna ta zapatagillea» ta abar ondu zizkigun. Lenengoa, 1912'an, Donostia'ko Lore-jokuetan aipatua izan zan, eta bigarrenak, 1916'an, Donosti'ko Lore-jokuetan onek ere, accesit euki zuen.

(Ikus MEOE, 413 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 195 orr.).

55—FRANTZISKO AROSTEGI (.....-.....)

Beronen bizi-goraberarik ez daldgularik ere, antzerkigille dugu Arostegi au. Eta koplakari. Joan mendearen amaikeran agertzen zalgu olaxe: «Atun egaluzea» deritzalon zortzikoari Altuna'k jarri zion eresia, ta Arostegi'k jarri zizkion neurtitzok:

Atun egaluzia
etortzen danian,
jantzitzen dodaz prakak
gonien ganian.

Edo dira atunak,
edo dira prakak,
niri beñipeiñ gabaz
zoratu eiten iat,
ara zoratu bal,
al al al al al!
zoratu eiten iat.

Itaune bat: Jose Altuna musikalaria, durangarra zan. Onen zortzikoari izkia jarri ziona ere ez ote gero Anboto'ren kapelu itzalpekoa? **D**altekena duzu.

Bereak ditu antzerki bi auek ere:

1) *Bakoitzak beria* (Donostia, 1912). Jostirudia. Donostia'n antzeztu zan lenbizi, 1912-2-20'an, San Luis'en Batzartoldan.

2) *Arantza* (Tolosa, 1932). Bi ekitalditako antzerkia. «Antzerti»-k argitara zuen, 8-9'en zenbakian. Lopez Mendizabal' enean. Aurretik, 1916'an Donosti'ko Udaletxeak antolaturiko euskal antzerki sariketan saria eraman zuen, eta 1917-12-21'an eman zan lenengoz Teatru Printzipalean.

(Ikus *Euskalzale*, 1899, 18 orr.; *Euskal Esnalea*, 1925, orrilla, 91 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 191 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 290 orr.).

56.—GOGORA IZPI AUEK

—«Julian Elcrza Saria» 10 mila pezeta saritzat (1923), «liburu bat hobekienik eginen duenarentzat Eskual-Herri'ez eta Eskualdunetz». Eskoletan dabiltzan aurrentzat. Donosti'ko «Euzko-Ikastolak» jarria: 1921-10'an. 631 orr.

—«Euskal Esnalea»-k argitaratu zituen: 1) *Bilintx*, neurritzak eta neurri gabeko itzak (Donosti, 1911). Martin, Mena ta Ga'ren etxean. 24 olerki ta lantxo bi. 104 orr.; 2) *Ugaz-ama: La madrasta* (Trueba). *Pachico Cherren: El Judas de casa* (Trueba). Donosti, 1917. Martin... etxean. Lenengoa Larrea N.'ek itzulia, 48 orr., ta bigarrena A. Apaolaza'k biurtua, 140 orrialde; 3) *Jolasak* (Donosti, 14). Martin... etxean A. P. Iturriaga'ren 23 ipui. Lau izkelgitan dagoz: gipuzkeraz, bizkaieraz (J. A. Ugarte), laburdieraz (Duvoisin) eta zuberoraz (Intxauspe), G. Muxika'ren itzaurreaz. 215 orr.

—*Jesukristo Erregeari Bederatziurrena* (Donosti, 1928). Gipuzkeraz.

—*Euskerazko Zenbakera* (Donosti, 1929). Iru zati ditu lan ikasgari onek. Lenengoan azaltzen du, zer dan, zer izen ditun zenbakerak. Bigarren zatian, idazleen usteak, oso argi, ta irugarrenean, utsak agertzen.

—*Santo Domingoren Ordenaco Martiri bizcaitar Balentin Berrio-Ochoa Doatsuaren Bizitzaren berri labor bat*, ordena orretaco praille Aita Manuel M.^a Sainz-coac erderaz esribitu zuan bizitzaric aterea, eta eusqueraz ipiñia Euscaldun batec (Bergara, 1906). Errosario Santuaren moldiztegian. 156 orr.

—*Eusquerazko Agricultura* nekazari euskaldunantzat guztiz egoki datozen ejerciciuak erakusten dituena eta Carlos Irugarrenaren españar-malla erregezko agirian Zaldun dan Alzagako nekazari Juan Domingo Goitia Garmendiak esribituba (Tolosa, 1886). E. Lopez'nean. 112 orr.

—*Manu*, jostirudia egintza batean (Donosti, 1901). Raimundo Altuna'ren irarkolan.

—*Gurutzeo bide edo Calvario Santua*, San Leonardo Porto Mauricioco-ac esribitu zuana eta euscaldunen oneraco Vergara-co Apaiz batec euskerara itzuiia (Tolosa, 1871). Pedro Gurrutxaga'ren moldiztegian. 39 orr.

—*Christauaren Doctrina*, Aita Astete ta beste jakintsu batzuetatik, bere kontuko aurrentzat, aterea (Chalon-sur-Saone). J. Urkixo'k argitaratu zuen. 77 orr. Egillea: D. Francisco Antonio Agirre, 1759'tik 1805'ra Oikiña'ko txauburu izan zana. Oikina'n bertan il zan 1805-7-20'an, 77 urtetan.

—*Iru Bakarrizke'ta* (Donosti, 1930). Neska jakintzaleai. Joakin Muñoz-Baroja moldiztegian. 11 orr.

—*1926'an Urteko Jubileum*, zer dan eta nola irabazi diteken, Elizako sartu-ateraetako Otoitzakin, M. L. Gazteiz'ko *Seminarium Conciliare'ko* Erakusleak euskeraz (Donosti, 1926). Iñaki Deuna'ren irarkolan. «Argia»-ren idaztiak. 24 orr.

—*Aurtxoan Kristau-Ikastia* (Zarautz, 1932). Gazteiz Eliz-Barrutiko Kristau-Ikasbidea'ren Lenengo malla idantzezki apaindu ta azalpenez eratu. Gotzai Jaunak izendautako Bartzordeak.

—*Jesus'en Biotzaren Jargoitzea (Entronización)*. (Irun, 1915). J. Diaz'en irarkolan. 16 orr.

—*Gure Aita San Franzisko-ren Irugarren Ordenako Senideen Zuzen-bide, Eskari ta erezia* (Donosti, 1910). J. Baroja ta Semiaren moldiztegia. 45 orr.

—*Jesus'en Biotz Doitsua'ri Bederatziurrena* (Donosti, 1922). Aspal-aspalditik Lezo'ko Gurutze Santuan egiten dan bezela (Aita Mendiburu'k egin zuanetik aterea. Baroja'ren irarkolan. 30 orr.

—*San Inaziyo Azpeitiyan* (Azpeitia, 1920). Magdalenako Gaisotegiyan eta eleizatxuan. Martineztarren moldiztegia. 28 orridde.

—*Eusko Araudia. Zer da? Zertarako da?* Irakurri ta oldoztu (Donosti, 1936). Gipuzko-Aldundiaren irarkolan. 19 orr.

—*España'ko Katolikoai* (Bergara, 1932). P. M. Sulamitis. «La Tipografía, S. L.». 22 orr.

—*Mateo Talbot (1857-1925)*. Irlandar langiile baten bizi-tza, Korta'tar Pantzeska'k, S. J. euskeraz antolatua (Donostia). «Gure mutillak».

—*Mixio Santubetaraco Jesus Gure Jaunari eta Ama Birjiñari Cantubac* (Tolosa, 1893). Pedro Gurrutxaga'ren Alargun eta Semeen moldiztegia. 32 orr.

—*Agurtza Deuna* (Eibar, 1914). Diego'ren irarkolan. 19 orridde.

—*Aita Jose Santu Gloriosoaren Bederatzi-urrem* (Tolosa, 1911). Frantzisko Mugerza'ren irarkolan. 37 orr.

—*Ama Maria Junkalekoa-ri Bederatzi-urrena* (Irun, 1914). J. Diaz'enean. 16 orr.

—*Madril-co Patroi Isidro Santu Nekazariyaren Bederatzi-urrena*, bere deboto batec gaztelaniz ipiñi ta Apaiz euscaldun batec eusquerara bijurtuba (Tolosa, 1906). F. Mugerza'renean. 30 orr.

—*Aita San Franziskoren Irugarren Ordenako Erregla edo Zuzen Bidea azkeneko induljentzi berriakin* (Tolosa, 1904). Andres Gurrutxaga'ren irarkolan. 16 orr.

—*Cristau Dotriñaco Catecismoa* **D.** Juan Jose Galarmendi eta Uribarren, **Donostiac**o apalzac arguitara emana. (**Donostia**, 1865). Zazpigarren irarkaldia. J. Baroja'renean. 88 orr.

—*Doloreetaco Birjiñ Amaren Bederatzi-urrena* (Tolosa, 1912). F. Mugerza'renean. 34 orr.

—*Karmengo Birjiñari Astero Egun on bat* (**Donosti**, 1908). Aituna'tar **Ralmundo**'ren moldiztegian. 8 orr.

—*Aurcho Jesus Pragakoari Illeroko Elizkizunetan abestuzeko Itz-neurtuak* (**Donostia**). Ereña'ren irarkolan. 7 orr.

—*Amorezco eta Dolorezco, Jesu-Cristoren Pausoac* (Tolosa, 1895). P. Mugerza'ren Alargun eta Semeen moldiztegian. 64 orrialde.

—*Novena eusqueraz Purgatorioco Anima bedecatuen*a. 41 orr.

—*Curutze Santuaren Visita edo Devociñoia, eguiteco modua*, bertsutan eta Bizkal'ko euskeran (Tolosa, 1879). Eusebio Lopez'enean. 30 orr.

—*Urkiola'ko Bederatzi-urrena* (Bergara, 1933). «La Tipografía»-n. 95 orr.

—*Loinazco Martin Santubaren Bizitza labur, Bederatziurrena eta Itz-neurtubac, ondoren Gurutze-bide eta Errosariyoco Virgiña guztiz Santaren Bederatziurrenarequin* (Tolosa, 1897). F. Mugerza. 40 orr.

—*Satanasen Bandera edo Liberalqueriya osoro da madaricagarriya*. B. P. A. (Tolosa, 1896). F. Mugerza'ren irarkolan. 162 orr.

—*Eleiz-kanta Xorta* (**Donostia**, 1923). Iñaki Deunaren irarkolan. 38 orrialde.

—*Eleiza Santuaren barau eta bijiliak* (Tolosa, 1863). Eusebio Lopez'enean.

—*Eliz-Cantachoac* (**Donostia**, 1904). J. Baroxa ta Semeen irarkolan. 69 orr.

—*Erregu-Cantac S. Ignazio Loyola-coari* (Azpeitia, 1886). P. Martinez'enean.

—*Erru gabeko Birgiña Amari bere sortze garbiyaren fedeko aitormenaren berrogoi ta amar-garren urteko jubiliyuan. Donostiyako San Bizenteko beraren Billerako alabak, kantatu zizkaten laudariyuen oroimena* (Donostia, 1904). R. Altuna etxean. 15 orrialde.

—*Esku-Egundiya 1910* (Irun,, 1909). «Euskal Esnalea»-ren aginduz argitaldua. Valverde'ren irarkolan. 105 orrialde.

—*Gurutze Santu Legazpiacoari Verso berriac* (Bergara, 1854). J. Undiano'ren etxean.

—*Gurutze Bideco Neurtitzac* (Tolosa, 1891). P. Gurrutxaga'renean. 14 orr.

—*Gurutze Santu Lezocoren bederatciurrengo Gozoac* (Donostia, 1851). P. Earoxa'ren irarkolan.

—*Iñaufrietaco Canta berriac* (Donostia, 1856). Pio Baroxa'renean.

—*Itz bi Etxe Bataioaren gañean*. Bear bearrekoa emakuma ezkondu, ezkongal eta emagintzan dabilzan guztientzat. Sendatzalle batek egiña (Eergara, 1909). Errosario guztiz Santuaren moldiztegian.

—*Ama Virgiña Izazcun-goaren Imagiña Tolosaco Parroquitic bere lecura berriro jasotzeracoan ipiñitaco Itz neurtubac 1882 garren urteco agorraren amaiquean*. Sei ahapaldi ta erre-pika. Noiz ta nun gabe.

—*1884 Azcoitiarrac Itziar-era egindaco Erromeria* (Azpeitia, 1884). P. Martinez'enean. 16 ahapaldi.

—*Jesu-Cristoren Pasioa eusqueraz* (Tolosa, 1882). 30 orr.

A r a b a

1910-1935

«Euskeltzaleak bitarikoak izan ditezke: Yakintzaleak eta Ekintzaleak. Lenengoak Yakintzan bertan daukate beren elburu nagusiena, ta euskera bidez artzen dute, beste askoren artean aukeratua.

»Bigarrenak, ostera, begi biak, adimena, naimena ta biotza, erriaren bizitzan osoro jarriak dituzte; bidea ere, euskera...

»Guretzat, euskeraren bizia nolako, erriarena alako. Beraz, bear-bearrezkoa zaigu, ta ontan alegintzean gera, euskeraz gero ta geiago itz-egin, ikasi, irakatsi, irakurri, idatzi, abestu, alaitu, itundu, aserretu, lagundu..., itz batean, bizi izatea. Euskeraren bizia, danetara erabiltzez, ugaritu bear dugu, egunero, aldioro, eten gabe.

»Euskera eutsi dezagun artean, beti izango dugu zabalik azkatasunaren atea. Euskera il ezkeru, ate au itxi-itxita geldituko zaigu, ta gero...»

(Gazteiztarrak)

LABURPEN

IRRIKA TA MIRRIKA.—Au naiz bestea dala-ta, ez gara euskaldunok negar-egille makalak izan. Geure izkuntzari buruz ere, ez gutxitan, jo dugu illeta naiko. Ez dugu, orraitio, jokabide egokia. Porrot-aldian aurrak eta andrazkoak erostari ekiten; gizaseme ausart sudunak, begi-malko irazekoak txauturik, lanari oratzen dio berriz ere, supituan. Olakoa duzu garaitzaren jabe.

EUSKAL IDAZLEAK ARABA'N.—Gaur ez, ezin dezakegu esan Araba'n euskal idazlerik ez dugunik. Bi ba-ditugu beintzat, eta gurenak, gizaldi onen lenengo zatian: Olabide ta Jauregi, eskualde bat goi-goi jarteko lain diranak.

Aspaldi danik otz aundiz dabilkigu Olabide euskal literaturan: orain arte guk ezagutu dugun itzultzaillerik bikaiñenetakoa, noski. Etzekien euskerarik, eta kemenaren kemenez ikasiaz, nolako lanak burutu zizkigun! Aren bizitz-edestia begitu ezker, miresgarria da lanerako zuen garda ta sukortasuna. *Kisto'ren Antz-bidea* ta *Idazteuma* ark biurto bezela itzultzea, bai lan izugarria! Idazle onek izan du bizitzan ta ostean, izka-mizka ta jarduna. Norbait zerbaiten gaillentzen danean, aisa jaiki oi dira aurkalariaik; ezin, bear bada, iñoren alegiña begi garbiz ikusi. Eta geiegikeriak errez saldu oi dira.

Ez da arrigarri iritzi ezberdiña izatea. Orixe'k ederki: «Bakoitza bere agoaren eta belarriaren mendeko da; ta beñez bein, besteren ago belarrietara etzitzen ez ba'da, aurreratxo ioan diteke, ta bere gogoko ez dun gauzari oker iritzi». Beraz, norbere iritzi-aulkian tinko, iñoren aurka ezker-eskubi oiñazkar zirtoak erauzten jardutea, arrisku aundiko jokua duzu.

GABIREL JAUREGI.—Irakasle zan, Pisia ta Kimia erakusten zituen Gazteiz'ko karmeldar gazteai. Eta irakatsi-ala idatzi egiten zigun, ze-

kizkin eta zerabilzkin gaiak, artararte euskeraz inork erabili gabeak euskal soiñekoz jazten saiatu oi zitzaigun, ondorengo guztioi jarraibiderik bikaiñena emanik.

Or ditugu aren Pisia lenengo, ta Kimia ondoren, euskera errez apaiñean. Guztiak eder deritze lan eueri. Eta izartegiari buruz ondu ziztuen beste artikulu jakingarriak?

INGURUKOAK.—Idazle nagusi bi auen ingurumari jarri ditugu besteok ere: Leandro Jauregi karmeldar eliz-izlaria; Anjel Apraiz, «Eusko Ikaskuntza»-ren Batzar nagusietan batez ere lan asko egiña; Odon Apraiz gazteiztarra, euskaldun berri txalogarria... Zelaian, lore txikiak ere, aundien baranoan, ederto ematen dute.

1.—ERRAIMUN OLABIDE KARRERA (1869-1942)

Ettxeberria Aitak, Jesulagundiko euskal idazle onenak —Mendiburu, Kardaberatz, J. I. Arana, Meagher eta abar— aipatu ondorean, onan amaitzen du: «Lenagoko yesulagun euskal-idazletatik Glabide'ganaño bitarte ederra dago; eta ez galduan, onerako eta aurrerako baizik» (*Euzko-Gogoa*, 1958, 528 orrialde).

Idazle izugarria dugu egi-egiaz. Langille porrokatua, etzekien euskera ederki ere ederki ikasi zuena; ainbat liburu eder —Idazteuna, Kisto'ren Antz-bidea, Gogo-Iñarkunak— itzuli zizldguna. Euskaldun guzrion txaloak, beraz, merezi ditu. Guztiok artu bear gemuke, gañera, eredutzat euskal arloko lanetan batez ere. Ai, guztiok, ark ipiñi zigunaren pitin bat jarriko ba' genu euskera zelaian darabilgun auzia aurrera eramaten!

BIZITZ-MOKOAK.—Gazteiz'en sortua duzu Aita Olabide, 1869-3-15'an; odolez alere, aitaren aldetik, andoaindarra. «Gaztetandik igarri zioten —diosku Aita P. Muxika'k— bere gurasoak, Erraimun'ek ikasterako zeukan zaletasuna. Zaletasuna ez ezen, adimena ere oso aundia zuan Erraimun'ek eta gauza askotarakoa gañera. Matematiku iaioa zan, musikaz asko zekina, Izadi'ko Jakintzetan benetan trebea, izkuntza asko ikasitakoa, ukasgai guziak errez ta sakon ikasten zituna. Buru azkarrara zuan benetan Olabide A.'k, ezagutu zuten guziak diotenez» (E. G., 1958, 448 orr.).

Orduña'ra bialdu zuten gurasoak, an Jesulagunen ikaste-txean ikasi zezan; 1884'garrenerako bukatua zuen batxillerra, ta antxe bertan artu zigun Jesulagun izateko erabakia ere. Loiola'ra aldatu ta emen bi urte egin zituen asberrien artean, beste gai askoz gaiñera gerkerera ere poliki ikasiaz, geroago Salamanka'ko Apaizgaletxean sakonagotu zuen izkuntza noski. Loiola'tik Veruela'ra jo zuen Jakintza ikastera: lenengo urtea ikasi zuen emen, eta beste biak Tortosa'n: katalandarren artean bizi izanaz, katalanera ikasi omen zuen. Ondoren, irakasldntza egin zuen Gijon, Valladolid, Salamanka ta Oña'n, matematika, luingintza, Ludi guztiko Edestia, Filosofia, Izadi-jakintzak, gerkerera ta latera erakutsiz. 1896'an, 27 urteko Salamanka'n zegoelarik, euskeraz ikasten asi zan; baita, kementsua zalako, ederki ikasi ere.

Sei urte orretan jardun ondoren, Teologia ikasi zuen Oña'n, 1902'an apaizgoa arturik. Oña'ko ikasketak amaitu ta Manresa'n urtebete egin ostean, nagusiak berriz ere Ikastetxera bialdu zuten, eta udara artan ots, 1906'an, Filosofia eta Letrak deritzaion karrera burutu bear zuela ta udazken artan, bere azterketa guztiak egiñik, Lizentzia'ko Diploma atera zizun, Salamanka'ko Ikasgutik. Gijon'en egon zan gero zazpi bat urte irakasle, ta ondoren La Guardia (Pontevedra)'n, Valladolid'en, Orduña'n bizi izan zan; 1921'tik aurrera, ostera, Loiola'n egon zan.

1932'an, Jesus'en Lagundia, Erkalaren aginduz, sakabanatua izan zanean, Olabide'k Arantzazu'ko lekaideen artean eskatu zuen aterpea. Egun urduri aletan ere, jo ta ke ari zan Biblia'ren itzulpenean. Nik ezagutu nuenean, gerra sortu baiño lentxoago, Gemika'n bizi zan. Alderdi ontako liskarrak zirala-ta, Prantzia'ra jo zuen bere esku arteko lanakin, eta 1937'tik aurrera, Toulouse'ko komentuan bizi zalarik, bukatu zuen Biblia osoa itzultzea. Egun batean, ango kaleetan zear zebillela, kamioi batek kale-buru batean bira egitean, kamioiko enbor batek saka egiñik orma kontrara jaurti zuen; barruan zerbait lertu zitzaio-la-ta, 1942-9-9'an il zan.

EUSKALDUN BERRI.—Oartzabal'dar Martin'ek dioan au gogotan euki bear lukete askok. Zer, baiña? «Euskotar dirala esan eta euskera ez dakitenentzat, Olabide eredu bikalñ da. Euskotar izateak euskaldun ere izatea eskatzen du. Euskera ikasteko zer egin bear da?: nai, ez erdizka, benetan baiño; Olabide'k bezela». Ezin ob-eki esana. Nai izatea, benetan nai duenak zoztor guztiak erasten ditu-ta. Ikasle asko izan ditut nik nere bizitzan, euskeraz ikasi nai izan dutenak, alegia. Auetatik askok ederki ikasi izan dute, egiaz nai izanik, jakiña; beste batzuk, ezin izan dituzte iñoiz ere azpiratu bidean jaiki zaizkien katigutasunak. Adimenez bear bada batzuk aulagoak beste batzuk baiño? Neretzat, ez; nai motelarena duzu geiago.

Adimen argia zuen Olabide'k, baita naimen indartsua ere. Bi aimen auen uztartzetik zetorkion zirti-zartarako zuen gjarra, eta gauzarik zailenak ere aurrera eramateko bekokia.

Olabide'k etzekien, ziur asko, euskerarik umetan. Baiña, pixkanaka pixkanaka, ona nola piztu zitzaion odolean zekarren euskal sena. «Noiz asi ote zan —galdetzen du Oartzabal'ek— euskera ikasten? Iesu'ren Lagundian sartu ta lenengo bi urteetan (iesu-lagun gaialdian) orrelako ikasketarik ez zun egin. Bi urte oriek igarota, latera, elenera ta beste iakintzak ikasten asi zanean ortarako astia ba-zun edo. Baiñan gaztearoko urte aetan euskotar zala, ta euskaldun ez, eta euskotar izateak zer eskatzen zun, ots: euskaldun ere izatea, ba ote zekin? Beintzat, pilosopiakintza ikasten ari zala, ba-zekin euskotar zala, ta Olabide'ren adimen argi, indartsu ta zorrotzak laster ikusi edo zun euskaldun ere izan bearra zula. Ikusi ori ta etzan geldi egon ezer egin gabe, laster asi zan euskera ikasten» (*E. G.*, 1958, 456 orr.).

1896'garren urtea zan. Ogei ta zazpi-zortzi urte zeuzkan Olabide'k. Izkuntzetarako erreztasun aundia zuen, eta zaletasuna. Egun batean, norbaltek, Kanpion'en «Gramática de la lengua euskará», urte batzuk aurrerago argitaratua, eman zion eskura. Salamanka'n zan. Irakurri zuen Olabide'k Kanpion'ek itzaurrean diona: lotsagarri dala zaiñetan eusko odola eraman

eta euskerarik ez jakitea. Beretzat artu zuen esan ori, ta bein-goan asi zan bere asaben izkuntza ikasten. Geroago sarri esan oi zuen, txantxetan, berak Salamanka'n ikasitako euskera zeukala. Gogora zazu Larramendi'ren «Eziña Egina», Salamanka'n idatzitakoa.

Ondoren Oña'n egin zizkigun Teoloji-urteetan ere gogoz jardun zuen euskeraz ikasten, osoturik utzi zituen ikasle-lantxotatik argi dakusagunez. Edozein izkera ikasteko bearreko da gramatika bat ondo jaldtea. Zekizkin izkuntzak eta euskerak etzuten, egiaz, antz aundirik alkarrekin; baiña oien gramatika jakiteak askotxo lagundu zion bere aurretikoen izkuntzaz jabe-tzeko.

Era ortan, ari ta ari, ederki ta sakon ikasi zuen. Oiartzabal'ek onela: «Olabide'k euskera sakon ikasi zun: itzak bakoitza bere saillean, aldaskak edo alijoak, aditza. Ta ori guzia ongi aztertuz, elkarren artean duten antza ta aldea ongi bereiziz. Ta aztertu ondoren, elkartu. Ikasketa auen amari bezela, Loiola'ko iesu-lagun-ikasleentzat aditzaz lan bat egin zun: «Euskal aditza erabiltzeko atalak»; ta neronek entzun nion bein baiña geiagotan, betarik euki ezkeru, «mecano» antzeko iostailu bat zegikela, iostatzen bezela euskal aditza ikasteko» (E. G., 1958, 457 orr.).

IDAZLE.—Eguzkiak argia legez, gizonak ere daukana zabaldu bear du. Ba-dira gure artean, euskeraz sakonki ikasi arren, geroa fruturik ematen ez dutenak: iñorena maxiatu bear bada. Olabide'k etzuen orrela egin; Olabide euskeraz ikasi-ala idazten asi zitzaigun, lenengo lan pitiñak eta ostean lan eskergak, oiezak. Ortan ere, ba, eredu danik ezin akatu.

Ona, or-emen argitaratu zituen lan txiki ta bereiziez gaiñ, atera zizkigun beiñenak:

1) *Loyola'tar Eneko Deunaren Gogo-iñarkunak* (Bilbao, 1914). 147 orrialde. Ona berak itzaurrean: «Orra idaztirik pidiñetako, baña ospetsuenetako ere bat. Txikarra bal-da, baña goi-jakitez izorra: azal zakarra bai-du, baña mami goxo. Aren gun azkarra! Aren ingurrietako argia, giza-biotz-lezeak, ta Jain-

koarenak ikertzeko! Giza-barnea irabiatzeko ta Jainkoa'ganuntz bigurtzeko indar eragikorragorik iñun ez dago, gure bizitza bideratzeko argi ta bultza oberik ezta ere. Itxas-orratzak lain, noruntz arteztu bear ditugun bai bizitza osoa, baita bizitzune ta urrats bakoitza, erakusten digu, arazorik nasienetan ere; ta, geyago dana, agertzen digun bidetik aurrera jarraitzeko, indarra cz ezen, gura ta garra ere ematen dizkigu» (5'garren orr.).

Liburu eder au itzultzeko, idazti auek euld omen zituen esku artean, soilki: Kanpion'en «Gramatica», Lardizabal'en «Testamentu Zarreko ta Berriko Kondaira», Azkue'ren Iztegia, Arana-Goiri'ren «Ortografia», L. Eleizalderen «Morfologia», eta aldi artako aldizkariren batzuk.

2) *Giza-Soña* (Tolosa, 1917). 167 orrialde. Valladolid'en bizi zala osotu zuen izen aundia eman zion liburu mardul au. Gure soiñari buruz 7.000 bat itz ditu, Azkue'ren Iztegitik batzuk geienak. Onen antzeko beste liburu batzuk ere osotzeko asmotan zebillen, Giza-gogoari, Erliñoari, Kimiari, Pisiari, Lulgintzari, Izadi'ko Jakintzai ta abarrereri buruzkoak noski; Giza-gogoari zegokiona, aurrera samar eramana zuenean, «beste bide bati ekin zion».

3) *Kisto'ren Antz-bidea* (Donostia, 1920). 305 orrialde. Orduña'n bizi zala argitaratu zigun, naiz-ta 1917'rako bukatua izan. Asunzion Gurrutxaga'k eta M. Lekuona'k eman zioten eliz-iritzia. Ona Orixe'k: «Apezal gizagajoai atzen-arazten dite euskera ikastetxeetan, eta gero oztopoka ari bear. Gaur den egunean ekin diote bizkorrago euskerari. Itzaldiak erderatik eta latiñetik euskerara bear eta oraindio ez daukate Biblia euskeraz. Laister argitarako dela uste dugu *Testamentu Berria* bederen, eta urrena zarra. Euskaltzain Olabide ortan ari duzu aspaldi. *Gogo-iñarkun*'etan laxko, *Kisto'ren Antz-bidea'n* samurrago, geroago ta ixurberago. Erriarentzat ez baino Erdiko jakintsuentzat ari da, ta barkakizun ez ezen goresgarri ere ba da. *Giza-soña'*z egin bezala, beste gaietaz ere ori egitea du xede. Erriaren

eta bere tartean daudenentzat ari ditu lan oriek. Orrelako gaietan ari diranen lana, beeraxegokoak urtuz-urtuz eratxi bear dute erri-zokoraino» (*Euskalerrriaren Alde*, 1927, dagonilla, 251 orr.).

4) *Itun Berria* (Bilbao, 1931). Verdes-Atxirika'renean. 716 crrialde. Esku artean zebiltzan beste lan guztiak zokoraturik, 1921'an, Loiola'ko ixiltegian, asi zitzaigun Olabide *Itun Berria* osorik euskeratzen. Lendik ez genuen euskaldun katolikuok Itun Berri osorik euskeraz; Ebanjelio batzuk bal, balña *Itun Berria* deritzaigun liburu santu bilduma ori osorik ez. Gazteiztar nekegaitzak egin zigun lan ori, geroago *Idazteun* (Biblia) osoarena bezela.

Itzultzaileak au dio sarreran: «Idaztirik ez zaigu auek bezaln onurakor ta bear bearrekorik. Beude, noski, ayetatik yetxitako argiz ta adorez gizon yakintsu ta zintzoeak atontzen dizkiguten irakurgayak. Eguzkia dugu argitarako, eguratsa arnasarako. Illargiak gauez ez digu argi apurtxo ori ere eguzkitik artuta gurera okertuz balzik. Yainkoaren idaztiak eguzlda dira; gizon onenak illargia. Eguzkitan dagonari, illargia zertako? Eguzkia etzandakoan, illargia on zaigu. Landa zabalean, egurats erdian, arnasa erraz ta osasuntsua; etxe barnean, zall, ta balta eziña ere, leyo edo irrikituetatik landako eguratsa sartzen ez ba'da. Zeruko eguratsa, zeruko eguzlda, Yainkoaren idaztietan daukagu; gizonenetan illargia ta leyoak besterik ez. Ona on; bañan obea obe; ta gizakumeak baño Yainkoa obe dan giñoan, Aren idaztiak ere ayenak baño obe ta etekintsuagoak ditugu» (II'garren orrialdean).

Eta Orixe'k: «Yesukristoren Berri Ona beste liburu santurik irakurri nai dutenentzat, ba dago or zer irakurri ta zer ulertu. Yondone Paulen idazldak batez ere, atsegin izango zaizkie ikasiagoari. Latiña ongi dakiten apalzentzat ere errezago derizldot Olabideren itzulpena. Sall ontan lan gogorra egin du». Eta darabillen euskerari begira: «Euskerara bikain itzulia dago. Orain arte egin ziran itzulpenen aldean lana ta nekea ugari du. Besteen lana urruñatu bage, ta beti begien aurrean idukita be-

ren yoera eman dio Aita Olabidek. Onetaz aurrekoak, oztoporen bat billatzen zutenean, itzulinguru egiten zuten geienez, al zuten bezala, beti argalkiro, Yalngoaren itza adieraziz; onek ordea, oztopoari bekoz beko begiratzen dio, ez dio egika edo aldear egiten, eta bidea zuzen urratzen du oztopoari bizkor alde-ragiñez» (*Jesus'en Biotzaren Deya*, 1931, azilla-gabonilla, 338 orrialde).

Eta «Euzkerea»-k: «Olabide'ren idaztija ezta edozelan irakurri leiken idaztija, astiro ta arretaz baño. Bertan dagozan gayak, sakonak eta irakaste aundikuak diralarik, eurok auznartu ta mamurtu biar dirala esan dalkegu... Darabillan euzkerea, euzkera garbija ta polita da: Gipuzkoa ta Goiko Naparra'n erabilten dan euzkerea. Joskera laburra ta erraza, edonor euzkeldunek ondo ulertu-erakua... Idazti ederra, egi-egitan, euzkeltzale jakitun eta lantzale onen idaztija. Euzkera gure ele maitia arrotu leiteke orrelako ume mardul eta osasuntsubagaz. Onen antzeko idazti asko biarko ebazan euzkotarren eliak, bixitza sendotu ta buruba jasota edozein ele-aurrian aurkeztu al-ixateko» (*Euzkerea*, 1931, garilla-15, 675 orr.).

5) *Itun Zar eta Berria* (Bilbao, 1958). Grijelmo'renean. 2.198 orrialde. Olabide'k, il zanean, Toulouse'n utzi zuen itzulpen au. Geroago, Baeza Aita jesulagunak, Gaztela'ko Nagusi izendatu zutenean, ori argitaratzeko erabakia artu zigun, eta Formosa'n zegoen Etxeberria A. ortarako egoldena zala-ta, andik Euskalerrira etorri-azi zuen. Aita onek, beraz, egin zituen Bibli oso onen argitalpena gertatu ta aurrera eramateko bear ziran gaiñetiko lan guztiak.

Sarrera bezela jakitekoen artean au jartzen digu: «1. OLA-EIDE Aba yesulagun Euskaltzaliñak, Itun Zarra, oso-osorik euskeratu zun. Arek utzitako eskuzkoetan, unetxo bat edo beste ikus diteke itzuli gabe. Orrelako utsuneak, al danez osatu dira. 2. ERESIAK, laterazko itzulpen berria Olabide'k ez zun eza-gutu. 3. 2.085-garren orrialdean, 9-garren eresiko 21-garren txatalari ipiñitako oarrean esaten danez, ERESIETAN, eberkeraz

bezela, zenbakera bakarra aurkituko duzu. Orrela, eresietako 9-garrena ondoren, laterazkoa batez atzerago dago, 147-garrena-raño. 4. Aurren-aurreneko itzaurrea eta idazti bakoitzarenak, eta idaztietako sail-buruak, bestek orain erantsiak dira. Bai Itun Zaar'eko oarkizun geyenak ere. 5. Oar bat edo beste Olabide berak gerturik zeukan: sail-buruetan ere bai mordo bat, batez ere lenbiziko idaztietan Yob'eneraño. 6. Itun Berria, aldaketa aundirik gabe, 1931-garren urtekoa da. 7. Zenbaki yarraikera, euskeraz eta idazteunaren yatorrizko beste izkeratan ezin bat eta bera izan. Bilbea, izkuntza orietan eta gurean oso bestelakoa da-ta».

Lan ederra, zein mamiz eta zein azalez. Ona, Euskalerrriak aspaldi itxaro zuen Bibliia katolikua, oso-osorik euskeraz argitaratua emana. Augatik idazten du bertatik L. Mitxelena'k: «Emen dugu azkenik, A. Etxeberria eta beste zenbaiten kupidarik gabeko lanari eskerrak, apain baiño apaiñago argitaratua, A. Olabide zenak urte eta neke askoren buruan euskeraz eman zuen Biblia osoa. Iñolaz ere, euskaldun batek letra-saillean iñoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean. Itzuli ere etzuen nolana egin, gogo beroz, arreta andiz eta jakite ugariz baizik. Maiz eduki bearko dugu gogoan eta esku-artean liburu au aurrerantzean» (*Egan*, 1959, 85 orr.). Eta Orixe'k: «Ua lako gizonak bear genituke gizaldi bakoitzean bi, euskerari bultzaldia emateko. Fisika ere ba-zedukan euskeraz egiña, berak mutikceri irakatsi zien gaia» (*Egan*, 1959, 188 orr.).

ITZULTZAILLE.—Oartu al zerate? Emen aitaturiko lan guztiak, itzuliak dituzute, *Giza-soiña* ezik. Lan larriak, baiña itzuliak. Beraz, galdetu dezakegu bildurrik gabe: «Nolako itzultzaillea cte genuen?» Iru euskal idazle dakazkizut aurrera, auen iritziak, gai oni buruzkoak noski, naikoa dituzu-ta.

M. Lekuona'k onela: «Gure euskaltzale gotorraren ezagun-garririk ederrenetan bat, auxe derizkiot nik: Aita Olabide, gure lexikolaririk jakintsuena genduan. Nere iritzia gai onetan beti

auxe izan da: Olabide'k Azkue'ren Iztegi aundia oso-osorik bere buruan zeramala». Orren galñ, liburuak irakurriz eta, Loiola'n zegoelarik batez ere, ari ta oni itanduaz esakun jakingarri asko bereganatu zituen. Biltzaille zan, bada, bera ere; beretzakotzaille ta ausnartzaille: «bere lanetarako itzen ausnartzalle ta bere-tzakotzalle bortitz».

Itzul-lanean ari izan gareanok ondo dakigunez, itz bat, esaldi bat zuzenean itzuli bearrean, itzul-ingurura jo oi dugu sarri, «perifrasis» bitartez gauza azaltzera. «Aita Olabide'k —dio M. Lekuona'k—... zearka ibilii gabe, zuzenean iturrira joko zuan; Euskera zabarrera edo Euskera eskutura; eta, zuzen-zuzenean andik artuko zuan, eskuartean bear zuan itza, eta uraxe ipiñi bere lekuan. Guk, askotan ez-jakiñez edo alperrez, eta iñoiz baita bildurrez ere, erabiltzen ez deguna, erabilliko zuan berak lasai asko. Ori zan aren egoera, aren postura, olakoetan... Nik ez dakit zeñek esan zion Olabide'ri, Biblia euskeraltzeko lan ortan asi zedilla. Zana zala, langille bikaña aukeratu zuan. Nekez arldtu zezakean ortarako gaiago zanik iñor ere... Izkuntzaren ezaguera ziatz, eta sakon, eta zabalari nagokio orain, Lexikoaren ezaguerari. Iñor ez bide ortan Olabide bezelakorik... Egia da bide orretan etzala bera bakarrik ibilli. Izan zuan lagunik; izan zuan, bear bada, gidaririk ere... Olabide'ri buruz nik izan dedan iritzi bat, auxe izan da: bere bideetan, batipat, Orixe'ri jarraitu izan ziola. Gidari ona, kontsejatzalle argia. Iritzi-eskatzallearen aurrean uzkurtuko ez dan iritzi-emallea... Orixe'ren otin aundia du, ez dakit nik zerk Olabide'ren idaztankeran. Erabiltzeko era errezean. Lexikoaren ezagueran, besteak beste, Ortantxe bi-biok elkarren uztar-lagun jator izan balt-dira beti» {*Euzko-Gogoia*, 1958, 514 orr.).

Bal, Orixe ta Olabide lagun miñak ziran, euskal arloan batez ere. Lekeitio'ko Olerri-Egunean (1936), ango Udaletxeko areto zabalean mal berezian bazkaldu genduen Orixe'k, Olabide'k, Aita Jose Domingo Ugartetxea, karmeldar musikalaria eta nik: arratsalde guztian ez giñan elkarregandik banandu. Orixe'k asko

lagundu zion Olabide'ri Biblia itzulpenetan bereziki. «Itun Zarra —diosku Orixe'k—, nik ateratzen bainirion bost aldaki, ark itzuli-ala». Ta onela didaz: «Olabide aipatuz geroz «eusker berria, berak asmatua» esaten dute ez-ikasiek. Olabide'k ba-ditu zenbait itz berak ederki asmatuak; balfian, ariora, itz zarrez umelduak askoz geiago ditu, ta oriek gogortzen dute, batez ere, Olabide'ren euskera, ez-ikasiendako. «Norentzat ari zera euskeraz idazten?» galdegin zion bein beste jesuita batek, eta «dakinentzat» erantzun zion. Beste errietan ez dira ioaiten irakurtzera izkuntza ikasteko, artarako liburuetaara ezik. Badakite, agiz, idazlearen izkuntza... Zilegi bedi Olabide'z erabateko iritzia. Beude Kempis, ugari arrigarria, Giza-soña ta gaiñerakoak.., Liburu zallan artean or dauzkazu Dabid'en Eresiak. Zeiñ ederki itzuliak! Elizaren oralngo itzulkizun berriarekin antza aundia dute, lentsxago egiñak ba'dira ere. Arritzeko da, euskeraz ez-ezen, *exegesi* edo adierazte ialdtean zein alntzinatua zegon! Eta izkuntza zallera bddin ba'goaz, or daakazu Lebi'tarren Liburua, dena korapilloz betea. Errezago baita *zeina'ren* bidez euskerara biurtzea, Duvoisin'ek eta bezala. Eta Iob'en liburua? Arrigarri da! Ba'ditezke, eskierki, bein, bietan eta geiagotan irakurriko dutenak. Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, xehe-meherik txikiena ere galtzen uzten ez duna» (*E. G.*, 1959, 519 orr.).

L. Mitxelena'k bere iritzi zorrotz xamarra eman zuen Olabide'ren itzulpenez. Onen itz berri ta zarrak, euskalki-nastea ta onako uts batzuk maxiatu ondoren, izkerari buruz onela dasa: «Olabide'ren izkera, aln nabarra izanik azalez, gipuzkera soilia da mami-mamiralño jo ezkerero.., Alde onak baditu Olabide'ren izkerak, alde onak ugari, txit onak eta onenetakoak. Gaia-ri begira, aurrenik, esan dudan bezala, emen erabilh den arreta eta zeaztasuna. Alde onetatik *longe princeps* da Olabide'ren Bibliaren euskal-itzulpenen artean. Obe du ori aldamenean euki Izkribu Santuak euskeraz aipatu bear dituenak. Izkuntzari dagokionez ere, dudarik gabe, ezin-utzizkoa eta miratu bearrezkoa

da aurrerantzean euskal-aberastasun zaar eta berrien bilduma jori au. Ederki ikasi zuen euskeraz Olabide'k. Eta buruz, tajuz ta adorez, ez esku ariñez nekearen nekez baiño egiten den lanari gertatu oi zalonez, arena ere iraukorra izango da. Joera ortakoen artean beñipein gailleen eta nagusi jasoko du burua» (*Egan*, 1959, XIV alea, 91 orr.).

OAR JAKINGARRIAK.—1) *Langille* amorratua genduen, lenengo. Au ez du iñork ukatuko. Ortarako nola ote zan gorputzez? Nik ezagutu nuenean, osasuntsu ta bizkor zegoen. Aita Larra-koetxea'k, beste langille txalogarri batek margozten digu ederld gazteiztar euskaltzale bipilla: «Gizon xalo ta zuzentzazale —dio—, langille amorratu, lanari etentzaka ekitekoa... Soñez ez garrastarik, txikitxu baño, sendo, zabal, lodikote, sur-arte, arpegi-gorri; ez bape arro, edonori itz egiteko baño» (*E. G.*, 1959, 539 orr.). Gogoz, ostera, egin zigun lan eskerga dugu lekuko; ortarako, izan ere, naimen sendo, kementsua bear. Orduak eta urteak, lan-maltik zirkiñik egiteke igaro bearra du iñoren lanak, Biblia lako lanak batez ere, euskerara biurtzen ari danak. Lan aundi orri eskerrak, nolako laguntza duten elizgizonak!

2) *Euskaltzaiña* izan zan, osoa artan ere, alkarte au sortu ta laster, 1919-9-21'an autatua. Lenengotan, Euskaltzalndia'ren Batzordeko zala, Lur-izenbatzaille edo toponimi-salllean lan egin zuen. Loiola'n bizi zan orduko ta «Euskal Esnalea»-n eta «Jesus'en Biotzaren Deya»-n idazten zuen. Aomen larria zuen euskaltzaiñen artean: Azkue'k eta Olabide'k berrikuskatu ta berriarrazi zuten Euskaltzaindiaren barneko araudia. Beti joan oi zan batzarretara, baita makiñatxo bat txosten jakingarri bertara eraman ere.

3) Ba-ditu *akatsak* ere Olabide'k. Eta ez da batere arritze-ko; alnbat idatzi duen batek naltaez utseren batzuk izan bear: Jainkoa soilki uts-eziña. Gazteiztarraren lana aztertu duten guztiak goretsi izan dute; banakaren batek —ausarta izan bear— aurkitu dio olako akatsen bat. L. Mitxelena'k, adibidez, auek

idoro ditu: 1) j-ren ordez y—yo, yaso— darabillela; 2) iñoiz goora ordez gora; 3) erderatiko itzak ez ditu zearo bazterten, baiña *ziape* ta olakoen ordez *yeben* ta darabiltza; 4) «eunka—dio— dira liburu onetan, millaka ezpadira, itz berriak, zaararren zaarrez aaztuak edo bazterren batean ezagunak badira euskal-literaturan iñoiz sarrerarik izan ez tutenak: *adei, akalde, alatz, antxintxika, asketsi, atuxa, bakaldun, dedu, deunetsi, gaizkatu, gentza, ludi, ukar, ukuzi...*» Egia ote? Itz geienok, gaur ala ere, zabalxe dabiltz euskal idazleen lumetan; 5) ba-ditu itxura txarreko esaerak: *mintzo. egiten zitzaien* ta abar; 6) baita esaldi batzuk ba-ditu ain ongi ez-itzuliak.

4) Izan ditu *gorespenak*, eta ez gutxi. Zuzenak eskatzen diguna baita bakoitzari berea ematea. Olako lanak, izan ere, euki litzakean utsak, dauzkan obari ta edertasunen aldean ez dituzu uskeri ezerezak baizik, eta zentzunez datozki andi-este ta goraltzeak. Orrela egin zuen «Euzko-Gogoa»-k, esate baterako, 1958'an, 5-6 zenbaki mardulak, A. Olabide'ren lanari oso-osorik eskeiñiaz. Bertan idatzi ziguten P. Muxika'k, Oiartzabal'dar Martin'ek, Urrestarazu'tar Andoni'k, N. Etxaniz'ek, Ibiltari'k, P. Abalegi'k, P. Lafitte'k, Patxi Altuna'k, Altube'k, Ibargutxi'k, M. Lekuona'k, Orixe'k, Etxeberria'tar P. aitak, B. Larrakoe-txea'k, eta Zaitegi eta Plazaola'tar Jokin'ek. Erriak ere, ots, bere jaioterriak egin dizkio iñoiz bere omenaldiak, 1959-3-15'an Teatro Printzipalean egindakoa, adibidez.

5) Zenbait alderditik begiratuta, *eredu* bukain dugu Olabide. Gogo sendoko gizaseme langille dugunez ez bakarrik; bere idatziak oro ere eredutzat ar genitzake, *Kisto'ren Antz-bidea* ta *Idazteuna* batez ere: irakurri ta goxoago iruditzen zaizldgu. Ez duzu au lar esatea. Emen Larrea'ko prailleok, goizeko zazpiretan alkar-meza esaterakoan, lenengo irakurgaiak beintzat, urteetan, Olabide'ren *Idazteuna'tik* egiten ditugu; aurrenik zail samarrak zitzaizkigunak, gaur gozoki datoz gure belarrietara. Itz berri ta zaarretatik naiko ondo ulertzeko, berrogei bat itzeldn kenturatzeta aski duzu: itz bakoitzari bere esan-

nal bereizia ezarri nairik, beti darabilzki bat-berak. Aditz-erak ongi taxutuak ditu; joskera ere berdintsu, ez dizu utsik egingo. Lena diot berriro ere: utsak uts eta esanak esan, Olabide eredugarri dugu.

L. Mitxelena'k ederki: «Itz batean, eredutzat artzekoa dugu Olabide. Giza-eredu jatorra dugu, gutxi bezalakoa, euskera ain ongi ikasteaz gaiñera orrenbesteko lan ikaragarria egin zuelako. Euskaldun berri izanik eragozpen geiago zuen ezkerero, ohorea ere neurri andiagoan dagokio» (*Egan*, 1959, 92 orr.).

(Ikus G. Lakonbe, RIEV, 1919, X, 133 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1957, 125 orr.; *Euskera*, 1920, 30 orr. ta 1954, 37 orr.; *Euzko-Gogoa*, 1958, 5-6, 448'tik aurrera; L. Villasante, HLV, 359 orr.; Angel Goenaga, *Breve Exposicion sobre la figura del R. P. Raimundo Olabide*, S. J. (Gazteiz, 1959); euskeraz ta erderazko liburuxka; Orixe, *Egan*, 1959, 186 orr.; Omaetxebarria, *Euskera* (Zarautz, 1959), 267 orr.; Felix Areitio, *Estudios Eclesidsticos*, 1959, 347 orr.; P. Lafitte, *Autour de la Bible traduite en basque* (Baiona, 1959); Juan Martin, *Escritores euskericos*, 138 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 221 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 235 orr.),

2.—LEANDRO JAUREGI ALTUNA (1872-1951)

Euskal literatura onen irugarren aleari kritika egitean, A. Irigarai'k onela zioan: «Euskera erabili ez duten izen parrasta bat sartu ditu egileak, izkuntza ikertu edo sustatu dutelakoen estakuruan; liburuaren izenburuak tinkoago lotzen eta mugatzen du gaia» (*Diario de Navarra*, 1974-6-27). Eta Unamuno, Jaurgain, Saroihandi, Hérelle ta onakoak alpatzen dizkigu. Ez dago txarto. Neretako, ala ere, ikerle ta sustatzaille bost lerro bada-ezpadako idatzi dizkigutenok baño arrabete batzak gorago daude gure eliz-izlari nekegaitzak, eta merezi dute goieneko aipamena beintzat.

Orrelakoa dugu Aita Leandro —Ordena barruan. A. Zezilio deitzen genion— karmeldar jatorra ere: etzuen ezer idatzi bere itzaldiak izan ezik, baiña ainbat on egiña da, erriz iztun ernai ibillirik batez ere.

Aramaio'ko Barajuen erritxoan munduratu zan, 1872-3-13'an. Larrea'n artu zuen Karmen'go Amaren jantzia, 1888-3-19'an iru botoz bere burua Jainkoari eskeiñiz. Eliz-karrera bukatu ondoren 1897-12-19'an eman zuen lenengo meza. Markiña'ko komentuan bizi izan zan urte askotan, arimen mende zerbitzu ederra egiten zuelarik. Nabarigarri da, batez ere, 1915-5-24'an berak sortu ta urteetan loraldi bikalñean euki zuen Pra-ga'ko Jesus Umearen Analdia. Markiña'k ondo daki gaur ere nor zan Aita Zezilio. Berton il zan 1951-1-13'an.

Aita Villasante'k beñola —1971-9-5'an— Aramalo'n esan au ere galzki ez datorkigu emen: «Euskal idazleak —nahiz olerkari, nahiz teatrogile nabiz prosistak— eman dizkio Arabak ama euskerari, bal joandako mendeetan eta bai gure egunetan ere. Juan Bautista Gamiz, L. Latierro, Barrutia, Ulibarri Galindez, Jauregi karmeldarra, Olabide jesuita, ta abar. Ez. Euskera ez da arrotza Araban. Bere berea, etxekoa du Arabak gure mintzaira. Gaur ere euskaltzaletasunean arabarrak ez dira azkenengoak. Badakigu arabar asko salatzen dela euskera ikasten» (*Euskera*, 1972, 155 orr.).

3.—ANJEL APRAIZ BUESA (1885-1956)

Gazteiztarra. Etzuen zer aundirik euskeraz egin; baiña bai euskal galetaz salatu zan eta ez gutxi ere. 1918'an, adibidez, Oñatin euskal Batzar nagusiaren buru ta ardatz bera izan zan; ortik sorru zan gero «Eusko Ikaskuntza», eta erakunde ontako idazkari bera izan, itzali zan arte. Geure ta munduko zentzunez galñezka —norbere doalak ezagutu ta ortik emateko gal, gerturik, azkar—, orixe oi duzu gizadiari egin genezaloken emaltzik txairoena.

Deusto'n eta Salamanka'n ikasi zuen. Eta urteetan Valladolid ta Barzelona'ko Ikasgu nagusietan irakasle izanik, La Koruña'n il zan batxiller karreradunen azterketa baten aurkitzen zala.

Maite zuen Euskalerrria. Eta idatzi zituen lanik geienak euskal galetaz izan ziran. «Erritoin de Aranceta» ez-izenez izenpetu oi zituen, ez gutxitan, bere lanak. Asko idatzi zigun or-emenka. Ona Euskalerrriko gauzai buruzko batzuk: «El arte popular en la vida vasca» (1930); «Biblioteca vasca» (1923); «La Universidad Vasca» (1918), iru edo lau itzaldia; «La casa de los Escoriaza-Esquivel, en Vitoria» (1953); «La Cerámica de Busturia» (1952); «Cursos de verano de la Sociedad de Estudios Vascos» (1926); «De cultura vasca» (1917); «Un día en Zuberoa» (1920); «La labor del pueblo vasco ante la cultura universal» (1919); «Notas de viaje» (1917), zazpi bat artikulua; «El romanico en Alava» (1911); «Los timpanos de la catedral vieja de Vitoria» (1953); «Triforios, tribunas y galerias en los caminos de Santiago» (1949); eta alnbat liburuen iritzi-emate.

Aldizkari auetan idatzi zuen baltik bat: *Euskal-Erria* (olerkiak batez ere), «Eusko Ikaskuntza Deya», RIEV, «Estudios Universitarios», «Euskalerrriaren Alde», «Boletfn del Seminario de Estudios de Arte y Arqueologia», «Vida Vasca», «Hermes», «Boletfn de la Sociedad Vascongada de Amigos del Pals», «Ateneo», «Bulletin du Musee Basque», «Archivo Español de Arte», «Boletfn de la Insritucion Sancho el Sabio», eta abar.

(Ikus *Boletfn de la Inst. de Sancho el Sabio*, 1957, I, 101 orr.; J. Aralar, *Bol. Amer. E. V.*, 1956, VII, 157 orr.; F. Arozena, BAP, 1956, XII, 223 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 351 orr., ta *Diccionario*, An-Artazu, 170 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 196 orr.).

4.—ODON APRAIZ BUESA (1896-....)

Jakintsua ta euskaltzale fiña. Gazteiz'en jaiio 1896-3-5'an. Kondaira zientzietan Salamanka ta Madrid'etik Lizenziatua ta Irakasle. Paris'ko Ikasgu Nagusian (1920) ta Zurich'ekoan (1921) ikasi zuen batez ere. Ondoren Euskaltzaindiaren arduraz bialduta, Turin'en eta Pramollo'n Linguistika-legeak eta izkera-jeograri sakonagotu zitun. 1936'rarte Eibar'en egin zigun irakasletza, gero La Laguna'n, Reus'en efa Gazteiz'en.

Euskeraz etzekien arren, ikasi egin zuen ari ta ari, ta ederki idazteko eratan ikasi ere. 1929'an, Gatzaga'n egin zan euskal jai batean poliki diosku berak; «Euskaldunak: Arabarren ize-nian anaitasunezko agurra egin gura dautzuet. Baña aurrenez parkamena eskatu biar dautzuet, euskeldun barri onen gaizkiesan edo utsekaltik. Batezpe, Paguagua yauna lako izlari sutsu ta ugaritsu baten ostean berbaitia ezta gauza erraza. Badagoz Araban euskerea dakiyenak gurasoekandik artuta Aramayon, Billerla edo Legutianon, Barrundia, Zigoitia ta Laudio aldean. Badagoz beste batzuk umetan erdeldunak izanik, euskerea ikas-teko alegiña egin dogunok. Baña badakixube Araba geyenian euskerea gure antxiñeko izkuntza edo berbetia, ta euskel-oiturrak aspaldi galdu zirala zoritxarrez, batez be Gazteiz edo Bitorixa onduan eta Arabako Egoaldean. Bana Arabako euskalzaletasuna etzan ii, iozorruan geratu baño, eta ori erakusteko irasi zan Gazteiz bertan ta Eusko-Ikaskuntza barruan, «Baraibar» izendun batza. Batz orrekuak, gaur Gatzagara etorri geranok, batzuk euskeldunak yayotzez dira, beste batzuk euskeldun bariak gara, bestiak euskerea euren abizen edo apelliduetan ta euren biyotz, adimen ta gurariyetan euskaltzaleasuna daruenak. Ori dala-ta, gaur Gatzaga'ra etorri gara arabar euskaidun ta euskaltzaleak, beste euskaldunei besarkadea ekarteko» (*B. de Soc. de Estudios V.*, 1929, III, 28 orr.).

Onako aldizkarietan azaldu zitun bere lanak: «Arabarra», «Bizkaitarra», «Euzkadi», «Euskalerrriaren Alde», «Yakintza»,

«Tierra Vasca», «Gure Herria», «RIEV», «Homenaje a D. Julio de Urquijo», «Homenaje a C. de Echegaray», «Euskal Eснаlea», «Ateneo», ta abar. Erderaz berea du beste lan txikiago askoren artean Barzelona'ko Gallach Institutoak argitara zuen *Geografía General del País Vasco* (Barzelona, 1929).

Euskaltzaln urgazlea. 1919'ko urrillaren 26'an Donostia'n Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, arratsldeko batzarraldian, Araba'tik berau izan zan aukeratua. Gaur euskaltzain ohorezkoa duzu, garai artan bertan Bizkal'tik eta Gipuzkoa'tik autatukoen G. Manterola ta L. Lopez Mendizabd'ekin batera.

(Ikus E. Velasco Lopez Cano, *Ateneo*, Gazteiz, 1919; J. San Martin, *Apendice a Escritores euskericos*, Bilbao, 1969, 10 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 568 orr., ta *Diccionario*, An-Artazu, 170 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 198 orr.).

5.—GABRIEL JAUREGI URIBARREN (1895-1945)

Gizaseme argia ta langillea. Irakasle ta irakasten zuen gala euskeraz ausnartu ta euskeraz erabilli zuena. Eredu xixkalari bear luke guretzat.

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Aramaio'n Etxaguen erritxoan, jdo zan Aita Gabriel karmeldar idazle bizkorra, 1895-5-27'an. Luziano izena ipiñi zichten bataioan; Gabriel ordena barrukoa zuen. Bere gurasoak euskaldun onak eta Jainko-zale obeak ziranik ezin dezake iñork ukatu: bi seme karmeldar izan bait-ziran, beste bat apaiz, eta laugarren bat lekdme.

Larrea'ko latin-ikastetxean ikasi zituen gizatiar galak, eta ondoren, karmeldar izan nairikan, Karmen'go Amaren jantzia artu zuen ementxe bertan, 1913-8-5'an. Gazteiz'en eta Begoña'n ikusi zituen Jakintza ta Teolojia, 1922-9-17'an apalzgoa arturik.

Baserrian jaioa zan eta, kdekoak bdño aukera ta tertzio obeak izan zituen izadiko gauzaz zdetu zedin. Eta gaztetxotik

zekarren, ain zuzen ere, pisi-gaietarako griña ta erreztasun izugarria. Eliz-karrera bakatu zuenean, bada, tartekorik gabe Gazteiz'era bialdu zuten, ango ikasle gazteal Pisia ta Kimia erakutsi zitzaizkien. Orrela egin zuen urte pilloan, 1936'rarte. Guk guztiok beragandik ikasi genitun izadi-gaiak; oso adeitsu zan, eta ba-zuen trebetasuna ikasleai erakusten zituen galenganako zale-tasuna erantsiteko.

Gudaldian emendik ibilli zitzaigun. Eta zakarraldi ura bukatzean emen Larrea'ko komentuan geratu zan egonez. Emen-txe bizi izan zan zortzi bat urtez komentuko diru-zain eta erriz erri, aitorle ta izlari, arima arduradun. Eta berton il zan 1945-2-2'an.

EUSKALTZALE.—Egizkoa dugu beti ere euskaldun esaera au: «Etxean ikusia, umeak ikasia». Aita Gabriel'en gurasoak euskeraz mintzatzen ziran, eta semeak ere euskeraz ikasi bear. Karmeldar bi anaiok, Gabriel eta Gotzon beintzat, euskaltzale jatorrak izan genitun. Ikasle zirala ere, lendik zekitena, ikasiz sakondu ta obe-azitzen alegindu ziran, eta ondoren ainbat lan burutu izan dizkigute; Gotzon gaur ere Txile'n bizi da langille, euskal gaia Mn antzi gabe, urrengo alean esango dugunez.

Aita Gabriel'ek bere bitiza laburrean utzi zizkigun lanak:

1) *Pisia* (Bermeo, 1935). Gaubeka'ren irarkolan. 301 orrialde. Argazki ta marrazki askoz ornitua. Mailla bitan dago zaturik: 1) Gorputzen mekanika, ta 2) Kulunkaen mekanika. Lenengoan atal auek sartzen dira: a) *Indarriztia*; b) *Legorritzia*; d) *Lobeliztia*, ta e) *Lurrunitzia*. Bigarrenean, ostera, auek: a) *Otsiztia*; b) *Beroiztia*; d) *Tximistiztia*, ta e) *Argiztia*. Atal bakoitzaren barrenean, galari dagokion iztegitxoak dakar.

Pisiak eta Kimiak jazokun edo gertakizunak azaltzen dizkigute; baiña bi ikasgai auetan ba-da jazokunai buruz ezberdintasuna. Onela azaltzen digu egilleak izadiko bi agerkarion arteko aldea. «Izadiko indarrak —dio— eta indarrok ekarten dabezan azaletiko yazokunak azaltzen dauzan iztia PISIA da. Arria, bere astuntasunez, lurrera yausten da; alzeak bultz-egiten dau;

aiztoak ebagi; arran eta txiliñak zarata egiten dabe... Guztiok yazokunak dira, ta yazokunck, yazoteko, indarra bear dabe. Yazokunak zelan eta zergaitik yazoten diran PISIA'k azaltzen dau. Yazokunak bitarikoak izan leitekez: gauzearen izatea aldatzen dabenak, eta gauzea, izatez bardin itxita, antzez bakarrik aldatzen dabenak. Lenengoak KIMI-yazokunak dira, bigarrenak PISI-yazokunak. Pisi-yazokun ostean, gauzak, izatez, lengo-lengoak gelditzen dira, esate baterako, arria lurrera yausten danean, len-lengoa gelditzen da arria; aiztoak ogia ebagi arren, aiztoa aizto, ta ogia ogi dira. Kimi-yazokun ostean, barriz, gauzai izatea aldatzen yake, esate baterako, egurra erretan danean, egurra ezereztuta gelditzen da; ta, egurraren orde, autsa ta kea agertu, au da, egurraren izatea galdu ta izate barria agertzen da. PISI onetan Pisi-yazokunak bakarrik aztertzen doguz. Ta Kimi-yazokunak KIMI'rako izten doguz» (*Sarrera*, 17 orr.).

2) *Kimia* (Bermeo, 1936). Gaubeka'ren irarkolan. 255 orrialde. Ainbat marrazki ta dibujoz apainduta au ere. Egilleak emen aztertzen ditun arloak iru dira. «Kimiak —dio— iru arlo nagusi daukoz. Lelengoan Kimi-yazokune guztien zuster ta oñarriak dakarz, ta GUZTIEN KIMIA deritxo. Bigarrenen gorputz ekar edo bakar eta alkartuen kimi-yazokunek aztertzen dauz, ta ME edo METAL-KIMIA deritxo. Irugarrenean IKAZGAIA sartzen dan gorputz guztiak darabiltz, ta arlo oneri IKAZGAI-KIMIA deritxo» (33 orr.).

Izadi galezko bi liburu ederrok osotu ta argitarazteko, galari ta euskereari dagokionez, Aita B. Larrakoetxea'ren laguntasuna izan zuen; diruz, orde, Gernika'ko Aboitziz-Musatadi sendiak lagundu zion.

3) *Jakindia*. Lan eder au, Izadi-jakintza lana alegia, erde-raz «Ciencias Naturales» esaten zalona, gerturik zeukan gerra aurretxoan ere, argitaratzeko asmotan. Etzuen argitara eman, ta gaur ez dakigu zein zokotan datzan, betiko austua ezpada.

4) *Izarren goraberak* (Zornotza, 1931-1936). Sei urte aue-tan *Karmen'go Argia'n* atera zituen lanak dituzu. Ia illero idaz-

ten zuen zerbait, labor ta jakingarri. *G. Aramayo* izen ordez firmatzen zuen. Ikus zatiño au: «Santijago'ko izar bidea: Urteko edozein sasoietan izarrez apainduko bidea, zeru goietan dakus. Izar moltsozko bide luze au urte guztian ezta egoten Sanrijagora begira. Uda aldean egoaldetik iperralderuntz. Baña neguan, azillatik epailla bitartean sorkaldetik iper-alderuntz lengo, ta gero sorkalderuntz iperraldean egoten da. Augaitik neguan bakarrik Santijago'ko bidea diñosku, udan izen ori guzurrezkoa dogu» (*K. A.*, 1932, urrilla, 351 orr.).

Orretaz gaiñera, beste gal asko, baiña beti izadiko jazokunal begira, azaldu ta argitara eman zizkigun *Karmen'go Argia'n*: Ikazkintza zala, iturriak zirala, dirdir-entzuketa zala, erleak nalz indarra zalarik. Zabaltze lan errez ariñak, gure baserritarrentzat batez ere.

IRITZIAK.—Aita Gabriel'en lanok, urte aietako euskal berpizkundearen frutuak ziran, ziur asko. Barruti askoko lurra irauli gabe geunkan oralndik, eta udaberrian nekazariak bezela, goldaketa gogor leiatsuan zebilen jendea; urlia zebillen ezkerreko soroan, sandia eskuikoan, eta eguzkitik eguzkira ibilli ere. Etze-goen, ez, geldi egotzerik.

Noiako goldaketa lana ote zan? OT daude lekuko ta ziñaldari garai artako idatziak. Ikus eta ebatz. A. Gabriel'en lanak ongi artuak izan ziran, gaur eguneko ebazleak orren ondo ikusten ez ba'dituzte ere. Ona lengoen eta oraingoen epal batzuk.

«Yakintza»-k onela idatzi zuen: «Argi ta garbia du idazkera, eta ikaskalak oso ulett-errezak; ulert-errezagoak, askotan, gaur modan dauden literatur liburuetaoak baiño. Aita Jauregi'ren doal oi ez bezelakoxea duzu au. Idazti au bene-benetan onurakor duzu edozein euskaldunentzat, erderazkoak bezaln eskuko ta etekintsu. Egilleari oarrik egitera ezkerro, aurretik gai onetan sagaratutako itz teknikuak, adibidez elektrizidade, telegrafu ta abar, euskeraz ere, mundu guztiak erabillitakoak diral-ta, aintzat artu ditzala» (1936, 18, 477 orr.).

Oar oneri buruz, ona zer dion egilleak: «Yakintzako izen batzak laterri ta izkuntza guztietan bardin darabillez. *Izenok* izkuntza batenak edo besrerenak ez dira, yakintzearenak baño. Euzkerek be, euzkeraz yantzita, artu egin bear izenok. Yakintzeak beragananduta daukazanentz yakiteko, bide bi daukaguz: 1-go. Erabagi au Yakintza-Batzarrak artu ba'dau. 2-gn. Yakintza ele guztietan ba'darabillez. Lenengoetarikoak Euzkerek be artu egin bear. Bigarrenetarikoak artu daikez, egoki ba'yatorkio, beintzat. Euzkerek onetariko izenen bat beretzakotuten daueanean, erbeste-yantzia erantzita, bere yantziak yantzi bear dau-tsoz. KIMI izena ta beste ainbat beste izkuntzetatik artzeko, bigarren lege onek bultzatu nau» (*Kimia*, Aurritza, 5-6 orr.).

L. Villasante'k «Pisia»-ri buruz: «Euskera oso garbia darabil, baiña baita gardena ta didaktikua ere. Marrazki jori ta ugariz dago. Bizkaieraz, ta esaldi laburretan idatzita dagoelako, onek argia egiten du batez ere». «*Kimia*»-ri buruz onela mintzatzten: «Itz-garbikeriak marka guztiak erre ditula dirudi. Jakintzazko teknika itzak ere egilleak berak asmatuak dira, eskualde ontan mundu guztiak erabillitakoekin zer-ikusirik ez dutenakaz asmatuak alegia. Orrela, *Natir* sodio da, *Aldin* balentzia, *Ela* molekula, *Eratikur* formula, *Garratz* azido, *Kizi* atomu, *Laspel* gasa, *Lobel* likidua, *Ordeigai* oxigenua, *Ordei burdintsua* oxidu ferroso, *Ordei burdiñurria* ostera oxidu ferrikua duzu. Zertan esanik ez, itzik geienok egileak asmatuak dituzu, «kimi»-eraz asmatuak galiñera. Dana dala, adierazpen argi ta irakaspi-dezko bat lortzeko benetan saiatu zan egillea. Beraz, gogoeta argia ezin dakioke uka» (HLV, 366 orr.).

Geitxo esatea ez al duzu? Olako gaietan, beti ere, lenengo aldiz lurra iraultzean baitik bat, oso zailla da itzen auzia. A. Gabriel ala ere, etzebillen bide okerrez; ba-zeuzkan galiñera gidari jatorrak. Eta, oro-ar, liburu biok ederki daudela esan bearrean gagoz. Dituen akats eta guzti, liburu argi, eder ta jakingarria da. Nik neuk —eta beste ainbatek— erderaz baiño naikoa erre-

zago ulertzen ditut gaiok bi idazti oietan dauden bezela. Pisi ta kimi gaiok ikasle gazteentzat —eta erriarentzat— osotu zitu-
tuen, alik eta errez eta argienik osotu ere.

Mordoillo ez dana garbia ba'da, A. Aramayo garbia dugu bere pentsamentu ta idazkeran. Itz berriak sortu zitula? Bai? Eta sortutakoak garaiz erabiltzeko ez ote ditugu, batez ere egiaz-ko zentzun-senez eratuak ba'dira? Or aipatzen diranak ez dira A. Gabriel'ek asmatuak. Ikus: *Natir*, alemanak sodio esateko «natrium» darabile, «natrium-chlorid», sodiozko koloru, edcKa «Natron» (Nilo ondoko aintzira), «natron-saiz», sosa-gatza; *Al-din*, balentzia, Lopez-Mendizabal eta Muxika'ren iztegieta dator; *Ela* ere, molekula edo atomu, gauza txit pitiña adierazteko dala esanik, biak dakarte; *Kizi*, berdintsu; kimi-formula esateko *Erat-ikur* —era, formula, ta ikur, ezaugarri— ez dago gaizki; «agrio» naiz «acido» aitzen emateko *Garratz* itza darabilkigu, sagar garratza ta urdailleko garratzasuna; gasa esateko *Laspel*, L. Mendizabal'ek eta Muxika'k dakarte; *Lobel* edo ixurki, L. Mendizabal'ek darabil; *Ordei* edo erdoi, Bizkaia'n eurrez erabili-
lia duzu, ta Azkue'k, L. Mendizabal'ek, Muxika'k eta beste iztegi-gilleak damakigute.

Doixtarrak guk lako erreztasuna dute itz-aikartuz itz berriak asmatzeko; ala ere, «molekul», «atom» —baita «urstoffteilchen», len-gaiaren zatitxoia ere— darabilte. Aieri laket zaiena, zergatik guri akatu? Gaiñera, itz sagaratu oiekin baiño, ez al gara geure arruntekin obeto ulertzen? Dana dala, guk auxe aitortu bear dugu, tamalez izanda ere; aurtan egin-egiñean ere berrogei urte A. Gabriel'ek bere Pisi ta Kimi-lanak eskeiñi zizkigula: arrezkero ez du iñork izan ez biotz ez kopetarik, ez garbi ez mordoillo, ark erabili zuen lurrik urratzeko. Ez al da lotsagarri?

(Ikus Satarra, *Euzkadi* egunerokoa, 1935'gneko azillaren 22 ta 27'an; *Yakintza*, 1935, 18, 477 orr.; Uribe'ko Jauna, *Karmen'go Ar-gia*, 1935, urrilla, 253 orr.; L. Villasante, HLV, 366 orr.; K. Etxe-nagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 267 orr.; J. San Martin, *Escri-*

tores euskericos, 108 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleah*, 214 orr.; S. Onaindia, *Larrea eta karmeldarrak*, 1968, 96 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1866, 66 zenbakia, 141 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 266 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 475 orr.),

ETA LAN TXIKI AUEK

—*Gure Mixiolaria* (Gazteiz, 1923). Bi-illeroko aldizkaria. «Social Católica» irarkolan.

—*Jesusen Biotz Sagraduaren Bederatzi Ostiraletako Debozioa* (Gazteiz). «Montepios Diocesano» irarkolan. 4 orr.

—*Cristau Dotriña* (Gazteiz). Montepio Diocesano irarkolan. Gerra ostetxoan. 84 orr.

—*Gazteiz'ko Eliz-barrutiko Kristau-Ikasbidea* (Gazteiz, 1936). Gipuzkeraz. Montepio Diocesano irarkolan. 84 orr.

—*Gazteiz'ko Eliz-barrutiko Kristau-Ikasbidea* (Gazteiz, 1921). Osoa. Gipuzkeraz. Montepio Diocesano irarkolan. 100 orrialde.

«Esan oi da, illuntasunaren ondoren argia etortzen dala, odeien ondoren eguzkia: Post nubila Phoebus. Eta ori da euskaldunari gertatu zaiona. Egun illunak bere gain erori ziranean, ezagutu zuen euskera zer zan, euskera gabe euskaldunik ezin izan litekeala; eta orduan asi zan bere lotatik esnatzen.

»Loa oso aztuna zalako, esnatzea geldiro geldiro dijoa; baña geldiro joanagatik, esnatzea aurrera dijoan bitartean, gure biotzak poz artu bear du. Atzera begiratu, bai; baña ez atzerontz joateko, baizik zenbat aurreratu degun jakiteko, eta geroago indar geyagorekin aurreratze orri jarraitzeko. Erein beti euskaltasunak eskatzen duen azia: **ale bat** edo beste arri artean eroriagatik, ez da guztia galduko.

»Orretara gatoz gu, eta orretan gabiltza: euskaltasunak eta gure biotzak eskatzen diguten azia erein zabaltzen. Lo dagoena esnatu nai genuke; ernai dagoena, ernaiagotu, guztien artean gure euskera maite maitegarria zabaldu eta goratu dezagun».

(Karmelo Etxegarai)

LABURPEN

Galdu errez, idoro gaitz. Orixe dugu Naparroa'n euskerarekin jazo dana. Nolako miñak ziztatzen duen gure barrena Erronkari, Isaba, Otxagabia, Garaioa, Auritze'n zear gabiltzanean! Izugarria da izan ere ogetamar urtez beera euskerak erri oietan egin duen eroraldia. Ez al dugu eusterik?

NOLA EUTSI?—Ederki daude gazte taldeak euskeraz ikasten, ainitz liburu berri edozein jakintza zelaitan gaiak arrotuz; ederki baita ikerlanak, jakintsuak ikastetxeetan eta oietatik at osatzen ditutenak... Baiña euskera idatziak ez dio eutsiko euskerari. Ondo aitortzen du Orixe'k: «Homer'ek eta Plato'k griegoari eziñ eutsi izan ba'diote, guk ezago euskerari».

Zerk eutsiko dio, orduan? Mintzatzeak. Egiaz esan zigun Mathieu gotzai jaunak: «Euskera zerbitzatuko dugu hartaz ahalik eta maizena erabiliz, bai ezpainez bai lumaz. Euskera izan bedi gure etxeetako mintzaire nagusi!». Ederki daude, diot berriz ere, ikastola, liburu ta euskal jolasak; baiña oiek baiño ere obeki gurasoak aurrai etxean euskeraz exakutsi ta itz-egitea. Or gure lana, gurasoai euskal-griña ziztatu; besteak beste, auxe bai dugu gure euskera aberats baliotsuari eusteko biderik bikaiñena.

NORTZUK EREDU?—Ortan eredu, azken urteotaraiño beñik-bein, eliz-gizonak izan ditugu. Guraso bipil askori ta enparauai ezertxo ere kendu gaberikan, apaizgaitegi eta komentuetan sekulako lana egin izan da euskal arloan. Izango zituzten beren utsak, baiña geienik beintzat eredu izan zaizkigula ezin uka dezakegu.

Gertapen bat aitatzearren, or daukazute Aita kaputxinoen lana gizaldi ontako iru amarkietan. Arrigarria aien euskaltzaletasuna! Auratik euskera tautik jakin ez arren, zenbatek ikasi zuten! Nolako ida-

tziak dituzten! Euskalerritik urruti aurkituta ere —mixiolari trebe noski-zenbat gramatika, iztegi ta artikulu! Ikus gerra aurretik Iruña'n ateratzen zan *Zeruko Argia* aldizkaria.

Beraz, ez da arritzekoa, ale onetan ainbat kaputxino aipatzen ba'ditugu ere. Naparroa'n bakarrik or dituzu: Aita Murieta, Ilario Olazarán, Erroman Bera, Kaparroso, Aldaz'tar Iñazio Maria, A. Lezo, A. Arbelaitz, eta abar.

Auen artean emen ditugu beste napar idazle erneok: Iñazio Larramendi olerkaria, P. Artxanko, Blas Alegria apaiz irakaslea, E. Espartza kazetaria, J. Lazkoz olerkari piña, Jose Agerre iruñar olerkari trebea, ta Blas Fagoaga, Erratzu'ko seme argia.

Guzti auek ornitzen digute mende laurden bat napartar euskal lireraturan.

1.—FRANTZISKO TORRES IBAÑEZ (1897-1966)

Aita Felipe Murieta, kaputxinoen artean. J. M. Satrustegi'k onela: «Unamunok zion Akiles gizon aundiak izan dituela Euskalerrriak; oien goratzale Homero, idazleak, dituela eskas. Egia esan, bere izen ona aurrera ateratzeko Akiles zaharrak zer egingo luken ezta d nik, gure artean. Nik dakitena gizon aundien ispilluak baditugula oral berean. Aita Felipe, baten izena; izatez Murietakoa. Ixilian egin ditu bere gauzak. Ixilian ikasi zuen euskera, ots aundiko askok egiten ez dutena. Ixilian idatzia zuen euskaldun berriendako gramatika; eta argitaratzeko biderik eman ez duen ixiltasunean, izan ere. Ixilian bere Euskalerrri maltearen aldeko otoi'tza; eta ixiltasunik aundienean bere eritasun latza... eta eriotza» (*Principe de Viana*, 1966, agorrillean).

BIZITZA.—Lizarra ondoko Murieta erritxoan munduratu zan, 1897-10-3'an. Aita, Juan Torres Elizondo zuen, Lizarra'ko semea, sendagillea; ama, ordea, Jedeona Ibañez Arretxea, Iturgoien'go alaba. Gaztetan il zitzalen alta, ta ama, lau seme inguruan zitula Iruña'ra aldatu zan. Frantzisko'k Lizarra'n eta Iruña'n egin zituen lenikasteak; 1909'an Altzazu'n daukagu latin ta giza-jakintzak ikasten; 1911'an artu zuen Sangotza'n kaputxino jantzia, urrengo urtean agorrillaren 8'an lekalde zintitzak emanik. Filosofi ta Teoloji Ondarrabi, Lizarra ta Iruña'n ikasi zituen. 1922-4-15'an Iruña'n apaiztu zan.

Iru bat urte Euskalerrian egiñik, 1925'an Arjentina'ra joan zan mixiolari. Maixu ta soiñu jotzen Kordoba, O'Higgins ta N. Ponpeya'ko elizetan osotu zuen bere eliz-zerbitzua. Berak sortu ta zuzendu zuen «Juventud» zeritzalon gazte-aldizkari bat. «Soinu-jotze, izkuntza eta idazlanak, dena goi-amas eta gazte-diaren alde erretzea izan zen bere jokabide nagusia».

1936'an, arnas-estuak jota zebilelarik, Euskalerrira etortzea eskatu zuen. Teruel ondoko Hajar'en gelditu zan. Gorriak ikusi bear izan zituen gerraldian, iru urtez Salamanka'tik Vigo ta Sevilla'ra, Melilla ta Granada zear etxerik etxe ibilliaz zutelarik. Ondoren, Lekarotz, Sangotza ta Altzazu'n bizi izan zan; azken illabeteetan, berriz, Iruña'n; eta antxe, Errotazar komentuan, uritik at daukaten San Antonio etxean, il zan santu-santuki, 1966-7-13'an.

Il zan baiño bost bat illabete aurretik dei egin zidan neri. Zer nai ote zuen? Esku seguruan utzi opa zuen bere «Umeen Deia»; neri egotzi nal zidan orren zuzendaritza. Ez nuen uste ain arin Jainkoak eramango zuenik. Orixegatik, eta «Karmel» eta «Olertb-rekin aski lanpetua nenbillelako, ez nion baletzik eman.

Azkenik bego au: «Berak alnbeste maite zuen Itzaren Ekin-tzarako osasunak etzuen lagundu. Baño etzen kokildu. Aitorke-ta, soinu jotze, jende arteko doal berezi eta berez zuen begi zorrotza, Jainkoaren eta animen baratzean ixuri zituen. Kon-seilulari jatorra. Bide estu eta egun ilunak etorri zitzaizkionean zer pozaldi eta lasaltasuna etzuten ematen bere itzak! Goi-giroa sortzen zuen barne-lurretan» (*Umeen Deia*, itzaurrea, 14 orr.).

EUSKAL LANA.—Gaztetatik asia euskera ikasten. Eta gutxi eltzen diran maillara eldu zan, bere gurasoak etzekiten izkuntza sakon ta lerdan idaztera iritxirik. Eta alnbat liburuxka bere kasa argitaraturik. Ona batzuk:

1) *Umeen Deia* (Bilbao, 1971). Zarautz'eko «Itzaropena» irarkolan. 466 orrialde. Bere anal Miren Biotzekoak egiñiko ar-

gitalpena. 1959'garren urtean A. Murieta'k umeentzako sortu zuen aldizkarian datozten lanen bilduma bikain-bikaina, marrazki ta guzti txit ederto irarria. Euskerari goraldi bat emateko sortu zuen, aren iritziz, bada, «bere izkuntza galtzen duan erria ayanatzen doan erria da». Baita au ere esan oi zuen: «Adiñekoak gogo-ausnartzera beartzeko ezer ez egokiagorik aurren asmakizun tolesgabeak baño». Lau orri zeuzkan aldizkaritxoak, dana umeen lantxoaz eta eskutitez betea. 1959'tik 1966'ra azaldu zan; guztiz, 66 zenbaki ta iau bat milla orri. «Euneka idazlari txiM eta millaka irakurie euskerari sortzea ez da lan makala. Gaur ezin ginezake esan aur gabeko etxe mutua dela euskal idazkaritza».

2) *Apakia*. A. Felipe'ren izen ordekoa. Berekin zeukan lantoki argitaldaria ere orreia zeritzan. Eta bera zan «Apakia»-ren buru ta anka: zuzendari, diruzaln, eragille ta akats garbitzaille. Titulu orren pean liburuxka auek argitaratu zituen: *Kontu zarrak eta kontu berriak* (1961); *Mendizaleen Meza* (1962); eta *Nafarroako Bertsolarien Txapelketa* (1960-1964), iru liburuxka.

3) «Maria Luisa Agerre» izeneko *P. L. Bolher'en liburua* frantsesetik itzulita.

4) Argitara gabe: «Euskera leen maillako gramatika», «Euskaldun berriendako esaera jatorren Iztegia», «Euskal aditza norgabeko esakeran», «Euskal aditza ikasteko joskerak», «Euskal ikasleen arteko azterketa», ta abar.

Euskaltzalndiko urgazle zan. BAP eta «Príncipe de Viana»-n idatzi zuen.

Gure literaturan goi-aulkia merezi du, aurtxoal irakurtzen eta idazten erakutsiaz burutu zuen lanagatik batez ere.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, III, 460 orr.; Ismael Torres, *Umeen-Deia* (Bilbao, 1971), sarreran; Jose Anjel Irigarai, *Euskera eta Nafarroa*, (Iruña, 1973), 102 orr.).

2.—ALEJANDRO OLAZARAN SALANUEBA (1894-1973)

Aita Ilario, kaputxinoa. Guztiz ezaguna. Euskeraz zekien arren, etzigan gure elez esatekorik idatzi. Alere, euskal arte ta eresi-saillean beti ain zaletsu agertu zitzaigun ezkeru, elertiliburu onen orrietan ere aipagarri dugula derizkiot.

Lizarra'n munduratu zan 1894-2-9'an; Jon Bateatzaillearen elizan bataiatu zuten Alejandro izena ezarriaz; gero, 1909-9-25'an, Sangotza'n buruñurdunen soiñekoa jantzi zuenean, Lizarra'ko Ilario A. izena artu zuen. 1910-1913, filosofia ikasi zigun Ondarribi'n, eta 1913-1917, Teolojia Iruña'n. Berton apaiztu zan 1917-9-30'an. Bertatik daukagu Lekarotz'en irakasle, ortan jardunik 1936'garreneko gudararte. Orduan erbestera jo bearra, ta A. Ilario Txile'ra joan zitzaigun; an egin zituén 27 urte, beti Kristo'ren mixiolari kementsu. 1963'an itzuli zan andik, eta oindio ere amar urtean lan eta lan ibilli zitzaigun zeukana ta al zuena Euskalerruari eman naiez. Iruña'n il zan 1973-6-30'an.

EUSKAL MUSIKALARI.—Zortzi urte zitunetik asi zan solfeo ta pianua ikasten. Lekarotz'en A. Donosti'ri laguntzen zion eresaldiak ematen; 1925'an, Solesmes'en ukasi zuen kantu gregoriarra batez ere; urte ortan argitara zuen Baztan'go *Mutil dantzta*, Iruña'ko Orfeoia bi lan auk sariztatu zizkion: *Done Bartolometan* —bere anai Agustin Olazaran, ogei urtez Lekarotz'en irakatsi zuen arena duzu euskerazko letrea— ta *Oracion a la Virgen del Puy*.

Berea du *Método de txistu y tamboril* (Donostia, 1927), «Euskalerrriaren Alde»-k saritu ziona, gerora ere bi aldiz, 1932 ta 1955'an, argitara emana. Bereak ditu balta txistu ta tanboril-letarako auk: *Eguberria*, *Mixintxo*, *Litxu*, *Txoriak*, *Arkaitzak* era *Edurne*, or-emen sariztatuak. Berdin, Lizarra'ko *Baile de la era* (1929) ta Leitza'ko *Ingurutxo* (1931). Gimnasia edo soinketa ikasteko ere, kantu ta pianuz, ba-du beste irakaspide bat. «Melodfas» aldizkarian dauzka A. Olazaran'ek *Misa de Difuntos*

abots batera, organurako eresi-sorta bat eta *Meza* bi erderaz, Liturgi berrirako. 1957'an atera zituen kuadernu bi, dantza-soiñu ta abarrekin; 1966'an beste bat, *Yoku-Dantzak*, emeretzki pianu-eresi txikiz. *Tratado de txistu*, ta, *Gaita de estella*, bi liburu auek batean Nabarra'ko Foru-Aldundiak argitaratu zizkion, 1972'an. 1969'garren urteko agustuan, beronen *Mendigoi-zaleak* lanari eman zioten Torrevieja'n len-saria.

«Txistulari» aldizkariak ohorezko kapellau izentatu zuen. Eta 1971'an, omenaldi abarrots aundikoa eskeiñi zioten Lizarra'ko frontoian, Bello Portu'k antolatuta: dantzari ta txistulari talde ugariak bertaratu ziran Euskalerra osotik,

(Ikus Anjel Sagardia, *Musicos vascos*, III, Col. Auñamendi, 95 zenbakia, 13 orr.; A. Intza, *Principe de Viana*, euskerazko geigarrian, 1973, 88, 89 ta 90 zenbakiak; Ataun'go Bonipagi A., *Bol. Amer. E. V.*, 1973, 180 orr.).

3.—INAZIO LARRAMENDI TA DELPUERTO (1874-1960)

Itz gutxiz dagigu A. Irigarai'k napartar olerkari onen irudia. «Bere gurasoak —dio— bera bezala espartingileak izan ziren. Kontralto boz eder baten jabe zen. Madrilen egon zen Iruñeko Orfeonarekin Alfonso XIII-garren ezteietan kantatzeko eta karia hortara domiñu eder bat eman zioten. Euskal olerkari po-
Uita zen eta liriko tankera osoko poema eta bertsu eztiak utzi dauzkigu. Itxura eder bateko gizon prestua eta ona izan zen» (*Euskera*, 1961, VI, 348 orr.).

Bidasoa'ko Bera'n sortu zan 1874-5-14'an, Foru-Plaza'n aurkitzen dan «Leonperiko-balta» etxean. Gaztetan erriko eskolan ikasia, etzuen beste jakintzarik. Gero au ta bestea irakurri ta berezko senari zirkin-eragiñik beragandutakoa, orixe zuen dana; baiña aski samar olerki atsegingarriak biribilduteko,

arako Basurko'k bere aroztegian legez, Larramendi'k bere abar-keta irabazpidean. Askotxo izan dira onako gizonak euskal errian, eta ba-dute iñork izatekotan esker eta merezimendurik.

Ogei ta bederatzzi urtedun zala, Etxalar'ko «Etzebertze» etxeko alaba Asunzion Arburua Iturri'rekin ezkondu tan eta amabi seme-alaba izan zituzten, eurotatik bat Amerika'n bizi dan Juan Larramendi margolaria.

Gerra bitartean arat-onat ibilli zan arren, bere bizitzako egunik geienak Bera'n igaro zizkigun. Asti-orduetan burutzen zituen euskal lanakaitik Euskaltzaindiak —Azkue'ren adiskide miña bait zan Larramendi— urgazle izentatu zuen, napar sar llak eskatuta. Gizon apala ta zintzoa zan beratar au, ta uste zue-nez, etzuen ezer merezi, ezpaitzan gauza ezertarako; balña es-partingilleak xalo ta laiño zegicn lana etzuen aln exkaxa ebazten euskeraren ardura zeukaten euskaltzale aiek, eta origmatik artu zuten beren talde barruan.

Bidasoa'ko Bera'n, jalo zan tokian, ez etxean, «Errikoetxia» deritzalanean balzik, 1969-8-10'an joan zan betiko atsedenera, 86 urte zeuzkala. Abots bikalña zuen, eta eder zitzaion kantuan aritzea. Eta, au zera!, zintzurreko min-gaiztoak ebald zion bizia.

EUSKAL LANA.—Etzan oparoa idatziz, balña utzi ziguntxoia ez da arbuiagarri. Ixilleko idazle auen ekarriak esku guriz jasotea atsegin zitzalon Berriotxoia Analak onela diosku: «Larramendi'ren lana ez da ugaria, obeto esan mugatua da, balña guztiz bana-banakoa. Bere lirika, neurkera osoan adierazia ta jario atsegiñekoa, erri-olerkarien artean egokitu dezakegu, balña erri xee ta arruntetik nalkoa urrutiratua. Larramendi'ren olerkiak, balta Basurko'renak ere, kantatzeko egiñak dirudite, balña batez ere barneko goxotasunean asdro irakurtzeko egiñak, geienak bada kristauarentzat eta euskaldunarentzat gogaketa sakonetarako ta barne-azterketarako gal ederra eskeintzen digute» (*El Bidasoa*, 1960, 764 zenb., 1-5 orr.).

«Gernika»-n, «El Bidasoa»-n, «Egan»-en eta abar argitaratu zituen bere lanak. Napar-sartzaldeko izkeran idatzi zigun, argi ta garbi, xamur ta aberats, erri-izkeratik geiegi urrundu gabe. Begiko zitzaion bere neurtitzak buruz esatea; baita urteetako ar-emanan izan zuen Pio Baroxa'ren gauzak kontatzea ere. «Bera'tar bat» erabili zuen lan batzak izenpetzean.

Kopla liburu bat utzi zigun: *Olerkiak* (Zarautz, 1960).

(Ikus Berriotxoana Anaia, *El Bidasoa*, 1960-8-2 ta 1960-8-20; H. V. B., BAP, 1960, 365 orr.; N. Kortazar, *Çien autores vascos*, 68 orr.; A. Irigarai, *Euskera*, 1961, 348 orr.; Auñamendi, *hiteratura*, III, 376 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 113 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, IV 598 orr.).

4.—JUAN MARIA ERROMAN DORNAKU OLAETXEA (1878-1959)

Aita buruñurdun langille porrokatua. Aita Erroman Bera. Bidasoa'ko Bera'n —Larrun mendiaren saietsean— jaio baitzan 1878-8-9'an. Praille onen bizi zeaztasunak oso egoki bildu zizkigun Fernando Artola'k, «Bordari»-k onela: «Nik ez dut «izar-rriztietan» federik. Neretzat «Zodiaco»-ren ezaugarriak... utsaren urrenak dire; baiña gure Aita Erroman «Leoia»-ren babesean jaioa degu ta... ez dakit zer pentsa, ene emaztea ere egun berekoa duzute, aln xuxen ta... nola Aita Bera leoi bat zen, eta nere andreak ere genio bizia duen, ba... «izar-mordoak» zerbait itzal egiten digutela sinisten asia nazute. Goizeko ordu bitan jaio zan, gau epelaren seaskan. Bederatzi ordu barru, goizeko amaiketari bataiatu zuten. Elizako txolarrea izango zanak, goiz, nal zituen egin zeru bideko arazoak» (*Oleri*, 1961, 151 orr.).

BIZITZ-ATALAK.—Aita Bera'n gurasoak: aita, Antonio Dornaku Migelperezena, ta ama, Dionisia Olaetxea Ansalas. Amal-ka umetatik txikiena izan zan Aita Erroman. «Garai artan bizi-

modua merke bazan ere, aitak nai bezela ezin azi ta Mixeri-kordi'ra eraman zuen Erromantxo txikia. Leize batean utzi zun semetxoa, erakutsi naiez bizkurrik etzeukala semea azitzeko. Ama illa zeukan ordurako» (*Loc. cit.*, 152 orr.).

Bere lenengo ikasketak Bera'ko Eskolapioetan osotuj zituen. Oso azkarra zetorren. Bein Iruña'ko gotzaiña joan omen zan gazteen azterketak ikustera; sariak banatzerakoan, zidarrezko domiña bat eman zioten gure txikiari. Gotzaiak, gaiñera, Iruña'ra eraman nai izan zuen apaiz-karrera egin zezan; baiña Erramon'ek naiago izan zuen Lekarotz'era kaputxino joan. Latin eta latin ingurakoak ikasita, bertan artu zuen buruñurdun jantzia ere, 1896-11-1'an. Andik bi urtera, 1899'an, Madrid ondoko El Pardo'ra joan zan Teolojia ta izkuntzak ikastera: «aldi onetan ipiñi zitun izkuntz-zaletasunaren oiñarriak». 1901-5-15'an apaiz sagaratu zan, Ixidor deunaren egunean noski. Bera'n esan zuen bere meza berria, itzaldia ere berak egiñik.

Aste artan bertan, mixiolari bezela, Filipinas ugartearen datu zioten nagusiak. Eta 1901'ko garagarrillaren 26'rako Manila'n zegoen. Zazpi urtean emen, Sariaya'n, Corregidor eta beste ainbat erritan ibilli zan mixiolari trebe. Ingles eta bertako izkuntzak, tagalog eta abar, ederto samar ikasiaz, mixiolarien artean lenengoetarikoa azaldu zan. Erririk erri ibilli oizan «mixiogintzan, sasi-ezkontzak zuzentzen, fedea sendotzen, sasi-uzkurtzak, «aglipayo» batez ere, astintzen eta zatitzen... beti mixiolari».

1907'an, ordea, katalandar kaputxinoai utzi bearra izan zuten mixio-lurralde ura, ta euskaldunak beste toki batera aldatu bear. Aita Erroman, 1908'an, Iruña'ra etorri zan. Eta «lengo Lepotik burua, egiak egi, mingaiñian oztoporik ez, idiak eta asto beltxenak kulpitotik esan zitulako (politika gaia etzan), ondo lotuta, Aragoi' ko Hizar'en txokoratu zuten leoi gaztea».

1914-1918 bitarteko guda nagusia zala-ta, Guam ugartearen etzituten begi onez ikusten aleman mixiolariak, eta Erroma'ko Aita Santuak, Karolina ugartetatik bananduta, eliz-barruti be-

rezia egin zuen Guam. 1915'tik euskaldun kaputxinoak zeramaten ango arima-ardurea, Iruña'ko seme zan «Olaiz» kaputxino Aita bertako gotzai berri zalarik. Onek Aita Bera eraman zuen bere ondora, ingeles ondo zekielako ta edozein izkuntza ikasteko ere errezetasun aundiaren jabe zalako. Eta 19i5'an, ara joan zi-tzaigun Aita Bera. Bertan 26 urte egingo ditu mixiolari

Ezin adierazia da an osotu zuen lana. Zenbat batalo ta itzal-di! Aren eztabaida ta Kristo'ren irakatsia zabaldu bearra! Bertako izkuntza Txamorroa ikasi zuen; berak idatzi zigun izkuntz onetan lenengo iztegia, baita len-gramatika ere berak antolatu zuen. Eundako liburu itzuli zituen txamorrora. Eliz berriak eraiki zituen. Trumoia zirudien pulpitoan. «Aita Erroman'ek bazirudin Idazteunatik artutako igarle bizardun aietako bat; Natan, adibidez. «Zu zera gizon ori!...» esaten bait-zekien», diosku Bordari'k.

Izkuntza kontuan guzdz azkarra zan. Lendik zekienak eta an ikasitakoak zenbatzera ezkeru, amazazpiraiño aipatzen dizkigu Artola'k. Ona: Euskera, gaztelera, frantses, ingeles, latin, griego, eberkera, italera, aleman, txamorro, tagalog, bikol, pan-gasinan, panpango, japonesa ta abar. Azkenengo au, japonesak, Filipinas'en sartu ziranean ikasi zuen. Eun bat liburuxka ba-ditu izkuntza auetan argitaratuak.

1941-9-6'an, ludiko guda izugarria zala-ta, Guam utzi ta Filipinas'era joan bear izan zuen, beste euskaldun mixiolari askoren artean, Aita Bera'k. «Amalka itzulipurdi ibilliko ditu orainduk ere, ordea. Japonesen mendean, guda zorrotza gaiñean, nalz zaarra izan, onenak emana, ala ere ereintz lanean jardungo du, adoretzu bezin kementsu». Eta azkenik, «Aita nagusiak aski duela adierazten diote-ta, zaartua, zearo gortua, sortalde lurrak unatua, zeukan dena Jaungoikoari eman ondorean, berriz Euskal-Errira dator. Pamplona'ra arratsean iritxia, urrengo egunean pulpitora igo nahi du, zetatsu, noski, bere barru su ua eskeñi nalez, Iruñako kristauei» (*Loc. cit.*, 158 orp.). 1950'garren urtea zan.

Ona, lenbiziko leoi gaztea, zaartua, emen daukagu berriz ere Ondarribi'n. Eta Artola'k: «Ondarribi'ko erri panpiñean badute buruñurdunak komentu agitz bildua. Fraideak aguretzan bertan kokatzen dira goxo-goxo. Aguretu zaigu Aita Erramun». Ala ere, ementxe biziko zaigu oraindik bederatzzi bat urte. Balña lanari ekingo dio. Komentuko legeak zintzo bete ez-ezik, Asis'ko Santu aundiaren antzera txori ta lorakin itz-egin, ondarribitar gazteal ingeles ta euskera erakutsi, musika —atsegin zitzalon oso— kantatu, analai alkar malte izaten erakutsi ta ola-koak egingo zituen, atertu gabe.

Azkenean guttiz gaxotu zan: got, itsu ta eztarritik itzik egin eziñean. Eta berberak elizakoak eskaturik, Ondarribi'ko komentuan il zan, santu-santuki, 1959-11-26'an. Jendetza aundia izan zan bere illetetan; auen artean, Ondarribi'ko, Irun'go eta Bera'ko ordezkariak eta euskal idazle piloak Euskaltzalndikoakin. *Irrati-esalariak* itz egin zuten, «gutxisko, balña ondo». Donosti'ko «El Diario Vasco»-k eta «El Dia»-k, berdintsu.

EUSKAL LANA.—1908'an Manila'tik itzuli zanean euskera sakon ikasteari eman zion. Urrengo urtean asita, alnbat olerki azaldu zizkigun «Euskal-Erria»-n, «Euskal-Esnalea»-n eta «Euzkadi» aldizkarian. «Euskal-Esnalea»-n datoz balta Goienetxe'ren Ipuin eta alegiak, A. Bera'k gipuzkeraz ipiñita. Gerroago «Euzkadi» egunerokoan, «Gernika'n, «Euzko-Gogoa»-n eta «Oleriti»-n ere idatzi zuen itz lauz eta bertsoz.

Ona bere libururik beiñenak:

1) *Euzkel-Iztegitxua. Lenengo zatia* (Iruña, 1909). 760 orrialde. Iruña'ko «La Tradicion Navarra»-n azaldua, «A»-tik «L»-raiño.

2) *Euzkel-Iztegitxua. Bigarren zatia* (Iruña, 1911). 715 orrialde. «La Tradicion Navarra»-n azaldua. «M»-tik «Z»-ralño. 652'tik azkeneraiñokoa geigarria da.

3) *Euzkel-Iztiya, o sea Gramdtica de la lengua vasca segun el metodo Ollendcrf* (Biibao, 1909). Elexpuru Analen irarkolan. «Ollendorf» deman izkuntzari izan zan. Gipuzkeraz.

4) *Euzkel-Iztiya, o sea Gramdtica de la lengua vasca segun el metodo Ollendorf* (Bilbao, 1910). «Maritimo y Comercial» irarkolan. Bizkaieraz. Antza danez, Kirikiño'k bizkaieraztuta. Ikaspide au aurrekoarekin ezta berdiña, ideko dan arren.

5) Bera'tar Erroman Mirena Aba buruñurduna: *Diccionario castellano-Euzkera*. Lopez Mendizabal'dar Ixaka: *Euzkel-erdel Iztegia* (Tolosa, 1916). Lopez'tar E.'ren etxean. 514/654 orrialde. 1930'an ere beste argitaraldi bat egin zan; eta irugarren bat (Zarautz, 1948), zerbait ikututa banazean, lenengoak 522 orrialde ta bigarrenak, ots, Euzkel-erderazkoak, 658 ditula.

Iztegi au, bere akats eta guztiz, mende erdian beintzat, besterik ezean, asko ere asko guztiok esku artean erabillitakoa dugu. Itz berri askotxo sartu zitula-ta, maixeatu izan dute bein eta berriz. Itzok, urrean, etziran A. Bera'k asmatuak, A. Manuel Arriandiaga'renak baiño; onek itz-zerrenda bat utzi ei zion, eta A. Erroman'ek bereak bezela argitaratu. Au zala-ta, izan zituen bere goraberak. Osterantzean, sekulako utsunea bete zigun besterik etzan garai aretan.

1908-1915 bitartean, batez ere, lan ikaragarria egin zuen A. Bera'k; aspertu barik idatzi zigun or-emen. Euzkadi egunerokoan «Zazpi» izenordea erabilli zuen, euskera errikoia ta ulert-errezean jardunik. Olerkitan naiko idatzi zizun, baita Bilbao, Baiona, Donosti, Tolosa ta Ondarribi'n bederen sari ederrak jaso ere. 1953'an, Ondarribi'ko «Amute» lekaroan ikerru nuenean, Andre Mari'ren bizitza ta goralpenak erakutsi zizkidan; lareun bat zortziko ba-ditu gai ortaz egiñak, oraindik argitaratu gabeak: 1954'an Zarautz'eko Prantziskotarrak eratu zuten sariketara aurkeztua noski.

(Ikus Ondarrabi'ko Felipe Aita, *Ensayo bibliografico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragon* (1900-1950); *Ecclesia*, Madrid, 1960, 973 zenbakia, 20 orr.; Fernando Artola, *Oleri*, 1961, II, 150 orr.; S. Onaindia, MEOE, 826 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 32 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 67 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 369 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografia*, III, 39 orr.; L. Villasante, HLV, 397 orr.).

5.—ZELESTINO PERALTA LAPUERTA (1879-.....)

Aita kaputxinoa, Kaparroso'tar Zelestino Maria A., «A. de Arrigaray». Naparroan, erribera aldean, Alesues eta Traibuenas dagoen Kaparroso'n jaio zan. Euskeraz ez zekien, baiña Lekarotz'en irakasle zegoelarik, ondo ikasi zuen, aditza batez ere. Euskaltzaindikoa, 1919,10-26'tik.

Urte mordoa irakasle egin ondoren, 1921'an, Arjentina'ra joan zan mixiolari, eta an ere, urte batzuetan, Llavallol'ko «Euskd-Etxea» ikastetxean maixu egon zan. Baiña, urduri xamarra zalako edo, irten zan andik, azkenean Ordena ere utzirik. Arjentina'n il zan.

EUSKAL LANA.—Erriberatarra izanik ere, euskaltzale zintzoa zan, orduko buruñurdunik asko bezela. Ona utzi zizkigun lanak:

1) *La Conjugacion vasca. Sumario de lo mds preciso y prdctico de la Conjugación del Euskera* (Barzelona, 1914). 94 orrialde. Donosri'ko «Euskal Esnalea»-k txito goratu zuen (1914, 202 orrialdean).

2) *Euskel-Irakaspidea, o sea Gramdtica del Euskera, Dialecto guipuzkoano* (Totana-Murzia, 1919). «San Buenaventura» irarkolan. 416 orrialde. Cartagena'ko gotzalak eman zion argitaratzeko baimena, 1919-4-15'n. Eskeintza onela: «Donosti-ar Jos. Andoni Aba gure Abendaren ereslari adoretzu ta kartsuari». Arrigarai'k, Lekarotz'en irakasle zala ikasi zuen bereziki nola antolatu bear diran onako liburuak; eta Euskal-Erriko aldizkari guztiak txaloka artu zuten gramatika eder au.

3) *Euskel-Irakaspidea* (Donostia, 1932). Itzulbide ta guzti. «San Ignazio» liburutegiak. 477 orrialde. Ataun'go Bonipagi'k arteztu ta geitutako irarkaldi berria. Irugarrenez ere Auñamendi'k atera zuen (Zarautz, 1972).

Askotxo izan dira Irakaspede onen bitartez euskeraz ederki ikasi dutenak.

(Ikus L. Eleizalde, *Euzkadi*, aldizkarian, 1914, XI, 185 orr.; T. Akarreta, *Estudios Franciscanos*, 1919, XXIII, 394 orr.; G. Lakonbe, RIEV, 1919, X, 219 orr.; Aita Felipe Ondarrabikoa, *Ensayo bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* (1900-1950); Auñamendi, *Literatura*, III, 341 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 188 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 320 orr.).

6.—IÑAZIO MARIA JUAN MARTIÑENA TA JUAN MARTIÑENA (1880-1961)

Aita kaputxinoa. Ordenan, garai artan oitura zanez, Aldazi tar Iñazio Maria. Larraun ibarreko Aldaz erritxoan jaio zan 1880-7-10'an.

Ikasketak, lenengoak Orduña'n Jesus'en Lagundikoen ikas-tetxean (1892-93) egin zituen; gero, Lekarotz'en jarraitu bere ikastaroak, eta antxe jantzi kaputxino soñekoa, ta filosofia ikasi. El Pardo'n burutu zuen Teolojia, ta apaiztu ondoren, Lekarotz'en egin zuen irakasletza 1936'gn. urterarte. Lekarotz'eko irakasleak, guda astean, Ego-Ameriketara joan bearra izan zuten; Aita Aldaz, ordea, Donosti'n bizi izan zan, apostolutzara osorik emana. 1951'an, gaixotu egin zala-ta, berriz etorri zan Lekarotz'era; geroago ta aulago zijoan, ta azkenez «ParHnson» eriak jo zuen; eta, bost urtez eri ori jasanik, 1961-9-1'an il zan Lekarotz'en bertan.

Oso sendi onekoa zan Iñazio Maria Aita. Iru anai izan ziran kaputxino; beste bat Jesu-Lagundikoa ta bi arreba Agustina itxiak. Lekarotz'eko komentuan ikasle-zai izan zan urte askoz, eta altorle egonarri aundikoa: aren aitortegia beti omen zegoen ikaslez eta kanpokoz inguratua. Musikalari zan gaiñera, ta Aita Donosti'ri lagundu oi zion abestiak erakusten eta abar.

Idazle bezela, «Zeruko Argia»-n lendabiziko urtetik ekin zion zintzo ere zintzo. Mistiku lantxoak argitara oi zituen, ia illabetero, gai erraz, lan labur, euskera garbi ta goxoan.

(Ikus *Zeruko Argia*'ren bilduma, guda aurretiko urteetan).

7.—JOSE ITURRIA ERIZE (1879-1952)

Aita kaputxinoa. Ordenan Lezo'ko (edo Aranaz'ko) Jose M. Aita. Yantzi Aranatz'en sortu zan 1879-6-13'an; baiña umetan Lezo'n bizi izan zalako, Lezo'ko Joseba edo Aranaztar erabili oi zuen idaztean. Lekarotz'en, Ondarrabi'n eta Iruña'n osotu zituen bere eliz-ikasketak, 1904-5-12'n apaizgoa arturik.

Bereala Filipinas'era joan zan mixiolari. Lendik ere euskaldun kaputxino asko ziran an; eta denak Manila'n kargu aundiakin zegoen Etxeita'tar Jose Manuel euskal idazle entzuetetsuakin izan zituzten ar-emanen bidez euskaltzale sutsu egin ziran. 1908'garren urtean, baiña, ango euskaldun kaputxinoen Mixioa katalandarren eskuetara igaro zan, eta euskaldunak, lenxeago edc geroxeago, onantza etorri bearra izan zuten. Aita Lezo ere 1911'rako Euskalerrian zegoen, eta ordutik il arte emengo komentuetan egin zuen mixio-lana, euskeraz ta erde-reaz makiña bat itzaldi egin eta libura mordoa idatziz.

Iruña'n, uritik at dagoen komentuan il zan 1952'an.

EUSKAL IDAZLE.—Maite zuen bere izkuntza, ta astialdian, euskera ikasteari ta idazteari eman oi zion. Bilbao'ko «Euzkadi»-n, Donosti'ko «Argia»-n eta Iruña'ko «Zeruko Argia»-n idatzi zuen.

Ona bere lan beiñenak:

1) *Nere Laguna* (Zornotza, 1922). Jaungoiko-Zale'ren irarkolan. Lenengo urtea. 433 orrialde. Itzaldiak, urte-aro guttikoak.

2) *Nere Laguna* (Iruña, 1926). Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. 317 orrialde. Bigarren urtea. Itzaldiak. Iruña ta Muskeria (Tudela)'ko gotzai jaun Mujika-Urrestarazu'tar Mateo'ri eskeiñitai dago.

3) *Nere Laguna* (Iruña, 1931). Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. Irugarren urtea. Aranaz'tar (Lezo'ko) Jose Aba kaputxinoak egindako itzaldiak. 316 orrialde.

Iru ale dituzu guztiz, baiña ale bakoitzean urte guztiko igande ta jaiak daude. Ola iru alekin, igande ta jai bakoitzerako iru itzaldi dira; ta gaiñera, itzaldi bakoitzean bost edo sei edo zazpi atal laburrak ere, naizta ez-berdiñak.

4) *Eiza-iztia edo Abere ta piztiak* (Bilbao, 1929). Euzkadi'ren irarlanak. «Tipograffa General» bazkunean irarrita. 139 orrialde. Lan atsegingarria.

5) *Esku-idatzia*k. Onez gaiñera, paper moltzoak bere eskuz idatzita, argitaratzeko norbaiten esku goxo zaln.

NOLAKO IDAZLE.—Ona, nere iritiz. Irakur, garbitasun bezela, itzaldien 3'garren alean dakarren aurreitzeko zatitxo au:

«Egalari zaude; beraz urduri zabiltza. Zure lenbiziko bi anak, mutil koxkor atera baziran, gaur gizon eiñak daude. Or dabilta mundu barrenean gauza asko ikusten eta guzietatik entzuten. Batzuek omen diote; zintzo, sendo, mardul, atsegin dirala. Besteak berriz, ezetz. Orrelakoxea dek mundua, enetxoa. Batzuk baietz; besteak berriz, ezetz. On aundia egiten dute beiñepein; eta auxen bai dala beren aitari biotza lasaltu egiten dion gauzarik ederrena. On aundia, on sakon, mesede eder, esker ugari dagiena, itxusia, galzki jantzia, txiroa, errena bada ere, beti maltagarria da; ta ori nalkoa da, aski da».

Yurre'tar Julen Aitak onela: «Lezo'ko Yoseba M.^a Abak euskera erraza, argia ta erritarra darabil beti. Balñan ez euskera mordoilloa, erdal itzez josirik egiñikakoa; ezta era garbiegia, errikoa ta atsegingarria balño».

(Ikus *Boletín Oficial de la Diócesis de Pamplona*, 1923, 81 orr.; *Boletín Ofic. de la Diócesis de Vitoria*, 1923, 319 orr.; Felipe de

Fuenterrabia, *Ensayo bibliográfico de la Provincia Capuchina*; J. San Martín, *Escritores Euskericos, Apendice*, Bilbao, 1969, 24 orr.; L. Villasante, HL V, 398 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 331 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 448 ta V, 72 orr.; *Gemika*, 1953, Urt-epail, 22 zenb., 2 orr.).

8.—JUAN MIGEL ERNETA ZABALETA (1881-1921)

Leitza'n sortua dugu A. kaputxino au. Amabi urtetara zioa-la, Lekarotz'en asi zitzaigun apaiz-letrak ikasten; bertan artu zuen buruñurdun jantzia, eta filosofia ikasi. Ondoren Madrid'en El Pardo'n Teolojia ikasi ta Lekarotz'era berriz ere mutil gaz-teen irakasle. Oraindik meza emateko zegoela, 1904'an, Fili-pinas'etako mixioetara bialdu zuten; an apaiz sagaratu ta meza berria eman zuen. Bertatik Manila'ko erri izkuntza ikasirik, bu-ru belarri asi zan mixio-lanean, Batanga zeritzaion Probintzian ere bi urtez beintzat egonik. Bizkorra zan, eta beti gertu lane-rako; Kristoren berri ona erein bearrez etzuen atsedeen artzerik,

1911'an, ala ere, ango lekaide-lurralde banaketa zala-ta, beste euskaldun kaputxino askoren antzera, atzera Euskalerrira etorri bearra izan zuen. Orduan asi zan A. Leitza'ren euskal lana, itzez eta lumaz. Lumaz «Irugarrengo Prantziskotarra»-n eta «Zeruko Argia»-n idazten zuen izkera txanbelin atsegiñean. «Añaldekoa» ezizena erabilten zuen; balta iñoiz «Leitza'tar J. M. A.» ere.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1921, orrilla, 29 zenbakia; eta Yurre'tar Julen Aitaren oarkizunak).

9.—ALEJANDRO OTERMIN LASARTE (1893-1921)

Buruñurduna. Ordenako izena: Leitza'r Prantzisko Aita, Leitza'ko semea baltzan. Sangotza'n jantzi zuen kaputxino soi-ñekoa, 1908'an; bertan jarraltu zuen ikasten ere, 1917'an apalz sagaraturik, 24 urtedun zala.

Zeruko Argia»-ren lenengo zenbakian asi zan idazten, «Leitza'r P. A.» izenez bere lanak izenpeturik. Oso poliki ari zan; baiña beretarrak itxaropen aundiak zituztelarik beragan, zerura joan zitzaigun gazte-gazte, 1921-1-24'an.

(Ikus Yurre'tar Julen Aitaren oarkizunak).

10.—PABLO ARTXANKO (1892-1962)

Iruña'n jalo zan 1892-1-15'an. JBere karrera zuen, ta ez edonolakoa: lur-gaietan jakintsua zan, eta lurgintza erakusten zuen Iruña'n ortarako eskola berezian. Geroago, guda zala-ta ara joana nunbalt, Baiona'ko Euskal Ikastetxean izan zitzaigun irakasle. Ondoren, 1938'an, Arjentina'ra jo zuen, eta Buenos Aires'en il zan 1962-4-4'an.

Euskaltzale fiña. Ba-zekien euskeraz, eta Buenos Aires'ko «Tierra Vasca»-n berak sortu zuen euskal atala. «Irunseme» zan euskal lanak izenpetzeko erabilli zuen ezizena. «Galeuzka» ta «Gernika»-n idatzi zuen. Eta liburuxka au: *El Arbol y los Pdjaros* (Iruña, 1925). Oroitzapenak. 11 orrialde.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 32 orr.; Aufiamendi, *Literatura*, III, 420 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 247 orr.).

11.—BLAS ALEGRIA (1883-1947)

Euskal idazlea. Lakuntza'n, gaur ere euskeraz egiten dan erritxoan jalo zan 1883-2-4'an. Etxarri-Aranatz, Uarte-Arakil, Arralazu, Lizarrabengoa ta Ergoiena ibarrean mintzatzen dan euskeran idatzi zituen bere lanak.

Iruña'ko Apalz-Ikastetxean irakasle zalarik, an Nabarra maitete zuten nalmen oneko gizaseme guztiekin, 1925'an, antolatu

zan «Euskeraren Adiskideak» bazkunakoa genduen. Maite zuen bere lurra, dauzkan zer guztiekin, euskera, oitura, jolas, kirol, musika ta abarrekin, alegia.

Idatzita utzi zizkigunetik atera dezakegunez, ederki zezagun bere ibar polit artako euskal mintzaira, ango bereizitasun goxo ta guzti. Eder zituen balta bertako ipui ta elezarrak, eta oietaz osotu zigun bere lenengo lana, argitara emana beintzat.

Ona lakuntzatar argi onen euskal lan batzuk:

1) *Lakuntza'ko pertza* (Donosti, 1926). «Euskal Esnalea»-n dator, XVI, 100 orr.

2) *Aña Mari* (Iruña, 1928). E. Gartzia'renean. 64 orrialde. Mixiotako antzerlda. «Euskeraren Adiskideak» 1928'ko antzerki-batzaldian saritua.

3) *Gure Ama* (Toki gabe, 1931). Iker-lana, euskeraz ta erderaz. 92 orrialde.

4) *Lilaya* (1932). «Olabe» Saria irabazi zuen folklore giroko lana.

Onez galñi, or-emen eman zituen itzddi pilloa ere ba omen zuen, balña azken gerra zala-ta galdua aurki.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1926, 100 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 158 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 21 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 282 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 104 orr.).

12.—JOAKIN EUGENIO PEREZ SENOSIAIN OTXOTeko (1886-1956)

Aita kaputxinoa. Oiiregi'tar Buenabentura Aita, «Arbe-laitz».

Nafarroa'ko Bertizarana'n, Oiiregi erritxoan jalo zan 1886-12-7'an. Iruña'ko apalzagaletxean iru urteko ikastaroak egiñik, 1903-10-29 kaputxinoen jantzia artu zuen. Urrengo urtean

Muskaria'n zan, an iru urtez filosofia ikasteko. Ondoren lau urtetan Teolojia ikasi zigun *Iruña'n*, 1910-12-17'an mezakotu ta urte bete geiago bertan ikasten jarraiturik.

Aita Intza ta Oieregi biak ikaskide ziran, eta Muskaria (Tudela)'n asi ziran batez ere euskera ondo ikasten, aldez liburuetan eta aldez alkarrekin itz egiñaz. Alako baten, Katalunia'ko kaputxinoak katalanez ateratzen zuten illeroko orri bat, «Asis'ko Prantzisko Deunaren *Irugarren Ordenakoena*», iritxi zitzaion eskuetara. Aita Buenabentura'k bertatik: «Euskeraz ere bear genduke onako bat!» Esan zion Intza Aitari, balta gero Nagusiengandik baimena lortu ere, ta 1913-7'an, Intza Aita ta biak asi ziran «*Irugarrengo Prantziskotarra*» ateratzen. Illa betero zetorren zortzi orrialdekin, Nafarroa'ko mendialdean eta Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n banaturik.

Bospasei urteen buruan 6.000 iyeki saltzen omen ziran, eta Oieregi Aitari, beti kementsu, azal ta guzti, aldizkari antzera, edergarriz apainduta ateratzea otu zitzaion: 1919-1'n atera zuten lenengo zenbakia. Ta orrelaxe zintzo-zintzo, illero ta urtero, eltzen zan euskaldunen eskuetara 1936'gn. urte zoritzarrekoa etorri zan arte.

Orrez gaiñera igande geienetan *Irugarren Ordenea* eraikita zegoen errietara joan oi zan jendearen altortzak entzutera ta itzaldiak egitera. Oso txintxo zebillen Oieregi Aita, baita jendea ere: adiona zutenean jende asko altortzen zan fraldearekin.

Gisa orretan, iñoiz ere gelditu gabe, 1936'gn. urterarte. Orduan euskal paperak ixildu bearra izan zuten. Paperak ixildu bai, balña Oieregi Aita etzuten beste euskal idazle askoren antzera, Euskalerritik bota. Eta, jakiña, euskal lanean jarraitu zuen. Lekarotz'en aurkitzen zan, eta komentu au lenengotan beintzat gudarien eritegi izan: Buenabentura Aita euskaldun gudari zaurituak ikusi, euskeraz itz-egin eta poztutuzera joan oi zitzairen. Urkoari laguntza ematea zan au ere, urko erituari noski.

Amaitu zan gudua. Etzegon «Irugarrengoa» ateratzerik; ez «Zeruko Argia». Orduan Oiiregi Aita egon-eziñik beste paper bat, «multikopista» bidez, ots, «Artzal Deia» illero ateratzen asi zan. Irakurle talde bi zituen: Ipar-Ameriketako euskaldun artzaiak eta Irati ta Bidaso alde bietako basoetan zugalzak erasten zebiltzan euskaldun gazteak. 1954'an berriz asi zan lenagoko «Zeruko Argia» ateratzen, «Arbelaltz» zuzendari zala; «Artzal Deia» ateratzea utzi gabe, orraltio: Buenabentura Aitak argitara oi zituen biak. «Artzal Deia» aurrenik illerokoa izan zan, gero amabosterokoa.

Eta azkenik, oso lanpetua zebillela, egundo ere atsedetik ar gabe, 1956-2-25'an Lekarotz'en Jaunak zerura dei egin zion, itez ta lumaz lan aln ederra burutu ondorean.

EUSKAL LANAK.—Oiiregi Aitak lan bikaiña burutu zuen. «Irugarrengo Prantziskotarra» ta «Zeruko Argia»-n bietan idazten zuen, bere izenez eta izenordez; izenorderik ezagunenak: «Arbelaltz», «Osinburu» ta «O.». Izenik gabe ere ainbat lantxo eder ditu. Idatzi ez-ezik, banakaritza ta diruzalngoa ere berak eraman zituen urte batzutan.

Orrez gaiñera, lan auek argitaratu zizkigun:

1) *Jesukristo gure Jauna'ren Bizitza* (Iruña, 1921). Pelegrin Mataro'k erderaz egiñaren itzulpena. Kaputxinoen irarkolan. 85 orrialde.

2) *Aita Samuel Kaputxinoa. Gaurko izkillu edo arma* (Donosti, 1922). Loiola'tar Eneko'ren irarkolan. 99 orrialde.

3) *Diccionario Castellano-vasco y Vasco-castellano de voces comunes a dos o mds dialectos* (Bilbao, 1929). «Tipografía General» Bazkunak irarrita. 357 orrialde. Azkue'ren Iztegitik aterata.

4) *Observaciones para evitar, en cuanto posible, las diferencias verbales de los dialectos bizkaino y guipuzkoano* (Bilbao, 1929). «Tipografía General»-ek argitaratuta. X orrialde.

5) *Erriarentzako Liturgia. Pentekoste* (Iruña, 1930). Ama Birjiñaren irarkolan. 41-52 orrialde.

6) *Erriarentzako Liturgia. Pentekoste-Ondorea* (Iruña, 1930). Ama Birjiñaren irarkolan. 53-62 onialde.

7) *Erriarentzako Liturgia. Billebaiketa edo Zirkunzizio-jai*a (Iruña, 1931). Neketako Ama Birjiñaren irarkolan. 11 orrialde, musika ta guzti.

8) *Erriarentzako Liturgia. Erramu Igandea* (Iruña, 1931). Ama Birjiñaren irarkolan. 27-38 orrialde (musika).

9) *Erriarentzako Liturgia. Bezperak* (Iruña, 1932). Neke-tako Ama Birjiñaren irarkolan. 64 orrialde (musika).

Euskaltzaindikoa zan. Paper asko utzi zituen, argitara gabe.

Euskera ederrean, garbi ta errikoi, idatzi zigun beti, gal sakonak ere oso argi jarririk.

(Ikus Aita Felipe, *Ensayo bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragon* (1900-1950); L. Villasante, HLV, 397 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 21 orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 149 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 345 orr.).

13.--ELADIO ESPARTZA AGINAGA (1888-1961)

Lesaka'n sortua, 1888-2-18'an. Bertan Udaletxeko idazkari izan zan 1921'tik 1929'ra; eta urte ontatik, au da, 1929'tik Iruña'ko «Diario de Navarra»-ko idazlarien buru; lendik ere asko idatzi oi zuen eguneroko ontan. Malte zituen batez ere Euskalerriko gogozko ta ekonomizko galak. Araba'ko gobernadore izan zan 1937'tik 1938'ra,

«Bol. de la Institucion Principe de Viana»-n ere, beronen zuzendari bait zan sortu (1940) zanetik, asko idatzi zuen, beti euskal gauzak astinduz. Onen ta aren lanal buruz alnbat iritzi emate egin zigun. Eleberri auek bereak ditu: *Los caminos del Señor* (Madrid, 1922), *La dama del lebril blanco* (Barzelona), *La isla de los sueños* (Madrid), *Nere* (Barzelona, 1928), *Tu hermosura* (Madrid), *De cuando eramos novios* (Iruña, 1943), *Nuestro Francisco Javier* (Iruña, 1941), ta abar.

Poliki zekien euskeraz. Euskaltzaindiak bere bame artu zuen, napartarren artean. Antzerki bat idatzi zuen euskeraz, *Panpiña*, 1932'an sarizatua.

Beretarrak biran zitula, Lesaka'n il zan 1961-3-23'an.

(Ikus Jose Agerre, *Euskera*, 1961, 350 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 167 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 81 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 410 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 193 orr.).

14.—JOSEBA P. ETXEBERRIA

Idazle onek, oindio bizi-zeaztasunak aztertu gabe dauzka-gun arren, ainbat eder idatzi zuen, *Euskal Esnalea-n* batez ere. Euskal kezka zekarren estu-estu, ta orretzaz ziran bere lanak.

1917'tik 1931'ra lan auk argitara zizkigun Donostia'ko al-dizkari ortan: 1) *Urte berri, bizi berri* (1917, VII, 1 orr.); 2) *Euskera ezertarako ez da* (1917, VII, 85 orr.); 3) *Gure egin-kizuna* (1917, VII, 129 ta 177 orr.); 4) *Esaten diegu baña... Ez degu egiten!* (1919, IX, 173 orr.); 5) *Errexetik... errexke-ria* (1920, X, 37 orr.); 6) *Euskera, nola ikasi?* (1921, XI, 73 orr.); 7) *Irakatsi euskeraz* (1921, XI, 97 orr.); 8) *Euskeraz irakurtzera beartzeko* (1929, XIX, 37 orr.); 9) *Nekazari tresnak* (1931, XXI, 35 orr.). Azkenengo au, Euskal Esndea-k 1930'n eraturiko sariketara biddutako lana duzu, Segura'n izenperua.

Antzerki bat ere ba-du: *Urdinburuko Bitor* (Donosti, 1921). Alkarizketa. Martin Mena ta Cia'n irarkolan «Izarra» antzerki-saillak argitara zuen. Ikus «Euskal Esndea» ere, 1921, XI, 163 orriddean.

(Ikus A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 165 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 515 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 262 orr.).

15.—JABIER LAZKOZ BIGURIA (1887-1965)

Baztan ibarrean, Elizondo'n munduratu zan Lazkoz apaiza, 1887-12-3'an, Ardandegi deritzalon etxean. Latin eta ele ederrak Lekarotz'en ikasi zituen aurrenik; Teologia, ordea, 1907'tik 1914'ra, Komillas'en. Apaiztu ondoren, urte batzuk izan ezik, ia bizitza guztia Ziga'n eman zuen arima-zain, bere anai Leandro'rekin. Mixio-zabalkunde ederra ere egin zuen Naparru'ko toki askotan, baiña Baztan aldean, Bera'n eta Alkoz'en euskeraz batez ere.

EUSKALTZALE.—Maite zuen bere izkuntza. Umetatik zekiena osotzen alegindu zan bere bizitzaldi guztian, Axular, Mendiburu ta olakoak irakurriz. Euskalariakin, an ingurukoekin bereziki, Krutz Goienetxe, Ramon Garikoetxea, Tadeo Biela, Aita Donosti, Eusebio Etxalar eta olakoekin noski, ar eman estua euH zuen.

Euskeraz ta erderaz idatzi zuen, Irun'go «El Bidasoa»-n, eta Iruña'ko «Pensamiento Navarro»-n, «Pregon»-en eta «La Verdad», parroki-orrian. Zeaztasun askoz eta ederki ausnartuz gero egindako lanak dituzu, bizi ta laburrak. Eder zitzalon antza, gai bidasotarra; Berriotxo Analak dioskunez, beintzat, «El Bidasoa»-n agertzen dira 1955-65 bitartean, lan auek:

«Regoyos»; «Virgenes del Pirineo»; «Santesteban»; «Palomas de Picasso»; «Prehistoria del Bidasoa»; «Sofocles»; «Caza mayor del Pirineo»; «Castillo de Javier»; «El Director de Quest-France en Baztan»; «P. Isla vascofilo»; «Amor al Pais»; «Mozos de Bidasoa»; «Elizondo: Sus Ferias»; «Origen latino del idioma vasco»; «Santa Maria en Santesteban»; «Las aves de invierno»; «De Pamplona al Bidasoa»; «Canta el vasco»; «Usandizaga y el Bidasoa»; «Obediencia de San Ignacio»; «Diarios y memorias»; «La Biblia y el Quijote»; «La alicion al dibujo»; «Gayarre en Irún»; «Santa Lucia en Santesteban»; «Evolución del chiste»; «Zurbaran en Jaureguia de Alman-doz»; «Goya y su tiempo»; «Arri-kulunka en Elizondo»; «So-

bre el apellido Indart»; «San Pablo en España»; «Guridi»; «El chistulari»; «Las manzanas del Baztan»; «El apellido Albeníz»; «El pintor Javier Ciga»; «Soneto discutido»; «Aspectos del caserío»; «Camino de Santiago por Elizondo»; «Bidasoa»; «Malarreka»; «Elizondo en la ruta Jacobea»; «Divagaciones sobre el Bidasoa»; «Baztan y las palomas»; «El ferrocarril del Bidasoa»; «Vascos e irlandeses»; «Prehistoria del Bidasoa. Los vascos franceses. Orreaga»; «El caseriano»; «Elizondo y Dancharinea»; «El arte al servicio de la paz»; «Unamuno»; «Pío Baroja»; «Hombres ilustres del Bidasoa»; «Capuchinos ilustres del Bidasoa. Padre Roman de Vera. Pedro de Rentería»; «Don Resurreccion M.^a de Azkue»; «Valle Inclan». Guztiz 56 idazlan, iradokitzallle ta ixegarri.

Idazki asko idatzi zituen, ari ta oni: nik pilloa dut ark zuenduta. Gabon aldia batez ere, etzitzaion joango Eguberri zoriona opatu gabe; ortarako, ia urtero, tarjeta politik irarri oi zituen. Olerki asko ere onduak ditu, euskeraz ta erderaz. Nainkoa argitara nizkion nik «Oleriti»-n; beste asko argitara gabe utzi zituen. Sariak ere jaso zizkigun.

Nik Lazkoz, Ziga'ko erretore apala il zanean, idatzi nuen: «Apaiz ona, erriak zñez maite ebana. Artista be ba-genduan, oso leuna. Sarri azaldu izan ditu OLERTI'k aren lan txukunak, bertso yaloetan biribil. Eta langille bat bage geratzean, benetak tamal-miña sentidu bear naitaez». (*Oleriti*, 1966, I-II, 161 orrialde).

(Ikus N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 18 orr., ta BAP, 1969, 586 orr.; S. Onaindia, *Oleriti*, 1966, I-II, 161 orr.; S. Martin, *Escritores euskSricos*, 118 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 455 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, V, 17 orr.; *Eusko Olerkiak*, 1932, III, 43 orr.).

16.—JOSE AGERRE SANTESTEBAN (1889-1962)

Jaiotzez iruñar izanda ere, bere gaztarotik asi zan euskera ta euskal gaiak ikasi ta aztertzen. Egia esan, euskd arazoa izan

zuen bere kezka ta zeregiñik garrantzitsuena bizitzaldi osoan. Bertoko ta kanpoko, era askotako aldizkariak azaldu izan dituzte gizaseme argi onen idazlanak.

BIZITZ-OSTOAK.—Iruña'n jalo zan 1889-12-29'an. Azkar bezin langille zetorren umetatik, eta, apaizgorako deia zeukolar koan, bertako seminarioan sartu zan, eliz-ikasteak osotu nairikan. Denboraren buruan, ala ere, beste bide batzuetatik abia ta ibilla dugu. Bere ikastaroak arnaitu ondoren, Bordele'tik eta Sevilla'tik ibilli zitzaizun, bere adiñeko ogei ta amazortzi urterarte.

Bien bitartean izkuntzak ikasi zituen, or-emen eskolak ere emanik. Ederto zekizkien: Apaizgaitegian ikasi zituen latin ta griegoz at lendik zekizkien euskera ta gaztelaniaz gaiñera, frantsesa, ingelesa, alemana ta italera. Onek gogo-landu ta kulturatu egin oi du gizona; gerra aurrean, beraz, Iruña'ko «Euskeraren Adiskideak» alkarteko buru izan zan. Gerra ostean, ere, «Principe de Viana» bazkunak, ots, Euskeraren aldeko saillak, Napparroa'n azken urteotan eratu izan dituen aurren azterketetan eta bertsolarien saioetan esku artu izan dizu il aurretxoararte.

Gizon txeratsu ta ona zan; guztiak maite zutena. Lenengo urteetako Olerti-egunetan Larrea'ra etortzen zan, beti aldarte oneko ta laguntzeko prest. Iruña'n ikertu nuenetan, euskal literaturaz zan gure autu ta izketa. Adiskide miña nuen, lanerako zeukan sugarra ikusirik batez ere. Emazte ta bi seme-alabakin bizi zan, irakasteari emana. Liburutegi oso ugaria zeukan, Iruña'ko aberatsena bear bada euskal gaietan. Iruña'n bertan il zan 1962-10-19'an.

EUSICAL LANA.—Euskaltzain izendatu zuten 1919'an, baiña utzi egin zuen bere kargua; ala ere, 1934'an, berriz sartu zan laguntzaille bezela.

Aspalditik idatzi oi zuen egunkarietan, eta —zer esanik ere ez— gerra baiño len Iruña'ko «La Voz de Navarra» egunkaria-

ren zuzendari izan zanean naltanaiez idatzi bear. Sakonki ikasi zigun euskera, ta aren euskal lanak ba-dute ber-berea duen nor-tasunaren kutsu berezia.

Erreztasun aundia zeukan olerkigintzarako. Nola darabilen luma bertso koplak biziak mamiñez jaztean! «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n, «Napartarra-n», «Gure Herria»-n, «Euzko-Gogoa»-n, «Pregón»-en, «Vida Vasca»-n, «Egan»-en, «Olerti»-n, «Karmel»-en batez ere atera zizkigun bere olermen frutuak. «Gurbindo» izengoitia erabilli zuen geienik bere lanetan. Merezki lukete or-an sakabanaturik dauden lan oiek bildu ta argitaratzea: ortan ibilli nintzan Agerre il ta bat-batera, baiña ez nuen bear aiñako laguntzarik izan.

Malte duguna zabaltzen sala oi gara. Agerre'k malte zuen euskera, bere aberri-izkuntza, ta lumaz ta mingaiñez au erakusten igaro zituen bere bizitzako egunik geienak, egundo aspertu gabe; olerki sentikor trinkoetan euskera ta euskal gauzak zituen kanta-gal, ta il ere, Jaunari euskeraz otoitz egiñik, il zan.

«Gizon on, leial, langille ta laguntzeko beti gertu egoana zan, ar-emonetan zerbait ezagutu gendunok askorik ondo daki-gunez —idatzi nuen nik ura il ondoren—. Itzez, egitez ta idatziz beti agertu yakun kristau fededun. Jainkoa, Andra Maria ta Mikel Goi-aingerua sarri aitatu ta goretsi zituan olerki gartsu ta ahapaldi borobilletan. Onegite orren eta fede bizi orren saria Jainkoak emona dautso onezkero, an argi ezilkorreko atsedeen gozoan...

«Napar euskelkia batez be, susterretik ekian. Eta ortik eta ortaz oretua eukan olango idazkera bete-umotua, bere-berea ziurrik asko. Gauzak alderdi asko dabez, ta berein alderdiokaz konturaturik, eurotan aurkitzen eban ederra jaso ta, ondoren, bere gogo-irazkian irazirik, guri eskintzen euskun. Or bere idatziak» (*Olerti*, 1962, IIMV, 173 orr.).

(Ikus *Euskera*, 1962, VII, 349 orr.; S. Onaindia, *Olerti*, 1962, III-IV, 173 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 16 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 420 orr.; J. Bilbao, *Euskp Bibliographia*, I, 51 orr.; Jose Anjel Irigarai, *Euskera eta Nafarroa*, Iruña, 1973, 98 orr.).

17.—BLAS FAGOAGA (1897-1966)

Erratzu'k ere, naiz-ta mendarteko toki ixilla izan, ba-ditu bere gizaseme jatorrak gogo-lantze ta jakitez.

Arizkun, Amaiur ta Iztegi bortu erdian paketsu kokatzen dan erriska panpiñean sortua dugu Blas Fagoaga apeza, 1897-2-3'an. Iruña'n egin zituen eliz-ikaskizunak, 1920'an antxe bertan apaizgoa arturik. 1924'an, Mateo Muxika gotzai jaunak Seminarioko Jakintza irakasle izendatu zuen, Eliz-Edesria, *Izlaritza* edo itz-antzea ta Euskera ere txandaka azaldu ta erakutsirik. Urte asko eman zituen arazo ortan; labur; bizitza guztia. Naparroa'ko Foru-aldundiak Iruña'n bertan zeukan euskera irakastegiko erakuslatzea ere berak osotu zuen.

Orrelaxe, lan eta lan, apaizgaien maixu urteetan egiñik, azken bi urteak Erratzu'n, bere sorterrian eman zituen. 1965'gareneko urrillean, aurre-guriñeko miñez zebilela-ta, osaketa egin zioten, baiña ortik il zan 1966-6-22'an, bere jalotz-etxean, «Etxebeltxa» deritzanean: bere anal ezkondu Jose Mari 1974'an illareHn bizitu zan azken bi urteotan. Erriko eliz nagusian egin ziran aren illetak, 140 bat apalz, bere ikasleak geienak, aurrean zirala. Erratzu'n bertan, sendiko arrillobiak gordetzen ditu aren gorpuzkiñak.

Euskaltzalndikoa genuen.

EUSKAL LANA.—Euskeraz ta erderaz ari izan zan idazten. Erljio lanak osatul zituen erderaz, *Semblanzas sacerdotales* batez ere.

Euskeraz, ordea, poesi laburrak biribildu zizkigun, or eta emen argitaratu zitunak. 1933'n, Iruña'ko «Euskeraren Adiskideak» antolatutako euskal olerki sariketan berak jaso zuen lenngo saria.

Orrez gaiñera, itz lauz ere idatzi zigun. «Euskera» (Bilbao, 1959, IV) aldizkarian argitaratu zuen, adibidez, *Azkueren Iztegi berritu eta osoturako: Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitara gabekoetatik ateratako itz sailla*.

Lan au egiterakoan, onela dio berak: «Emen ikusiko duzun itz sail ori, irakurle, Joaldn Lizarraga Elkanoko Apalzaren liburuetatik ateratua da. Argitara gabeko liburuetatik. Elkano, Iruña urbileko errixka bat da. Joakin Lizarraga yauna Elkanon jaloa zan eta aunitz urtez Elkanoko apalz izan zan. Orrengatik Iruña aldeko euskera darabila. Azkue yaunak Lizarragaren liburu argitaratuak cngi ikuskatu zituen. Amalka nalar itz badaude aren Iztegian, Lizarragaren liburuetatik artuak. Baño Lizarragak, argitaratu baño, argitaratu ez diran liburu geiago ditu. Iruñeko Apalzaltegiako liburutegian lau badaude, letraxe txukunez idatziak, irakurgai aunitz dutenak. Emeretzigarren mendeko len aldekoak. Kristau Ikasbideaz eta Santuetaz eta itz galak. Onela deitzen ditu. Nik lau liburu oietatik bi ikuskatu ditut. Bien artean 1.200-en bat orrialde dute. Azkueren Iztegian nere ustez ez dauden, edo esan nal berdinareldn ez dauden itzak autatuz. Astia dezadanean, berze biak aztertako ditut, Yainkoak nai badu, xede berari buruz» (*Loc. cit.*).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 84 orr.; *Euskera*, 1959, IV, 63 orr.; Aufiamendi, *Literatura*, III, 458 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 325 orr.).

18.—ETA BESTE AUEK

—*Prantzisko Deunaren Bizitzatxoa* (Iruña, 1926). Prantziskar-kaputxino batek egina. Nekeetako Ama-Birjiñaren irarkolan. 124 orr.

—*Euskal-Abestiak* (Iruña, 1928). «Euskeraren Adiskideak» argitaratuta. 40 orr.

—*Lenengo Irakurbidea*, aurrei euskeraz irakurtzen irakasteko euskalzale batek aur euskaldunen onerako argitaratzen due-na (Barzelona, 1913). P. San Martin'en irarkolan. 32 orr.

—*Eliz-kantak* Euskal-Erriko eleizetarako oso egokiak. (Iruña, 1904). N. Aranburu'ren irarkolan. 70 orr.

—*Aita Kapuixinoen Misiotako Eresiak* (Iruña, 1926). Ne-
keetako Ama-Birjiñaren irarkolan. 15 orr.

—*Cristau Doctrina* (Iruña, 1919). Aita Gaspar Astetec er-
daraz esribitua eta orai euscaraz publicatzen dana cenbait
gauza aumentaturic Baztango Valleco Parroco batec. Garzia'ren
irarkolan. 64 orr.

—*Gurutze-bide edo Kalbarioak* (Iruña, 1924). J. Garzia'ren
irarkolan. 17 orr.

—*Kristau-Ikasbidea* (Iruña, 1936). Gaspar Astete, S. J.
Aitak egiña, Iruneko Gotzal izan zen Uriz eta Labairu jaun
agurgarriak beretua eta Tomas Muniz eta Pablos jaun begira-
garri Iruñeko Gotzal izan berriaren aginduz osatua zikliko eran
jarria eta euskerara itzulia. Lenengo agerraldia. Aranburu'ren
irarkolan. 88 orr.

—*Frantzisko Santuaren Irugarren Ordenako Ikasbidea* (Iru-
ña, 1920). Aita Kaputxinoetan. 37 orr.

—*Aita Erredentoristaen Misio Santuaren Oroipena* (Iruña,
1903). Nikolas Marzelino'ren moldiztegian. 32 orr.

—*Kristau-Ikasbidea*, Mujika ta Urrestarazu'tar Mateo Iru-
ñako Gotzal jaun guziz agurgarriak agindurik Intza'r Damaso
A. Kaputxinoak Naparrorako egiña (Iruña, 1927). Iruña'ko Ka-
putxinoetan. 96 orr.

M u g a z a n d i k

»Euskaldun batek bere arbasoen hizkuntza ikasi ta irakatsi behar du, bere nazional-hizkuntza delakotz. Euskalherria maite izaita ta euskeraren ez-erabiltzea eztoaz elkharrekin; euskaraz mintzatzeke eztago euskalzaletarzunik. Euskalherria maite duenak, egin behar dituten gauzetarik lehena, euskaraz mintzo izaita da.

»Zergatik, zer dela ta, zararren humeai euskaraz irakatsi? Zio bat gatik: arbasoen hizkuntza delakotz. Hola holarik ba dagoz bertze zio handi batzuk ere. Euskaraz mintzaten zen lekhetan, euskara itzaltzen denetan, hor lurralde hoién semeak gan spiritua itzaltzen da. Ba dirudi euskararen gabe, euskotarrek beren pentsamenduen emaiteko bidea galtzen dutela.

»Euskalherriaren seme ospetsu oro, euskaldun zan. Ion doni Xabierri, Loiolatar Eneko, Elkano, Unamuno, Garaziko Uhartetar Ioannes, Oihenarte, Zumarragatar Apezpikua, **Legazpi**, Ertzilla ta bertze asko, euskaldunak ziran».

(Krutwig'tar F. K.)

LABURPEN

EUSKERA GALTZEN.—Mugaz emendik naiz andik gure euskera galtzen doala, esan oi dugu. Eri dagola, ta sendatu bearra duela. Orrelaxe da, izan ere. Eta gaixo danari lagundu egin bear zaio. Munduan diran 3.500 mintzairak 19 motetan ematen dituzte jakintsuak; euskera «bakar-bakarrik» ezarten dute seigarren motan. Zerbait badu, beraz, badu bere garrantzia. Eta guk geure izatearen ezaugarri nagusi dan izkuntza, geure arbaso, gure ta ondokoen lokarri bakana, ango ta emengo euskaldun anaien zubi dan euskera galtzen utziko ote dugu? Ez giñake geiago euskaldun: «euskera galduz gure izena bera gal genezake: ez gindezke geiago euskaldun edo euskeradun».

MARATILLAK—Zori txarrez aitzaki-maitzaki asko erabilli oi ditugu, geure mintzaire zarrari jaramon aundirik ez egiteko: «ez diteke bera-rekin urrun joan», ta olakoak; neskatx eta gazte askoren erdaiña ta abar.

Gaur-egun, ala ere, beste aize batek jotzen duela esan dezakegu. Gaztedia zoli dabilkigu euskeraz ikasi naita, naiz-ta ez oraindik guk opa gendukean aiñako arrakasta ta nora aundian.

Beste aitzaki bat: arrotz asko ditugula gaur or nunbaitetik etorriak. Egia duzu, arrotzak mordoka dira gure artean; baiña eurotatik ainitz ez dira guk uste bezain muker euskereari buruz, asko dira ikasi dutenak eta ikasten diardutenak.

Gaiñera au ere badugu: gaur gu ez ote gara arrotzekin arrotzen garanak? Zer diozute, gazteak? Eta aurrak? Eta aurrena ta gazteena izan geroa... Leenago etzan orrela, leen ez ginduzten arrotzak gu arrotzen, guk aiek baiño: guk euskalduntzen genitun ona zetoztenak.

Euskal literaturan onako ainbat dauzkagu; kanpotik etorriak, baiña euskaldun eta euskaltzale sutsuak. Ona batzuk: Lapeire, Dabid, Ade-

ma, Campion, Barbier, Lacombe, Guilbeau, Duvoisin, Vinson, Hérèlle, Bahr, Saint-Pierre... Auek eta auen antzekoak ez ote ziran izan, gorputz eta arima, euskaldun? Eta nolako euskaldunak!

ZERRENDA BIKAIÑA.—Gaur egunean, eta gaur dauzkagun aurrera-kuntza, komunika-bide ta tresnakin batez ere, etzaigu geure txikerrean errez izango euskerari eustea, baiña gure aurretikoak mendez mende egin zuten lez geure gogo, oitura ta sentimentu dana jagon ta zaindu nai ba'dugu, euskaldunok benetan gura dugunean erabilli oi dugun kemenari bultz-eragin bearko.

Onela egiñak dituzu, euskerari sendagaillua jartzen adoretzu jardunak dira aro ontako idazleok: L. Lasalle, idazle sakona; J. Elizalde, «Zerbitzari», *Ama Mariaren Pasionekoa*, *Ixtorio Saindua* ta *Bahnar deithu Salbaiak* eta abar euskera gozoan idatzi zitunak; J. Etxepare, idazle andia, *Buruxkah* eta *Beribilez* ondu zituna; Aita P. Lhande, jesulaguna, ainbat lanen egille; J. Ithurriague, P. Etxepare, J. Jaurregiberri; J. Barbier, esaera zar ta asele biltzaille ta idazle bikaiña; Albert Leon, pastoral zalea; Andre Tournier, iztegi-gille; K. J. Mathieu, «Espil», P. Duhour, S. Arotzarena, P. Garmendia ta D. Soubelet.

Zerrenda bikain onek politikxo jantzia dugu garai ontako zubero-baxenapar-lapurtarren literatura. Ezin esan iñolaz ere beren itxuraren jabe ez diranik.

1.—LEON LASSALLE (1881-1961)

Apaiz langille zintzoa, etengabe euskal arloan ari izana.

Beskoitz'en jaioa, ta Uztaritze'n illa. Larresoro'n, Balona'n eta Nal'en osotu zituen bere eliz-ikasketak. Tolosa'ko Ikastetxe nausian izkuntzak ukasi zizkigun, balta Lizenzi-titulua atera ere gaztelera ta inglesean. Apalztu ondoren, luzaro egin zuen irakaslaritza Uztaritze'ko Seminario txikian.

Euskal idazle bezela, nalko artikulu dauzka «Eskualduna», «Gure Herria», «Aintzina», «La presse» ta olakoetan. «Ikher-tzalea», «Zaharra», «New politic» erabili zituen lanak izenpetzean.

Berea du liburu au ere: *Erlisionearen frogantza* (Balona, 1961). Apaiz kalonje onen liburutxu au, laburra dalarik ere, txinkoa duzu. P. Lafitte'k onela liburuari jarri zion aintzin-solasean: «Ohartu zen Eskual-herriz kanpo ibili asko Eskualdun, duda halnitz bildurik heldu direla gibelerat, bereziki protestanten artean urte zenbalt iragan-eta: badaude ez direnez erlisione guziak berdintsu, Lassalle jaun kalonjeak nahi ukan du laburki auzi premiatsu hori churitu. Liburuchka hunek ez du bertze chederik: ez da tarrapatata irakurtzekoa, balnan arraposki, jastaka eta jakituz».

Eta L. Mitxelena'k: «...ederki tajutua du gaia, lau kapitulu-tan berezia, eta arira doa beti egillea, itz alferrik gabe. Nola-

nal ere, bere laburrean, ezta lotsagarri gelditzen liburuxka au beiñola Estebe Lapeyre'k ondu zuen liburu lodiaren aldean Itxuraz, biziro txukun eta egoki agertu da» (*Egan*, 1961, 259 orrialde).

Mustatu ezazu txatal txiki au. «Jalnkoa ezagut ditekea? Aski da bertako asmatzea. Jalnkoa ez dezakezu ez eskuz hunki, ez begiez ikhus, ez baitu gorphutzik; *izpiritu huts* denaz geroztik. Balnan ez dugu ikhustearen beharrik jakiteko badela eta ezagutzeko. Aski dugu izpirituz edo gogoz indar egitea; gure adimenduak ezagutarazten dauku Jalnkoa *segurtamenekin*. Jalnkoa ezagutzen dugu adimendu edo asmuaz. Beha dezagun arloi bat. Nahiz egilea ez dugun ikhusten, ez du egileak agertzearen beharrik guk jakiteko badela, langile jakintsua dela eta arloia bara litakela, ez balio ibiltzeko behar dena barnean ezarri. Halaber, aski dugu mundu huni behatzea jakiteko, batere dudarik gabe, eta tronpatzeko irriskurik gabe, Jalnkoak duela egin; ez litakela hoin ederki moldatua eta aphaIndua ez balitz egilea mila eta miletan jakintsun guziak balno gogoz eta obraz, izaldez beraz, indardunago. *Adimenduz* edo *asmuz* badakigu Jainkoa badela».

(Ikus P. Lafitte, *Erlisonearen frogantza*, itzaurrean; L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 4-6, 258 orr.; J. San Martin, *Escritores Euskéricos*, 118 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 413 orr.).

2.—JOANES ELIZALDE (1883-1961)

A. Irigaral'k, euskal idazle bipil au itzali zanean, au idatzi zuen: «Euskalzale beroa zen eta bal pilotaria ere. Bera eta Oxobi (Otsobi) izan dire 30 urte horietan, iparraldeko gure analen arteko euskal eragille eta sustatzaile goren, sutsuen eta jarralkienak... Gizon ona errotik, bihotz handikoa, apez zuzena beti. **LARREKO, MANEZAUNDI** eta halako batzuk bezala, nekazari zaarren gandik zuen ikasi eta aberastu bere euskara garbia, eta Akademia obeagorik etzaukan. Gereziatako bere hil-

mezan, txoriak multxoka bildu omen ziren kantari eliz-ingurura, Labeguerie sendakinak kondatu zidanez. Euskalherriak seme kartsu bat galdu du eta uzten duen ziloa ezta alse beteko. Bere arreba, aalde eta urbilekoeri gure doluminik bizienak» (*Egan*, 1961, urtarrilla-bagilla, 110 orr.).

Azkain'en jaio zan 1883'an. Bere errian eta Larresoro'n ikasi zituen lenengo izkiak. Eta gero gerokoak. Balona'ko Ikas-tetxe nagusian ikasle aurkitzen zala asi zan idazten, Hiriar-Urruri'k bizkor-azota. Eliz-ikasketak bukatu zituenean, Uztaritze'ra bialdu zuten apaiz lagun, gero Liginaga'n eta Mendiondo'n egon zan urteetan erretore. Azkenez Gerezieta'ko erretore: emen il zan 1961'garren urteko malatzean.

Gizaseme osoa, alde eder askoduna. Bere 78 urtetan makiña bat lan egiña, arimazalñean eta euskal barrutian; idazle, antzerldgille, olerkari, berri-emaille, malxu, ardurua guztiotan ari-tua noski. Malte zuen Euskalerrria, ta beronek ditun lege, oitura, kanta, bertso, atsotitz, esan zaar, eliz-griña, ta beste zer guztiekin, maite izan ere. Eta guztiok aintzat arturik, itzez ta idazkorteze, lan eder-ederra burutu zigun.

Arima-zaintzan bere apostoladutza ez zan edozelakoa izan; izlari trebea, esan errez eta ugarikoa. Itzal aundia zion erriari; txeratsu zan mundu guztiarekin, eta beti zegoen gertu edozeiñi laguntzeko, Poliki dio aren adiskide miña zan Labegerie'k: «Eta Zerbitzari hor zegon, denen erdian, gehienetan ixillik, galerna altxatzerat zoalarik, ditxo batez jabaltzen zuela, edo botoila bat harturik, edari xorta batez sua eztitzen zuela. Zer etxeko-jauna! Zer adixkidea!»

1921'tik «Eskualzaleen Biltzarre»-ko idazkari edo sekretario izan zan; lan aundia burutu zuen kargu onetan. 1930'an, euskaltzain izendatu zuten, eta emen ere langille agertu zan. Apalzok ba-ditugu geure akats edo griñak: Elizalde jalzale zala diosku A. Irigarai'k; «Bestazalea zen biziki eta gure adiskide galzoak bazakien bai mezperak laburtzen euskal besta edo pilota partida baten bixtan».

EUSKAL IDAZLE.—Esan dugunez, gaztetatik asi zan idazten. Eta ain zuzen ere, egoki zaigu' jitez dakargun aier, lera ta apetari gazterik lasa ematea: zar-aroan ezta iñor idazle egiten. Asko idatzi zuen euskeraz, eta idazlari aundi bezela agertu zan beti, «eskuara ederra, aberatsa eta errezaren jabe». Artikulu asko, pilloka ditu «Eskualduna» ta «Eskualdun Ona» astekarietan; «Eskualduna»-n zetorren *Zer eta Zer* sailla, beti ere izpar jakingarriz ornitua, berak osotua zan. «Gure Herria»-n eta «Herria»-n ere ainbat idazlan dauzkazu Elizalde'ren lumatik irtenak; lenengoan datozen ipuin, elezar, irakurgai ta abarrak, zenbat diran gaitz da jakitea; bigarreanean, ostera, berak betetzen zituen noizpeinka lau orrialderaiño. «Irakurtzekoak ziren aur sarituen buruzko haren artikulo luzeak, errika ematen euskal-etsaminen zeekeriak, eta hiri bakotxeko historio ta kontu. *Gutienik* 40 edo 50 herri pasatzen zituen bahetik, aldiz bitxi eta aldiz sakon aski, eskuara galzoa putzutik atera naiez».

«Joanes Elizalde», «Zerbitzari» ta «Bilharia» erabilli zizkigun bere lanak firmatzerakoan.

Ona aren lanik beiñenak:

- 1) *Kantari berria* (Baiona, 1920). A. Foltzer'en irarkolan. 30 orrialde.
- 2) *Atna Maria Pasionekoa* (Baiona, 1930). «La Presse» irarkolan. 101 orrialde.
- 3) *Erreboteko jokoa. Zoin diren gehienetan orai onhartuak diren legeak*. Dassance jaunarekin betera egiñiko lana.
- 4) *Euskal Egutegia 1933* (Baiona, 1932). Ormarako egutegia.
- 5) *Euskaltzain sarrerarako itzaldia* (Euskera, 1931, XII, 77 orr.).
- 6) *Atsotitz, zuhur-itx eta erran-zahar* (Baiona, 1936). «La Presse» irarkolan. 32 orrialde. Aurretik «Gure Herria»-n argitarata emanak. 1.025 dira guztiz.
- 7) *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza* (Lille, 1943). 118 orrialde.

8) *Eskual-herriko hegaztinak eta choriak*. «Gure Herria»-n datoz, 1923, 1924, 1925, 1926'an, amabost lan.

9) *Eskual Herriko landareak*. «Gure Herria»-n daukazu, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935'an amalru artikulu gal onetzaz.

10) *Bahnar deithu Salbaiak* (Balona, 1936). Courier irar-kolan. 197 orrialde. Aita P. Dourisboure bezkoiztarrak egiña, J. Elizalde'k euskeraratua. Aita Pierre Dourisboure, 1849'eko azaroan joan zan Euskal-Erritik Kotxintxina'ra mixiolari, 24 urte zituelarik. Annam eta Laos tartean dauden mendietako Bahnar basatiekin egin zuen mixio-lana; lan orien edestia da, Aita bezkoiztarrak berak idatzita, J. Elizalde'k «eskuara ederean moldatua», Zerbitzari'k frantsestik euskerara biurtua. «Eta zer eskuaran! Bixkoxa bezen goxoa, arno xaharra bezen gustokoa». «Eskualduna»-k agertarazi zuen lendabizi.

11) *San Frantses* liburua ere berea du.

12) *Baita Bi gogorrak, Oltzaberrian, Mikolas eta Gaxuxa* teatru lan motzak ere.

13) *Olerkiak*. Ba-ditu, or-emen sakabanatuta, poesi polit batzak: oietatik iru sartu nituen nik *Milla euskal oierki* bilduman. «Bizi dadin eskuara» deritzan olerkiaren azken ahapaldiak ondo azaltzen digu aren euskaltzaletasuna. Ona:

«Eskuara haln da eder, hain da maltagarri,
non behar baltioгу laguntza ekarri.
Bizi dadin maltea orai eta gero,
berma gaiten hortarat Eskualdunak oro»,

1961'an, il eta laster, omenaldia egin zioten Gerezieta'n, eta oroitarri bat ipiñi idazpuru onekin: «Jean Elissalde Gerezieta'ko jaun erretor zenaren orhoitzapenetan —1883-1961—. «Zerbitzari» maitea, zaude Garralda'ko Amarekin».

(Ikus Azterzale, *Euskal Esnalea*, 1930, 163 orr.; G. Lacombe, *Euskera*, 1931, 77 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.111 orr.; M. Labeguerie, *Gure Herria*, 1961, 120 orr.; Apat-Etxabarne, *Egan*, 1961, urtarrilabagilla, 110 orr.; A. M. Labayen, *Teatro Euskaro*, II, 166 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 385 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, III, 118 orr.).

3.—JEAN ETXEPARE BIDEGORRI (1877-1935)

P. Lafitte jaunak: «Etxepare mirikua, idazkerari dagokionez Hiriart-Urruti ta Abbadie'ren jarraille, euskal literatura csoko idazlerik jatorrena dugu... Al da ta bear dira ezetsi bere uts iragankor batzak; balña ezin dezakegu uka ura bere erriaren morroi ari izan zala, mila eratarata ari izan ere, pake-garalan bezela gudatean ere, buru-ukapenez, ekintzaz eta lumaz. Berak sortu du euskera berri bat nik deituko nioken izkera aundikia ta ausarte, balña Abbadie jaunarena balño aberatsagoa, ez gero Hiriart-Urruti'rena bezaln malgu ta dantzaria, ots, sentipenaren edo-ta pentsamentuaren nabardura guztiak zindoki itzultzeko alña dugun euskera» (*Le Basque et la litter...* 71 orr.).

BIZITZ-IZPIAK.—Argentina'n, Buenos Aires'ko erki barruan dagoen Mar Chiquita'n jalo zan 1877-10-30'an. Oralndik ume zala, 1883'an, etorri zan Euskalerrira bere gurasoekin; aren gurasoak, Jean Etxepare ta Graziana Bidegorri, biak prantses euskaldunak. 1889'an Larresoro'n asi zan ikasten: izkuntza arrotzak omen zituen begiko. Balta maite zituen lana, otoitza ta pelota ere. Ementxe ezagutu zituen Abbadie, Adema, Hiriart-Urruti ta abar. Urterik urtera zioan «bethi ari eta bethi goiti, arno ona bezala bethi ontuz».

Bertatiko baten, ordea, antxe Larresoro'n ikasten zebillelarik, kezka itsak arrotu zitzalzkioren barne. Ulunpe guztiak uste zuen galxoak argituko zituela jakintzaren jakitez. Gauzen muiña ta izaera argitzen diguten galok ikasteak bazter batzuk bai argitu zizkion, «hala nola zer gisaz gauzak heltzen zalkun gogorat, bakhar zombalt chuchen-chuchena sentsuek bildurik, bertzeak lekakoek erranik». Beste barruti batzuk, alere, illun ta beltz geratzen zitzalzkioren, «bereziki erlisionecko irakaspenak: michterio horiek chilatu nahiko zituen, adimenduaren gozagarri, eta ezin!» Guda gogorra izan zuen zer onetan; alde batetik

utzi ez nai otoitza ta erlijioa, ta bestetik arima barnean alako goibel ixil bat «bethi zirikan ari zitzaiona». Jo zuen ara ta ona argi-eske; baiña etzuen bear aiña jardespenik izan.

1894'ko azillean Bordele'ra jo zuen medikuntza ikastera. Itxura danez, alere, lanbide ori ikastera baiño bere izatea jakituriz joritu-naiak eramana geiago joan zitzaizun. Uri artan Haeckel, Nietzsche ta olakoak irakurri zituen, kiratsa zerioen liburuak noski. Onek kalte izugarria ekarri zion, fedeari buruz batez ere. «Ordutik —diosku P. Lafitte'k— sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko ilhundura hits eta ezitia». Ikasi zuen, alere, gogotsu bizi osoko ogibide izango zitzaion karrera, medikutza, ta azkenez irakasle —*Doctor*— tesisa egin bearra izan zuen, eta euskal kutsuko gai bat autatu zigun ortarako: «*Quelques remarques sur le Joueur de Pelote*», au da, pelotarien gorputz-aldarte ta gaixotasun berezietz zeaztasun batzuk. Lan ederra. Lau mediku nausik 1901'an onartu zuten aren lana. Geroztik sendagille egiña duzu.

Bere sendia —gurasoak eta zazpi seme-alaba— Ameriketatik etortean Lekorne'n kokatu zan. Eta J. Etxepare'k ementxe egin zuen lau urtez bere medikutza; ondoren, Aldude'n beste ogei bat urte. 1914-1918'an Europa'ko gerran guztiz egoki bete zuen bere egitekoa, eritu ta gaixoekin. Zori txarrak ere, gaiñera, maiz ekarri oi ditu ondore onak, eta Etxepare'ri, oiñaze tar-tean bear bada, fede-argiak biziago ikutu zion eta, arrezkero, Alemani'ko jakintsu ta filosofu illun-beltzak saiets utzirik, beste gizon bat agertzen asi zan. Lafitte jaunak: «Noizean behin laiñoak jinen zaizko berriz ere gainerat, ximistak ere ihurtzuri-eskainka; bainan bethi goxoago, bethi ederrago, betbi xuxenago eta azkenean *egiago* agerturen zaizko fedearen argi bereziak».

Guda ostean, ezkundurik, Kanbo'n jarri zan miriku. Len Lekorne'n eta Aldude'n bezela, emen ere bere eginkizuna alik eta ongien beterik, ongille aundi izan zan beti. Osagillea ta apai-za, antzekoak dituzu; ark gorputza du osatzen, onek arima. Ez

batak ez besteak, eztute iñoiz ere beren burua lar jakituntzat etsi bear, bakoitzak bere ofizioari begira batez ere. Etxepare, bere egitekoari Gbeto erantzutearren, mugaz andiko senda-bide ta sendagailluen berriz jabetu nairikan, aleman ikasten zebillen aspertu gabe. Atzenez, deitu zion gaixo bat ikusi ta beste baten-gana zijoanean, nekatua nunbait, eriaeren etxean sartu ta txapela kakoan ezartzerakoan, alditxarrak eman, ziplo lurrera jausi ta biotza gelditu zitzaion betikoz. 1935-1-9'an izan zan.

Urte luzeetan izan zan Etxepare «Eskualzaleen Biltzarre»-ko buruzagi.

EUSKALTZALE.—Idazle ugaria izan zitzaigula esan dezakegu, iñork gezurtuko gaituen bildurrik gabe. 1902'tik aurrera asia dugu idazten, «Eskualduna» astekarian bereziki. Hiriart-Urruti zan paper orren artezkari, ta onek egin zuen Etxepare idazle. Zuzendari jator ark euskera opa zuen bere «Eskualduna» agerkarian, «ez erdi-kaskoin erdi-eskuara», Lafitte'k dion bezela, «zonbaiti biziki eder zaioten mintzaira hartarik. Eskual hitzak, eskual itzuliak, eskual usaina: hiruak nahi zituen elgarrekin, ala deus-ez». Bai, Hiriart'ek, osagille azkarrak bialdu lanak, andik luza ta emendik labur, baita itz-ordaiñak ezarriaz ere, luma go-xoa eduki zezan bear zuena irakatsi zion osalari trebeari. Lan ixilla, baiña etekintsua asieran batez ere. Makiñatxu bat olako egiñak gara!

Mueta askotariko lan-gaiak ziran aizatzen zituenak: Laterri arteko goraberak, jakitunen asmo berrituak, etxean ondo iza-teak, onu edo kontsejuak osasunari buruz, politika-gaiak, diru-auziak, Euskalerruari buruzkoak, euskeraren batasunaz, kontaezin ala gai ta auzi aitzurtu zizkigun. Ai, aren «buruxkak»! Idatzi ere nolako lumaz idatzi zigun! Euskaldun arruntak darabilen baiño luma zerbait goragoz, euskera ta euskal gaiak zera-bilzkgun. Gutxi aitatuturiko gaiak ba-ditu, zenbait gauzatan. Onek bear bada arrotz-airera ematen zien aren lanai. Baiña ira-

kurleak laster konturatu ziran idazle bat gaitza sortu zitzaie-la, «hedadura handiko bezain hizkuntza gurbil, xuxen eta abera-tsekoa».

Abarroska, itz-barbar egiñiko zabalkundearen egoz baiño, ixillik burutu lanaren durunduak daramagun otsaren ospea eder, iraunkor eta beteagoa da dudarik gabe. Etxepare'ren euskaltza-letasunaren berri ere, orrelaxe, xoko urruti guztietara zabaldu zan. Eta Euskaltzaindia sortu ta laster, 1919'an, urrillaren 26'an, Donosti Aldundi jauregian ospatu zan batzarraldian, beste pro-bintzitako euskaltzain urgazletzat Benabarre'tik aukeratua izan zan Etxepare ere. P. Lafitte'k onela: «Etxepare jauna lagun-tzaile hartu zuten bakharrik, gure ustez gehichago egin zukeela-rik, segur eta halere».

EUSKAL IDAZLE.—Esanda utzi dugunez, medikutza amaltu ta bertatik asi zan «Eskualduna» asterokoan idazten. Gerora, ber-din idatzi zuen «Gure Herria» illerokoan ere: bietan aspertu barik, eta beti lan jakingarriak. Olan izen aundiko idazle bñaka-tu zan denbora laburrean. Ona aren liburu zerrenda au, aundi-maundienak aipatuz.

1) *Quelques remarques sur le joueur de pelote* (Bordele, 1891). Y. Cadoret'enean. 98 orrialde.

2) *Alduden gerlako Orhoitmenaren aitzinetik* (Balona, 1923). Feltzar'enean. 8 orrialde.

3) *1923'ko Eskualtzaleen Biltzarra Baigorriin* (Baiona, 1923). Feltzer-Lasserre'nean. 23 orrialde.

4) *Eskualdun laborariaren almanaka*. Beiñola, Uztaritze'ko serora beltzen kapillau izandako Etxeberri'k, 1848'an, abiatu zuen Almanaka duzu, Etxepare'k, Pierre Etxepare apaizak la-gunduta, amar urtez bederen, 1914'eko gerra piztu arterialño ager-erazi zuena. «Eskualduna»-k ere bere Almanaka zeukan; beraz, bi almanaka zuri, ta noizik bein argitaratzen zuten ezker-tiar beste bat, iru egutegi ziran aldi artan mugaz bestekaldetik; baiña 1914'tik aurrera bi zuriak bat-egin zuten «Eskualduna»-ren itzalpean.

5) *Buruchkak. Lekornen eta Alduden* (Tours, 1910). Marae irarkolan. 213 orrialde.

6) *Buruchkak* (Baiona, 1936). Pierre Lafitte'n «Aintzinsolas» batekin eta egileak Pierre Etchepare bere aniaz moldatu lerro-alde batekin. «Gure Herria»-k *Le Livre* irarkolan ager-arazia. 138 orrialde. Laket zitzaion J. Etxepare'ri izen au, ta beronen pean argitara zitun beste ogei bat lantxo «Gure Herria»-n. Batzuk liburuan eta aldizkarian dauzkazu. Dalako liburu au, zerbait arindua izan zan. Ba-zituen bere akatsak; bi batez ere: lantxo batean aler zegoen apaizen eskolai, eta bestean, ausart agertzen zan maitasun garbia ta beste edozelako neurri berdiñean jartzerakoan. «Liburu hori —dio Lafitte'k— ditaken eskuararik garbienean egina delakotz, nahi izan dugu sdbatu: bi kapitulu dchakabeez arindurik eta hitz dorpherchko *bakhar batez*, zen bezela agertzen dugu».

7) *Iritzi eta kitzika* (1922). Titulu onen azpian alnbat lan eder dauzkagu *Eskualduna'n* eta *Gure Herria'n*, Agirre'ren «Garoa», Axular'en «Gero», Duvoisin'en lana, Pierre Etxepare'rena, Eskualtzaleen Biltzarrekoak eta abar azertu ta iritzia emanik osatuak.

8) *Beribilez* (Baiona, 1931). Lasserre'n irarkolan. 112 orrialde. Lendabizi «Gure Herria»-n emaniko lanakin osatua. «Liburu gozo bezaln ederra», dio P. Lafitte'k. Euskal errian zear, beribillez, egin zuen txango ala ostera bat altatzen digu, oso zeatza. Kanbo'tik irten, Donibane-Garazi, Iruña ta Loiola ikusirik, Donosti, Endala ta Donibane-Lobitzene'n barna, berriz ere Kanbo'ra itzuli zanekoa. Begi-erne ikusi ta bidenabar aurkitu dituen erri, jende ta gauzak irakaspen bikaiñez jazten dizkigu, «bihotz mardo eta zabala» erakutsirik.

9) *Eskualerriko bizia*. Amabost bat artikulu dira, 1932, 1933, 1934 urteetan «Gure Herria»n argitara ekarriak.

«Gure Herria» sortu zutenean, etzan Etxepare orren aldekoa. «Eskualduna»-ri kalte egingo ziola, uste zuen. 1921'an, mugaz andik, euskaldun adoretzu batzuk alkartu ziran sorte-

rriari zegokion jakiña errotik ikertu ta zabal-erazteko aldizkari baten primiña zegoela-ta. Ona bildu ziranetatik batzuk: Blazi, Barbier, Apestegi, C. Dufau, Ithurbide, Kolas, Herelle, Vinson, Saint-Pierre, Daranatz, Lhande, E. Souberbielle, L. Dassance, Mayi Elisague, Elizalde, Moulier, Gavel, eta abar. Etxepare'k, biltzarrerako deia artu zuenean, ezetza eman zien. Zergatik? Etzitun erriko indarrak banatu nai; bere iritzitan, nainkoa zan «Eskualduna» euskaldunak argitzeko. Ondoren, ala ere, besteen esana onaturik, bien, ala «Eskualduna»-ren ala «Gure Herria»-ren laguntzallle suar izan zitzaigun beti.

IRITZIAK.—P. Lafitte'k alzatau izan dizkigu baltik bat Etxepare'ren idatzi ta lanak; eta gure literatura zelalan beti jarri izan du gorenengo aulkian: «gure maixua», «gure len-salolaria» deitzen dio ao betean. Ona bere itzak: «Nahi-eta-ez zelaian hazi gizonak traka dorpea du mendiz mendi atrebitzen denean. Berdin gertha dakioke hizkuntzari: sukalde-ezkaratzetan hazia, baditake josi-aire emaiten duen sal-unetako dirdira lilluragarrien artean. Bainan Etchepare mirikuaren eskuara segurik, burua gora badagoke nun nahi; ez dio frantsesari berari deus zorrik ez soinez, ez soinu: jaun emalten du; usalan baino jaunago menturaz; ez ordean behin ere jaunegi, aberastu-berri ergelaren pare».

Garbizale? Gerra ostean, mendiz onunzko liburuak irakurtzen asi zitzalgun, eta leendik ere begiko zituen itz berri batzuk poliki sartzen dakusagu, «eskuara hetaz hazi» nairik. Lalitte'k onan: «Orduan *garbizale* edo *puriste* baten fama bildu zuen, Bizkitartean, han-hemenka urrunchko joanik ere hitz-berriketa, uste dugu ez duela banabertze gure mintzaire chaharra achaletik ere histu. Errana dugu lehenago ere, eskualdun izkiriatzalleen nausitzat baginaukala».

(Ikus P. Lafitte, *Gure Herria*, 1932, XII, 259 orr., ta *Buruxkak*, bigarren agerralciiaren aintzin-solasa; J. Elizalde, *Gure Herria*, 1955, XXVII, 279 orr.; Oxobi, *Gure Herria*, 1935, XV, 1 orr.; G. Lacombe,

RIEV, 1933, 320 orr.; I. Omaetxebarria, *Euskera*, 1959, 199 orr.; L. Villasante, HLV, 300 orr.; L. Mitxelena, HLV, 155 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 504 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 276 orr.).

4.—PIERRE LHANDÉ HEGI (1877-1957)

G. Eppherre'k: «Zouiñ orduz goure begiz ikhousi nahi badugu itchura edo begitharte bat, Ziberoua egiazki ezagut-erazten eta maitha-erazten deikuna, Ziberouaren beraren begithartia dena, goure gogo-bihotzek arraphitz-erazten deikie Aita Lhande-en begitharte ezinago maithagarria. Aita Lhande eta Ziberoua bat beitirade, orai eta aspaldiko ourthetan, orai eta agian! sekulakotz».

Zaii zaigu noski A. Lhande jesuitaren nortasuna, dagokionez, agirian ezarri ta aditzera ematea. Ertzik asko ditu, ots, lan-arlo ñabar eta desberdin askotan buru-belarri jarduna dugu; ez euskal alorrean soilki, beste kanpotiko lur asko ere jorratu zigun gizakume urduri onek.

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Baiona'n jaió zan 1877-7-9'an. Basa-gaitz zan bere egiazko deitura, baiña bere aitonaren ezizenak —Allende— irten zuen nabari, erriko paperetan batez ere. Sortzez baionarra izanik ere, Lhande'k zuberotartzat zeukan bere burua; ume-umetatik, bada, —baita gero ere— bere amatxik Zalgiz'en, Zuberoa'ren erdi-erdian zeakan jauregian ematen zitun aldikada luzeak. Ementxe ikasi zuen euskeraz ere, bere jolas-lagunekin, «ango aurrek oro euskaraz ari beitziren, Ziberotar plañez». Aita sal-erosle zan.

Baiona'n osotu zituen Lhande'k bere leen eskolak, San Bernat ikastetxean, Kristau Eskoletako Anaiakin, Azkarra zetorren; zortzi urtedun zala, ohorezko gurutzea irabazi zuen, eta ura paparrean zuela eldu zan etxera. Amaren poza! Aita illa zuen, eta ama alargun zegoen 1885'tik, eta onek haren jite ezinago abera-

tsari «plegu berehezi bat» eman zion. Orduantxe, ain zuzen, asi zitzaion umetxoari biztu ta aunditzen apaizgorako deia. Ortarako, Zalgize'tik bi urratsera dagoen Maule'ko Prantzisko Deunaren ikastegira doa, trebe bezin zalu bere barne-lantzeari ekiñez. Bein, an zegoela, txango bat egiterakoan, Maule'ko gaztelu zarra ikustera joan omen ziran ikasleak, eta Lhande gazteak «buria oro arrigarriz», idatziz jarri zituen guduka aren goraberak; prantsesez poesian ipiñi omen zituen, Birjilio latin idazle zarraren kobla-moldetan.

Amasei urtekin Baiona'ko Seminaria joan zan, Filosofia ikasten. Lagun eta adiskide miñak zituen emen, zuberotarrak ere bai. Apalzgaitegi ontan igarotako bost urteak lan eta otoitz-urteak izan zitzaizkion Lhande gazteari. Eder zitzaion garal artatik frantsesez eta euskeraz idaztea, itz-neurtuz ala ere. Aren leen frantses kopla ta artikuluak «Le Conseilles des Farnilles» eta «Le Patriote des Pyrenees»-en agertu ziran, *Nadi-Preherel* naiz *Petit Pierre*'z izenduta. Nagusiak, iritzi baten, au etzuten ondo ikusten, eta onako ondo ezin etorri bat sortu zan nagusi ta ikaslearen artean; egun baten, beraz, egun mingarri baten, agur-egin zien Ikastetxeari ta bertan zeuzkan adiskide miñal.

Lhande'k, ordea, eliz-deia sumatzen. Eta egun batez, «gogakaldi suhar baten egitera» joanik, bakartade artan artu zigun «bere biziko jesuixta eginen zela»-ko xedea. Eta Rodez urian sartu zan Jesuiten etxean, 1900-9-5'an. Amar urte emango ditu apalztuteko, ta amalka bere ilosketak burutzeko, jesuiten bizimoldeari dagokionez. Ainbat errialde ikuskatuko dizkigu anartean: Beljika'ra doa lenengo bere jesuita lagunakin, 1902-9-8'an leen botuak egiñik. Ondoren, urte betez, Ingalaterra'n bir-artzen ditu bere larin, greka ta frantses ikasldzunak. Beste bi urtez Olanda'n ikasten ditu filosofia ta zuhurtasuna. 1905'an eta 1906'an, bi urtez, Espalña'ko Puerto de Santa Maria'n frantses erakusten du. Berriz ere Beljika'n daukazu, Enghine urian, lau urtetan teologjia ikasten. Bitarte ortan, 1910-7-28'an, apaizgoa artzen du Tolosa'n. Ogei ta amalru urte dauzka.

Beti urduri, ikasi ta idatzi zebilkigun urte oietan. «Haren gogua bethi alha ari zen eta haren luma thal-gabe pharra-pharra», dicsku G. Eppherre'k. An naiz or, zebillela zebillen to-kian, liburu-gaiak billatzen zituen, eta mami-jariozko liburuak osotu. Ez, Lhande etzan besteen eiñekoa. Eta orrez gaiñ beste alderdi au ere aitatu bear dugu: «Haren bihotzian Euskararen eta Euskal-Herriaren amodiouak etziala ogen-egiten haren aphezteko lanari eta estudio suerte orori». 1911'tik 1921'ra, Tolosa'ko Ikastetxe nagusian euskal irakasle ta Euskalerrian —Ondarribi'n eta Ernani'n— jesuiten ikasguetan, arima arduradun bezela, bizi izan zan arterik gabe: irakasle ta alta ezpirituala noski. Euskalerrriaren alde egin zuen, mintzaldi gartsu baten ostean, Bidaso'z emendik etzala ondo ikusia jaMn-erazi zion gobernuak, eta emengo adiskide ta gauzai «berriz arte» esanik, Tolosa'ra zuzendu zan, an ostera ere irakasle lanari loturik.

Izlari sutsua genuen A. Lhande: mintzo milla iñarrez indar-aziaren jabe. Trebetasun onek maiz eramán oi zuen Paris'ena; eta egun batean, berak usterik etzuela, Paris'era aldatu zuten nagusiak zati baterako beintzat. G. Eppherre'k: «Goure Zibero-tar aphez ezpiritu argia, luma xothil eijerra eta elhestari go-choua orozbatkoz jouan zen Pariserat *Etudes* agerkarian izki-baiño bezala eta pheredikari handi bezala». Gizarte-gaia zera-billen geienik bere itzaldietan; irratitik ere mintzo zan, eta de-nak aditzen zioten biotz-dardar; Paris inguruko eremu itsetan zebillen batez ere erlijio azia barraiatzen. Berak uste etzuen la-koxe arrakasta ta ondorea zeuzkan: nun-naitik zetorldon la-guntza bere gizarte-lanerako. Guzti orren berria *Etudes* ager-karian zemalan. Ordan sortua noski, geroxeago Verdier kardina-lak anditu zuen Paris ondoko lan ezin obe ta baliotsuagoa, G. Eppherre'k: «Eztetzazkegu aipha haren lanak eta harat-houna-kak eta pheredikiak oro; bena bost ourthez burutu zutian 52 eliza, 90 gazteen bil-toki, 58 parropia-etche, 40 eri-soueñgia, 12 eskola, 8 haur-baratze eta 14 haurtegi; eta erosi ere 90 lur-eremu obreentzat». *Etudes'erako* idatzi zituen artikuluak, eta

iru liburu —«Le Christ dans la banlieue», «Le Dieu qui bouge» eta «La Croix sur les fortifs»— ere orduko lanak ditu. Zortzi urtetan mintzatu zitzaigun irratimintzez.

Ego-ukaldi aundiago batzuk emana dugu oraindik; Ego-Amerikan ibilli zitzaizun, baita Madagaskar ugarte ederretik eta goiz-aldeko India'tik ere; Ameriketako euskal talde aundiakin ar-emana izan zuen, Madagaskar'ko mixiolariak zearo ikertu zituen eta India'n Xabier'ko Prantzisko Deunaren gorpua musukatu. Azkenez, lurra jota, ezertarako etzala gelditu zan, itza ta ezagutzea ere joanda. Denboraren buruan zerbait obetu zan, berriz ere lanari ekin; baiña gaitzak emeki aalako oro alturik, aren gurutz-bidea luze izango zan azken-unera eldu arteño. Atarratze'n itzali zitzaigun 1957-4-17'an. Larogei urte zeuzkan.

EUSKALTZAIN.—Eliz-karrera bukatu ondorean, Euskalerritik ibilli zan A. Lhande, Zuberoa'n eta Ondarribi ta Ernani'n bereziki. Orduan ezagutu zituen aski zeatz Zubero, Lapurdi ta Baxenabarrez kanpo, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia ta Nafarroa: «ezagutu beitu probintzi haletako Euskaldunen oihura zaharrak, mintzaje berhezi nasai-ederrak eta orotan-gainti berthute ezinago azkar eta irainkorak. Ezagutu beitu ere han gizon hedadura handikouak eta euskaldun ezinago suharrak, hala noula Domingo Agirre, Azkue, Eguzkitza, Altube, Intzagaral apheza, aita Intza eta Larreko edo Irigaral eta zounbat holako!»

Ezaugera oiekin euskal batzar guztietara jo oi zuen, an naiz emen gertatzen zirda. Iñork baiño obeto zekien nun zer egiten zan. Oñati'ko batzarrean, Eusko Ikaskuntzak eraturikoan, lan izugarria burutu zuen Euskaltzaindia sortzeko. Ezta, beraz, mirregarri 1919-10-7'an Donosti'ko Aldundiaren jauregian ospatu biltzarrean Lhande euskaltzain izendatzea. Euskera zaindu ta piztu-erazteko arreta duen alkarte onen altzoan izan zituen karguak, beste batzuen artean batzar agirietan agertzen diranak: 1) «Euskaltzañentzat ezautailuak eragin eta A. Lhande'k eta Intzagarai jaunak Euskaltzaindiko sendatez ituntzeko ardu-

rea artu dayela»; 2) «Euskaltzaindiaren Errolda-izena «Euskera» izan dadila eta lenengo zenbakia argitaratzeko arloa A. Lhande'k artu dayala»; 3) «A. Lhande'k «Euskera» agerkariaren lenengo zenbalda zelan eratu daben ela gai orrezaz egin dauzan lanak irakurri ebazan, eta oron aburuz aintzat artuak izan zirean», eta abar. Euskdtzaindiaren batzarrik geienetara joan oi zitzaigun.

Luze xamar dan arren, merezi du-ta, bioa emen «Euskera»-k, A. Lhande'k idatzita noski, leen-zenbakian dakarren aintzin-solasa. Onela dio: «Gure Euskaltzaindi au jaio zan egunetik laster, asko asi ziran baltsa berria zirikatzen minki eta saminki, mingañaz eta idaztortzaz: batzuk, autatuak izan ziran euskaltzainiak gai aundi ortarako egokiak etziralakoan; besteak, lendabiziko batzarretan erabakitako gaiak almen gabekoak zirala-ta. Oldarraldi orien aurrean, Euskaltzaindia ixil ta geldi egon zan, bein-bein asi zuan saillari jarralkiz. Etsalak garaitzeko, bururatu zukean lana itzak baño izkillu obeagokoa izango zala bazirudian. Alperrak edo argalak giñala ta gañerako itz ernariak esaten utzi, ta bakartasunean bere gal gogorra aurreratu zuan. Gaur, lendabiziko urte orren barruan ebaki degun lan ixillaren zadtzo bat emen dakargu. Iñori makala badirudio, ark gogoan ar bitza Euskaltzaindi berriak eraman bear izan dituan nekeak. Sasi ta larpean dabilzanak, zelal zabalean dabilleenaren antzera leiatsu ezin leizke. Gu Euskera'ren basoko sasi ta arantzartean, moztuz eta ebakiz bagenbillen. Bide gutxi garbitu degula dioanak aizkora ta aitzurrari lotu dedilla ta lan orren berriak jakingo ditu». Onek darakusgunez, sator-lana dagitenak beti izan dira, eta izango. Baiña, jakiña, askoz errezago duzu ori, A. Lhande'ren antzera leia bizian lanari ekitea baiño.

1921'an, esan dugun itzaldiagatik eta garal bertan argitara zuen «Notre Soeur latine, l'Espagne» Uburuagatik, mugak itxi zizkioten eta etzuen onantz etortzerik. Euskaltzaindiak euskaltzain bezela ez, baiña euskaltzain batzak bakoitzarekiko elpidak aren alde jarri ta J. Urkixo'k Maura ministruari idatzi ere

egin zion arren, etzuten ezer ardietsi, ta orduan «Euskera» agerkariaren zuzendari, aren ordezt, Jesu-Lagundiko Aita Joakin Azpiazu izentatu zuten; balña etzion utzi A. Probintzialak, «beste arazo ta lan garrantziak» Lagundian zeuzkala-ta. Ortaz, 1922-1-26'an Donosti'ko Aldundi jauregian izan batzarrean, Nazario Oleaga jauna autatu zuten aldizkari orren artezkari.

IDAZLE.—Idazle oparoa duzu A. Lhande. Odol-izantz oneko gizona balt zan, beti zegoen gertu or-emen ikusi ta oartua lumaz jasotzeko. Gisa ortan osotuak dauzka konta-ezin ala idazti, erderaz ta euskeraz. Ona sall bitan, laburtxo, aren idazlan ia osoak:

a) *Euskerazkoak*: 1) 1904'tik 1906'ra Balona'ko agerkari «Eskualdun Ona»-n ziberoeraz eman zituen lanak; 2) *Gure orma zaarra*, Oiartzun'go euskal jaletan egiñiko itzaldia; 3) *Curutchet Apheza* (Baiona, 1917), Johane Curutchet aphezaren hil-mezan, Onize'n, 1917-6-26'an egiñiko mintzaldia; 4) Baiona, Leskarre ta Olorone'ko Apezpiku jaunaren *Gutuna* (Baiona, 1919); 5) 1920-1922 bitartean «Euskera»-n agerturiko Euskaltzalndiaren lanak, I, II ta III'garren zenbakiak; 6) *Yolanda* (Donostia, 1921), 75 orrialdeko nobela, «Argia» asterokoak argitaratua; 7) *Agirre, irakurgaikiña* (Donostia, 1920), «Itzaldiak» liburuan.

b) *Erderazkoak*: 1) 1895-96 bitartean, ikasle zala, Baiona'ko «Le Conseiller des familles»-en eta Paube'ko «Le Patriote des Pyrénées»-en azaldu zizkigun olerki ta lan laburrak; 2) *Sur le Salve Regina* (Paris, 1897); 3) 1903'tik 1915'ra «Le Messenger du Coeur de Jesus», «La Revue Blanche de Castille», «Le grand Almanach Catholique», «La Almanach de Pelerin» ta beste agerkari batzuetan eman zituen olerkiak; 4) *Autour d'un foyer basque* (Paris, 1908); 5) *L'Emigration basque* (Paris, 1910); 6) *Jeunesse* (Paris, 1912); 7) *Luis* (Paris, 1912), irakurgala; 8) *La Vocation d'Ignace de Loyola* (Bruselas, 1913); 9) *Mirentchu* (Paris, 1914), irakurgala: gazteleraz ere Bilbao'ko «Euzko-Argitaldaria»-k atera zuen 1917'an, A. P. Lardizabal'ek

biurtuta; 10) *Le prix de sang* (Paris, 1915); 11) *Trois Prertes-Soldats* (Paris, 1918); 12) *Mon petit pretre* (Paris, 1918); 13) *L'emseigne de vaisseau Auguste Lefèvre* (Paris, 1919); 14) *Notre Soeur latine, l'Espagne* (Paris, 1919); 15) *Les Mouettes* (Paris, 1920), nobela.

Tolosa'ko urian, Luis Gonzaga deunaren Ikastetxean, mai-xu zalarik, argitaratu zituen beste auek: 1) *Bilbilis*; 2) *Le Pere Longhaye*; 3) *Fils de Dauphin*; 4) *Le Pays basque a vol d'oiseau*, eta 5) *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque* (Paris, 1926). 1.117 orrialde. Lenengo alea bakarrik ager-azi zigun. Geroago oraindik, munduan barna egiñikako ostera ondorean idatzi ta argitara zituen: 1) *La France rayonnante*; 2) *La Mission de Madagascar*, eta 3) *L'Indi sacree*. Eta azkenez, eri-aldian, moldatu zuen *Le moulin d'Hernani*. Eskualtzaleen Biltzarra'k argitara zuen, 1946'an, A. Lhande'k eta Jean Larrasquet'ek alkar lanean osatu zuten *Le poét Pierre Topet dit Etchahun et ses oeuvres* (Baiona, 1946). Lan auetarik zenbait olanderara, alemanerara ta espaiñerara itzuliak izan dira.

Amaitzeko, aldizkariotan idatzi zuen malz xamar: «Eskualduna», **RIEV**, «Euskalerraren Alde», «Euzkadi», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Pueblo Vasco», «Liberté du Sud-Ouest», «Etudes», «**Revue pratique d'Apologétique**», «**Revue Latine**», «**Durendal**» eta olakoetan.

IRITZIAK.—Lan otatik, gureztat, P. Lafitte'k eta Aranart apezak lagunduta bukatu zigun Iztegiak —*Dictionnaire Basque-Français'ek*— du garantzirik geiena. Ederki egiña. Ba-du bereizgarri bat euskal iztegi-gilleak erabilli bear luketena: grekak eta doixtar iztegiak sarri dagitenez, A. Lhande'k jatorrizko itz baten ondoan, artatik datozen gaiñerakoak ezartzen ditu; adibidez: on-aldi, -aro, -begi, -bear, -bide, -damu... Mugaz andiko izkelgiak dakartzi berariz; Azkue'rena artzen du eredu bezela, Foix eta Harriet eta J. M. Hiribarren'arekin batera. Asmotan bitara, euskeraz ta frantsesez ta frantsesez ta euskeraz, egin opa zuen; baiña *Basque-Français* eman zigun bakar-bakarrik. Idaz-

kerak, ortografi aldetik, Euskaltzaindiak 1920-1-8'eko batzarrean ontzat eman eta beretzakotu zuena darabil oso-osorik. Ez dakar itz berririk. Paper ederrez argi ta garbi irarria.

Gcgora zazu baita, Guillaume Eppherre jaunak Euskaltzaindian sartzerakoan, Aita Lhande ziberotar euskaltzalñaren oritzar penez egiñiko itzaldiaren amaian esan zuen au: «Euskal-Herria dolian sarthu da holako seme paregabekouaren galtzian; bildu da cthoitziari han Atharratzen, Bazko astelehen hartan, haren khorpitzaren unguirian; orano orai nouiztarik nouiztara egoiten beita haren botzaren beha eta haren arra-jitiaren haidura. Egiaz, Euskal-Herriak galdu du bere Seme haitienerarik bat; galdu du, bena lehenik ere oantsa gozatu du eta baliatu, haren izatiak uzten beitu goure zelu ourdin eijerrian argi bat sekulan ere itzaliren eztena, haren izpiritu argi gocho eta maithagarriak egiazki altchatu beitu Euskal-Herriak dutian hourtazun abe-rats ezinagokouak, haren bihotzeko suiak phiztu beitu euskal bihotzetan amodio bat, ezagutze bat, indar bat eta su bat gu oro eta balinba beste hanitch ere ezinago luzaz eraiki-ren eta sustaturen gutienak».

(Ikus *Euskera*, 1919, 28 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 1.108 orr.; *Gure-Herria*, 1959, 193 orr.; G. Eppherre, *Euskera*, 1960, 5-19 orr.; L. Villasante, *HLV*, 302 orr.; G. Muxika, *Euzkadi*, 1917-2 ta 3'an; Ph. Aranart, *Gure Herria*, 1960, 33 orr.; E. Salaberri, *Gure Herria*, 1965, II, 65 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 351 orr.).

5.—HENRI GAVEL (1878-1959)

Euskerari ta euskaldanoi egiazko maitasuna zigun euskalari bikain au, Saint-Pol-Sur-Ternoise (Pas de Calais)en jaiio zan, 1878-5-22'an. Latiñetiko izkuntza-zale porrokatua: gaztelera ta gaskoiña aztertu zituen batez ere. Tolosa'ko Ikastetxe nagusian erakutsi zuen urte askotan. 1919'tik izan zan Euskaltzain urgazle, gero ohorezkoa; urteak gora-bera, azkeneralño joan oi zan alkarte orren batzarretara.

Angelu'n itzali zan 1959-10-23'an. Aren ilberria ematera-koan, L. Mitxelena'k onela: «Udazkenean, au ere ustekabea, Henri Gavel jauna galdu dugu, Tolosa'ko Unibertsitateko irakasle izana eta leengo gizaldiko euskalari garaietan bizirik geneuzkan gutxietakoa... Irakasle azkar eta jakintsu onek bazuen beste alde bat, ezagutu duten guztiek dakitenez: nekez arkituko dugu gizon oberik, apalagorik eta atsegiñagorik. Edozeiñi laguntzeko prest, ondo baño obeto artzen zituen beri gazteagoak eta ezjakiñagoak eta etzuen iñor arbuiatu naiz orretarako biderik eman. Emen ez ezik, Tolosa'n erein zuen azia ere eztago euskerarentzat osoro galdua» (*Euskera*, 1959, IV, 239 orr.).

Izkuntzalari bezela lan aundia egin zuen, naigura idatzirik aldizkari auetan: **RIEV**, «Gure Herria», «Gernika», «Annales du Midi», «Bulletin du Musée Basque», «Eusko Jakintza», «Via Domitia», «Bulletin de la Société de Linguistique», «Revue Géographique des Pyrénées», «Euskera», eta abar. Beti ere Euskalerrinari ta euskal gaiari begira osotu zizkigun bere lanak.

Guztiok aitatzea eziña dugun ezkeror, eta bearrezko ere ez, bego beintzat ondorengo auen aipua: 1) *Sur l'enseignement des langues regionales* (Baiona, 1924); 2) *Essai sur l'évolution de la prononciation du castillan depuis XIVe siècle* (Paris, 1920); 3) *Du nom de Bayonne et des quelques autres noms de lieux aquitains et espagnols* (Baiona, 1931); 4) *Elements de phonétique basque* (Paris, 1920), lan bikaiña, 542 orr.); 5) *Etudes sur la langue basque; où en est le problème de ses origines; ses caractères généraux; ses beautés* (Baiona, 1928); 6) *Grammaire basque* (Baiona, 1929) I alea; Lakonbe'rekin egiten ari zan bigarren zatia etzan agertu osorik; 7) *Poesies gasconnes... avec une notice biographique et un étude sur le gascon de Bayonne* (Baiona, 1926); 8) *Bereterretsen khantoria* (Baiona, 1924). Auetan lan batzuk, *Grammaire basque* adibidez, oso interesgarriak dituzu gaur ere; «oralndik ere iñork ikuskatu gabe ezin utzi dezakean liburua, gai orretan argitasunik nai badu», diosku L. Mitxelena'k.

(Ikus Bourricaud, *Gure Herria*, 1960, 208 orr.; G. Eppherre, *Gure Herria*, 1960, XXXII, 193 orr.; L. Mitxelena, *Euskera*, 1959, IV, 239 orr., ta BAP, 1959, XV, 438 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 90 orr.; *Gure Herria*, 1960-64, 214-220 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 368 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 9 orr.; L. Villasante, *HLV*, 310 orr.).

6.—GEORGES LACOMBE (1879-1947)

P. Lafitte jaunak Donostia'n, 1949-11-25'an, G. Lacombe'z egin zuen itzaldia onela bukatu zigun: «Zer nahi gisaz, ez aphez gisa, ez adixkide gisa, ez nitake ixil, Eskualzain handi horren arimarantzat eskualdun girixtino guzien otoitz kartsua galde egin gabe. Bere lan eta ongi guzientzat ez dakiok egin esker onezko egitate hoberik».

Orthez'en sortu zan, Biamo'n, 1879-1-31'an. «Aita Agendarra zuen —diosku Lafitte'k—, beraz kaskoina, bainan ethorki onekoa, hango haren ahaide-arbasoetan norbait izan diren gizon bikain haintz aurki baiginirozke ofizio edo bizi-molde desbar-dintsuenetan. Ama aldiz Saint-Jayme aitoren semeen odolekoa, nalartarra, eskualdun garbia, Amikuzeko mintzair e xotil eta ari-na ederki ikasia» (*G. Lacombe*, Baiona, 1949, 3 orr.).

Aita gcbenu-gizona zan-eta, erriz erri ibilli bear noski; be-raz, Digne'n, Angoulême'n eta Bordele'n ikasi zuen. Bordele'tik Paris'era jo zuen, eta emeretzi urtetan Filosofi titulua aterarik, gudaritza egin, 1900'garrenean, urte betez. Ondoren ere, Sorbona'n eta abar, ikasteari lotu zan, maixu ospetsuenak argizagi zituelarik. Jakin-zale aundia duzu ondoren, eta jakin-zale asko-ren adiskide kutun.

Baiña filosofu izateak baiño entzute larriagoa eman zion euskalzale izateak, alegia. Nundik etorri ote zitzaion zaletasun ori? «Haurrean —dio Lafitte'k—, hamabi-amahiru urte zituzkelarik, Angoulême'ko liburu zahartegi batean Mauleko Salla-berry-ren «Chants populaires du Pays Basque» liburua salgai

aurkitu zuen. Karioxko izanez berak bere sosatarik erosteko, amak pagatu zion eta present egin. Mutiko koxkorrak, bertsu eta alre, bururen buru gogoz ikasi zuen, amak frantseserat itzulzen ziola».

Emendik sortu zitzaion gero euskal liburu griña izugarria. Idazritegi apain ederra osotu zuen, munduan ziran euskerazko bakanenak ere erositik. Ezin eskuratu zituenak, berriz, eskuz kopiatzen zituen bere liburutegirako. Eta auek, Lafitte'k dioenez, «laster eskualzale eta eskualari handiaren fama egin zioten; izaitzez eskuararen alde haren mendean zerbait egin den batasun, agerkari edo lantegi guzietan haren izena aurkitzen dugu».

Ikus: J. Urkixo'k, 1907'an, **RIEV** sortu zunean, G. Lakonbe izan zuen pizkortzaille ta beti guztiko idazkari; Eskualzaleen Biltzarreko kide zaarrenetarikoa duzu; Azkue'k *Irizkizundi Irukoitza* antolatu zuenean, Balona'n zan gure euskalaria ere, H. Gavel eta J. Etxepare'kin batean, ango euskeraren xokomokoak ikertzeko; 1920'an, Broussain euskaltzaiña il zala-ta, onen utsunea betetzeko euskaltzaln urgazletzat artu zuten Benabarra'tik; Paris'en *Societe de linguistique* dalakoan daakagu; Donostia'ko «Eusko Ikaskuntza»-n, «Société de Sciences, Lettres et Arts»-en eta Baiona'ko «Musee Basque»-n ba-zuen bere aulki berezia; Azkue, Schuchardt, Uhlenbeck, eta beste alnitz euskalarikin ar-eman estua izan zuen; ots, siñets-ezin ala lan egin zigun G. Lakonbe'k euskal alorrean.

Euskeraz ederki zekien, baita beste izkuntza arrotz batzak ere. Geienik frantsesez ta euskeraz mintzatzu oi zan; aren lanik aundiena euskal mintzoeraz ta euskal elertiz izan zitzaizun; konta-ezin ala artikululu ditu «Gure Herria», **RIEV**, «Aintzina», «Euskalerraren Alde», «Bulletin du Musée Basque», «Euskerara», «Revue de Linguistique et de Philologie Comparée», «Eskualdun ona», «Bulletin de la Société de Linguistique», ta abar; baiña **RIEV**'en batez ere datoz zeinbat lan il-berri, liburu iritzi

emate, euskal-jai, kultura festa ta euskalkiai buruz bereziki. Jon Bilbao'ren *Eusko Bibliographia'n* berreun bat lanen aipamen edo xeetasuna daakazu. Jakingarria noski euskalari onen lana.

Azpi-arri gotor gaberik egiz, baiña modan zegoen euskalarien artean, sasoi artan, gure izkuntzaren jatorriarekiko auzia. G. Lacombe'k zer pentsazten ote zigan ortaz? Ona P. Lalitte'k: «Eskuararen ithurburuez duda-mudan zagon: Schuchardt zaukan bere jainko ttipia, eta hunek Iberotarra emanik eskuararen arbaso, ez zuen gezurtatu nahi; bainan ez zuen osoki sinesten. Caucase-ko ithurburu aipatu berria ez zuen baitezpada ukatzen, bainan beha zagon orai artinoko frogak ez askiz. Iduri zitzaion «indo-européén» delakoarekin bazukeela beharbada zerbait ahaidego ukanik aspaidiko mendetan: erromanoen hatzak zituen kausitzen argienak, bainan aithor zuen latina ez zela nehundik ere gure mintzaiaren aita izaiten ahal» (*G. Lctcombe*, 8 orr.).

Gizaseme ain jakintsu zala, etzigun orraltio lan gotorrik utzi. Onen keixu ta zinkuriñez dira batzuk. «Egia erraiteko —dio P. Lafitte'k—, idazki edo izkiribu hoik gehienak biziki laburrak dira, eta heien zamak ere ez dauku gogoia bethetzen. Haren ganik igurikatzen ginituen obra handiak eskas ditugu». Alere, danetatik ditu, andiak bearbada gutxi, tipiak asko. Emen ere, urkoari azkar utsak oartzen. Eta zer? Ba-dira euskai arloan lan dagitenen artean ere, libururik aski dugula esaten dutenak. Nori atxiki ote? Dena dela, Lakonbe'ren lan eta oarkizunak, labur naiz luze, sakon naiz gaiñeko, niretzat ba-daakate guna ta esan-naia, ta ez gutxi.

Europa'ko gerran (1914-18) galdu zuen eskui besoa, Paris'en il zan 1947-garren urteko uztaillan.

(Ikus Azkue, *Euskera*, 1921, II, 57 orr.; *Euskal Esnalea*, 1922, 230 orr.; J. Bilbao, *Eusko Jakintza*, 1947, I, 495 orr. ta *Eusko Bibliographia*, IV, 551 orr.; H. Gavel, *Eusko Jakintza*, 1947, I, 491 orr.; *Euskera*, 1953, I, 36 orr.; P. Lafitte, *Georges Lacombe*, (Baiona, 1949), Donostia'n 1949-11-25'an, euskaltzain sartzeko egunean eman zuen itzaldia; Auñamendi, *Literatura*, III, 278 orr.; L. Villasante, HLV, 310 orr.).

7.—LEON LEON (1896-1962)

Azparne'n sortua, deduzko famili baten bizitegian. Ikasketak, bere errian lendabizi ta gero Beloke'n egin zituen; bigarren maillakoetan ziarduala, Europa'ko guda sortu zan eta gudaxi jcan bearra izan zuen. Gudaritza utziaz batera, umetarik aditu zuen goi-deiari erantzunik, Baiona'ko Apaiz-ikastetxe nagusian sartu zan, eliz-gizon izateko asmoz.

Apaiz-ikasketak amaitu ondoren, 1923'an apeztu zan. Bertatik, Azparne'n bertan zegoen apaiz-ikastetxe txikira bialdu zuten irakasle, gazteen irakasletzan urte bete egiñik. Ondoren, Balona'ra aldatu ta emen eman zituen bost urte; 1929-1932 bitartean, Donibane-Lohitzune'n daukazu bikario; 1932'an Arrangoitze'ko erretore egin zuten. Europa'ko bigarren gerran, au da, alemanak Prantziaz jabetu ziranean, 1939'an Arnegi'ra jo zuen; 1941'an, ordea, gotzal jaunak Uztaritze'ra igorri zuen erretore nagusi. Emen zegoen ni, 1954'an, nere olerki bilduma osatzeko poesi billa andik ibilli nintzanean: oso txeratsu ta biozkoi artu ninduen, lapurtar olerkarien alnbat berri jakinerazirik.

Uztaritz erri liralñak malte zuen bere arimazaia. Nagusiak berdin, malte zuten Leon apez langillea, ta zegian lana zerbaitekin eskertu nairik, Baiona'ko apezpiku jaunak ohorezko kalonje egin zuen, 1959'gn urtean. Andik iru urtera Uztaritze'n bertan il zan 1962-2-12'an. Euskaltzain urgazle.

EUSKAL LANA.—Arima-zaintzeak uzten zizkion asti-uneetan idazteari emanik ibili zitzalzun. Ederki zekin euskeraz, bere etxean ikasia ta gero apalz-ikasle zala obetua; Salnt-Pierre apezak erakusle zan orduan Baiona'ko Seminarioan, eta ark bulztatuta, Leon eta onen lagun ikasle talde bat euskera lantzen jardun zuten gogotsu ere gogotsu. Arrezkerokoa zuen azpandarrak gero bizitza osoan, bal mintzatzeko eta bal idazteko zeukan erretzasun bizia: arrosko zeuden uztariztarrak zeukaten izlaria-

ren sermoe, prediku ta esanak, garbi ta ozenak, errez ta aberatsak adkzen; idaztean, ordea, ipui, abesti, alegi, antzerki ta erlijio-gai, beti zuen luma txairo ariña.

Ainitz lan eder osotu zizkigun. Geienak, itz lauz ta bertsoz, Baiona'ko «Gure Herria» illerokoan dauzkazu. «Berrizarte» izen-ordez ainbat artikulu firmatu zituen. Ona aren idatzietatik beñenak:

1) *Jesu-Kristoren Imitazionea* (Beljika, 1929). Turnhout' eko irian, Brepols liburu-egileen etxean. 440 orrialde. Baiona'n zegoelarik egin zuen itzulpen au. Ona berak aitzin-sola-sean: «Zaharrak berri, Eskualdun maiteak. Liburu zahar bat berritu dugu guk ere: mami berari axial berri bat eman. Eskuarazko *Imitazione* asko izan da orai arte ere: gehienak elgarraren haurride edo bederen ahaide hurbil. Hunek ez du aitzineko bihi bati deus zorrik; erran nahi dugu ez diotegula deusik ebatsi ez maileatu. Lan huntan hasi ginelarik, iduritu zaikun, orhe bera hartuz, zerbait pollitagorik egin zitakela. Badakigu segur obra hunen bururatzeko, hogoi-ta bortz bazirela Eskual-Herrian gu baiño zaharragorik eta beraz trebeagorik eta argituagorik: gazte bati behar zalo hanitz barkatu, zeren egiten baitu hanitz bekatu. Bekatu egin badugu lan huni lotuz, liburu hunek ere huts eta itzal asko balin badauka, doala halarik ere bi hegalez: badakigu zuen jakitatea asko handia dela huts hoien bethetzeko eta zuen bihotza aski zabala itzal hoien barkatzeko. Hitz bakhar batzu kausituko ditutzue han hemenka, orai arte beharbada bakan ikusi ditutzuenak. Beltzuririk ez egin, othoi; ez dira den gutienik berriak, baina zaharrez hiltzerat zoazin hitz batzu: gaixoak hil-herrirat bidaltzeko orde, zuen gana ditugu igortzen, zuen aldean gazteturik eta odol-berrizaturik bizi ditezen Eskuarak diraueno eta beraz mundua mundu deno. Ez badiozute ere ginarrria berehalakoan atzemaiten, ez lotsa, ez etsi: emeki emeki aldeko hitzek eginen dautzue argi» (*5'garren* orr.). Oso ondo artua izan zan. Larreko'k onela: «Lan eder-eder bat egin digu Leon jaunak; neretzat, aspalditik

irakurri dutan ederrena. Buruen-buru, euskar usain ederrean dago; ez du iduri erdaratik artua dela, eta ori da, alako lanetan bearrena; mami andiko gutunak ezerez ez du galdu euskararat itzulikatirik» (*E. Esnalea*, 1930, 176 orr.).

2) *Proverbes Basques et vie spirituelle* (Baiona, 1934). Courrier irarkolan. 1934-2-15'an Baiona'ko Aztetxe (Seminario) Nagusian eum zuen itzaldia. Ogei ta amar bat esaera zar, edo zur-itz, dituzu; ez banaka emanak ere, gaiari dagokionez, gogozko egin-biderik egoki ta beteenean baizik. «Belar usaidun batzak bildu, pillo bat egin, eta ontzi batera lausldtu ondoren, gogozko urgozo onuratsua eratu» digu.

3) *Haurren Meza* (Baiona, 1936).

4) *Jesu-Kristo Gure Jaunaren Ebanjelio Saindua* (Ligugé-Vienne, 1947). Aubin'en etxean. 366 orrialde. Urrengo urtean (1948) egin zan beste argitalpen bat ere. *Imitazionea* bezain ederki itzulia, bere-berea duen euskera errez goxoan.

5) *Alegiak* (Baiona, 1960). La Fontalne'ren *Fables* euskeraz.

6) *Euskerazko Dotriña*. Baiona eliz-barrutiko Kristau Ikasbidearen bi itzulpen egin zizkigun.

7) «Gure Herria» illerokoan datozten itz-lauzko idatzi ta olerki mordoak.

8) *Teatru-lanak*: 1) *Gure xokoan* (1926); 2) *Maturianaren gaphoinak* (1933); 3) *Tomas ezkongei* (1934); 4) *Herriko besta biharamunean* (1937); 5) *Mehetegiko nausia* (1938); 6) *Haurrak azken hitza bere!* (1939). Geienok «Gure Herria»-n datoz.

Leon apezak ba-zekin onako lanetan, gure baserritarrak poliki duten gatz-pixkat jartzen. Laket zitzalon baita bertsolariari toki ematea, ardoa edo lana gorestekko baldin ba'zan batez ere. «Gure xokoan» bertan Ellande ta Pattin ari dira bertatik bertsoan, arnoak eta urak ditzuzten doalk adi-erazi naiean. Ona bi ahapaldi:

«—Ezagutzen duzia, Xubero maitia,
Beiheralako Noe, gizon famatia,
Harek landatu zizun lehen mahastia,
Harek maite zizuna guk nola hastia
Urez izanik ere pixka bat bustia!

«—Badakit nor zer Noe, ziik aiphatii hura,
Etzen ez diotenez gizon bat makurra,
Berak egin ardua jin zaion burura:
Hobe izanen zuziin egonik barura,
Hoi etzaion heltiiko edan balu hura»

(G. Herria, 1926, 335 orr.).

Gizonak maite du ardoa, len bezela orain; emazteñoak ere poliki beatzen, eta gaur edaten. Miragarria omen da ardoaren aala, baiña asko edanez eztu egarria iltzen. Gizona baldin ba'da-go miñak urturik, edan beza oporretik! Baiña gizon doakabea freskatzen danekoz, berriz bizi-azten penak: «Arduak seguren-ik berthutia hiltzen».

Irudimen bizia ta esan erreza du Leon apezak bere idaztietan. Nola eiotzen digun alkar-izketa antzerki-lanetan! Euskera garbia du, oso sentikor eta errikoia; erriak egunero ezpain gain darabilzkin itz eta esan jatorrak, tai-gabe ta jarraian datozkio luma puntara, eta onek lits berezko leunez jazten dio mintzoa. Idazle ona duzu lapurditar izkelgia ikasteko.

(Ikus Larreko, *Euskal Esnalea*, 1930, 176 orr.; P. Lafitte, *Eusko Jakintza*, 1948, 332 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.123 orr.; *Gure Herria*, 1962, 384 orr.; A. Irigarai, *Euskera*, 1962, 353 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 121 orr.; L. Villasante, HLV, 311 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 415 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Eusharo*, II, 173 orr.).

8.—JEAN ITHURRIAGUE (1896-1960)

Etzuen zer aundirik euskeraz idatzi, baiña merezi du aipu labur bat literatur onen orrietan.

Irulegi'n jaiotako zana 1896-1-30'an. Beloke'n osatu zituen bere eskolak, baita gudari joan artean, bertan irakasletza egin ere. 1914'ko gudan zauritua izan zalako, guda-kurutzea eman zioten. Gero, berriz ikasi zuen Bordele'n eta Paris'en, lizenziaturik; eta ondoren Chalon-sur Marne irian irakasle izan zan. 1925'an, Filosofiko Goi-Ikasteen diploma lortu zuen, eta 1932'an Jakintzan Maixutza gal onekin: «Jainkoa eta Arima Platon'en liburuetan». Ondoren Morlaix'en eta Balona'n egon zan 1940'ngo gerran; 1942'an kargu garrantzitsu bat lepora zioten. Azkenez, Paris'en Eskualzaleen Biltzarreko buruzagi legez, eta 1955'tik Balona'n «Musee Basque»-ko buru izan zan. Angelu'n il zan 1960-11-9'an.

Ainbat alkartetan eskua artu zuen, eta bertsolarien malko egin. Idazle bezela, artikulu nalkoa azaldu zituen «Gure Herria»-n batez ere. Argitaratu zituen liburu batzuk: «Un peuple qui chante»; «Vues du Pays Basque», «Meubles et ensembles basques», eta abar. Itzaldiak: «La sorcellerie au Labourd», «Les Pastorales souletines», «Le basque et les savants», «Importance de la Tradition», «L' influence de l'Encyclopedie en Pays Basque», ta abar.

(Ikus P. Lafitte, *Eusko Jakintza*, 1947, 697 orr.; J. Agerre, *Euskera*, 1961, VI, 349 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 105 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 376 orr.).

9.—PIERRE ETXEPARE (1880-1932)

Irugarren alean aipatu genuen J. Etxepare-ren anala: bion artean atera zuten urte askoz *Eskualdun Laborarien Egunari* edo Almanaka. Orrez galn, bere anai sendalariak idazten zuen «Eskualduna» asterokoan datoz aren bizi-zeatzasunik naiko.

Eliz-gizcna dugu, ta apeztu ondoan, Larresoro'ra bialdu zuten irakasle. Ta ementxe asi zan bere euskal lan garrantzitsuan: *Egunaña* argitara ematen noski. A. Abbadie'k bere ondora eraman zuen ezkerroan, bi-biak xede berrietan lan egin zuten amasei urtez, Larresoro'n eta Beloke'n: «Larresoro'n sartu zane-koxe asi zan lan ortantxe, bere aneia medikuak eskukaldi bat edo bertze emanetz». Olan urtero, 1914'garreneko gerra asi artean. Aurretiko zuzendarien lanari ekin nai zion, laborariak argitu ta eskolatuz, naiz beren eguneroko zeregiñetan eta naiz erlijiozko arazoetan, «noiz samurki, noiz ezteki, noiz irriz».

1914-1918'garren urteetako guda ondoren, osasuna auldu zitzalola-ta, Azparne ondoko Donamartihiri'ra igorri zuten erre-tore. Leen erakusle lez, oraln arimazal, zintzo jokatu zuen bere arloari atxikia. «Jondone Martinen gerizan dago —diosku J. Etxepare'k—. Etxalde handi moltzoa, ez arras ordoki ez biziki patar, gehienak goriak; jende gogorki langilea, soksari eta sos-duna, balnan esku zabalekoa ertoraren alderat».

Apalzak beti ere —esanak esan— zuzenbide baten erakusle da-ta, eragin aundi ta bizia izan du errian; apalza aultzen ba'da, erria ere beerantza doakigu. Erakutsirik tinkoena bere lanaz eta bizitza garbiaz eman oi du, alegia: milla begi ditu beazale ezker-eskubi. Lanari emana ta zeatza izan zitzaizun P. Etxepare, fedezko zeretan nalz famili beartsuen laguntzan.

Euskal alorrean ere etzan nagi ibilli. Iganderoko itzaldiak idatzi ta buruz ikasten zituen; erriko mintzo errez ariñean mintzatu oi zan, Eliz irakaspenak garbi ta eder-bitxi larregi gabe ematean, su leun ixilla zeriola. Orrela lan egiñaz, prediku edo itzaldi-meta aundia utzi zigun il zanean, ez luze ez labur, ordu-laurdenez or-nunbalt egitekoak.

Onezaz osteaz, ba-dira Donamartihiri'ko erretoraren libu-rutegian izanak, euskerazko 23 omili eta 5 goralpen, eta frantsesez 27 itzaldi, ikastetxeko umeal egiñak, uste danez; balta beste 19 itzaldi ezkontzari buruzkoak ere, 6 frantsesez eta gai-ñerakoak euskeraz.

Gazte oralndiokarren —52 urtekin— il zanean, donamar-tihiritarrak esan oi zuten: «Apeza zen».

(Ikus J. Etxepare, *Buruxkak*, Baiona, 1941, 131 orr.; Gabin Garri-ga, *Bol. Amer. E. V.*, 1959, 142 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 454 orr.).

10.—JEAN JAUREGIBERRI (1880-1952)

Zuberoa'n, Atharratze'tik laster aurkitzen dan Aloza erri-toxoan sortua duzu mediku au. Osalaritza karrera ikasi ondoren, gudari mediku izan zan lendabizi ta, geroago, Donibane Lohi-tzune'koa. Andik lasterxe Eskualzdeen Biltzarrekoen alkartean daukagu, euskal kulturaren dderako lanean.

Aloze'ko bere sortetxe «Karrikia»-n itzali zan, 72 urtekin.

Idazle bezela ndkoa idatzi zuen euskeraz eta frantsesez, frantsesez geiago. Eusko-lurra batez ere, bere lurrdde mdte zuberotarra, gutxik bezela abestu zigun, ango gizon, oitura, lege, kanta ta dantzak luma goxo margozturik. Baiona'ko *Gure Herria'n* eman zituen batez ere, bere lanak; bdta *Eusko Jakin-tza'n* eta *Libro de Oro'n* ere. Ona aren lanik beiñenak:

1) *Le Basque moyen* (Baiona, 1929). 33 orridde. Lan bikaiña, lendik ere *Gure Herria'n* (1929, IX, 49 orr.) argitara-tua.

2) *Basaburian* (Bdona, 1952). 113 orrialde. P. Lalitte'ren alntzin-solasarekin. *Gure Herria'n* ere ba-duzu (1952, XXIV, 182 orr.).

3) *Les Races* (Gure Herria, 1935, XV, 346 orr.).

4) *Euskeraz*: a) «Betzuleko aize ephdli» (Gure Herria, 1935, XV, 321 orr.); b) «Xildtoka» (Gure Herria, 1930, X, 268 orr.); d) «Unamuno jaunaren elhe bati» (Gure Herria, 1931, XI, 512 orr.).

(Ikus G. Eppherre, *Gure Herria*, 1952, XXIV, 193 orr.; P. Lafitte, *Basaburian*, itzaurrea; B. Estornes Lasa, *iComo son los vascos?*, I, 82 orr., eta *Literatura*, III, 331 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 475 orr.).

11.—JEAN BARBIER (1875-1931)

«Barbier'tar Jon, Bidasoz andiko euzkeldun jatorra zan. Senpere'ko txauburuba zalarik, idazti ta idazkai politak argitaldu euzan euzkeraz. Lan gustijetan Euzkadi ta euzkerea-ganako maltasuna agertuten eban» (*Euzkerea*, 1931, 751 orr.). Arrobi bikalña izan zuen bere erria edozer gaitarako, eta orri begira, ots, etxeari, il-erriari, elizari, nalz izkuntzari, ontan balt dago euzko gogoia osorik, jalgi ta bildu zuen aren lanak bere osotasuna, itz lauz eta bertsoz noski.

BIZI-ZEAZTASUNA;.—Baxenabarra, ametsez ta istilluz, kolariz ta irrintziñez ditziratua, izan zan J. Barbier'en sort-ogea; au da: Donibane Garazi'n munduratu zan 1875-7-9'an. Bere supazter zokoan azi ta aunditu zan bere ingurumari esan eta egin oi zutena jaso-azirik: euskera gozoa, euskal erriaren elezar eta alegiak, itz zaar eta esaldzunak... Zer ez? Ainbat liburu osotuko zituen gero gaztetan bildutako gal oiekin. Eliz-joera erakutsi zuen umetatik, eta antxe, bere errian zeuzkan bi apez —Bidart eta Bekas—, jakitun eta euskaltzaleak, ortan lenengo unetatik lagunduko ziotenak.

Azparne'n eta Larresoro'n bakaturik bere lenengo ta bigarren mallako ikasketak, Balona'ko Apaiz-ikasguan osotu zituen gaiñerakoak. «Ikastegietako erakaspenetan buru eta beharri sartua zen, beti ikasle hoberenen lerrorat nahiz eta helduz», dio P. Lalitte'k. 1898'an apeztu zan, eta apezpiku jaunak Tolosa'ra bialdu zuen an Teoloji-maillak artu zitzen; eta bi urte an ikasten egin ondoren, «Doktor» itzuli zan. 1900'an Larresoro'ko irakasle izendatua izan zan, lau urtez ortan jardunik. Bere irakaskintzako lanetatik kanpo, ba-zituen beste bi zaletasun ere: euskera ta musika; Hiriart-Urruti'rekin ikasten zuen euskera, ta Hiriart-Makola'rekin musika; «Ganitx» ez-izenarekin agertu zizkigun orduko idazlanak, eta musikan eder zitzaion San Gregorio'ren eres-tankera, garal artan eta geroago ere Elizan ain tinko sartu ta kokatua: eliz-musika au ta beste kantak alik eta

egoki gozcen gerta ta abestu al izateko, gazte-taldeak zeuzkan ederki irakatsita. Euskal kutsuzko kantak, erri-abestiak atsegin zituen, eta or-emen berak bildutako asko argitaldu ere egin zizkigun. Edu ontako lanetan «Nehor» izen-ordea erabilten zizun. Ainitz dituzu «Gure Herria»-n 1921'tik 1926'ra bitartean Nehor eta Dufau'k emanda datozen euskal kanta lanak. Kristobal Dufau osagillea zan, Senperen'n jaloa (1888) ta emeretzi urtean «euskal usala alde guztietatik darion» ortan egon ostean, 34 urteldn Baiona'n illa (1922).

Ondoren, P. Lafitte'k diosku: «Nahiz hurrekilakoa ontsa baino hobeki zeramakan, artoski eta maiteki, ez zen eskolemaile muxitzekoa. 1905-ean Baiona'ko katedralerat bikario deitua izan zen. Hiri hortan laster ohartu ziren otoiitzeko gizona zela eta arimez osoki hartua; apez laño eta mintza-errexka egiten zuten, jende xeheari eta beharduneri emana. Bizkitartean, jakitate handikoa baitzen eta irakurtzeari jarralkia, jaun-anderek ere estimatzen zuten. Orotaz griñatua, nehun ez zagoken, lan eta obra zer nahitara jo egiten zuela, zahar ala berri, asko buruko min gora-behera. Horien guzien galnerat alntzina bazagon kazetalarri, olerkari eta euskalzale. Zortzi urte iraun zion ezin sinetsizko bizi-modu horrek» (*Gure Almanaka*, 1976, 13 orr.).

Senpere'ko erretor izendatu zuten 1913'an. Emen egonak ziran ere apez on eta jakintsuak: Belsagi, Larregi, Menta ta Sanzinena baltik bat. Barbier etzan gutxiago izango noski: makiña bat lan eder burutako zigun itzez eta egitez. *Izlari* bezela ba-zekien entzuleak nola bere arira ekarri: ango kristauak, Jainko zuzen onak etzitula lar izutzen-eta, biotza ustu oi zuen sarri kristau nagi, fardel, axola gabeak berari ematen zioten nalgabea eliztarral aditzen emanez. Kantu esparruan, ordea, amalkatxo abesti bikaln ikasi ta oiuzkatu zuten senperrak. Gueñez, beti agertzen oi arimen arduratsu; ba-zekien eliztarrak bidetxior seguruz Jainkoarengana zuzentzen; bera zijoan artzain bezela aurretik, eta ardiak errez zijoazkion atzetik; bera

zan, bai, otoitzaren, buru-ukapenaren eta lanaren eredu bizkor. Orrela ainbat gazteri erakutsi zion bidea, apaiz-karrera besarka zezan ere; baita ainbat neskatxa barrutegiko bizi-modu ixillera zuzendu ere.

P. Lafitte'k berriz: «Barbier jauna, errotik apeza zen, eta uste dugu zinez, ez zituela euskara eta euskal ohidurak hain artoski ikertuko eta sustatuko, ez balitzaio iduritu eskualdunagoa bere eliza lanetarik bat zela, fedearen eta herriaren sustengu. Zorigaitzez ez zen zahartu. Ez omen zuen orenik ez jateko, ez lo egiteko. Buruko min saminen ezituzeko beti erremedio sanjan ari zen, osagarria fundituz. Eta horrela, behar baino goizago itzali zitzaikun 56 urtetan, 1931-ko urriaren 31-n. Haren ehortzetan mundu bat bildu zen Euskaldun idazle handienetarik baten agurtzeko» (*Loc. cit.*, 16 orr.).

EUSKAL LANAK.—Amazortzi urtez egin zigun erretoretza Senpere'n, eta euskeraren alde bertan osatu zuena etzan gauza murrizta izan. Gaiñera, bere etxean, apaizak eta jakitunak biltzen zirala-ta, «zenbat eztenkada, zenbat bultzakada ez ote ditu artu gure izkuntza maitagarriak?», dio J. Artetxe'k. Beraz, eragile bizkor ere ba-zan. Gaztetan «ez zen euskaldunagoa ahanzten dutenetarik. Jadanik ari zen euskal kantu eta ipuin biltzen, euskaraz bertsu berri ontzen, sariketa zenbaitetan parte hartzen eta izkiriatu zuen Baionan Antxitxar buruko buhamien ixto-rioa».

Euskaltzale sutsua zalako, beiñola Sara'n Atxular'en inguru bezela, bere baranoan pillatzen ziran orduko jakintsu asko, eta 1921'an bere etxean sortua dugu «Gure Herria» illerokoa, bikaiña noski: makiña bat ixilleko lan alpagarri, sakon eta iraunkor, egiña dugu gure izkuntzaren onerako; makiña bat, bai, kanta, antzerki, bertsu, ipuin ta lan zaar ber-argitaratuak aurkitzen dira aldizkingi onen ostu artean. J. Barbier'en lan guztiak banan-banan ezin altaturik, ona emen beiñenak beintzat:

1) *Itxasoko arrantzaleak* (Baiona, 1897); Sara'ko euskal jaietan saritu ziotena. J. B. Elizanburu omenezko festetan,

1898'an, Senpere'n saritu zioten *Irrintzina bat mendian* (Baiona, 1898), bederatzi ahapaldiko olerkia; Endaia'n, Urruñia'n eta Sara'n jasotako sariak. 1906'eko azillean, Buenos Aires'ko «Euskaria» alkarteak antola zuen olerid-batzaldian J. Barbier'en *Gure Amaxo* amairu ahapaldiko poema ederrak eraman zuen ereiñotz-burestuna.

2) *Nere kantuak* (Balona, 1910). 12 poema autatu dira, geienak aurreko urteetan saria jaso zutenak.

3) *Gerla handiko kantuak* (Baiona, 1920). Foltzer'enean.

4) *Ama Birjiña Lurden* (Balona, 1920). Lasserre irarkolan. 267 orrialde. Itz lauz ta bertsoz. 81 lan dituzu, Pruvost apezaren *Les Merveilles de Massabieille* frantses liburutik aterata, geien bat, gal oetzaz: *Egiele* (1), *Irutasun* (1), *Eguberri* (5), *Erregen* (1), *Iltzeratze* (8), *Berbizte* (1), *Sakramentu* (6), *Jesusen Biotza* (9), *Kristo Errege* (2), *Andre Mari* (23), *Aingeru jagoleak* (1), *Mikel Saindu* (1), *Familia Saindu* (1), *Omia Saindu* (1), *San Petiri* (1), *Juana Arko-ko* (4), *Frantzi alde* (3), *Gerlan hilak* (3), *Penitentzia* (3), *Aurtzaro ta gaztaro* (4), *Fede-egintza* (1), *Arrats-otoitza* (1), *Augustin Sainduaren otoitza* (1). Senpere'ko elizan kantatzeko egin zituen, balña oetatik asko beste eliza batzuk ere artu zituzten. Euskal itzal Boyer, K. Bordes, Brun, Le Mintier, Decker eta olakoen musika jarri zien askotan; J. Barbier'ek, ordea, gregorianu doiñuan asmatutakoak ere askotxo ditu.

5) Euskal teatruok ere aren eskutik jalgiak dira: a) *Sorginak* (G. H., 1922, 62 orr.); bi zatitako antzerki au «Pizkunde antzerki Sallak» atera zuen berriz, M. Lekuona'k gipuzkeraz ipiñita (*Donosti*, 1931); izugarri ta mamuen aurkako; b) *Zubietako Debrua* (G. H., 1922, 613 orr.); iru ekitaldiko komeria, aztikeriak astinduz; d) *Kauserak eta kruxpetak* (G. H., 1924), jostallua; e) *Gauden euskaldun* (G. H., 1926); arrotz galzki esaleen kontra; f) *Haurrik ez* (G. H., 1931), komeria; g) *Xilintxa sorgina* (G. H., 1924), lapur-gezurkien aurka; eta i) *Ezkila xarmatua* (G. H., 1922). Jostari ta par-eragileak dituzu denok.

6) *Supazter xokoan* (Baiona, 1924). A. Foltzer'enean. 187 orrialde. Poema bat, 25 ipuin eta 5 komeri dagoz xorta eder onetan. Goethe doixtarrak esan zuenez, nork bere barrena azal-tzea baldin ba'da olerkia, bilduma ontan Barbier'ek bete-betean argitaratzen digu berea: supazterrean, bere errian, ikasi ta dardarazi zuena, uraxe damaigu emen.

7) *Piarres* (Baiona, 1926). Leen zatia. S. Sordes'enean. 248 orrialde.

8) *Piarres* (Baiona, 1929). Bigarren zatia. S. Sordse'enean. 272 orrialde. Nobela baiño geiago, idili bat, maite-eresi bat dala esango digu P. Lalitte jaunak. Bi aurren goraberak dituzu euskal lauki barruan, argazki baten lez bizi-bizi margoztuta. Lenngo aleak euskaldunak, au da, senpertarrak edesten dizkigu bake-garaian, lau aroetako nekazaritza, soro ta etxeko lanak, urteko jai ta igandetako jolasak, pilota, musa, eiza, elizkizunak eta gaiñerakoak. Bigarren zatian, euskaldunak gerran, euskaldun soldadu ta gudariak, gudara joan, amaitu ta etxera biurtu arterako guztia. Bukaera: illetak eta ezkontza bat.

9) *Ixtorio mixterio* (Baiona, 1929). Courrier irarkolan. 82 orrialde. Erri-ipuiñak, euskeraz ta erderaz.

10) *Legendes de Pays Basque d'apres la tradition* (Paris, 1931). Frantsesez eta euskeraz. Delagrave irarkolan. P. Tillac-en apaingarrielun. 160 orrialde. Lan onek iru zati ditu: a) *Laminak*; b) *Jesukristo ta San Pedroren ar-emanak*; d) *Amets-ipuiñak*. Aurreneko bi zatiak leendik ere *Ixtorio-mixterio* titulupean argitaratuak izan ziran. Argitalpen au guztiz txalotua izan zala zertan esanik ez dago, Paris'ko «Le Figaro» ta «La Croix» eurak ere tarteko izanik.

11) *Antxitxarburuko. buhamiak* (Baiona, 1971). P. Lafitte'k argitaratua, «1895-ean idatzi zuena eta J. B. Barbier haren ilobak neureztat kopiatua, haren kantika bilduma batekin».

Ba-zuen nunbait kantika ingurrazti bat, 81 euskal lanez ornitua. Nun ote da gaur?

Frantsesez etzun askorik idatzi, baiña aipagarri dira auek: a) *Les Bohemiens d'Antchitcharburu* (Eskualdun ona, 1904-1905); b) *Saint-Sauveur d'Irati* (Gure Herria, 1921); d) *La mort de la paysanne* (G. H., 1921); e) *La tragique partie de pelote* (G. H., 1923); f) *Axular et les sorciers* (G. H., 1925); g) *Trois legendes sur Ax'ular* (G. H., 1925), eta i) *L'abbe Charles Becas, cure de Bidart* (G. H., 1926). Lanak izenpetzean «Ganix», «Nehor», «Haurmaite» ta «M. A. B.» erabili zituen.

OLERKARI.—Olerkia, besteak beste, norbere barren-osiña —gogorakizun eta biotz-zauskada— ustutzea duzu. Norbere barrua agert-erazi. Eta gaiñera, norbere barru-bizitza orren agerketa bedi, otoi, euskal neurkera ari artean ezur-mamitua. Ezta nunbait egiteko erreza. «Nire iritziz —diosku J. Artetxe'k garaztarrari buruz— biotzkada ugaldetzak korapillotu egiten du olerkia, bere indarren almenez. Akats au zenbait idazleren akats. Edertasuna ikusi ta nabaitzeko doaia. Gogoia ezin baretu. Biotz-begiak irtetzeko zorian. Eta zori txarrez biotz-gogoaren taupada oiek neurtzeko, itz neurtu estutsuetan ipintzeko doairik ez». Senpertia, orraitio, bere buru-sorpenak eta biotz-zirrarak itz negurritu goxoz jatzeko gai izan zitzaigun.

Goizale dabilkigu maiz olerkaria, erlanrxa iduri. Ezker-eskubi daukanarekin azturik ere bai, ez gutxitan. Nork arrapa aren ortzi-urbilleko izpiak? Baiña benetako olerkari danari etzaio eder bizi-izatatetik orren urruti ibiltea. Gogotan du irakurlea ere. Ontan eredu dugu J. Barbier.

Ona berriz ere J. Artetxe'ren ustea. «Erriari eskeiñiak —dio— dirudite bere olerki guziak. Erri eresi, oitura, doña daukate. Beeragotu egiten da beti bere olerkietan. Zeñek ez du onetan eskartuko olerkari baten buru eskainirik goragarrienetaria. Goi mailla erpiñienetara igo al alakoa nabaitu nork bere olerkia eta ala eta guztiz erriaren berdinkaitasunean edestu. Gotargia eretxi. Erriaren esan, oitura, egipen, naletara jexten zaigu gure olerkaria. Nere iritzi txiroan ez det erabakiko, gai ez naizelako, zein ote egidun. Erria beren edestietara goratu nai

dutenen aiena, edo erriaren esakeretara, oituretara eraxten dirarena. Gai sakona benetan. Baño gure mintzo zaarrak, ez ote ditu bear era guztietako idaztiak?» (*Yakintza*, 1933, 330 orr.).

J. Barbier, idazle aundi ezezik, olerkari bikain ere izan zitzaigun. Mugaz bestaldeko euskal poesi tirain —korronta?— aspaldikoari jarraituz, gogai ta barne-leiaz, buru ta biotzez ondo tinkotuak, eundaka olerki utzi zizkigun. Egituraz bikain kateatuak daude aren lan guztiak. Neurri ezberdiñak darabiltza, baiña 7/6, zortziko txikia nunbalt, artu oi zuen geien bat. Uts gutxi egiten ark, silabak neurtzerakoan; atzena, berriz, aberatsa ta betea du, alderdi aietako poeta klasikoen bideari ekinetz. Olermen joria erakusten dizu onako lanetan: «Irrintzina», «Amaxo», «Supazter xokoan», «Meza bat bortuan», «Galerna»...

IRITZIAK.—Joxe Artetxe'k, beiñola Donosti'ko «Yakintza» aldizkarian J. Barbier'tzaz idatzi zuen lan giar sotillean, onan: «Idazle aurrenetakoena gure Barbier. Ormaetxea'tar Nikola «Orixe»-kin ari nintzan gai onetzaz itz egiten oraindik denpora asko ez dala. Euskerak duen idazle aurrenetakoena «Orixe», Grezi eta Erroma'ko elertietan bere gogo sakontzen oitutakoa; berarekin gai oek aztertzia atsegiña izaten da benetan. Zer derizkiotzu Barbier idazleatzaz?, galdetu nion, eta ara or bere erantzuna.—«Niretzat —esan zidan— Barbier jauna eusko idazleetan aurrenetakoena da. Deritzalt, Barbier'ek bere elerti gaiak antolatuzian, bizi zan txokotik pixka bat aldegiñ, eta gai oek Euskalerrri oro bildu izan baziran, Barbier bera izango gendula, gure Erriak biar zuen idazlaria, euskerak biar zuen elertilaria» (*Loc. cit.*).

Senpere'ko arrobian ari izana dugu J. Barbier, ango gauzak bñdu ta elerti-zapi berotan troxatzen. Antxe ez ote zegoen gero Euskalerrri osoa? Nire uste apalez, bai. Millak mende asko joanak dira, abiada bizian, baita anitz errialde betikoz suntsitu ere, suntsituak dira. Arrigarri iruditu arren, Euskalerrria zutik daukagu oindio, bere izkuntza, oitura, lege, doiñu, erlijio, au da, bere nortasuna osotzen duen gogo, arnas zarrakin. Eusko gogo,

berriz, bere doai ta apalndura orokin, naiz emen naiz an, nun-nai ta beti berdintsua dugu. Erranen ote dut?: euskalduna euskeraz mintzatzen dan artean bein danik.

P. Lafitte'k: «Barbier apezak lan gogoangarria utzi digu: ipuin sail galanta, beste bat elezarrez egiña, aintziñako kantuzko xorta bat, 81 kuadernu berak osatua, abestiak, Mariaren illabete bat, antzerkiak eta «Piarres» batez ere. Ale bitako nobela onek euskal bizi bete-betera garamazki: lana, otoitza, jolasak, siniskeriak, oiturak, guzti au gertatzen da, ta atzenez Piarres Goaña'kin ezkontzen zaigu. Barneko mataza edo triki-mai-Uua, aitor dezagun, makalxea dugu: Daskonagerre'ren nobelak beste ba-du egazkadarik; balña Barbier aren gaiñetik dago argiztapenez, berezkotasunez eta askotasunez. Egia garraxiz dago orrialde batzuetan, adibidez, gure lurrean nola daMten ilten erakusten digunean. Eleberri onek eztu, jakiña, Txomin Agirre'ren lanak (*Kresala* ta *Garoa-k*) bezainbeste —ezpaitira ein berdiñekoak—, baiña Anabitarte'nari eta A. Lhande'ren «Yolanda» gipuzkoarrari ta J. B. Elizanburu'ren «Piarres Adame» berari ere irabaziko die». (*Le Basque et la litt.*, 71 orr.). Axular bera ere barruan dugularik, lapurditar zarrak baiño gorago jarri bear dala, dio beste nunbaiten. Barbier'ek, izan ere, idaztankera bere-berea du: bizi, sarkor, zolia.

Eusko-pizkundearen izpiak oro birloratzen zuten «Euzke-rea»-k ere onela, senpertarraren eriotzea deitoratuaz: «Bijotza tamalez beteten yaku idazle maite orren erijotzaren mingotsagaz». Eta aren iru liburu «Ama Birjina Lurden», «Supazter xokoan» eta «Piarres» aztertu ostean, azkenengoari buruz au dio: «Benetan diñogu, ordu atsegingarriak ixan yakuzala, idazle jator onen idazti mamintsubak irakurteko biar ixan doguzan ordubak» (*Loc. cit.*).

GORATZARREZ.—Igaz (1975-12-21) garaztar idazle ta olerkari ospetsu onen eun urte-betetzea zala-ta, Euskaltzaindia Donibane Garazi'n bildu zan, jende mordoak lagunduta. Goizean amar t'erdietan, A. Xabier Diharze'k eman zuen meza nausia,

itzaldiarekin, beste bederlatzi meza-emaille ezker-eskubi zeuzkda. Ondoren, Euskaltzaindiaren batzarra, erriko Etxean; Euskaltzainburuaren agur ostean, J. B. Etxarren-Lohigorri idazlea mintzatu zan Bee-Nafarroa'ko leengo ta oraingo euskal idazle 60'ren baten berri emanaz.

Lafitte euskaltzaiña mintzatu zitzaigun gero J. Barbier'en bizia ta euskal lanak aztertu ta gorai patuz. Bertako auzapeza frantsesez mintzatu zan, baita Haritzelabar jauna ere. Gure ikurriña ere an zegoen bizi-bizi atarian eta biltokian, biotz-zuzpergarri nunbait: bearrezko bait dugu ori ere. Bazkari ona azkenez, janariz, edariz ta Xalbador'en bertsoz ederki arkolatua. Zutik «Gemika'ko Arbola» abestuz amaitu genun eguna,

(Ikus L. Apestegi, *Gure Herria*, 1926, 110 orr., ta 609 orr.; P. Lafitte, *M. le chanoine Gratien Adetna (1823-1907), M. l'abbé Jean Barbier (1875-1931)* (Baiona, 1933), eta *Gure Almanaka*, 1976, 13 orr.; Zarralde, *Euzkadi*, 1929-10-31; Oxobi, *Gure Herria*, 1921, 121 orr., ta 1931, 481 orr.; RIEV, 1908, 125 orr.; Larreko, *Eskualduna*, 1926-11-6; *Argia*, 1926'eko epaillean; *Euzkerea*, 1931, 751 orr.; Joxe Artetxe, *Yakintza*, 1933, 125 orr.; W. Giese, RIEV, 1931, XXII, 523 orr.; R. Gallop, *Times Literary Supplement*, 1931, 264 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.100 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 440 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 452 orr.; Irastortza, *Zeruko Argia*, 1976, 669 zenbakia, 23 orr.).

12.—ALBERT LEON (. . . . -1953)

Ona beste euskaitzale bizkor bat. Euskeraz ezer idatzi ez arren, euskal gaiak cso atxilda bizi izan zan: G. Hérelle ta auxe izan ziran Zubero'ko *Pastoralak* ederkien aztertu ta azaldu zizkigutenak.

Erdi-itsu umetatik, lenengo bere amaren zainpean, eta gero bere emaztea gidari zuelarik, askotariko gaiak ikasi zituen, Letretan Irakasle titulua ateratzera iño ikasi ere. 1909'tik La Roche-sur-Jan'eko Ikasguan erakutsi zuen Filosofia, eta ondoren, urteetan, Baiona'n. Bordele'n il zan 1953'garren urteko udan, bere dabaren etxean.

Gure izkuntza ondo ezagutzen zuen, baita gure oitura ta literatura ere. RIEV, «Eusko JaMntza», «Gure Herria», «Gernika», «Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne» ta olakoetan idatzi zigun, euskal galak alzeptatuz geienean.

Aren lanik gorenenak:

- 1) *Quelques mots sur le Pays Basque* (Bordele, 1906).
- 2) *Les elements cartesiens de la doctrine spinoziste sur les rapports de la pensee et de son objet* (Paris, 1908).
- 3) *Une Pastorale basque: Héléne de Constantinople. Etude historique et critique* (Paris, 1909). 525 orrialde. Balona'ko Erri-liburutegian aurkitzen dan 13'garren Esku-idatzia (Ms. numero 13) ta Laterri4iburutegian 132'garrena (Ms. n.º 132) alkar jo, begiztatu ta arteztuz egiñiko lan ederra.
- 4) *Geographie des anciens Vascons* (Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1931).
- 5) *La langue basque hors de chez elle* (Gure Herria, 1932).

(Ikus *Gemika*, 24'garren zenbakia, 190 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1953, 180 orr., ta 1955, 229 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 334 orr.).

13.—TXARLES GABRIEL (ANDRE) TOURNIER (1890-1965)

Baiona'n jalo zan 1890-6-3'an. Batxiller ikasketak Paris'en osotu zituen, geroago ogibidezkoak Nancy'ko Lan-eskolan eta Fontalnebleau'ko Izkilla-Akademian buruturik. Urte mordoan, 1923'tik 1945'ra nekazaritza egin zuen, Euskalerrian eta Ipar-Afrika'n. Balona'n il zan 1965'garren urteko abuztuan.

Euskaltzaln urgazlea. «Eusko Jakintza», «Gure Herria», «Herria», ta Balona'ko «Bulletin de la Société des Sciences,

lettres et Arts» aldizkarietan idatzi zuen. Pierre Lafitte jaunarekin batera osotu ta argitaratu zigun: *Lexique français-basque* (Baiona, 1954). 568 orrialde. «Herria»-k argitaratuta.

Erdal-euskal-Iztegi onetzaz L. Mitxelena'k onan: «Orrelako iztegi on baten bearrean gaudela esan oi da, eta ezta zearo egia. Salgal daukagu aspaldian buruz eta jakitez ornitutako iztegi bat. Ona izena: André Tournier et Pierre Lafitte, *Lexique français-basque*. «Beste aldekoa» izatea, esango du norbaitek. Alaz guztiz, beste aldekoak eta gu izkuntza berberan mintzatzen gerran ezker —zenbait uskeri gora-beera—, eztingu guri ere on baizuk egingo. Zaar eta berri, ederki bildu dituzte euskal-ondasunak, eta ez tira gutaz erabat aaztu. Nik beintzat ez tut laguntza makala arkitu geienetan liburu ortan. Eta frantsesez eztakienak? Orrek ere erabil dezake, neke geixego artu nal badu. Ez tu aldamenean beste iztegi bat —gaztelania-frantsesa— iduki besterik. Bi lan egin bearra izango du, alferraren gisa. Eta gure Mitologian noizpeinka agertu oi den euskal-idazle jator orrek, iñongo erderarik ez talrienak, alegia? Beste guztiok baiño obeto dago arima erratu ori, ezpaitu ezer itzultzeko premiarik» (*Egan*, 1958, 1-2, 110 orr.).

Beste au ere berea du: *La Pelote basque, ses jeux*. Baiona'ko Eusko-Museuak argitara emana.

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1958, 1-2, 110 orr.; J. San Martin, *Escrhores euskericos*, 161 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 443 orr.).

14.—KLEMENT-JOSEP MATHIEU (1882-1963)

Ona gizaseme zintzo, langille ta txeratsua. Azparne'n sortua, 1882-3-18'an. Azparne'n eta Larresoro'n ikasi zuen elizikasle bezela. 1906'an apaiztu zan, Balona'ko Seminario naur sian eliz-karrera bukatu ondoan; Erroma'n atera zuen irakasle (Doktor) titulua Teolojian, eta Loalna'n Filosofian. Biarritz'ko San Martin elizako bukario zalarik, Apalz-ukastetxean irakasten

zituen Ziñeskintza ta Erri-ekonomia. 1914'an, gerratean, frantses gudarozteko kapellautza dagi; au amaitu zanean, berriz ere urte batzuetan Urtzizti ikasketak egiñik.

1924'an Uztaritze'ko San Frantses Xabier Seminario Txikiko kalonje nagusi izendatu zuten. Euskal arloan lan bikaiña osotu zuen emen, euskerazko klaseak eman, Euskalerriko edes-tia azaldu ta euskal-gaiezko liburutegi eder bat osoturik. Galzki xamar zebillen 1930'rantza «Gure Herria» eta Mathieu jaunari eskeiñi zioten alkarte orren buruzagitza: kargu ori zeukala poliki axnas-berriztatu zuen dalako aldizkaria.

Urte berean, ots, 1930'an Balona'ko eliz-barrutiko Gotzal ordezkari orokor izendatua izan zan. Erabat Erroma'ko Aita Santu Pio XI'garrenak Akize ta Aire'ko gotzai. izendatu zuen. Aurrerantzean iñoren zerbitzu oso-osoan bizi izan zitzaigun; malte zuen Euskalerria, maite zituen bere eliztarrak eta zeukan guztia eman zituen bi maitasun auen alderako'. Bere erriaren alta zan, eta ori erakutsi zuen batez ere, 1936'an, mugaz emengo ddeko erbesterratu asko ara babes-billa aldatu ziranean. Auen zoriaz unkiturik, berez berez makurtu zitzaigun eusko-auziaren alde: berak eta kardinal Verdier'ek sortu zuten Batzordeak lan ederra burutu zuen euskotar igesien onez.

Eragilla izan zan aren itzala euskd egunetan. 1951'an Eusko Ikaskuntza'ren buru egin zuten, eta bera izan zan Balona'n ospatu zan VIII'garren Batzarrean mal-buruko: erriko etxean esan zuen itzaldia —euskerari nola eutsi ta nola bizi-erazi— etzan ez bulkoz ez arnasaz urria izan. Gogoangarria duzu 1960'an, gure Lendakaria il zala-ta, bota zuen itzaldia. Eta orrelaxe alnbat lipar eta egitade aipagarri adierazi genitzake, azparnetar argiaren arturenean.

Atenez, beti euskaldun eta Jainko-zale, artzain on eta arduratsu, 30 urte gotzaintzan osotu ondoren, 1963-3-25'an il zan. Jende asko izan zan aren illetetan, zazpi euskal errietatik, Akize ta Avignon'go gongotzalak, zortzi gotzal, lekaldeen nagsiak eta lareun bat apalz.

Ederki mintzaten zan euskeraz, bere itzaldietatik batez ere atera dezakegunez. Idatzi ez zigun gauza aundirik idatzi. Ala ere, merezi du zirriborrotu dugun aipamen au gure literaturaren orrialdeetan.

(Ikus Martin Larramendi, *Alderdi*, 1963, 4 orr.; Alberto Onaindia, *Alderdi*, 1963, 2 orr.; P. Lafitte, *Gure Herria*, 1963, 21 ta 26 orr.; *Gure Herria*, 1963, 1 orr.; Etienne Salaberry, *Gure Herria*, 5 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 423 orr.).

15.—XORHO «ESFIL» ABATA (1884-1968)

Zalgize'ko seme, «Espil» etxean sortua. Apez-karrera bukatu ostean, Baiona'n irakatsi zuen lendabizi; Endaia'n eta Maule'n gero apalz-lagun, eta azkenik Garindaln'en erretore 36 urtetan. Maule'ko Osategian il zan 1968'garren urteko azaroan.

Euskaltzale ona. Ia berrogei urtez idatzi zuen «Euskualduna» ta «Herria» asterokoetan. Zubero'ko berri atsegingarriak bialtzen zituen, ango euskera goxo bigunean gatzatuta. Erri ale-tako berri bitxiak dituzu ark utzi zizkigunak.

(Ikus Anai Balentin Berriotxo, BAP, 1968, 3-4, 475 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 483 orr.).

16.—PIERRE DUHOUR (1890-1968)

Bezkoitze erritxoan munduratu zan 1890-6-20'an. Itxas-gizona, beste ogibide batzuk ere euki zituen arren. Azken urteetan Azpame'ko «Securite Sociale» dalakoan lan egin zigun. Azparne'n bertan itzali zan 1968-1-18'an.

Euskaltzaindikoa genduen. 1914'an asi zan «Eskualduna» asterokoan idazten; eta arrezkero, etengabe erabili zuen bere

luma aldizkari auetan: «Gure Herria», «Almanaka», «Etxea», «San Frantses», «Herria». Frantsesez, berriz auetan: «Le Courrier français», «La Liberté du Sud-Ouest».

Liburu au gitara zuen: *Erromako itzulia* (Baiona, 1931). «La Presse» irarkolan. 30 orrialde. Leendik «Gure Herria»-n eman zuena. Beste lan au ere, *Francis Jammes Hazparden* (G. H., 1965, 2'garrena, 89 orr.) jakingarria du.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 68 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 475 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 63 orr.).

17.—SAUVEUR AROTZARENA (1892-1966)

Isturitze'ko semea. Apaiz. Eliz-ikasaldiak amaitu ondoren, Maule'n egin zuen ainitz urtez erretorgotza. Bere artaldea bazka gurietan larratu ta euskal galak, edestiari buruzkoak batez ere, ikasi ta sakon-azi izan zan bere egitekorik beiñena. Gero Landibarre'ra aldatu zuten arazo berari ekiteko. Eta ementxe zegoe-la asi zan aspertu barik «Eskualduna» asterokoan idazten.

1937'an, Baiona'ko Saint-Bernard barrukoan Ikastetxeko kappellau izandatu zuten; balta bidenabar «Eskualduna» aldizkariaren zuzendari ere. Alemanak nagusitu ziranean, asko jasan bearra izan zuen, baiña apaiz argiari eskerrak, ordu neketsu artan ere aurrera jo zuen euskal asteroko begikoak. Inka txar aren ostean, atzera ere gorriak ikusi bear izan zituen, Batzorde askatzallleak darda galñean erabilli zuen eta. Alere, bere erria malte balt zuen, euskera ta Euskalerrriaren alde egundo gogaitik egin gabe jarraitu zigun lanean. Laket zalgunaren alde jokatzeko ez dugu aurkitu oi eragozpenik.

Balona'ko katedraleko kalonje egin zuen gotzalak 1953'garen urtean; eta ondoren, Baiona'ko eliz-barrutiko artxibuzai ta idazkari bezela, abagune ederra izan zuen «Bulletin diocésain» dalakoan kondalra-lan labur politikak argitara emateko; aldizkari onetan atera zuen balta frantses iraultza aurreko Apaiz-

gaitegi nagusiaren Edestia. Ikaste ta idazteari emaniko gizakumea genduan, eta gai askotaz —izkuntza, edesti, liturji, gizarte-auzi, jakintza— gauza asko idatzi ta moldatu zizkigun. Eder zitzaioren batez ere euskal erriaren kondaira ta gorabeerak; euskaldunak beren momentu larri ta ateka gaixtoetan nola jokatu zuen jakin-naia zebilkion beti barru-muiñean ozka.

Baiona'n itzdi zan, Saint-Joseph zaarretxean, 1966-6-23'an.

IDAIZLE.—Ekintzarako baiño idazteko gar geiago zeukan. «Eskualduna» zuzendu zuen urteetan: ainbat lan eder ditu aseteroko onen orrietan. «Gazte», «Pan-Pin» eta «Etchea»-n ere nalko idatzi zuen. Euskal misalerako itzulpenak osotu zituen. 1962'tik aurrera Protestanteak nola jokatu zuten Euskalerrian eta Biarno'n azalduz Kondalra luze samarra oretzen zebillen, «Gure Herria»-n argitaratzeko asmuz.

1947'an, Eusko Jakintza'k Paris'en antolatu zuen VII'garren Batzarrera, beste izkuntzetako idaz-zatirik bikaiñenak nola euskeraz jarri adierazirik, txosten eder bat aurkeztu zuen. Eskoletan sartu nai zuen gure izkuntza, ta ortarako aurtxoak irakurtzen ikasi zezaten liburuxka polit bat argitara eman zigun.

Euskaltzalndikoa zan. Euskera ondo zekien: idazten eta azaltzen. Gramatika bat utzi zigun: *Grammaire Basque* (Tours, 1951). Mame'ren irarkolan. 212 orrialde. Lapur-napar izkelgiak darabiltza. Aditza labur eta poliki erakutsia du.

«Eztena», «Xokoko Artzaina» ta «Zephura» gezur-izenez firmatzen zituen bere idazlanak.

(Ikus *Gure Herria*, 1966, 4, 201 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 459 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 290 orr.; *Richeses de France*, 1956, 28'garren zenbakia, 131 orr.).

18.—PIARRE GARMENDIA GOIETXE (1872-1945)

Azkain'dik laster, Amotz eta Istillar bitartean datzan Sara lapurtar erritxoan sortua dugu gizaseme langille bizkor au. Idazle ta marrazkari, batera.

Mugaz andikoa izan arren, Bizkai'ko uriburuan bizi izan zan ia bizitza guztian. Teofilo Guiard'en laguntzaille izan zan Bilbao'n Udaletxeko Artxibu ta Liburutegian. Bizkai'ko Kultura Batzordeko idazkari izan zan, baita Oroigailu (monumentu) Saillarena ere. 1932'tik 1936'ra «Eusko Ikaskuntza»ren idazkaritzan Anjel Apralz'i lagundu zion. Gerrako urteak Sara'n igaro zituen.

1945-11-29'an il, eta Getxo'n eman zioten lurra aren gorpuari.

IDAZLE.—Aski idatzi zuen frantsesez, espalñeraz eta euskeraz. Ingles ere polito zekien. RIEV, «Gure Herria», BAP, «Yaldntza», «Bulletin du Musee Basque», Bilbao'ko «El Correo Español-El Pueblo Vasco», «L'Art populaire», «Anuario de Eusko-Folklore», «Eusko Ikaskuntzaren Deya», «Libro de Oro», «Vida Vasca» ta olako aldizkarietan azalduak ditu bere lanak. RIEV'en J. Urkixo'ren ondoan ekin zion, liburu berrien iritzi emate saillean batez ere. Bilbao'ko «El Correo Español-El Pueblo Vasco»-n, aldiz, astero gertatzen zuen, larunbat arratsaldetan, orrialde oso bat, euskal-galez beterik. «Dan-danak irakurtzen nebazan, eta etxean gorde, ebagi ta kuadernuetan ipinteko», diosku Berriotxoa Analak (*Atalak*, Zarautz, 1967, 76 orr.).

Euskeraz —«Sarako mendietan» (G. H., 1933, 319 orr.), «Uda-ikasaldiak» (EID, 1932, XIV, 30 orr.), ta abar— dotore idatzi zuen. Ona 1932'an Eusko Ikaskuntza'k, aurreko zazpi urteetan lez, eratu ta euld zituen udako ikasaldial buruz boro-bildu zuen artikulutik zatitxo au,

«Denek —dio—, ikasgai orren bear aundia dugu, zein mintzatzan, geienak trebe gera, balnan baktokak bere gisarat. Gure erdera denek ezagutzen dugu, zein behar bezala ikasten baltugu, eta ez gure Euskera, gure egiazko mintzaira, ura bethi its eta nahas ibiltzen dugu. Ez da sinhetsi behar. Euskera, hain es-

kas eta moldegaitza dela, uste dugun bezala. Euskaldunak bada-ki gogora ethortzen zalzkon gauzak, ederki adierazten, eta ezta Euskera bere bizitzan hain eskas eta labur nola bere eremuetan.

«Gaitz onen zuzentzeko, Eusko-Ikaskuntza, bethi erne, Euskerak behar dituen sendagailuez, ari da liburutto batzuen agertzen. Aurten atera dire yadanik bi, lehenbizikoa Aritmetika edo Zenbakiztia. Sal eroste eta bertze ainitz jakitasun behar ditugunak, euskeraz eginen ditugu, liburutto ori eskuetan artuz, gure gogoan sartzen badugu bere marnia, Bigarrenak du izena Lege Zarra eta Lege Berria edo liburu sainduetan diren lehenbiziko ikasgalak. Hori ere gure hitzkuntza sanoan ikasten badugu, gure biotzian barneago eta zolahago sartuko da.

«Uda ikasaldi orietan izanen dire bertze alnitz itzaldi, Erri Edestia, Errikuntza, Edestaurrea, Edestia eta bertze oro. Ika-saldi oyek, Maldagan, Altube, Aranzadi, Aita Donosti, Apraiz, Echegaray, Azcona, Ariztimuño, Aguirre, Odriozola, Eguren eta bertze alnitz jaun andere jakintsuak eginen dituzte».

Marrazkari bezela, ospe aundikoa zan. Egin zituen bere erakusaldiak ere. Beste askoren artean, berak apalngarriz jantzi zituen Oxobi'ren «Alegiak» (Baiona, 1926) eta F. Carpenter'en «Tales of a Basque grandmother» (New York, 1930).

Torres de Vizcaya (Madrid, 1946), iru ale, Jabier Ibarrek eta P. Garmendiak alkar-lanean egiñak daude.

(Ikus Ph. Veyrin, *Bulletin de Musee Basque*, 1931, VIII, 73 orr.; BAP, 1945, I, 441 orr.; J. Ybarra Berge, *La obra de Pedro de Garmendia*, Bilbao, 1950; Bitaña, *Atalak*, 75 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 264 orr.; A. M. Irujo, *Bol. Amer. E. V.*, 1951, 5'garrena, 46 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 603 orr.).

19.—DOMINGO SOUBELET (1897-1970)

Euskal idazle ta erri-maitale zintzua. P. Lafitte'k: «Hau zen gizona, herria zerbitzatu zuen apez eta izkribatzalle kartsua».

Azparne'n jaio zan 1897-8-10'an. Azparne'n bertan osotu zituen leen maillako ikasgoak; bigarren maillakoak Beloke'n eta apaizgorakoak Baiona'ko eliz-ikastetxe nagusian. 1924-7-13'an artu zuen apalztasuna, ta ondoren bi urtez Erroma'n osatu zizkigun Teologian Lizentzi-titulua eskuratzeko ikasketak.

Gero, P. Lafitte'k argitzen gaitunez, «bikario Donibane Lo-hizunen bi urte, bikario Baionako Katedrean bertze bi urte, 1930'etik 1937'ra jaun Apezpikuaren segretario, 1933'an oho-rezko kaionje izendatu zuten. Hamar urtez (1937-1947) Azka-rateko erretor, bere osasunagatik. Bertze hamar urte Hazparne-ko misionest. 1967'an Hiriburuko apez-xaharren etxerat bildu behartu zitzaion, bertan heriotzak eraman arte» (*Eusker*a, 1972, XVII, 286 orr.). Baiona'n itzali zan 1970-7-28'an.

EUSKAL IDAZLE.—Euskaltzaiña 1951'tik. Euskeraz sermola-ri bikain, lumaz ere ainbar lan eder egiña. Zazpi urtean —1930-1937— berak zuzendu ta moldatu zuen «Eskualduna» astero-koa; baita zazpi urte oietan «Gure Almanaka» jaigi ere. P. La-fitte'k: «Izkribatzaile bezala, pentsatzen zuen arrazoinekin be-har zirela nasaiki izldritu onak ager-erazi. Onak eta irakur-erre-xak. Hots, morala azkar bati zagon, teologia gorenerat bakan helduz, irakurtzaileari ez kausi beldurrez. Hazparneko eskuara zerabñkan doi-doia panpinaturik. Erran beharrak hitz gutiz emaiten zituen, labur eta motz, irakurlea ez zadin gd zirikorda luzegietan. Bainan hitzak beti xuxen heldu zitzaizkon, indarrez beterik» (*Loc. cit.* 287 orr.).

Euskeraz bederatzi liburu ager-erazi zituen, eta frantsesez bat. Ona:

- 1) *Petaïn Marechale Frantziaren aintzindaria* (Toulouse, 1941). 152 orrialde. Mariskal aundiaren bizitz-orriak.
- 2) *San Josep Jesusen aita ordekoa Mariaren espos laguna* (Baiona, 1942). 186 orrialde.
- 3) *Lurdeko Ama Birjina* (Baiona, 1942). 239 orrialde.
- 4) *Fatimako Ama Birjiña* (Baiona, 1945). 314 orrialde.

- 5) *Buloneko Ama Birjina.*
- 6) *Jesusen Bihotz sakratua* (Balona, 1946). 314 orrialde.
- 7) *Maria Goretti* (Balona, 1966).
- 8) *Jesus.*
- 9) *Iturriko. kalakariak* edo *Xuriker-egile kalakariekin.* An-
tzerki lana duzu.

10) *Le bienheureux François Dardan.*

«Eusko Jakintza»-n eta «Gernika»-n idatzi zuen batez ere.

Euskera arin errikoia darabil. Ona zatitxo au «Fatimako Ama Birjina» liburutik jasota. Gabaz argiakin egin oi dan ibil-
deuna alpatzen digu.

«Huna arratseko hamarrak. Ordu arte beilariak hartua duten lekuak iduri du phentze handi bat; jendea hart hunatka dabila, dena othoitz eta debozione. Hamar orenetan, jendez bethea den phentze horrek hartzen du begitarte berri. Han hemenka ilhun-
bea zñatuz agertzen dira argiño batzu. Hastean, bakar batzu, bainan laster ehunka eta milaka. Beila-trokiak iduri du sutan den phentze handi bat. Lurdeko argi andana deus ez da Fati-
makoaren aldean. Gogoak nekez asmatzen ahal du Fatimako beilaren parerik. Iduri luke gau salndu batek argitzen duela gure mundu dohakabea...

«Othoitzen eta kantuen gidari apez bat jarria da, mikrofonta delakoaren altzinean. Horri esker, apezaren boza heltzen da xo-
ko guzietarat eta denak arrapostu egiten diote, ortziaren pare den orro batean. Gauerdi hurbildua da proosinoa bururatzean. Orduan denek kantatzen dute Credoan. Berrehun edo hiru ehun mila Credoaren kantatzen, zerbeit bada! Gure sinheste saln-
duak ezagutzen ditu holako egunak. Elizaren hastapenean egi-
nak ziren fededunen bilkurak ez bide ziren kartsuago ez ederra-
go» (208 orr.).

(Ikus P. Lafitte, *Gure Herria*, 1970, eta *Euskera*, 1972, 286 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 159 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 178 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 494 orr.).

20.--BAITA ONDAR-MONDAR AUEK ERE

—*Raemaekers Olandi'ar margolari antzetsu erostarien mar-ku-ostoak* (Londres, 1916).

—*Zenbait Ichtorio chahar Arthochuriketarco* (Baiona, 1909). Lamalgnere baitan.

—*Laborarier, zonbeit kontseilu berechi ongarrri erremedio berriez* (Baiona). Dr. Goienetxe'rena. Lasserre irarkolan

—*Maiatza edo Mariaren Hilabethea* (Balona, 1932). Eskual-Herriko Erretor batek eginikakoa. «La Presse» baitan, 99 orr.

—*Lehenago Eskualdunak. Zer ziren* (Balona, 1889). Lasserre, Apezpikutegiko inprimatzallea baltan. 157 orr.

—*Michel Garicoits Dohatsua*. Bethamarreko Jesus-en Bihotz-Sakratuaren Apezen Kongragazioneari hastapena eman-dakona. Haren bizitzea, bertuteak eta mirakuluak (Pabe, 1923). Bettan Erdozainzi-Ethart aphezak, Ibarla'n erretor zenak, eskuaralat itzulia. 246 orr. «Imprimerie Catholique»-n irarria.

—*Heren-Ordenako Erreglaren Chehetasunak* (Toulouse, 1914). 206 orr. Aita Blalse Babaki (1873-1914) zanarena duzu, len ere II'garren liburuan, 231 orrialdean alpatua.

—*Kantika Ezpiritualak*. Missione, erretreta eta beste denboretako Aita Benediktanoek oral agerraziak (Balona, 1892). Lamalgnere, liburu egitzalllearen etxean. 32 orr.

—*Aurtxoen Kristau Ikastia* (Beljika, 1937). Gazteiz Elizbarrutiko *Kristau-Ikasbidea'ren* lenengo malla idantzekiz apalndu ta azalpenez eratua. De VLIT'enean. 32 orr.

—*Bai, pecatu da Liberalqueriya* (Baiona, 1888). Lassarre'nean. 48 orr.

—*Katichima Ttipia Baionako Diosesako* (Tours, 1943). Mame baltan. 60 orr.

—*Jesu-Kristo Gure Erregea da* (Baiona). A. Lamaigné-re'nean. 16 orr.

—*Doctrina Christiana*, Bayonaco Leoni Illustrissimo eta Reverendissimo Ipizpicuaren manuz bere **Diocesaco** eguina (Baiona, 1693). A. Fauvet'enean. 36 orr. Berriz ere (Baiona, 1803). Cluzeau'enean argitaratuak 18 orrialde zeuzkan.

—*Fransesen Imperadorearen eremuetaco eliza gucietacotz eguina den catichima*, J. J. Loison, Bayonaco Jaun aphezpicuaren manuz imprimatua. Haren **Diocesan** baxharrik iracatsia içateco (Baiona, 1807). Cluzeau'enean. 96 orr. G. Etxeberri'k egiña da, antza.

—*Doctrina Khiristia* haurren instruccionetaco, idequiric itcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati... (Baiona, 1812). Cluzeau'enean. Zuberoraz. 92 orr.

—*Dotrina cristiana edo Cristiñau dotrinea*, bere declaraciño laburragaz. Itaude ta erantzuerakgaz, Aita Asteteren librochotik (tokirik ez urterik gabe). 114 orr.

—*Bouqueta lore divinoena*, bereciac eta **Duronea** apheçac T. P. S. V. aita Materren liburuari emendatuac. Iduquicen di-tuelaric asthe guztico egunetaco Officioac, ungui confessatceco eta errecibitceco molde eder batequin bethiereco kalendarioarequin (Baiona, 1693). P. **Dussarrat'**enean. 461 orr.

—*Gudu Izpirituala*. Ceintan aurkhitzen baltire passioneen bentutzeco eta bicioen garaltzeco moyanic hoberenac eta segurenac N. I. **D.** (Noel Joseph **Duvergier**) **Donibane** Lohitxuco Yaun-Apheçac berriro escararat itzulia (Tolosa, 1750). J. F. **Robert'**enean. 355 orr. Berriz ere (Baiona, 1827). L. M. Cluzeau'enean argitaratu zuten.

—*Ebanyelio saindua san Marken arabera*, Lapurdico escuararat itzulia (Londres, 1868). W. Clowes'enean. 123 orr. Lau bider argitaratu zan: 1863, 1871, 1878 ta 1887'an.

—*Egunari berria edo conseillu oneco Aimanaca* (Paube, 1952). 32 orr.

—*Exercicio spirituala bere salbamendua eguiteco desira duten guiristiñoençat lagunça handitacoa* (Baiona, 1716). Gerora ere, Baiona'n eta Tolosa'n, 55 aldiz gutxienez argitaratua; 1716'tik 1907'ra ia urtero atera zuten: 1937 gn. urtean Balona'n azkenez. 321 orrialde. Ikus J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 101 orrialdean.

NOft ETA TOKI-IZENEN
AURKIBIDEA

- Abadio: 54, 55, 56.
Abando (J.): 76, 95.
Agen: 114.
Agerre (J.): 348, 372, 374.
Aglrre (T.): 7, 49, 62, 88, 201.
Agirre (J. M.): 8, 10, 11, 12, 35, 111, 150, 151, 166, 181, 228, 238, 247, 256, 272, 274, 276, 283, 284, 285, 286, 288, 289, 290, 293, 296, 297, 309.
Agirre (J. B.): 63.
Akesolo (L.): 94.
Albert Leon: 382, 421.
Albiztur: 186, 199, 200.
Albizuri (S.): 18, 122, 123.
Aldamin: 117.
Alegria (B.): 348, 365.
Alesfbes: 44, 85.
Almike: 122.
Altube (S.): 18, 47, 48, 49, 50, 53, 54, 120, 332, 397, 429.
Altuna (J.): 19.
Altuna (J. I.): 18, 87, 88, 89.
Altzaga (T.): 205.
Altzo: 45, 85, 138, 248, 249, 250,
Altzola (N.): 266.
Ametzaga (B.): 10.
Amonarriz (A.): 166, 176.
Andaluzia: 44, 252.
Antzuola: 215.
Afiibarro: 57, 58.
Apalategi: 146.
Apraiz (A.): 50, 320, 334, 429.
Apraiz (O.): 320, 336.
Araba: 102, 132, 134, 174, 334, 337.
Aralar: 77, 78.
Arana (J.): 10, 166, 274, 278, 303, 304, 308,
Aranalde (J. M.): 225, 226, 239.
Arana-Goiri (S.): 7, 40, 99, 284, 299.
Aranberri (K.): 259.
Aranburu (I.): 258.
Arantzadi (E.): 135.
Aranzabal (P.): 34.
Arantzazu: 118, 124, 175, 263, 298, 322.
Areatza (Billaro): 55.
Argentina: 57, 58, 81, 84, 105, 117, 121, 244, 265, 302, 350.
Armendaritz: 91.
Armintz: 73, 74, 75.
Aresti (G.): 170, 244, 245, 258, 259, 308, 310.
Aristimuño (J.): 10, 11, 12, 13, 18, 145, 149, 150, 151, 166, 187, 269, 271, 272, 273, 275, 278, 280, 287, 290, 294, 296, 297, 306, 307, 429.
Arostegi (L.): 150, 152, 153, 154, 155, 156.
Arozamena (J. M.): 202, 205.
Arostegt (P.): 311.
Arozena: 10.
Arotzarena (S.): 382, 426.
Arraba: 116.
Arrasate: 24, 28, 48, 242, 247, 256, 272, 309.
Arrese (E.): 179, 240, 274, 291, 295, 309.
Arrese-Beitia: 8.
Arriandiaga (I.): 28, 35, 36, 37, 39, 40, 41, 42, 81, 89, 99, 123, 142.

- Arrltola (E.): 21.
 Arrizabalaga (L. M.): 268.
 Arrlzubleta (M.): 10.
 Arrue (A.): 307, 310.
 Arrueta: 96.
 Arrutza (M.): 18, 78, 90, 91, 92, 95.
 Arsuaga (A.): 300.
 Artalarrea (J.): 20,
 Artetxe (J.): 116, 171, 201, 216, 218,
 242, 272, 415, 418, 419.
 Artetxe (I.): 166.
 Artola (P.): 210, 212, 214, 239, 310.
 Artxonko (P.): 348, 365.
 Artzeluz (A.): 256, 257.
 Astigarraga: 217,
 Artikutza: 202, 263, 265.
 Axular (P.): 63, 287, 415.
 Azkoitia: 170, 242, 245, 258, 259.
 Azkue (R. M.): 7, 18, 26, 39, 40, 50,
 52, 53, 54, 71, 90, 93, 99, 120, 127,
 129, 140, 197, 221, 225, 241, 242, 281,
 295, 298, 325, 329, 342, 297, 404.
 Azpeltia: 170, 242, 244.
 Azpeitia (J.): 99, 209.
 Badaran: 61.
 Balona: 117, 221, 244, 359, 422, 424,
 427.
 Bahr (G.): 298.
 Balmaseda: 35, 80, 105, 141.
 Balzola (P.): 25, 33.
 Barbier (J.): 382, 413, 414, 416, 418,
 419.
 Bargundia: 56.
 Barrena (P. R.): 166, 265, 280.
 Barriola (A.): 166, 201, 202, 203, 205,
 Barrutia (I.): 191, 192.
 Bartolome (Prai): 63.
 Basalgo: 148.
 Basarri (I. E.): 274, 310.
 Basauri: 61.
 Basurko (J. I.): 210, 212, 213.
 Begofia: 20, 43, 46, 98, 101, 113, 114,
 115, 138, 191, 194, 285.
 Belaustegigoitla <F.): 70, 120.
 Beraza (J. L.): 263.
 Bergara: 127, 187, 188, 196, 505, 260.
 Bergili: 21, 234, 235.
 Bermeo: 118, 122, 123, 124, 127, 129,
 139, 140, 178.
 Berriz: 20, 133.
 Biarrita: 69.
 Bidania: 186.
 Bllbao: 37, 39, 51, 52, 53, 57, 64, 69,
 70, 74, 76, 77, 79, 80, 88, 90, 92, 93,
 94, 99, 108, 109, 113, 117, 127, 131,
 136, 139, 146, 147, 180, 196, 200,
 204, 205, 225, 229, 235, 242, 243, 258,
 359.
 Bilbao (A.): 73.
 Bilintx: 267.
 Bizkaia: 8, 23, 25, 26, 44, 57, 61, 62,
 65, 70, 71, 73, 76, 86, 88, 102, 108,
 116, 120, 138, 145, 147, 166, 174, 225,
 337.
 Bizkarra: 55.
 Bolibar (S.): 116.
 Boroa: 23.
 Buenos Aires: 117, 118, 121, 122, 210,
 221, 250.
 Buffon: 95.
 Burgo de Osmar 101.
 Burgos: 44, 113, 114, 268.
 Butroe: 195.
 Bustlntza (B.): 96.
 Derio: 95, 100.
 Deustu: 70, 335.
 Dima: 56, 57.
 Donibane Garazi: 91, 413, 415, 419.
 Dornaku (A. Bera): 348, 355, 357, 359.
 Donostia: 25, 32, 33, 60, 74, 87, 102,
 138, 168, 170, 175, 180, 189, 191, 196,
 197, 200, 201, 202, 204, 205, 209, 221,
 241, 242, 243, 254, 260, 263, 268, 272,
 282, 299, 337.
 Duhour (P.): 382, 425.
 Durango: 29, 127, 146, 149,
 Egileor (M.): 119, 120.
 Efeso: 115.
 Egino (J.): 208, 209.
 Eguzkitza (J. B.): 18, 20, 21, 22, 23,
 24, 27, 28, 29, 33, 61, 65, 295, 397.
 Eibar: 61, 135, 170, 190, 191, 194, 196,
 208.

Eizaglrrre: (J.): 166.
 EleizalUe (F.): 382, 384, 385, 387.
 Eleizalde (K.): 69, 99, 120, 325.
 Eleizegi (K.): 189.
 Elgezabal (K.): 142.
 Elizondo (J.): 179.
 Elortza (J.): 50, 174, 175.
 Elurmendi: 166.
 Elzo (J.): 216, 199, 201, 216, 217, 218.
 Eribeita (I.): 99, 147.
 Enbeita (K.): 10, 18, 19, 99, 131, 132, 133, 134, 135, 136, 151.
 Endaia: 211, 215, 264.
 Epelde (L.): 258.
 Erkiaga (E.): 10, 18, 90, 92, 93, 239, 310.
 Ermua: 29.
 Ernetá (J. M.): 364.
 Errazti (K.): 18, 38, 98, 99, 100, 120, 217, 238.
 Errenderi: 99, 215, 265, 266, 276.
 Errenteria (G.): 136.
 Erroma: 36, 114, 117, 206, 207, 250, 424.
 Eskoriaza: 191.
 Espartza (E.): 369.
 Etxabarri (G.): 18, 99.
 Etxaide (I. M.): 195, 197.
 Etxaniz (N.): 239, 332.
 Etxeberria (J. P.): 370.
 Etxeberria (P.): 10, 255, 274, 321, 332.
 Etxegarai (K.): 8, 26, 50, 171, 173, 201, 429.
 Etxegarai (B.): 168, 171, 172, 174.
 Etxeita (J. M.): 362.
 Etxenagusia (K.): 28, 92.
 Etxepare (J.): 382, 387, 389, 391, 392.
 Etxepare (P.): 382, 410, 411.
 Ezenarro (J.): 214, 216.

 Fagoaga (B.): 348, 375.
 Friburgo: 57.

 Galdakano: 19.
 Galdos (E.): 206, 208, 209.
 Gallastegi (Eli): 119, 120.
 Ganboa (J.): 117.
 Gandiaga (B.): 310.

 Ganekogorta: 108.
 Garitaonandia <B.): 18, 30, 31, 32, 34, 35, 168, 199.
 Garmendia (P.): 382, 423.
 Garriga (G.): 18, 37, 80, 81, 82, 83.
 Garro (B. M.): 107, 108, 109, 111, 112.
 Gartzia Lorka (F.): 150.
 Gaubeka (B.): 24.
 Gautegiz Artia: 122.
 Gazteiz: 20, 21, 55, 61, 67, 139, 148, 150, 167, 175, 189, 260, 270, 319, 336.
 Gavel (H.): 50, 401.
 Gemika: 48, 50, 51, 53, 69, 94, 124, 131, 133, 136, 148, 171, 175.
 Gerra (J. K.): 197.
 Gesala (J. B.): 194.
 Gipuzkoa: 8, 25, 34, 57, 62, 134, 138, 165, 166, 174, 182, 195, 253, 337.
 Goenaga (J.): 34.
 Goethe: 39.
 Goiaz: 186.
 Goikoetxea (I.): 10, 234.
 Goiti (L.): 67.
 Gonzalez (L.): 119, 120.
 Gorbea: 61, 97, 108, 116, 119.
 Gorostiaga (E.): 26.
 Gorrotxategi: 85.
 Gortazar (L.): 137.

 Ibartutxi (J. G.): 18, 60, 62, 63, 65, 70, 120, 332.
 Ibifiagabeitia (A.): 100, 146, 182, 183, 185, 228, 229, 230, 239, 263.
 Idiazabal: 210.
 Igirifiao: 117.
 Intza (D.): 34, 54, 60, 201.
 Intzagarai (E.): 166, 167, 168, 170, 174.
 Intxorta: 148.
 Ipiñaburu: 44.
 Irafzoz (P.): 58, 309, 310.
 Iraola (B.): 199, 201.
 Irastortza: 50.
 Irazusta: 166, 182, 183, 184, 185.
 Irigarai (A.): 130, 297, 333, 353, 384, 385.
 Iruña: 118, 175, 191, 250, 263, 264, 373.
 Irure: 29, 31, 34.

- Iruxo (A. M.): 120, 121, 136.
 Itali: 114.
 Itziar (M.): 148, 150.
 Itxina: 116.
 Iturralde ta Suit: 89.
 Ithurriague (J.): 410.
 Iturria (J.): 362.
 Iturriotz (P.): 252.
 Iurre: 58, 75.
- Jak Kortajarena (T.): 10, 151, 276.
 Jauregi (K.): 10, 187, 192, 275, 291, 295, 308, 309, 310.
 Jauregi (G.): 165, 319, 334, 337, 338, 340, 341, 342.
 Jauregi (L.): 320, 333, 334.
 Jauregiberri (J.): 382, 412.
 Juanmartiñena (J. M.): 361.
- Kadiz: 45.
 Kanbo: 254.
 Kanpanzar: 148.
 Kanpion (A.): 120, 136, 201, 323, 325,
 Karraskedo-Olarra (J.): 176.
 Karrera (J.): 168, 217.
 Kikeron: 102.
 Kirikiño: 78, 79, 91, 92, 99, 120, 136, 226, 247.
 Kobrezes: 105.
 Kordotoa: 81.
 Kortazar: 105.
 Krutwig (P.): 92.
- Labaien (A. M.): 10, 176, 224, 236, 239, 240, 241, 276, 299.
 Lacombe (G.): 382, 403, 404.
 Lafitte (P.): 185, 332, 388, 389, 390, 391, 392, 393, 400, 403, 414, 415, 420, 429.
 Lhande (P.): 392, 393, 394, 395, 396, 397, 398, 400, 401.
 Lapurdi: 59.
 Larrabeitia (E.): 19.
 Larrakoetxea (I.): 113, 116, 332, 339.
 Larramendi (I.): 348, 353, 354.
 Larrañaga (P.): 61, 189, 190.
 Larraona: 113.
- Larrea: 20, 21, 43, 44, 45, 85, 86, 101, 113, 138, 149, 238, 332, 334, 337, 338, 373.
 Larrinaga (J. R.): 18.
 Lasa (K.): 201.
 Lassalle (L.): 382, 383, 394.
 Latierro (D): 199, 311.
 Laukinitz: 18, 145, 149.
 Lauzirika (J.): 55.
 Lazkoz (J.): 348, 371, 372.
 Legazpia: 298.
 Legoaldi: 117.
 Leitz: 227.
 Lekanda: 116.
 Lekarotz: 221, 222, 223, 248, 250, 251, 351, 356, 361.
 Lekeitio: 21, 52, 68, 69, 146, 239.
 Lekuona (M.): 22, 28, 60, 199, 213, 237, 239, 325, 328, 329, 332, 416.
 Lemona: 21, 22.
 Lemonitz: 73.
 Leon (L.): 405, 407, 409.
 Lete (J.): 188, 189.
 Lima: 183.
 Loidi (P.): 10, 151, 276.
 Loiola: 26, 146, 149, 175, 206, 225, 268, 331.
 Lujua: 19.
- Mauariaga (L.): 18, 118.
 Madrid: 36, 54, 171, 182, 209, 217, 218, 221, 260, 264, 284, 334.
 Maidagan (G.): 241, 242, 429.
 Manterola (G.): 63, 70, 120, 337.
 Maflaria: 67, 68, 96, 147.
 Mao-Tse-Tung: 58.
 Markiegi (J.): 281, 283.
 Markiegi (P.): 301, 302.
 Markina: 20, 43, 44, 85, 101, 117, 138, 191, 267.
 Marneffe: 146, 208.
 Marin: 61.
 Martija (J. A.): 310.
 Maruri: 18, 73, 75.
 Mathieu (K, J.): 382, 423.
 Mendiburu (S.): 63.
 Menendez Pidal: 50.
 Meyer-Lubke: 50.

- Mitxelena (L.): 41, 66, 228, 229, 238, 328, 330, 333, 402.
- Mokoroa: 54.
- Montekarlo: 119.
- Montpeller: 114.
- Mourlane Mitxelena (P.): 264.
- Mundaka: 107, 108, 109, 111, 122.
- Mungla: 145.
- Munitibar: 148.
- Murelaga: 145.
- Murieta: 348.
- Murua (G.): 248.
- Muxika: 18, 131, 132, 134.
- Muxika (E.): 186, 199.
- Muxika (J.): 199, 200.
- Muxika (P.): 213, 321, 332, 342.
- Muxika (G.): 72, 168, 217, 218.
- Muxika Urrestarazu: 55, 271,
- Nabarniz: 141.
- Nafarroa: 37, 57, 73, 76, 77, 85, 102, 227, 347, 348, 366.
- Navarro Tomas: 50.
- Nuñez (I. K.): 299.
- Oar-Arteta (J. A.): 73.
- Oiardo: 55.
- Oiartzabal (M.): 166, 224, 239, 244, 245, 246, 271, 323, 324.
- Oiz: 85.
- Oka: 131.
- Olabeaga (I.): 212.
- Olabide (R.): 112, 116, 245, 295, 319, 321, 323, 324, 327, 329, 330, 332, 333, 334.
- Olaizola (J.): 202.
- Olano (D.): 248, 249.
- Olano (A.): 250, 251, 309.
- Olazaran (I.): 348, 352.
- Oleaga (N.): 70, 71, 72, 92.
- Omaetxebarria (I.): 29.
- Onaindla (A.): 280.
- Onaindia (S.): 10, 75, 129, 166, 238, 239.
- Ondarribia: 57, 73, 74, 170, 201, 248, 259, 303, 304, 358.
- Ondarroa: 62.
- Oña: 34, 146, 149.
- Oñati: 119, 120, 174, 178, 264.
- Orati: 21, 70, 296, 334.
- Orexa: 224, 226, 235, 239.
- Orduña: 29, 117, 122, 322, 325, 361.
- Ormaetxea (N.): 8, 10, 11, 24, 28, 35, 42, 60, 64, 65, 111, 112, 129, 147, 150, 151, 166, 224, 225, 226, 227, 228, 229, 233, 234, 237, 238, 239, 272, 276, 281, 283, 291, 294, 307, 309, 319, 325, 326, 328, 329, 330, 332, 347.
- Ormaetxea (K.): 100, 102, 103.
- Ortuzar (R.): 18.
- Oskar Wilde: 88.
- Otaño (P. M.): 212, 267.
- Otermln (A.): 364.
- Oxobi: 125.
- Pabe: 50.
- Pagadizabal: 10.
- Pagasarri: 108.
- Plazet: 148.
- Paris: 8, 114.
- Peralta (Z.): 360.
- Perea (P. X.): 96.
- Perez («Arbelaitz»): 366, 367, 368.
- Pertika (J. M.): 87.
- Petit Castelet: 114.
- Pierola (R. P.): 21.
- Saibigain: 55.
- Salamanka: 30.
- Sarda y Salvany: 23.
- Sarasola (J.): 42, 66.
- Satrustegi (J. M.): 349.
- Segovia: 81.
- Segura: 170, 181.
- Soloeta: 18, 56, 59.
- Soraluze: 188, 189.
- Sota (R.): 135.
- Sota (M.): 89.
- Soubelet (D.): 382, 429.
- Tapia-Perurena: 10, 151.
- Tolosa: 124, 176, 177, 178, 182, 183, 186, 187, 226, 238, 240, 263, 269, 284, 285, 291, 359, 399.
- Torres (A. Murieta): 34S, 349, 351.

Tournier (A.): 382, 422.
 Trueba (A.): 93, 94, 95.
 Txile: 57, 85, 226.
 Txina: 57, 58.
 Txorierrri: 121.
 Xemeln: 18, 77, 78, 80, 97.

 Ubidea: 61, 119.
 Udana: 298.
 Ugalde (P.): 247.
 Ugarte (M.): 212.
 Ugartetxea (T.): 61.
 Uhlenbeck: 50.
 Urkiaga (E.): 8, 10, 145, 146, 147, 148,
 149, 150, 151, 153, 154, 155, 156, 238,
 274, 276, 291, 295.
 Urkidi: 10.
 Urkixo (J.): 57., 92, 120, 123, 167, 399,
 404, 428.
 UrRiola: 48, 55, 56, 67.
 Uranga (J.): 34.
 Uriarte (J. M.): 18, 43.
 Urriolabeitia (A.): 68, 69, 70, 120.
 Urreta (M.): 135, 166, 180, 181, 240,
 241, 256, 272.
 Urruña: 211.
 Urrutia (G.): 37, 39, 41, 81, 141, 142.

 Yurre: 26, 305, 308, 310, 363,

 Xorho «Espil»: 382, 425.

 Villasante (L.): 29, 39, 41, 49, 53, 65,
 111, 130, 341.

 Vifia del Mar: 101.

 Zabala (P.): 260.
 Zabala: 24,
 Zabala <A.): 195, 265, 266, 267.
 Zabaleta (J.): 266, 267.
 Zabala-Arana: 37, 81, 140, 141, 142.
 Zaitegi (J.): 10, 11, 12, 15, 18, 112,
 146, 147, 150, 236, 239, 269, 274, 283,
 297, 308, 332.
 Zaldibar: 29, 30, 31, 34.
 Zamora: 30, 31.
 Zamudio: 91.
 Zaragoza: 71, 209,
 Zarautz: 194, 195, 284.
 Zamarripa (P.): 18, 70, 120, 126, 128,
 129, 130.
 Zarate (M.): 20, 29, 42, 43, 46, 53, 65,
 95, 112, 126, 130, 146.
 Zatarain (A.): 168.
 Zاراia: 304.
 Zeanuri: 71, 104, 105, 113, 137.
 Zegama: 205.
 Zelaia (M.): 20.
 Zestafe: 61.
 Zinkunegi (J.): 254, 255.
 Zornotza: 69, 86, 105.
 Zubimendi (J.): 254, 255.
 Zugasti (A.): 276.
 Zulaika (A. Donosti): 220, 221, 222,
 Zumada: 172, 173, 174, 256, 299.
 Zumelaga: 96.

AURKIBIDEA

Aurritz	7
---------------	---

BIZKAIA (1910-1935)

Laburpen	17
Eustakio Larrabeiti ta Trabudua	19
Jazinto Artalarrea Gorrotxategi	20
Juan Bautista Eguzkitza Meabe	20
Biktor Garitaonandia Ariño	29
Imanol Arriandiaga Gorozika	35
Aita Martin Uriarte Odriozola	43
Sebero Migel Altube Lertxundi	47
Zakarias Bizkarra Arana	54
Benito Bizkarra Arana	55
Satumino Soloeta Iturrondobeitia	56
Jon Gurutz Ibargutxi Agirre	60
Leonardo Zugazagoitia	67
Amantzi Eraklio Urriolabeitia Iban-ola	68
Nazario Oleaga Muguruza	70
Alejandro Bilbao Larrazabal	73
Juan Abando Urrexola	76
Zeferin Xemein Lanbarri	77
Gabino Garriga	80
Zelestino Gorrotxategi Arizmendi-Arrieta	85
Juan Martin Pertika Ezeizabarrena	87

Joseba Altuna Aldasoro	87
Arrutza ta Egia'tar Mikel	90
Basilia Bustintza Ozerin	96
Errazti Saratxo'tar Joseba Mirena	98
Kepa Ormaetxea Aldana	100
Bizente Etxezarraga Artiñano	104
Bernardo Maria Garro Basterretxea	107
Alejandro Larrakoetxea Agirrezabala	113
Joakin Ganboa	117
Aingeru Madariaga Basterretxea	118
Luis Gonzalez Etxabarri	119
Serafin Albizuri Otzamiz	122
Juan Ruiz Larrinaga Larrañaga	124
Paulo Zamarripa Uraga	126
Kepa Enbeita Erretereria	131
Leon Gortazar Intxaurre	137
Robustiano Ortuzar Legarreta	139
Jose Zabala-Arana	140
Estepan Urkiaga Basaratz	145
Batu auek ere	157

GIPUZKOA (1910-1935)

Laburpen	165
Erramun Intzagarai Bastanarena	167
Bonifazio Etxegarai Korta	171
Julian Elortza Aizpuru	174
Andres Amonarriz	176
Jose Eizagirre Aiestaran	178
Mikel Urreta Etxebeste	180
Jose Antonio Irazusta Muñoa	182
Emiliano Muxika Laskibar	186
Juan Jose Lete Oregi	188
Polikarpo Larrañaga Aranguren	189
Isidro Barrutia Zuazua	191

Juan Bautista Gesala Beobide	194
Iñazio Maria Etxaide Lizasoain	195
Juan Muxika Laskibar	199
Kaio Lasa Zala	200
Juan Abelino Barriola Aizpurua	201
Jorje Agirre	205
Erromualdo Galdos Baertel	206
Manuel Zelaia Zendoia	209
Rufino Arregi	210
Juan Basurko Ansola	210
Juan Ezenarro Mendia	214
Jose Elzo Azpiazu	216
Jose Gontzalo Zulaika Arregi	220
Nikolas Ormaetxea Pellejero	224
Manuel Urreta Amiano	240
Gregorio Maidagan Muxika	241
Inazio Artetxe Aranburu	242
Martin Oiartzabal Oiartzabal	244
Ugarde Oxinaga'tar Peli	247
Gabino Murua Izagirre	248
Dionisio Olano Galarraga	248
Anizeto Olano Galarraga	250
Fermin Iturriotz	252
Jose Zubimendi	254
Andres Artzeluz	256
Ifazio Aranburu Mendizabal	258
Luis Epelde Epelde	258
Karlos Aranbarri Mendizabal	259
Tomas Etxeberria Elosegi	259
Pedro Zabala	260
Eliz-izlariak Prantziskotarren artean	261
Jose Luis Beraza Legiñena	263
Pedro Mourlane Mitxelena	264
Polikarpo Ramon Barrena Ezenarro	265
Juan Zabaleta Lekuona	265
Luis Maria Arrizabalaga	268

Pablo Artxanko	365
Blas Alegria	365
Joakin Eugenio Perez Senosiain Otxoteko	366
Eladio Espartza Aginaga	369
Joseba P. Etxeberria	370
Jabier Lazkoz Biguria	371
Jose Agerre Santesteban	372
Blas Fagoaga	375
Eta beste auek	376

MUGAZ ANDIK (1910-1935)

Laburpen	381
Leon Lassalle	383
Joanes Elizalde	384
Jean Etxepare Bidegorri	388
Pierre Lhande Hegi	394
Henri Gavel	401
Georges Lacombe	403
Leon Leon	406
Jean Ithurriague	410
Pierre Erxepare	410
Jean Jauregiberri	412
Jean Barbier	413
Albert Leon	421
Txarles Gabriel (André) Tournier	422
Klement-Josep Mathieu	423
Xorho «Espil» Abata	425
Pierre Duhour	425
Sauveur Arotzarena	426
Piarres Garmendia Goietxe	427
Domingo Soubelet	429
Baita ondar-mondar auek ere	432

